

Jakintza-arloa: Hizkuntzalaritza

Sakana erdialdeko euskara

Egilea: **JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON**

Urtea: 2001

Zuzendaria: PATXI GOENAGA SARASOLA

Unibertsitatea: UPV/EHU

ISBN: 978-84-8438-140-2

Hitzaurrea

Tesi lan honen helburu nagusia Bonaparte Printzeak azterketa esparruan ezarritako mugak berrikusi eta ondorioak ateratzea izan da, era honetan bertako azpieuskalkiaren eremua zehaztu eta ondokoekin konparatu ahal izan delarik.

Eta helburu nagusi honetaz gain edo, beste modu batean esateko, helburu hau lortzeko ezinbestekoak diren beste hiru eginbehar zehatz ere burutu dira:

-Sakana erdialdeko herrietako hizkeren azterketa morfo-fonologikoa eta sintaktikoa gauzatu.

-Hizkera horietako lexikoa jaso.

-Herri hauekako euskarari buruzko materialaren berri eman eta aztertu haxe ondoren.

Aukeratutako eremuaren berezitasuna eta garrantzia begibistakoa da, duela gutxi arte bi euskalki edo dialekto desberdinetan banatua egon baita testu ofizialetan behintzat:

-Gipuzkera: Etxarri Aranatz eta Ergoiena (Lizarraga, Dorrao, Unanu).

-Ipar goi-nafarrera: Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Uhartea.

Horrela, beraz, buru belarri ekin zaio isoglosa nagusiak non dauden zehazteari, eta baita ondoko hizkera eta euskalkiekin (Burunda, Goierri, Ultzama, Basaburua, Larraun, ...) dituen harremanak aztertzeari ere.

Azterketa honetan, beraz, aipatu esparruko hizkeraren deskribapen orokorra egiteari eman diogu garrantzi handia. Deskribapen hau gauzatzeko, zuzeneko behaketaz gain (inkestak, galde sortak, grabaketak,...), gure eskuetan edukitzeko aukera izan dugun eremuari buruz argitaratutako materiala ere kontuan hartu dugu, jakina. Eta honetatik guztiatik abiatuz ekin diogu inguruko hizkera eta euskalkiekiko alderaketari, bukaeran ondorioak ateratzeko.

JOSE LUIS ERDOZIA MAULEON

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA

PATXI GOENAGA MENDIZABAL

doktore jaunak zuzendutako

Euskal Filologian doktoregoa erdiesteko tesia.

Euskal Filologia saila

Euskal Herriko Unibertsitatea

Gasteiz

2001

AURKIBIDEA

0. SARRERA.....	11
1. LANAREN ESPARRUA ETA OINARRI TEORIKOAK.....	17
1.1. Esparruaren aurkezpen geodemografiko eta soziolinguistikoa.....	17
1.1.1. Sakana Erdialdea: kokapen geografikoa eta esparruaren zehaztapena.....	17
1.1.2. Biztanlegoa.....	19
1.1.3. Euskararen egoera azken hogeita hamar urteotan.....	20
1.2. Oinarri dialektologikoak.....	29
1.2.1. Zer da dialektologia? Zer hizkuntz geografia?.....	29
1.2.2. Hizkuntz geografiaren metodologia: datuen bilketa, informatzaileen hau- taketa.....	32
1.2.2.1. Datuen bilketa.....	32
1.2.2.2. Informatzaileak.....	40
1.2.3. Continuum geolektalak.....	45
1.2.3.1. Hizkuntza, dialektoa, barietatea, azentoa.....	46
1.2.3.2. Hizkuntz ezberdintasun metagarriak: continuum geolektalak.....	47
1.2.4. Mugak: isoglosak, transizioak.....	49
1.2.4.1. Isoglosak.....	49
1.2.4.2. Transizioak.....	50
1.2.5. Oharmenezko dialektologia.....	53
2. EZAUGARRI FONETIKO-FONOLOGIKOAK.....	61
2.1. Bokalismoa.....	61
2.1.1. Sakana erdialdeko bokalen alofono edo hizketa soinuak.....	66
2.1.1.1. /i/ fonema bokalikoa.....	66
a) Deskribapena.....	66
b) Burutzapen fonetikoak.....	66
2.1.1.2. /e/ fonema bokalikoa.....	68
a) Deskribapena.....	68
b) Burutzapen fonetikoak.....	68
2.1.1.3. /a/ fonema bokalikoa.....	74
a) Deskribapena.....	74
b) Burutzapen fonetikoak.....	74
2.1.1.4. /o/ fonema bokalikoa.....	75
a) Deskribapena.....	75
b) Burutzapen fonetikoak.....	75
2.1.1.5. /u/ fonema bokalikoa.....	80
a) Deskribapena.....	80

b) Burutzapen fonetikoak.	80
2.1.2. Diptongoak eta hiatoak.	83
2.1.2.1. Diptongoak.	83
a) Beheranzko diptongoak.	84
b) Goranzko diptongoak.	100
2.1.2.2. Hiatoak.	108
2.1.3. Asimilazioak.	110
2.1.3.1. Asimilazio aurrerakaria.	112
2.1.3.2. Asimilazio atzerakaria.	122
2.1.4. Asimilazioa gauzaten ez den inguruneak.	124
2.1.5. Bokal geminatuak.	127
2.1.5.1. Etimologikoki hasperenketaz banaturiko bi bokal berdinen inguru- nean sortutako geminazioa eta ondorengo bokal laburdura.	128
2.1.5.2. Bokal berdinen arteko herskari ahostun, /b,d,g/, eta dardarkari xa- murraren erorketak sortutako geminazioa.	129
2.1.5.3. Bokal desberdinen arteko kontsonanteen erorketak sortutako era- bateko asimilazioa eta, ondorioz, bokal geminazioa.	131
a) Asimilazio aurrerakari edo progresiboa.	131
b) Asimilazio atzerakari edo “regresiboa”.	133
2.1.6. Aferesia.	136
2.1.6.1. Azterketa eremu osoan zabalduak.	136
2.1.6.2. Hedapen murriztagokoak.	137
2.1.7. Sinkopa.	137
a) Erortzen den bokala dardarkari anitzaren eta herskari baten artean dago- enean.	138
b) Erortzen den bokala herskari eta dardarkari xamurraren artean dagoene- an.	138
c) Beste inguruneak.	139
2.1.8. Apokopea.	140
2.1.9. Metatesia.	140
2.1.10. Bokal eransketak.	142
a) Bokal epentesiak.	142
b) Bokal protetikoak.	143
c) Paragoea.	143
2.1.11. Bokal errepikapena.	144
2.2. Kontsonantismoa.	145
2.2.1. Herskari ahokariak.	148
2.2.1.1. Deskribapena.	148

2.2.1.2. Fonema herskarien burutzapenak.	148
a) /u/ bokalak eragindako /b/ epenetikoa.	150
b) Hitz hasieran gertatzen diren txandaketak.	150
c) Hitz erdian gertatzen diren txandaketak.	154
d) Hitz bukaeran.	157
e) Bokal arteko herskarien galerak.	157
f) Herskari ahoskabeak hitz bukaeran.	161
g) Beste txandaketa batzuk.	162
2.2.2. Sudurkariak.	164
2.2.2.1. Deskribapena.	164
2.2.2.2. Hiru fonemei dagozkien burutzapenak.	164
a) /n/ egoera inplosiboan dagoenean gertatzen direnak.	164
b) /i/-ren ondorengo /n/-ren palatalizazio edo bustidura sistemati- koa, azterketa esparruko herri guztietan.	165
c) /n/ → /y/ / i (j) ____	165
d) /n/-ren galera.	166
e) /n/-ren eransketa hitz bukaeran.	167
f) /-on/-ez bukatutako mailegu berrietan mantendu egiten da /n/.	167
2.2.3. Txistukariak.	167
2.2.3.1. Deskribapena.	167
2.2.3.2. Fonema txistukarien burutzapenak.	168
a) /s/ fonema.	168
b) /ʃ/ fonema.	170
c) /ʒ/ fonema.	172
d) /ç/ fonema.	175
e) /c/ fonema.	176
f) /ç/ fonema.	177
2.2.4. Albokariak.	180
2.2.4.1. Deskribapena.	180
2.2.4.2. Fonema albokarien burutzapenak.	181
a) /l/ fonema.	181
b) /ʎ/ fonema.	181
c) Alternantzia edo txandaketak.	183
d) “Muta cum liquida” delakoaren joera desberdinak.	184
e) /pl/ eta /fl/ kontsonante taldeak.	184
2.2.5. Igurzkari autonomoak.	185
2.2.5.1. /x/ fonema.	185
2.2.5.2. /j/ fonema.	186

a) e- > y / _d,g,r, + V.	186
b) -h,g,d,n- > y / i _V.	187
c) Aditzetako singularreko 2. pertsona.	188
d) -i + -a > -iye / -iya.	188
2.2.5.3. /f/ fonema.	189
2.2.5.4. Alternantzia edo txandaketak.	191
a) j/f txandaketak.	191
b) /x/ eta txistukari igurzkarrien arteko txandaketa.	192
c) j/k alternantzia.	192
2.2.6. Dardarkariak.	192
2.2.6.1. /r/ dardarkari xamurra.	192
2.2.6.2. /r̄/ dardarkari azkarra.	195
2.2.7. Sabaikaripen edo palatalizazioa.	198
2.2.8. Errotazismoa.	200
3. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK.	203
3.1. Izenordainak.	203
3.1.1. Pertsona izenordain arruntak.	203
3.1.2. Forma indartuak.	204
3.1.3. Izenordain mugagabeak.	205
3.1.4. Erakusleak.	207
3.1.4.1. Erakusleen taulak.	209
3.1.5. Galdetzaileak.	211
3.2. Determinatzaileak.	213
3.2.1. Erakusleak.	213
3.2.2. Zenbatzaileak.	213
3.2.2.1. Zenbatzaile zehaztuak.	213
3.2.2.2. Zenbatzaile zehaztugabeak.	215
a) <i>Batzuk, -(r)en bat/batzuk.</i>	215
b) <i>Zenbeitt.</i>	216
c) <i>Asko.</i>	216
d) <i>Aunbeste, e(i)nbeste.</i>	217
e) <i>Aliaate eta bat-ez osaturikoak.</i>	217
f) <i>Izugerri, izugarri.</i>	218
g) <i>Beste batzuk.</i>	218
3.2.2.3. Zenbatzaile orokorrak.	219
3.3. Deklinabidea.	220
3.3.1. Mugagabea.	220
a) Izen berezikiak.	220

b) <i>Zer eta zenbat</i> galdetzaileekin.	220
c) Osagarri predikatiboak.	221
d) Esapide bereziak.	221
e) Beste batzuk.	222
3.3.2. Plural hurbila.	222
3.3.3. Sinkretismoak.	222
3.3.4. <i>-a</i> organikoa galtzen duten hitzen zerrenda.	223
3.3.5. Deklinabide taulak.	224
3.3.6. Deklinabide-kasuak.	225
3.3.6.1. Absolutiboa.	225
3.3.6.2. Ergatiboa.	230
3.3.6.3. Datiboa.	233
3.3.6.4. Edute genitiboa.	236
3.3.6.5. Partitiboa.	240
3.3.6.6. Soziatiboa.	241
a) Mugagabea.	242
b) Mugatu singularra.	243
c) Mugatu plurala.	244
d) Funtzioa eta erabilera.	245
3.3.6.7. Instrumentala.	246
3.3.6.8. Destinatiboa.	247
3.3.6.9. Prolatiboa.	249
3.3.6.10. Motibatiboa.	250
3.3.6.11. Inesiboa.	251
3.3.6.12. Leku-genitiboa.	255
3.3.6.13. Adlatiboa.	258
3.3.6.14. Adlatibo bide zuzenezkoa.	260
3.3.6.15. Adlatibo bukatuzkoa.	260
3.3.6.16. Ablatiboa.	261
3.4. Posposizioak.	263
3.5. Izenondoak graduatu edo mailakatzeko partikula eta atzizkiak.	269
3.5.1. <i>Oso, asko</i> eta <i>demontrien/an</i>	269
3.5.2. <i>-en</i> atzizkia.	270
3.5.3. <i>-ago</i> atzizkia.	271
3.5.4. <i>-egi</i> atzizkia.	272
3.6. Aditzondoak.	273
3.6.1. Denbora aditzondoak.	273
3.6.2. Leku aditzondoak.	273

a) Erakusleetatik eratorriak.	273
b) Zehaztugabeak.	274
c) Bestelakoak.	274
3.6.3. Modu aditzondoak.	274
a) Erakusleetatik eratorriak.	274
b) Zehaztugabeak.	275
c) Atzizkiren batez eratorriak.	275
3.6.4. Maila aditzondoak.	276
3.6.5. Iritzizkoak.	276
3.7. Eratorpena.	277
3.7.1. Aurrizkiak.	277
3.7.2. Atzizkiak.	277
3.8. Aditzaren morfologia.	288
3.8.1. Sakana erdialdeko aditzaren ezaugarri nagusiak.	288
3.8.1.1. Partizipioetako <i>-i</i> bokalaren sinkopa.	288
3.8.1.2. Partizipio analogikoak.	289
3.8.1.3. <i>-gi</i> motako aditz partizipioen morfemako kontsonantearen galera.	289
3.8.1.4. Partizipioen erabilera atributo gisa.	290
3.8.1.5. Aditz izenak.	291
3.8.1.6. Aditz oinaren erabilera.	291
3.8.1.7. Aditzaren aspektua.	292
3.8.1.8. Pertsona ezaugarriak.	294
3.8.1.9. Iraganaldiko ezaugarriak.	297
3.8.1.10. Zenbait aditzen erabilera.	297
3.8.2. Aditz laguntzailea.	299
3.8.2.1. Nor saila.	299
3.8.2.2. Nor-nori saila. Orain eta lehen aldia.	304
3.8.2.3. Nor-nork saila.	310
3.8.2.4. Nor-nori-nork saila.	321
3.8.3. Aditz trinkoak.	331
3.8.3.1. <i>Etorri</i> aditza.	331
3.8.3.2. <i>Ibilli</i> aditza.	332
3.8.3.3. <i>Yon / oon / eon</i> (egon) aditza.	333
3.8.3.4. <i>Fan /juan</i> (joan) aditza.	336
3.8.3.5. <i>Yaaman</i> (eraman) aditza.	338
3.8.3.6. <i>Urai / uittu / irui / idu(g)i / udi(g)i</i> (eduki) aditza.	340
3.8.3.7. <i>Jakin</i> aditza.	343

3.8.3.8. <i>Ekarri</i> aditza.	344
3.8.3.9. <i>Iruittu</i> (iruditu) aditza.	344
3.8.4. Aditz alokutiboak.	345
3.8.4.1. Laguntzaile alokutiboak Nor eran.	348
3.8.4.2. Laguntzaile alokutiboak Nor-nori eran.	349
3.8.4.3. Laguntzaile alokutiboak Nor-nork eran.	350
3.8.4.4. Alokutiboak Nor-nori-nork sailean.	353
3.8.4.5. Aditz trinkoen alokutiboak.	356
3.8.5. Sakana erdialdeko aditzaren ezaugarri-laburpena.	359
4. EZAUGARRI SINTAKTIKOAK.	363
4.1. Galderazko esaldiak eta harridurazkoak.	363
4.1.1. Galderazkoak.	363
4.1.2. Harridurazko esaldiak.	364
4.2. Esaldi eliptikoak.	367
4.2.1. Aditz laguntzailearen elipsia.	367
4.2.2. Aditz nagusiaren elipsia.	367
4.3. Koordinazioa.	368
4.3.1. Koordinazio kopulatiboaz.	378
4.3.2. Juntagailu disjuntiboaz.	370
4.3.3. Juntagailu adbersatiboak.	370
4.3.4. Juntagailu distributiboak.	372
4.4. Menpeko esaldiak.	373
4.4.1. Osagarriak: <i>-la, -nik</i> ; nominalizazioa; zehar galderak.	373
4.4.1.1. <i>-la, -nik</i>	373
4.4.1.2. Nominalizazioak.	374
4.4.1.3. Zehar galderak.	383
4.4.2. Perpaus erlatiboak.	384
4.4.3. Denborazkoak.	385
4.4.3.1. Noiz galdetzaileari erantzuten dioten menperagailuak.	386
4.4.3.2. Noizko, noiztik, noiz arte galdetzaileei erantzunez.	394
4.4.4. Moduzko esaldiak.	396
4.4.5. Esaldi konparatiboak.	399
4.4.5.1. Maila konparatzen denean.	399
4.4.5.2. Kantitatea konparatuz.	402
4.4.6. Helburuzko esaldiak.	403
4.4.7. Esaldi kausalak.	403
4.4.8. Baldintzazkoak.	406
4.4.9. Esaldi kontzesiboak.	407

4.4.10. Esaldi kontsekutiboak.	408
5. LEXIKOA.	411
5.1. Alor semantikoak.	412
5.1.1. Denbora eta eguraldiarekin lotutako lexikoa.	412
5.1.2. Senidetasuna. Etxea.	416
5.1.3. Gorputz atalak, gaixotasunak eta erremedioak.	421
5.1.4. Nekazalgoa.	425
5.1.5. Azienda, produktuak eta lanak.	432
5.1.6. Hegaztiak eta gainerako animaliak.	435
5.1.7. Basoa eta zenbait lanbide.	438
5.1.8. Haur hizkuntza.	442
5.1.9. Kolpeen izenak eta beste zenbait hitz.	443
5.2. Sakana inguruko hizkeretikiko alderaketa eta kidesun lexikoak.	448
5.2.1. Gipuzkera-nafarrera muga lexikoak EAEL-n.	448
5.2.2. Burunda eta Sakana erdialdearen arteko muga lexikoak.	450
5.2.3. Goierri (Ataun, Zegama) eta Sakana erdialdearen arteko muga lexikoak.	451
5.2.4. Aezkera eta Sakana erdialdeko lexikoaren kidesunak.	452
5.2.5. “Euskal dialektologiaren hastapenak” liburuko lexikoaren ataleko gipuzkera, nafarrera garaia eta Sakana erdialdeko hizkeren arteko kidesunak.	454
5.2.6. “Erizkizundi irukoitza”-ko galdetegi lexikografikoan agertzen diren Sakana erdialdeko emaitzak.	456
5.2.7. Lexikoaren inguruko zenbait bitxikeria.	456
6. SAKANA ERDIALDEKO EUSKARARI BURUZKO ONDORIOAK.	459
6.1. Sakana erdialdeko hizkeraren ezaugarriak.	464
6.1.1. Bokalismoari buruzkoak.	464
6.1.2. Kontsonantismoari buruzkoak.	468
6.1.3. Ezaugarri morfologikoak.	472
6.1.3.1. Izenaren morfologiari dagozkionak.	472
6.1.3.2. Aditzaren morfologiari dagozkionak.	473
6.1.4. Sintaxiari dagozkion ezaugarriak.	475
6.1.5. Sakana erdialdeko berezko lexikoa.	475
6.1.6. Sakana erdialdeko hizkerarik ba ote dagoen.	476
6.2. Sakana erdialdeko hizkera eta gainerako hizkeren arteko alderaketa.	477
6.2.1. EH-ko erdiguneko eremuarekiko Sakana erdialdeko hizkeraren kidesun eta desberdintasunak.	477
6.2.2. Nafarrera eta ekialdeko eremuarekiko kidesunak.	479

6.2.3. Beste eremu batzuekiko kidesunak.	481
6.2.4. Gipuzkerarekiko alderaketa.	482
6.2.5. Sakana erdialdea eta Ataungo euskara: alderaketa.	483
6.2.6. Burunda eta Sakana erdialdeko hizkerak: alderaketa.	486
6.2.7. Gure proposamena.	489
7. TRANSKRIBAKETAK.	493
7.1. Etxarri-Aranatz.	493
7.2. Etxarri-Aranatz.	495
7.3. Unanu.	499
7.4. Dorrao.	503
7.5. Arbizu.	504
7.6. Lakuntza.	505
7.7. Arruazu.	507
7.8. Uharte.	510
BIBLIOGRAFIA.	514

O. SARRERA

Aurrean duzun azterketa honen helburu nagusia, honako hau da:

- Bonaparte Printzeak azterketa esparruan ezarritako mugak berrikusi eta ondorioak atera, bertako azpieuskalki(ar)en eremua zehaztuz eta ondokoekin konparatuz.

Eta helburu nagusi honetaz gain edo, beste modu batean esateko, helburu hau lortzeko ezinbestekoak diren beste hiru eginbehar zehatz ere markatu genituen:

- Sakana erdialdeko herrietako hizkeren azterketa morfo-fonologikoa eta sintaktikoa gauzatu.
- Hizkera horietako lexikoa jaso.

- Herri hauetako euskararen edo euskarari buruzko materialaren berri eman eta aztertu hauxe ondoren.

Aukeratutako eremuaren berezitasuna eta garrantzia begibistakoa da, duela gutxi arte bi euskalki edo dialekto desberdinetan banatua egon baita ofizialki:

- Gipuzkera: Etxarri-Aranatz eta Ergoiena (Lizarraga, Dorrao, Unanu).
- Ipar goi-nafarrera: Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Uharte.

Banaketa teoriko honetaz gain, gero eta hiztun gutxiagok erabiltzen du *etxarriera*, *arbazuera* eta *lakuntzera*, eta ia batek ere ez *uhartera*. Ergoienako herrietakoak eta *arbizuera* dira oraindik osasuntsuen agertzen diren hizkerak.

Helburu nagusia izan dugu momentuoro gogoan, atal linguistiko bakoitza aztertzerakoan, hots, Bonaparte-k zioen moduan bi euskalkitan banatua dago Sakana erdialdeko eremua, ala hizkera mota batean bil daiteke, duela gutxi Koldo Zuazok erakutsi digun ildoari jarraituz?

Horrela, beraz, buru belarri ekin diogu isoglosa nagusiak non dauden zehazteari, eta baita ondoko hizketa eta euskalkiekin (Burunda, Goierri, Ultzama, Basaburua, Larraun, ...) dituen harremanak aztertzeari ere.

Azterketa honetan, beraz, aipatu esparruko hizkeraren deskribapen orokorra egiteari eman diogu garrantzi handia. Deskribapen hau gauzatzeko, zuzeneko behaketaz gain (inkestak, galde sortak, grabaketak, ...), gure eskuetan edukitzeko aukera izan dugun eremuari buruz argitaratutako materiala ere kontuan hartu dugu, jakina. Eta honetatik guztitik abiatuz ekin diogu inguruko hizkera eta euskalkiekiko alderaketari.

Aipatzekoa iruditzen zaigu, era berean, tesia nola gauzatu dugun agertzea. Etxarrikoa izanik tesigilea, gure herriko hizkeran oinarritu da lanaren egitura

guztia, egitura hauxe biribildu edo jantzi ondoren, gainerako herrietako hizkerekin kontrastatu, erkatu eta alderatzen jarraitu delarik. Azkenik, lehentxeago genioen moduan, behin Sakana erdialdeko hizkera deskribatu dugunean, beste hizkerekiko konparatzeari ekin diogu, eta modu honetan atera ahal izan ditugu lanaren bukaerako ondorioak.

Laguntza teorikoari dagokionez, eta dialektologia arloko lana denez eskuartean dugun hauxe, esan beharrekoa da makina bat dialektologo eta hizkuntzalariren iritzi eta teoriak baliatu garela (ikus bibliografian aipatzen diren autore eta lanak) azterketa hau gauzatzekoan, baina inongo teoria orokorrik jarraitu gabe. Eta horrela, estrukturalismoaren ildoak jarraitu dugu zenbaitetan, sistematizatzen ahalegindu garenean edo hizkeren inbentarioak desberdintzen saiatu garenean, hori bai, gehiegi eskematizatu gabe, honek askotan zurruntasun handia eragiten baitu hizkeraren baitan dauden hainbat eta hainbat eragile (gizartekoak, biologikoak, estilokoak, ...) zehazteko orduan; eta dialektologia sortzailearen araberrako erregela fonologiko eta fonetikoak izan ditugu kontuan beste hainbeste bilakabide eta sakoneko egitura azaldu nahi izan dugunean.

Eta orain arte esandako guztiaren aurretik, azterketa esparruaren aurkezpena egin dugu, bertan kokapen geografikoa eta datu demografiko eta soziolinguistikoak ematen ditugularik

Hona hemen, beraz, laburbildurik tesi lan honen edukia:

- Lehen atalean, esan berri dugun moduan, azterketa esparruaren aurkezpen soziolinguistiko eta geo-demografikoa emateaz gain, dialektologiari buruzko zenbait argibide edo oinarri teoriko azaltzeari ekingo zaio. Horrela, kokapen geografikoa, euskararen egoera azken hogeita hamar urteotan eta esparruko hizkerak izan duen tratamendu dialektologikoa izango dugu kontuan. Eta honekin batera, hainbat autoreren iritzi eta gogoetak ekarriko

ditugu gure lan honetara, batez ere berau gauzatzeko erabilitako metodologian zerikusi zuzena izan dutenak.

- Bigarren atalean, azterketa esparruko ezaugarri fonetiko-fonologikoak jaso ditugu, hau da, bokalismoaren eta kontsonantismoaren deskribapena egin da bertan.
- Hirugarrenean, ezaugarri morfologikoak izan ditugu kontuan, izenaren morfologia eta aditzarenaz bereziki arduratu garelarik.
- Laugarren atalean, sintaxia izan dugu aztergai. Bertan, azterketa esparruko esaldi mota nagusiak (bakunak, menpekoak) jaso ditugu.
- Bosgarrenean, lexikoaz arduratu gara. Horretarako, hainbat arlo semantiko markatu (gehienbat ikuspegi etnografikoa nagusi izan delarik) eta bakoitzeko hitz aipagarrienak jaso ditugu. Honetaz gain, atal honetan ere, inguruko eremuetako lexikoekiko alderaketak ere egin ditugu.
- Seigarren atala, oso-osorik, ondorioak islatzeko erabili da. Deskribapena gauzatu ondoren, ondorio dialektologikoak finkatzeari ekin zaio bertan, Etxarri eta Uharteko dotrinen alderaketa barne delarik.
- Eta azkenik, lanaren bukaeran, transkribaketak jarri ditugu, bat herri bakoitzeko, Etxarriren kasuan bi izan badira ere.

Eta tesi-lanarekin hasi baino lehen, eskerrak eman nahi dizkiegu hainbat eta hainbat pertsonari, ezen hauen ekarpen, aholku, zuzenketa, azalpen eta arretarik gabe ezinezkoa izango bailitzaiguke jarraian datorren guztia gauzatu ahal izatea.

Hasteko, etxekook gogoratu nahi genituzke, haiekin bereziki ikasi eta gorde ahal izan baitugu gure herriko hizkera. Berehala Patxi Goenaga, tesi-zuzendaria, datorkigu burura, ezen duela hogeitau urte, 1980an, bi urte lehenago berak

argitaratutako *Gramatika bideetan* liburuarekin hasi baikinen alfabetatzen, eta egun, haren gidaritzapean ere ari baikara hizkuntzaren ikasketa bilakabide hori biribiltzen; eta horretaz gain, jakina, lan honi eskaini dion arreta ez baita nolana hikoia izan, oso atseginak izan direlarik lanaren xehetasunak aztertzen eta komentatzen berarekin pasatu ditugun momentuak. Bestalde, doktorego programan ikaskide izan ditugun Natxo Urkijo laudiotarra eta Paskual Rekalde eta Patxi Menta baztandarrak ere aipatu nahi ditugu, laguntza emateaz gain pazientzia handia erakutsi baitute azterketa honen guztiaren xehetasunak entzun edo/eta irakurtzerakoan.

Aipatutakoez gain, gogoratu nahi genituzke Etxarrin bereziki, ia astero hitz berriren batekin hurbiltzen zitzaizkigun Euxebio Markoteki, Karmelo Goñi, Andrex Garmendia, Bixente Garziandia, Felix Igoa Mozo, Joxe Martin Albarrazin, Josetxo Artieda, Jose Manuel Lakuntza, Paulo Zabala, Martin Arratibel, Migel Markotegi, ... Eta hauen artean, azkenaren izena, Migelena, azpimarratuko dugu, azterketa honetako lexikoaren atala gure lanaren emaitza adina baita harena. Eta azkenik, azterketa esparruko herrietan izan ditugun informatzaile eta gainerako lagun guztiak ere gogoratu nahi ditugu, hauen izenak eta gainerako beste datu batzuk oinarri teorikoetako informatzaileen atalean jaso ditugularik.

1. LANAREN ESPARRUA ETA OINARRI TEORIKOAK

1.1. Esparruaren aurkezpen geodemografiko eta soziolinguistikoa

1.1.1. Sakana erdialdea: kokapen geografikoa eta esparruaren zehaztapena

Iruñetik Gasteizerako errepidearen ertzean kokatzen dira azterketa eremuko zortzi herriak, 32 (Uharte) eta 41 (Etxarri) kilometrotara Nafarroako hiriburutik. Hauexek dira, beraz, hurrenez hurren, ekialdetik mendebaldera zortzi herriak: Uharte-Arakil, Arruazu, Lakuntza, Arbizu, Etxarri-Aranatz eta azken bi herri hauen hegoaldean Ergoiena-ko Udala osatzen duten Unanu, Dorrao eta Lizarraga. Bestalde, Arbizuren iparraldean Lizarragabengoa (*Lixarrego* deiturikoa) kontzejua dugu, Etxarriko udalaren barne sartzen delarik administrazioz, baina hizkera aldetik, oso egoera nahasian aurkitzen da gaur egun, Arbizu eta Etxarriko hizkeren arteko hizketa egiten baita. Badirudi adinekoek *etxarriera* dutela hizkeratzat eta gazteek, berriz, *arbizuera*, harreman kontuak direla bide.

Hala ere 25en bat biztanleren arazoaz ari gara eta, esandako guztia dela eta, ez diogu gehiegi erreparatuko lanean zehar, esan


SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

bezala *arbizuera* edo *etxarriera* erabiltzen baitira, edo bestela bien arteko nahasketa.

Honetaz guztiaz gain, aipa dezagun Sakana erdialdeak Aralar iparraldetik eta Andia eta Urbasa mendiak hegoaldetik dituela muga natural gisa, Burunda eta Arakil haranek osatuz muga horiek, lehenak mendebaldetik eta bigarrenak ekialdetik.

Eta haran bi hauen izenak erabiltzen dira, hain zuzen, azterketa esparrua zeharkatzen duen ibaia izendatzeko orduan: Burunda edo Arakil ibaia.

SAKANA ERDIALDEKO HERRIAK ETA MUGAK



SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

Sakana erdialdeko mapa honetan, muga geografikoaz gain (mendiak, haranak, ...), esparruaren inguruko eskualdeak ere markatu ditugu, begi kolpe batez ikusi ahal izateko non kokatzen diren, gero azterketa gauzatzerakoan aipatuko ditugun hizkerak.

Burunda edo Arakil ibaia ere markatu dugu lerro beltz baten bidez, eta mendebaldetik ekialdera, hau da, Burunda haranetik Arakil haranerako norabidea darama.

Bestalde, udalerriak identifikatzeko kolore desberdinak erabili ditugu, eta horrela ikus daiteke Etxarri eta Lizarragabengoa-k alde batetik, eta Lizarraga, Unanu eta Dorrao-k bestetik, udal bakarra osatzen dutela. Azken hiru herri hauen kasuan, hots, Ergoienako Udalarenean, Aralar inguruan ere lurak badituela ikus daiteke.

1.1.2. Biztanlegoa.

Nafarroako Gobernuaren Estatistika Institutuaren 1996ko datuen arabera, Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuan jasotakoekin batera, hauexek ziren azterketa esparruko herriz herriko biztanle kopuruak 1986 eta 1996 urteetan:

HERRIA	1986	%	1996	%
Etxarri-Aranatz	2168	39	2337	41,6
Ergoiena	547	9,9	489	8,7
Arbizu	870	15,7	895	16
Lakuntza	956	17,2	995	17,7
Arruazu	124	2,2	110	2
Uharte	887 ¹	16	783	14
GUZTIRA	5552	100	5609	100

¹ Datu hau "Nafarroako toponimia eta mapagintza" lanetik hartu dugu, besteak ez bezala.

Ikus daitekeen moduan, nahiz eta hiru izan (Etxarri, Arbizu eta Lakuntza) biztanle kopuruan igo diren herriak hamar urte horietan, soilik lehenean, Etxarrin, igo da bataz bestekoa era nabarian, beste bietan hamarren batzuk besterik ez dira igo eta.

1.1.3. Euskararen egoera azken hogeita hamar urteotan.

Lau informazio iturri erabiliko ditugu azken 30 urteotako euskararen egoera aztertzeko:

- Sakana haranaren Plangintza Orokorrerako Txostena, SPO aurrerantzean. Hirurogeita hamargarren hamarkadan egindako ikerketa dugu eta asmo edo helburu moduan, haranaren azterketatik abiatuz, sortzeko asmoa zen Mankomunitateari lehentasunak markatzea izan zuen.
- *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*, 1970. José M^a Sánchez Carrión, Txepetx-en azterlana.
- Sakanako Mankomunitatearen Euskara Zerbitzuaren (SMEZ aurrerantzean) inkestak, euskararen ezagutza eta erabilpenari buruzkoak (1990, 1991, 1992, 1994). Eta erakunde berberak jasotako Irakaskuntza ereduei buruzko datuak (1998-99 ikasturtea).
- Nafarroako Gobernuaren Estatistika Institutuaren datuak (1996).

SPO-n euskararen egoera aztertzerakoan sarrera moduan ematen diren argibideetan esandakoa oso egokia da hirurogeita hamargarren hamarkadaren egoera ezagutzeko, gaur egun ere antzekoa baita (herrien arteko desberdintasuna esan nahi da), nahiz eta hortxe aipatzen diren soluziobideak martxan jarri diren eta egoerak hobera nabarmenki egin duen:

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

“Adelantando un tanto los resultados, diremos que en la Barranca Burunda existen fenómenos curiosos en cuanto al conocimiento y vitalidad del euskara.

Así, siguiendo y corroborando observaciones generales de J. Caro Baroja, tenemos que la Barranca Burunda no es una zona uniforme como parecerían indicar las condiciones geográficas de la comarca –valle unitario, cerrado entre dos inaccesibles cadenas de montañas, muy pegado a la provincia de Guipúzcoa, etc- sino que existen una serie de manchas y puntos (agudización del proceso de rompimiento de las manchas del mapa de Napoleón (sic)).

Tan es así que tenemos verdaderos enclaves como el de Urdiain dentro de zonas ya hoy muy erdeldunizadas, o manchas como el triángulo Ergoyena, Arbizu, Echarri, dentro de zonas más amplias castellanófonas. A su vez los extremos comarcales están fuertemente inmersos en procesos de deseuskaldunización ya que los porcentajes de los que lo conocen es minoritario y en consecuencia lo utilizan pocos y poco (las relaciones con castellanófonos implican no emplear el euskara más que en familia).

Sin embargo, existen factores que permiten pensar en la posibilidad real de revitalización del euskara, aunque las soluciones tienen que traducirse, por fuerza, en medidas políticas de educación y cooficialidad del euskara, etc ..., para que estas posibilidades sean cercanas en el tiempo”. (SPO, 322-323)

Gaur egungo datuak hartuz, ikus daiteke ‘euskararen berpizte’ hori errealitate bihurtu dela, baina batez ere hezkuntza arloari esker, D eredua baita erabat nagusi Sakana erdialdeko ia ikastetxe guztietan. Horrek ekarri du, bestalde, euskara batuaren nagusitasuna 30 urtetik beherakoen artean, batez ere Etxarri, Lakuntza eta Arruazuko herrietan. Ergoiena eta Arbizun badirudi oreka mantendu ahal izan dela, herriko hizkeraren eta batuaren artean, azken hau irakaskuntza arloan baino erabiltzen ez delarik. Uhartek, gaur egun ere, egoerarik kaxkarrena erakusten jarraitzen du, egungo datuak aipatzerakoan ikusi ahal izango dugun moduan.

Txepetxek (1970), euskararen egoerari erreparatuz, hiru herri mota bereizi zituen Sakana erdialdean:

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

- a) Euskara hizkeratzen duten herriak: Arbizu, Lizarragabengoa, Ergoiena.
- b) Erdara hizkeratzen duten herriak: Uhartea.
- c) Euskara nahiz erdara hizkeratzen duten herriak, euskararen atzerakada nabarmen delarik batean, Lakuntzan, eta ez bata ez bestea nagusitzen ez direlarik besteetan, Arruazun eta Etxarrin.

Lakuntzari buruz esaten dituenak jasoko ditugu jarraian, egoera larriena erakusten baitzuen duela 30 urte, euskara kolokan zegoela erakusten zuten herrien artean. Eta oso egoera ezkorra ateratu zuen ondorio moduan:

- Lakuntzako haurrak erdalduntzen ari ziren erabat bi arrazoi nagusirengatik: inmigrazioa eta eskola.
- Biztanlego euskalduna oraindik gehiena bazen ere, trantsizio aldiaren zegoen orduan, eta bere ustez, erdaldungoa nagusitzeko zorian zegoelarik jada. Eta nesken arazoa aipatzen du, dagoeneko erdaldunak direla esanez, honek dakarren ondorio larriarekin, seme-alabei euskara ezin irakatsi izana.
- Soluzio edo irtenbide moduan ‘ikastola’ baten beharra aipatzen du, eskola aurreko egoerari, euskara ama hizkuntzatzen duten haur horienari (noiz artekoa ote den galdetzen du), hots, jarraipena emateko. Eta honekin batera, elizan ere euskararen erabilera nahitaezkoa dela esaten du.

Uharteko euskararen egoera askoz larriagoa zen orduan ere. Erabat galdutzen ematen du Txepetx-ek:

“Así Huarte comienza a perder el vasco diez años antes que Irañeta que, más oriental, quedaba cercada entre dos localidades castellanófonas: Yabar y Huarte. Pero aún hoy, el vascuence tiene más vigencia en Irañeta, donde todavía se oye entre sujetos adultos, que en Huarte, donde parece excluido por completo”. (1970, 47)

Eta Gasteiz-Iruña errepide nagusiari egozten dio erdalduntze honen errua, bertatik pasatu eta geratzen den jendearen ‘kultura’ edo ‘maila altuago’-ak, erdalduna hauxe, nahi gabe ere, bertako jende xumearen izpirituan eragiten duela esanez.

Bestalde, Sakana erdialdeko euskararen egoeraren azterketa bukatzerakoan, normalean oso gutxi azpimarratzen den eragile garrantzitsu baten aipamena egiten du: elizako ekintzetako euskararen erabilera. Horrela Arbizun, esaten digu erabilera honi esker inongo arriskurik ez dagoela euskara galtzeko, eta gaineratzen du beste bat izango litzatekeela Irañetako euskararen egoera, bere garaian elizako funtzioetan erabili izan balitz.

Bukatzeko, itxaropen izpi bat erakusten du Etxarri eta Lakuntzaren kasuan, sortu berri den ‘ikastola’ eta elizako funtzioen ‘euskalduntzeari’ esker:

“La ikastola de Echarri, localidad en la que recientemente se ha introducido la liturgia en lengua vasca, y la labor personal del párroco de Lacunza con niños y jóvenes de enseñanza del vasco, hay que apuntarlos también, en medio de un horizonte oscurecido de medios de difusión en castellano, incremento de los intercambios, migraciones, etcétera, como pequeños faros que tratan de salvar al euskera, de actuar por su supervivencia en ambas localidades. Es aún prematuro juzgar sobre sus resultados. Pero la tarea se presenta difícil, sobre todo en Lacunza, y le deseamos fervientemente el éxito”. (1970, 48)

Goazen, beraz, gaur egungo datuak ikustera eta horrela jakin ahal izango dugu, duela 30 urteko egoera beltz horrek zein bilakabide izan duen. Horretarako, lehenik, SMEZ-k emandako datuak aipatuko ditugu:

- 1994 urtean Sakanako Mankomunitateko Euskara Zerbitzuak egindako euskararen erabilera neurketaren emaitzak. Hauxe da egin den azkena:

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

HERRIA	KOP.	EUSKARAZ	ERDARAZ	% EUSKARAZ
Etxarri	789	522	267	66,2
Lizarraga	79	56	23	70,8
Dorrao	54	36	18	66,7
Unanu	47	45	2	95,7
Arbizu	401	395	6	98,5
Lakuntza	446	226	220	50,7
Arruazu	43	21	22	49
GUZTIRA	1859	1301	558	70

Emaitza baikorrak ikusten ditugu orokorrean (% 70 euskaraz ari zen neurketa egindako momentuan), kontuan izanik erabilera bera islatzen dutela neurtutako datu hauek. Honek esan nahi du, datuak jasotzeko momentuan euskara edo erdara zerabiltela pertsona horiek, beraz, ezagutza handiagoa ere izan daiteke, erdaraz ari zirenen arteko batzuk ezagutuko baitute seguru aski euskara ere.

Hala ere, Arruazu eta Lakuntzako datuak ez dira oso baikorrak, kezkarriak baizik, eta horretaz gain nahiko adierazgarriak ere badira, horrela banatzen direlarik adinari dagokionez:

URTEAK	ARRUAZU			LAKUNTZA		
	EUSK.	ERDA.	% EUSK.	EUSK.	ERDA.	%EUSK.
0-14	8	-	100	70	49	59
15-24	-	7	0	29	38	43,3
25-64	4	15	21	77	91	45,8
65-...	9	-	100	50	42	54
GUZTIRA	21	22	49	226	220	50,7

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

Ikusten denez, haurrak eta 65 urtetik gorakoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak, eta honek, haurren datuak bereziki, itxaropenari ateari irekitzen dizkio. Beste herrien kasuan ere, Dorraon izan ezik, emaitza hobeak (euskararen erabileraren aldetik begiraturaz) ikusten dira haurrengan:

HERRIA	%
Etxarri	83
Lizarraga	80
Unanu	100
Arbizu	100

Dorraon, berriz, neurtutako sei haurrak erdaraz ari ziren momentu horretan.

Badira aurreko urteetan egindako erabileraren beste neurketa batzuk ere, baina guk egin den azken neurketaren datuak jaso eta komentatu ditugu soilik.

- Nafarroako Estatistika Institutua. Sakanako euskarari buruzko ezagutza datuak, 1996ko zentsoa.

Lau atal bereizi zituzten inkestagileek: ulertu, hitz egin, irakurri eta idatzi. Guk bigarrenari soilik erreparatuko diogu, honek erabilera gutxienez erakusten baitu. Beraz, hitz egiteko gaitasuna islatzen duten datuak jasoko ditugu, eta hiru zutabetan azalduko: ongi hitz egiteko gai direnak, nekez hitz egin dezaketenak eta, azkenik, hitz egiteko gaitasunik ez dutenak:

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

HERRIA	BIZTANLEAK	ONGI	%	NEKEZ	%	EZ	%
Etxarri	2337	1858	79,5	166	7	313	13,5
Ergoiena	489	448	91,6	14	2,8	27	5,6
Arbizu	895	817	92	15	1,6	63	6,4
Lakuntza	995	573	58	140	14	282	28
Arruazu	110	96	87	7	6,5	7	6,5
Uharte	783	194	25	157	20	432	55
GUZTIRA	5609	3986	71	499	9	1124	20

Horrela beraz, ezagutzari buruzko datuak askoz ere baikorrak ditugu. Hala ere, aipagarriak iruditzen zaizkigu Arruazuko emaitza hauek, soilik % 6,5 ez da gai euskaraz hitz egiteko, baina erabilera datuak oso bestelakoak dira (%51 erdaraz ari zen neurtutako momentuan).

Eta aipatu baikortasun hau indartzeko, azterketa esparruko ikastetxeetan 98-99 azken ikasturte honetako datuak ikusi baino ez dugu:

- Sakana erdialdeko ikastetxeetako 98-99 ikasturteko matrikulazio datuak:
 - **Etxarriko Eskualdeko Ikastetxe Publikoa. (EEIP)**
144 ikasle daude matrikulaturik Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta horietatik 9 baino ez daude A ereduan. Gainera, eredu hau desagertzeko zorian dago, azken ikasle ‘erdalduna’ duela bost urte sartu baitzen bertan matrikulazio datuen arabera.
 - **Andra Mari Ikastola. (AMI)**
Etxarrin dago, baina eskualdekoa da hauxe ere. 405 ikasle daude matrikulaturik Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, guztiak D ereduan, eta goian esan bezala, azterketa esparruko herri guztietako ikasleak jasotzen ditu.

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

- **Arbizuko Ikastetxe Publikoa. (AIP)**

11 ikasle daude matrikulaturik Haur Hezkuntzan, eta guztiak D ereduan.

- **Arbizuko Andra Mari Ikastola. (AAMI)**

Hemen 16 ikasle dituzte matrikulaturik aurtengo ikasturtean, Haur Hezkuntzan eta D ereduan.

- **Lakuntzako Ikastetxe Publikoa. (LIP)**

57 ikasle dauzka matrikulaturik Haur eta Lehen Hezkuntzan, eta hemen ere guztiak D ereduan.

- **Uharteko Ikastetxe Publikoa. (UIP)**

42 ikasle dituzte matrikulatuta eskola honetan, Haur eta Lehen hezkuntzan, eta horietatik 9 baino ez D ereduan.

Hona hemen, beraz, datu hauek guztiak laburbildurik:

IKASTETXEA	IKAS. KOPURUA	D EREDUA	A EREDUA
EEIP	144	135	9
AMI	405	405	-
AIP	11	11	-
AAMI	16	16	-
LIP	57	57	-
UIP	42	9	33
GUZTIRA	675	633	42

Honetaz guztiaz gain, Altsasuko Mikel Donea Institutuan matrikulaturik dauden ikasleen datuak falta zaizkigu, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta HSAOL Batxilergoetan daudenak. Baina ez dut uste ezer

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

berririk esango dutenik, eta beste hauek ikusirik, ondorio moduan esan daiteke etorkizun itxaropentsua duela euskarak ia esparru osoan, Uhartekoa soilik geratzen delarik egoera pozgarri honetatik kanpo.

Hala ere, duela 30 urteko egoerarekin alderatzen badugu, pozik egoteko modukoa ere badela esan dezakegu (gogoratu Txepetx-ek *'excluído por completo'* zegoela zioela bere lanean), eta egun pozgarria da D eredia irekita izatea Eskola Publikoan, jakinik gainera, gutxi badira ere, Andra Mari Ikastolara ere bidaltzen dituztela zenbaitzuek beren seme-alabak. Eta, garrantzitsuena, Uharteko biztanleen % 45ak, nekez edo ongi, aitortzen diola bere buruari euskaraz hitz egiteko gaitasuna, eta honek jarrera baikorra gutxienez adierazten du.

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: AURKEZPEN GEODEMOGRAFIKO ETA
SOZIOLINGUISTIKOA

1.2. OINARRI DIALEKTOLOGIKOAK

Atal honetan zenbait autoreren teoriez eta iritziez ariko gara. Teoria edo iritzi horiek ulertzeko, kontzeptu dialektologiko zenbait jorratzea nahitaezko da eta oinarrizko kontzeptu dialektologiko (dialektologian ohikoak direnak) horien inguruan arituko gara.

1.2.1. ZER DA DIALEKTOLOGIA? ZER HIZKUNTZ GEOGRAFIA?

Hizkuntza baten enborretik, espazioan, sortzen diren sistema edo dialekto desberdinak elkarrekin konparatu, deskribatu eta berorien arteko mugak ezartzeaz arduratzen da dialektologia. Zentzu honetan, beraz, hizkuntz geografia bezala hartzen da.

Hala ere, J.F. Lacroix¹-ek bi kontzeptu hauek, dialektologia eta hizkuntz geografia, bereizten ditu:

- Lehena, dialektologia, hizkuntzak toki bakoitzean erakusten dituen sistemen azterketa konparatiboaz arduratzen da. Eta hizketak bakarka hartuta deskribatzen ditu, edo beste modu batean esanda, alboko edo familia bereko hizketak kontuan hartu gabe, hau da, tokian tokiko hizketen deskribapen soila egiten du, aldameneko hizketen aipamenik gabe.
- Hizkuntz geografiak, berriz, edozein motatako hizkuntz gertakariak espazioan atzeman eta mapetan jasotzea du helburu.

Eta I. Iordan-ek (1967, 251) zehaztuko du esanez hizkuntz geografia herri-hizketen azterketa kartografikoa dela, eta dialektologia, aldiz, dialektoen ikerketa zientifikoa. R.M. Pagolak (1991, 36), bestalde, ondorengoa gehitzen du:

¹ R.M. PAGOLA (1991, 36)

“Edonola ere, ez da erraza, egun ere, bien alorrak (hizkuntz geografia edo geografia dialektala eta dialektologiaz ari zaigu) mugatzea. Azterketako objektua biek bera dute: hizketa bizia. Hizketa bizia, ordea, beti unibokoa al da? Zentzu orokorrean baietz esan daiteke: baina Iordan-ek, esaterako, “dialektoa” eta “herri-hizketa” erabili ditu, beretzat biak bat diren ala ez ez dakigularik. Bestalde, ez da aisa ezagutzen bakoitzak zer hartzen duen eta noraino iristen den, zein helburu eta zein xede dituen. Hori bai, geografia linguistikoak kartografia nahitaezko du, ez, ordea, dialektologiak”.

Eta arazo hau argitzeko moduan azaltzen digute J.K. Chambers eta P. Trudgill-ek (1994, 35-60). Hizkuntz geografia edo Geografia linguistikoaren historia laburra egiterakoan esaten digute joan zen mendearen bigarren erdira arte ustegabekoak eta intuitiboak zirela arlo dialektalen deskribapenak, erabat desegokiak, batez ere hizkuntzalaritzaren beste arloetan gertatzen ari zen gorakadaren aurrean. Eta horrela, ezberdintasun dialektalei buruzko behaketak sistematizatze saioak sortu ziren, beste arloetako aurrerapenei erantzuteko asmoz.

Bide honetatik, Neogramatikariak hizkuntz aldaketaren hastapen orokorren bila hasi ziren, eta hainbat aurkikuntza egin ziren (Grimm-en legea, Verner-en legea²). Eta aurkikuntza hauek hipotesi orokorra zabaldu zuten neogramatikarien artean: aldaketa fonetiko guztiak arau batek eragiten ditu, hots, aldaketa fonetikoak ez du salbuespenik onartzen. Eta halako hipotesi errefusagarriak, ondorio pozgarriak ekarriko zizkion dialektologia edo hizkuntz geografiari³: hizkuntz geografiaren garapena. Eta horrela definitzen dute bi autoreek:

² Lege honen bidez azaltzen zen zein baldintza fonologikotan suertatzen ziren Grimm-en legearen aurrean salbuespen moduan agertzen ziren hitz germanikoak, hau da, azken lege honen aurrean agertzen ziren salbuespenak ekiditen edo saihesten zituen.

³ Horrela diote CHAMBERS eta TRUDGILL-ek ere ohartxo baten bidez: “A veces llamamos a la Geografía Lingüística simplemente DIALECTOLOGÍA. En este libro, sin embargo, usaremos este término para referirnos al estudio de la variedad lingüística mediante cualquier metodología.” (1994)

“... la GEOGRAFÍA LINGÜÍSTICA, una metodología o –más exactamente- un conjunto de métodos para recopilar de un modo sistemático los testimonios de las diferencias dialectales.” (Chambers-Trudgill, 1994, 37)

Eta hemendik aurrera, nolako garapena edo bilakabidea izan duen, zein harreman izan diren dialektologoen eta hizkuntzalarien artean, eta azken urteetako hurbilketa aipatzen dute:

“Como ya hemos apuntado, la geografía lingüística surgió como respuesta a una afirmación teórica de los Neogramáticos. Sin embargo, sus resultados inmediatos parecían tirar por tierra cualquier presuposición acerca de la ausencia de excepciones en los cambios fonéticos, ya que revelaron una heterogeneidad que previamente resultaba inimaginable. Más aún, esta heterogeneidad les parecía a los primeros investigadores casi fortuita, con informantes que daban en algunos casos respuestas completamente distintas a las cuestiones planteadas o cuyas respuestas eran diferentes incluso de un día para otro. Sólo en años muy recientes tal variabilidad ha sido objeto de atención de la teoría lingüística que ha estudiado sus principios y su sistematicidad basada en reglas. Entre tanto, la reacción de los geógrafos dialectales ha sido mostrar una profunda prevención ante cualquier tipo de teoría lingüística. En cualquier caso, la geografía lingüística, tanto en sus comienzos, como en sus más recientes estudios, apenas se ha fundamentado en la teoría lingüística. Desde un primer momento se consideró a la geografía lingüística como un fin en sí mismo, y sus seguidores han estado a menudo preocupados del estudio de minucias que apenas afectan a nuestro entendimiento de la lengua como parte del conocimiento humano. El resultado inevitable fue que la dialectología y la lingüística tuvieron cada vez menos contacto entre sí. En el peor de los casos ha habido una especie de fricción absurda entre los dos grupos, con los dialectólogos despreciando a los lingüistas por ‘abstraccionistas’, que se centran en ‘pasatiempos’ más que en datos reales de la lengua, y los lingüistas despreciando a los dialectólogos

por ser ‘meros coleccionistas de mariposas’ que se andan por las ramas, sin ver el árbol y mucho menos el bosque. Sólo recientemente ha habido una aproximación, con el reconocimiento de que el estudio de la variación lingüística es sistematizable y, consecuentemente, que el estudio del dialecto es una fuente central de datos sobre la variación. Resulta interesante apuntar que en este acercamiento ninguna de las posiciones tradicionalmente adoptadas por los lingüistas y por los dialectólogos ha sufrido ningún cambio radical que le aproximara a la posición contraria. En vez de esto, la corriente mayoritaria de la lingüística admite ahora tanto a los teóricos como a los dialectólogos como estudiosos de la variación lingüística, uniendo así a ambos o –más exactamente- borrando la distinción entre unos y otros”.

(J.K.CHAMBERS-P.TRUDGILL, 1994, 38)

1.2.2. HIZKUNTZ GEOGRAFIAREN METODOLOGIA: DATUEN BILKETA, INFORMATZAILEEN HAUTAKETA

Hizkuntz geografiaren funtsa, eremu zehatz batean gertatzen den hizkuntz aldaketez ateratako ondorioei buruzko oinarri enpirikoa sortzea da. Eta era honetan, hizkuntzalaritzako beste edozein arlo bezalakoa da. Datuen bilketari dagokionez, adibidez, hizkuntz antropologiak erabiltzen duenaren parekoa da.

1.2.2.1. DATUEN BILKETA

Hasieratik, datuen bilketa elkarrizketen bidez egin izan da, biltzaileak informatzaileei galdesorta bat pasatuz, eta emaitza edo erantzunak jasotzen zituelarik. Eta galdetegi zehatza toki desberdinetan pasatzeak abantaila argiak ekartzen ditu, hala nola jasotzen diren erantzunak konparagarriak izatearena.

motakoek, hitz bereziren bat atera nahi diote informatzaileari, baina luze hitz eginez gai bati buruz. Guk horrelako galderak erabili ditugu gehien bat, hauexek ematen baitiete informatzaileei aukera lasai hitz egiteko, haiek oso ondo menperatzen dituzten gaiak proposatuz gero. Gainera, behin konfiantza lortuz gero, oso era normalean onartzen dituzte tarteka egin daitezkeen zehaztapenak. Egiten zaien galdera oso ondo ulertzen dute, eta gaiari buruzko ‘jakinduriak’ ziurtasun handia ematen die, batez ere, gure kasuan izan den bezala, informatzaile adintsuak direnean.

*Completing*⁸ motako galderak hutsune bat uzten dute informatzaileak bete dezan. Eta mota honen barruan, baina hutsuneak dituzten esaldi andana erabiliz gero, *converting*⁹ galderen aurrean izango gara. Horrelakoak ere erabili ditugu aditz formak eta deklinabide morfemak ateratzeko. Hala ere, oso komenigarria izan zaigu halako galderak egin baino lehen, informatzailearen herriko hizkerara egokitzea egin beharreko galderak. Bestela, aspaldi egindako beste saio batzuetan, etxarrieran egin genituen halako galderak Arbizun eta Unanun, eta, oso gutxitan gertatu bazen ere, informatzailea, bere hizkera aztertu nahian genbiltzala jakinik, esaldi osoa egokitzen hasi eta azkenean lortu nahi genuena bertan behera geratu zitzaigun, oso zaila suertatzen baita adineko pertsonekin zabiltzala, kategoria gramatikalez edo egitura morfologiko nahiz sintaktikoez ohartaraztea.

Bestalde, elkarrizketak era ez oso lotu edo formalean egiten badira, hau da, era aske edo informalean, informatzaileak errazago azalduko dizkigu bere doinu eta eguneroko lexikoa. Eta era aske edo informal hori

⁸ “Gariarekin ogia eta artoarekin” (taloa)

⁹ “Albaitariak abereak sendatzen” (ditu)
 “Abereak sendatzeko albaitariari hots egiten” (diozu)
 “Zuen abereak albaitariak sendatu” (zituen)

lortzeko ezinbestekoa suertatzen da informatzailearen eta galdetzailearen arteko harreman hurbila, eta honetan asko laguntzen du bion adiskide izan daitekeen hirugarren pertsona baten agerrera edo parte hartzeak.

Begibistakoak dira, orduan, zeharkako galderen abantailak. Hala ere, denbora gehiago behar izaten da galdera zuzenez osatutako galdetegia burutzean baino. Guk kasuren batean (Unanukoan bereziki), erabili ditugu galdera zuzenak, aditz formak jasotzeko, eta oso emaitza onak izan genituen, baina informatzaileetarikoa batek berehala hartu zuelako galdetzen genionaren funtsa, eta aditz formak, ia bata bestearen segidan ematen aritu zitzaigun. Beste toki batzuetan aldiz, horrela saiatu garenean oso emaitza kaxkarrak izan ditugu, gehien bat, lehentxoago genioen moduan, informatzaile adintsu hauek ez dituztelako behar bezala bereizten kategoria gramatikalak, eta galdetutakoari erreparatu gabe, galdera beraren egitura edo beste edozein hitz moldatzen hasi zaizkigulako¹⁰.

Gure azterketarako datuak biltzeari dagokionez, ondorengo metodoak erabili ditugu:

- **Informatzailea ezagutzeko elkar ikusketa-hizketa.** Oso baliagarria iruditu zaigu informatzaileak aurretik ezagutzea, batez ere grabaketak egin aurretik. Saio hauetara, herri horretako bertako ezagunen batekin joan gara, bestelako formaltasuna apurtzeko asmoz, eta bitartekari bikainak suertatu zaizkigu laguntza horretan izan ditugunak. (Informatzaileen

¹⁰ Horrela dio K. MITXELENAK (1991, 185-186): “Hemos sido testigos de una larga escena en que un dialectólogo con larga experiencia de trabajo de campo luchó largo rato por conseguir las formas más unipersonales no alocutivas del presente e imperfecto del verbo ‘ser’, y tuvo al fin que renunciar a su propósito. La única manera de obtenerlas fue indirectamente haciéndolas figurar en oración subordinada: ‘ya sabes que soy bueno’, etc”.

atalean emango dugu hauen berri zehatzagorik). Batzuetan, horretarako giroa ikusirik, lehen saio honetan ere izan dugu parada galdera eta baita kasuren batean ere grabaketa egiteko. Horrelako saioetan ikusten da zenbait informatzailek ez duela zirikatu beharrik istorio edo pasarte bikainak kontatzeko, eta horrelakoak aprobeixatu behar dira, izugarritzko informazio sorta eskaintzen baitute lexiko, fonologia, morfologia eta sintaxi mailako burutzapen ederrak jaso daitezkeelarik.

- **Galdetegi orokor grabatuak.** Informatzaile bakoitzarekin laurogeita hamar minututako elkarrizketa nahiko aske edo informalak grabatu ditugu, eta ondoren, herri bakoitzean interesgarrien iruditu zaiguna (bi Etxarrikoaren kasuan) transkribatu dugu lan honetan agertzeko. Nahiko aske edo informalak diogu, eta hala izan dira kasu gehienetan, batez ere informatzaile-kontalari bikainak izan ditugunean aurrez-aurre. Beste zenbaitetan berriz, etenak ekiditeko geu ibili gara elkarrizketa bideratu edo gidatzen, baita informatzaile bikain horien kasuan ere batzuetan, zehazpen bat edo beste egin nahian. Galdetegietako gaiak gehien bat, informatzaileen gazte denborako kontuak izan dira: aiton-amonen istorioak, garai haietako lanak, denbora pasak, ... Grabaketak egiteko ondorengo grabagailu mota erabili dugu: Aiwa VZRS (Voice Zoom Recording System), TP-560. Lehenengo grabaketa 1992koa dugu, Etxarrin egindakoa, Bekolako baserrian, afalondoan, eta era informalean.
- **Galdetegi zehatzak.** Lanaren sarreran genioen moduan, lehenik Etxarriko hizkeraren deskribapena burutu dugu, ikerketa honen *corpus*-a bihurtu delarik, eta gero bertako burutzapenak kontrastatu ditugu herriz herriko informatzaileekin. Eta kontrastapen horiek, hain zuzen, galdetegi orokor hauen bidez burutu ditugu. Asko lagundu du azterketa esparruko herri eta hizketen hurbiltasunak, adineko pertsona gehienek ederki identifikatzen baitituzte beste herrietako hizketak. Galdetegi orokor hauek, grabaketa

egin behar zen egunean bertan, hasieran, egin ditugu, desberdintasun eta ezaugarri nabarmenenak zehazteko asmoz. Eta esan behar dugu, kasu gehienetan, oso emankorrak izan direla, informatzaileak ikusten zuelako bere erantzunak berehala hartzen zirela kontuan eta apuntatu, eta honek nonbait balorapen ukitua ematen dio bere ‘lanari’. Horietako galdera batzuk, horrela hasten genituen: “*Aizazu X! Baakizu Etxarrin ... ola esaten diaula. Eta X-n, nola esaten da?*¹¹” (Aizu X! Badakizu Etxarrin ... horrela esaten dugula. Eta X-n, nola esaten da?)

- **Beste ikerlari batzuek egindako grabaketak.** Etxarrin, Lizarragan eta Arruazun egindako sei grabaketen transkribaketak izan ditugu aztergai, eta ondorengoak dira hauexek:
 - Lizarraga: - G. Solis, *Lizarragako euskararen azterketa*, 111-122.
 - M. Mujika, *Nafarroako euskaldunen mintzoak I*, 36-41.
 - EAEL, II zatia, 149 transkribaketa.
 - Etxarri: - M. Mujika, *Nafarroako euskaldunen mintzoak I*, 16-19.
 - EAEL, II zatia, 150 transkribaketa.
 - Arruazu: - M. Mujika, *Nafarroako euskaldunen mintzoak II*, 120-125.
 - Dorrao: Euskaltzaindia, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa*, 1999.
 - Arbizu: Euskaltzaindia, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlasa*, 1999.

¹¹ Unanun egindako horietako galdera bat: “*Aizazu Kristuel! Baakizu Etxarrin norbeitt ondoti bieldu nei diaunien, ‘Ordek zakurraan ipurdie!’ esaten diaula. Eta Unanun, nola esaten dezubie?*” (Aizu, Kristuel! Badakizu Etxarrin norbait ondotik bidali nahi dugunean, ‘Ordek (joan hadi) zakurraren ipurdira!’ esaten dugula. Eta Unanun, nola esaten duzue?). Eta hau aprobeztatuz, “*Eta, beyaan ipurdie? Eta katubaan ipurdie? Eta astuen ipurdie?, ...*” Horrela edutezko genitiboko formak lortuz.

- **Azterketa esparruko hizkeretan idatzitako testuak.** Bertako hizkeretan denak idatziak ez badaude ere, asmoa behintzat halakoa agertu zutelako, ondorengo testu idatziak izan ditugu aztergai:

- Etxarri: *Etxarri-Aranatzeko dotrina*. Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Gipuzkera 5, 2957-2993.

Izenburuan hala badio ere, ez da inondik etxarriera bertan agertzen den hizkera, eta horixe frogatzen saiatuko gara aurrerago berau aztertu eta etxarrierara moldatzen dugunean, Uhartekoarekin kontrastatzeko. Gipuzkeran moldatua ematen du dotrina honek K. Zuazo-k (1995, 358) dioen bezala:

“Txukun eta aratz daude, egon, bi kristau-ikasbideok (Urdiain eta Etxarrikoaz ari zaigu), baina ez dute inondik inora islatzen herri bi horietako hizkera. Aitzitik, gipuzkerara hurbiltzen ahalegindu zirela itzultzaileak –edo moldatzailea- ematen du, Bonaparteren asmo eta helburuei batere jaramonik egin gabe.”

- Etxarri: *Lan-oporrak Arjentinan*. Santiago Ezkerra Beltza (Lizarrusti). Principe de Viana, suplemento XV, 146 alea, 6 orrialdea.
- Etxarri: *Manual de Gramatica Bascongada*. Victoriano Huici, 1899, Imprenta y librería de Erice y García, Pamplona.
- Arbizu: *Orreaga*. A. Campion, 1880, 45-48.
- Dorrao: *Orriaga*. A. Campion, 1880, 41-44.

- Lakuntza:
 - *Lakuntza'ko pertza*. Blas Alegria, 1926, Euskal Etnalea XVI, 100-104. (Nafarroako euskal idazleak I, Pamiela, 140-145).
 - *Juan Miguel Gastesiren bi Mayatzeko illabetia: Mariaren Illabetia*, 1850-1854, Eugenio Ulayar, F.L.V. 49, 1987, 53-63).
- Uharte: *Uharte-Arakilgo dotrina*. Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Iparraldeko Goi-Nafarrera 3, 601-633.
Etxarrikoaren ondoan, ederki islatzen du Uharteko garaiko hizkera J.M. Arakamak (1994, 569) baieztatu duen moduan:

“Nork idatzi zuenari buruz zera esan dezakegu, egileak Uharte-Arakilgo hizkera ederki asko ezagutzen zuela, irakurtzean baieztatu ditekenez, bertako semea izan zitekeelarik.”

Eta gauza bera esaten du K. Zuazok (1995, 358):

“Bestelakoa da Uharte-Arakilgoan azaltzen den jarrera, zuzenago islatzen da eta honetan herri horretako hizkera mintzatua”.

- *Guaixe*, Sakanako hilabetekaria. Beti ez bada ere, maiz, Sakanako zenbait herritako kronikak bertako hizkeran ematen dira, eta informazio iturri ona suertatzen da, lexikoa eta aditzaren morfologiari dagokionez behinik behin. Bestela, atal fonetiko-fonologikoari dagokionez, kontrastatu beharrekoa izaten da, herriko hizkeraren transkribatzaileak gazte alfabetatuak izaten baitira gehienetan, eta ez beti berbera gainera.

1.2.2.2. INFORMATZAILEAK

Herri bakoitzeko informatzaileak aukeratzeko oso kontuan izan ditugu hauen hautaketaz esan dituztenak makina bat autorek. Horrela, Chambers eta Trudgill-ek (1994) esaten digute N.O.R.M. akronimoaz ezagutzen den informatzaile mota izan dela gehien erabili dena hizkuntza geografari buruzko proiektu edo egitasmo guztietan. Akronimo hau, ondorengo hitzen hasierako hizkiez dago osaturik: *nonmobile*, *older* eta *rural male*, hots, nekazal giroko gizonezkoa, zaharra eta bere herrian bertan bizi izan dena bizitza osoan. Eta Mitxelenak ere ia modu bertsuan adierazten digu nolako informatzaileak diren komenigarriak azaltzen duenean:

“También la cuestión de los informadores debe ser decidida de antemano. Si -aunque sin afán exclusivo- se busca en términos generales lo arcaico con preferencia a lo más reciente, habrá que buscar, informadores de cierta edad, dentro de los requisitos de orden general”. (1991, 186)

Eta nekazal giroko informatzaileei buruz, berriz, lan berean:

“Es un hecho, desde luego, que la gente del campo, el labrador, habla la lengua con mayor soltura y mucho mayor casticismo”. (1991, 186)

Soilik informatzaileen sexuari buruz ez dator bat NORM akronimoaren bidez islatutako informatzaile motarekin, bere ustez emakumeek hobeto gordetzen baitute bere-berean, kanpoko eragin edo nahasketarik gabe, herriko hizkera.

H. Kurath-ek (1972, 39-53), Ipar-Amerikako Hizkuntz Atlas-aren inkestalariak, sei informatzaile mota desberdin erabili zituen, eta horietako bat NORM motakoarekin bat zetorren, I A motakoa:

I = heziketa formal gutxikoa, gutxi irakurria eta gizarte harreman urriak dituena.

A = zaharra edo antigoalekoa.

Eta mota guztikoak egonkorak izan behar ziren, hau da, bizitza osoan toki berean egondakoak.

Baina Ingeles Dialektoen Inkestarako (SED) egin ziren elkarrizketetan ez zituzten informatzaile mota horiek erabili, NORM motakoak baizik, eta gainera horrela zehaztu zituzten: informatzaileak, eta haien gurasoak ere hala izanez gero hobe, azterketa eremuan jaiok izan behar ziren, nekazariak edo, gutxienez, nekazalgoarekin erlazionatuak, eta hirurogei urte baino gehiago izan behar zuten. Eta bukatzeko, informatzaile gizonezkoak behar dituztela diote, mendebaldeko gizartean emakumezkoaren hizkera gizonezkoarena baino arreta eta klase-sen handiagokoa delako, eta honek, azken finean, hizkera hutsal edo ezerezta dezake, bapatekotasuna eragotziz.

I. Caminok, berriz, ondorengoa dio Aezkoako biztanleei dagokienez:

“Gure esperientziaren arabera, Aezkoako emaztekiak kontserbatzaileago dira herriko hizkerari dagokionez. Hizkeren nahasketa adibideak gizonezkoek dagozkie. (...) baina aezkera garbitik nahi izatekotan, beti ere emaztekiak hobeak Arian ere. Garraldan ere antzera gertatu zaigu. Abaurreaginean eta Hiriberrin berriz ez.”

(Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa, 1997)

Ikuspuntu ugari, beraz, informatzaileen sexuari dagokionez. Guk gizonezko zein emakumezkoak izan ditugu, eta ez dugu inongo

bereizketarik somatu. Hori bai, saiatu gara herri bakoitzean pertsona adintsuak aukeratzen, guztiak hirurogei urtetik gorakoak eta, honetaz gain, herrian bertan jaio eta bizi direnak, gurasoak ere bertakoak dituztelarik guztien kasuan.

Elkarrizketari berari dagokionez, batzuetan indibidualak izan dira, baina saiatu gara hiruzpalau lagun edo kideren artekoak izan daitezten, honek bizitasunaz gain, bertako hizkeraren erabilera bermatzen baitu. Herrikideen aurrean oso zaila suertatzen zaie bertakoak ez diren adierazpenak erabiltzea, bai ordea inkestatzailearen aurrean bere burua jantziago (normalean gipuzkerara joaz) agertu nahi izanez gero informatzaile indibidualak. Gainera, berehala egin ahal izaten da jasotzen den informazioaren kontrastea, agudo botatzen baitiote elkarri aurpegira bertakoa ez den hitzen bat edo, norbaitek esaten duenean.

Eta nekazal girokoak izateari, bada, guzti-guztiak dira nekazari, basoan edo abeltzain ibili edo izandakoak, edo gutxienez horrelako etxeetakoak, horiexek baitziren esparru osoan bizibide bakarrak ia, duela berrogei urte arte.

Informatzaile eta bitartekarien identitate eta datuei buruzko ondorengo zerrenda prestatu dugu, bertan egonkortasuna eta gurasoen jatorria ere adierazten dugularik:

- **ETXARRI-ARANATZ:** Migel Markotegi izan dut bitartekari zenbait informatzailearen etxeetako ateak irekitzen lagundu didalarik ederki asko. Eta informatzaileak, ondorengoak izan dira:
- **Anbruxio Erdozia Beltza** (78 urte), aita eta ama etxarriarrak, eta gerrakoan baizik ez da herritik kanpo izan denbora luzean.

- **Juana Luzia Larraza** (81 urte), aurrekoaren emaztea, aita eta ama etxarriarrak. Bizitza osoa Etxarrin eman du.
 - **M^a Carmen Goñi Insausti** (77 urte), aita etxarriarra eta ama arbizuarra. Bizitza osoa Etxarrin.
 - **Euxebio Markotegi Razkin** (71 urte), aita eta ama etxarriarrak. Oporretako irtenaldiak baino ez ditu izan herritik kanpo.
 - **Inozentzia Markotegi Razkin** (69 urte), aurrekoaren arreba. Etxarrin bizitza osoan.
 - **Pedro Agirre Ezkutari** (79 urte), aita eta ama etxarriarrak. Bizitza osoa Etxarrin, gerra denbora izan ezik. (GB)
 - **Pedro Aiestaran** (79 urte), aita eta ama etxarriarrak. Bizitza osoa Etxarrin.
 - **Jose Luis Garmendia Beltza** (77 urte), aita eta ama etxarriarrak. Artzain, bizitza osoa Urbanan, Andian eta herrian.
 - **Esteban Mundiñano Fernandez** (70 urte), aita etxarriarra eta ama altsasuarra (euskalduna). Bizitza osoa Etxarrin.
- UNANU: Felix Igoa Mozo izan da herri honetan bitartekari lanak egin dituen unanuar jatorriko etxarriarra. Informatzaileak, bestalde, ondorengoak izan dira:
 - **Kristuel Mozo Marin** (72 urte), gurasoak unanuarrak eta bizitza osoa herrian eman du.
 - **Pedro Mercero Lizarraga** (70 urte), aurrekoaren kasuan bezala.
 - **Xegundo Mozo Luch** (76 urte), aurrekoak bezala.
 - **Balentin Mozo Lizarraga** (69 urte), aurrekoak bezala.
 - **Andres Mercero Mercero** (71 urte), aurrekoak bezala.
 - DORRAO: Pablo Zabala etxarriarrak egin dizkigu bitartekari lanak, bere emaztea Dorraoarra dela aprobetxatuz, eta azken honen jaiotetxean saio bikaina burutu genuen ondorengo bost Dorraoarrekin:

- **Pedro Lizarraga Senar** (90 urte), basoan lanean ibilitakoa eta gerra garaian ere bai kanpoan.
 - **Florenzio Marin Galartza** (81 urte), aurrekoa bezala.
 - **Jose Lizarraga Senar** (80 urte), aurrekoak bezala.
 - **Joakin Lizarraga Lizarraga** (76 urte), basoan ibilitakoa lanean.
 - **Patxi Lizarraga Senar** (63 urte), besteen aldean gaztea, baina ondo mantendu du Dorraoko hizkera.
- LIZARRAGA: Josune Goldarazena Lasa-ri esker egin izan ditugu grabaketa eta elkarrizketak. Informatzaileak ondorengoak izan dira:
- **Ixidora Lasa Elso** (78 urte). Gaztetan Donostian neskame ibilitakoa, baina behin ezkonduz gero, Lizarragan beti. Gurasoak bertakoak.
 - **Migel Agirre Ezkerra** (82 urte). Gazte denboran Gipuzkoan lanean ibilitakoa, baina ondoren beti Lizarragan. Gurasoak bertakoak.
- ARBIZU: Arbizu herriaren kasuan Pakita Balda Mendinueta gure amaginarrebarengandik jaso ditugu behar adina erantzun, baina grabaketa Irune Agirre Mendinuetak lortu digu, bere amona Tiburziarekin egindako solasaldiari esker.
- **Tiburzia Lakuntza Zaldia** (75 urte). Bizita osoa Arbizun pasatu du.
- LAKUNTZA: Junkal Arregi lakuntzarrak erakutsi zigun bere gurasoen etxeko bidea, eta guk haiekin pasatu ditugu ordu eder batzuk, lakuntzera ikasi nahian. Hauexek izan dira, beraz, Lakuntzako informanteak:
- **Felix Arregi Razkin** (67 urte). Bizitza osoa eman du Lakuntza eta Aralar mendiaren artean, basoko lanetan gehien bat. Egun artzain dabilkigu.

- **M^a Jesus Razkin Eraso** (63 urte). Aurrekoaren emaztea. Bizitza osoa Lakuntzan pasatu du.

- **ARRUAZU:** Oihana Zubeldia Jaka euskal filologo arbazuarrak lagundu digu Arruazuko hizkeraren bitxikeriak behar bezala jasotzen. Berak lortu digu grabaketa, eta oharmenezko dialektologiari buruzko galdetegia pasatzeaz gain, Sakanako erdialdeko hizkeraren ezaugarriei buruzko baieztapena ere gauzatu digu, ondorengoak izan direlarik berak kontsultatutako arbazueraren adituak:

- **Matias Lizarraga.** Zoritxarrez, ez dugu dagoeneko gurekin, laurogeita hamabi urte zituela hil baitzen 1989 urtean. Duela hamahiruren bat urte Patxi Satrustegi arbazuarrak egin zion grabaketa entzun dugu, eta zati bat transkribatu. Oihana Zubeldia Jaka filologo arbazuarrak lagundu digu, bestalde, zalantzaren bat argitu behar genuenean.

- **UHARTE:**

- **Nicanor Beltza Ustarrotz,** 73 urte. Etxarrin jaio, baina hiru urte zituela Uhartera joan zen bizitzera, eta hantxe egon da gaur egun arte, ederki asko gorde duelarik bertako hizkera.

1.2.3. CONTINUUM GEOLEKTALAK

Hizketak bereizteko erabiltzen den terminoa dugu hauxe, eta sakonki aztertu baino lehen, ikus ditzagun hau hobeto ulertzen lagunduko diguten beste kontzeptu batzuk.

1.2.3.1. HIZKUNTZA, DIALEKTOA, BARIETATEA, AZENTOA

Normalean, hizkuntza elkarren artean ulergarriak diren dialektoen multzoa bezala definitu izan da, hau da, dialektoak hizkuntzaren zati moduan ulertzen dira. Hala ere, definizio honek arazoak sortzen ditu, ez delako, nonbait, erabat biribila. Eta horrela, hor ditugu hizkuntza desberdinak eta elkarren artean ulergarri direnak, norvegiera, suediera eta daniera esate baterako. Eta alderantziz, alemanieraren kasuan, hizkuntza bat izanik bai baitira bere baitan zenbait hizkera mota elkarren artean ulerkaitz suertatzen direnak.

Eta, agian, hau hobeto ulertzeko, jakin beharko dugu hizkuntzaren nozioa ez dela inondik ere soilik hizkuntzalaritzakoa, ezen arrazoi politikoek, geografikoek, historikoek, soziologikoek eta kulturek ere osatzen baitute haren izaera.

Honengatik guztiarengatik, terminologia egokiagoa erabili beharrea aurkitzen gara, ez baita berdina hizkuntza, barietatea edo dialektoaz hitz egitea. Ikusi dugu hizkuntzaren definizio edo nozioan osagai ugari sartzen direla, eta askotan hizkuntzaren barruan barietateak ere bereizten ditugu, hots, edozein arrazoi dela medio izaera propioa ematen diogunean hizkuntzaren baitako mota berezi bati. Horrela Bonapartek, adibidez, Etxarriko hizkera bereizten zuen gipuzkera dialektoko Nafarroako azpidialektoan, Burundako barietateak bereiziz, 1869ko sailkapenean.

Eta azentua, aldiz, hiztunak ahoskatu edo ebakitzen duen moduari esaten zaio, eta honen arabera beste barietate batzuegandik fonetika edo/eta fonologikoki desberdina den barietateari aplikatzen diogu. Horrela,

Burundako barietateari, azento desberdinak aitortzen zizkion Bonapartek: bertako herrietakoak eta Ergoienakoak.

Eta azkenik, dialektoa era desberdinetan ulertzen da. Maila kaxkarreko hizkuntza gisa, idatzizko tradiziorik gabea edo arau desbideraketari ere esan izan zaio dialekto. Baina hizkuntz geografian ez da zentzu horietan erabiltzen, hizkuntza baten baitako azpimultzo bezala baizik. Eta azpimultzo horiek definitzeko, hara zer esan duten hizkuntzalariek. Alvar-ek horrela definitzen du:

“Sistema de signos desgajado de una lengua común, viva o desaparecida; normalmente, con una concreta limitación geográfica, pero sin una fuerte diferenciación frente a otros de origen común.”
(1973)


Eta Coseriu-k (1981, 5) berriz, hizkuntz erabileran frogaturiko isoglosen sistema bezala definitzen du. Hizkuntzalari honentzat, isoglosen sistema bat da dialektoa, zenbait hiztunen elkarrarteko hizketa tradizio historiko amankomunaren baitan onartutakoa.

1.2.3.2. HIZKUNTZ EZBERDINTASUN METAGARRIAK: CONTINUUM GEOLEKTALAK

Nekazal ingurunetan, batez ere, askotan, herri batetik bestera igarotzerakoan, hizkuntz desberdintasunak nabaritzen ditugu eta desberdintasun horiek gehituz edo pilatuz doaz, norabide berdinean aldenduz goazen neurrian, beste herrietan sartu ahala. Horrela, zenbat eta urrunago aurkitu abiapuntutik, desberdintasun nabarmenagoak izango ditugu herriz herri. Eta egoera honi, hain zuzen, esaten zaio Continuum geolektala. Eta gerta daiteke, esparru oso zabala denean, aldeetako

hizkerek zailtasun handiak izatea elkarrekin ulertzeko orduan. Hala ere, ez da izaten inongo punturik, non auzokide diren dialektoak ere ez diren elkarrenganako ulergarriak, baina lehen esan dugun moduan, hizkuntz desberdintasunen metaketak elkar ulertzeari oztopo nabariak ezarriko dizkio, eta are gehiago zenbat eta handiagoa izan banaketa geografikoa.

1. irudia: Sakana erdialdeko hizkeraren kokapen dialektologikoa.



(Euskararen hegoaldeko mugaren ‘continuum geolektala’ Nafarroako mendebaldean)

Guk, hemen, K. Zuazoren¹² azken lanaren ondorioak kontuan izanik prestatu dugun irudian ikus daitekeen bezala, euskalki multzo bakoitzak ondoko multzoarekin harremanak ditu, ezaugarri amankomun batzuk dituzte; eta horretaz gain, “*bridge dialect*” edo *zubi hizkera*-ren izaera dute beste hizkera batzuek, hots, euskalki multzoen arteko lotura egiten duten hizkerak daude, horien artean, lan honen objektu den Sakana erdialdeko hizkera alde batetik (Nafarrera eta Erdialdeko euskalki

¹² Euskalkiak gaur, F.L.V. 78, 1998.

multzoen artean), eta mendebaldean dugun Burundako hizkera bestetik (Nafarrera, Erdialdeko eta Mendebaldeko euskalki multzoen artekoa).

Zubi hizkera hauek, nagusiki euskalki multzo bateko ezaugarriak dituzte, baina baita ondoko multzokoarenak ere, eta azkenik bereak baino ez diren ezaugarriak eta eremu jakin batekoak ez direnak ere bai.

1.2.4. MUGAK: ISOGLOSAK, TRANSIZIOAK

1.2.4.1. ISOGLOSAK

Betidanik hizkuntz geografiak kezka handia erakutsi du hizkuntz desberdintasunen batek bereizten dituen bi eremuren arteko mugak markatu edo ezartzeko orduan, hau da, isoglosak markatzeko. Termino hau, J.G.A. Bielenstein letoniarrak erabili zuen lehen aldiz 1892an, isoterma meteorologi terminotik eratorri zuelarik. Horrela beraz, hizkuntz ezaugarri batean oinarriturik, bi eremuren arteko muga ezberdintzeko marra ezartzen da, eta marra horri, hain zuzen, esaten zaio isoglosa. Hizkuntz ezaugarri bat baino ez du bereizten, beraz, isoglosak, eta bi modu desberdinetan azaldu ahal zaizkigu:

- Lerro bakarrez markatutakoa, isoglosa izenez ezagutzen dena. Honek eremu ezezagun bat bi zatitan banatzen du era arbitrarioan, eta horrexegatik besteak baino zehaztasun gutxiago du.
- Lerro bikoitzez adierazten dena, *heteroglosa* izenez ezagutzen da. Lerro bakoitzak eremu bat markatzen du eta tartean gune huts edo zuri bat gelditzen da, non inkestan kontuan izan ez den pertsona sar daitekeen, zein ezaugarri dituen, alde batekoak ala bestekoak, modu zehatzean ez dakigulako.

Bestalde, isoglosa batzuk besteak baino adierazgarriago suertatzen dira. Edo, beste modu batean esanda, horietako batzuei garrantzitsuago irizten diegu, markatzen dituzten ezberdintasunak halakotzat sentitzen ditugulako. Baina dialektologiaren historian, inork ez du lortu zein isoglosa edo isoglosa sortak duen mailarik gorena eta zeinek xumeena erabakiko duen prozedura edo irizpide multzoa diseinatzea. Ikerlari frantziarrak (J. Séguy, 1971; H. Guiter, 1973; H. Goebel, 1976) saiatu dira formula bat (bakoitzak bere bidea jorratu badu ere) aplikatzen, DIALEKTOMETRIA izenez ezagutzen dena, zeinen arabera inkesta baten bidez bi hiztunen urruntasun dialektala neurtuko den, datuak aztertu eta ondorioak ateratze garaian prozedura eta metodologia “neutralagoak” erabili asmoz, G. Aurrekoetxeak (1995, 177) dioskunez.

Isoglosak, azkenik, deskribatzen duten ezaugarriaren arabera, kategoriatan bana daitezke, hori bai, gero eta abstraktoagoak diren hizkuntz egituren mailetan hierarkizaturik. Eta hierarkia hori jarraituz, balio azalekoenetik sakonenerainoko zerrenda azaltzen da isoglosen kategorietan, gero benetako aplikazio urria badu ere: lexikoak, ebakerakoak, fonetikoak, fonemikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta semantikoak. Azken hauek, askotan, isoglosa lexikoen barruan sailkatzen dira.

1.2.4.2. TRANSIZIOAK

Normalean, dialektologia tradizionalen, isoglosak oso eginkizun garrantzitsua izan du, bere zutaberik sendoena bihurtzeraino heldu delarik, dialektoen bereizketak azaltzeko orduan bereziki.

Baina gauzak ez dira hain argiak. Isoglosa multzoak ez dira beti oso koherenteak izaten eta, bestela ere, ez dago isoglosa multzoak ordenatu edo arautzeko hastapen orokorrik. Eta lurralde batetik bestera agertzen zaizkigun hizketa barietate mugagabeen aurrean aurkitzen garenean, nola mugatzen ditugu eremu dialektalak? Badago mugarik hiztun baten eta bere aldamenekoaren aldaera moten artean? Eta horrela bada, zein da muga hori? Nola egokitzen dira aldamenekoak beren artean, hizkuntz muga batean? Noraino da erreala edo benetakoa muga hori? Nola eragiten die esparruko eguneroko arazoei edo bertako biztanleen hizkuntz jarrerari?

Dialektologoen iritzi desberdinak eman dituzte. Honela, Wenker-ek (1876) esango du ez dagoela muga dialektalik eta, horrexegatik, zentzu hertsian, dialektorik ere ez. Bynon-ek (1981, 263) ere komentatzen du dialektologo erromanikoen dialektoak ukatzera jo dutela beti, muga dialektalak erabat subjektiboak direla esanez, hizkuntzalaria baita aurrez aurre dauden isoglosen artean garrantzitsuenak zeintzu diren erabakitzen duena.

Beste autore batzuk berriz, Fernández Sevilla-k (1976, 113) esaterako, dialektoaren kontzeptua eta mugen arazoa bereizten ditu, azalduz hizkuntz gertaerak ez direla bat etortzen era arbitrarioan ikertzeko helburuarekin ezartzen ditugun muga zurrunekin. Eta jarraitzen du esaten hizkuntz errealitateak ez dituela gune hertsiak, baina, hala ere, hortxe ditugula hizkuntz kategoria ezberdinak eta baita dialektoak ere.

K. Mitxelenak (1976, 318-319) aipatzen digu lehen inkestariak ikusi zutela ezinezkoa dela eremu zehatz batean dialektoak, azpidialektoak eta barietateak bereiztea edo biltzea, Bonapartek egin zuen moduan. Baina jarraian gaineratzen du, zehazki ezberdinduriko dialektoak edo, batez ere,

muga dialektal garbiak ez badaude ere, aitzitik, bai badaudela eremuak banatu eta definitzen dituzten isoglosak.

Eta horrela, mapak beharrian atlasak sortzen dira, mapen multzo bezala ulerturik. Beraz, agertzen dira aztarna eta datuak zatiketak egiteko, hau da, isoglosak alde batera edo bestera biltzeko:

“... no deja tampoco de advertir que entes diversos están a menudo unidos por haces de semejanzas, más o menos nutridas y notables.”

(Mitzelena, 1976, 310)

Berak, ‘casos de semejanza en la diversidad’ edo ‘de diversidad en la semejanza’ deitzen ditu, baina iturri edo jatorri bera duela bariedade horrek baieztatzen du.

Dialektologoen iritziak alde batera utzirik, isoglosak, argi eta garbi, aldaera geografikoki zorrotza edo latza dela onartzera garamatza. Mapan isoglosak esaten du aldagai batek beste bati uzten diola tokia eremu zehatz batean. Eta, egun, dialektologo gehienek onartzen dute aldaerak hizketetan ez direla zorrotz edo latzak, progresibo edo leunak baizik. Horrela, orduan, transizioa graduatua izaten da eta horregatik ez da hizkeren arteko muga zehatzik.

Chambers-ek eta Trudgill-ek (1994, 165) aldaera progresibo edo graduatuari buruzko ondorengo pasadizoa komentatzen dute:

“... aunque aún se oye de vez en cuando la vieja anécdota sobre el dialectólogo a quien la esposa de un granjero le dice: ‘Oh, no, señor. Si quiere encontrar a alguien que hable así, vaya a aquella granja de allí.’ De hecho, la mayoría de las discusiones de dialectología en los libros de texto tratan a las isoglosas y a los continuos dialectales conjuntamente, sin mencionar su incompatibilidad”.

Hala ere, bateraezintasun hori ez da erabatekoa. Isoglosa sortak, inguru berean egonik, oso gutxitan eratzen dira albokoak diren lerroen bitartez. Eta sortaren alde bateko eremutik beste aldekoa mugituko bagina, continuum baten aurrean bezala sentitzera eramango gintuzke, lehenik ezaugarri bat, gero beste bat eta, ondoren, beste bat aldatuko bailirateke toki batetik bestera, gradualitate geografikoaren nozioa sortuz, isoglosa sortaren nozioarekin batera.

Honetatik guztiatik, ondoriozta dezakegu isoglosek ez dituztela modu erabat zehatzean bereizten dialektoak (beraz, ez dute halako garrantzirik) transiziozko eremuetan, isoglosa mordoak biltzen ez bada, jakina! Eta hauxe izango genuke gure azterketa esparruaren kasua: Burunda, Goierri eta Arakilgo (nahiz eta azken eremu honetan ia galdutzat eman daitekeen bertako hizkera) hizkerekin mugatzen du, baina hauengandik bereizten duen isoglosa multzoa kontuan izatekoa da, lanaren ondorioetan ikus ahal izango dugun moduan.

1.2.5. OHARMENEZKO DIALEKTOLOGIA

Isoglosak, bestaldetik, ez dira finakoak eta diakronian zehar desagertu edo/eta berriak ager daitezke, batez ere transizionalak izan daitezkeen eremuetan.

Honetaz guztiaz jabetzeko, oso interesgarria deritzogu O. Ibarrek bere lanean (1995, 543) eta baita oharmenezko dialektologiaz I. Caminok berean (1998, 43) esaten digutenari.

O. Ibarrek, elkarren ondoko bi dialektoren arteko ezberdintasunak diakronikoki aztertuz, isoglosak desagertu, agertu edo mantendu egiten direla esaten digu, momentuan momentuko graduzko edo bapateko ezberdintasunen arabera. Eta azterketa diakroniko hori gauzatzeko, duela ehun urteko dokumentua

(Asteteren katezismoa) erabiltzen du, oharmenezko dialektologiaz gain. Aipatu dokumentuaren arabera, hurrengo ondorioetara iristen da: objektu zuzena genitiboan zihoala lehen, eta absolutiboan gaur egun; eta oharmenez, berriz, *esan/erran* isoglosa desagertzeko zorian dagoela, gero eta gutxiago entzuten baita errotazismoaren araberako burutzapena berak aztertutako eremuan.

I. Caminok (1998), oharmenezko dialektologiari buruz, ondorengoa esaten du:

“Transizionalak izan daitezkeen eremuetan, ikerlariak edo biltzaileak ez dute soilik datu dialektal primarioez galdegin behar, baita konszientzia lektikalaz eta berriemalen guztizko hizkuntz jarrerez ere. Berriemalen hizkuntz jokabidea aztertzeke komenigarria da berek hizkuntz jokabide desberdinez egiten dituzten balioztatzeak ezagutzea. Beste hizkuntza gizatalde batean erabiltzen den arau dibergentearen hautematea dialektoaren mugaketaren oinarri objektiboa da, ez baita arau dibergente bakar bat izaten, multzo bat baizik. Berriemalari eskatu behar zaio batetik besterako desberdintasunak zein diren adierazteko. Egiten duen hizkuntzaren interpretazio orokorra –eta baita hizkeren multzoez egiten duena ere-, elkar ulermenaren irizpidearen araberkoa da (Meeussen 1962: 383). Informazio subjektibo hori maiz ezinbestekoa gerta daiteke dialektologilariarentzat ingurune dialektal berezi baten egoera azaltzeko (Taeldeman 1989).”

Eta guk, gure azterketa esparruari dagokionez, bi sistemak erabili nahi izan ditugu, hau da, dokumentu idatzietan oinarritutakoa eta oharmenezkoa. Hala ere lehenak, dokumentu idatzietan oinarritutakoak, ez du gure azterketaren kasuan fidagarritasun handiegirik eskaintzen (Bonaparteren garaiko Etxarriko dotrina, batez ere; eta arbizuera eta Dorraoerako *Orreaga*-ren bertsioak ere ez), Uharteko Dotrinaren kasuan baizik.

Horrela beraz, gehiago fidatu gara informatzaileek esan digutenaz. Etxarriko kasuan, esate baterako, Anbruxio Erdoziak esan digu mende honen hasieran NN_k erako aditz formak egungo Arbizuko hizkeraren moduan erabiltzen zirela,

eta gaur egun, aldiz, NN_iNN_k erako formek hartu dutela haien tokia. Eta Anbruxiok esan diguna baieztatzera dator egun oraindik nahiko erabilia den aditz forma, *aut* (haut):

Yaamankuaut nei beek! (Eramango haut nahi baduk!)

Jenduri, joko aut eta! (Ken hadi, joko haut eta!)

“Jotzen baut pantzan, fanen eiz dantzan; jotzen baut zillen, sekule ezeiz illen!”

(Esaera)

“Bat, bi, iru, lau, sagu zarrak jan al au, ...” (... saguzarrak jan ahal hau, ...)


Haur jokoetan, nori egokitzen zitzaion erabakitzekoa.

Eta aipatu ditugun forma hauetaz kanpo, NN_iNN_k erako formak erabiltzen dira nagusiki:

Gaur goizien etxia yaaman duut! (‘eraman nau’-ren orde).

Eta honetaz gain, duela gutxi arteko ikerketeta dialektologikoetan halako garrantzia izan duten NN_k erako aditz formak (ikus II mapa):

II. mapa



Ikusten denez, Etxarri da gipuzkerako forma duen bakarra eta hau, gure ustean, bertara bizitzera etorritako goierritar etorkinei esker izan daiteke. (Ikus I. taula-n Etxarriko Udaleko 1880ko padroian, Goierriko, edo gutxienez Gipuzkoako, jatorria duten biztanleen zerrenda). Eta gainera, soilik objektu singularraren kasuan agertzen dira -e- bokaldun formak, eta ez pertsona guztietan, horien kasuan ere: *det*, *dek-n*, *dezu*, *dezubie* eta *debie*; baina, *dau* (du) eta *diau* (dugu). Aipagarria iruditzen zaigu, bestalde, pluraleko hirugarren pertsonaren /b/ kontsonante epentetikoa, beti -u- bokalaren ondoren¹³ agertzen dena, baina aditz forma honetan, *debie*, ez dator aipatu bokal goikoaren ondoren. Agian, pentsatu beharko genuke, aurrerago *dubie* izango zela aditz forma hau, Arbizun den bezalakoa, baina noizbait gipuzkerako formak nagusitu zirenean, analogiaz gauzatutako forma izan daiteke. Eta objektua plurala denean, aditz forma guztiak, beste ingurune batzuen artean, ipar goi- nafarreran erabiltzen diren modukoak ditugu, -u- errodonak, beraz: *ttut*, *ttuk-n*, *ttu*, *ttugu*, *ttuzu*, *ttuzubie* eta *ttubie*.

I. taula: Etxarriko 1880ko padroian jatorri goierritarra duten biztanleak¹⁴.

IZEN-ABIZENAK	JATORRIA	URTEAK ETXARRIN
José M ^a Auzmendi Baztarrica	Ataun	4
Santos Aranzasti Urdangarin	“	11
Francisca Lasa Ceberio	“	11
Antonio Lasa	“	1
Josefa Aranzasti Lasa	“	11
Miguel Aranzasti Lasa	“	9
Santiago Carasatorre Zufiria	“	11
Esteban Imaz Auzmendi	“	28
Antonio Aranzasti	“	6
Francisca Munduate Barandiaran	“	6
Miguel Aranzasti Barandiaran	“	6
Josefa Ignacia Aranzasti Barandiaran	“	6
M ^a Micaela Aranzasti Barandiaran	“	6
M ^a Santos Aranzasti Barandiaran	“	6
Benito Aranzasti Barandiaran	“	5
Domingo Auzmendi Baztarrica	“	12
Pedro Ignacio Auzmendi Arratibel	“	12

¹³ AZKUE, R.M. (Morfología vasca, 617): “La u de los diptongos au y eu permuta mucho en b al chocar con otra vocal”.

¹⁴ Izen-abizenak eta herrien izenak padroian agertzen diren moduan idatzi ditut.

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: OINARRI DIALEKTOLOGIKOAK

Juana Josefa Baztarrica Ariztimuño	“	12
Jose Ignacio Auzmendi Baztarrica	“	12
Ramon Carasatorre Zufiria	“	14
Teresa Zufiria Aramburu	“	10
Jose Manuel Imaz Barandiaran	“	2
Jose Ignacio Aguirre Begiristain	“	30
Josefa Antonia Ceberio Arratibel	“	20
Juana Josefa Odriozola Baztarrica	“	32
Juan Aramendi	Azpeitia	12
Jose M ^a Maiza Azanza	Ataun	10
Maria Ignacia Goicoechea	“	10
M ^a Carmen Calparsoro	“	-
Jose M ^a Enparan	Irun	3
Jose M ^a Imaz	Ataun	-
Martin Irazu	“	-
M ^a Bautista Auzmendi Baztarrica	“	9
Felipe Barandiaran Arratibel	“	2
M ^a Lorenza Ezcurdia Castaña	“	2
Pedro Barandiaran Ezcurdia	“	3
M ^a Bautista Aguirre Urdangarin	“	1
Jose Joaquin Iturralde Bengoechea	Amezqueta	2
Ignacia Ordozgoiti Catarain	Segura	24
Martin Calparsoro Barandiaran	Ataun	4
Manuela Igartua Legorburu	Oñate	4
Miguel Jose Zabala Aguirre	Amezqueta	45
Jose Barandiaran Ayerdi	Ataun	15
Jose M ^a Ceberio Otegui	“	12
M ^a Antonia Beguiristain Ceberio	Ataun	12
Ignacio Mendizabal Zabala	Zaldubia	14
J. Felipe Beguiristain Urdangarin	Ataun	33
Juana M ^a Ezcurdia Gaztañaga	“	33
Miguel Urdangarin Beguiristain	“	12
Josefa Antonia Beguiristain Ceberio	“	12
Josefa Antonia Ceberio Aranzasti	“	4
Josefa Zalacain Catarain	“	-
Jose M ^a Dorronsoro Zalacain	“	1
Pedro Miguel Aguirre Beguiristain	“	22
Juan Antonio Ceberio Barandiaran	“	10
M ^a Felipa Arratibel Baztarrica	“	10
Francisco Arruabarrena Usabiaga	“	29
Francisca Beguiristain Muñoa	“	29
Ignacia Usabiaga Dorronsoro	“	28
Josefa Auzmendi Baztarrica	“	2

Pedro Irigoyen Imaz	“	6
M ^a Juana Imaz Zufiria	“	6
Jose M ^a Uncilla Insausti	Lazcano	42
Antonia Beguiristain Ezcurdia	Ataun	30
Silvestre Arratibel Imaz	“	32
M ^a Blasa Arratibel Belza	“	24
Josefa Ignacia Arratibel Dorronsoro	“	-

Ez ditugu zerrenda honetan sartu, aita edo ama goierritarra izanik, dagoeneko Etxarrin jaiotako hauen seme-alabak, baina hauek kontuan izanez gero, pentsa daitekeenez, zerrenda askoz ere luzeagoa izango litzateke.

Eta hauei guztiei, gehitu behar zaizkie gaur egun Etxarrin ditugun jatorri goierritar, edo gipuzkoarreko beste hainbeste abizen, hala nola: Nazabal, Garmendia, Aldasoro, Oiarbide, Arin, Aginaga, Berastegi, Zaitegi, ...

Oharmenezko dialektologiaren garrantziaz jabetzeko, oso ondo datorkigu K. Zuazok (1995, 361) *Burundako hizkera* lanaren bukaeran egiten duen oharmeneko aipamena, gure azterketa esparruari buruzkoa gainera:

“Gure uste hau (Burunda eta Sakana erdialdeko hizkeren arteko desberdintasunaz ari da) sendotzera dator, era berean, aztergai genuen eremuko hiztunen eritzia. Etxarri Aranatzen hasi eta handik ekialderako euskaldunek aho batez nabarmendu dute Burundako hizkeraren izaera “berezia”. Arbizuar banaka batek, gainera, gaztelaniaz mintzatzeko joera ere bazutela esan ziguten bertako seme-alaben ezkontide eta hauen senide urdiindarrekin. Urdiindarron hizkera ezberdinean zegokeela, zioten, ohitura horren arrazoia edota arrazoietakoa bat behinik behin; errazago zitzaizela, alegia, gaztelaniaz elkar ulertzea. Ostera, euskara hutsez mintzo ziren arbizuar horiek beroriek Etxarri, Ergoiena eta Lakuntzako auzoekin. Etxarritik ekialderako hizkeren batasuna eta Burundakoarekiko banatasuna salatzen du, nonbait, gertaera honek.”

Guk, Etxarriko hizkera erabili dugu herriz herri egin ditugun grabaketa eta galdeketa luzeetan, eta ez dugu inongo arazorik izan, ez guk esaten ziguten guztiaz jabetzeko, ez eta informatzaileek gure galdeketa astunetako adierazpenak eta gainerako solasaldiak behar bezala ulertzeko.

Eta oharmenezko dialektologiarekin bukatzeko, begira zer erantzun didaten zenbait informatzailek aldameneko hizkerari buruz galdetu diedanean, hurrengoak izan direlarik erabili ditudan galderak:

- Inguruko zein herritako hizkera iruditzen zaizu errazena ulertzeko?
- Zergatik egiten zaizu errazena?
- Zein hizkera ulertzen duzu hobekien, Ataungoa ala Etxarrikoa /Arbizukoa /Lakuntzako /Arruazukoa /Ergoienakoa?

- Eta zein hobeki, Ataungoa ala Burundakoa?
- Eta Arakilgoa (Irañeta, Ihabar, ...)?

Lizarragako Miguel Agirrek esaten digu berak ez duela inongo arazorik inguruko hizkera guztiak ulertzeko. Ez berak, ez Sakana erdialdeko herrietako gainerakoek ere, bere ustein, elkarren artean ulertzeko. Hala ere, esan digu Lakuntzako hizkera iruditzen zaiola Lizarragakoarekiko antzekoena, hori bai, Ergoienako beste biak berdintsutat jotzen dituelako.

Lakuntzako Felix Arregirentzat ez dago inongo zailtasunik Sakana erdialdeko hiztunen artean elkar ulertzeko. Hala ere, galdeturik ea zein hiztunen hizkerara dagoen ohituen, arruazuera aipatzen du, jarraian gehituz, ziur aski, harreman gehienak aipatu herriko biztanleekin izaten dituelako izango dela. Arbizuera baino zertxobait erosoago gertatzen omen zaio. Bestalde, esaten digu Urdiaingoa dela benetan zaila ulertzeko, eta kosta egiten dela urdindarrekin euskeraz mintzatzea. Gipuzkoakoa ere ez zaio bereziki zaila egiten ulertzeko.

Dorraoko informatzaileak ere, bat datoz esatean ez dutela inongo arazorik Sakana erdialdeko gainerako herrietako hiztunekin elkar ulertzeko, eta gaineratzen dute oso txikiak direla herri batetik bestera desberdin daitezkeen hizkera ñabardurak. Hala ere, gaineratzen dute errazago, edo haienarekin konparatzerakoan antzekoagoa behintzat, egiten zaizkiela Ergoienako beste bi herrietakoez gain Etxarri eta Arbizuko hizkerak besteak baino. Oso desberdina, aldiz, iruditzen zaie Urdiaingo hizkera, zaila benetan ulertzekoa, haien esanetan.

Uharteko Nikanor gauza bera errepikatzen datorkigu, Sakana erdialdeko eta ondoko Irañeta eta Ihabarko (Arakil) hizkerei dagokienez, eta gipuzkuarrekin ere ez omen du inongo zailtasunik izan elkar ulertzeko Aralarko eremuetan horrela egokitu zaionean.

Etxarrikoek eta Arbizukoek aurrekoen ildotik eman dituzte erantzunak, baina ondorengo gaineratu digute herrian erabiltzen diren abestietako euskarari dagokionez: “ *Nai iruitzen dakit erriko izkera ezala jartzen kantetan. Iruitzen dakitela nai, lenuo, bestiatzuk obeki entenditzielis o, eztakit ze eitten zebien, beye beste izkera klasiat eitten zebien*”. (Inozentzia eta Eusebio Markotegi Razkin anai-arreba etxarriarren grabaketa). Eta nabariak dira, esaterako ‘Urte berri’ kantan, gipuzkeraren ezaugarriak: *baratzean, degu, limosnerua zerala, iraki, jeiki, etor gera, ...* Etxarrikoan; *nago, aditzen, ondotikan, leenikan, oneraño, ideki, baratzen, txermenak, ...* Arbizukoan.

2. EZAUGARRI FONETIKO-FONOLOGIKOAK

2.1. BOKALISMOA

Sakana erdialdeko herri guztietako bokalen azterketarik ez da egin eta ez da lan honetan ere horrelakorik egingo, baina bai orain arte inguruan eta bertako herriren batean egindako ikerketen berri eman.

Rosa Miren Pagolak (1992) Nafarroako hizkeren (Baztan, Bortziriak eta Ultzama) azterketa akustikoa egin ondoren bereizketa nabarmenik ez dagoela ikusi zuen jasotako datuen arabera.

Txillardegik (1996) *Lingua navarrorum* liburuan esaten digu euskal bokalismo boskoitza ez dela oso orijinala, munduan barrena hizkuntza askok dutela bokal-egitura boskoitz hori: armeniera (Kaukaso), buruxaskiera (Karakorum mendialdea), swahiliera, amharikera eta zuluera (Afrika), aipatzen dituelarik. Eta horrela jarraitzen du:

“Latinak ere (latin klasikoak, alegia) bost bokale horietxek zituen (luze/labur izariaren arabera bikoiztuak). Eta gero, hizkuntza erromaniko batzutan, zazpitaraldatuak.

Gaztelaniak, hain zuzen, Zerdeñako sardoak bezala, Mendebaldeko hizkuntza erromanikoen joera nagusitik urrunduz, bost ditu: euskarak dituen berberak.

Zerk eragotzi zuen Gaztela zaharrea mendebaltar hizkuntza erromanikoen joera nagusitzea? Harrigarria. Antz hori ez baita fonologikoa bakarrik, are fonetiko ere baita: ‘no sólo (coincide) el sistema vocálico ... sino también las realizaciones fonéticas’ (Mitxelena, *Fonética Histórica Vasca*, 47).

Gaztelaniak erakusten duen bokale-berdintasun horretan, euskal sustratoaren eragina ikusi dute gehienek. Eta hau ez da batere txorakeria: Kukula-ko Donemiliagako lehenengo ‘glosa’ famatuak, batera izkiriatu baitzituen Errioxa Garaian, orain dela mila urte, fraile euskaldun elebidun batek euskaraz eta gaztelaniaz”. (Txillardegi, 1996, 11).

Pilar Etxeberriak (1991) Zaldibiko bokalen egitura akustikoa aztertu eta deskribatzen du eta, ondoren, Pello Salaburuk (1984) Baztangoei buruz egindako azterketa eta gaztelaniazko bokalekin konparatzen ditu eta ondorengoa ondorioztatzen du: Zaldibi eta Baztango [i] eta [u] bokalak gaztelaniazkoak baino irekiagoak dira; eta, [o] eta [u] bokalen biribiltasun maila gaztelanian baino txikiagoa da.

Bestalde, H. Urrutia, M. Etxebarria, I. Túñez eta A. Iribarrek (1995) egindako *Las vocales en euskera* lanean, Euskal Herriko zazpi euskalkietako (Bizkaiera, Gipuzkera, Ipar Goi Nafarrera, Mendebaldeko Behe Nafarrera, Ekialdeko Behe Nafarrera, Lapurtera eta Zuberera) bokalen azterketa egiten da eta bertan, erabilitako metodologiaren barruan, informanteen berri ematen zaigu, Etxarri-Aranatz eta Urdiaingo bi gizonetzko ditugularik haien artean, hori bai, biak Gipuzkera euskalkiaren barruko informante moduan aurkeztuak (Nafarroako gipuzkera azpidialektoa, Etxarri-Aranatzko aldaerakoa lehena; eta Nafarroako gipuzkera azpidialektoa, Burundako aldaerakoa bigarrena). Hortaz, Etxarriko informantearen emaitzak Gipuzkeraren barruan kokatu dituztenez, hemen jasotzen ditugu Gipuzkerako bokalei buruz ematen diren emaitzak:

“En el dialecto guipuzcoano también funcionan los cinco fonemas ya mencionados. Las realizaciones de estos fonemas ofrecen grados bajos de dispersión, y las producciones, más o menos abiertas, o, más o menos anteriores, no presentan una distribución complementaria”. (1995, 240)

Eta gaztelerako bokalekin konparatzerakoan¹ ondorengoa diote:

“Si comparamos el triángulo vocálico de la figura 24 (gipuzkeraren triangelu bokalikoa da hau) con el de las vocales españolas, observamos que :

1º Las vocales del dialecto guipuzcoano se extienden en el eje de ordenadas entre unas frecuencias comprendidas entre los 359 y 706 Hz., aproximadamente, mientras que las del español van desde los 250 hasta los 660 Hz. Es decir, la amplitud de movimiento de frecuencias del primer formante es de 347 Hz. en el dialecto guipuzcoano y de unos 400 Hz. en el español ; esto supone que las vocales altas del dialecto guipuzcoano son, en general, más abiertas que las del español. También la distancia que existe entre las vocales medias y altas en el guipuzcoano es menor que la que se da en español.

2º Por lo que se refiere a la situación antero-posterior de ambos triángulos vocálicos, podemos decir que las vocales del dialecto guipuzcoano se extienden entre los 990 Hz. y los 2190 Hz., mientras que las vocales de la lengua española van desde los 650 Hz. hasta los 2650 Hz., es decir, tienen 800 Hz. más.

Esta situación indica que, de un modo general, las vocales vascas del dialecto guipuzcoano se sitúan en una posición un poco más centro-anterior de la cavidad bucal que las españolas correspondientes.

¹ Mitxelenak, (1977, 47) zera dio: “La mayor parte de las variedades vascas tienen un sistema vocálico sencillo, análogo al del castellano, con cinco fonemas y tres grados de apertura: /i,e,a,o,u/. Sólo el dialecto suletino y hablas cercanas poseen además un fonema anterior labializado: /ü/. La semejanza entre las vocales vascas y las del castellano no se limita al sistema, sino que se extiende también a las realizaciones fonéticas”.

3º Se observa, además, que las vocales medias del dialecto guipuzcoano y las del español están situadas aproximadamente en las mismas frecuencias del eje de ordenadas.

En la comparación de las vocales del dialecto guipuzcoano con las del español realizada por Navarro Tomás (1925) ya se había puesto de manifiesto el carácter más abierto de las primeras, por lo que se refiere a las vocales altas /i/, /u/. La vocal /a/ del guipuzcoano, para este autor, es de timbre medio, ni velar ni palatal, semejante a la del español. En nuestro caso, sin embargo, es ligeramente más abierta que la del español.

Las vocales medias del dialecto guipuzcoano /e/, /o/ tienen un grado de abertura similar a las del español.” (1995, 242)

Bestalde, Ipar Goi Nafarreraren barruan egokitzen direnez Arbizutik ekialdera dauden Sakana erdialdeko herriak (Lakuntza, Arruazu, Uharte) hemen jasoko ditugu aipatu liburu egileek euskalki honi buruz azaldu dituzten emaitzak :

“En el dialecto alto navarro septentrional volvemos a encontrar los cinco fonemas ya mencionados y caracterizados. También en este caso los grados de dispersión en las distintas realizaciones son poco diferenciados, y no muestran, al igual que en los dialectos examinados hasta ahora, una distribución complementaria”. (1995, 243)

Eta gaztelerako bokalekiko konparazioari dagokionez honako hau diote :

“Si comparamos el triángulo vocálico de la figura 29 (Ipar Goi Nafarreraren triangelu bokalikoa) con el de las vocales españolas observamos que :

1º Las vocales del dialecto alto navarro septentrional se extienden en el eje de ordenadas entre unas frecuencias comprendidas entre los 390 y 650 Hz., aproximadamente, mientras que las del español van desde los 250 hasta los 660 Hz. Es decir, la amplitud del movimiento de frecuencias del primer formante es de 260 Hz. en el dialecto alto navarro y de unos 400 Hz. en el español ; este hecho supone que las vocales altas del dialecto alto navarro son, en general, bastante más abiertas que las del español. También la distancia que existe entre las vocales medias y altas en el alto navarro es mucho menor que la que se da en español.

2º Por lo que se refiere a la situación antero-posterior de ambos triángulos vocálicos, podemos decir que las vocales del dialecto alto navarro se extienden entre los 1050 Hz. y los 2050 Hz., mientras que las vocales correspondientes de la lengua española van desde los 650 Hz. hasta los 2650 Hz., es decir, tienen 1000 Hz. más. Esta situación indica que, de un modo general, las vocales del dialecto alto navarro se sitúan en una posición más anterior de la cavidad bucal que las vocales españolas correspondientes.

3º Por lo que se refiere a las vocales medias del dialecto alto navarro septentrional y las del español, se observa que presentan, aproximadamente, las mismas frecuencias en el eje de ordenadas. En el eje de abscisas, se observa que la vocal vasca /e/, de tipo medio, es ligeramente más posterior, mientras que la vocal /o/ es más anterior.

4º La vocal baja /a/ del dialecto alto navarro es más central que su correspondiente española”. (1995, 245)

Azkenik, lanaren bukaeran, goian aipatutako zazpi euskalkien bokalismoaren konparazioa egiten da eta ondorengo sei baieztapenak ematen dituzte :

1º Los dialectos bajo navarro oriental, labortano y suletino tienen mayor distancia en el eje de ordenadas entre las vocales altas y la baja /a/ ; esta distancia aumenta progresivamente desde el bajo navarro oriental hasta el suletino (diferencias de 365 Hz., 427 Hz., 450 Hz.). Por su parte, los dialectos más occidentales (vizcaíno, guipuzcoano, alto navarro septentrional) son los que presentan distancias menores ; la mínima se da en alto navarro y aumenta progresivamente en vizcaíno y guipuzcoano.

2º Los dialectos orientales (bajo navarro oriental, labortano y suletino) tienen mayor distancia en el eje de abscisas entre las vocales altas /i/ y /u/ que la que presentan los occidentales. Dentro de cada grupo, se mantienen las secuencias progresivas antes indicadas : [bajo navarro-labortano-suletino] y [alto navarro-vizcaíno-guipuzcoano].

3º La realización media de la vocal /a/ es más abierta y más anterior en los dialectos orientales que en los occidentales.

4º Las diferencias de abertura entre las vocales /i/ y /u/ son muy pequeñas.

5º La vocal /i/ es claramente más anterior en los dialectos orientales. Por el contrario, la vocal /u/ no muestra una relación clara de anterioridad o posterioridad en los dialectos mencionados.

6º El grado de abertura de las vocales /e/ y /o/ es, aproximadamente, el mismo en todos los dialectos.
(1995, 259)

Azterketa sakon honetatik ondoriozta daiteke, beraz, ezin dugula euskalki desberdinen sistema bokalikoaren deskribapena (bokalen egitura akustikoa, harreman artikulatorio eta akustikoak, formanteak, triangelu akustikoak, ...) modu erabakiorrean erabili euskalkien arteko mugak ezartzeko, are gutxiago konparatu nahi diren hizkerak (euskalki desberdinetakoak balira ere) elkarren ondoan baldin badaude eta hauxe da, haien zuzen ere, gure azterketaren esparruko kasua, Bonaparteren arabera bi euskalki desberdinetan banatua (Nafarroako gipuzkerakoak Lizarraga, Dorrao, Unanu eta Etxarri; eta ipar goi nafarrerakoak Arbizu, Lakuntza, Arbazu eta Uharte) baina antzinatek bertako herrien elkarren arteko harreman eta eragin handikoa.

Las vocales en euskera (1995) liburutik hartutako datuekin egindako taula da ondorengoa, eta bertan ikus daitezke gipuzkera, ipar goi nafarrera eta hauek eta beste bost euskalkiak kontuan hartuz ateratako balore ertainen (euskeraren bokalismoaren) emaitzak, hots, bokal bakoitzaren 1, 2 eta 3 formante² eta iraupenari dagozkien datuak :

² Formanteak bokalaren tinbrearen arduradunak dira eta horrela definitzen dituzte aipatutako liburuan (17 or.): “Cada conjunto de armónicos cuyas frecuencias coinciden con las de los resonadores bucales son los formantes”. Eta hurrengo orrian : “DELATTRE (1951) señaló las relaciones existentes entre las tendencias formánticas y las configuraciones de la cavidad bucal en el habla natural, del siguiente modo :

1. Existe una relación directa entre la elevación de la frecuencia del primer formante, F_1 , y la abertura de la cavidad oral. Cuanto más alta es la frecuencia del F_1 , más grande es la abertura total de la cavidad, y a la inversa.
2. Existe una relación directa entre el retroceso de la lengua y el descenso de la frecuencia del segundo formante, F_2 : cuanto más posterior sea la posición de la lengua, más baja es la frecuencia del F_2 , y a la inversa.
3. Existe una relación directa entre el redondeamiento labial y el descenso en la frecuencia del F_2 : cuanto mayor sea el redondeamiento y la protusión o proyección labial, más baja será la frecuencia del F_2 , y a la inversa”.

	F 1 (Hz)			F 2 (Hz)			F 3 (Hz)			Iraupena sg		
	Gipuz.	I.G.Naf.	Euskera	Gipuz.	I.G.Naf.	Euskera	Gipuz.	I.G.Naf.	Euskera	Gipuz.	I.G.Naf.	Euskera
/i/	359,7	360,8	355,9	2184,0	2043,6	2209,3	2734,5	2684,8	2839,5	57,2	53,3	58,8
/e/	504,8	492,9	499,1	1779,8	1743,8	1825,1	2569,4	2682,4	2661,4	61,5	56,1	61,3
/a/	706,6	646,7	706,2	1439,0	1358,1	1433,3	2518,3	2594,4	2474,5	65,2	59	65,3
/o/	500,8	509,1	513,8	1013,5	1050,0	1061,2	2137,0	2354,2	2254,6	68,8	56,9	65,1
/u/	384,2	386,9	379,9	989,6	1044,6	1028,9	2173,9	2437,6	2350,6	57,7	51,8	57,2

Sakana erdialdeko euskarak, beraz, gipuzkera eta ipar goi nafarreraren kasuan bezala ahozko bost fonema bokaliko (/i/, /e/, /a/, /o/ eta /u/) ditu ondorengo oposaketa edo kontrajartzeen bidez ikus daitekeen moduan :

i/e : **izer** (izar) / **eze(r)**
mî (mihi) / **mê** (mehe)
beti / **bete**
itxi / **etxe**
ezi (hezi) / **eze** (heze)

i/a : **azi** (hazi) / **aza**
iri (idia) / **ari** (ahari)
itze (hitz) / **atze**
itzô (igo) / **atzo**
iyé (ia) / **aye** (ahia)

i/o : **iri** (hiri, dat.) / **ori** (hori)
piztu / **poztu**
mixto (poxpoloa) / **mosto**
Boli (izen gutxia) / **bolo**

i/u : **larri** / **larru**
iri / **iru** (hiru)
piru (hari izpia) / **puro**
piztu / **puztu**
ir(i)e (hirea) / **ure** (hura)

e/a : **eze** (heze) / **aza**
eme / **ama**
erre / **ar(ra)**
ezi (hezi) / **azi** (hazi)
esi (hesi) / **asi** (hasi)

e/o : **atze** / **atzo**
erre / **erro**
erro / **arro** (harro)
erro / **orro**

elo (asmoa bete) / **olo**

e/u : **etzi** / **(a)utzi** (utzi)
ikesi (ikasi) / **ikusi**
este (heste) / **uste**
eme / **ume**

a/o : **atso** / **otso**
ar (har) / **or** (hor)
sartu / **sortu**
malkar / **malkor**
zar (zahar) / **zor**

a/u : **zar** / **zur** (zuhur)
artu (hartu) / **urtu**
moda / **modu**
lar (sasi) / **lur**
ar (har) / **ur** (“avellana”)

o/u : **oso** / **uso**
poztu / **puztu**
mosto / **mustu** (estreinatu)
zor / **zur** (zuhur)

2.1.1. SAKANA ERDIALDEKO BOKALEN ALOFONO EDO HIZKETA SOINUA

2.1.1.1. /I/ FONEMA BOKALIKOA :

a) DESKRIBAPENA :

Bere artikulazioari dagokionez goikoa dugu eta aho barrunbeari erreparatzen badiogu, itxia eta aurrekoa da bokal hau. Mihiaren aurrealdea sabairantz higitzen da eta ezpaineak zeharretara jotzen dute.

b) BURUTZAPEN FONETIKOAK :

- [**ĩ**] itxia. /i/ fonemaren gauzapen itxiena silaba irekian gertatzen denean gertatzen da :

[**ĩ**libúu], [**ĩ**idrúu] (liburu)
[**ĩ**ibre]

[mak̩̃l̩̃], ...

- [**ĩ**] irekia. Honen gauzapena silaba trabatuan, [f̩̃]-ren aldamenean eta [ç]-ren ezkerrean dagoenean gertatzen da, baina batez ere /i/ hitzaren azken muturrean, bai modu askean nola trabatuan, agertzen denean :

[p̩̃ʃtu] (pixtu, txistu)

[áʀ̩̃] (harri, hari)

[f̩̃ʀi-fáʀ̩̃a] (firri-farra)

[ĩce] (hitza)

[bét̩̃]

[aungĩ̩] (ongi)

[bušt̩̃]

[auć̩̃] (hautsi)

[ĉeʀ̩̃] (txerri)

[ñ̩k]

[bâk̩̃k] (badakik)

[nôk̩̃n] (norekin)

- [**ĩ**] bokalerdia. Hau diptongoetako bigarren elementua denean suertatzen da³ :

[bẽ̩] (bai, behi)

[mẽ̩] (mahai)

[śẽ̩]

[śũ̩] (suhi)

[xẽ̩] (jai)

[lõ̩] (lohi)

[aĩ̩̃e] (aita)

- [**j**] kontsonante erdia. Oso maiz entzun daiteke bokalarteko egokipenetan :

[kjá] (kia !, ez da izango !)

[tjá] (tira !, ez esan !)

[bjá] (bera)

[buśbjá] (buruz behera)

³ Horrela diote *Las vocales en euskara* (1995, 15) liburuan : “En algunas lenguas, como el euskera y el castellano, sólo la vocal puede constituir núcleo silábico, ya sea por sí misma, ya sea precedida o seguida de consonantes. Estas consonantes que acompañan a una vocal en una sílaba constituyen los márgenes silábicos”. Eta gero, orri azpiko ohartxoan ondorengoa gehitzen du : “Cuando los fonemas vocálicos no funcionan como núcleo silábico en un diptongo o en un triptongo, lo hacen como margen silábico, prenuclear o postnuclear. Así ocurre con los fonemas /i/ y /u/, que pueden ser semiconsonantes ([j] y [w]) como margen prenuclear y semivocales ([i] y [u]) como margen postnuclear”.

[lu^hɾja] (lurrera)

- Kasu bat baino jaso ez badugu ere, Etxarrin behintzat, suertatzen da /i/ bokalaren irekiera mailegatutako hitz batean:

fameli < familia

2.1.1.2. /E/ FONEMA BOKALIKOA.

a) DESKRIBAPENA.

Erdi irekia eta aurreko bokala dugu /e/ aho barrunbea izaten badugu kontuan, eta erdikoa bere artikulazioari dagokionez. /i/-ren kasuan bezala ezpainek zeharretara jotzen dute eta mihiaren aurrealdea sabairuntz higitzen da, /i/ baino gutxiago bada ere.

b) BURUTZAPEN FONETIKOAK :

- [ɛ] itxia. Herri mailako hizkeretan erabat ixtera hel daiteke, eta askotan, [e] baino gehiago [i] edo [j] izatera iristen da :

+ [i] ematen du izenorde pertsonalen forma indartuetan :

[gjo] (geuk) < geok < gerok

[sjo] (zeuk) < zeok < zerok

+ e + K + o → /jo/ Hauxe da suertatzen den emaitza kontsonante erorkorrek /e/ eta /o/ bokalen artean joaten direnean :

[bjotu] (berotu)

[bjo^ha] (behorra)

[ljo^h] (lehor) Azken honen kasuan, toponimian ere jaso dago :
errekali

[gjo] (gero)

[eskjo^h] (ezkero)

[^hçio^htu] (txigortu)

[njo^h] (neroni)

[njonek] (neronek)

[sjo^hek] (zerorrek)

+ /e/ hizkiak bukatzen diren hitzetan, -a mugatzailea eransten zaionean [j] kontsonante-erdia bihurtzeraino iristen da azterketa esparru osoan. Eta bokalaren itxiera honetaz gain, asimilazioz, hurrengo /a/-ren itxiera ere gertatzen da sistematikoki Uhartan, Lakuntzan, Etxarrin eta Lizarragan ; eta pluralaren marka, /ak/, edo inesibo singularreko morfema, /an/, eransten zaionean Arruazun, Arbizun, Unanun eta Dorraon. Ondorengoak Arakamak jasotako adibideak ditugu :

[éĈje] [béstjek] [gástja] [éĈtjek]
[kálje] [káljen] [kálja] [káljek]

Jose Mari Arakamak (LA) Lizarragaren kasua bigarren herri-taldean sartzen du, asimilazioa sistematikoki egiten ez duten taldean, baina bestelako ikuspuntua eta adibideak agertzen dizkigu Gregoria Solis-ek (1993, 96-98):

“Normalki hitza *e*-z bukatzen bada, *a* mugatzailea hartzerakoan, *e*-k *a*-ren ondoan itxeko joera dauka, goranzko diptongoa sortuz:

labe + a = labie [labje]
nere + a = nerie [nerje]
izate + a = izatie [isatje]

Baina : ate + a = ateye [ateye]⁴”

Asimilazioa gertatzen da, beraz, sistematikoki lehen kasuko herrietan eta pluralean soilik besteetan. Hala ere, astiroago ikusiko da gertaera hau aurrerago.

Itxiera berbera jazo da hitz barruko kasuetan ere, baina diptongoen sailean ikusiko ditugu polikiago⁵ :

[bjeřa] (beharra)
[aštjéřtjé] (asteartea)

+ /e/-ren itxiera gertatzen da “bat” mugatzaile zenbatzaileak eta -AGO konparaziozko partikulak eragindako sandhi kasuetan ere, baina kasu

⁴ Guk ez dugu uste Gregoria Solis-ek jartzen duen azken adibide hau horrela denik, ezen bestela *atie* beharko luke eman. Ez ordea, *ate* + *a* -tik beharrean *atari* + *a* -tik eratortzen badugu :

atari + *a* = *atariye* > *ataiye* > *ateye*

⁵ Orreaga Ibarak (1995, 95) *a/o* txandaketaren berri ematen digu Ultzamarako, ondorengo adibideak jarritz :

bitartean (orok.) → *bittartio*

batera (orok.) → *batio*

Etxarrin behintzat, lehenaren azterna gelditzen da oraindik , eta **biyertie/biyertio** lehia nabari daiteke gaur egun.

honetan ez da zenbatzailearen bokalaren asimilaziorik suertatzen, bokal arteko herskari ezpainetako ahostunaren erorketa baizik :

e → i/ __a

[beʃtjât] (beste bat)
[eĉjât] (etxe bat)
[śemjât] (seme bat)
[emakomjât] (emakume bat)
[esjó] (hezeago)
[tentjó] (tenteago)
[fwéřtjó] (fuerteago)
[meřkjó] (merkeago)

+ Itxiera ere suertatzen da erakusleekin burututako sandhietan :

[eĉjónek] (etxe honek)
[xendjói] (jende hori)
[emakomjúre] (emakume hura)
[aisjáu] (haize hau)
[eĉjórřtan] (etxe horretan)

+ Adlatiboaren kasu marka eransterakoan ere itxiera gertatzen da:

[eĉjá] (etxera)
[kaljá] (kalera)

+ /ĉ/ kontsonante sabaikoaren ezkerrean doanean /e/ bokala, Arbizun eta Arruazun /i/ bihurtzen da :

[iĉe]⁶ (etxe) (Ikus Salaberri 1991 : 624)

Eta Lakuntzan ere horrela erabiltzen du zenbaitek:

“Leno, iyotetan mutilek itxes-itxe ibiltzen zien gauzek eskatzen”
(Guaixe, 3, 16)

⁶ Goi nafarrerako hainbat tokitan gertatzen da itxiera hau, hala nola Ihabar, Goñi eta baita Utergako katezismoan ere. Koldo Zuazok esan digunez, oso zabaldua dago: Zumaian, Getarian, Antzuolan, ... Ez da, beraz, ‘nafarra’ orain arte askotan esan den moduan.

+ Ondorengo kasuan, hasierako /e/ erdiko bokala itxi egiten da Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Ergoienan, ondorengo silabako /u/-ren eraginez :

iruzki⁷ (eguzki)
[iŝkiñe] (eskina)
inbiye
bildur⁸ (beldur)
giñuben, ziñuben, ziñubien

Arbizun, Unanun eta Uharten gauza bera gertatzen da, **irui** (Arbizu), **idui** (Unanu) eta **idugi**⁹ (Uharte), ‘eduki’ aditzarekin, ondorengo delarik jarraitu duen bilakabidea : *edugi* > (bokalaren itxiera) *idugi* > (bokalen arteko herskariaren erorketa) *idui* > (r/d alternantzia) *irui*.

+ Bokal arteko kontsonante erorkorrekin, /d/, /g/ eta /r/-rekin, kontsonantea erori ondoren, hasierako /e/ bokala itxi egiten da eta gero kontsonantizatu, /y/ sabaiko igurzari ahostuna bihurtu, bigarren bokala, /e/-rekin kontaktuan jarria dena, luzatzen delarik. Hala ere oso arrunta da, hizkera arinean gehien bat, bokal luzearen murrizketa gertatzea:

yâkusi (erakutsi)
yôsi (‘erosi’, eta ‘egosi’ ere bai Lakuntzan)
yân (edan)
yâman (eraman) (Ikus I koadroa)

‘Egosi’ aditzaren kasuan, ez da bokal arteko belare herskari ahostunaren galera gertatzen Etxarri, Unanu, Lakuntza eta Uharten, eta horrexegatik hain zuzen, ez da nahasketarik sortzen ‘erosi’ aditzaren burutzapenarekin, Arbizu eta Dorraon gertatzen den moduan, berdin esaten baitira bi aditz hauek: *oosi*.

I koadroa

⁷ MITXELENA, K. (*F.H.V.*, 258) : “No escasean los casos de permutación entre oclusivas de distintos órdenes. Influye en unos la inseguridad inherente a la posición inicial, en otros la articulación muy relajada entre vocales de las oclusivas sonoras, que da lugar a desapariciones y falsas restituciones. La disimilación interviene a menudo para evitar la proximidad de sonidos homorgánicos : ... ; *iduzki* (> aezc. a.-nav. *iruzki*, a.-nav. etc. *iuzki*) ‘sol’, de *eguzki*, *iguzki*”.

⁸ ‘*vildurreti*’ Uharteko dotrinan.

⁹ ‘*idugui*’ agertzen da Uharteko dotrinan ere. (J.M. Arakama, 1994, 572)

	Etxarri	Lizarraga	Dorrao	Unanu	Arbizu	Lakuntza	Arruazu	Uharte
erakutsi	yakusi	yakusi	aakusi	yakusi	aakusi	yakusi	eakusi	eakusi
eraman	yaman	yaman	aaman	yaman	eeman	yaaman	eaman	aman
erosi	yosi	yosi	oosi	yosi	oosi ¹⁰	yoosi	eosi	eosi
egosi	egosi	egosi	oosi	egosi	oosi	yoosi	eosi	egosi
(h)erenegun	yaniaun	yanaun	aniaun	yaniaun	aanion	yanaun	eraniaun	eraniaun
edan	yan	yan	aan	yan	aan	yan	eran	ean
erantzi	yáantzi	yaantzi	aantzi	yáantzi	aantzi	yáantzi	erantzi	eantzi
edozein	yozein	yozein	oozein	yozein	ooz(e)in	yezín	eozein	eozein
erauntsi	yauntsi	erantsiye	auntsi	yauntsi	aauntsi	yauntsi	erauntsi	eauntsi
egon	yon	yon	oon	yon	oon	yon	eon	oon
erantzun	yantzun ¹¹	yantzun			-	-	-	-
erak ¹²	yak	erak		yak	biaik	yak	erak	eak
eraztun	yaztun	aaztun	aaztun	yaaztun	aaztun	yaaztun	eraztun	eaztun

Iñaki Caminok ere jasotzen du horrelako kasuren bat Orbaran, zeinetan hasierako e- bokalaren itxiera eta bokal arteko herskari ahostunaren galera gertatzen baita, bokala sabaikaritzen ez bada ere:

“Orbaran berean *ioten* ‘egoten’ bildu dugu bi aldiz _beti ere emazteki berari_ ...” (I. Camino, 1997, 300).

+ Hasierako /e/-ren itxierako beste hiru kasu, zeinetan gainera hurrengo kontsonantearen palatalizazioa eta bokalaren asimilazioa ere eragiten baititu itxitako bokalak :

iñere¹³(enara)

iyé (ea)

iyo (eho)

Adibide hauek azterketa esparruko ia herri guztietan suertatzen dira: Etxarri, Lizarraga, Unanu, Arbizu, Arruazu eta Uharten gutxienez gertatzen da.

- [**ë**] irekia. [r] dardarkari azkarraren ondoan, [c] eta [č] afrikatu, bizkar-hobietako eta mihi-punta hobietakoen ezker aldean eta [l] albokari hortz-hobietakoaz trabatutako silabetan gertatzen da horrela :

¹⁰ Berdin esaten da Arbizun, Dorraun, Lakuntzan eta Arruazun ‘egosi’ zein ‘erosi’: *oosi*, lehengo bietan; *yoosi*, Lakuntzan; eta *eosi*, Arruazun.

¹¹ Honela erabiltzen du Santiago Ezkerra Beltza, ‘Lizarrusti’, etxarriarrak “Lan-oporrak Arjentinan” idatzian (*Principe de Viana* aldizkaria, suplemento XV, 146 alea, 6. Orrialdea): “ (...) –Ze ordu da? – galdein noon. –Lauek –**iaantzun** zuuten.”

¹² Haiek, intentsiboa.

¹³ MITXELENA, K. (*F.H.V.*, 326): “... a.-nav. guip. lab. mer. vizc. Lequeitio *enara* (> *enada* ya en Pouv.), a.-nav. b.-nav lab. *in(h)ara*. B.-nav. *ainhera*, b.-nav. sul. *añ(h)era*, aezc. a.-nav. merid *iñare*, ronc. Sal. *añari*”. Lizarragan, bestalde, esaten didate *iñere* tximeleta txiki bat dela, eta *apeztxoriye* esaten diotela ‘enara’-ri.

[**ě ři**] (herri)
[**b ě ři**] (berri)
[**ě cin**] (etzan)
[**ě Ći**] (etsi)
[**elc ě to**] (eltzetxo)
[**is ě rdi**] (izerdi)

- [**ě**] erdikoa. Horrelako errealizazioetan balio ertaina du :
- + /t/ herskari hortzetako ahoskabea, /**ś**/ igurzkari hortz-hobietako ahoskabea eta /s/ igurzkari bizkar-hobietako ahoskabeak diren kontsonanteen aurrean :

[**běta**]
[**besěla**] (bezala)
[**měsa**] (meza)
[**fěśta**]

- + [**eĭ**] diptongoan :

[**beĭ**] (bai, behi)
[**śeĭ**]

- **e > a** / **r** Dardarkari azkarraren zein xamurraren eraginez, bere aurreko /e/ bokala /a/ bihurtzen da ondorengo kasuetan :

baztar
asarre, asarratu
axaye (azeri)

Azkenengoaren kasuan, Arruazun eta Lakuntzan ez da irekiera gertatzen: **exei**.

Arbizun eta Etxarrin /r/ xamurraren galerak diptongazioa sortzen du /e/ bokala itxiz : **abjátsa**.

Bada bestalde, gaztelaniatik eratorritako hitza bada ere, /e/ bokalaren irekiera beste kasu bat gutxienez :

ballako ('*varraco*') Izengoitia da, txerri apotea daukaten herriko etxeko baten izengoitia.

Eta honela azaltzen du Orreaga Ibarak (1995):

“Badirudi fenomeno berbera testigatzen dela gaztelaniaz ere /e/ bokalak /a/-runtz jotzen duela /r/-ren ondoan dagoenean-. Nafarroako hizketa arruntean, esaterako, *varraco* (< lat. verres), eta eratorrikoak : *varraquiar*, *varredera*.” (1995, 87)

Etxarrikoaren kasuan, gainera, dardarkari azkar hartz-hobietakoa, /rr/, albokari sabaikoa /ll/ ere bihurtu da.

- *a + e → a Kasu batean behintzat gertatzen da halako emaitza, erlatiboazko -en atzizkia edota konpletiboetako -ela /a/-z bukatutako aditz laguntzaileari eransten zaionean, Etxarrin eta Ergoienan¹⁴ :

dan (da + en → den)

gânok (gara + en + ok → garenok)

zânoi (zara + en + hori → zaren hori)

2.1.1.3. /A/ FONEMA BOKALIKOA

a) DESKRIBAPENA :

Bere artikulazio edo aho barrunbeto irekierari erreparatzen badiogu, behekoa edo irekia dugu bokal hau, irekiena denetan. Eta artikulazio puntuari dagokionez, erdikoa dugu. Bokal hau ahoskatzerakoan, mihia erdibidean agertuko da eta ezpainak geldirik.

b) BURUTZAPEN FONETIKOAK :

- [a] itxia : /u/ bokalardiarekin diptongoan agertzen denean silabako gune edo nukleo moduan :

[g̞a̞usa]

[g̞a̞u̞r̞]

[a̞u̞r̞ten]

[a̞u̞r̞]

/a/ itxia gertatzen da /l/ batez trabaturiko silabetan ere:

[m̞a̞lda]

[a̞lda̞tu]

[ka̞lte]

- [â] ertaina : silaba askean doanean :

[ânéi] (anaia)

[ấrasa] (arraza)

[ấtái] (atari)

¹⁴ Horrela ageri da ESHA-n Dorraun: *fân zan illa, fân dan illén*.

- [ä] irekia edo sabaikaria : kontsonante sabaikari, dardarkari eta afrikatuen ezkerretan eta /s/, /s'/ eta /n/-z trabaturiko silabetan agertzen denean :

[bäde] (bahea)
[äñe] (adina)
[paṭära] (pattarra)
[ärtu]
[äco] (atso)
[äco] (atzo)
[ästü] (ahaztu)
[äsko] (asko)
[änka]

- Kanpo sandhietako /a/-ren emaitzak.

+ /a/-ren degeminazioa :

plazartan plaza hartan
ankaundi anka haundi
denborasko denbora asko

+ /a/-ren desagerpena¹⁵ :

eturtio eta urtero
etori eta hori
monjure monja hura
neskoik neska horiek
ankure anka hura
plazoi plaza hori

Lizarragan ere ondorengoak jaso ditu G. Solisek (1993, 99):

Punture punta hura.
Amorri ama horri

2.1.1.4. /O/ FONEMA BOKALIKOA

a) DESKRIBAPENA

¹⁵ Gauza bera diote P. Salaburuk Baztango euskararako (1984) eta O. Ibarra-k Ultzamerari dagokionez (1995).

Bere artikulazioari dagokionez erdikoa dugu bokal hau, eta aho barrunbeari begiraten badiogu erdi-irekia eta atzekoa edo belarea. Mihiaren atzekaldea sabairantz doa pittin bat, /u/-ren kasuan baino gutxiago, eta ezpainak bertikaltasunaren bila doaz.

b) BURUTZAPEN FONETIKOAK

- **[ɔ]** itxia :

+ /o/-z bukatzen diren hitzetan, -a mugatzailea eranstean zaionean [w] kontsonante-erdia izatera iristen da esparru osoan:

[áštwe/a] (astoa)

[súlwe/a] (zuloa)

[pótwe/a] (potoa)

[báxwe/a] (bajoa)

Gauza bera gertatzen da, [w] kontsonante-erdia bihurtzen da, hitzaren hasierako /o/-ri kontsonante dardarkari xamurrak, /r/, edo /h/ batek jarraitzen badio, hauek galdu eta herskari belare ahostunaren, /g/, protesia garatzen delarik :

[gwái] (orain)

[gwáiše] (oraintxe)

[gwáñiken] (oraindikan)

[gwártu] (ohartu)

[gwáce] (ohatze, ohe)

[gwá]¹⁶ (*oha, ohe)

Eta baita *bat* zenbatzailea eta *-o* bokalaz bukatutako lexemen arteko sandhietan, bokal arteko ezpainetako herskari ahostuna erori egiten delarik:

[aštwat] (asto bat)

[súlwat] (zulo bat)

[falšwat] (falso bat)

Eta ondorengoak, J.M. Arakamak (1994, 571) *Uharteko dotrina*-n jasotakoak dira:

Eguiyescuat, Jaungoycuat, milagrosuat, piscuat.

¹⁶ Etxarrin bolo edo kanika jokuko zuloa izango genuke. Mitxelenak (1977, 251) honela jasotzen du : “... sal. ‘ua’ cuna ...”.

+ Era berdinean gertatzen da hitzaren barruan ere, **-oa** “joan” aditzaren erroa [wé] bihurtzen delarik Etxarri, Lakuntza, Lizarraga eta Dorraon (Arbizu eta Unanun [wá] singularreko formetan) partizipio eta infinitibo formak, **fan** (joan) bien kasuan, soilik salbuespenak izanik :

[nwé] (noa)	[nwékiyo] (noakio)
[gwé] / [ywé] (hoa)	[dwékiyobjé] (doakie)
[dwé] (doa)	[siywékiyobjén] (zihoakien)
[gwés(e)] (goaz)	[niywékisubjén] (nihoakizuen)
[swés(e)] (zoaz)	...
[swésje] (zoazte)	
[dwés(e)] (doaz)	

Hala ere, [gwásen] (goazen!) espresioa erabiltzen da eta ez “guezen!”.

Emaitza berdina suertatzen da /o/-z bukatutako hitza eta konparaziozko -AGO partikulaz osatutako sandhietan :

[goiŝwó] (goxoago)
[poĉolwó] (potxoloago)
[boegwó] (borregoago)
[manĉwó] (mantsoago)
[ĉoĉolwó] (txotxoloago)

goxuau, potxoluau, ... da Lizarragan eta Unanun.

+ Kontsonante-erdia bihurtzen da, era berean, aditzaren geroaldiko forma, *-ko*, eta nor-nork erako *d*-dun laguntzailearekin sortutako sandhietan Etxarriko hizkeran:

[ikuŝkwét] (ikusiko dut)
[ikuŝkwék-n] (ikusiko duk-n)
[ikuŝkwáu] (ikusiko du)
[ikuŝkwésu] (ikusiko duzu)
[ikuŝkwésubjé] (ikusiko duzue)
[ikuŝkwébjé] (ikusiko dute)
[ikuŝko djáu] (ikusiko dugu) da salbuespen bakarra.

+ Itxia ere suertatzen da hitzaren azken tokian agertzen denean :

soro
poto
arto

Hala ere, gure azterketaren esparruan ez da nahasten /u/-z bukatzen diren lexemen errealizazioekin, gipuzkera eta goi nafarrerako hainbat zonaldeetan bezala, zeinetan *bero* eta *zeru*-k burutzapen berdina agertzen baitute: *berua*, *zerua*.¹⁷ Sakana erdialdean /o/-z bukatu-rikoak -*ue*-/*ua*- diptongaturik (*berue/berua*) eta /u/-z bukatu-rikoek, aldiz, -*ube*-/*uba*- (*zerube/zeruba*) epentesia eta guzti, ematen dute:

zerube, eskube, zorube, ... Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uharten.

zeruba, eskuba, zoruba, ... Dorrao, Unanu, Arbizu eta Arruazun.

+ Deklinabideko lekuzko galdetzaileen kasuan eta hauengandik eratorrietan ere, /u/ bihurtzeraino iristen da /o/-ren itxiera. Kasu batean /n/ sudurkariaren aurrean doalako eta bestean, berriz, dardarkari xamurraren galerarekin batera diptongazioa burutzeko:

nun (non)
nungo (nongo)
nua (nora)
nundi (nondik)
nunei (nonnahi)
nuanei (noranahi)
nunbeitt (nonbait)
nuabeitt (norabait)
nuako (norako)

Galdetzailea izan gabe ere, gertatzen da /n/ sudurkariaren aurreko /o/-ren itxiera :

aittune, -a (aitona)
trunkube, -a ('tronco', enborra)

- **[ö] irekia** . Ondorengo kasuetan ematen da errealizazio hau :

+ Dardarkari anitzaren inguruan :

porka (sorta)
arro (harro)
forratu/jorratu (jorratu)
orro
zorra

¹⁷ Honela dio Mitxelenak *F.H.V.-n* (1977, 130-131): “La vacilación entre “o” y “u” era natural en zonas como algunas guipuzcoanas y alto-navarras donde se confunde totalmente la declinación determinada en ambos grupos de temas : *berua* da *bero* como *zerua* da *zeru*”.

Baina, **burruketu** (borrokatu)

+ Silaba trabatuetan, edozein direlarik ere :

moldata

soldado

arrantza, arrontze (*arrantzia*) Arbizun eta Lakuntzan.

yon(du) (egon)

+ Txistukari afrikatu hortz-hobietako eta bizkar-hobietakoaren aurrean :

otso

otsein (hots egin)

izotz

motz

- **[õ]** **erdikoa**, gainerako kasuetan suertatzen da :

koxera (goilara)

gosai (gosari)

- **o__ → au__** emaitza. Aipatu besterik egingo ez badugu ere, hona hemen burutzapen honen (sudurkari hortzobietako ahostunaren aurreko hitzaren lehen posizioan doan /o/, /au/ diptongoa bihurtzen da) bi emaitza adierazgarri (diptongoen sailean ere ikusiko ditugu) :

aungi ← ongi (Baina diptongatu gabe Arruazu eta Lakuntzan).

auntzi ← ontzi

Eta bada hirugarren adibidea ere Arbizu, Lakuntza eta Ergoienan, **auspel**, beste herrietako *ospel*-aren orde.

- **o → a**. /o/ bokalez bukatutako hitzen konposaketan eta eratorpenean jazo da emaitza hau, eta toponimian ere agertzen da:

astaputz ('licoperdon' familiako ziza mota)

astakei (astakeria)

fagadei, fagatxi (fagoaren fruitua)

mandauli

zuletu < zulatu (asimilazio aurrerakaria)

Astateita (Etxarriko toponimoa)

- **/o/-ren txandaketak :**

+ /o/ eta /e/-ren arteko txandaketa batzu izaten dira :

emen (omen)
illeba (iloba)¹⁸
estemau (estomago)

2.1.1.5. /U/ FONEMA BOKALIKOA

a) DESKRIBAPENA :

Bere artikulazioari dagokionez, goikoa dugu bokal hau, eta aho barrunbeari erreparatzen badiogu, itxia eta atzekoa edo belarea. /o/-ren kasuan baino aski gehiago mihiaren atzealdea sabairantz doa eta ezpainak bertikaltasunaren bila.

b) BURUTZAPEN FONETIKOAK :

- [u] irekia gertatzen da kasu gehienetan :

elur
egur
bulketu (bultzatu)
pusketu (puskatu)
lengusu (lehengusu)

+ V₁ - V₂ → V₂ - V₂ :

u - o → o - o : zenbait kasutan, beraz, /o/-k txandakatzen du:

pontxon (punzon)
moltso (multzo)
okolondo¹⁹ (ukolondo)

u - e → e - e²⁰

¹⁸ (IBARRA, 1995, 95, 20. oharra) : “Txandaketa berbera testigatzen da Oltza eta Goñin eta baita gipuzkeraz ere. Hartaz, txandaketa hau aski zabaldua da; batetik e/i txandaketa, eta bestetik o/e : *elleba/iloba/illoba/illeba* eta *estomago/estemago* ditugu (ONDARRA 1982 : 139)”.

¹⁹ Lizarragan *ukulondue*.

²⁰ Aditzaren morfologian ikusiko dugun moduan, /eu/ da NN_k erako aditz laguntzailearen erroa, beraz, *neuen* > *neben* > *neen* izango litzateke bere bilakabidea.

neen (nuen)
yeen (huen)
zeen (zuen)

+ **u - u** → **i - u** eta **u - i** **desasimilazioak** : kasu bana baino ez badugu ere, gertatzen da Etxarri, Arbizu eta Ergoienako hizkeretan :

irru²¹ (urruti)
lurri²² (lurrun)

+ **i - u** → **i - i** **desasimilazioa** : bilakabide hau bi kasutan behintzat gertatzen da Etxarri, Arbizu, Arruazu eta Ergoienan:

atximixke/a²³ (hatz + zimirka)
bi(l)ixkorriko²⁴ (biluz + gorriko), **bixkorratxiko** (Arbizu)
gaizime²⁵, **-a** (garizuma), **gaazime** Lizarraga eta Lakuntzan, **gaizuma** Arruazun.

+ Bestela ere, hurrengo kasuan behintzat, /u/ /o/ bihurtzen da :

emakome (emakume)

J.M. Arakama-k, berriro ere, horrela jaso zuen:

“Uhartan bertan, dena den, *emakome* aldaera bildu dugu: *uxakomia* Arbizun, Arbizuko Euskararen Bilketa”. (*ASJU*, 1994, 572).

²¹ MITXELENA, K. (1977, 80): “Hechos análogos (*u-i* > *u-u* asimilazioaz ari da) se presentan esporádicamente en dialectos más occidentales. Parece tratarse de desasimilación en ronc. vizc. *urri* ‘lejos’ ..., cf. guip. mer. (y *RS* 147, 327) *urru^{ti}* id. (guip. Echarri Aranaz *irru^{ti}*), *Urrutico* apellido navarro en el siglo XIII”.

²² MITXELENA, K. (1977, 142): “En vizc. ‘vaho, vapor’ es *lurrun*, mer. *lurruña*, que traduce ‘baho’ y ‘huelgo’. A su lado hay guip. *lurri* id., a.-nav. b.-nav. guip. Echarri, lab, *urri* (Leiç., etc.), sul *ürri* ‘olor’.”

²³ MITXELENA, K. (1977, 291. oharra): “Cf. guip. vizc. *atzimur*, *atximur*, *itximur* ‘pellizco’, de *atz* ‘dedo’ y *zimur* ‘arruga’, cuyo diminutivo es *ximiko* ‘pellizco’ (suf. *-ko*)”. (*F.H.V.* 481): “Un caso seguro, en interior, de **u*>*i* es a.-nav. b.-nav. guip. lab. *zimiko* ‘pellizco’, dim. *ximiko* (ya Ax., Oih.), de **zimur* + *-ko* : cf. guip. vizc. *atximur*, de *atz* ‘dedo’ más *zimur* ‘frunce, arruga’”.

²⁴ MITXELENA, K. (1977, 80, oharra): “... La distribución geográfica sugiere que el part. *biluzi*, *billuzi*, y el adj. *biluzgorri* (Leiç., etc.) reflejan mejor el timbre antiguo de la primera vocal que *buluzi* (Dech. rad. *buluz*), *buluzkorri* (Dech.), etc.” Eta J. M. Arakama-k (1994, 572), aipatzen du *i - u* > *i - i* bilakabidea adibide hauxe jaso duelarik: *vilisiric* (12) (< *biluzi*. Asimilazio horrezaz landara /s/ frikaria apikariaren zein sabaiaurrekoaren bidez ebakiko da).

²⁵ J.M. ARAKAMA (Uharteko dotrina, 572): “Bide beretik, *garicemeko* aldaera dakarkigu dotrinak. Sakanan *ga(r)izima* (Irañeta, Uharte, Arruazu, Lakuntza *gáazimé*, Arbizu *gaezima*, Unanu eta Etxarrin) eta *gá(r)izuma* (burundera, Dorrao, Lizarraga eta Etxarrin) aldaerak ditugu”. Guk, inongo zalantzarik gabe *gaizime* jaso dugu Etxarrin.

Guk Arruazun, *emakumia* jaso dugu.

Hauxe litzateke aurkitu dugun kasu bakarra azterketa esparru osoan, Ergoienan izan ezik (**dot** < dut). Orreaga Ibarrek ere horrela aipatzen du *u* > *o* aldaketa, Etxarriko hizkerari dagokionez:

“Esanak esan, iparraldeko goi-nafarreraz gertatzen den fenomeno baten aurrean gaude. Oso fenomeno sistematikoa ez bada ere, esan daiteke hizkera hauetan (mendebalde aldera daudenetan) aurkitzen dela nagusienik : Gaintza (Araizko hizkera) ; Donamaria, Sunbilla, Ituren (Bortzirietako hizkera) ; Arakilen, haatik, ez da oso hedatua, Altsasun eta Etxarrin ez baita gertatzen. Azkenik, Basaburuko herri batzuk ditugu: Arrarats, Beruete, Udabe” (1995, 104)

Bestalde, Burundako herrietan suertatzen da *u* > *o* aldaketa (**dot** < dut ; **do** < du) ; Etxarri eta Lixarrengon *e*-dun aldaera da erabiltzen dena nor edo zer singularra denean (**det** < dut), baina hala ere -u-erroa mantentzen da nor edo zer plurala denean (**ttut** > ditut) ; gainerako herrietan (Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Uharte) -u- erroa mantentzen da (**dut**).

- **[u] bokalerdia.** Beheranzko /au/ diptongoan gertatzen den emaitza da hauxe :

aur (haur)
gauz (gauza)
aurten
aun (ehun)

/eu/ diptongoa ez da ia batere erabiltzen Etxarriko hizkeran (diptongoen atalean gehiago zehaztuko dugu); beti agertzen zaigu aldaturik, /au/ hitzaren hasieran doanean, **auri, auli, ...** (euri, euli), /io/ hitz barruko kasuetan, izenorde pertsonal indartuetan, **giok, ziok, ...** (geuk, zeuk) eta /iu/ sandhi-etan, **etxiure, jendiure, ...** (etxe hura, jende hura).

- **[w] kontsonante erdia.** [wa] eta [we] goranzko diptongoetan aurkitzen da :

[gwái] (orain)
[gwártu] (ohartu)
[gwásen] (goazen)
[bwélta]
[egwérdi]

- /u/-ren degeminazioa kanpo sandhi-an:

irume etor die hiru ume etorri dira
irurte pasatu die hiru urte pasatu dira

2.1.2. DIPTONGOAK ETA HIATOAK

2.1.2.1. DIPTONGOAK

Diptongoa silaba bereko bi bokalen elkarketari esaten zaio. Gehiago zehaztuz, esango genuke, bokal bat alde batetik, eta erdikontsonante edo erdibokal bat, bestetik, elkartzean sortzen den multzo fonetikoari esaten zaiola.

Diptongoa silaba-erdigune bakoitza da, diptongoaren bokala delarik horren erpina.

Diptongoen sorbideari dagokionez, ondorengo modu hauetan sortzen dira normalean :

- Bokal luzeetatik, horien hasierako eta bukaerako tinbreak desberdintzen dituztelarik.
- Kontsonante baten bokalizaziotik.
- Hiatotik diptongora pasatzetik, askotan bokalarteko kontsonantearen galeraren ondorioz.

Diptongoak, bestalde, askotan monoptongatu egiten dira :

- Haien elementuetan gertatzen den elkar-asimilazioz.
- Erdikoa ez den elementuaren “gogorketa” edo kontsonantizazioaren ondorioz.

Bi diptongo mota bereiz daiteke :

■ **Goranzko diptongoak : erdi-kontsonantea + bokala**

Hots itxi batetik hots ireki batera pasatzerakoan gertatzen da. Lehenengo partea da bokalikoa ez dena, kontsonante-erdia beraz; eta bigarren partea, eskubitakoa, ordea, bokal egiazki silabikoa. Kontsonante batek duen itxiduratik irekidura bokalikora doaz, azentuaren intentsitatea ere gorantz doakiolarik.

[wa], [we], [ja], [je], [jo]

■ **Beheranzko diptongoak : bokala + erdibokala**

Hots ireki batetik hots itxi batera pasatzerakoan gertatzen da. Bokal silabikoa, beraz, ezkerretakoa da ; eta bokal silabikoa ez dena, hots, bokalardia, eskubitakoa. Bokalak, duen irekiduratik kontsonantearen itxidurara doa, azentuaren intentsitatea ere beherantz doalarik.

[aɪ], [eɪ], [aɥ], [eɥ], [oɪ]

Beheranzko diptongoak dira bereziki euskarazko jatorrizko diptongotzat jo izan direnak (R.M. Azkuek ez zituen goranzkoak euskal diptongotzat hartzen, erdararen kutsuz edo, erantsitako diptongoak dira honen ustez) eta, zenbait euskalkitan, hauek dira ebakitzen diren bakarrak. Gaur egun, hala ere, eta euskal jatorrikoak ez badira ere, goranzko diptongoak sustraiturik daude hainbat euskalkitan, hala nola nafarreran eta nafar-lapurteran eta baita Erronkarin, Zaraitzun, Ultzaman²⁶ eta Sakana erdialdean bertan ere bai, geroxeago ikusiko dugun moduan.

a) BEHERUNZKO DIPTONGOAK :

- [aɪ] diptongoa :

Sakanan ez da maiztasun gehien daukana. Hala ere, azterketa esparruko herri guztietan gertatzen da diptongo hau, ondorengo kasutan :

+ Hitzaren hasierako posizioan :

aizpe (ahizpa)
aitzur
aittu (aditu, ahitu)
ain (hain)
aixe
aidien (airean)
aingera (aingira)
aillatu (ailegatu)
aida (animaliei aurrera esateko, txerritegia)
aitte
aizkora

+ Herskari ahostun eta /r/-ren bokalarteko desagerketaren ondorioz . Hauek diptongo bigarrenkariak dira, hau da, bokalarteko kontsonante baten erorketari esker sortutakoak:

. /ari/ → /ai/ txandaketa gertatzen da hitzaren bukaeran doanean, ez ordea hasieran edo hitz tartean. Burutzapen honek berdin balio du **-(I)ari** atzizkiaren kasuan, adibideetan ikus daiteken moduan,

²⁶ IBARRA, O. (1995, 145) : “Halarik ere, ez dirudi esandako hau (Azkueren goranzko diptongoei buruzko eritizia) egia borobila denik Ultzameraren kasuan, diptongo goranzkoak usu gertatzen baitira”.

eta baita deklinabideko datibo kasuko hainbat forma mugaturen kasuan ere: **katubai**, **gizonai**, **erriyai**. Hala ere, badira salbuespen batzuk : **gari**, ...

ai da (ari da)

la(g)unai (lagunari)

aiztai (ehiztari), **aizelaiye** ere entzun daiteke Lizarragan

gosai (gosari)

bazkai (bazkari)

afai (afari)

atai²⁷ (atari)

argizai (argizari)

nekazai (nekazari)

pilotai (pilotari)

bertsolai (bertsolari)

Ez dira beraz gertatzen beste posizioetan : **aritto** (“rastrillo”), **jariyo** (jario), ... Hala ere, ‘jario’ aditzaren nor-nori eran bai suertatzen da burutzapen hau : ‘**odola dâiola diyue**’ (odola dariola dihoa)

. /agi(n)/ → /ai/ /n/-ren apokopea gertatzen da herskari ahostunaren galeraz gain, sudurkari ahostuna bukaeran daramaten hitzetan :

zartai (zartagin)

jai (jagi)

amaiarreba (amaginarreba)

aittaiarreba (aitaginarreba)

ebai (ebagi/ebaki)

. /abi/ → /ai/ ez da inoiz hitz hasieran gertatzen, aditz bera izanik pertsona desberdinetan ongi ikus daitekeen moduan

na(i)lle (nabil) baina **abil** (habil)

da(i)lle (dabil)

gailtze (gabiltza)

zailtze (zabiltza)

zailtzie (zabiltzate)

dailtzie (dabiltza)

kaittu (kabitu) baina **abiyetu** (abiatu)

. /ai/ → /ei/ → /a/, /e/ Etxarrin eta Ergoienan **maki**, eta **maiki**, **meiki** gainontzeko herrietan. Eta gauza bera **jatxi** (jaitsi), **jetxi** Arbizun.

²⁷ *Ateiye*, *argizeiye* Lizarragan, diptongo bigarrenkaria ixten delarik.

./ai/ → /ei/ txandaketa :

Oso zabaldua dago azterketa esparru osoan, eta hitzaren hasieran izan ezik beste edozein posiziotan gertatzen den burutzapena dugu. Zehaztu beharra dago, bestalde, kontsonante herskari ahostunaren erorketaren ondorioz burututako [ai] diptongoa, hots, diptongo bigarrenkaria, ez dela [ei] bihurtzen, Joxe Mari Arakamak ederki argitzen duen moduan²⁸. Hala ere, aipatzen dituen Unanu eta Bakaikuko adibideak salbuespen moduan hartu beharko genituelakoan gaude, eta ez bokal luzapenaren ondorio gisa, ezen oinarri bereko burutzapenetan kontrako emaitzak hautematen baitira. Zerrenda oso luzea izan zitekeen, baina hemen adibide aipagarri batzuk jarriko ditugu :

izeñ, ikeñ²⁹ (izain, akain)
bei (bai)
jei (jai)
nei (nahi)
urdei³⁰ (urdai)
mei (mahai)
meiz (maiz)
neiz (naiz, nahiz)
geittuk (gaituk)
orei (orain) Unanun eta Lizarragan (*guai* ere bai, azken honetan).
zeil (zail)
lasei, usei (lasai, usain)
Bakeiku (Bakaiku)
ameika, ameiru (hamaika, hamahiru)

²⁸ ARAKAMA, *Sakanako euskeraz* (Lan argitaragabea) : “Honez gain, aipatu beharra dago “a-i” bokalen arteko kontsonantea erortzekotan sortuko den “ai” beheranzko diptongoaren “a” bokala luzatuz gero, ez dela inoiz “ei” bilakatuko. Horrela, Ana M^a Echaidek kaleratutakoari begiratuz gero (1989), hauxe dugu : “gosaáye”, “bazkaáye”, “afáayá”, “zártayé” Lak. ; “gosá:ya”, “baká:ya”, “afá:ya”, “zártayá” Un. (baina : “áteyá”- “ata(r)ia” -, luzapenik gabe “ai” > “ei” bilakaera burutuz) ; “gosa:yá” Bak. (halere : “bázkeyá”, Un.-n bezalaxe). Eta hau izan daiteke beharreko tresna, kantitate bokalikoa idatzi ez diguten ink.-etan (Arb. eta Arru.-koetan salbu gainerakoetan) bereizketa hau antzemateko, esaterako : “nekazaie/errotazeie” Ir. ; “nekazaye/errotazeye” Etx.-Ar. ; “nekazai/errotaziya” Liz.-Erg. -- <“nekaza(r)i” (bigarren mailako diptongoa sortuz eta luzatuz) / “errotazai(n)” (berezko diptongoa aldatuz) ; ink. --. Erregelaren ordenaketa, azken finean”.

²⁹ Sakana erdiko hizkeretan oso ondo bereizten dira. Burundari dagokionez, Mitxelenak (1977, 292, 21. oharra) ondorengo esaten digu: “*ikaiñ* ‘sanguijuela’ en la Burunda debe quizá su oclusiva a un cruce con *akaiñ* ‘garrapata’.” Gure azterketa esparruan, aldiz, oso ondo bereizten dira biak.

³⁰ Hala ere, Mitxelenari jarraitzen badiogu, salbuespena izango litzateke adibide hau diptongo bigarrenkariaren asimilazio ezintasunean, ezen herskari ahostunaren galerak sortutako [ai] diptongo bigarrenkariaren itxiera [ei] gertatuko bailitzateke. (1977, 126) : “..., a.-nav. b.-nav. sal. sul. *urdaki* ‘tocino’, etc. de *urde* ‘cerdo’ “.

geizto (gaizto)
errotazei (errotazain)
txertxei (txerrizain)
meixtru (maistru)
beitten, beita, zerbeitt, norbeitt (baitan, baita, zerbait, norbait)
be(i)ño, beye (baino, baina)
begeinddu (sailkatu, hoberenak bereizi)
egittei³¹ (igitai)
igurei (guarda) Hitz hau azken tokian jarri dugu zerrenda honetan hobeki azaltzeko *ai* > *ei* diptongoaren asimilazio atzerakaria. Horrela komentatzen du Mitxelenak (1977, 482):

“Como se indica en una contribución al Homenaje a D. V. García de Diego, *iguriki, egürüki*, etc. ‘esperar, aguardar’, lo mismo que su sinónimo occidental *itxedon*, etc., es con toda seguridad un compuesto de nombre + verbo: tal vez *egun* + *eduki*, lit. ‘diem tenere.’”

Etxarriko hizkeraren ikuspegitik, oso erraz gertatzen da arrazoia ematea Mitxelenari, “eduki” aditza “urai” bilakatu baitzaigu, geroxeago /ei/ → /ai/ bilakaeran aipatuko dugun moduan. Honetaz gain, hasierako /e/ bokalaren itxiera ere suertatuko litzateke “igurei” hitzaren burutzapenean. Baina Unanun eta Lizarragan **ingurei** dugu izena eta honek zalantza dakarkigu berarekin orain arte esandakoari buruz, ezen ez baita *egun* edo bere eratorrien beste inongo kasutan hasierako bokalaren itxierarik gertatzen. Horregatik, agian, ondorengoia izan daiteke bere bilakabidea :

inguru + *zai(n)* > *inguruzei* > **i(n)gurei**

Gregoria Solisek *Lizarragako euskeraren azterketa*-n aipatzen du /ai/ diptongoaren itxiera hau, guztiz arrunta dela esanez, baina salbuespen moduan aipatzen ditu hurrengo adibideak : *aiene* eta *salbatzailea*. Gure ustean, lehenengoaren kasuan goian aipatutakoa gogoratu beharko genuke, hots, hitzaren hasieran ez dela suertatzen itxiera hori; eta bigarrenengoaren kasuan, berriz, Etxarriko kasuan gertatzen den bezala, atzizkia aukeratzerakoan egon daiteke gakoa, hau da, -TZAILE atzizkia da erabiltzen dena ala -ZALE ? Guk bigarrena dela uste dugu: **salbazale** beharko luke izan, ez baita beste atzizkia bestela erabiltzen.

Ekialdean eta hegoaldeko Goi Nafarreran noizbait behintzat gertatzen den bilakabidea dugu, ikusi bestela O. Ibarrak bere lanean esaten diguna :

³¹ MITXELENA, K. (1977, 103) : “A.-nav. sal. vizc. (RS 268) *egitai* ‘hoz’ (ronc. *egitái*), a.-nav. b.-nav. guip. lab. vizc. *i(gi)tai* : guip. Echarri vizc. *egitei*, lab. vizc. *igitei* (LeiÇ), sul *igitéi*, a.-nav. vizc. *igiti, iriti*.”

“Hegoaldeko GN-z hona non aurki daitekeen : Makirriainen ‘orei’ (1960), ‘urdei’ Oltza eta Goñin. Moutardek Iragin (Esteribar) ‘neiz’ forma aurkitu du; aezkeraz ere fenomeno bera gertatzen da. Beraz, ekialdeko eta hegoaldeko GN-ren hizkerek konpartitzen duten ezaugarria dela esango dugu. Gure ustez, ai → ei bilakabidearen arrazoi bat hurbileko bokal asimilazio atzerakariaren eragina izan daiteke”. (1995, 149)

Eta Aezkoako hizkerari dagokionez, hona hemen I. Caminoren hitzak :

“Aezkeraz gertakari hau arras nabarmena da, baina zail da beraren hedadura garbiki finkatzea. Nabarmena da halaz ere hitzaren barreneko bilakabidea dela; bi hitzen mugan gerta daitezkeen diptongoetan ez da aipatu hersketa izaten. Hona Abaurreagaineko bost adibide: *gala ibiltzen; badaza itxasora; ura izein; ura igan; eta Ituñetik ...*

Hitzaren barrenean erabat arrunta da *ai* diptongoak *ei*-rantz jotzea - *altzéirua* (Hir.), *akéitu* (Hir., Ab.)- , baina gertakari hori gabeko aldaerak ez dira guti; aldakuntza libretzat har litekeen honek dialektologian ohikoa den galderara garamatza : zergatik kontestu fonologikoarekin bat ere loturarik ez duen aldakuntza hau batzuetan betetzen da eta besteetan ez ? Zergatik Ariako hitzun batek *aizirik* eta *eizirik* -mailegua berau, ez da ahanztekoa- edota *eingiruak* eta *aingeruak* ematen ditu ? Aipatu asimilazio atzerakaria Aezkoa guztian oso hedatua da, baina ez da erabat gailentzen, bi aldaeren txandaketak gertatzen baitira”. (1997, 312)

. /ai/ → /i/ bilakaera: (kasu bat gutxienez bada)

burizek (guraizeak) Etxarrin, *buixek* Lizarragan, *gurizek* Arbizun

. /ei/ → /ai/ bilakaera :

Azterketa esparruko aldameneko Burundan bezain hedatua ez badago ere, zenbait kasu adierazgarritan gertatzen da aipatu burutzapena, baina hori bai, /ei/ diptongo bigarrenkaria dugu kasu guztietan, bilakaeraren hasieran. Etxarrin da gehien gertatzen den kasua, eta beste herrietan ere bai ondorengo kasuan behintzat :

aizien³² (ehizan), **aiztai** (ehiztari), **aize txakurre** (ehizako txakurra), **aizia fan** (ehizara joan), ... Hala ere, **eizien** Arruazun.

³² Horrela dio Iñaki CAMINOk (1997, 315) : “Fenomeno honen ultrazuzenketa ematen du ‘ehize’-tik etorria izan daitekeen *aizi* hitzak (Orb.) : *aizira fan* (Ab., Gar.), *aiztari* (Hir.) ; Zaraitzun *eizlari* aldaera dugula ez da atzentzekoa”.

Bestalde, Etxarrin behintzat, ondorengoak ere gertatzen dira :

irai < irei < iregi (ireki), **irei** Arbizun eta **idei** Lizarragan.
izerai < izarei < -metatesia- izaregi < irazegi (irazeki), **izei** (Arb),
ixein Lizarragan eta **ixiin** Arruazun.
urai < urei < -r/d alternantzia- uregi < -metatesia- udegi < edugi
(eduki), **irui** (Arbizun), **idui** (Unanun)
axai (azeri), **axei** Lizarragan eta **exei** Arruazun.
nai < nei < neri, **nei** (Arbizun)

Lizarragan, **otsain** < (hots egin) (Solis, 1993, 117) dugu.

- [eɨ] diptongoa :

Ez dago oso zabaldua diptongo hau Sakana erdialdeko herrietan barna, hala ere badira hainbat burutzapen herri guztietan errepikatzen direnak :

bein (behin), **beñere**, ...

sei

zein

yozein (Etx., Un., Liz.), **yezain** (Lak.) **oozein** (Arb.), **eozein** (Arr., Uh.)

Hitz hasieran, kasu batean baino ez dugu lortu diptongo honen errealizazioa jasotzea eta, gainera, diptongo bigarrenkaria izango genuke kasu horixe :

ein (egin)

Baina Lizarragan **otsein/otsain** (hots egin) biak daude lehian.

+ **-(k)eri(a)** → **-ei(a) burutzapena** : -ERIA edo -KERIA atzizkien kasuan, dardarkari xamurra erortzerakoan sortzen da /ei/ diptongo bigarrenkaria :

geiztokei (gaiztakeri(a))

aulei (ahuleri(a))

aulkei (alukeri(a)) kasu honetan, kontsonante dardarkari xamurraren erorketaz gain, metatesia ere gertatu da.

txerrikei (txerrikeri(a))

kakei (kakeri(a))

umekei (umekeri(a))

Badira beste kasu bi, gutxienez, atzizki hauetaz gain. Batean dardarkariaren galera ere gertatzen da, nahiz eta kasu honetan dardarkari azkarra izan galtzen dena, eta bestean hortzetako ahostuna :

be(i)x (berriz)
meiku (mediku)

+ Bada beste kasu bat gutxienez /ei/ diptongo bigarrenkaria sortzen dueneko : **-egi** → **ei** izango litzateke bilakabidea, eta ez da bakarrik gertatzen atzizkia denean, **-tegi, degi** → **ei**, gertatzen baita beste inguruneetan ere :

beiretu (begiratu)
leittu (leitu, irakurri) Latineko forma ekartzen digu gogora : *legere*.
se(g)ittu (segitu) Kasu berezia da azken hau, ezen diptongazioa oso hizketaldi arina denean soilik gertatzen dela baitirudi.
aurpei (aurpegi)
fagadei, arizdei, piñodei, ... (pagadi, harizti, piñudi, ...)
ollotei, txerritei, ... (oilategi, txerritegi, ...)
ein (egin)

Arbizun, -EGI superlatiboaren kasuan [ei] diptongoa sortzen da:

aundiyei (handiegi)
txikiyei (txikiegi)
mutubei (mutuegi)
estubei (estuegi)
epelei (epelegi)

Hurrengo maileguan /d/ horzkari herskari ahostunaren galeraren ondorioz gertatzen da [ei] diptongo bigarrenkaria : **erremeyo** ('remedio').

Bestalde, aipatzekoa da -EGI superlatiboaren kasuan ez dela diptongoa sortzen Arbizu ez beste herri guztietan, /e/ bokalaren desagertzea baizik hitza bokalez bukatzen denean : **aundigi, txikigi, mutugi, estugi, potxologi**, baina **epelegi, launegi** (leunegi), ...

+ /ei/ → /i/ **monoptongaketa** : bi kasutan besterik ez bada ere, jaso dugu horrelako burutzapena :

bintzet³³/ **mintzet** (behintzat)
yozein/yezín/oozin (edozein). Era hauetan entzun daiteke gaur egun azterketa esparruko herri gehienetan.

³³ O. IBARRA-k (1995, 149) kasu berbera aipatzen du, baina burutzapen desberdinarekin : “*Bestaldetik, [i]-z bukaturiko diptongo hauek erraz galdu dute beren bigarren elementua, ei > e murrizketa suertatzen baita sudurkariaren aurrean. Bonaparteren eskuizkribuetan agertzen denez : esquiñen diozu (A 51) (=eskeiniren) bintzet (A49) (behintzat)*”

Arruazun bi kasuetan eta Uhartan bigarrenarenean, ez da gertatzen monoptongaketa: *beintzet, eozein*.

+ /ei/ → /e/ **monoptongaketa** : kasu pare batean gertatzen da Etxarrin eta Lizarragan gutxienez :

leze (leize)

ge(i)zki < geizki < gaizki Lakuntza, Uharte, Lizarraga eta Etxarrin entzun daiteke. Eta Arbizun ere bai zenbaiten ahotan. Irañetan ere hala erabiltzen da.

- [au] diptongoa :

Oso erabilia da azterketa esparru osoan diptongo hau. Mitxelena esaten du (1977, 93) diptongoen artean maizena dela hizkuntzaren baitan.

auts (hauts), **autsi** (hautsi)

aur (haur)

gaur, aurten, aurki (seguraski, berehala)

auspo, aul (ahul)

gau, jaun, auntz (ahuntz)

gaude, zaude, zaudie (zaudete)

lau, au (hau), **gauz** (gauza)

yauntsi (erauntsi), **irauli, belaun**

amau (ama hau), **plazau** (plaza hau), **alabau** (alaba hau), ...

+ **diptongo bigarrenkaria** : /g/ herskari ahostuna, /r/ dardarkari xamurraren eta /h/ igurzkari ahoskabearen erorketaren ondorioz sortzen da /au/ diptongoa ondorengo kasuetan :

nause (nagusi)

laun (lagun)

ezautu (ezagutu)

launbeta (larunbata)

mauka (mahuka)

+ /a/ → /au/ **bilakabidea**, kasu batean gutxienez suertatzen da :

aundi (handi)

+ /o/ → /au/ **bilakabidea** : oso maiz gertatzen ez bada ere, badira bizpahiru kasu, zeinetan bilakabidea sortzen baita :

aungi (ongi)

auntzi³⁴ (ontzi, eultzi)
itzauntzi (hitzontzi)
pixauntzi (pixontzi)
berriketauntzi (berriketontzi)
auspel (ospel) Arbizu, Lakuntza, Unanu eta Lizarragan.

+ /au/ → /o/ **bilakabidea** :

arrantza³⁵, -e (arraultza), *arrutze* Uharte, Arruazu eta Lizarragan.
iyote³⁶ (ihaute)
intxor / e(i)ntxor (intxaur)

Arbizu, Arruazu eta Ergoienan *oon/eon/yon* (egon) aditzaren nor erako pluraleko forma guztiak bilakabide honetan sartzen dira, *r/d* alternantzia ere gauzatzen delarik Arbizun :

Arbizu³⁷: **gore** (gaude), **zore** (zaude), **zorie** (zaudete), **dore** (daude)
 Arruazu: **gode, zode, zoye, dode.**
 Ergoiena: **goi, zoi, zorie, doi.**

+ /au/ → /a/ **bilakabidea**, ondorengo kasuetan, gutxienez, gertatzen da :

Jangoiko (Jaungoiko, Jainko)
alki³⁸ (aulki)

³⁴ MITXELENAk (1977, 99) *eu > u* erredukzio moduan aurkezten digu, baina ez da horrela agertzen azterketa esparruan orokorrean, eta Etxarrin bertan ere ez: *o > au* eta *eu > au* izango lirateke hemen bilakabideak. Horrela dio aipatu autoreak: “A.-nav. guip. *eultze*, a.-nav. sal. *eultzi* (>aezc. *aultzi*) ‘parva’, a.-nav. *eulzitu* ‘trillado’: a.-nav. b.-nav. guip. Echarri *ul(t)zi* ‘parva’, ...”.

³⁵ MITXELENA, K. (1977, 96): “A.-nav. guip. lab. ronc. sul. *arraultza*, *arraul(t)ze* ‘huevo’ ... aezc. *arroitze*, a.-nav. b.-nav. sal. *arro(l)tze*, b.-nav. *arrultze*, guip. Echarri *arrantza*, cf. alav. *arronzobi*...” Eta Lizarragan guk, *arrantze* jaso dugu.

³⁶ MITXELENA, K. (1977, 97): “B.-nav. lab. *i(h)aute*, *ihauteri*, *ihautiri* ‘carnaval’, sul. *ihauti(ri)*, aezc. *igautere*, b.-nav. guip. *in(h)auteri*, a.-nav. ronc. *iñaute* : a.-nav. sal. *iote*, a.-nav. *iñoteri*, a.-nav. guip. (en compuestos) *-iñute*.”

³⁷ Arbizuko kasuan, zenbaitetan, *au > ou* bilakabidea ere entzun daiteke. Eta Olasagarrek (*Arbizuko Euskararen Bilketa*, lan argitaragabea) ere horrela jaso zuen, diptongo bata edo bestearen artean erabakitzen ez duelarik, eta *d/r* alternantziarik gabe:

goude / gaude
 zoude / zaude
 zoudie / zaudie
 doude

³⁸ MITXELENA, K. (1977, 95): “A.-nav. b.-nav. guip. lab. vizc. Cigoitia *alk(h)i* ‘silla, banco’ (ya Leiç.), b.-nav. *arki* : guip. Goyerri, vizc. *aulki*...”

dakat, dakazu, dakabie, ... (daukat, daukazu, daukate, ...)
Etxarri, Arbizu, Lizarraga eta Dorraon.

+ /au/ → /u/ bilakabidea :

itturriko³⁹, ondorengo izan daitekeelarik bere burutzapena : *idi + aurreko > ittaurreko > ittaurriko > itturriko*

baru⁴⁰ (barau), *barutu, barutce, barube* datoz Uharteko dotrinan (*Bonaparteren ondareko eskuizkribuak*, 1993, 619)

zimurdiñeta⁴¹ < zuma+urdineta

arru(n)tze (arraultza), Arruazu, Uharte eta Lizarraga.

- [eʊ] diptongoa :

[ʊ] bokalerdia azaltzerakoan genioen moduan, ez da ia batere agertzen azterketaren esparruan /eu/ diptongoa.

Mitxelenarentzat (1977, 98) berriz, betidanik izan da urria diptongo hau eta ez hori bakarrik, gainera aldakorra izan da, beherago erakutsiko ditugun bilakabideetan ikus daitekeen moduan.

Moutardek (1976) esaten du /eu/ diptongoa ez dagoela Nafarroan erabiltzen den Gipuzkeraren eremuetan.

G. Solis (1993) ez dator bat Moutarden aipamenarekin eta esaten du *euri, euli, euskera* hitzak badaudela Lizarragako euskeran. Guk *auri, auli* eta *auskias* jaso ditugu.

Arakama-k (LA), bestalde, /eu/ → /u/ monoptongaketaren aukera aipatzen du, nahiz eta onartu ilun samar agertzen dela. Bere ustean, Burunda, Etxarri-Aranatz eta Ergoienako hizkeretako N(or)-N(ori)-N(ork) aditz sisteman agertzen den -u- erroaren azpian ondorengo eboluzio edo bilakabidea izan liteke, D. Inzak (1922) eta I. Gaminde-k (1985) jasotako aditz formen arabera :

³⁹ Ganaduaren aurretik, gidatuz, doan pertsona. Gehien bat behi edo idiekin ibiltzen zen horrela.

⁴⁰ MITXELENA, K. (1977, 97) : “En sílaba final : Guip. lab. vizc. (Cap. etc.) *barau(r)* ‘ayuno’ (VJ y Land. *bareu*): a.-nav. vizc. *baru*, b.-nav. lab. ronc. sul. *barur*.”

⁴¹ Etxarriko toponimikoa da. “NMT XII” (Nafarroako Gobernua, 1993, 59) liburuan bi ebakera aitortzen dizkiote, *zimurdiñeta* eta *zumurdiñeta*, eta horrela azaltzen dute toponimoa : “De *zume* ‘mimbre’. El segundo elemento es naturalmente *urdi*, hoy en general ‘azul’, pero que como es sabido cubría antaño un tramo mayor del espectro cromático”

derubet (Olazti eta Ziordin, I)
deubet (Urdiainen, I)
daubet (Bakaiku eta Iturmendin, I)
du(n)at (Olaztin, G)
dau(n)et (Altsasu, G)
duet/dunat (Urdiain, G)
dubet, dubat, duunet (Etxarri, G)
du(n)et (Ergoiena, G)

Eta onartzen badugu -ERAU- dela NNN aditz sistemaren erroa, badirudi ondorengoa izan zitekeela proposatzen duen bilakabidea :

deraubet > derubet > deubet > dubet > duet

Horrela, bilakabide honek, ondo baino hobeto azalduko luke NNN aditz formen burutzapena Etxarriko eta Ergoienako hizkeretan. Geroago ikusiko ditugu polikiago bokal geminatuen eta aditzaren morfologiaren esparruetan, baina hona hemen, hala ere, bi adibide :

$V_1 - V_2 \rightarrow V_2 - V_2$
duut < deraut (dit)
duuzut < derauzut (dizut)

+ Horrela gauzak, eta /eu/ diptongoari dagokionez, jaso ditugun bakarrak aditz formak dira, “egon” aditzaren lehen aldiko formak hain zuzen :

geunden
zeunden
zeundien (zeundetén)

+ /eu/ → /au/ → /a/ **bilakabidea** : errealizazio hau ere aditz formen esparruan jaso dugu, **urái** (eduki) aditzaren iragan aldiko formetan⁴², Etxarrin, Arbizun, Lizarragan eta Dorraon:

nakan < *naukan* < neukan
yakan < *yaukan* < yeukan (heukan)
zakan < *zaukan* < zeukan
zakabien < *zaukabien* < zeukabien (zeukaten)

+ /eu/ → /au/ **bilakabidea** : oso maiz gertatzen den bilakabidea dugu hau eta ez Sakana erdialdean soilik, Ultzaman (Ibarra 1995, 153), Aezkoan⁴³

⁴² MITXELENak dionez (1977, 100) *e*-ren aldeko erredukzioa gertatzen da forma gramatikalizatueta, *nekan* < *neukan*. Etxarrin aldiz, ikus daiteke bilakabidea luzexegoa dela: *neukan* > *naukan* > *nakan*.

⁴³ MOUTARD, N. (*Etude phonologique sur les Dialectes Basques*, 1975, 81) : “... , *eu* > *au*, phénomène que nous avons rencontré d’une façon régulière en aezcoan”

(Camino 1997, 315) eta Hego Goi Nafarrerako Gares, Oltza eta Goñin (Ondarra, 1982) ere betetzen baita:

auski(n)/ autsiin (Arruazu eta Lakuntza) (eutsi)

auskias (euskaraz)

aun (ehun)

auri (euri)

auli (euli), **aultxo** (Baina **eltxo** Lakuntzan)

auntzi⁴⁴ / **aultz**i (Lakuntza) (eultz) “ul(t)zi” dela esaten du Mitxelenak. Hala ere, guk “auntzi” jaso dugu argi eta garbi, eta /eu/ > /au/ diptongo aldaketaz gain, /l/ albokari ahostuna sudurkari bihurtu da.

autzi (< eutzi, ‘utzi’) (Etxarri eta Ergoiena)

Ikus daitekeenez, orain arteko kasu guztietan hitzaren hasieran gertatzen da. Horrek ez du esan nahi ez dela hitzaren barnean ere aurkitzen, eta esaten dugunaren adibide gisa hona hemen jaso ditugun bi hitzak :

laun (leun)

laurri (neurri)

- [oɨ] diptongoa:

Mitxelenak /ai/ diptongoa baino maiztasun gutxiagokotzat jotzen badu ere, ondo mantentzen dela dio. Guk ere adibide batzuk jaso ditugu, eta kasu gehienak monosilaboak edo lexemaren azken silabatakoak dira :

noiz

goi, Jangoiko

goiz

soiñ, soiñeko

oiñ, oiñutsetan, oiñeze (oinaze)

erdoi

odoi (ekaitz)

oillo, oiller

arrazoi, arratoi, matoi, sasoi

Azken lau hitz hauek elkarrekin jarri ditugu, ez hitz oina edo lexema berdina dutelako, aurrekoetan egin dugun moduan, baizik eta, burutzapenari dagokionez, bilakabide berdina izan dutelako, mailegu zaharrak direla aipatzeaz gain. Gainera Arbizun, lehen

⁴⁴ MITXELENA, K. (1977, 99) : “A.-nav. guip *eultze*, a.-nav. sal. *eultzi* (> aezc. *aultzi*) ‘parva’, a.-nav. *eulzitu* ‘trillado’ : a.-nav. b.-nav. guip. Echarri *ul(t)zi* ‘parva’, b.-nav. *ulzitu* ‘trillado’ (Pampl. 1609, 3, *ultzitu*) : ronc. *eltzu* y *eltzu(ka)tu*.”

hirurak ondorengo bilakabidea dute, *oi* > *ore*; eta laugarrenaren kasuan berriz, *oi* diptongoa mantentzen delarik:

arrazore, arrazoria (arrazoi, -a)

arratore, arratoria (arratoi, -a)

matore, matoria (matoï, -a)

sasoi, sasoiya (sasoi, -a)

Eta ahalik eta hobekien azaltzeko bilakabide hori, merezi du Mitxelenak *F.H.V.*-n (1977, 147, 7.8.) ematen dituen azalpenak hemen transkribatzea :

“**De ant. -on- más vocal anterior** hay numerosos ejemplos, en buena parte préstamos, que suponen *-*one*.

(a) ...

(b) En palabras de más de dos sílabas, los resultados han sido : vizc. ant. *-oe-* (posiblemente *-ôe*) y *-oa-* ante algunos sufijos, mod. *-oe-*, *-ue-*, *-oi-*, **guip. mer. (y a.-nav. septentrional, al menos en parte) -oi-**, (...)

(c) En **palabras que en cast. terminan en -ión-** (oración, etc.), se observan las siguientes correspondencias : (...) El nombre de la ‘razón’ ha sido tratado generalmente **como los del apartado (b)** : vizc. ant. *errazôe-* (...), mer. *errazoi* (nom. sing. *errazoya*), **a.-nav. guip. errazoi, arrazoi**, a.-nav. Baztán,

(d) b.-nav. lab. *arrazoin* (Dech., etc.), **ronc. Vidángoz arrazoï**, sul. *arrazû*’ (con sibilante sonora).

(e) En **a.-nav. merid.**, al menos en el de Elcano y otras zonas, lo mismo que en aezc. y sal., el **resultado de -one** en las voces de introducción más antigua ha sido **-io**, **procedente sin duda de -oi** (...) Así *arratio* ‘rata’ (**a.-nav. Bertizarana, etc., guip. vizc. arratoi**, a.-nav. Baztán, b.-nav. lab. *arratoin, arrotoin*, sul. *arrathû*’, **ronc. Vidángoz arratoï, Isaba, Uztárroz arratói**), sal. *matio* ‘leche cuajada para hacer queso’ (**ronc. Vidángoz matoï, Isaba matói, nav. matón**), (...) En **préstamos más recientes se mantiene -on** : aezc. *azkon*, sal. *axkon* ‘tejón’, sal. *xabon* ‘jabón’ (ronc. Vidángoz *xaboï*, Isaba *xabói*, sul. *xabû*’), *sason* ‘sazón’ (**ronc. Vidángoz zazoï, Isaba zazói**, sul. *sasû*’ con s sonora). Por lo que respecta a los **préstamos en -ión, de carácter más culto**, parecen distinguirse **dos grupos** : **uno**, el más numeroso y posiblemente el más antiguo, acaba en **-io** y el otro en **-ione** : a.-nav. Elcano, Uriz (valle de Arce), etc. *barkazio*, sal. *parkazio* ‘perdón’, aezc. a.-nav. Elcano, etc. sal. *orazio* ‘oración’ (...).

Egon aditzaren era sintetikoaren zenbait formatan ere agertzen da /oi/ diptongoa Ergoienan:

goi (gaude)

zoi (zaude)

doi (daude)

Argi dago, beraz, jatorriz /-on/-ez bukatutako mailegu zaharretan /-oi/ hartzen dela Sakana erdialdeko hizkeran : *arrazoi*, *arratoi*, *matoi*, *sasoi*. Eta, era berean, esan daiteke mailegu hurbilagoetan, modernoagoetan, /-on/ mantendu egin dela, absolutibo kasuko /-a/ mugatzailea ere bere-berean gorde delarik, inongo aldaketarik jasan gabe :

jabona
balona
frontona
kamiona
montona
marrona
melona
kañona⁴⁵
klariona
leona
dona⁴⁶
sermona⁴⁷
pantalona⁴⁸

Beste aldetik, badirudi ondorengo bereizketa ere gertatzen dela : /-on/ bukaerak mailegu zaharretan /-oi/ ematen du, baina /-ion/ bukaerak aldiz /-iyo/, /y/ kontsonante epentetikoa tartekatu eta bukaerako sudurkariaren galera suertatzen delarik ondorengo adibideotan ikus daitekeen moduan :

arrazoi (razón)	baina	arraziyo ⁴⁹ (ración)
sasoi (sazón)	baina	oraziyo (oración), deboziyo
matoi (matón)	baina	maldiziyo (maldición)
		relijjiyo (religión)
		manifestaziyo, afiziyo
		kustiyo (cuestión)
		axiyo ⁵⁰ (acción)

⁴⁵ Mitxelena-k (1977, 143, 8. oharra) komentatzen du aspaldidanik onartzen dela *-on* aldaketarik gabe goi nafarreraz. Eta adibide moduan aipatzen du J.M. Irabarrenek bere *Historias y costumbres* liburuan jasotzen duela nola 1835 urtean, Idozingo Espoz y Minak, Lekarotzen ondorengoa galdetu zuen : “Kañonak non dire ?”. Eta aipatzen du gipuzkeraz, “kañoiak” izango litzatekeela.

⁴⁶ Horrela agertzen zaigu Etxarriko dotrinetan (1993) ere: *donac, dona, ...*

⁴⁷ Uharteko dotrinan (1993) agertzen da hauxe: *sermona*.

⁴⁸ Horrela erabiltzen du V. HUIZI-k: “... *pantalonak ez baiya gonak jantzi ...*” (1899, 139)

⁴⁹ Ez nahastu hitz hau ‘*arrazoi*’ hitzarekin, honek gaztelerako ‘razón’ adierazten du eta besteak ‘ración’. Kasu honetan /i/-z bukatutako hitzen moduan jokatzeko deklinabideko kasu markak eransterakoan, /y/-ren epentesia eta asimilazioa ere gauzatzen direlarik : ‘*arrazo(i)ye*’.

Kanpo sandhi-etan ere agertzen da /oi/ diptongoa, /o/ bokalez bukatutako lexemei /-ik/ morfema partitiboa eransten diogunean eta kontsonantez, /a/-z, /i/-z edo /u/-z bukatutako lexemei hori adjektibo erakuslea lotzen diogunean:

zuloik (zolorik)
zozoik (zozorik)
arraziyoik (arraziorik)
txotxoloik (txotxolorik)
monjoi (monja hori)
amoi (ama hori)
gizonoi (gizon hori)
auloi (ahul hori)
mendiyoi (mendi hori)
txikiyoi (txiki hori)
munduboi (mundu hori)

Hori erakusleak, /e/ edo /o/-z bukatutako lexemari eransterakoan, /ioi/ eta /uoi/ triptongoak sortzen ditu :

zuluoi (zulo hori)
zozuoi (zozo hori)
etxioi (etxe hori)
lezioi (leze hori)

Hurrengo kasuan, diptongo bigarrenkaria ere sortzen da : **loi** (lohi).

Bestalde, **iñeulture**⁵¹ (oinaztura, tximista) hitzean sinkopa gertatu da, hau da, diptongoaren /o/ bokalaren erorketa suertatu da, nahiz eta silaba kopuruan inongo murrizketarik sortu ez. Era berean, ondorengo kasuan /oi/ diptongoaren lehen bokalaren itxiera gertatu da : **bak[ui]tze** (bakoitza).

- [uɪ] diptongoa :

Mitxelenak esaten du nahiko urria dela diptongo hau, baita *fruitu* bezalako maileguetan ere. Eta hala da Sakanako hizkeretan ere, **frutube**, **frutue**, **frutua**. Hala ere ageri zaigu sistematikoki bi

⁵⁰ Honela erabiltzen da Etxarrin hitz hau norbaitek zerbait nabarmena egin duenean. Zentzu onean zein txarrean erabil daiteke: lan txukuna eta aipagarria egiten duenean norbaitek, edota kaltea aurretik ondo prestatutako jardueraz.

⁵¹ Horrela azaltzen digu Mitxelenak, (1977, 547): “El nombre de ‘relámpago’ (‘rayo’) parece estar compuesto (materialmente, sin entrar en la identificación de los segmentos) de algo así como *oin* + *az(i)* + *-tu* / *-tura*”.

kasutan, aditzaren partizipioak egiteko modu bat bezala (diptongo bigarrenkaria) eta baita partitiboaren morfema /u/-z bukatutako lexemari eransterakoan :

zartuik (zaharturik)
jenduik (kendurik)
billetuik (bilaturik)
buruik (bururik)
munduik (mundurik)
juduik (judurik)

Hauetaz gain, badira beste hiru hitz, zeinetan [ui] diptongoa burutzen baita :

muiñ(ek)⁵² (muin)
axuiñ(ek)⁵³ (asun)
sui(yek) (suh)

b) GORANZKO DIPTONGOAK :

Ikusi dugu diptongoaren atala hasterakoan, hainbaten ustean ez direla hauek jatorrizko euskal diptongoak, baina zalantzarik gabekoa da Nafarroako hainbat hizkeratan oso zabalduak daudela, eta horien artean Sakana erdialdekoa berehala ikusiko dugun moduan :

- [wá] diptongoa:

Beti ere -oa- bokalen elkarketatik sortzen da, eta elkarketa hori zuzena izan daiteke, [gwásen] (goazen) kasuan bezala, edo sandhi-etan eta deklinabideko morfema bat eransterakoan sortutako burutzapenetan. Azken kasu hauetan, diptongo bigarrenkariak izango ditugu, ezen kontsonante baten erorketaren ondorio izango baitira :

+ **aditzaren geroaldiko -KO + da :**

[fankwá] (joango da)

⁵² MITXELENA, K. (*F.H.V.*, 150) : “Se ha supuesto (Schuchardt, Bask. 51, etc.) que el nombre vasco del ‘tuétano’ (y de los ‘sesos’) procede del lat. *funem*. Las variantes son : vizc. (*g)un* (...) a.-nav. guip. lab. *mu(i)ñ*, ...”

⁵³ Autore bera (*F.H.V.*, 107) : “El diptongo *ui* es raro (...) Ocurre sobre todo ante nasal, lo que hace sospechar que no sea original, sino procedente de *oi* (...) Se debe probablemente a metátesis el diptongo en lab. (*h)asuin* ‘ortiga’ (cf. b.-nav. lab. (*h)ausin*, guip. *osin*, etc.,).”

[eto^ɾkwá] (etorriko da)
[isenkwá] (izango da)

+ /o/-z bukatutako lexema + adlatiboaren -RA morfema :

[agwá] (ahora)
[sulwá] (zulora)
[ba^ʃwá] (basora)
[arwá]⁵⁴ (arora, arabera)

+ Sandhian, /o/-z bukatzen den lexema baten atzetik ‘bat’ zenbatzailea doanean :

[sulwát] (zulo bat)
[potwát] (poto bat)
[a^ʃtwát] (asto bat)
[^ʃorwát] (soro bat)

+ -oa- taldea hitz hasierako posizioan : hitz hasieran doanean, /o/ bokala itxi egiten da eta, errefortzu moduan, /g/ herskari belare ahostuna hartzen du aurrean ondorengo hitzetan :

[gwáce] (ohatze, ohe)
[gwártu] (ohartu)
[gwái] (orain), [gwái^ʃe] (oraintxe), ... [wái] triptongoa burutzen delarik.
[gwá] (ohe)
[gwé] (hoa)

+ Adlatiboaren burutzapen zenbait:

[nwá] (nora) [nwánéi] (noranahi)
[gwá] (gora), horrela erabiltzen da kasu batzuetan, posposizio moduan:

Andi gua faten da!, Azpitti gua!, Aldapa gua!

Baina bakarrik erabiltzen denean, hots, posposizioa ez denean, ez da diptongatzen eta ez du dardarkari xamurra galtzen:

-Nua zuez? Gora nue!

⁵⁴ MITXELENA, K. (1977, 119), *ao* taldeaz ari zaigu oraingoan eta ondorengoa esaten du : “En posición final : (...) a.-nav. ant. *arora* (-*ra* suf. de alati) ‘según, conforme a’ (Pampl. 1609, 2, si no es errata por *ariora*), en otros dialectos *araura*, *arabera*, sin duda de **arao-ra* ...”

Arbizu eta Unanun, *fan* (joan) aditzaren nor erako singularreko formetan ere gertatzen da /wá/ diptongoa:

[nwá] (noa)
[(g)wá] (hoa)
[dwá] (doa)

- [wé] diptongoa:

Hedatuago dago diptongo hau Sakanako hizkeretan, aurrekoarekin konparatzen badugu, ondorengoak izanik bere bilakabideak :

+ **Maileguetan**, era zuzenean gorde izan da :

[fwértjé] (fuertea)
[śwértjé] (suertea)

+ **Joan aditzaren formetan** :

[nwé] (noa), [jwé] (hoa), [gwé] (hoa), [dwé] (doa), ...
[nijwén] (nihoan), [gijwésen] (gindoazen), ...
[nijwékijobien] (nihoakien), ...

+ **Deklinabideko absolutibo kasuan**, /o/-z bukatutako lexemari mugatzailea eransterakoan :

[uśwék] (usoak)
[beśwék] (besoak)
[neśkatwék] (neskatoak)
[sulwék] (zuloak)
[amimorwék] (armiarmak)

Salbuespen bat behintzat jaso dugu, eta badirudi monosilabikoa izatean dugula arrazoia (gauza bera gertatuko da /e/-z bukatutako lexemekin [jé] diptongoa sortzerakoan), zeinetan diptongazioa gertatzen ez baita: [lúe] (loa). *Lo*, horrela da Barrankan lexemaren bukaera, izena mugatzen dugunean /o/ bokalaren itxiera suertatzen da eta, berarekin batera, /a/-ren itxiera, baina ez diptongazioa, ezen oso garbia baita gertatzen den hiatusa. Monosilabikoa izatean, bera da silaba azentuduna eta honek ez du diptongazioa gertatzen uzten.

+ /o/-z bukatutako lexema + **inesiboko -EN morfema** :

[agwén] (ahoan)
[baśwén] (basoan)

[sowén] (zooan)

+ /u/-z bukatutako lexema + adlatiboko -RA morfema :

[infernwé] (inferrura)

[mundwé] (mundura)

[sakwé] (zakura)

+ lekuzko genitiboaren -KO morfema + mugatzailea :

[eĉarrikwé] (Etxarrikoa)

[arbisukwé] (Arbizukoa)

[MeiŜtrubenekwé] (Meixtrubenekoa)

[Donpolonekwé] (Donplonekoa)

+ Hurrengo kasua, **hitz konposaketakoa** dugu eta hurrengo herrietan suertatzen da: Etxarri, Arbizu, Ergoiena eta Lakuntza.

[eŝkwérjék] (eskuareak, ‘rastrillo’)

- [já] diptongoa:

Ia kasu guztietan diptongo bigarrenkari moduan agertzen zaigu. Hala ere, bada kasu bat behintzat, era zuzenekoa : [kjá], harridura agertzeko espresioa da. Bestela, ondorengo kasuetan burutzen da :

+ /e/ eta /a/-ren arteko dardarkari xamurraren erorketaren ondorioz, berdin hitz barnean nola /e/-z edo kontsonantez bukatutako lexemei adlatiboko -RA morfema erantzen zaionean :

[euskjás] (euskaraz)

[erdjás] (erdaraz)

[bjándu] (berandu)

[bjá]⁵⁵ (bera)

[bjáre] (berare⁵⁶, bederen)

[sjá] (zera)

[tjá] (tira !)

⁵⁵ José Ignacio HUALDE-k *Basque Phonology* liburuan (1991) Arbizuko hizkera aztertzen du eta, kontsonante epentetikoaren gainean ondorengo ohartxo gehitzen du: “This, however, does not imply that the sequence [iV] is never found morpheme-internally ; but this is to be interpreted as /eV/. Examples are [gio] ‘latter’ (St. B. *gero*) and [bia] ‘he himself’ (St. B. *bera*)”.

⁵⁶ Mitxelena, K. (OEH, 367): “*bederen* (...), *berere* (BN-baig, Sal, S, R; Géze s.v. *aments*, H (AN, BN)), *bereren* (AN, BN), (...) Tr. Pertenece sobre todo a las tradiciones septentrional y alto-navarra; (...) las primeras documentaciones pertenecen a *berere* en Etchepare y, junto con *bereren*, Leiĉarraga; posteriormente *berere* se encuentra en textos suletinos (tbn. en Oihenart; Eguateguy emplea *bederen*), mixanos, aezcoanos, salacencos y en el alto-navarro meridional; ...”

[batjá] (batera)
[aur'já] (aurrera)
[acjá] (atzera)
[kaljá] (kalera)
[lurjá] (lurrera)

+ Sandhi-an, /e/-z bukatutako lexemari 'bat' zenbatzaileak jarraitzen dionean :

[semjât] (seme bat)
[ecjât] (etxe bat)
[lezjât] (leze bat)
[bjâ] (behera), erabiltzen da kasu batzutan posposizio moduan:

Aldapa bia!, Goitti bia!, Buus bia!

Baina bakarrik doanean ez da diptongatzen, eta ez du kontsonante dardarkaria galtzen: *Bera nue!*

+ Eta 'behar' aditzarekin gauzatutako sandhietan ere gertatzen da /já/ diptongoa behin gutxienez Etxarrin; baina baita /jâw/ triptongoa ere, aipatu aditza NN_k eran jokatzekoan singularreko pertsona guztien kasuan Arbizun eta hirugarrenean soilik Etxarrin:

[bjâ] < bier da (behar da)
[bjâwt] < bier dut (behar dut)
[bjâwk] (behar duk)
[bjâw] (behar du)

- [jê] diptongoa:

-ea- bokalen elkarketatik sortzen da diptongo hau kasu gehienetan, batzuetan era zuzenean, lexemaren barruan nola morfema baten eransketaren ondorioz, eta beste batzuetan diptongo bigarrenkari moduan, /h/ kontsonantearen galeraren ondorioz :

[aštjér'tjé] (asteartea)
[bjér'] (behar)
[sjér'] (zehar)
[Ĉjétu] (xehatu)
[eĈjé] (etxea), [eĈjén] (etxean), [eĈjéi] (etxeari)
[xe'řsjé] (jersea)
[fedjé] (fedea)
[lu'řjén] (lurrean)

[**bjénke**]⁵⁷ (beinke, ‘bien que’)
 [**beŠtjékin**] (bestearakin)

Hemen ere, gogoratu [wé] diptongoaren kasua, aurkitutako hiru salbuespenak monosilabikoak dira, beraz hori izan daiteke arrazoa ez diptongatzeko eta hiatoak gauzatzeko, hots, silaba azentudunak izatearena :

[**kíe**] (kea) ‘ke’ da lexema.
 [**míe**] (mehea) Sakana erdialdeko hizkeran ‘me’ da lexema hori.
 [**bíe**] (behea) ‘be’ da lexema.

+ **Bestalde NOR erako aditz laguntzailearen formak ditugu :**

[**sarjé**] (zarete)
 [**djé**] (dira)
 [**siñjén**] (zineten)
 [**sjén**] (ziren)

+ Deklinabideko adlatibo kasuko morfema /i/-z bukatutako lexemari eransterakoan ere [jé] diptongo bigarrenkaria sortzen da :

[**mendjé**] (mendirra), [**eřjé**] (herrira), [**donoŠtjé**] (Donostiara)

Lizarragan⁵⁸ [já] izango genuke diptongoa: [**tokjá**], [**mendjá**], ...

+ **-t(z)ean → [t(s)jén] ; -t(z)eagatik → [t(s)jétiš] ; -t(z)earekin → [t(s)jéki(n)] ; -t(z)ea → [t(s)jé] ; -(en)ean → [(en)jén] :**

[**eiřjén**] (egitean)
 [**etorcjén**] (etortzean)
 [**jotjétiš**] (egoteagatik)
 [**ibilcjétiš**] (ibiltzeagatik)
 [**esatjéki(n)**] (esatearekin)
 [**atjácjéki(n)**] (ateratzearekin)
 [**fatjé**] (joatea)
 [**Šařcjé**] (sartzea)
 [**batjén**] (batean)

⁵⁷ MITXELENA, K. (1977, 178) : “No es rara la metátesis de /i/ segundo elemento de diptongo, pero por lo común pasa a formar el elemento descendente de otro : (...) Cf. vizc. Eibar, etc. *beinke* < cast. ‘bien que’.”

⁵⁸ Gregoria SOLISEk (1993, 98) honela jasotzen du: “Nora galderari erantzuten dioten hitzetan bukaerako *a* bokala mantendu eta ahoskatzerakoan *a* luzatu egiten da, ez da aurreko kasutan bezala itxiera edo bustidurarik ematen

toki + ra = tokiaa [tokja:]”

[bige^ɾnjén] (bigarreanean)
 [danjén] (denean)
 [sanjén] (zenean)

Begira Uharteko dotrinan jasotako hauek: *garenien, naicenien, batién, gequitcien, ateracien, sarcien, gatién, edatién, ...*

+ Behar aditza NN_k eran jokatzeraoan suertatzen diren sandhi-
 etan ere /jé/ diptongoa sortzen da Etxarriko hizkeran:

[bjét] < bier det (behar dut)
 [bjék] < bier dek
 [bjégu]⁵⁹ (behar dugu)
 [bjésu] < bier dezu
 [bjésubje] < bier dezubie
 [bjébjje] < bier debie

Singularreko pertsonen kasuan, berriz, triptongoa sortzen da
 Arbizun, eta hirugarren pertsonaren kasuan Etxarrin ere bai:

[bjáwt] < bi dut (behar dut)
 [bjáwk/n] < bi duk/n (behar duk/n)
 [bjáw] < ber dau (behar du)

+ Bada beste kasu bat, zeinetan diptongo hau burutzen den /i/ eta
 /a/ bokalen arteko /d/ kontsonantea galdu delako :

[bjéldu] (bidaldu, bidali).

- [jó] diptongoa:

Jaso ditugun adibide gehienak diptongo bigarrenkariak dira, eta
 ia denak /e/ eta /o/ bokalen arteko kontsonante erorkorren galeraren
 ondorioz :

[bjótu] (berotu) baina *bero*.
 [gjó] (gero) baina *geruô* (geroago)
 [ljó^ɾ] (lehor)
 [bjó^ɾ] (behor)
 [ʃjó^ɾtu] (xigortu)
 [a^ɾtjó] (artio, artino)

⁵⁹Horrela azaltzen du hitz bera, *II biégu (Ab)*, I. Caminok (1995, 318, 46 oharra): “Kasu honetan bilakabidea hurrengoa da : *bear dugu > bea'ugu > biaugu > bia'igu > bie'igu > biegu*. Bilakabide horiek guztiak *be(h)ar* hitzak *biar* ematea, u-ren palatalizatzea, eta *ai*-ren herstea, aezkeraz arruntak dira biziki”.

[egunjó] (egunero) Etxarrin, kontsonantez bukatzen den lexemari maiztasuna adierazten duen morfema, *-(e)ro*, eransterakoan gertatzen da diptongazioa, ez ordea bokalez bukatzen bada lexema : **astero, urtero, illatero** (hilabetero).

Arbizun aldiz, kasu guztietan gertatzen da, baina *egun* hitzaren kasuan *egunoo* geminazio bilakabidea ere ohizkoa da :

[egunjó], [aštjó], [uřtjó], [i]atjó

Ondorengo arteko lehenengo hirurak ere, aipatutako bokalen arteko dardarkari xamurraren erorketaren ondorio dira, baina hemen aipatzea erabaki dugu, beste lotura bat agertzen dutelako jarraian aipatuko ditugun besteekin, guztiak izenorde pertsonalen forma intentsiboak izatearena alegia :

[njóni] (neroni), **[njónek]** (neronek), ...

[jóri] (herori), **[jóřek]** (herorrek), ...

[bjóri] (berori), **[bjóřek]** (berorrek), ...

[gjók] (geuk)

[sjók] (zeuk)

[sjójk] (zeuk) triptongoa sortzen da.

[bjójk] (beroriek) hemen ere, triptongoa.

Sandhietan ere burutu daiteke [jó] diptongoa, /e/-z bukatutako lexema bati /o/-z hasten den erakusle batek jarraitzen dionean :

[xendjók] (jende hauek)

[eĉjónek] (etxe honek)

[lesjórřtan] (leze horretan)

[xendjóřek] (jende horrek)

Eta triptongoa ere sor daiteke :

[xendjój] (jende hori), **[eĉjój]** (etxe hori), ...

+ Aurreko diptongoa aztertzerakoan, ‘behar’ aditzari buruz esan duguna baliagarria zaigu oraingoan ere Ergoienako hizkerarako, baina [jó] diptongoa sortzen delarik kasu honetan:

[bjót] < bier dut (behar dut)

[bjók] < bier duk

[bjó] < bier du

[bjósu] < bier duzu, *beezu* Lizarragan.

Eta baita triptongoa ere: **[bjów]**, *bedau* Lizarragan.

2.1.2.2. HIATOAK.

Bi bokal, haien balore silabikoa galdu gabe, bata bestearen ondoan diptongorik eratu gabe suertatzen direnean hiatoa dela esaten dugu. Aipatu bokal bakoitzak silaba bat osatzen du, beraz. Bi silaba desberdinetan banatzen diren bi bokal elkartuk osatzen duten multzoa da, beste era batean esanda.

Txillardegi-k (1980) ondorengoak aipatzen ditu euskal hiato normal bezala : [ia], [ie], [io], [ua] eta [ue].

Azterketa esparruko herrietako hizkeretan suertatzen diren hiatoak morfologia atalean ikusiko ditugu. Hala ere, nabaria da Etxarri eta Ergoienako hizkeren hiatoak deusezteko joera ondorengo hiru prozedura hauek erabiliz :

- Bi bokalen arteko fonema ez-bokalikoen epentesiak : [y], [b].
- Lehenengo bokala elementu ez-bokaliko bihurtu : [j], [w].
- Kontrakzio edo murrizketak : [ie] → [i], ...

Fonema ez-bokalikoen epentesiak :

ia eta *ua* taldeen ondorio dira gehienak, /e/ eta /u/ bokalez amaituriko lexemei mugatzailea eransterakoan gertatzen diren errealizazioetan kasu batzuetan, epentesiaz gain mugatzailearen asimilazioa ere gertatzen delarik (Etxarri, Lakuntza, ...), eta baita lexema barruan ere. Beste herrietan epentesia gauzatzen da, baina ez absolutibo kasuko morfemaren itxiera:

mendiye (mendia)

txikiye (txikia)

eskube (eskua)

julube (julu, garraxi)

abiyetu (abiatu)

ganbiyetu (kanbiatu)

dubat (derauat, diat) -erau- da NNN aditz sistemako erroa.

Campionek (*Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*) esaten du hiatoa beti bokalarteko kontsonante baten galeragatik sortzen dela. Baina halako kasuetan ere, hiatoa kentzeagatik, /y/ epentetikoa tartekatzen da Etxarri, Ergoiena eta Arbizuko hizkeretan :

fiyetu (< fiatu < fidatu)

iyo (< eho)

Lehenengo bokala elementu ez-bokaliko bihurtu. Goranzko diptongoen sailean ikusi ditugun kasuak ditugu hauek :

g[wá]zen (goazen)
g[wá]tze (ohatze)
b[já]tza (beratza)
b[jé]ldu (bidaldu)
b[jó]tu (berotu)
bag[wé]ze (bagoaz)

Kontrakzio edo murrizketak :

+ *-ie-* taldeak *-i-* bihurtzeko joera erakusten du ondorengo ingurunetan :

. /i/-z bukatutako adjektiboei superlatiboaren morfema eransterakoan suertatzen da $V_1V_2 > V_1V_1 > V_1$ bilakabidea gauzatuz, egun oraindik lehen bokalaren luzapena nabari daitekeelarik zenbait hiztunen ahotan:

txikîna < txikiena
aundîna < haundiena
berrîna < berriena
txurîna < txuriena

. /i/-z bukatzen diren lexemei inesibo pluraleko morfema eransten zaionean gertatzen da murrizketa, eta berarekin batera asimilazioa ere :

guziten < guzietan
menditen < mendietan
erriten < herrietan
amabiten < hamabietan
ordubiten < ordu bietan

+ Gaztelerak normalean diptongatzen duen latineko jatorrizko /o/ bokala, berean mantentzen da Sakana erdialdeko hizkeretan:

zoru (suelo)
zola (suela)
esporta (espuerta)
konporta (compuerta)
portalanga (puerta) (langaz egina)
portu (puerto)
errota (rueda)

kazul⁶⁰ (cazuela)

Hala ere, kasu batean behintzat bai diptongatu du Etxarriko hizkerak jatorriz latineko /o/ bokala, erromantzearen antzera:

fuesa⁶¹ (huesa) < fossa (lat)

“*Alako fuesetan ein ber dik responsue*”, esaten omen zuen Etxarriko apezak.

Bestalde, **edun* aditzaren NN_k sistemako, nork singularrean agertzen den formetan *-ue-* taldeak /e/ ematen du, baina oraindik, kasu honetan ere, soma daiteke bokal honen luzapena, ondorengoa izan zitekeelarik eraman duen bilakabidea :

EUE	→	EBE	→	EE	→	E
Nuen / *neuen		*neben		neen		nen
Zuen / *zeuen		*zeben		zeen		zen
Huen / *yeuen		*yeben		yeen		yen
Duena / *deuena		*debena		deena		dena

Ergatibo pluralekoa denean, aldiz, /b/ kontsonante epentetikoa tartekatzen da hiatoa kentzeko :

ue	>	ube
genuen		giñuben
zenuen		ziñuben

Bada, bestalde, gazteleratik mailegatutako hitz bat, zeinetan /ue/ → /e/ bilakabidea burutzen baita:

peñelo < pañuelo

2.1.3. ASIMILAZIOAK.

Asimilazioa, fonema batek aldameneko beste bat ikutzean jasaten duen aldaketari esaten zaio, hots, haren ezaugarriren batek kutsatzen du. Eta aipatutako kutsadura edo aldaketa hori kontaktuan dauden bi unitateak artikulazio-ezaugarri erkideak lortzean oinarritzen da.

Bi asimilazio mota bereizten dira orokorrean :

⁶⁰ ‘*Tijerika, kaxulika, kaxulon?*’ haur jokoa. Hala ere, kasu honetan *-ue-* > *-u-* gertatu da.

⁶¹ J.M. IRIBARREN (Vocabulario Navarro, x orrialdea): “ (Montaña) ...”

- Atzeranzko asimilazioa, aldaketa edo kutsadura jarraian datorren fonema hobeki ebakitzeko ahoskatze organoek hartzen duten artikulazioa aurrekoa dela esan daitekeenean gertatzen da.
- Aurreranzko asimilazioa, alderantzizko kasua litzateke, hau da, aurreko fonemaren artikulazioa atzeratu egiten denean eta jarraian datorren fonemaren ebakera eragiten duenean.

O. Ibarrek (1995, 109) ondorengo argibideak ematen dizkigu :

“Baina asimilazio moduak ezberdinak izan daitezke, segmentuen artean ezartzen den erlazioaren arabera aldatzen baita. Honenbestez, sailkapen hau egin daiteke :

- a) Kontsonanteak bokalen tasunak asimilatzen ditu; adibidez, /i/-ren ondoko /-k edo /n-k, /i/-ren tasunak asimilatzen dituzte.
- b) Bokalak kontsonantearen tasunak asimilatzen ditu.
- c) Kontsonanteak beste kontsonante batzuen tasunak asimilatzen ditu. Adibidez, sudurkaria ezpainbiko bihurtzen da /b/-ren aitzinean.
- d) Bokalak beste bokal batzuen tasunak asimilatzen ditu.

Ikusi dugu, beraz, bilakabide honek bokal nahiz kontsonanteetan eragiten duela eta eragin hori, orain arte zehaztutakoaz gain, jarraian aipatuko dugun era nagusietakoa izan daiteke :

- Ukipenezko asimilazioa, fonemak elkarren ondoan daudenean.
- Hurbileko asimilazioa, ukipenik ez dagoenean, baina hala ere fonema batek, tartean daudenen gainetik pasatuz, beste bat asimila⁶² dezake.

Guk bigarrena aztertuko dugu jarraian, hurbilekoa, hau da, silaba bateko bokalak aurreko edo atzeko silabaren bokalaren tinbrea asimilatzen dueneko. Hurbileko bokal asimilazioa deituko diogu atal honi, eta ez *bokal harmonia*, ezen gaur egungo fonologoak bat ez datozela baitirudi euskaraz suertatzen den asimilazio bilakabide honi orain arte bezala *bokal harmonia* deitzearekin. Horrela Hyman-ek (1981) esaten du ‘bokal harmonia’ unitate suprasegmentaleko (tema, hitza, ..) bokal guztien ezaugarri fonetiko zehatz baten konkordantzia dela. Eta definizio honekin bat etor daitekeen adibidea jaso dugu Etxarriko hizkeran :

izurretu < izorratu. Ikusten denez, hasierako /i/-k hurrengo silabetako bokalak gradu batean ixten ditu.

Hala ere, argi geratuko delakoan gaude hemen aztertuko duguna ‘hurbileko bokal asimilazioa’ izango dela, hots, silaba bateko bokal batek beste silaba batekoa asimilatzen dueneko bilakabidea.

Txillardegik (1980) ere ematen digu bokal asimilazioaren berri eta honelako erregela proposatzen du :

⁶² Asimilatzea, hizketako soinu baten artikulazioa aldatzea izango litzateke, hots, soinu batek ondoan ikutzen edo hurbilean dagoen berezko ezaugarriak dituen beste bati ezartzen di(zki)o bere ezaugarri bat(zu).

a → e / V C _____
[+ high]

Eta J.I. Hualdek⁶³ (1991, 23) ere beheko bokalaren asimilazio erregela proposatzen digu :

V → [-behe] / [+goi] C₀— : /mutil - a/ [mutile]

Eta bokal asimilazio hau bi motatakoa izan daiteke :

2.1.3.1. ASIMILAZIO AURRERAKARIA.

Bilakabide honen arabera, silaba bateko bokal itxi batek, /i/ edo /u/, hurrengo silabako /a/ bokala itxi egiten du /e/ bihurtuz. Hau izango litzateke bere erregela :

a) a → e / i,j,u,w _____

Ondorengoak dira erregela honen bilakabide desberdinak :

i, u + a > [iye, ube] :

Bilakabide hau deklinabideko absolutibo kasuan gertatzen da, mugatzen den lexema /i/-z edo /u/-z bukatzen denean. Asimilazioa eta epentesia, /y/ sabaiko eta /b/ ezpainetako herskari ahostunena, gertatzen da ia azterketa esparru osoan. Aipatu kontsonante epentetikoak herri guztietako hizkeretan jazo dira, baina bokal asimilazioa ez da gertatzen Arbizu, Arruazu, Unanu eta Dorrao-n mugatzaile singularra eransten diogunean, bai ordea mugatzaile pluralaren eransketaren kasuan. Hualde-k (1991, 40) dio Arbizun /a/ beheko bokalak kontsonante bat behar duela ondoren edo atzetik beheko bokalaren asimilazioaren erregela aplikatzeko. Horregatik absolutibo singularrak ez du erregela aplikatzen eta bai, ordea, pluralak edota ergatiboak.⁶⁴ Beste atzizki

⁶³ HUALDE, J.I. (1991, 23) : “In a number of Basque dialects, extending from Navarre to Biscay, but quite irregularly distributed from a geographic point of view, there is a rule that raises a low vowel to /e/ after a high vowel, with or without any intervening consonants ; e.g. : /mutil-a/ [mutile] ‘the boy’, /mendi-a/ [mendie] ‘the mountain’, /egun-a/ [eyune] ‘the day’.”

⁶⁴ HUALDE, J.I. (1991, 40) : “As the examples in (37a) show, the final /-a/ of singular absolute forms does not undergo the rule, but the plural absolute/ergative forms show the application of the rule. Singular ergative forms, where the ergative marker /-k/ follows the /-a/ of the absolute forms, are identical to the plural absolute/ergative forms, showing that the addition of the /-k/ suffix makes singular /-a/ into a target of the rule.”

batzuk ere murriztapen berdinak dituztela esaten du : adlatiboko -RA, -NA distributiboa eta -KA adberbialak. Eta ondorengo adibideak jartzen ditu :

(a)	abs. sing.	abs/erg pl & erg sing.
(asto)	[astua]	[astuek]
(mendi)	[mendija]	[mendijek]
(esku)	[eskuba]	[eskubek]
(txakur)	[tsaku`ra]	[tsaku`rek]
(alaba)	[alaBa]	[alaBak]
(gizon)	[gisona]	[gisonak]

(b)

(mendir), (mendirẽño)
 (biña), (biñeka)
 (arrika), (arrikezo)

Argi baino argiago uzten du, orduan, zein testuingurutan gertatzen den asimilazioa: ez Arbizun bakarrik, ezen Unanun, Dorraon eta Arruazun ere gauza bera gertatzen baita. Morfema kontsonantiko bat eransteak, beraz, erregelaren aplikapena baimentzen du. /-a/-ren atzetik kontsonanteren bat behar da, baina honek ez du esan nahi silaba itxi batean egon behar duenik, kontsonanteak ondoren datorren silabaren hasieran egon behar du.

Ikusten denez, ez da bokal asimilazioa azterketa eremuan era homogoneoan gertatzen, eta alde horretatik bat etor daiteke Txillardegik zioenarekin, hots, bokal asimilazioak (bokale-harmonia dio berak) bere gailurra Hego-nafarrera garaian lortzen duela Ipar nafarrera garaira heltzean indarra galtzen doalarik:

(E, L, La, U)	(A, Ar, Un, D)
mendiye, mendiyek	mendiya, mendiyek
erbiye, erbiyek	erbiya, erbiyek
txikiye, txikiyek	txikiya, txikiyek
ziriye, ziriyek	ziriya, ziriyek
eskube, eskubek	eskuba, eskubek
mundube, mundubek	munduba, mundubek
tarratulube, tarratulubek	tarratuluba, tarratulubek
zerube, zerubek	zeruba, zerubek

Beste horrenbeste gertatzen da -I edo -TU (-DU)-z amaituriko partizipioei mugatzaile singularra edo plurala eransten diogunean :

ezkondube, ezkondubek	ezkonduba, ezkondubek
jarriye, jarriyek	jarriya, jarriyek
bioldube, bioldubek	biolduba, bioldubek

amurretube, amurretubek amorratuba, amorratubek

O. Ibarrek ere jasotzen du burutzapen hau :

“Bilakabide honen ezaugarri fonetikoak oinarritzen dira irekitasun mailan; alegia, [+goi] tasuna duen fonema batek gradu batean ixten du ondorengo bokala. Bilakabide honen banaketa edo zabalera Jakobsenek aztertu zuen, hona hemen laburbildurik: bizkaieraren zati handia hartzen du, iparraldeko goinafarreraren (Leitza eta Ultzama) zati handi batera luzatzen da, baita hegoaldeko GN-ra ere.” (1995, 111).

BAT zenbatzailea deklinatzean :

Mugatzen duen aurreko hitzaren azken silabako bokal itxiak asimilatu egiten du zenbatzailearen bokala, berdin zenbatzaile zehaztua (singularrean, *bat*) nola zehaztugabea (plurala, *batzu*) dagoenean :

egun bet	egun betzu
txakur betek	txakur betzuk
txakur beti	txakur betzui
txakur beten	txakur betzûn
egun betien	egun betzuten
leku beteko	leku betzuteko
leku betia	leku betzutâ
leku beteti	leku betzuteti
txakur beteki(n)	txakur betzuki(n)
txakur betengati	txakur betzungati
egun betes	egun betzus
txakur betendako	txakur betzundako
txakur betengana	txakur betzungana

Adibide hauetan horrelakorik jarri ez badugu ere, /i/-z bukatutako lexemekin gauza bera gertatzen da : **mendi betien, iri (idi) betengana, txerri beten, ...**

Morfema mugetan :

Hainbat atzizki eransterakoan gertatzen diren asimilazioak :

+ **Adlatiboaren kasua** : -RA atzizkiaren bokala, morfema berau eransterakoan, hitz oina edo deklinatuko den lexemaren azken silabako bokal itxiak, itxi edo asimilatu eta luzatu egiten du, kontsonante dardarkariaren galera ere suertatzen delarik herriren batzutan (*erri* + *-ra* > *errire* > *errie(e)*). Ez da gauza bera gertatzen pluraleko atzizkia eransterakoan :

erriê (herrira)	baina	erritâ
mendiê (mendira)	baina	menditâ

Donostiê		
Arbizuê		
tokiê	baina	tokitâ
munduê	baina	mundutâ

Uhartzen ez da bokal arteko dardarkari xamurraren galera suertatzen eta horrela esaten dira hitz horiek : **errîre, mendîre, Donostîre, Arbizûre, mundûre, tokîre, ...**

Arbizun, aldiz, ez da ez /r/-ren galera ez asimilazioa gertatzen : **burura, errira, mendira, ...**

Adlatibo bukatuzkoaren kasuan ere emaitza berdinak jaso ditugu : **gerrieño** (gerriraino), **mendieño** (mendiraino), **burueño** (bururaino), ...

+ **NOIZ eta NON** galdetzaileen kasuetako **-AN** atzizkiaren inguruan sortzen diren asimilazioak, lexemaren azken silabako bokala itxia denean. Asimilazioaz gain kontsonante epentetikoak ere tartekatzen dira, /y/ lexema /i/-z eta /b/ lexema /u/-z bukatzen badira, kasu guztietan. Kasu honetan, pluraleko atzizkiarekin ere gertatzen da asimilazioa :

zortziyen (zortzian)	zortziten
loiyen (lohian)	loiten
zuiyen (zubian)	zuiten
azpiyen (azpian)	azpiten
erriyen (herrian)	erriten
munduben (munduan)	munduten
bu(r)uben (buruan)	bu(r)uten
orduben (orduan)	orduten
ingu(r)uben (inguruan)	ingu(r)uten

+ **i + -kan** > [**iken**] : ekintza adierazteko erabiltzen den **-KA** atzizkia /i/-z bukatutako hitz bati eransten diogunean asimilazioa bera gertatzen da, **-N**-ren paragogea gertatzen delarik :

arriken (harrika)
iyeiken (igerika)
ziriken (zirika)
txintxiliken (zintzilika)
burruken (burruka)
inbuluzken (inbuluzka)

Oso garbi dago asimilazioa aurreko silabako /i/-k edo /u/-k eragiten dutela, ondorengo adibideetan ikus daitekeenez, zeinetan, lexemak /i/ edo /u/-z bukatzen ez direnez, ez baita atzizkiko bokalaren itxiera gertatzen :

arrastakan
laixterkan

furrutekan (zurrutaka)

inbuluzkekan Hauxe da kasurik adierazgarriena. Bertan ikus daiteke atzizkia errepikatua burutzen dela eta bakarrik lehenaren kasuan gertatzen dela asimilazioa. Bi erataria erabiltzen da hitz hau Etxarriko hizkeran.

Partitiboan /-an/ paragoge moduan eransten zaio zenbait kasutan, asimilatzen delarik, **-(r)ikan** → **-(r)iken**: **nekatuiken** (nekatuirikan), **onduatuiken** (hondaturikan), ...

a > e / i,u (C)_ :

Aurreko silabako /i/-k edo /u/-k /a/ /e/ bihurtzen dute ia sistematikoki azterketa eremuaren kasuan, **II. koadroan** ikus daitekeen moduan eta J.M. Arakamak⁶⁵ egindako lanari erreparatzen badiogu, Irañetatik hasi eta mendebalderantz joaz Burundaraino behintzat, herri guztietan suertatzen da, aipatzen diren adibide guztietan ez bada ere. Aipatu lanean /i/ nahiz /u/ bokalek, azterketaren eremuan, eragindako asimilazioak jasotzen dira eta guk, Arakama-k aurkezten dituen adibideei, beste batzuk gehitu dizkiegu eta esan daiteke, gainera, testuinguru guztietan gertatzen dela asimilazioa.

II. Koadroa

	Etxarri	Lizarraga	Dorrao	Unanu	Arbizu	Lakuntza	Arruazu	Uharte	Irañeta
Izan(du)	izendu	izendu	izendu	izendu	izen	izendu	izendu	izendu	izendu
ikasi	ikesi	ikesi	ikesi	ikesi	ikesi	ikesi	ikesi	ikesi	ikesi
lizar	lizer	lizer	lizer	lizer	lizer	lizer		lizer	lizer
bizar	bizer	bizer	bizer	bizer	bizer	bizer	bizer	bizer	
oinaztura	iñezture	iñezture	iñezture	iñezture	iñeztura	iñezture	iñeztura	iñezture	
bilatu	billetu	billetu	billetu	billetzen	billetu	billetuko	billetu	biletu	billetu
igandea	iyendie	iyendie	iyendia	iyendia	iyendia	iyendia	iyendia	iyendien	
firmatu	firmetu	firmetu	firmetu		firmetu		firmetu		firmetu
bitartean	biyertie-o	biyertie	biyertie		biyertio			bittertio	bittertien
ospitalea	ospittelie	ospittelie	ospittelie		ospittelía				ospitelian
bidal(du)(i)	bieldu	bieldu	bieldu	bieldu	biyeldu	biyeldu			bieldu
ilarra	illerra	illerra	illerra		illerra			ilerra	
idarra	iderra	iderra	iderra	iderra	iderra	iderra	iderra		
zidarra	ziderra	ziderra			ziderra		ziderra	zilerra	zillerra
izarra	izerra	izerra			izerra				
ilargi	idergi	idergiye	idergiya	idergiya	illergia		idergiya	ilergiye	
ikatza	iketza	iketza		iketza	iketza	inketza			ikez
bizkarra	bizkerra	bizkerra	bizkerra		bizkerra	bizkerra	bizkerra	bizkerra	
ditare	ttittere	ttittere	ttitteria	ttitterjá	ttitteria			titterie	
obligatu	obligetu	obligetu			obligetu				
animalia	animeliye	animeli			animelia			animeles	
behintzat	bintzet	beintzet			beintzet			beintzet	
ostirala	ostielie	ostielie	ostielia	ostjeljá	ostielia	ostielie	ostiela	ostiela	orzillerie
destinatu	destinetu	destinetu	destinetu		destinetu			destinetu	
ihartu	iyertu	iyertu	iyertu	iyerra	iyertu		iyerra	iyertu	

⁶⁵ ARAKAMA, J.M. (Sakanako euskeraz, lan argitaragabea). Lan honetan Sakana osoko euskara aztertzen du eta, asimilazioari dagokionez, bi material mota erabili dituela esaten du : berak gauzatutakoa alde batetik, eta *Erizkizundi Irukoitza*” (1984) eta Matías Mujika-ren *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak* (1990) bestetik. Berak egokitutakoak, grabaketa libreak eta A.M. Echaide-ren 1989ko “Encuestas Lingüísticas”-en oinarritutako galdetegiak izan dira, bere lanaren hasieran argitzen digunez.

indarra	inderra	inderra	inderra		inderra	inderra		inderra	
analizatu	analizetu	analizetu	analizetu		analizetu	analizetu		analizetu	
litzateke	litzeke	litzeke	litzeke		litzeke	litzeke		litzeke	
bihar	biyer	biyer	biyer		biyer	biyer		biyer	
igual	iguel	iguel	iguel		iguel	iguel		iguel	
isats	isets	isets	isets		isetsa		isetxillerra	isets	
arrimatu	arrimetu	arrimetu	arrimetu		arrimetu	arrimetu	arrimetu	arrimetu	
itsaso	itsesu	itseso	itseso	itxeswén	itsesuen	itsesu	itseso	itsesu	
itsatsi	itsesi	itsesi	itsesi	itxesi	itsesi	itsesi	itsesi	itsesi	
puskatu	pusketu	pusketu	pusketu		pusketu	pusketu	pusketu	pusketu	
juntatu	juntetu	juntetu	juntetu		juntetu	juntetu	juntetu	juntetu	
bultzatu	bulketu	bulketu	bulketu		bulketu	bulketu	bulketu	bulketu	
ugari	uberi	uberi	uberi		uberi	uberi	uberi	uberi	
Uharte	uberte	uberte	uberte		uberte	uberte	uberte	uberte	
Unanu	unenu	unenu	unenu		unenu	unenu	unenu	unenu	
untatu	untetu	untetu	untetu		untetu	untetu	untetu	untetu	
usatu	usetu	usetu	usetu		usetu	usetu	usetu	usetu	
gustatu	gustetu	gustetu	gustetu		gustetu	gustetu			
sukalde	sukelde	suk(u/e)de ⁶⁶		sukulde	sukelde	sukelde			

Ikus daitekeenez, koadro honetako hitz zerrendan garbi geratzen da aurreko silabako /i/ edo /u/-k hurrengo silabako /a/ asimilatzen duela, baina zenbait kasutan (partizipio formetan bereziki : *animetu*, *analizetu*, *pusketu*, *bulketu*, *gustetu*, *usetu*, ...) zalantza sor daiteke, ez asimilazioa gertatzen den ala ez jakiteko (begi bistan da), baizik eta aurreko silabako bokal itxiaz gain, ondorengo silaban ere bokal itxia dagoelako, eta orduan pentsa liteke azken bokal honen eraginez gertatzen dela asimilazioa (atzerakaria). Baina ez da horrela, eta kasu hauetan ere asimilazio aurrerakaria gertatzen dela frogatzeko, hurrengo adibideak ikustea besterik ez dago, zeinetan bokal itxia soilik azken silaban gertatzen baita, eta horrelakotan, ez da inongo asimilaziorik gertatzen :

afaldu **afeldu*, ez
bazkaldu **bazkeldu*, ez
gosaldu **goseldu*, ez
akâtu **akêtu*, ez (akabatu)
arrapatu **arrapetu*, ez
konbokatu **konboketu*, ez

Hualdek (1991, 42) berriro Arbizuko hizkeran LVA⁶⁷ erregela morfema muga barruan ere gertatzen dela dio, [iC₀a] eta [uC₀a] bilkurak ez direla aurkitzen eta maileguak egokitu egiten direla eskakizunak betetzeko. Gogoratu hemen beheko bokalak kontsonante bat behar duela hurrengo silabaren hasieran

⁶⁶ Bi eratara erabiltzen da Lizarragan: *sukulde/sukelde*.

⁶⁷ L.V.A. = Low Vowel Assimilation. Beheko bokalaren asimilaketa. Ondorengo oharrean aipatutako lanean ageri da.

(V → [-behe] / [+garaia]C₀ - C)⁶⁸. Inflexio atzizkien bidez ere LVA erregela aplikagarria izatea lortzen da (kontsonantea /a/-ren ondoren joatean). Eta bestela ere, inflexio morfologian gertatzen dela ondorengo adibideetan ikusten da : [paate-tas] / [mendi-tes], [paate-tan] / [mendi-ten].

Lexemaren bukaerako bokal itxiak bigarrenkariak direnean :

Asimilazioa gertatzen da hurrengo bilakabidea sortuz, **e,o + a > j,w - e :**

etxie, lezie, jendie, ... Sistematikoki gertatzen da Etxarri, Lizarraga, Lakuntza, Uharte eta Irañetan ere.

otsue, basue, usue, ... Sistematikoki Etxarri, Lizarraga eta Lakuntzan. Kasu batzuetan besterik ez Uharte eta Irañetan.

Gainerako herrietan, disimilazioa (e → i eta o → u) bai suertatzen da, baina ez ondorengo asimilazioa.

Kasu honetan ere Hualde-ri⁶⁹ jarraituz, Erdiko bokalaren igotzea (MVR⁷⁰) gertatzen da eta ondoren beheko bokalaren asimilazioa (LVA), hots, MVR-ren bidez sortzen diren bokal garaiek LVA bultzatzen dute. Argi baino argiago uzten du, orduan, zein testuingurutan gertatzen den asimilazioa ez Arbizun bakarrik, ezen Unanu, Dorrao eta Arruazu-n gauza bera gertatzen baita. Morfema kontsonantiko bat eransteak beraz, erregelaren aplikapena baimentzen du. /-a/-ren atzetik kontsonanteren bat behar da, baina honek ez du esan nahi silaba itxi batean egon behar duenik, kontsonanteak ondoren datorren silabaren hasieran egon behar du.

i C, u C + a > i C e, u C e :

Lexemaren azken silaba trabatua izanik bokal itxia badu, -a mugatzailea /e/ bihurtzen da ondorengo herrietako hizkeretan : Uharte eta bere ekialdeko herriak (Irañeta, Ihabar, Urritzola), Lakuntza eta Etxarrin⁷¹, hurrengo koadroan ikus daitekeen moduan :

⁶⁸ Hauek dira HUALDEk (1991, 42) (Idoia Zampirain ingeles irakasle pasaitarrak egindako itzulpenari esker, hobeto jaso ahal izan dugu liburu honen mamia) ematen dizkigun adibideak Arbizurako: *ikesi, belauniketu, idergi, izer, indder, bizer, izen, iper, maittetu, pintetu, iguel, konfientza, kristel*.

⁶⁹ HUALDE (1991, 42) : “High vowels created by Mid Vowel Raising trigger Low Vowel Assimilation in Arbizu, unlike in Baztan. In both dialects the underlying quality of the stem-final vowel is, however, retrievable, since in Arbizu an epenthetic consonant is inserted after stem-final high vowel and another vowel”. Eta ondorengo adibideak aipatzen ditu : [besuek], [berdiek], [eskubek], [mendijek].

⁷⁰ M.V.R. = Mid Vowel Raising. Erdiko bokalaren igotzea.

⁷¹ Arakamak Ziordian ere gauza bera gertatzen dela dio eta, ez berriz, Burundako gainerako herrietan. (Kontuan izan Ziordia Burundako azken herria dela, Arabarekiko mugan dagoela).

III. Koadroa

	Etxarri	Lizarraga	Dorrao	Unanu	Arbizu	Lakuntza	Arruazu	Uharte	Irañeta
egun	egune	egune	eguna	eguna	eguna	egune	eguna	egune	egune
polit	politte	politte	politta	politta	politta	politte	politta	polite	polite
sorgin	sorgiñe	sorgiñe	sorgiña	sorgiña	sorgiña	sorgiñe	sorgiña	sorgiñe	sorgiñe
ur	udse	utse	utsa	utsa	utsa	utse	udsa	ure	ure
ihintz	intze	intze	intza	intza	intza	intze	intza	intze	intze
ostegun	ostegune	ostegune	osteguna	osteguna	osteguna	ostegune	osteguna	ostegune	ostegune
osin	axuñe	axuñe	axuña	axuña	axuña	axuñe	axuña	axuñe	axuñe
ezkur	ezkurre	ezkurre	ezkurra	ezkurra	ezkurra	ezkurre	ezkurra	ezkurre	ezkurre
auntz	auntze	auntze	auntza	auntza	auntza	auntze	auntza	auntze	auntze

i C a + -a > i C e :

-a berezko, itsasia edo organikoa⁷² duten lexemak, aurreko silabako bokala itxia (/i/, /u/) bada, kontsonantez bukatzen diren hitzen bilakabide berbera gertatzen da mugatzailea eransten zaionean, eta hedaturari dagokionez ere gauza bera, herri berberetan gertatzen baita bilakabide hau ere, IV. koadroan ikus daitekeen moduan .

Hualde-rekin bat etorritz, ikusten da Arbizuko kasuan eta Arruazu, Unanu eta Dorrao-renean ere bai, hitz monomorfemikoetan murrizketak berdinak direla, hau da, beheko bokalaren asimilazioa, oraingoan ere, ez da gertatzen, ondorengo adibideetan argi uzten duelarik : /fabrika/ [faBrika], ez *[fabrike] (Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uharte-n bai) edo /aita/ [aitta], *[aitte].

IV. Koadroa

	Etxarri	Lizarraga	Dorrao	Unanu	Arbizu	Lakuntza	Arruazu	Uharte	Irañeta
uda	ude	ude	uda	uda	uda	ude	uda	ude	ude
tipula	tipule	tipule	tipula	tipula	tipula	tipule	tipula	tipule	tipule
musika	musike	musike			musika			musike	
ameika	ameike	ameike	ameika	ameika	amaika	ameike	ameika	ameike	ameike
kuna	kube	kube	kuba	kuba	kuba	kube		kune	kune
aita	aitte	aitte	aitta	aitta	aitta	aitte	aitta	aitte	aitte
garizuma	gaizime	gaazume	gaizima	gaizima	gaizima	gaizime	gaizima	gaizime	gaizime
puska	puske	puske	puska	puska	puska	puske	puska	puske	puske
eliza	elize	elize	eliza	eliza	eliza	elize	eliza	elize	elize

[ai], [ei] C a > [ai], [ei] C e :

⁷² Horietako hitz asko eta askok galdua dute dagoeneko berezko -a hori (ikus 140. orrialdea). Eta horrela entzun daitezke gaur egun, Etxarrin adibidez, hainbat hitz : *anei bet, makil bet, giltz bet, gauz bet, bi egur pil, ...*

[ai] eta [ei] diptongoetako /j/ erdibokalak asimilatu egiten du hurrengo silabako bokal irekia, berdin gertatzen delarik sandhi-etan edo /a/ eta /e/ bokalen ondoren kontsonante sabaiko igurzkaria doanean :

aizpe, aitte, aitezulo, aittejunteko, aipetu, aize (ehiza), **axai bet** (azeri bat), **anei bet, sei bet, jei bet, beiretu** (begiratu), **seyetu** (saiatu), **meyetza** (maiatza), **bateyetu** (bataiatu).

Asimilazio bilakaera hau oso era nabarian ikus daiteke, Etxarrin behintzat, ‘ibili’ aditzaren nor erako formetan:

gailtze (gabiltza), **zailtze** (zabiltza) Aditz forma hauen kasuan, diptongo bigarrenkaria dugu, baina hala ere asimilatu egin du hurrengo silabako bokala.

[au], [eu] C a > [au], [eu] C e :

Berdin gertatzen da lexema barruan, mugatzailea eransterakoan nola sandhi-an ere⁷³ :

autse	belaun bet	euskera
aurre	lau bet	auzelana
gauze		

Zenbait kasu:

/i/ bokal osoa nahiz /i/ bokal erdiaren ondoren /l/ edo /n/ kontsonanteak doazenean, hauek busti edo palatalizatu eta ondoren asimilazioa gertatzen da, bokal erdiaren kasuan berau agertu gabe gera daitekeelarik :

âñe (adina)
selle (saila)
melle (maila)
telle (teila)
telletu (teilatu)
botelle (boteila)
pille (pila)
billetu (bilatu)
ille (hila)

⁷³ [eu] diptongoa ez da ia gertatzen azterketaren eremuko hainbat herritan, hala nola Etxarri, Lizarraga, ..., eta hemen azaltzen den adibidea ere askotan [au] bihurturik entzun daiteke : *auskera, auskias*.

zille (zila)
mille (mila)

-DAD (-TAD) atzizkidun **mailegutan** ondorengo bilakaera gertatzen da :

-tad > -tede /i ___

trinidede	amistede	posibilidede
umanidede	kalidede	fazilidede
karidede	unibersidede	santidede
birjinidede	kantidede	felizidede

Aurreko silaban ez bada bokal itxirik, ez da asimilaziorik gertatzen : *falsedade*, ...

Hala ere, ikus daitekeenez, kasu guztietan *-e*-ren paragoea suertatzen da, hots, hitz bukaeran /e/ bokala eransten da.

- i - u > i - i :

Kasu gutxi badira ere, azterketa eremu osoan zabalduak ditugu ondorengo hauek :

atximixka⁷⁴ (atximurka)
gaizime (garizuma)
bi(l)ixkorriko⁷⁵ (biluzik)

Hauek Etxarrin burutzen diren errealizazioak dira eta beste herrietan antzekoak dira : *biliskorriye* Lizarragan, *bilisgorriyen* Dorrao, Uharte eta Arruazun, *biliskorriyan* Unanun, *biixkorriko* Lakuntzan eta *bizkorraxiko* Arbizun. Burutzapen hauek J.M. Arakama-ren lanetik hartuak dira, beste hauek bezala : *garizime* / *gai(t)zime* / *gaizima* Irañeta, Uharte, Unanu eta Etxarrirako egokitzen dituelarik.

- i - a > i - i :

⁷⁴ MITXELENA, K. (1977) : “Cf. guip. vizc. *atximur*, *atximur* ‘pellizco’, de *atz* ‘dedo’ y *zimur* ‘arruga’, cuyo diminutivo es *ximiko* ‘pellizco’ (suf. *-ko*.” Lan berean, baina aurrerago : “Un caso seguro, en interior, de *u>i es a.-nav. b.-nav. guip. lab. *zimiko* ‘pellizco’, dim. *ximiko* (ya Ax., Oih.), de **zimur*+*ko* : cf. guip. vizc. *atximur*, de *atz* ‘dedo’ más *zimur* ‘frunce, arruga’.”

⁷⁵ Mitxelenak lan berean (1977) : “No es ni mucho menos seguro que, como quiere Uhlenbeck siguiendo a Schuchardt, las palabras vascas que significan ‘desnudo, desnudado’ provengan de un rom. *blos*, pero tampoco lo es que se trate en su origen de un compuesto **bilo-uts*, como quiere Azkue. La distribución geográfica sugiere que el part. *biluzi*, *billuzi*, y el adj. *biluzgorri* (LeiÇ., etc.) reflejan mejor el timbre antiguo de la primera vocal que *buluzi* (Dech. rad. *buluz*), *buluzkorri* (Dech.), etc.” Etxarri eta Lakuntzako kasuan badirudi *biluzgorri* > *bi(l)ixkorri* + *-ko* izan dela bilakabidea.

e - i > i - i :

Kasu bat baino ez dugu jaso:

agii < ageri

i - u > u - u :

Etxarri, Unanu, Lizarraga eta Dorraon hemen aurkezten den adibidearen kasuan suertatzen da :

gultzurriñe < giltzurrina

2.1.4. ASIMILAZIOA GAUZATZEN EZ DEN TESTUINGURUAK.

Bokal asimilazioa, lexema barruan gertatzen denaz gain, normalean /+/ (muga ahula, lexema eta eransten zaion deklinabideko morfema batek osatutakoa, *etxe-a*), /#/ (muga gogorra, lexema eta sintaxiko edo eratorpeneko morfema batez osatutakoa, *arriken*) eta /##/ (muga oso gogorra, elkarren segidan doazen bi lexemaz osatutakoa, *mendi bet*) mugen artean gertatzen da, eta muga gramatikal zenbaitek asimilazio hau ekidin edo saihestez dezaie. Hala ere, muga hauek alda daitezke, esaterako # → + bihurtu daitezke, edota erregela batzuk ## mugen artean bakarrik gertatzen dira eta ez # edo + mugetan, beste batzuek # edo ## mugetan daukate eragina eta ez + mugetan, eta abar. Orain kontua, beraz, Sakana erdialdeko hizkeretan asimilazioa zein mugek oztopatzen duten ikustea da.

Hitz elkarketan .

Hitz elkarketaren bigarren osagaiaren hasierako beheko bokala ez da asimilatzen :

buruaundi, muga gramatikala hautsi eta triptongoa sortzen da, baina asimilaziorik gertatu gabe.

iruzkiaize, kasu bera.

mendialde, mendialdiâ (mendi aldera)

Bada hitzen bat edo beste, jatorriz konposaketaren emaitza dena, **sukelde, bekeñe** (kontuan izan bigarren osagaia ere *geñe* dugula azterketa esparruko herri gehienetan), zeinetan gertatzen baita asimilazioa, baina, ziur aski, dagoeneko lexema soila bezala hartua dugulako.

Lexema bereziak.

Elkarren ondoan doazen bi lexema ez dira asimilatzen :

mendi asko
iru atso
bi ama
mundubau (mundu hau)
mendiyau (mendi hau)

Ordinalen kasuan.

Bi bilakabide suertatzen dira Etxarriko hizkeraren kasuan behintzat : -**garren** eta -**gerna**. Hala ere, badirudi bigarren forma hau ez dela asimilazioagatik soilik gertatu, ezen berdin baitio aurreko silabako bokalaren itxierak, 5, 10 edo 11 zenbatzaileekin ikus daitekeen moduan, eta erabilerari dagokionez, berdin entzun daiteke *bosgarren semie* nola *bosgerna semie* Etxarriko hizkeran, eta adibide honen arabera -*gerna* morfemak -*a* organikoa izango luke. Horrela beraz, asimilazioa sinkopatzen den burutzapenaren kasuan soilik gertatzen da, eta bokal itxirik gabeko zenbatzaileek, berriz, analogiaz burutuko lukete aipatu asimilazioa:

bigarren ⁷⁶	eta	bigerna
irugarren	eta	irugerna
laugarren	eta	laugerna
bosgarren	eta	bosgerna
seigarren	eta	seigerna
amargarren	eta	amargerna
ameikagarren	eta	ameikagerna
...		

-(T)AR atzizkia :

Ez da atzizki honen errealizazioetan ere asimilaziorik gertatzen :

etxarriar, arbizuar, unenuar, erritar, baserritar ...

-GARRI atzizkia.

Salbuespenik bada ere, badirudi ez asimilatzeko joera nagusi dela azterketa esparru osoan. Hala ere, esan bezala, salbuespen moduan ondorengo hitza izango genuke Etxarrin behintzat : **izugerri**. Bestela, ikusi ondorengoak :

⁷⁶ Ez nahastu '*bigarren*' partikula konparatzailearekin, zeinetan gertatzen baita asimilazio aurrerakaria.

arrigarri, bizigarri, ikusgarri, ...

-TASUN atzizkia.

Ez da asimilaziorik gertatzen :

ixiltasune, arintasune, garbitasune, bizitasune, ...

-TAKO prolatibo kasuko atzizkia.

Honek ere ez du asimilazioaren eraginik jasotzen :

meikutako dakabie (medikutako daukate)
iritako yaaman debie (iditako eraman dute)

-i, -du(-tu) ## gara.

Ez da asimilaziorik gertatzen testuinguru honetan. Hala ere kontuan izan beharko dugu /i/-z bukatutako zenbait aditzek bokal itxi honen sinkopa jasotzen duela, hala nola, *ibili, etorri, ...* Bestalde, beste zenbait aditzek partizipio analogikoak erabiltzen dituzte, baina kasu horietan ere, ez dute asimilaziorik eragiten :

jantzi gaa (gara)
ibil gaa
etor gaa
yoondu gaa (egon gara)
izendu gaa (izan gara)

BA- baldintzazko aurrizkia.

Ez da asimilaziorik, aurrerakaririk behintzat, gertatzen inongo kasuan, ez eta itxuraz hala ematen badu ere horietariko batek edo bestek, **ikus bêzu** (ikusi baduzu), ezen aurreko /i/ edo /u/-k eragindako asimilazioarena ez baizik eta ondorengo bilakaera izan baitu adibide honek:

	(ikusi baduzu) >
sinkopa eta aditz forma	<i>ikus badezu</i> >
bokalen arteko /d/-ren galera	> <i>ikus baezu</i> >

$V_1 - V_2 \rightarrow V_2 V_2$	> <i>ikus beezu</i> >
$V_2 - V_2 \rightarrow V_2$	> ikus bêzu

balinbaa (baldin bada)
etor baa (etorri bada)
jantzi baau (jantzi badu)

Gogoratu, azkenik, asimilazio bilakabideak aztertzerakoan (Ikus 115. or.) bokal itxi bigarrenkariaz bukatzen diren lexemei absolutibo kasuko mugatzaile singularra eransterakoan Arbizu, Arruazu, Unanu eta Dorraon gertatzen den asimilazio eza.


2.1.5. BOKAL GEMINATUAK.

Azterketa esparru osoan erabat arrunta da bi bokal berdin elkarren ondoan, jarraian, aurkitzea desberdinak izan daitezkelarik egoera horretara eramán

dituzten arrazoiak. Eta horrelako bilakabideak Trudgill-ek (1992) “*restricted code*” edo kode murriztua erabiltzean, hots, hitz egiteko era arin, arduragabe edo talde txikikoa denean gertatzen direla esaten du. Informazio asko jakintzat ematen da horrelakoetan, diskurtsoa motela da eta fonemek ere argitasun gutxiago daukate “*prestige dialect*” edo hizkera prestigiotsuarekin konparatzen badugu. Horrela bada, kode murriztu honekin hitzak ekonomizatu egiten dira eta bokalismoan bilakaera bereziak sortzen dira : bokal elkarketak, asimilazioak, geminazioa, ...

Bokal geminazioari dagokionez, Hualde-k (1991) esaten du *mora* edo pisuzko unitatearen kontzeptua izan beharko dugula kontuan hauek aztertzeko orduan. Horrela, silaba gunea (bokala) soilik da nahitaez moraikoa. Bokal labur batek mora bat dauka eta luzeak, aldiz, bi. Euskaran, bere ustean, ez dago arrazoirik pentsatzeko bokalen ondorengo kontsonanteek pisua dutenik, latina edo italieran gertatzen denarekin erabat kontrajarririk. Bokalak bakarrik, beraz, dira moraikoak gure hizkuntzan eta segmentu baten galerak ez du esan nahi berari lotuta edo elkartuta dagoen mora ere galtzen denik. Gerta liteke segmentuko ezaugarri guztiak galtzea, baina pisuzko unitatea (mora) mantentzea, beste segmentu bati elkarturik. Modu honetan, latineko *factu*-k bere pisuzko unitatea mantentzen du italierara *fatto* bezala pasatzen denean.

Hurrengo kontsonanteak aske geratu den mora hartzen du, kontsonante geminatua sortuz :




f a k t u f a t u

S= segmentua

m= mora edo pisuzko unitatea

Hualde-rekin jarraituz, euskeran kontsonanteak ez dira inoiz moraikoak. Horrela, bokalaren ondorengo kontsonantearen galerak ez du geminaziorik sortzen ez diakronikoki maileguen egokipenean, adb. : *doktore* > *dotore* (ez **dottore*, horrela italieraz aldiz), *arquitecto* > *arkiteto*, ez eta sinkronikoki ere, adb. : *zuk ere* > *zuke* Etxarrin. Bokal arteko kontsonantearen galerak, ordea, geminazioa sortzen du : *noren* > *noon* azterketa esparru osoan.

Bestalde, goiko bokalek, /i/ eta /u/, ez dute nahitaez morarik izan behar, eta horrelako kasuetan bokal erdiak, [ɨ, ʉ], bihurtzen dira. Horrela [i] laburra, [ii] luzea eta [i̯] bokal erdia izango ditugu, ezaugarri berdineko segmentu bakarria hiru kasuetan, baina elkartutako mora kopuru (bat, bi, bat ere ez) desberdinekoa :



Jarraian Hualde-k Arbizuko hizkeran sortzen diren bokal geminatuen bilakabideak azaltzen ditu eta guk ere haren egitura jarraituko dugu lanaren esparruko beste herrietara hedatuz azterketa.

O. Ibarra-k (1995, 169) dioenez, Basaburua eta Imotzeko hizkeretan oso ohikoa da bi bokal berdinak elkarren jarraian aurkitzea.

2.1.5.1. ETIMOLOGIKOKI HASPERENKETAZ BANATURIKO BI BOKAL BERTINEN INGURUNEAN SORTUTAKO GEMINAZIOA ETA ONDORENGO BOKAL LABURDURA.

Bilakabide hau herri guztietan gertatzen da, Etxarritik hasi eta Uharte eta Irañetaraino ekialdean. Hasperenketaren galeraren ondorengo bokal luzapenari murrizketak jarraitu dio ondorengo bilakabidea jazo delarik :

$$V h V > V V > V$$

Lehenengo lauak Hualde-ren (1991) lanean Arbizuko adibideak bezala agertzen diren adibideak dira eta gainerakoak guk gehitu ditugu. Guztiak ere azterketa esparru osoan daude hedatuak :

zaharra > zaarra > **zarra**
 mahatsa > maatsa > **matsa**
 lehen > leen > **len**
 mihi > mii > **mi**
 ohol > ool > **ol**
 ahal > aal > **al** (*eitten al diau !*, ‘egiten ahal dugu !’)
 behe > bee > **be (pe)**
 nahasi > naasi > **nasi**
 lehertu > leertu > **lertu**
 ahari > aari > **ari**
 bahabil > **baabil** > **babil**⁷⁷

Bada, gutxienez, salbuespen bat hala ere, bokal luzapena mantendu duena, eta hau ere herri guztietan mantentzen da :

zuhur > **zuur**⁷⁸

Gauza bera jaso du O. IBARRAk Ultzamako euskararen kasuan⁷⁹.

2.1.5.2. BOKAL BERDINEN ARTEKO HERSKARI AHOSTUN, /B,D,G/, ETA DARDARKARI XAMURRAREN ERORKETAK SORTUTAKO GEMINAZIOA.

Kasu hauetan ez da oraindik murrizketarik jazo eta horietako batzutan bi ebakitze alternatibo suerta daitezke. Honen lekuko, Hualde-k Arbizun jasotako [akabatu], [akaatu], edo Etxarrin lehian dagoen [burun], [buu].

V b,d,g,r V > V V

Lehenengo hamabiak Hualde-ren lanekoak ditugu eta besteak guk gehitu ditugu :

baratxuri > **baatxui**
 buru > **buu**

⁷⁷ Ez da sistematikoki gauzatzen bokal murrizketa edo, gutxienik, zalantza haundikoa gertatzen da, egun oraindik, beti gertatzen den ala ez erabakitzea. Hitzuna eta testuinguruaren arabera gauzatzen den bilakabidea dugu. Enfasiak ere zerikusi nabarmena du luzapen edo geminatu moduan burutzerakoan : ‘baabil... !’

⁷⁸ Etxarrin hala ere, mugatzerakoan badirudi murrizpena gauzatu dela : *zurre da oso, gizonoi !*, ‘zuhurra da oso, gizon hori !’

⁷⁹ O. IBARRA (1995, 170): “Ultzamako euskaraz, euskalki askotan bezala, etimologikoki bokal geminatua espero daitekeen lekuan, alegia, bi bokal berdinek hasperenketa batez bereiztuak direnean, murrizketa gertatu da. Hasperenketa galerak bokal luzeen murrizketa ekarri du, VhV > VV > V: zaharra > za:arra, zarra eta honelakoak dira ebakera arruntak: zahar [sar], mahats [mat’s], lehen [len], mihi [mi]”.

okaran > **okaan**
 ganbaratxo > **ganbaatxo**
 gogor > **goor**⁸⁰
 sagar > **saar**
 makina bat > **makiñaat**
 sudur > **suur**
 gizarajo > **gizaajo**
 ezkaratza > **ezkaatza**
 geldirik > **geldiik**
 beharbada > **berbaa** (bierbaa, Etxarrin)
 bizirik > **biziik**
 gara > **gaa**
 zara > **zaa**
 nere > **nee**
 zeren > **zeen**
 ere > **(d)ee**
 gurutze > **guutze**
 baratze > **baatze**
 paratu > **paatu** (jarri, kolokatu)
 pagatu > **paatu** (ordaindu)
 bere > **bee**
 ikaratu > **ikaatu**
 ditugu > **ttuu**⁸¹

Genitiboko morfema singularra erantsita, bilakabide hauxe ere suertatzen da :

ama + -aren > *amaren > **amaan**
 etxe + -aren > *etxieren > **etxieen**
 erri + -aren > *erriyaren > **erriyaan**
 zulo + -aren > *zulueren > **zulueen**
 joku + -aren > *jokubaren > **jokubaan**
 aitzur + -aren > *aitzuraren > **aitzurraan**

Adlatiboko singularreko morfema eransterakoan ere, bokal geminatuak sortzen ditu. Arbizun⁸², hala ere, -i eta -u bokalaz bukatzen diren lexemen kasuan ez da dardarkari xamurra galtzen, *errira-putzura* :

⁸⁰ ‘Gogo’ hitzarekin ez da /g/ kontsonantearen galera gertatzen : ‘gogo gutxi’, ‘gogoik ez’, ...etab., baina soroko lanetan zegoen jendeari ingurutik pasatzerakoan esaten zitzaaien agurra, berriz : ‘**Jo gooti!**’ (Jo gogotik!). Aezkoan (Orba., Orb.) I. CAMINOk (1997, 306) forma murriztua jasotzen du : *gótik* ‘gogotik’.

⁸¹ Etxarrin hala burutzen da aditz forma hau : lehenik palatalizazioa eta aferesia gertatzen da eta ondoren /g/ kontsonantearen galera eta geminazioa.

⁸² Horrela jaso zituen OLASAGARREK (1990): “*odola buura itzoo dakit*”, “*zubuen herrira* (sic) *ez da iyore etortzen*”.

tabernara > **tabernaa**
etxe > **etxiaa**⁸³
erri > **erriee**
zulo > **zuluaa**
putzu > **putzuee**
elizara > **eliziaa**

Eta berdin pluraleko morfemak edozein dela ere lexemaren bukaerako hizkia :

etxeetara > **etxetaa**
mendietara > **menditaa**
tabernetara > **tabernetaa**
elizetara > **elizetaa**
zuloetara > **zulotaa**
lurretara > **lurretaa**

Bi bokal berdinen arteko /r/ dardarkari azkarraren erorketa kasu bat ere jasotzen du Hualde-k Arbizuko hizkeran, eta guk esan behar dugu gainerako herrietakoetan ere hala gertatzen dela, murrizketa jazo delarik Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uharteko kasuetan ere:

arratsalde > **aatsalde** Arbizu, Dorrao, Unanu eta Arruazun.
aatsalde > **atsalde** aipatutako herrietan.

Hala ere, herri guztietan gorde da dardarkari azkar honekin erlazionatutako beste hitz batean : **arrasgorri**.

2.1.5.3. BOKAL DESBERDINEN ARTEKO KONTSONANTEEN ERORKETAK SORTUTAKO ERABATEKO ASIMILAZIOA ETA, ONDORIOZ, BOKAL GEMINAZIOA.

Bi bilakabide desberdin gertatu dira :

a) Asimilazio aurrerakari edo progresiboa.

Bigarren bokala lehenera asimilatzen denean.

$V_1 V_2 > V_1 V_1$

⁸³ Arbizun eta Arruazun *itxaa* izango genuke.

Lehenengo seiak Hualde-k jaso ditu eta besteak guk erantsi dizkiogu zerrendari :

hilabete > *illaete > **illaate**
 korapilo > *koapillo > **koopillo** Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Ergoienan, **toopillo** Etxarrin eta ...
 parete > *paete > **paate**
 lehendabizi > *lendaizi > **lendaazi**
 ezagutu > **ezautu** (Etxarrin eta Lakuntzan) > **ezaatu** (Arbizu eta ...)
 andregai > *andrei > **andreei** Arbizu eta ...
 zure > *zue > **zuu**
 gure > gue (horrela Ergoienan) > **guu**
 hire > *ie > **ii**
 noren > *noen > **noon**
 norekin > *noekin > **nookin**

O. Ibarak (1995, 172) Basaburuarako dioen moduan, deklinabideko genitibo, datibo, sozietibo eta destinatibo kasuetako morfema singularrak eta izenorde zehaztugabearen gisakoa sortzeko erabiltzen diren BAT zenbatzailea eta genitiboaren morfema mugagabea eransterakoan bokal geminatuak sortzen dira, asimilazio aurrerakaria edo progresiboari esker :

ama + -aren > *amaen > **amaan**
 buru + -aren > *burubaen > **burubaan**
 gizon + -aren > *gizonaen > **gizonaan**
 anei + -aren > *aneyaen > **aneyaan**
 neska + -arendako > *neskaendako > **neskaandako**
 mutil + -arekin > *mutilaekin > **mutillaakin**
 apeza + -arengana > *apezaengana > **apezaangana**
 oilasko + -ren bat > *olleskoenbat > **olleskoon bat**
 ama + -ren bat > *amaenbat > **amaan bat**
 mendi + -ren bat > *mendienbat > **mendiin bet**
 andre + -ren bat > **andreen bat**
 zaku + -ren bat > *zakuenbat > **zakuun bet**

Asimilazio aurrerakariarekin jarraituz, Hualdek Arbizun egokitzen ditu hurrengo hiru adibideak ere, geroaldiko partizipioa egiterakoan :

esan + -en > *esaen > **esaan**
 eman + -en > *emaen > **emaan**
 fan + -en > *faen > **faan**

Kasu honetan bokalen arteko sudurkariaren erorketak ahalbidetzen du ondorengo asimilazioa. Bilakabide hau ez da gertatzen sistematikoki azterketa esparruko beste herrietan, *fanen*, *emanen*, *esanen* baitira

ohiko formak hauetan. Hala ere, entzun daitezke noiz edo noiz adineko hiztunen artean batez ere:

Nolabaitt eztakin, eztik esaan (Unanu)⁸⁴
Emaan dik alako sustoon bat (Etxarri)
Izaan ttuk nunei bei, olakuek! (Etxarri)

Arbizurekin segituz, NN erako aditz laguntzailearen /d/ kontsonantearen erorketak ere bokal geminatuak sortzen ditu :

hartu duzu > **artuuzu**
 hartu dut > **artuut**
 hartuko dut > **artukoot**
 hartuko duzu > **artukoozu**

Hurrengo bilakabidean ere geminazioa gertatzen da, superlatiboaren morfema, -EN(A), bokalez bukatutako lexemari eransterakoan :

berde + -ena > **berdeena**
 bero + -ena > *beroena > **beroona**
 berri + -ena > *berriena > **berriina**
 alu + -ena > *aluena > **aluuna**
 naranja (kolorea) + -ena > *naranjaena > **naranjaana**

b) Asimilazio atzerakari edo “regresiboa”.

Lehenengo bokala bigarrenera asimilatzen denean.

$V_1 V_2 > V_2 V_2$

Hualde-k ondorengo adibideak jaso ditu Arbizurako :

allegatu > *alleatu > **allaatu**
 egunero > *eguneeo > **egunoo**
 egon > *eoon > **oon**
 haundiago > *aundiyao > **aundiyoo**
 egosi > *eosi > **oosi, yoosi**
 erosi > *eosi > **oosi, yoosi**

‘egunero, egon eta erosi’-ren kasuak ez dira hemen aipatu bezala burutzen gainerako herrietan (ikus 71. eta 72. orriak). Beste kasuetan (*allaatu, aundiyoo*) bai gertatzen da geminazioa. Bestalde, *egosi* aditzaren kasuan ez da /g/ kontsonantea galtzen Etxarri, Ergoiena eta Lakuntzan eta ez dago *erosi* aditzarekin nahasterik.

⁸⁴ A.M. ECHAIDE (El euskara en Navarra: encuestas lingüísticas).

Aipatutako adibideez gain, beste hauek ere jaso ditugu guk :

erazi/arazi > *eazi / **aazi**
 bage > *bae > **bee**⁸⁵
 i(s)tzego⁸⁶ > *itzeo > **itzoo** (igo)
 dago⁸⁷ > *dao > **doo**
 nago > *nao > **noo**
 edo > *eo > **oo**
 derauot > *deauot > *deot > **doot** (diot)
 nerauon > *neauon > *neon > **noon** (nion)
 deraut > *deaut > *deut > **duut** (dit)
 zerauten > *zeauten > *zeuten > **zuuten** (zidan)
 derauo > *deauo > *deo > **doo** (dio)
 zerauon > *zeauon > *zeon > **zoon** (zion)

Eta hauetaz gain, konparaziozko -AGO morfema eransterakoan :

-AGO > *AO > OO

txiki + -ago > *txikiyao > **txikiyoo**
 lagun + -ago > *launao > **launoo**
 bete + -ago > *betiao > **betioo**
 mutu + -ago > *mutubao > **mutuboo**
 alto + -ago > *altuao > **altuoo**
 azkar + -ago > *azkarrao > **azkarroo**
 gora + -ago > *gorao > **goroo**

Ergoienan, hala ere, -ago > -ao > -au da bilakabidea: *geyau*, *txikiyau*, *polittau*, ...

Eta bitxikeriatzat har daitekeen -ago + -ago, hots, bi aldiz jarraian erantsitako morfema konparatzailea, agertzen zaigu *len* (lehen) hitzarekin:

lehen + -ago > *lenao > **lenoo** + ago > *lenuao > **lenuoo**⁸⁸

Badira bestalde zenbait adibide zeinetan bokal luzapena gertatzen baita, baina ez orain arte esandako moduan, baizik eta goiko bokal

⁸⁵ *bai* ematen du Ergoienan.


⁸⁶ Horrela jaso zuen LANDUCCIOk D.L.C.-n (1562): *iscego* (zaldira igo).

⁸⁷ Bigarren pertsona salbuespen moduan agertzen zaigu : '*ago ixilik !*' eta ez **oo ixilik !*.

⁸⁸ Patxi Goenagak esaten dit Azpeitia aldean ere horrela erabiltzen dela.

bat, [i,u], bokal erdia bihurtzerakoan bere pisu unitatea bokal osoari ematen diolako :

lagun > **laun**
 zuri > **zuui**
 erori > **erooi**
 berotu > **biootu**
 afari > **afaai**
 axuri > **axuui**
 gero > **gioo**
 nabil(e) > **naalle**
 habil(e) > **aalle**
 dabil(e) > **daalle**
 heldu da > **elduaa**
 heldu dek/n > **eldueek/n**



Kasu berberaren aurrean aurkitzen gara adlatiboaren morfema singularra /e/, /i/, /o/, /u/ eta kontsonantez bukatutako lexemari eransten zaionean :

mendira > **mendiee**
 zulora > **zuluaa**
 etxera > **etxiaa**
 mundura > **munduee**
 lurrera > **lurriaa**

Eta bilakabide berdina gertatzen da sandhietan BAT eta BATZUK mugatzaile zenbatzaileak /a/, /e/ eta /o/-z bukatutako lexemari eransterakoan. Lehenago esan dugun bezala, oraingoan bokal garai bigarrenkariak bokal erdi bihurtzerakoan sortzen du geminazioa, bokal osoari pasatuz pisu unitatea :

alaba bat > **alabaat**
 etxe bat > **etxiaat**
 zulo bat > **zuluaat**
 alaba batzuk > **alabaatzuk**
 etxe batzuk > **etxiaatzuk**
 zulo batzuk > **zuluaatzuk**

Bokal geminazioarekin bukatu baino lehen aipatu gure azterketa esparruan ohiko bilakabidea dugula eta Goi Nafarrerako beste eremu batzuetara ere hedatzen dela, hala nola Basaburua edota Larraun eta Aezkoa:

“Honainokoa laburbilduz, bokal geminatuen ugaritasuna handiago da Basaburuko eremuan, Ultzamakoan baino” (O.IBARRA, *Ultzamako hizkera*, 1995, 173)

I. Gamindek (1985) jasoak ditu ondorengo aditz formak Larraungo Arruitz eta Baraibarren : *naa(i)lle, aa(i)lle, daa(i)lle*.

Burundan, berriz, Arakamak dioskunez, ez da oso emankorra bilakabide hau eta, orduan, eremu honetako eta Barrankako hizkeren arteko bereizketaren frogatariko bat dugu.

2.1.6. AFERESIA.

Hitz baten hasierako fonema bat, silaba bat edo gehiago erortzeagatik gertatzen den aldaketa fonetikoa dugu aferesia, eta Mitxelenaren⁸⁹ ustez Goi Nafarrerako hainbat partizipiotan behintzat, bigarren silabako azentu dinamikoaren eraginez gertatzen da. Goi Nafarreraren eremu oso zabalean hedatua badago ere aldaketa fonetiko hau, badira gertatzen ez den beste hainbat zonalde, hala nola Imotz eta Basaburua⁹⁰. Burundan ere salbuespen moduan agertzen dela dio Arakama-k eta guk, gure azterketa esparruari dagokionez, ez dagoela gehiegi zabaldua gainera dezakegu, jarraian adibideen arabera ikusi ahal izango dugun moduan :

2.1.6.1. AZTERKETA EREMU OSOAN ZABALDUAK :

Hasierako *-e* eta *-i* -ren erorketak sorturikoak dira, partikula edo aditz formak ditugularik gehien bat :

eta > **ta, da**
 ere > **(d)e**⁹¹
 edo > **ô**
 ijito > **jito**
 ezazu > **zazu**
 ezazue > **zazubie**
 ezak/n > **zak/n**

⁸⁹ MITXELENA, K. (1977, 157) : “Parece que efectivamente pérdida, debido probablemente a un fuerte acento dinámico sobre la segunda sílaba, en zonas alto-navarras (Baztán, y sobre todo, Ultzama) donde hay participios como *karri* ‘traído’, *torri* ‘venido’, ...”

⁹⁰ IBARRA, O., (1995, 136).

⁹¹ Hauxe izango litzateke bere bilakabidea: *ere* > *ede* (*r/d alternantzia*) > *de*.

dezagun > **ziaun**
 ezazkizu > **zazkizu**
 dezala > **zala**
 atoz > **toz**⁹²
 atxikoria > **txikoye**⁹³, **txikore** (Arbizu)

Bereziki aipagarriak dira Nor (plurala)-Nork erako aditz laguntzailearen formak, zeinetan lehen silaba osoa galdu bada ere, silabako bokal itxiaren presentzia, eta eragina batez ere, mantendu baita hortzetako herskari ahoskabea palatalizatuz, hots, sabaikoa bihurtuz :

ditut > **ttut**
 dituk/n > **ttuk/n**
 ditu > **ttu**
 ditugu > **ttuu**
 dituzu > **ttuzu**
 dituzue > **ttuzubie**
 dituzte > **ttubie**

2.1.6.2. HEDAPEN MURRITZAGOKOAK.

Arakileraino jo beharko dugu Goi Nafarreran hain zabalduak diren aditz partizipioen aferesiak aurkitzeko, eta hauen kasuan ere aferesi gabeko formekin alternantzia daudela esan daiteke. Uharte eta Irañetan jaso ditu Arakamak ondoren azaltzen diren lehen lau adibideak :

san (esan)
torri (etorri)
kuskok (ikusiko duk)
kar die (ekarri die)

Guk, bestalde, ondorengoak jaso ditugu:

karri Lakuntzan.
makomia (emakume), Lizarraga⁹⁴
man (eman) Guk *Guaixe* (3, 16 orr.) aldizkarian Lakuntzako kronikatik horrela jaso dugu:
 “*Maten zakiobien arrontziek, dirube, txistorra ... yezin gauze*”.
men (omen) Ergoiena eta Arbizon (Zuazo 95, 312) eta *Guaixe* (2, 16 orr.) aldizkarian ere, Lakuntzako kronikan:

⁹² J.M. IRIBARREN (Vocabulario Navarro, 47).

⁹³ J.M. IRIBARREN (Vocabulario Navarro, 163).

⁹⁴ G. SOLIS (1993, 118).

“*Leen itxe guziten etten men zien, ...*”
gualmente (igualmente), Etxarri⁹⁵

2.1.7. SINKOPA.

Hitz baten barruan fonema bat edo batzuk desagertzen direnean gertatzen den fenomeno da. Bokalak eta silaba tonugabeak erortzen dira gehien bat, beraz azentuak eragina badu sinkoparen burutzapenean. Ez dago oso zabaldua azterketaren esparruan, baina hala ere suertatzen da hainbat testuingurutan. Hauxe da bere formulazioa :

$V C V C V \rightarrow V C C V$

a) Erortzen den bokala dardarkari anitzaren eta herskari baten artean dagoenean.

/i/-z amaituriko aditz partizipioari geroaldiko -KO atzizkia eransterakoan da gehien bat gertatzen den ingurunea :

ibilko < ibiliko
etorko < etorriko
yôsko < erosiko
ikesko < ikasiko
ikusko < ikusiko
egosko < egosiko
ekarko < ekarriko

Bada Etxarrin beste burutzapen laburtu bat, zeinetan partizipioaren bukaerako -i galtzeaz gain, aditzaren erro osoa ia galtzen baita, hortzobietako igurzari ahoskabea sabaikari bihurtzen delarik:

ixkek < **iskek* < **ikskek* < **ikuskek* < *ikuskek* < *ikusko dek* (ikusiko duk)
ixkezu < **iskezu* < **ikskezu* < **ikuskezu* < *ikuskezu* < *ikusko dezu* (ikusiko duzu)

Hala ere, ez da aditz partizipioaren inguruan soilik gertatzen, hurrengo bi adibideetan ikus daitekeenez :

txertxei < txerrizai(n)
erleju < erreloju

⁹⁵ Aferesi hau asko erabiltzen zen duela urte batzuk Etxarrin, gauean, ohera joaterakoan gau onak opa zituenari erantzuteko:

“- *Gaubon pasa!*
- *Gualmente!*”.

b) Erortzen den bokala herskari eta dardarkari xamurraren artean dagoenean.

Badira bizpahiru adibide esparru osoan zabalduak, eta horietako zenbait gaztelaniako maileguak ditugu, eta jatorrian ere sinkopadunak:

andre < andere

bedratzi < bederatzi

sobrê < sobera, **sobrai** Lizarragan.

sobran < soberan

librû < liburu Arbizu, Arruazu eta Lizarragan ere entzun daiteke aldaera hau.

atra < atera, jaso du Arakama-k (L.A.) Arruazu, Uhartre eta Irañetan. Bestalde, *Guaixe* (5, 12) aldizkarian ere agertzen zaigu, Arruazuko kronikan:

“Oin atra dien zinegotzien artien alkatia nor izenko den aukeratu berra dokite”.

Eta Arruazuko transkribaketan ere, horrela jaso dugu:

“..., ta aik atratzen zien garayen, ...”

c) Beste inguruak.

pezta < pezeta. Txistukaria eta herskariaren arteko bokalaren galera.

gerna, garna < garrena. Dardarkari azkarra eta sudurkariaren artekoa. (Ikus 122. orria). Uharteko dotrinan maiz agertzen da:
vigarna, irugarna, ...

barnen < barrenean. Aurrekoa bezala.

zir-mur < zurru-murru. Aurrekoa bezala.

kalma < gaztelerako ‘calima’. Albokaria eta sudurkariaren artekoa.

eskuturre⁹⁶ < eskumuturra. Silaba osoa sinkopatzen da eta esparru osoan gertatzen da. Arbizun ez da sinkopatzen.

lendazi < lehendabizi. Etxarrin gertatzen da hizketa arinean, eta Uharteko dotrinan ere aurkitu dugu horrelakorik:
lendaiscua (BOE, 604).

amerjiñe < amabirjiña. Etxarrikoa dugu aldaera hau ere. Aurrekoan bezala, ezpainetako herskari ahostuna eta berarekin doan bokala sinkopatzen dira. Bestalde, asimilazio aurrerakari zein atzerakaria

⁹⁶ A.M. ECHAIDE (*El euskara en Navarra: encuestas lingüísticas*).

ditugu. Arbizun eta Lizarragan ez da asimilaziorik gertatzen: *amarjiña*.

Sansastiñek < San Sebastianak, Lakuntzako jaiei horrela esaten zaie.

botzen < botatzen. Arruazun jaso dugu eta transkribaketan horrelaxe ageri zaigu:

“Aik nonbratzen giñittuen bi, suertia botzen ittuen bi mutillok, ...”

Hauekin guztiarekin batera, aditza jokatzerakoan⁹⁷ partizipioetan gertatzen den sinkopa ere aipagarria da (**etor da** ‘etorri da’, **ibil neiz** ‘ibili naiz’, **yôsdiaiu** ‘erosi dugu’, ...), baina polikiago aztertuko dugu aditzaren morfologia atalean.

2.1.8. APOKOPEA.

Hitzaren bukaerako fonemaren galera gertatutakoan suertatzen den fenomenoari esaten zaio. Ia esparru osoan ezaguna den testuingurua, /i/-z bukatutako aditz partizipioen kasua da, lehentxeago esan dugun moduan.

Bada beste kasu bat, zeinetan /a/ organiko edo berezkoa duten hitzek galtzen baitute, eta gehienbat *-keria* atzizkidun burutzapenetan eta zenbait mailegu nahiko zaharretan ikus daiteke egun oraindik joera hau:

eliz
gauz
feri
txemeni
fameli
anei
astakei
alukei
tontakei

2.1.9. METATESIA.

Fonema batzuk kate mintzatuaren barruan lekuz aldatzen direnean suertatzen den fenomenoari esaten zaio eta badirudi⁹⁸ ebakera eta entzumena errazteko

⁹⁷ Iñaki CAMINOK aezkera aztertzerakoan honela dio orri azpiko ohar txo baten bidez : “Kasu honetan sinkoparen hedadura mendebaldera zabaltzen da. Etxarri-Aranazko kantu batean *etor gera* ageri zaigu (Satr. 1971, 46); ... “ (1997, 304)

⁹⁸ Horrela aipatzen du L. OÑEDERRAK (1986, 328) W. DRESSLER-en aipamena jasoaz.

gertatzen dela bilakabide hau . Gure azterketaren esparruan hurrengo kasuak jaso ditugu :

bê < bage⁹⁹ (gabe)
uberaga¹⁰⁰ < igaraba
izerai/ize/ixein/ixiin < irazegi
urai / uittu (Lakuntza) / **udi(g)i** (Arruazu) < edugi (Ikus lan honetako 29 orria, diptongoen atalean, [ei] → [ai] bilakaera).
txemeni < chimenea
mokuru < cumulum (kopuru), **mukuru** Arruazun.
luzinddu¹⁰¹ < lizundu
kaprestu < cabestro
kijerika < jikara (kikara)
kimeñe < kemiñe¹⁰²
manzeliñe < manzanilla
galtzarrotxa < galtzorrata
diduri¹⁰³ < dirudi
estarbi < estrabi¹⁰⁴, azken burutzapena Arruazun jaso dugu, metatesirik gertatu gabe.
petxatu < petatxo (Unanu)
austontzi < autsontzi (Etxarri)
tresonatu¹⁰⁵ < desondratu (iseka egin) (Etxarri)

Gregoria Solis-ek Lizarragan ondorengo kasua jasotzen du :

azazkal < azkazal¹⁰⁶

⁹⁹ Hau izango litzateke bere bilkabidea : **bage** > (bokalarteko herskariaren galera) **bae** > ($V_1 V_2 > V_2 V_2$) **bee** > ($V_2 V_2 > V_2$) **be**.

¹⁰⁰ MITXELENA, K. (1977, 75): “Con *uger / igeri y ugaraxo / igel* se puede comparar el nombre de la ‘nutria’: vizc. *uagara*, Pouv. *Udagara, uhadera*, lab. vizc. *ugadera*, sul. (Gèze) *ügadera y ügañ*, aezc. sal. *uragre*, pero guip. *igabera* (a.-nav. Leiza *iyabera*), a.-nav. *igaraba*, vizc. *igarabi, igarabire*, etc.

¹⁰¹ Mitxelenak ere *luzindu* jasotzen du Arruazun (1977, 483), gipuzkera dela bertako hizkera gehituz.

¹⁰² *Kimeñe* hitzak janari keztatuen zaporea adierazten du eta horrela azaltzen du Mitxelenak (OEH, 540): “*kemin*: 1. (Vc, G), amargor que deja el humo a alimentos curados. A. *khemín* (L), goût de fougée. Lh.2.. (Adj.), saur, sauret, fumé. Lh.”

¹⁰³ Etxarrin jokotan zeini egokitzen zaion besteak harrapatzea edo bilatzea erabakitzeke erabiltzen den kontaketa sisteman horrela agertzen da: “*Bat / bi / iru / lau / sagu / zarrak / jan al / au / zapa/teriko / alka/te / Maria / Maria / pena/te / ez diduri / ba diduri / konpor/tako / ipur / txuri*”.

¹⁰⁴ K. MITXELENA (OEH, 452): ‘estrabi (AN-ilzarb-olza ap. Bon-Ond 151; H) (...) Establo’.

¹⁰⁵ Hasierako herskari hortzetakoa ahoskabe bihurtu ondorengo metatesia izango genuke, seguru asko: *desondratu* > *tesondratu* > *tresonatu*.

¹⁰⁶ Etxarrin *azkazkal* da hitza, *atz* + *kaskal* -etik sortua seguruaski. Kaskala azala baino gogor eta sendoagoa, *oskola*, da.

Bestalde, toponimian ere suertatzen dira metatesi kasuak, Etxarrikoan behintzat hala ikus daiteke hurrengo adibideetan :

basokopale < basopokale. Bi eratara erabiltzen dute etxarriarrek toponimo hau : *basokopale* eta *basopokale*. Horrela dago komentatua “*Nafarroako Mapagintza eta Toponimia, XII*” (Nafarroako Gobernua) liburuan : “*Pokal/bokal* aparece frecuentemente en la toponimia navarra, y significa ‘entrada’ : cf. *Ezteanpokal* y *Oianandipokal* en Irañeta, *Moreapokal* en Larraia de Zizur, *Oianbokal* en Belzuntze, donde se trata de un pequeño entrante de la zona boscosa en la zona de cultivo, con un portillo para el paso del ganado, es decir, la entrada del bosque. En el vascuence de Ergoiena y Etxarri Aranatz sigue vivo como apelativo con el valor de ‘entrada’, no sólo en toponimia, sino también para designar la entrada, por ejemplo, de la casa. Lizarraga de Elcano en sus escritos usa *atepokale* para ‘umbral’, aunque la traducción es dudosa”.

malkarramendi < markalamendi. Gaur egun, toponimo hau horrela erabiltzen da, *malkarramendi*, eta horrela dago dokumentatua 1691, 1699, 1701 eta urte gehiagotan ere (ikusirik aurreko oharrean aipatutako liburua). Hala ere, Rafael Carasatorrek helerazi zidan Nafarroako Artxibategi Orokorreko dokumentu baten fotokopian horrela agertzen da toponimoa, beste batzuen artean. Dokumentua 1620ko Martxoaren 30ekoa da eta, bertan, Arbizuko Abadea zen Don Garcia Zubeldia-ren deklarazio bat agertzen da, abadeari egiten zaizkion galdera eta erantzunaz gain, pertsonaia honen trebetasunak ere aipatzen direlarik :

“(...) tiene muy entera noticia de todos los terminos del dicho valle (Arañaz) y en particular de los que estan del rio caudal que pasa por ellos para esta villa y estella porque ynterpoladamente a andado por todos ellos asi acaca como a otras ocasiones y tiene tambien mucha noticia de los nombres de los dichos terminos (...)”. Jarraian dermio izenak aipatzen ditu : “*(...) nombres que llegan a ser demas de ciento (...)”*, eta horien artean **markalamendia** eta **cumaurdineta** (ikusirik lan honetako 71. orriko 22. oharra) aipatzen ditu.

2.1.10. BOKAL ERANSKETAK.

Hiru motatako bokal eransketak jaso ditugu, hots, hitzaren hasieran zein tartean nola bukaeran suertatutako bokal eransketak :

a) BOKAL EPENTESIAK.

Hitz edo hitz-talde batean etimologikoa ez den fonema bokaliko bat tartekatzen denean gertatutako fenomenoari esaten zaio.

Unanun jaso ditugu kasurik nabari edo argienak:

esene¹⁰⁷, **esinia**¹⁰⁸ < esne (Ergoiena)
asenei < (h)atz + nahia, hazkura (Unanu)

Bada beste kasu bat, Etxarrin eta Arbizun entzun daitekeena, hizkera arinekoa, eta horretan /i/-ren epentesia gertatzen da :

laixter < laster

b) BOKAL PROTETIKOAK.

Hitz hasieran bokal bat eransten denean gertatzen da. Ia kasu guztiak maileguak ditugu, eta /r̄/ dardarkari azkarra dute hasieran :

arrama < rama
arrasto < rastro (raya)
arraza < raza
arrazoi < razón
arraziyo < ración
arratoi < ratón (rata)
arropa < ropa
erromei < romería
erremeyo < remedio
errespeto < respeto
errenta < renta
errezatu < rezar
erleju < reloj
errosayo < rosario
errueda < rueda

Salbuespenak ere badira : **radiyue**, **ratuat** (rato bat), **rebajetaa** (rebajatar), **rekexona**, **responsue**... Baina ikus daitekeenez mailegu berriagoak ditugu hauek.

¹⁰⁷ MITXELENA, K. (1977, 163): “Por otra parte, en Navarra se ha registrado la variante *esene* (Azpiroz, Huici, Urdiain, Bacaicoa, Iturmendi, vid. Euskera 9(1928), 111) (...) y el a.-nav. *esene* sería una variante tardía con vocal epentética más bien que el resultado de una acción disimilatoria en **esnene* o de la reducción de *-nd-* a *-n-* en el estadio **esende*”.

¹⁰⁸ A.M. ECHAIDE (*El euskara en Navarra: encuestas lingüísticas*. 120).

Bokal protetikoen kasuan ere sar ditzakegu mailegatu berri ditugun hainbat anglizismo : **eski, estop, estres, espriñ, ...**

i, i - a, a	i, i - u, u	a, a - a, a	i, i - i, i	o / o
zizi-maza	ttilin-bulun	mara-mara	xiri-miri	bor-bor
tipi-tapa	zir(ri)-mur(ru)	barra-barra	firi-firi	bol-bol
tiki-taka		tapa-tapa	bixi-bixi	
tirri-tarra	i, i, i - a, a, a	danba-danba	mixki-mixki	i / i
zipli-zapla	tikili-takala	taka-taka		gir-gir
plisti-plasta	ijili-ajala		u - i / u - i	
dinbi-danba	ñibirri-ñabarra	u - a / u - a	fuki-fuki	u / u
ñiki-ñaka		furra-furra (lo		ttur-ttur
firi-fara	u - u - u			
birri-barra	pur-pur-pur (barrez)			
zirri-zarra				
zingi-zanga	o - o - o			
firri-farra	kor-kor-kor (barrez) (Unanu)			
zirri-marra				

c) PARAGOGEA.

(Ikus 121. orrian -DAD (-TAD) atzizkidun maileguetako asimilazio bilakaera, zeinetan /-e/-ren paragoea gertatzen baita.

2.1.11. BOKAL ERREPIKAPENA.

Bokal errepikapena oso ohikoa dugu azterketa esparruko herri gehienetan, hitz onomatopeikoak ditugularik ia guztiak :

2.2. KONTSONANTISMOA.

Hizkuntzalaritza hiztegien arabera, kontsonantea ahots bideko puntu bat edo gehiagotan eragozpen osoa edo partziala aurkitzen duen soinua da. Haizea igarotzerakoan, eragozpen horrek zarata bat sortarazten du eta horixe da, hain zuzen, kontsonantea edo, gutxienez, kontsonantearen elementu bat. Eta kontuan izaten badugu zeren ondorio den zarata, kontsonante desberdinen aurrean aurkituko gara. Horrela, bokal bat ebaki ondorengo ahots-bidearen itxiera edo estutzea gertatzen bada, kontsonante leherkari batekin egingo dugu topo; eta bokal bat ebaki aurreko ahots-bidearen irekidura gertatzen bada, aldiz, kontsonante inplosibo baten aurrean izango gara.

Kontsonantea, bera bakarrik, ondoko bokal baten beharrik gabe, normalean, ez da ongi nabaritzen.

Artikulazio fonetikan, bestalde, kontsonante-mota desberdinak bereizten dira artikulatzeko moduaren eta artikulagunearen arabera. Euskaltzaindiaren arabera 24 kontsonante ditu euskarak eta guk, gure azterketa esparruan beste hainbeste erabiltzen direla aitortzen dugu, ez berberak hala ere, ezen euskara batuaren kontsonanteen arteko bat, /h/ zintzurko igurzkari autonomoa, ez dugu kontuan izango erabiltzen ez delako, baina, burutzapen bakarrean ageri bada ere, berri bat kontuan izateko proposatzen dugularik: /ds/ hortzobietako afrikatu ahostuna (*udse*¹⁰⁹, ‘ura’).

Bestalde, nolabaiteko nahasketa sor dezake /y/ sabaiko ahostunak, igurzkaria ala herskaria den erabakitzerakoan (*mendiye*, ‘mendia’; *gildde*, ‘ginda’), ez baitira inola ere desberdintzen ahoskeran. Hala ere, gure ustean, lehen

¹⁰⁹ MITXELENA, K. (1977, 556): “Azkue recoge *uds* ‘agua’ como guip. de Echarri Aranaz, en composición *us-tinta* ‘un poco de agua’, con la indicación: <este sonido se oye poco fuera del S[uletino]>. Dentro de los hábitos de notación de Azkue, *ds* indica una sibilante sonora, apical, probablemente africada. En alguna localidad del Goyerri guipuzcoano, la forma determinada suena para mí *udda*, con *dd* claramente oclusiva. Hay, pues, ciertos lugares, acaso un área continua cuya extensión habría que determinar mejor, donde la consonante final de *ur* ‘agua’ no se ha confundido con la *ur* ‘avellana’, y esto muy lejos de la zona roncalesa”.

Esan bezala ez da Sakana erdialdeko hizkeretan ia-ia ‘ur’ hitza erabiltzen, *uts* edo *uds* baizik. Baina, hala ere, horietako zenbait herritan, Etxarrikoa kasu, toponimian bai agertzen da: *urbijotzendenzui* (ur+bi+jotzen+duen+zubi).

adibidearen kasuan, hots, kontsonante epentetikoa denean, argi dago igurzkaria dugula kontsonante sabaiko ahostun hau; eta bestean, berriz, jatorrian duen sabaikaturiko kontsonantearen parekoa, hau da, herskaria.

Hau kontuan izanik, **I. Koadro**-an ikus daitekeen moduan geratuko litzateke azterketa esparruko kontsonanteen taula:

I koadroa

ARTIKULAGUNEA

	Ezpainetakoa		Ezpainhortzetakoa		Hortzetakoa		Hortzobietakoa		Bizkarhobietakoa		Sab aiko a	Belarea			
	ahoskabe	ahostun	ahoskabe	ahostun	ahoskabe	ahostun	ahoskabe	ahostun	ahoskabe	ahostun		ahoskabe	ahostun	ahoskabe	ahostun
A	Herskaria	/p/	/b/			/t/	/d/					/tt/	(/dd/)	/k/	/g/
R		[p]	[b]			[t]	[d]						[tʰ]	([dʰ])	[k]
T	Sudurkaria		/m/					/n/				/ñ/			
I			[m]					[n]				[ɲ]			
K	Igurzkari auton.			/f/								(/y/)	/j/		
U				[f]								([j])	[x]		
L	Txis. Igurzkaria							/s/	/z/	/x/					
A								[s̺]	[s]	[x̺]					
Z	Txis. Afrikatua							/ts/	/ds/	/tz/	/tx/				
I M								[t̺s̺]	[d̺s̺]	[t̺ç]	[t̺x̺]				
O O	Albokaria							/l/				/ll/			
D								[l]				[ll̺]			
U	Dardarkari xamu.							/r/							
A								[r]							
	Dardarkari azkar.							/rr/							
								[r̺r̺]							

Eta Espainiar Filologi Alfabetoaren arabera, honela deskriba ditzakegu 25 fonema kontsonantiko hauek :

1. /p/, ezpainetako herskari ahoskabea : **zapo, lapur, lapa, ...**
2. /b/, ezpainetako herskari ahostuna : **zabor, labore, labe, ...**
3. /t/, hortzetako herskari ahoskabea : **loti, bota, ...**
4. /d/, hortzetako herskari ahostuna : **lodi, boda, ...**
5. /t̪/, sabaiko herskari ahoskabea : **pattar, ttutte, ontto, ...**
6. (/d̪/, sabaiko herskari ahostuna : **gildde, Maddalen, ddal-ddal, ...)**
7. /k/, belare herskari ahoskabea : **aker, oker, kalte, ...**
8. /g/, belare herskari ahostuna : **ager(tu), ogei, galde, ...**
9. /m/, ezpainetako sudurkari ahostuna : **ama, eme, goma, ...**
10. /n/, hortzobietako sudurkari ahostuna : **Ana, ene, gona, ...**
11. /ɲ/, sabaiko sudurkari ahostuna : **añue, eñe, ñoño, ...**
12. /f/, ezpainhortetako igurzkari ahoskabea : **afaldu, feriyе, festa, ...**
13. /x/, belare igurzkari ahoskabea : **jabe, jaun, jator, ...**
14. /s̺/, hortzobietako igurzkari ahoskabea : **su(be), asi, esi, ...**
15. /s/, bizkarhobietako igurzkari ahoskabea : **zu, azi, ezi, ...**
16. /ʃ/, sabaiko igurzkari ahoskabea : **pixe, paxo, axuñe, ...**
17. (/j/, sabaiko igurzkari ahostuna : **yaman, yakusi, yon, mendiye, ...)**
18. /t͡ʃ/, hortzobietako afrikatu ahostuna : **uds(e)**
19. /t͡s/, hortzobietako afrikatu ahoskabea : **isets, ots, uts, itsesi, ...**
20. /c/, bizkarhobietako afrikatu ahoskabea : **iketz, itz, otz, ...**
21. /t͡ʃ/, sabaiko afrikatu ahoskabea : **etxe, itxi, kutxe, ...**
22. /l/, hortzobietako albokari ahostuna : **lo, langa, leka, ...**
23. /ʎ/, sabaiko albokari ahostuna : **pille, mille, selle, ...**
24. /r/, hortzobietako dardarkari ahostun xamurra : **pare, soro, bero, ...**
25. /r̺/, hortzobietako dardarkari ahostun azkarra : **farra, borro, berro, ...**

Hemendik aurrera, sei taldetan aztertuko ditugu kontsonanteak azterketa esparruko herrietan : **hetskari ahokariak eta sudurkariak, igurzkari autonomoak, txistukariak** (igurzkari zein afrikatuak), **albokariak eta dardarkariak**.

2.2.1. HERSKARI AHOKARIAK.

2.2.1.1. DESKRIBAPENA.

Atal honetan ezpainenako, hortzetako, sabaiko eta belare herskari ahostunak zein ahoskabeak aztertuko ditugu. Herskari ahokariak beraz, hau da, /p/-/t/-/t̄/-/k/-/b/-/d/- /d̄/ eta /g/ kontsonanteak. Kontsonante hauek burutzerakoan, aho gangailak ez du sudurretara airerik pasatzen uzten, eta ahoan suertatzen den aire pasak hersketa bat jasaten du, eta hersketa hori lortzeko erabiltzen den organoaren arabera edo, beste modu batean esanda, bere artikulagunearen arabera mota batekoak zein bestekoak izan daitezke : ezpainenakoak (ezpainen egiten dute hersketa) /p/ eta /b/, hortzetakoak (mihipunta hortzen kontra jarriz) /t/ eta /d/, sabaikoak (mihilepoa sabaiaren kontra) /t̄/ eta /d̄/ eta belareak (mihilepoa sabai atzekaldearen kontra) /k/ eta /g/.

Bestalde, bokalaratean edo dardarkari azkarraren ondoren doazenean, herskari ahostunen balio fonetikoak aldatu egiten da, igurzari bihurtzen direlarik :

/b/ → [bʰ] **abiastu** [abʰjastu], **norbeitt** [norbʰeit], **Arbizu, Arbazu, ...**
 /d/ → [dʰ] **lodi** [lodʰi], **ardi** [ardʰi], ...
 /d̄/ → [y] **Maddi** [mayi]
 /g/ → [g̃] **ago** [aɡ̃o], **sorgiñ** [sorɡ̃in], ...

Gure aldetik, hasteko, bere distribuzioa kontuan hartuz aztertuko ditugu kontsonante herskariak, arreta berezia eskainiz ahoskabe eta ahostunen arteko txandaketa edo nahasketari. Azken hau kontuan harturik, ezin daiteke esan era homogenoan burutzen direnik azterketa esparruko herrietan. Are gehiago esan daiteke, zenbait kasutan, herri bakoitzean ere, gor eta ahostunen arteko txandaketa nagusi dela. Horrela beraz, lau herskari motak aztertuko ditugu, lehenik bere distribuzioari erreparatuz, eta ondoren gainerako gertaerak aipatuz.

2.2.1.2. FONEMA HERSKARIEN BURUTZAPENAK.

Fonema herskari guztiak bai hasiera nola erdiko posizioan erruz agertzen dira azterketako herri guztietan, baina ezin da gauza bera esan bukaerako posizioari dagokionez, gor edo ahoskabeak baitira normalean agertzen direnak. Bestalde, ezpainenako ahoskabea bera ere oso gutxitan agertzen da ((i)eup!). Baina guzti hau geroxeago aztertuko dugu txandaketekin batera. Orain ikus dezagun nola gauzatzen diren aipatu posizioetan kontsonante herskariak:

- **Hitz hasieran.**

pertza, pixe, pille, parranda, ...
belar, bele, beste, bost, bide, ...
tema, talo, tontor, telletu, ...
Dorrao, diru, denbora, danbor, ...
kalte, kale, kate, kozkor, kaittu, ...
gorri, gori, guri-guriye, gio (gero), ...
ttutte (zahatoaren itxiera), ttuttulu (simple)
ddal-ddal (dal-dal hitzaren hipokoristikoa)

Belare ahostunaren kasuan aipatu behar ditugu hiruzpalau hitz, zeinetan /h/ fonema zintzurkoaren galeraren ondoren, diptongazioarekin batera, aipatu belarea ageri den hitz hasieran. Eta hauekin batera, erakuslearen kasuan, behin bakarrik bada ere, gertatzen da zintzurkoaren belarizazioa, aezkeran gertatzen denaren antzera¹¹⁰:

gua < ohe
guatze < ohatze
guartu < ohartu
guai < orain < ohain, oin Arruazun.
goneskios < honez gero

- **Hitz erdian.**

lepo, txipe, lapa, kapaxta, lapur, ...
labe, ebai (ebaki), osaba, izeba, zabor, ...
jota, jito, lotu, estutu, zato (zahato), ...
mendi, lodi, madi (maravedi), geldi, ...
sokor, makur, bakar, aker, makil, bikor ...
sega, begeinddu (bakandu, banatu), fago, nagi, begi, suge, ...
pattar, pattal, Botton¹¹¹, potto (zaldikume, barrabila), motto (ile motoa), ...
Maddalen, Maddi¹¹²

Eta hitz hasierakoen kasuan erakusleekin gertatzen zen bezala, oraingoan ere badira adibide pare bat gutxienez, zeinetan zintzurkoaren belarizapena ikusten baita:

¹¹⁰ I. CAMINO (1977, 475).

¹¹¹ Etxarriko izengoitia dugu hauxe, *boton*-aren hipokoristikoa, pertsona txikia dela adierazteko.

¹¹² Hauxe ere izengoitia dugu, Etxarrikoa, *Mari*-ren hipokoristikoa, eta r/d alternantzia izan duena.

ago < aho
agotza < ahotza

- **Hitz bukaeran.**

(i)eup
bat, det, bost, dakat, dakit, ...
nik, ik, arrek, nok, dek, dakik, ...
pott

a) u bokalak eragindako /b/ epentetikoa:

/u/ bokalaz bukatzen diren lexemei mugatzailea eransterakoan eta baita erakusleekin sortutako sandhietan ere, azterketa esparru osoan herskari ahostun ezpainetakoaren epentesia suertatzen da, normalean igurzkari bezala ahoskatzen delarik:

katube, -a; mundube, -a; katubure, -a; mundubontan; lekubartan ...

Hala ere A.M. Echaidek (EI, 1989) herskari moduan trankribatu zuen Arbizu eta Lakuntzan eta J.M. Arakamak (*Sakanako euskara*, lan argitaragabea) horrela jasotzen du:

“/b/ herskari ahostun ezpainkaria bokalen artean [β] igurzkari gisa ahoskatu ohi da euskaraz (gaztelaniaz bezalaxe, besteak beste). Halarik ere (...), Arbizu eta Lakuntzako mintzairetan [b] herskaria ebakiko da maiz /u/-ren ondorengo epentesia gauzatzean, kasurako: (lišube, lišubauće, lišibondue, érlejube, txube, čube, inférnube, krištaube, estube) Lak. ... Ech., 1989. Ez da, dena den, erabateko joera, usu [β] frikaria baitugu: [agostuβe, neguβe, gauβaldia, ...” (Arakama, L.A., 69).

b) Hitz hasieran gertatzen diren txandaketak :

Belareak : /k/ eta /g/.

Egoera nahasia erakusten dute :

keñu / geñu : (Satr),	/Etx, Arb,
korputz / gorputz : Lak, Un, Liz, Arb,	/Etx, Do, Arr, Uh, Ira
kirten / girten : Un, Uh, Lak,	/Etx, Arb,
kider / gider : Liz, Un, Lak, Arr, Ira,	/Etx, Do, Arb,

kendu / gendu ¹¹³ : Lak, Ira, Arb,	/Etx, Do,
kartzela / gartzela :	/Etx, Arb, Liz,
koosti / goosti : Etx, Liz, Do, Arb,	/Arr, Uh, Ira,
kostatu / gostatu :	/Etx, Arb, Liz
karreyo / garrayo : Etx, Arb, Liz	/
kartola / gurtola : Etx, Arb ¹¹⁴ ,	/Etx, Liz
konpaaaziyo / gonbaaziyo : Etx, Arb, Liz	/
kanbiyo / ganbiyo : Liz	/Etx, Arb,
konbietu / gonbietu :	/Etx, Arb, Liz
kolko / golko : Etx, Arb, Liz	/
karraxi / garraxi :	/Etx, Arb, Liz
kise(n) / gisa : Etx, Arb, Liz	/
koñatu / goñedo :	/Etx, Arb, Liz
kalbayo / galbayo : Etx, Arb, Liz	/
kaldor / gallur: Etx, Arb, Liz	/
kolpe / golpe :	/Etx, Arb, Liz, Uh,
kitarra / gitarra :	/Etx, Arb, Liz

Bestalde, aspaldiko mailegu bat bada, zeinetan ahoskabearen aldeko neutralizazioa jazo den:

*kisu*¹¹⁵ (lat. Gypsum)

Ezpainetakoak : /p/ eta /b/.

Hauek ere egoera nahasia erakusten dute, nahiz eta herri guztietan gauza bera gertatzen diren kasuak agertu :

piztu / biztu : Etx, Liz, Do, Ira, Arb,	/
pertza : herri guztietan.	
barkatu : herri guztietan.	
pekatu / bekatu : Un, Arr, Uh ¹¹⁶ , Ira, Arb,	/Etx, Liz

¹¹³ Etxarrin, *gendu*-rekin batera, *jendu* ere entzun daiteke. Bestalde, *gendu* Erronkarin eta Zaraitzun erabiltzen da. Arbizun ere *jendu* erabiltzen da. Eta ARAKAMAK ere *gendu/jendu* aldaerak jaso ditu Uhartan (1994, 575, 17 oharra).

¹¹⁴ 'karrola' da Arbizun.

¹¹⁵ MITXELENA, K. (1977, 240): Gavel aipatzen digu Mitxelena-k ozenkuntza bilakabide erregularra dela esanez, baina salbuespenak ere badirenez, azalpenak ematen ditu eta guk hemen seigarrena jasoko dugu, hots, hitz honi dagokiona: "(...) 6) aun cuando el modelo tuviera una sonora inicial, (...) ha determinado la aparición de una forma con sorda inicial no etimológica (...), a.-nav. b.-nav lab. *k(h)isu* 'cal, yeso', etc."

¹¹⁶ Uharteko dotrina (Arakama 1994, 575)

pizkorra / bizkorra : Etx,	/Etx, Arb,
piper / biper : Etx, Arb,	/
pake / bake ¹¹⁷ : Arr,	/Etx, Uh
pike / bike : Etx, Arb, Lak, Erg	/
poltsiko / boltsiko: Etx, Arb,	/
bikor: herri guztietan	

Hortzetakoak, /t/ eta /d/, eta sabaikoak, /t_ / eta /d_ /.

Joera homogenoagoa erakusten dute herri gehienetako burutzapenek. Hala ere ez dira hainbeste jaso ditugun adibideak :

ttittere / ditare : Etx., Arb, Arr,	/
titi / diti : Etx, Arb,	/
torre / dorre : Arb,	/Etx, Liz (<i>ezkildurrie</i>)
tenpora / denbora :	/Etx, Arb, Liz
Tiburzio / Diburzio :	/Etx, Arb, Liz
termino / dermiyo :	/Etx, Arb, Liz
tanborra / danborra :	/Etx, Arb, Liz, Arr,
tarratulu / darratulu : Etx, Arb, Liz	/
Torrano / Dorrao :	/Etx, Arb, Liz

Esparruko herri guztietan dago zabaldua sabaikoen erabilera, ez ordea Burundako herrietan, batez ere lehen kasuko burutzapenetan :

+ Herskari aurreko /i/ bokalaren eraginez gertatutako bustidura : **t** → **tt** / **i** _
 jaso ditugun kasuen artean aferesiari esker gertatutakoak ditugu batzuk, Nor (plurala)-Nork erako aditz laguntzailearen formak, zeinetan lehen silaba osoa galdu baita, baina silaba horretako /i/ bokalaren eragina, palatalizazio edo bustidura, mantendu da :

ttut (ditut)
 ttuzu (dituzu) (ikus 74. orria)

Bestela ere asko dira adibideak eta bilakabide arruntena hauetan ere ondorengoa da **t** → **tt** / **i** _**V**:

- -itu -z bukatutako partizipioak, maileguak barne direlarik:

muittu
erdittu
bizittu
aundittu

¹¹⁷ Arbizon eta Ergoienan *fake*.

ongarrittu
argittu
dezidittu
kubrittü
unittu

- Bestelakoak:

beitten (baitan)
ttitte
pintterdi
ttittere
itto
goitti
zittuben

+ Hortzetakoak sabaiko egiteko joera. Hitz hipokoristikoak, hots, maitasuna adierazten dutenak, sortzeko joera, horietako batzuk haurrekin bereziki erabiltzen direnak :

<i>ttopor</i> (topor)	<i>ttattar</i>
<i>ttuttuketu</i>	<i>pattar</i>
<i>ttuttulu</i>	<i>pattal</i>
<i>ttotto</i>	<i>ttiki</i>
<i>ttente</i> (tente)	<i>ttur-ttur</i>
<i>ttinte</i> (tanta)	<i>ttilin-bulun</i>
<i>ddal-ddal</i> (dal-dal)	<i>Tteles</i> (Telesfora izen nagusiaren txikigarria)
<i>Ttarde</i> ¹¹⁸	<i>Montte</i> ¹¹⁹

Orain arte ikusitakoaz, beste ondorio bat atera daiteke, zeinen arabera hitz batean ahoskatzen diren bi herskari, artikulazio puntua berdina baldin badute, hau da, herskari mota berdinekoak badira (belareak, ezpainetakoak, ...) eta bigarrena, hitz tartean doana, gorra edo ahoskabea bada, hasierakoa ere ahoskabea izango da :


ttittere (ditare) : Etx, Arb, Liz, Arr,
piper (biper) : Etx, Arb, Liz
titi (diti) : Etx, Arb, Liz
pipi (bipi) : Etx, Arb, Liz
kolko (golko) : Etx, Arb, Liz

c) Hitz erdian gertatzen diren txandaketak :

¹¹⁸ Etxarriko etxe baten izena.

¹¹⁹ Etxarriko etxe baten izena.

/n/ eta /l/ kontsonanteen ondorengo herskari ahostun/ahoskabe-en arteko txandaketa edo alternantzia suertatzen da, eta Euskal Herriko toki gehienetan ozen edo ahostunen aldeko neutralizazioa gertatzen da. Horrela azaltzen ditu Txillardegik bere lanean neutralizazio nagusien erregelak:



Hauxe da beraz, joera nagusia baina ez da kasu guztietan betetzen eta badira salbuespenak. Eta gure azterketa esparruan neutralizazioa gor edo ahoskabeen alde gertatzen da, oso maiztasun handiz ez bada ere :

Belareak : /k/, /g/.

+ Txandaketekin hasi baino lehen, azterketa esparruko hizkera guztietan (lehen burutzapenaren kasuan, behintzat) gertatzen den bilakaera gogoratuko dugu, bokal desberdinen arteko /h/-ren galera eta /g/-ren agerpena¹²⁰:

ago < aho
gones kios < honez gero

+ Aditzen geroaldia¹²¹ gauzatzeko edo lekuzko genitiboaren -KO / -GO morfemen arteko alternantzia. Aditzaren aspektoaren kasuan ahoskabea erabiltzen da esparru osoan, eta ahostuna, berriz, deklinabideko morfemari dagokionez:

Irungo, Madrilgo, ... baina ilko, emanko, fanko, esanko, janko, izenko, ...

+ -GURA eratorpeneko atzizkiaren inguruan gertatzen den alternantzia :

pixekurre / pixegura : Etx, Arb,	/Ergoiena (<i>pixegorriye</i>)
kakakurre / kakagura : Etx, Arb,	/Ergoiena (<i>kakagorriye</i>)
azkure / azgura : Etx, Arb, Liz	/

¹²⁰ Horrela jaso dute *Euskal Dialektologiaren Hastapenak* liburuan (176): “Bokal desberdinen arteko /h/, ipar-nafarreran, Añuñamendiko beste hizkeretan bezala /g/ ematen du: *bigar, egizi, agua, etab.*”

¹²¹ F. ONDARRA-k ere (Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Oltza y Goñi ; FLV 39, 161) horrelako adibideak jasotzen ditu : “*emanko, joanko, janko*”.

+ Ezezko partikulari txistukariak jarraitzen dionean, eta baita BAIT partikularen ondoren datozen aditz formen kasuan ere ahostunaren alde neutralizatzen da esparru osoan :

ezgaa
ezgailtze
ezgiñen
beigaa
desgraziye
pozgarriye
Aizgorri

Baina, 'ezcachazule' (ez gaitzazula), Uharteko dotrinan.

Hala ere, txistukariaren kasuan, bada kasuren bat edo beste zeinetan orain arteko jokaera hau guztiz alderantziz suertatzen baita :

bilixkorriko (biluz + gorriko) (Ikus 71. orria).

eskios (ezkero < -ez gero) Kasu hauetan, ikusten denez, ahoskabearen aldekoa da neutralizazioa Etxarrin ere.

Hortzetakoak, /t/ eta /d/ eta sabaikoak, /t_/ eta /d_/ :

+ Hitz solteetan :

ondasun
aldare

+ Deklinabideko ablatibo kasuko -TIK / -DIK eta erartopenezko -TAR / -DAR atzizkiekin gertatzen dena :

Urdinndi(k)
Irundi(k)
Madrildi(k)
urdindar
arakildar
arizdei
masdei

+ Herskari aurreko /i/ bokalaren eraginez gertatutako bustidura :

aitte (aita)
indderra (indarra)
gildde (ginda)
ainddu (agindu)

*menddere*¹²² (maindire)
pintterdi (pinta + erdi)

Arbizun ez da bustitzen –*ind-* taldea: *inderra, gilda, aindu, meindire*.

+ Ezezko partikularen eta BAIT partikularen ondoren esparruko herri guztietan ematen da ahoskabearen aldeko neutralizazioa zenbait aditz formetan:

ezta (ez da)
eztakizu (ez dakizu)
eztiau (ez dugu), *eztiñau* (ez dinagu, Arbizun)
beitaki (baitaki)
beito (baitago) Etx., *beitau* Arb.
eztut (ez dut) Uharteko dotrinan (Arakama, 576)

Eta zenbait kasutan ezezko partikulako txistukari igurzkaria galtzen da:

Z → Ø / ___ l, n, tt, y, ñ:

Elauke ori esan ber (Ez luke hori esan behar)
Enauke siñestuko (Ez nuke sinetsiko)
Ettugu ikusi (Ez ditugu ikusi)
Eyau olakoik esan (Ez diagu horrelakorik esan)

Ezpainetakoak, /p/ eta /b/.

+ Ezezko partikularen ondoren, gor edo ahoskabearen aldeko neutralizazioa da nagusi herri guztietan, ondorengo adibideetan ikus daitekeen moduan :

ezpeiz (ez bahaiz)
ezpau (ez badu)
baezpade (bada ez bada ere)
ezpaki (ez badaki)
ezpeizakiyen (ez bait zekien)
ezpeitaka (ez bait dauka)
ezpada (ez bada) Uharteko dotrina.

+ Partitiboaren morfemaren ondoren BE¹²³ (BAGE) partikulako kontsonante ezpainetako ahostuna ahoskabe bihurtzen da :

¹²² MITXELENA, K. (19077, 160): “La oclusiva que sigue a la nasal puede no ser dorsal: guip. *maindira*, a.-nav. guip. *maindire*, a.-nav. *maind(e)re*, etc. ‘sábana’...”

¹²³ *bai* (*pai*) dugu aldaera Ergoienan.

diruipe (dirurik bage)
etxeipe (etxerik bage)
ogipe (ogirik bage)
elizaipe (elizarik bage)

+ Aipatutakoez gain ondorengo kasuak jaso ditugu Etxarriko hizkeran, biak ere maileguak direlarik:

kapiyo (cabrio)
kaprestu (cabestro)

d) Hitz bukaeran.

Herskari gor edo ahoskabeak dira hitz bukaeran agertzen diren bakarrak, eta horien artean belarea eta hortzetakoa soilik ia, eta ia diogu, ezen kasu solteren batean bakarrik ikusi ahal izan dugu ezpainetako ahoskabea hitz bukaeran, **(i) eup !** eta *stop*-en kasuetan hain zuzen.

e) Bokal arteko herskarien galerak.

Herskari ahostun edo ozenak, /b/-/d/-/g/, bokal artean doazenean oso egoera ahula izaten dute eta, askotan, erortzera ere iristen dira. Ikusi dugu kontsonante herskariak aurkeztu ditugunean, bokal artean doazenean bere balio fonetikoa aldatu egiten dela, hots, igurzkari bihurtzen direla, baina lehentxeago esan bezala, galtzera ere iritsi daitezke, bere egoera ahularen azken eskalara iritsiz. Ahultze prozesu honen adierazle Hyman-ek (1981) jasotzen duen artikulazio indarra, modua eta glotiaren posizioan oinarritzen den eskala. Eskala horretan kontsonante herskariak agertzen zaizkigu, indarraren arabera mailakaturik, indartsuenak goiko mailan eta ahulenak behekoan, 0 mailan kontsonante galera suposa daitekeelarik. Indartsuenak maiztasun handiagoa erakusten duten kontsonanteak izango ditugu eta ahulenak maiztasun txikiagoa agertzen dutenak. Honelako eskema azaltzen digu aipatu lanean :

4	k+	t+	p+	indartsuenak (geminatuak)
3	k	t	p	gorrak (ahoskabeak)
2	g	d	b	ozenak (ahostunak)
1	ǵ	d´	b´	ahulenak (igurzkariak)
0	Ø	Ø	Ø	galera
	----->			(Artikulaziogunearen arabeko ordena)
	1	2	3	

Guk, hemen, lehen aipatutako 0 mailari, hots, bokalarteko herskarien galerari, erreparatuko diogu eta herrien arteko desberdintasunak jasoko ditugu, zein kontsonante galtzen diren herri bakoitzean kontuan hartuz.

* /g/ → Ø / V¹ --- V²

Galera ez da sistematikoki gertatzen eta nahasketa handia nabari da esparru osoan, bi bokalak desberdinak direnean :

segiduen / seittuen : Etx, Arb, Liz	/
egin / ein :	/Etx, Arb, Liz, Arr, Lak
aurpegi / aurpei :	/Etx, Arb, Liz, Lak, Arr
egosi / (y)oosi : Etx, Liz	/Arb, Lak, Arr, Uh
agindu / aind(d)u : Liz	/Etx, Arb, Lak
egon / (y)oon :	/Etx, Arb, Liz, Arr, Lak
nagusi / nause :	/Etx, Arb, Liz, Lak
ezagutu / ezautu :	/Etx, Arb, Liz, Arr, Lak
negar / near : Etx, Liz, Lak	/ Arb,
begiratu / beiretu :	/Etx, Arb, Liz, Lak
lagun / laun : Liz	/Etx, Arb, Lak
beltzago / beltzoo :	/Etx, Arb, Arr,, Lak
txikiago / txikiyoo :	/Etx, Arb, Arr, Lak
dago / doo, dau :	/Etx, Arb, Lak
dakagu / dakau :	/Etx, Arb, Lak
dakigu / dakiu : Etx,	/Arb,
dugu / diau, duu :	/Etx, Arb, Lak
jagi / jai :	/Etx, Arb, Liz, Lak
ebagi / ebai :	/Etx, Arb, Liz, Lak
udegi / urai :	/Etx, Arb,, Lak
iregi / irai :	/Etx, Arb, Liz (idei)
irazegi / izerai :	/Etx, Arb, Liz, Lak
zartagin / zartai :	/Etx, Arb, Liz, Lak
aitagiarreba / aittaiarreba :	/Etx, Arb,
arizdegi / arizdei :	/Etx, Arb,
piñodegi / piñodei :	/Etx, Arb,
aillegatu / aillatu :	/Etx, Arb,

Horrela ageri da jasoia EHHA-n Dorraon: *daún* (dagoen).

Era askoz homogenoagoan gertatzen da galera bi bokalak berdinak direnean (V¹ --- V¹). Hala ere ez da sistematikoa burutzapena : *atalaga, uberaga, ...*

Azterketa esparruko herri guztietan gertatzen dira bokal berdinen arteko /g/-ren galerak :

sagarra > saarra
 gogorra > goorra
 pagatu > paatu
 gogoti(k) > gooti(k)
 Lizarraga > Lizerraa (asimilazio aurrerakaria ere bai)

Nor (plurala)-Nork erako laguntzailearen pluraleko lehen pertsonaren kasuan, *ditugu*, ez da horrelako jarrera homogenorik gertatzen :

ttugu / ttuu : Etx, /Arb, Liz (ttau)

* b → Ø / V¹ --- V²

Ez da oso sarri gertatzen baina jaso ditugu adibide batzuk. Horien artean gehienak ‘ibili’ aditzaren Nor erako forma sintetikoak ditugu eta baita BAT mugatzaile zenbatzaileak sortutako sandhiak ere. Hauetaz gain bost adibide baino ez ditugu jaso :

+ Bost adibide solteak :

kabittu / kaittu ¹²⁴ :	/Etx, Arb, Liz, Arr, Lak
illabete / illaate :	/Etx, Arb, Liz, Arr, Lak
zubi / zui : Liz, Arr, Lak	/Etx, Arb,
probintziano / prointziano :	/Etx, Arb,
lendabizi / lendaazi ¹²⁵ :	/Etx, Arb, Lak

+ *Ibili* aditzaren forma sintetikoak :

nabila / nalle :	/Etx, Arb, Liz, Lak
abila/ alle :	/Etx, Arb, Liz, Lak
dabila / dalle :	/Etx, Arb, Liz, Lak
gabiltza / gailtze :	/Etx, Arb, Liz, Lak
zabiltza / zailtze :	/Etx, Arb, Liz, Lak
zabiltzate / zailtzie :	/Etx, Arb, Liz, Lak
dabiltza / dailtze :	/Etx, Arb, Liz, Lak

¹²⁴ Bi esanahirekin erabiltzen da mailegaturiko aditz hau: kapazitate zentzuarekin (*zenbat kaitzen da ontziyortan?*, ‘zenbat kabitzen da ontzi horretan?’) menderatzearekin (*orrek erraz kaitzen dau zuu laune!*, ‘horrek aise kabitzen du zure laguna!’).

¹²⁵ Ondorengoa izango litzateke bere garapena :
 (*lehendabizi*) **lendabizi** > (*bokal arteko ezpainetako herskari ahostunaren galera*) **lendaizi** > (V¹ V² → V¹ V¹) **lendaazi**.

genbiltzan / gailtzen : /Etx, Arb, Liz, Lak
 nenbilen / nailllen : /Etx, Arb, Liz, Lak

+ /a/, /e/ edo /o/ bokalez bukatzen den lexemari BAT zenbatzailea eta bere eratorriak eransterakoan :

beste bat > bestiat : Etx, Arb, Liz, Lak
 etxe bat > etxiat : Etx, Arb, Liz, Lak
 zulo bat > zuluat : Etx, Arb, Liz, Lak
 puska bat > puskaat : Etx, Arb, Liz, Lak
 pixka batzuk > pixkaatzuk : Etx, Arb, Liz, Lak
 mando batekin > manduatekin : Etx, Arb, Liz, Lak
 zulo batera > zuluatia : Etx, Arb, Liz, Lak
 ogeita bat > ogeitat : Etx, Arb, Liz, Lak
 duro bana > duruana : Etx, Arb, Liz, Lak

* d → Ø / V¹ --- V²

Asko ez badira ere, ondorengo bokal desberdinen arteko adibideak jaso ditugu :

edo > oo¹²⁶ : Etx, Arb, Liz
 iruditu > iruittu : Etx, Arb, Liz (iduittu), Arr (udiittu),
 aditu > aittu : Etx, Arb, Liz
 mediku > meiku : Etx, Arb, Liz
 bidaldu > bi(y)eldu : Etx, Arb, Liz
 adio > aio > aiyo: herri guztietan
 utzi duen > utzi on (Dorrao, EHHA).

Eta bokal berdinen artean (V¹ --- V¹) :

sudur > suur : Etx, Arb, Liz, Arr,
 badaukat > baakat : Etx, Arb, Liz
 badakit > baakit : Etx, Arb, Liz
 ederra > eerra :
 bada > baa : Etx, Arb,
 bederen > biare : Etx, Arb, Liz (berai)

Bokalez bukatzen den lexemari oso lotuta doan /d/-z hasitako adizkiak ere kontsonante herskaria galtzen du maiz :

¹²⁶ Garapena : *edo* > (bokal arteko hortzetako herskari ahostunaren galera) *eo* > (V¹ V² → V² V²) *oo*.

badu > *bau* : Etx, Arb,
badek-n > *beek.n* : Etx, Arb,
asko dauka > *askoaka* : Etx, Arb,
asko dek-n > *askuek-n*¹²⁷, *askook-n* : Etx, Arb, Liz
neikua, *neikoo* (nahiko da), *neikuezu*, *neikoozu* (nahiko duzu) Etx, Arb,
uraittuau, *iruittuu* (eduki du), *uraittuezubie*, *iruittuuzubie* (eduki duzue)
Etx, Arb,
artuet, *artuut*, *artuot* (hartu dut), *yosiek-n*, *yosiok-n*, *oosiuk-n* (erosi duk-n)
Etx, Liz, Arb,

Behar aditzari jarraitzen dion laguntzaileak ere /d/ kontsonantea galtzen du,
eta herriren batzuetan, bi burutzapenak erabiltzen dira :

yaman ber dezu/bedozu, *eman biduzu* / *yaman biezu*, *eman biuzu* : Etx/Liz,
Arb /Etx, Arb,
ikus ber dau/bedo, *bidu* / *ikus biau*, *biu* : Etx/Liz, Arb, /Etx, Arb,

Eta beste hainbeste esan dezakegu baldintzako BALDIN partikularekin :

balinbaa [balimbaa] < baldin bada
balinbeezu, *balinbazu* < baldin baduzu

f) Herskari ahoskabeak hitz bukaeran:

Hizkera arinean galdu egiten dira hiru kasuetan behintzat :

Deklinabideko ablatibo kasuko morfemak ez du bukaeran belare
herskaririk:

etxeti: Etx, Arb, Erg
nundi: Etx, Arb, Erg
orti: Etx, Arb, Erg
andi: Etx, Arb, Erg
emendi: Etx, Arb, Erg

* Partitiboaren kasua.

¹²⁷ Espresio moduan erabiltzen da, ondorengo esanahiarekin: “Berriro ere?”, “Orain ere gauza bera gertatu edo egin behar!”.

Gauza bera gertatzen da deklinabideko partitiboaren morfemari BE/BAI (BAGE) partikula eransten zaionean, honetaz gain erantsitako partikularen ezpainetako ahostuna ahoskabe bihurtzen delarik :

ardoipe, ardoipai (ardorik gabe) : Etx, Arb, Erg
diruipe, diruipai (dirurik gabe) : Etx, Arb, Erg
launipe, lagunipai (lagunik gabe) : Etx, Arb, Erg
ogipe, ogipai (ogirik gabe): Etx, Arb, Erg
utsipe, utsipai (urik gabe): Etx, Arb, Erg
aldapipe, aldapipai (aldaparik gabe): Etx, Arb, Erg

* Zenbait kasu.

Hizkera arinean, goian esan bezala, BOST zenbatzailearen bukaerako hortzetako herskari ahoskabearen galera gertatzen da :

Bosbaaki orrek ! (Bost badaki horrek !)
bos laun (bost lagun)
bosgera/bosgarrena (bostgarrena)
Bosbazakin orrek! (Arbizu)

g) Beste txandaketa batzuk.

* m- / b- ezpainbikoen txandaketa.

Kasu batean gutxienez gertatzen da aipatu txandaketa. Hitz mailegatua dugu eta hurrengoa da:

beendu < *merendu*
beendatu < *merendatu*

Eta kontrako jarrera ere gertatzen da Lizarragan, b → m bihurtzen delarik, G. Solisen arabera (F.L.V. 25, 112):

mintzet < *bintzet* (behintzat)
zema < *zenbana* Baina honen kasuan *mb* > *m* izan da bilakaera.

* /b/ - /p/ - /f/ txandaketa :

bago / *pago* / *fago* : /Arr, /Etx, Erg, Lak
bake / *pake* / *fake* : Etx, /Arr, Lak / Erg, Arb,
barre / *parra* / *farra*¹²⁸ : /Arr, Lak /Etx, Arb,

¹²⁸ *Irri* jaso dugu guk Lizarragan eta baita G. Solis-ek ere (“..., *aieneni*, *ze irriyek*, ...”) (F.L.V. , 113).

besta / pesta / festa: /Arr, /Etx, Arb, Liz, Lak
kabi/kapi/kafi: /Arr, Lak /Etx, Arb, Erg,

* /p/ - /f/ txandaketa :

alper / alfer : Etx, Erg, Lak, Arr, Ira, Arb, /Uh,
napar / nafar : Etx, Erg, Arb, Lak, Arr, Ira, / Uh,
apaldu / afaldu : (EI)¹²⁹ Arb, Uh, Ira, /Etx, Lak, Arr, Erg, Arb

* /d/ - /r/ txandaketa edo alternantzia :

edari / erai : Erg /Etx, Arb, Lak, Arr, Uh
edabe / erabe : Erg /Etx, Arb, Lak, Arr, Uh
idi / iri : Arr, Erg /Etx, Arb, Lak, Uh
udi(g)i, idui / urai, irui : Arr, Erg /Etx, Arb, Uh
adi (hadi) / ari : /Etx,
*ergunide*¹³⁰, *-i / ergueniri, ergoniri*: Arr, Erg / Etx, Arb, Lak, Uh
*bedeinkatu / beriketu*¹³¹: /Etx,

Ergoienan bere-berean mantentzen da hortzetako herskari ahostuna:

edaye, -a; edabie,-a; idiye,-a; idui (edugi), iduipena, iduittu, idei (iregi), ide (hire) ..., eta Arruazun ere bai zenbait kasutan: *idi, udi(g)i, ...*

Baina ‘egon’ aditzaren nor erako forma sintetikoetan bai burutzen da *d/r* txandaketa, Arbizun bezala:

zaudete > *zorie (Ergoiena, Uharte), zourie (Arbizu)*
 gaude > *goure (Arbizu)*
 zaude > *zoure (Arbizu)*
 daude > *doure (Arbizu)*
 zeundeteten > *ziñorien (Unanu)*
 zeuden > *zouren (Arbizu)*

¹²⁹ Horrela dator ‘Erizkizundi Irukoitza’ liburuan Arbizu, Uharte eta Irañetan: ‘*apaldu*’. Guk Arbizun *afaldu* aldaera jaso dugu argi eta garbi.

¹³⁰ MITXELENA, K. (1977, 483): “El compuesto *erbiunide, erbiñude*, mer. (con artículo) *ergunidea*, etc., uno de los nombres vascos de ‘comadreja’ tiene su origen, por disimilación, en **erdi-un(h)ide*, lit. ‘nodriza de parto’, es decir, ‘comadre, partera’.”

¹³¹ Uharteko dotrinan horrela agertzen da: “*E. Adoracen zaiyut eta vediquecen zaiyut ...*” (1993, Bonaparteren ondareko eskuizkribuak, 607). Lizarragan *beiketu* jaso dugu.

2.2.2. SUDURKARIAK.

2.2.2.1. DESKRIBAPENA.

Aurreko kontsonanteen kasuan ez bezala, gangaila jaitsi egiten da sudurretarako bidetik airea pasatzen uzten duelarik eta soinu sudurkariak burutzen dira. Ahoko bidea itxita geratzen da, eta itxiera hori gertatzen den gunearen arabera mota batekoak zein bestekoak izango ditugu: ahoko hersketa ezpainetan gertatzen bada, /m/ ezpainetako sudurkari ahostuna; mihipunta hortzobietan jarriz suertatzen bada hersketa, /n/ hortzobietako sudurkari ahostuna; eta mihilepoa sabaian jarriz, berriz, /ɲ/ sabaiko sudurkari ahostuna izango dugu.

Hiru fonema sudurkari ditugu, beraz, baina /n/-k berea eta beste bi sudurkarienez gain, beste bi ebakera fonetiko ere izan ditzake, ondorengoak direlarik sudurkari burutzapen fonetikoak:

2.2.2.2. HIRU FONEMEI DAGOZKIEN BURUTZAPENAK :

- /m/ → [m] ama, eme, goma, ...
- /n/ → [n] Ana, ene, gona, ...
- /ɲ/ → [ɲ] aɲue (gariaren gaixotasuna), eɲe, ñoño (lo), ñabar, ...

a) /n/ egoera inplosiboan dagoenean gertatzen direnak.

Kasu hauetan ondorengo kontsonanteak eragiten dio automatikoki, lau ebakera edo burutzapen desberdin gertatzen direlarik:

- /n/ → [m] gizon bat [gisombat]
ganbara [gambara],
danborra [dambor a]
denbora [dembora]
danbateko [dambateko]
zakuunbet [sakumbet] (zakuren bat)
oginbet [ogiimbet] (ogiren bat)
- /n/ → [n̄] fan da [fan·da]
jan diau [xan·diau]
- /n/ → [ɲ] Frantxiko [fran̄čiko]
gantxue [gan̄čwé]
bigentxa [bigen̄ča]
- /n/ → [ŋ] ango [aŋgo]

Urdingo [urdiŋgo]
 langa [laŋga]

b) /i/-ren ondorengo /n/-ren palatalizazio edo bustidura sistematikoa da azterketa esparruko herri guztietan.

Eta hauxe da, hain zuzen, Burundako herrietako hizkeretatik bereizteko ezaugarri nabarmenatariko bat, Sakana erdialdeko mendebaldean dauden herrietan ez baita bustidura suertatzen (*baindo, oindo, ...*):

beño < baino	muñe(k) < muina(k)
biñe < bina	ezpeñe < ezpain
etxiaño < etxeraino	ariñe < arina
amiña < amina	miña < mina

Uharteko dotrinan ere asko dira adibideak: *siñestacen, erreñe, escubicoraño, iñic, origiñala, oraiñ/orañ ...* (Arakama, 1994, 576)

c) /n/ → /y/ / i (j) _____

Sabaiko sudurkaria igurzari bihurtzen da zenbait kasutan /i/ baten ondoren :

iyor(e) < inor (ere)
iyoi < inori
iyun < inon
iyun dienak < inon direnak
iyuare < inora ere
beye, -a < baina

Hala ere, Arruazu eta Uharten, *iñor* eta *baiño* erabiltzen dira. Begira zer dioen J.M. Arakamak Uharteko dotrina aztertzerakoan:

“Oraingoan ere bi gune bereizten zaizkigu Sakanan: *iñor/baiño* motakoak Arruazura orduko jaso ditugu (*baiño* Lakuntzan ere). Sakanako erdialdeko hizkeretan eta burunderan, aldiz, *iyor/bai(y)a* tankerakoak erabiltzen dira (*i(y)ork / york* bezalakoak aezk. eta zaraitz. altxatu zituen Echaidek, 1989: 126 gald.). Halaber, Goñerriko XIX. mendeko testuetan *iolaco/iondic ...*(F.L.V. 57) ...” (ASJU, 1994, 577).

d) /n/-ren galera :

- Bokalar-tean : *Dorrao* < Torrano
Lazkau < Lazkano
Nenau < Nenano

aittaiarreba < aitaginarreba
amaiarreba < amaginarreba
kate(a) < catena

- Hitz bukaeran /n/-ren apokopea gertatzen da:

zartai < zartagin
amurrei < amuarraín
*guai*¹³² < orain
biare < bederen
usei < usain
txertxei < txerri + zain
artzei < artzain

- n + n = n : *ezineiz* < ezin naiz
faneiz < fan naiz (joan naiz)
eineen < egin nuen
janeen < jan nuen

e) /n/-ren eransketa hitz bukaeran.

Ekintza adierazteko erabiltzen den -KA atzizkia hitz bati eransterakoan eta, oso hitzun gutxiren kasuan bada ere, partitiboaren morfemaren kasuan soilik, /n/-ren paragogeia gertatzen da:

biñekan < binaka
irunekan < hironaka
txintxiliken < zintzilika
inbuluzkekan < inbuluzkaka
nekatuiken < nekaturik(an)
ondatuiken < ondaturik(an)
geldittuiken < gelditurik(an)
erreiken < errerik(an)
olleskoiken < oilaskorik(an)
nastuiken < nahasturik(an)

Badirudi beste hainbeste gertatzen dela hitz elkarketan ondorengo kasuan gutxienez :

erlanardo < erle + ardo¹³³

¹³² Morfemaren bat eransterakoan agertzen da sudurkaria : *guañik* < oraindik, *guaño* < oraino.

- f) **/-on/-ez bukaturiko mailegu berrietan mantendu egiten da /n/, gipuzkeraz ez bezala :** (ikus bokalismoa, 97-98 orriak).

balona, jabona, kamiona, ...

2.2.3. TXISTUKARIAK.

2.2.3.1. DESKRIBAPENA.

Kontsonante txistukarien kasuan, igurzkari autonomo (/f/, /j/) eta bokalarteko herskari ahostunenean (/b/, /d/, /d'/, /g/) bezala, burutzeko ahotik igarotzen den aire pasari bidea erabat itxi gabe ebakitzen dira, igurzketa gertatuko balitz bezala, txistu soinu berezia gertatzen delarik.

Txistukarien artean bi atal bereizten dira, *igurzkariak* (/š/, /s/, /š/) eta *afrikatuak* (/č/, /c/, /č/, /č/). Igurzkarietara dagokienez, hortzobietako txistukari ahoskabea dugu lehena, [š], eta bera burutzeko mihipuntak hortzen sustraietan ikutu behar du, airearen irteera erabat itxi gabe; bizkar-hobietako txistukari ahoskabea bigarrena, [s], eta honen kasuan mihilepoak jotzen du hortzen sustrai ondoan, airearen irteera erabat itxi gabe; eta azkenik, sabaiko txistukari ahoskabea dugu, [š], airearen irteera erabat itxi gabe, mihibizkarrak sabaiaurrean jotzen duelarik.

Afrikatuak, herskari eta igurzkarien arteko konbinaketaz sortzen dira, hasieran itxidura bat gertatzen delarik (herskarietan bezala) eta ondoren leherkuntzarik sortu gabe, igurzketa batez soinua bukatuz. Afrikatu hauen kasuan, bakoitzaren ahoskerak bi une izaten ditu, hortzobietako ahoskabea, [č], bizkarrobietako ahoskabea, [c], eta sabaiko ahoskabea, [č]. Laugarrena, Etxarrin burutzen dena izango genuke, hortzobietako afrikatu ahostuna, hain zuzen, [č] sinboloaz irudikatu eta *udse* [uče], 'ura', adibidean buruturik aurkitzen dugularik.

Azterketa esparruko herri guztietan ongi bereizten dira txistukari hauen guztien ahoskerak, nahiz eta hauen arteko txandaketa edo trukaketak eta burutzapen desberdinak gertatu.

2.2.3.2. FONEMA TXISTUKARIEN BURUTZAPENAK.

Kontsonante hauek banan-banan aztertuko ditugu oso aberatsa baita txistukarien mundua azterketa esparru osoan :

¹³³ Etxarrin ezkontza baten aurreko igandean ematen zen *erlanardoa*, "amonestazioak" edo egiten ziren igande berean. Ardo goxoa zen eta, gure ustean, zerikusia izan dezake ezti (erle) hitzarekin beste toki batzuetan esaten denarekin.

a) [ʃ] fonema : < s > igurzkari ahoskabe hortzobietakoa.

Txillardegiren (1980) arabera oso goikoa da, edo gutxienez hortz atzekoa. Gaztelerazko *s* eta frantsesezko *ch*-ren artean kokatzen du euskal *s*-a. Horrela dio aipatu autoreak aurrerago :

Hau dela-ta, euskal sustratua duten erdaretan, aldakuntza hauek ditugu oso maiz :

eusk. [ʃ] → erd. [ç]

Nafarroan adibidez :

senda = eusk. *txenda* (AN, Elozegi, Cuad. Etn., 24)

eus. asun = *achun*, Eslava, Naf. (Reta).

Ana Mari Etxaidek (F.L.V. 25, 72) ematen duen iritzia, bide beretik doa : <(en la Barranka) la *s* es algo *más mojada* que la del español> (hitz batez : artikulazio-puntua gorago). (1980, 142)

Eta guk ere hala uste dugu, ezen Txillardegik aipatzen dituen bi adibideak bustiak ebakitzen baitira Etxarrin behintzat :

xenda

Axun

Hitzaren hasieran, erdian eta bukaeran agertzen zaigu azterketa esparru osoan :

+ **hasieran** : *seme, santu, sei, salda, salsa, saats, soñu, serbiziyo, ...*

+ **erdian** : *busti, masusta, mustu, baso, asi, esi, .../n/, /l/ eta /r/ kontsonanteen ondoren doanean igurzkari ahoskabe hortzobietakoak, normalean, Euskal Herri osoko joera dugu hauxe, afrikatuaren, [ç], aldeko neutralizazioa izaten du. Baina gure azterketa eremuan igurzkaria agertzen da nagusi, adibideotan ikus daitekeenez :*

*pensatu*¹³⁴ : Etx, Arb, Arr,

alsasuarra : Etx, Arb, Do, Liz, Arr,

falso : Etx, Arb, Do, Arr,

marsube : Etx, Arb, Liz, Arr,

pensube : Etx, Arr,

salsa : Etx, Arr,

bersolaye : Etx, Arr,

unibersidede : Etx, Arr,

pulso : Etx, Arr,

deskanso : Etx, Arr,

persona : Etx, Arr,

persegittu : Etx, Arr,

¹³⁴ Uharteko dotrinan (1993) *pensatu* eta *pensamentu* hitzak agertzen dira.

jersie: Etx, Arr,

Arbizun bi kontsonanteak dabilta dantzan, igurzkaria eta afrikatua, eta Ergoienan berriz, badirudi afrikatuaren alde neutralizatzen dela: *pen(t)satu, al(t)sasuarra, fal(t)sua, ...* Eta bizkarhobietakoan artean, badirudi afrikatuaren aldekoa dela garbiki joera: *importantziya, dultzia, kaltzontzillua, frantzesia, Arantzazu, ...*

+ **bukaeran** : *arnas, mus*, eta gutxi gehiago maileguak ez badira, baina batez ere, /s/ eta /š/-ren arteko txandaketa edo neutralizazioa gertatzen denean deklinabideko instrumentalaren morfemaren kasuan, hau da, bizkar-hobietako igurzkari ahoskabea hortzobietakoaren alde neutralizatzen da, mihipuntaz oztopatuz airearen pasa mihilepoarekin egin beharrean.

Nafarroako hizkeretan hedadura handikoa dugu burutzapen hau¹³⁵ eta Sakanan bertan ere, Burundako hizkerarekiko bereizgarririk garrantzitsuenetarikoa dugularik. Burundan, beraz, bizkar-hobietakoa erabiltzen da eta Sakana erdiko herri guztietan berriz, hortzobietakoa :

<i>kantas</i> (kantaz)	<i>kotxes</i> (kotxez)
<i>etxes-etxe</i> (etxez-etxe)	<i>oñes</i> (oinez)
<i>jaunkes</i> (zaunkaz)	<i>aldis</i> (aldiz)
<i>gios</i> (geroz)	<i>goses</i> (gosez)
<i>euskias</i> (euskaraz)	<i>burus</i> (buruz)
<i>erdias</i> (erdaraz)	<i>busbia</i> (buruz behera)

Uharteko dotrinan ere horrelako adibideak jaso ditu Arakama-k: *deyes, negarres, egunorosco, ...*

Eta, zenbait kasutan, aurreko bokala /i/ denean, sabaikoaren alde neutralizatzen da :

beixe (berriz ere)
atziabeix (atzera berriz)
bilixkorriko (biluz + gorri)

Gauza bera gertatzen da kausazko perpausetako -LAKOS (-lako) eta -TIETIS (-teagatik) morfemekin :

¹³⁵ MITXELENA, K. (1977, 282) : “Sin llegar a la confluencia de los fonemas apicales y predorsales, hay sin embargo signos de confusión muy extendida de *s* y *z* en contextos bien definidos: (...). Frente a la desinencia general de instrumental, *-(e)z*, el aezc., el a.-nav. meridional y una parte del septentrional emplean *-(e)s*, que ya es forma única en Beriayn: *gucis, cargatus, ortosas, ayes, oneças, landara, aldís, borondates.*”

nei detelakos (nahi dudalako)
zuk esan dezulakos (zuk esan duzulako)
aungi eittietis (ongi egiteagatik)
zuk esatietis (zuk esateagatik)

b) [s] fonema :

< z > igurzkari ahoskabe bizkar-hobietakoa. Hau ere, hitzaren hasieran, zein erdian edo bukaeran ager daiteke :

+ Hasieran : *zoplastako, zapata, zirt oo zart, zirringil, zoru, ...* Hala ere bada kasuren bat (morfologia atalean agertuko dugu nola *hi* izenordainaren analogiaz gertatzen den), zeinetan hasierako bizkar-hobietako igurzkaria galtzen den, hala nola *etorri* aditzaren N erako aginteran :

atoz < *zatoz*
atozie < *zatozte*

+ Erdian : *azi, ezi, kozkor, kazkar, baztar, azienda, mazkeldu, mozkor, bizkor, gaztietu* (abisatu), ... Baina aurreko txistukariaren kasuan bezalaxe /n/, /l/ eta /r/-ren ondoren doanean afrikatuaren alde neutralizatzeko joera agertzen du, nahiz eta salbuespenak ugari izan. Beraz, esan daiteke alternantzia edo txandaketa bera dela nagusitzen dena, hurrengo adibideetan ikus daitekeen moduan :

iltze
intze, -a
ontza
bentzaye, -a
jantzi
pertza
artzeye, -a
gultzurriñek, giltzurriñek
galtzeirube, -a
Lakuntza
zortzi
gantza
galtza
arantza
partza

Eta aurrekoekin batera entzun daitezkeenak, txistukari igurzkaria mantentzen dutenak, beste hauexek jaso ditugu :

zarzaro : Etx, Liz, Arr,
franzesa : Etx, Liz, Arr,
Aranzazu : Etx, Liz, Arr,
bizerzube : Etx, Liz, Arr,
kanzonzillo : Etx, Liz, Arr,

Baina, hala ere, sandhi-etan gertatutakoak ditugu ugarietak
 igurzkarien kasuan :

ein zeen < egin zuen : Etx,
ein berzana < egin behar zena : Etx,
fanzan < joan zen : Etx,
ilzan < hil zen : Etx,

Ikusi, orduan, ondorengo bikoteak :

<i>iltze</i>	baina	<i>ilzan</i> (hil zen)
<i>intze</i>	baina	<i>einzeen</i> (egin zuen)
<i>ontza, gantza</i>	baina	<i>yonzan</i> (egon zen), <i>fanzan</i> (joan zen)
<i>jantzi</i>	baina	<i>fanziñen</i> (joan zinen)
<i>pertza</i>	baina	<i>fanberzaa</i> (joan behar duzu)
<i>Lakuntza</i>	baina	<i>nunzan</i> (non zen)
<i>partza</i>	baina	<i>zarzaro</i> (zahartzaro)
<i>arantza</i>	baina	<i>Aranzazu</i>

Eta afrikatzen direnen kasuan berriz, Lizarraga eta Arbizon:

fanzan < joan zen (Lizarraga, G. Solis, 118)
yonzan < egon zen (Lizarraga, G. Solis, 118)
etortzakitenien < etorri zitzaidanean (Lizarraga, G. Solis, 118)

Eta Arbizon ere horrela jaso ditugu:

fantzen < joan zen
iltzen < hil zen
eintzubena < egin zuena
oontzen < egon zen
nuntzion < non zegoen
zartzarua < zahartzarua

+ Bukaeran : *meiz, ez, noiz, gauz, eliz,*

EZ partikularekin buruturiko sandhi-etan, [s]-ren galera gertatzen da
 ondorengo burutzapenak sortzen direlarik:

Z → Ø / ___ I 'el(a)uke o(r)i esan ber' (ez luke hori esan behar)

$Z \rightarrow \emptyset / _ n$ ‘en(a)uke siñistetuko’ (ez nuke sinetsiko)

$Z \rightarrow \emptyset / _ tt$ ‘ettugu ikusi’ (ez ditugu ikusi)

$Z \rightarrow \emptyset / _ y$ ‘eyau olakoik esan’ (ez diagu horrelakorik esan)

$Z \rightarrow \emptyset / _ ñ$ ‘eñau dantzatu’ (ez dinagu dantzatu)

$Z + Z > Z^{136}$ ‘e(t)zan garaiz etorri’ (ez zen garaiz etorri)
 ‘e(t)zien ez makalak’ (ez ziren ez makalak)

c) [š] fonema: <x> igurzkari ahoskabe sabaikoa.

Kasu honetan ere, hitzaren hiru posizioetan agertzen zaigu sabaiko txistukari igurzkaria, baina ia kasu guztietan balio adierazkorrarekin ageriko da edo /i/-ren bustiduraren ondorio moduan eta, guk behintzat ez dugu horrelakorik jaso, ez berezko burutzapen moduan:

+ **Hasieran:** lehen aipatu bezala balio adierazkorrarekin soilik agertzen da:

xagu
xingle
xinple
ximela (zimela)
xenda (senda)
xapi (katuari esaten zaiona)
*Xabala*¹³⁷
xiri-miri
xamar
xar (zahar)
xota
xoxo
xorgiñe, -a

¹³⁶ Txillardegik (1980, 148-9) ondorengo esaten du: “Bizkaieraz, erronkarieraz, Altsasuko euskalkiaz, eta agian, beste nonbait, hirugarren pertsonaren marka θ - da; eta ez z-. Eta afrikaziorik ez da gertatzen ukazioetan: B., *ezan*, Mark. 22, 24, 40; B., *ezien makalak*, Mark., 45; R., *ezakein, ezakezein, ezakizun, ezein* (= ez zuten), etabar. (ikus K. Izagirre)”. Guk ez dugu uste horrela denik, aipatu dugun bilakabidearen ondorio baizik.

¹³⁷ Etxarriko Zabalatarren familiako bati esaten zaiona: “*Xabalânak die oik*” (Zabalarenak dira horiek).

+ **Erdian:** Kasu gehienetan /i/ bokalaren ondoren gertatzen diren burutzapenak ditugu, hortzobietakoa edo bizkar-hobietako igurzkaria sabaikaritzen zaizkigularik, eta kasuren batean baino gehiagotan lexikalizatu ere egin da. Maileguetan ere suertatzen da palatalizazio hau:

pixe, -a
pixu
ixo
ixilik
abixetu
Bixente
Joxe
bixte, -a
koxera (goilara)
axui (asuri)
axai (azeri)
goixo (gozo)
geixo (gaiso)
bixi-bixi
Axun
*Axio*¹³⁸

Bestela ere, herskari inplosiboaren aurrean palatalizatzen dira:

mextru < mastru
exkiñe < iskina
kixketa < krisketa, *kilixketa* Arbizun
kixkeli < kizkali, *kixkildu* Arbizun
ixtorra < iraztorra
pixtu < txistu
pixke < piska
exkax < eskas
pirrixke < pirriska
atximixka < hatz + zimurka
juxto < justu
*marraxko*¹³⁹ < marrasko
bilixkorriko < biluzgorrika
errixka < herriska
*axkolto*¹⁴⁰ < aizkoratxo

¹³⁸ Izengoitia, Ignazio izenekoei egokitzen zaiena.

¹³⁹ Zurginek erabiltzen duten ‘zepilo’-a litzateke. Seguraski hitz onomatopeikoa da: ‘*marras-marras*’ egiten baitu zura lantzerakoan.

kaxkar < kazkar
kaxkarra < kazkabarra
moxkor < mozkor
txorroxtu < zorroztu

+ **Bukaeran:** hitzaren azken posizioan ere balio adierazkorrarekin edo /i/ bokalaren eraginagatik gertatzen da sabaikaripena:

beix (berriz)
pix (pis)
errex (erraz)

Txistukariz bukatzen diren izen nagusi guztiak palatalizatzen dira:

Andrex
Felix
Jexux
Luix
Markox
apapax (ume hizkeran ‘pasiazera’ joan)

d) [Ĉ], <ts>, fonema:

Afrikatu ahoskabe hortzobietakoa. Ez da inoiz hitz hasieran agertzen, bai ordea erdian edo bukaeran. Oso ondo bereizten den fonema dugu hauxe:

+ Erdian:

itseso
atso
etsi
itsemi
otsein
utsein
atsa
itsu (‘divieso’)
otso
ire(n)tsi
yauntsi / *aauntsi* (‘erauntsi’)

+ Bukaeran:

ots

¹⁴⁰ MITXELENA, K. (1977. 127): “En palabras de más de dos sílabas se pierde la vocal final, cualquiera que sea, siempre que la consonante precedente pueda quedar en posición final: (...); mer. *Azkoltxo* ‘azuela’, de *axkora* ‘hacha’; ...”.

uts ('ur')
mats ('mahats')
epats
ostots
bisuts
ordots
fits

utse, *-a* dugu ia esparru osoan *ura*-ren aldaera. Hala ere, esan dugu kontsonantismoaren hasieran Etxarri eta Lizarragabengoako zenbait hiztunen ahotan hortzobietako afrikatu ahoskabe hau ozenduko balitz bezala ematen duela, *udse*, *-a* entzun daitekeelarik, eta Arbizun *us(a)*, igurzkari ahoskabe hortzobietakoa erabiltzen du zenbaitek. Uhartetik ekialdera eta Burundan *ura* aldaera erabiltzen da.

Txistukari eta dardarkariaren arteko lehia edo txandaketa hau ez dirudi kontu berria denik, ezen XIV (1397) eta XV. (1453)¹⁴¹ mendeetako Iruñeko bi dokumentutan (AGN)¹⁴² dardarkaridun burutzapenak zuzenduak ageri baitzaizkigu toponimo berberean, eta txistukaria erabiltzen dute bien kasuan zuzenketa egiterakoan, '*enhura yturri*' lehen dokumentuan eta '*En 7 termino de hurrayturry*' agertzen da bigarreanean. Baina lehenaren kasuan, 1397koan, *hura*-en gainean *-huff-* idatzi zuten; eta bigarreanean, 1453koan, dardarkariaren gainean *S*.

Eratopeneko –TSU atzizkia, aldiz, ez da era afrikatuan burutzen, igurzkarian baizik, baina ez igurzkari hortzobietakoa, bizkar-hobietakoa (-ZU) baita erabiltzen dena:

bizerzu
mukizu
zorrizu
berrizu
kakazu

e) [c], <tz>, fonema:

Afrikatu ahoskabe bizkar-hobietakoa. Aurrekoaren kasuan bezala, ez da inoiz hasierako posizioan agertzen, baina bai erdian edo bukaeran eta hauxe ere ondo bereizten den fonema dugu:

¹⁴¹ Rafael Karasatorreri eman behar dizkiogu eskerrak, bi dokumentu hauen berri emateaz gain, burutzapen hauen argazki bana ere eman zigulako.

¹⁴² Archivo General de Navarra, Registros Comptos: 238 zkia., 54 orria, 1397 urtea; 487 zkia., 730 orria, 1453 urtea.

+ Erdian azterketa esparru osoan erabiltzen dira ondorengo adibideak: *atzo, etzi, atzapar, bizitzen, pertza, partza*¹⁴³, *endeitze, dantzaki, oreitze, utzi, galtza, artzei, jantzi, yântzi, aitzur, baatze, ...*

+ Bukaeran ere herri guztietan erabiltzen dira hurrengoak: *otz, izotz, motz, gatz, iketz, aritz, orratz, jostorratz, kaporratz, onutz, orrutz, autz, putz, bietz (behatz), zotz, gorputz, ...*

Bizkar-hobietako afrikatuaren ondoren herskari ahoskabe batez hasten den atzizkia eransten bazaio, afrikatua igurzkariaren alde neutralizatzen da. Hauxe gertatzen da lekuzko genitiboaren –KO, aditzaren –TEN eta –TU atzizkiekin edo, bestela ere, hitz konposaketan:

onuzko < onutz + -ko
orruzko < orrutz + -ko
auzko < autz + -ko
uzten < utz + -ten
oztu < otz + -tu
azkazkal < atz + -kaskal
puztu < putz + -tu
moztu < motz + -tu

Bestalde, eratorpeneko –ZAIN atzizkiaz sortutako hitzetan txandaketa gertatzen da igurzkari eta afrikatuaren artean:

<i>artzei</i>	baina	<i>mandazei</i>
<i>aurtzei</i>		<i>astozei</i>
<i>auntzei</i>		<i>beizei</i>
<i>itzei</i>		<i>biorzei / biortzei</i>
<i>txertxei</i>		

Beraz, halako bilakabidea gertatzen da: **z** → **tz** / C _ Hala ere, azken adibidea salbuespen moduan izango genuke, igurzkaria erabiltzen baita gehien bat.

f) [Ĉ], <tx>, fonema:

Afrikatu ahoskabe sabaikoa. Hauxe dugu afrikatuaren artean hitzaren edozein posiziotan ager daitekeen bakarra:

+ Hasieran oso ugari da azterketa esparruko herri guztietan:

txelatu (blai egin)
txori

¹⁴³ Etxarrin San Juan bezperako suak saltatzerakoan ondorengo esaldia esaten da: “Zorriyek eta partzak iltzeko”.

txipe (arrain txikia)
txondar
txume (ile luzea)
txabola
txistorra
txitxiyo (txitxirio < lat ‘cicero’)
txitxi (haur hizkuntzan ‘haragia’)
txistera (har, ‘lombriz’), *txintxera* Arbizun
txantxor / *txantxi(g)or*¹⁴⁴
*txu*¹⁴⁵ (tu, ttu)
*txindille*¹⁴⁶ (txindila, dilixta)

Asko dira, bestalde, era igurzkarian nola afrikatuan erabiltzen diren hitzak eta dagoeneko lexikalizaturik geratu direnak, esanahi desberdinarekin eta guzti. Ohizkoak dira horietako asko gipuzkera, bizkaiera eta goi-nafarreran (*txakur* ≠ *zakur*; *txerri* ≠ *zerri*), baina askoz gehiago ditugu Sakanako erdialdeko gure herrietan:

txekor / *zekor*
txuri / *zuri*
txorroxtu / *zorroztu*
txoko / *zoko*
txiortu / *xigortu*
txietu / *xehetu*
txabala / *zabala*
txeleye / *zeleye*
txintxiliken / *zintziliken*
*txatar*¹⁴⁷ / *zatar*
txiri / *ziri*
txoratu / *zoratu*
txintxu / *zintzo*
txuxen / *zuzen*

+ Erdian, hona hemen horietako batzuk:

¹⁴⁴ Asimilazio kontsonantikoa dugu, eta horrela azaltzen digu Mitxelenak (*F.H.V.*, 351): “Cuando una de las dos consonantes es prepalatal, también lo es la africada: a.-nav b.-nav lab sul *gantxi(n)gor* (> *txantxigor*, etc.) ‘chicharrón’ < *gantz-(t)xigor*, lit ‘grasa tostada’, ...”.

¹⁴⁵ MITXELENA, K. (1977, 186): “A.-nav. mer. *tu* ‘saliva’, b.-nav. lab. *thu* (Leiç), sul. *thü*, a.-nav. Baztán *ttu*: vizc. *txu* ‘saliva’.”

¹⁴⁶ Mitxelenak esaten digu Nafarroako ekialdeko euskalkietan ‘txindila’ *txingla* dela Zaraitzun eta *txintxila* Erronkarin. (1977, 187, 18. Oharra).

¹⁴⁷ Ihauterietan mozorratzeko erabiltzen den arropari esaten zaio horrela (disfraz). *Zatar* hitzak, berriz, zaharra eta nahiko izorratua adierazten du, eta hori da hain zuzen, garai bateko ‘disfraz’-a, arropa zaharra eta adabakitua.

lantxurde (escarcha)
etxe, gutxi, intxor
Frantxiko (igurzkariaren afrikapena)
jatxi (jeitsi)
bigentxa, bâtxui (baratxuri)

Baina aipagarriak iruditzen zaizkigu, azterketa esparruko herri gehienetako toponimian agertzen diren *itxasi* edo *itxesi* eta *itxere* eta hauen eratorriak. Ikus dezagun lehenik Tracasa-koek¹⁴⁸ toponimo haei buruz diotena. Arbizuko toponimian *ichési* eta *ichasi barrena* aipatzen ditu, Dorraon *itsési* eta *itsesberriko zeláya* eta ondorengo esaten du lehenari buruz, bai Arbizun nola Dorraon :

“El topónimo nos habla de la presencia de retama (*isats, itsats*)”.

Lakuntzarako, *ichasóndo* edo *ichesóndo* eta *ichesondogoyéna* jasotzen ditu eta aipamena aurrekoaren berdina da, Arruazuren kasuan bezalaxe, non lau modu desberdinetan jasotzen baitu toponimo bera : *itsasgáin, ichasodáin, itsaskaingáin* eta *itsaskingáin*. Uhartan ere gauza bera, baina toponimoak gehiago dira : *ichesgáin* edo *itsesgáin, itsési, itsésiko erreka* eta *itsusúre* edo *itsusúra*. Azkenik, Irañetan ere ugari dira ‘itxas’ edo ‘itxes’ erroko toponimoak : *ichési, ichésiko atáka* eta *icheslárre*.

Etxarrin aldiz, *ichére* da aipatu lanak jasotzen duen toponimoa, baina ez du inongo komentario edo aipamenik egiten. Gure ustean nabaria da erro bera duela.

Hala ere, guk ez dugu uste toponimo hauetan guztietan agertzen den *itxasi-itxesi* edo *itsasi-itsesi* elementu komuna *isats* edo *itsats*-etik datorrenik. Ez dugu uste oso zuzen dabilzanik aipatu lanean toponimo honi dagokionez, eta ondorengo azalpena proposatzen dugu :

itsesi < idi + hesi
itsere < itsare < idi + sare

Eta azalpen hau azpimarratzeko ikus dezagun jarraian Rafael Karasatorrek emandako Nafarroako Artxibategi Orokorreko *1617ko* dokumentu baten fotokopian honi buruz agertzen den aipamena :

“En la villa de echarri a medias del mes de sep del año de mil y seys^{os} y diez y siete yo cler^{so} y recep^o ynfras^{to}. En virtud de mi Comision (...) Un año se a tenido i goardado entre otras desas boyarales por desa boyaral alter^{no} y endrecera (?) que le dicen Ucuar y por tal a stado siempre bedado desde el dia de santa cruz de mayo asta el dia de las animas (...) A la tercera preg^{ta}. dixo que refiriendose a lo que dho tiene con la

¹⁴⁸ TRABAJOS CATASTRALES S.A., *Toponimia eta mapagintza*, 1993.

precedente preg^{ta}. que es verdad que el dho ter.^{no} y endrecera de Ucuar tiene por otro nombre en bascuence **ascolichasi** y para si tiene por cierto este tgo. quel otro nomb de ascolichasi se le dio y tiene porques dessa boyaral y por que ascolichasi quiere decir cossa vedada en todo que aun no dexan cortar arboles ni hazer madr^o”.

Testuan agertzen den toponimoa, ‘*Ucuar*’, Etxarriko eta Arbizuko Utzubar toponimoa litzateke, eta ikus daitekeen moduan *itxasi* idi hitzarekin lotuta egon daiteke, ‘boyeral’ aipatzen baitu argi eta garbi. Bestalde, *ascolichasi*-k, ez bakarrik abereentzako debekua edo hesia, baizik eta aizkorarako ere markaten zela hesi hori adieraz lezake :

askolitsesi < *aizkora* + *itsesi* < *aizkora* + *idi* + *hesia*

Aurrerago, dokumentu berdinean, lekuko berdinak baina beste batean dirudienez, ondorengo esaten du :

“A la tercera preg^{da} dixo que referiendosse a lo que tiene dho en su primera depossicion y sin apartarse en cosa ninguna save es verdad este tgo que al dho ter.^{no} y endrecera de Ucuar a tenido y tiene por su nombre en bascuence *ascolichasia* y este vocablo *ichasia* es visto claramente de por ser bedado boyaral y por tal lo a tenido y conozido como muy en particular tiene especificado en su primera depossicion y esto responde”.

Onartzeko modukoa litzateke, beraz, gure ustean, *itxasi-itxesi-itsasi-itsesi*, abereentzato akotatua adierazteko erabiliko luketela garai batean. Idi edo abereei orokorrean debekatutakoa, toponimo horretan, eta *axkolitsesi* berriz, bai abere nola aizkorari (ezin egurrik ere egin) debekatua.

+ Bukaeran :

motx / *motz*
aratx (harridurazko hitza)
Martitx (Etxarriko etxe baten izena).
bildotx
*txorrotx*¹⁴⁹ / *zorrotz*

2.2.4. ALBOKARIAK.

2.2.4.1. DESKRIBAPENA.

¹⁴⁹ Etxarriko toponimoa dugu *altxorrotx* ere.

Kontsonante albokariak, biak, ahostunak dira eta, bien kasuan ere, airea ahoaren alboetatik pasatzen da ateratzerakoan, mihiak ez baitio beste tokirik uzten, hortzak edo ahosabaia ikutuz jartzen denean.

Lehenaren kasuan, hots, mihipunta hortzen oinen kontra jartzen denean [l] fonema dugu, eta hortzetan bertan kokatzen bada mihipunta, orduan horzkaritu egiten da eta [ɭ] alofinoa daukagu, hortzetakoa ; bigarrenaren kasuan, berriz, mihilepoak sabaia ikutzen du eta, orduan, [ɭ] sabaikoa dugu.

Guk, hemen, bi fonema izango ditugu kontuan, [l] eta [ɭ], bestea, hortzetakoa, lehenaren ahoskera bezala kontsidera baitaiteke, hortzetako herskariak diren [t] eta [d]-ren aurrean gertatzen baita : *galdetu, bildur, kalte, salto, ...*

2.2.4.2. FONEMA ALBOKARIEN BURUTZAPENAK.

a) [l] fonema :

Albokari ahostun hortzobietakoa. Hitzaren hiru posiziotan agertzen da :

+ Hasieran : *lo, langa, leka, lapur, lege, lime, loka, laskatu*¹⁵⁰ (askatu) ...

+ Erdian: *kale, bele, kupela, txapela, kuleka, gailtze, zailtza, zailtzie, dailtze, ilbeltza, bela* (brehala), *belexe* (brehalaxe), ...

+ Bukaeran: *pil-pil, mutil, makil, al* (ahal), *il, makal, pattal, zimel, dal-dal, ...*

Ikus daitekeenez, bai erdiko posizioan nola bukaerakoan, /i/ bokala edo erdi-kontsonantearen ondoren ez da sabaikaritu edo palatalizatzen, hitzaren erdiko posizioan kontsonante baten aurrean agertzen denean, eta hitzaren bukaeran ere ez. Azken kasu honetan, hitza mugatzea besterik ez da behar palatalizatzeko:

mutille, makille, ille (baina ‘ildako’)

Eta gauza bera gertatzen da IBILI aditzaren N erako singularreko formekin, albokariaren ondoren bokala agertzen baita:

naille (nabil), *a(i)lle* (habil), *da(i)lle* (dabil)

¹⁵⁰ Nahastu egiten du Mitxelena aditz hau *lazkatu* (nazkatu) aditzarekin: (1977, 324) “Por otra parte, es altamente probable la pérdida en a.-nav. guip vizc. *Askatu* ‘soltado, desatado’ < **lascare*, cf. Guip. Echarri-Aranaz *lazkatu* ‘aflojado’, cast. (y bilb.) *lascar* (Corominas, s.v. *lasca*)”.

Gogoratu pluraleko formak ez dutela palatalizaziorik jasotzen albokariaren ondoren kontsonante bat doalako: *gailtze*, *zailtze*, *zailtzie*, *dailtze*.

b) [j] fonema:

Albokari ahostun sabaikoa. Hitzaren hasierako posizioan ez da ia agertzen fonema hau. Eta ia diogu, ezen Etxarrin kasu batean jaso ahal izan dugu, izengoiti baten kasuan: *Llollo*.

Bestalde, bukaera posizioan ere ez da ageri. Gogoratu hortzobietakoaren kasuan genioena, /i/-ren ondoren ere ez dela sabaikaritzen hitzaren bukaeran dagoenean.

Beraz, soilik hitzaren erdian aurkituko dugu albokari sabaikoa eta kasu guztietan ia (salbuespen bakarra jaso dugu: *baballeka*, /i/ bokalaren ondorioz palatalizatua:

ollo < *oilo*

ollesko < *oilasko*

ollenda < *oilanda*

oller < *oilar*

mille < *mila*

otseille, -a < *otsaila* (baina 'otsailko'¹⁵¹)

makille, -a < *makila* (baina 'makil')

mutille, -a < *mutila* (baina 'mutil')

ille, -a < *hila* (baina 'il' eta 'ildako')

solle, -a < *soil* (baina 'soil-solle')

selle, -a < *sail* (baina 'seil')

billetu < *bilatu*

sugendille, *subendilla* < *sugendila*, *xegundilla* ere bai Etxarrin

illate < *hilabete*

mellu < *mailu*

pillota < *pilota*

ibilli < *ibili*

billera < *bilera*

langille, -a < *langile*

¹⁵¹ Etxarriko Josetxo Artiedak Saturnino Zabala Igoa zenari entzun zion kontatzen bere aitona batek, artzaina bera, behin batean, Otsailaren 28ko gauean, horrela esan zuela hilabete beldurgarria pasatua zelakoan, ardiak Urbasako mendira hurrengo egunean eramango zituelarik: "Otsailko, Otsailko ibilko ttuk igatik nee ardiyek mendiyen salto ta brinko". Baina ez zuen kontuan izan, nonbait, urte bisiestoa zela eta, hurrengo egunean, 29an, izugarrizko elurtea bota eta artalde gehiena hil zitzaion mendian. Hala ere, lortu omen zuen gutxienez aharia bizkarrean herrira ekartzea, baina menditik jaisten ari zela, Etxarriko Askaren parean nonbait ahariak, bizkar gainean mugitzen hasi eta adarrarekin begi bat lehertu omen zion artzainari.

pille, -a < pila
zille, -a < zila
illeba < iloba
iller < ilar
*ostrilleka*¹⁵² (ostadarra)

Arakamak Uharteko dotrinan (1994) ere jaso ditu horrelakoak: *illec*,
aillegacen, illtceco, ...

c) Alternantzia edo txandaketak.

• **l / d txandaketak:**

Hortzobietako albokaria eta hortzetako herskariaren arteko alternantzia edo txandaketa gertatzen da.

elur baina *ider* (ilar) eremuko herri guztietan
belar *idergi* (ilargi) Etx., Arr. eta Lakuntzan, gutxienez
zider (zilar) / *zillerra*: Etx, Arr, Lak / Uh, Ira,

• **l / n txandaketak:**

Aipatutako albokaria eta hortzobietako sudurkariaren artekoa dugu.

larru: Etx, Arb, Erg, Lak, Arr
laurri / *neurri*: Etx, Erg, Lak, Arb, Arr, Uh, / Irañeta,
lazka / *nazka*: Etx, Arb, Erg, Lak / Arruazu
lasei: Etx, Arb, Erg, Arr, Lak

/n/-dun aldaerak, batik bat, Burundan agertzen dira, mendebaldeko joera erakusten dutelarik; Sakanako erdikaldean aldiz, kasu honetan ere goi-nafarreraren aldera jotzen du /l/-dun aldaerekin.

Hau guztia, hitzaren hasierako txandaketei dagokienez. Hitz tartean berriz, /n/ sudurkariaren aldekoa suertatzen da txandaketa bi kasutan gutxienez, eta beste kasu batean albokariaren alde:

¹⁵² Sebastiana Igoa eta Mikaela Mauleon etxarriar andreak, 82 urtekoa hau, konfirmatu dute hitz hau erabiltzen dela *Jangoikuen gerrikue* hitzarekin batera. Gure ustean, ondorengo izango litzateke bere bilakabidea: *oste* (ortzia edo zerua) + *huri* + *leka* → *ostrilleka*. *Leka* hitzak badu arrastoaren esanahia, beraz zeruan euriak uzten duen arrastoa izan daiteke. H. Knörrek (2000, 188), berriz, horrela dio: “Bähr noted how in the Gipuzkoa dialect there is a predominance of the word *ostrailaka* and this is probably due to some kind of crossing with the Spanish word *estrella* (meaning “star”). In fact, according to Bähr, this phenomenon is called *estreila* in places such as Ormaiztegi. He also quotes the word *estrelaje* from Gipuzkoa to mean “milky way” (obviously from the Spanish word *estrellaje*)”.

arro(u)ntza, -e < arraultza
gildde, *gilda* < ginda

• **r / l txandaketak:**

Jarraian ikusiko dugunez, orokorra dugu albokaria eta dardarkari xamurraren arteko txandaketa hauxe hitz eraketan, baina azken adibidea da nahiko adierazgarria:

afaldu < afari + -tu
bazkaldu < bazkari + -tu
gosaldu < gosari + -tu
*axkolto*¹⁵³ < aizkora + -t(x)o
ernaldu < ernari + -tu
atalaga < atari + -aga
*fale*¹⁵⁴ < joare

d) “**Muta cum liquida**” delakoaren joera desberdinak.

• **t → Ø / ___l**

lenbeilen < *lehen bai(t)lehen*

• **c → Ø / ___l**

loka < clueca (monoptongazioa eta guzti) *Kuleka* ere esaten da.

e) **pl-** eta **fl-** taldeen egonkortasuna.

Aipatu kontsonante taldeak, berriz, mantendu egiten dira kasu askotan:

planta
flore
plumetu
platera, baina zenbaiti entzun dakioke *flatera*¹⁵⁵ Arbizun.

¹⁵³ MITXELENA, K. (1977, 127): “En palabras de más de dos sílabas se pierde la vocal final, cualquiera que sea, siempre que la consonante precedente pueda quedar en posición final: (...) com. *(h)euskaldun* ‘vascongado, de habla vasca’, de *(h)euskara* ‘lengua vasca’; mer. *azkoltxo* ‘azuela’, de *axkora* ‘hacha’; ...”

¹⁵⁴ I. CAMINO (1995, 322): ‘fare’.

2.2.5. IGURZKARI AUTONOMOAK.

Autonomo bezala katalogatzen dira gainerako fonemekin ez dutelako korrelaziorik eta horregatik, hain zuzen ere, suertatzen dira hain erorkor eta aldakorrak. Guk, hala ere, igurzkari autonomo hauekin batera [j] sabaiko igurzkari ahostuna ere aztertuko dugu, atal honen hasieran esan dugun bezala [d̪] sabaiko herskari ahostunaren ahoskera berdina badu ere, jatorri eta bilakabide desberdinak baitituzte, eta azken hau herskariaren atalean aztertu badugu, oraingoan igurzkariaren txanda izango da.

Beraz, bi fonema autonomo, [x] eta [f], eta sabaikoa bestea izango ditugu aztergai atal honetan. Baina sabaikoa lehenaren, belarearen, ahoskeraren barruan sartzen denez, hura aztertzerakoan izango dugu kontuan.

2.2.5.1. [X], <J>, FONEMA:

Belare igurzkari ahoskabea. Ahoskera desberdinak agertzen ditu Euskal Herrian eta Nafarroan, hiru gutxienez bai aipatu lurraldean: gazteleraren modukoa, [x]; sabaiko igurzkari ahostuna, [y]; eta sabai-aurreko igurzkari ahoskabea, [š].

Gure azterketaren esparruan [x] belare igurzkari ahoskabe edo gorra da zabaldurik dagoena:

jarri
jo
jan
jaun
jatxi/jetxi
jantzi
josi
ajola

Mailegu berriak eta liturjiako hitzetan [x] belare igurzkari ahoskabearekin gauzatzen dira, eta Uharteko dotrinan¹⁵⁶ ere horrela agertzen da gehienetan:

[x]ertsie (jersey)

¹⁵⁵ Arbizuarrek etxarriarrei egokitzen dieten kantana, horrela entzun daiteke zenbaiten ahotan: “Etxarriarra kukute, mando zar bat il dute, ura jateko ura jateko, **flaterik txar bat ez dute!**”

¹⁵⁶ Arakama (1994, 575): “... eta [x-], azkeneko hots igurzkari belare ahoskabea da dotrinan islatuko dena: *jaitchi, Jaun, Jangoyco, jai, jarriric, jayo ...*; batzutan grafia zalantzazkoa izanagatik ere hots berbera dugula iduri du: *ge(i)quicien, gatién (3) ‘jan’, Gaungoyco (13) kasurako*”.

ma[x]ue (majo)
[x]unte (junta)
benta[x]a (ventaja)
ba[x]ue (bajo)
[x]uramentube (juramento)
[x]uzgetu (juzgar)
pro[x]imue (prójimo)
bir[x]iñe (virgen)

Hala ere Mitxelenak¹⁵⁷ dio Arakilgo zenbait herritan Nafarroako mendialdeko ahoskera nagusitzen dela hitz batzuetan, eta honek Olloko hizkerarekiko lotura edo lerraketa erakusten du.

2.2.5.2. [J], < Y > SABAIKO IGURZKARI AHOSTUNA.

Nahiko hedatua da eremu osoan honen ebakera, baina ez /j/, [x], fonemaren burutzapen edo ebakera gisa, beste batzuk direlarik hauxe gertatzeko arrazoi edo bilakabideak:

a) e- > y / _ d,g,r + V.

Mitxelenak¹⁵⁸, nahiz eta aipatzen dituen adibideak desberdinak izan, bilakabide hau oso zaharra dela dio. Hau da, hasierako /e/ bokala itxi edo disimilatu eta kontsonantizatu egiten da jarraian kontsonante erorkor eta bokal bat daramatzanean (ikus bokalismoa, 71-72 orriak). Bilakabide hau, gutxienez, Etxarri, Lizarraga, Unanu eta Lakuntzan gertatzen da:

yan < edan
yantzi < erantzi
yosi < erosi

O. Ibarrek (1995, 267 or.) ere, ondorengo adibideak jasotzen ditu:

edaten → [j]aten
 erakusten → [j]akusten
 eraman → [j]aman ...

¹⁵⁷ MITXELENA, K. (1977. 170): “ Don I. Ayerbe ha tenido la amabilidad de comunicarme (14-8-1956) que en Huarte-Araquil y pueblos situados más al este en el valle del río Araquil (Irañeta, Murguinduet, Yabar) predomina entre los ancianos la pronunciación [š] en palabras como *jan*, *jantzi*, *jarri*, *jorratu*, *jokatu*, *jaka*, mientras que los jóvenes que hablan vascuence pronuncian generalmente [x]. En *jauna* y *Jaungoikoa* esta última pronunciación es única, incluso en las personas de más edad.

¹⁵⁸ MITXELENA, K (1977, 119): “Es sin duda muy antiguo el cambio de *e- a j-, que luego ha tomado muy distintos valores según los dialectos, ante raíces verbales con inicial vocálica: com. *jakin* ‘saber’ < *e-aki-n, *joan* ‘ir’ < *e-oa-n, etc.”

Eta ikusi gure azterketaren esparruko Etxarri, Lizarraga, Dorrao, Unanu eta Lakuntzan suertatzen diren hitzen oposaketak, zeinetan kontsonante igurzkiaren arabera gertatzen den hitzaren esanahiaren aldaketa:

Yan (edan) ≠ *jan*
Yantzi (erantzi) ≠ *jantzi*
Yosi (erosi) ≠ *josi*

b) -h,g,d,n- > y / i __ V

Zintzurreko /h/-aren testigantza erakusten dute hainbat hitzek, /h/ → /y/ bilakabidekoak baitira gehienak. Caminok (*Goñerriko hizkera I*, 48) ere jaso du burutzapen hau, beste hizkera batzuetan hasperena dagoen testuinguruan *i* bokalaren ondoko hots sabaikari frikari bat aipa daitekeela Ergoienean esanez. Horrela, Lizarragako euskaran *iyes* ‘ihes’, *iyor* ‘inor’, *oyu* ‘oihua’ edo *ziyuen* ‘zihoan’ jaso ditu; Etxarrin *biyurtu* ‘bihurtu’; eta Arakilgo Irañetan *iyesi* eta *liyoak* ‘lihoak’. Bestalde, *i* + *g* loturak ere bustidura eragiten duela diosku aipatu autoreak, ondorengo burutzapenak jaso dituelarik: *iyende* ‘igandea’ Lizarragan, eta *ityende* eta *igen/iyen* Uharteko dotrinan. Guk, ondorengoak jaso ditugu esparru osoan hedaturik:

<i>iyesi</i> (ihes)	<i>iyende</i> ¹⁵⁹ (igande)
<i>iyó</i> (eho)	<i>iyeketu</i> (igerikatu)
<i>biyer</i> (bihar)	(z) <i>iyel</i> (igel)
<i>iyertu</i> (ihartu)	<i>iyurtzi</i> (igurtzi)
<i>niyue</i> (nihoa)	<i>fiyetu</i> ¹⁶⁰ (fidatu)
<i>diyue</i> (dihoa)	<i>beye</i> (baina)
<i>biyurri</i> (bihurri)	<i>iyor</i> (inor)
<i>liyue</i> (lihoa)	<i>iyuare</i> (inora ere)
<i>miye</i> (mihia)	<i>iyun, iyon</i> (inon)
<i>leyo</i> (leiho)	<i>iyundie(a)nak, iyondienak</i> (inon direnak)
<i>baye, -a</i> (bahe)	<i>biyeje</i> (bidaia)
<i>biyotz</i> (bihotz)	<i>biyertie</i> (bitartean)
<i>oyu</i> (oihu)	
<i>giyer</i> (gihar)	
<i>geyo</i> (gehiago)	
<i>suye</i> (suh) (suhi)	

¹⁵⁹ Arakama (1994, 576): “ig- > iy- bilakaeraren inguruan bi adibide aurkitu ditugu: *iyen* eta *ityendetan* / *iguendetan* bikotea”.

¹⁶⁰ MITXELENA, K. (1977, 190): “Sobre todo en zonas guipuzcoanas y alto-navarras, *d* y *g* se han palatalizado, frecuentemente tras *i* : *fiyatu* ‘(con)fiado’, *giyatu* ‘guiado’ < *fidatu*, *gidatu* (...). El resultado de *id-*, *ig-* más vocal coincide en esas comarcas con el de *i* más vocal, de donde regularmente *iy-* más vocal”.

c) Aditzeko singularreko 2. pertsona.

Eta aditz formetan ere, singularreko bigarren pertsonaren hasierako /h/-aren azterna ere garbi ageri da:

(i) *yeiz* < (hi) haiz
 (ik) *yakan* < (hik) heukan
 (ik *einko*) *yauke* < (hik egingo) huke
 (i) *yueke* < (hi) hoake
 (ik *eman*) *yoan, ion* < (hik eman) hion

Azkuek¹⁶¹ esaten du goi-nafarrerako formak ditugula hauek. Ondarrak (1982, 172 or.) ere goi-nafarrerako hegoaldeko hizkera den Elkanokoa jaso du horrelako bilakabidea: *bayue, baue* txandaketa aurkezten digularik.

d) -i + -a > -iye/-iya.

Azkenik, sabaiko igurzkari ahostuna, /i/-z bukatzen diren lexemei deklinabideko morfema edo kasu markak eransterakoan agertzen zaigu, eta baita erakusleekin sortutako sandhietan ere:

mendiye/a, mendiyai, mendiyân, mendiyau, mendiyontan, ...
aneye/a, aneyai, aneyân, aneyau, aneyorrek, ...
gorriye/a, gorriyai, gorriyân, gorriyau, gorriyortan, ...

Honela jasotzen du O. Ibarrek (1995, 272-3) Ultzamako hizkeran:

“Silaba hasierako posizioan, azentuatu gabeko bokal altuak kontsonante bihurtzen dira; /i/ bihurtzen da sabaiko frikatibo ahostuna (/y/ batez ordezkaturia gure transkripzioan), eta /u/ frikatibo ezpain hobietakoa, W-ren bidez ordezkaturia.

Morfema mugetan mugatzailea eransterakoan, hurbilkari sabaiko ahostuna izango dugu [y] eta honen eraginez, mugatzailearen hurbileko asimilazioa sortuko da [a] → [e] / [y]__. Bilakabide hauek honako ingurunean sortzen dira: bokal altu bat diptongoaren azken posizioan + determinantea. Hona hemen argiago:

Bei+a artzai+a arrai+a asnai+a urdai+a goi+e gau+a
 [y] [y] [y] [y] [y] [y] [w]
 be[y]e artza[y]e arra[y]e asna[y]e urda[y]e go[y]e ga[w]e
 (...)

Erregela honek, bokal altu bat kontsonante bihurtzen du, silaba hasierako posizioan. Honela formula daiteke kontsonantizazio erregela hau:

¹⁶¹ AZKUE, R.M. (1931, 222-223 or.): “Esta y, como elemento paciente de segunda persona, figura en flexiones de varias comarcas del dialecto alto-navarro. Aun en Oyarzun, Ondarribia e Irun son todavía corrientes las flexiones *yaz* o *yaiz* eres, *yabilandas*, *yao* o *yago* estás y *yoa* te vas.”

[+goi] → [+kons] / [Sil__ , eta pausuak:

anaie → anaje → anaye.”

Eta guk, bakarrik, erants dezakegu Sakana erdialdeko hizkeretan ere gauza bera gertatzen dela, kasu batzuetan asimilazio aurrerakaria gehitu behar zaiolarik:

beye, artzeye, arreye, asneye, urdeye, goye, gaube, aneye, ...

2.2.5.3. [F] < F > FONEMA.

Ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabea dugu fonema hau. Beheko ezpainaren barne aldeak goiko hortzen puntak ikutzen ditu aireari pasa emanaz. Txillardegik (1980) esaten digu askotan entzun dela euskaran *f*-rik ez dagoela eta, horregatik apika, hizki honen kontrako gurutzada izan dela.

“Ezer baldin badago, ordea, Euskal Herrian barrena osoki sakabanaturik, *fan* hitza da (=joan). Bai Erronkarin, bai Sakanan, bai Hendaia-Hondarribian, bai Arrasaten, bai beste lekutan, *fan* entzuten da, *f* fonema [ϕ] ahoskatuz”

Aurrerago jarraitzen du esanez Gipuzkeran ez dagoela /f/ fonemarik eta adibide moduan ematen dizkigu hurrengoak: *pigura* (figura), *plakiya* (flaqueza), *puerte* (fuerte), *pama* (fama), *pillosopia* (filosofia), *pumatu* (fumar), *konporme* (konforme), *pantasiya* (fantasia).

Eta horrela dio autore berak:

“Luzaz eman da aintzakotzat euskaldunok ez dugula /f/rik ahoskatzen: ‘ezin’ omen dugula fonema hori esan; eta, ordez, /p/ esaten dugula: *pamiliya*, *Pernando*, *aparra*, *prutu*, eta abar.

Euskara Batua alfabetoa zedarritu beharra gertatu zenean, irizpide nagusiaren kontra jokatu behar izan zuen Mitxelena; eta, gaurko eta biharko hizkerari zegokionez, /f/ grafema bidezkoa eta beharrezkoa zela aldarrikatu zuen: ‘F, noski ontzat hartzekoa da, erdaratikako hitzetan ez ezik (fede, faltsu, etc.), baita ere bestelakoetan. Zuzenago dirudi, hain zuzen, *afari*, *alfer*, *Nafarroa* idazteak, beste edozein idazkerak baino’ (Arantzazuko Txostena; 1968; II, 1).

Hala ere, guza segurua da euskal /f/a, fonema ‘berria’ dela, korrelazio eskuarretan kokatu ezina (‘autonomo’ bataiatu nuen nik, egokiagorik ezean, 1980ko neure lanean). Ahoskeraz ere oso aldakorra da. ‘Es seguro –idatzi zuen Mitxelena- que su introducción es relativamente reciente’ (*Fonética H.V.*; 13.3, 262).

Ezpain-horzkaria eskuarki, bai. Baina baita [f] ezpainbikoa ere zenbait lekutan: **Barranka** inguruan, adibidez, Ana M. Etxaidek aspaldidanik azpimarratu duenez.” (1996, 12)

Azterketaren esparruan badira /f/-dun hitzak, eta ez bakarrik Txillardegik aipatu *fan* aditzarena, esan dezakegu nahiko zabaldua dagoela. Egia da

mailegatutako hitzetan erabiltzen dela gehienbat eta ez beti gainera, baina lehen esan bezala, ugari dira /f/-dun hitzak eta horietako batzuk dagoeneko euskal fonema jatortzat eman daitezke: *afai, franko, nafar, fan, ...*

Gogoratu, bestalde, Arbizu eta Ergoienako *fake* hitza, eta honetaz gain, Etxarrin ere maiz entzun daitekeen baiezko partikularen ahoskera: *fei* (bai).

Bestelakoak, hots, erdaratik hartutakoak, hauexek ditugu besteak beste (ikus *p/f* txandaketak, 156 orrian):

fago, festa, ferra (herradura), *fede, infernu, faltsu, falta, konfesatu, fiyetu, fresko, frutu, flore, franko, kafi*¹⁶² (habi), ...

Ikusten denez mailegu gehienetan /f/-ren aldeko txandaketa gertatzen da ahoskerari dagokionez, baina bestelakoak ere badira (*piru, piku, iper, alper, napar, pâxo*¹⁶³, ...) eta, horrexegatik, koadro batean jasoko ditugu azterketa esparruko herri guztietako burutzapenak (**Ikus II. koadroa**).

II. koadroa

	Etxarri	Lizarraga	Dorrao	Unanu	Arbizu	Lakuntza	Arruazu	Uharte
festa	festa	festa	festa	festa	festa	festa	pesta ¹⁶⁴	festa
fago	fago	fago	fago	fago	fago	fago	pago	fago
fede	fede	fede	fede	fede	fede	fede	fede	fede ¹⁶⁵
ferra	ferra	ferra	ferra	ferra	ferra	ferra	ferra	ferra
nafar	napar	napar	napar	napar	napar	napar	napar	napar
afaldu	afaldu	afaldu	afaldu	afaldu	afaldu	afaldu	afaldu	afaldu
infernu	infernu	infernu	infernu	infernu	infernu	infernu	infernu	infernu
alfer	alper	alper	alper	alper	alper	alper	alper	alper
pake	bake	fake	fake	fake	fake	bake	bake	pake

¹⁶² MITXELENA, K. (1977, 266): “Hay también ejemplos seguros de *b > f* entre vocales: (...); mer. *afia* ‘nido’, a.-nav. b.-nav. lab. *kafia* (ya Pouv.) < (*h*)*abia, kabia*; ...”

¹⁶³ MITXELENA, K. (1977, 264-5): “Parece claro que algunas variantes con *h-* son de introducción reciente (lab. *haro* ‘faro’ ya Pouv., sul. *Háxe* ‘haz’, *hólla* ‘hoja’, etc.), así como también aquéllas, frecuentes sobre todo en vizc., en que *f-* está representado por cero. También *p(h)-* puede ser indicio de una introducción reciente o resultado de un cambio secundario. Según Gavel, Elém. 303 ss., la correspondencia es lat. *f-*: vasc. *b-* en los préstamos más antiguos. Los préstamos con *p(h)-* son, a su juicio, de introducción mucho más reciente. Martinet, 307, considera, por el contrario, en relación con hechos castellanos y gascones, que los vascos reprodujeron al principio lat. *f* por /*p*/, es decir, [ph] en posición inicial: la aspirada se debilitó luego en una fricativa bilabial sorda, de donde *h-* y cero”.

¹⁶⁴ *Guaixe* 11, 22 orrialdea: ‘...; *herriko pestak prestatu*; ...’

¹⁶⁵ Uharteko dotrina.

Eta ahoskerari dagokionez, ezpain-hortzetako ahoskabea dugu maizen agertzen dena, baina Ana Maria Etxaidek¹⁶⁶ dioen moduan, bada zenbait hitzetan beste ahoskera bat, [f] **ezpainbiko igurzkari ahoskabea**, zeinetan aire pasa bi ezpainak elkarri ikutzean gertatzen den. Horietako gehienak hitz hasieran eta /u/ bokalak jarraitzen diola izango genituzke: *fuego*, *fuera*, *fuiimos*, *fuerte*, ... Guri ez zaigu iruditzen aipatu autoreak planteatzen dituen adibideetariko bat, *fama*, hemen sartu behar denik, kasu honetako /f/ hori ezpain-hortzetakoa dela uste baitugu.

2.2.5.4. ALTERNANTZIA EDO TXANDAKETAK:

a) j/f txandaketak.

Badira lauzpabost kasu eta oso hedatuak daude inguru guztian:

*fan*¹⁶⁷ / *juan*: Etx, Liz, Do, Un, Arb, /Lak, Arr, Uh¹⁶⁸,
*fale*¹⁶⁹ / *joare*: Etx, Liz, Do, Un, Arb, Arr, Uh, Lak /
forratu / *jorratu*: Etx, /Arb, Liz, Arr, Lak
forrei / *jorrai*: Etx, /Arb, Liz, Lak
ittefure / *itxixura*: Etx, Liz¹⁷⁰ / Arb, Arr, Lak

Fanixio / *Juanixio*: Etxarriko etxe baten izena da hauxe, eta bi eratan entzun daiteke.

Fantxonekue (Juantxonekoa): Etxarriko beste etxe baten izena.

Fantoniontxa (Juan Antonioren etxea): Arbizuko etxe baten izena.

b) /j/ eta txistukari igurzkarien arteko txandaketa.

Etxarri, Arbizu eta Ergoienan, argi eta garbi, belarearen aldekoa da alternantzia:

¹⁶⁶ ETXAIDE, A.M. (F.L.V. 25): “...en Etxarri-Aranaz la encontramos en : *fuego*, *afuera*, *fama*, *fuiimos*; sin embargo parece labio-dental ante r. En Unanua parece labial incluso ante r”.

¹⁶⁷ MITXELENA, K. (1977, 173): “De *joan* ‘ir’, vizc. Eibar, Elgueta, Placencia, guip. Alsasua, Olazagutía, Echarri-Aranaz, a.-nav. Fuenterrabía, aezc., sal., ronc. Vidángoz *fan*, vizc. Placencia y Oñate *fuan* ...”.

¹⁶⁸ Behin baino ez bada ere, ezpain-hortzetako igurzkari ahoskabea agertzen da Uharteko dotrinan (Bonaparteren ondareko eskuizkribuak, 624): “..., *purgatoriora fatendiren animec* ...”. Eta ondorengo ohartxo gaineratzen du: “Aurretik ‘juan’ agertu da; kasu honetan, aldiz “fan” formaz baliatzen da”.

¹⁶⁹ MITXELENA, K. (1977, 173): “De *joale*, *joare* ‘cencerro’, aezc. guip Echarri-Aranaz *fare*, ...”

¹⁷⁰ *itxufura* aldaera jaso dugu guk.

jaski / saski
jaunkes / zaunkaz
jabona / xaboia

c) j/k alternantzia:

bilibirjiñ (billabarkin)
Kaxinto (Jazinto)
jendu (kendu)
*kijerika*¹⁷¹ (kikara txikia)

2.2.6. DARDARKARIAK.

Bi dira azterketa esparruan dauzkagun dardarkariak, [r] dardarkari bakun edo xamurra eta, [r̄] dardarkari azkarra.

2.2.6.1. [R], < R > DARDARKARI XAMURRA.

Hortzobietakoa da, mihipuntak hortzobietan jotzen du eta airearekin batera, pasatzerakoan, aurrerantz etortzen da.

• **Hitz hasieran eta bukaeran.**

Ez da **hitz hasieran** agertzen, eta **bukaeran** kasu askotan ez bada ere, bai agertzen zaigu, dardarkariz bukatzen den lexema bati atzizkia eransterakoan edota sandhietan ikus daitekeen moduan:

zeresan dau orrek! (zer esan du horrek!)
zurakin eitten dik lana (zurarekin egiten du lan)
ezere eztau esan (ezer ere ez du esan)
ekar zak plateroi! (ekar ezak plater hori!)
iyorez! (inor ere ez!)
biyerartio! (bihar arte)
gazurasko zikok! (gazur asko zeukak)
irurek etor die (hirurak etorri dira)

¹⁷¹ Etxarrin, haur joko batean erabiltzen da: “Kijerika, kaxulika, kaxulon”. Ondorengoa izan daiteke bere jatorria: *kikara* > *jikara* (j/k txandaketa) > *kijara* (metatesia) > *kijera* (asimilazio atzerakaria). Eta hemendik Nafarroako atzizki txikigarria, *-ico/a*. Hala ere, askori entzun dakiok ‘*tijerika*’, eta hauxe izango dugu seguru aski hitza, behatzak gurutzaturik adierazten baita jokoan, guraizeen modura.

laurek jo zittun (laurak jo dizkin)
pitxerure (pitxar hura)
papereskue (paperazkoa)

- **Hitz erdian.**

Hitz erdian ere ez dira asko jaso ditugun adibideak, oso erorkorra baita kontsonante hau bokal artean doanean:

$r \rightarrow \emptyset / V _ V$

nua (nora), *azpitti gua* (azpitik gora)
etxia (etxera), *batia* (batera), *atzia* (atzera)
noon (noren), *amaan* (amaren)
noi (nori), *launai* (lagunari)
nookin (norekin), *gizonaakin* (gizonarekin)
Mañelaana (Mariñelarena)
biandu (berandu)
biatza (beratza)
beendu (merienda)
biotu (berotu), *eroi* (erori), *atei* (ateri)
bia (bera), *goitti bia* (goitik behera)
aiztai (ehiztari), *nekazai* (nekazari), *pilotai* (pilotari)
baatze (baratze), *ezkaatza*¹⁷² (ezkaratza)
maadi (maravedi), *maatille* (maratila)
koosti (gorosti)
prepaatu (preparatu)
boondate (borondate)
gaagarra (garagarra)
gaa (gara), *zaa* (zara), *die* (dira)
yaaman (eraman), *yoosi* (erosi), *yaantzi* (erantzi), *yaniaun*
 (herenegun), *guai* (orain), *yoorrek* (herorrek), ...
zikiyo (zikiro), *gio* (gero)
launbeta (larunbata)
aittu (aritu), *aazi* (arazi), *baatxui* (baratxuri)
ixtor (iraztoi¹⁷³, ira, garoa)

- **Dardarkari azkarraren aldeko neutralizazioa.**

¹⁷² I.CAMINOk (Aezkera, 1997) Garralda-n jasotzen du hitz hau.

¹⁷³ Horrela jaso du I. CAMINOk (Aezkera, 1997) aezkoako Iriberrin. Gure ustean oinarri berdineko hitzak dira eta ondorengoa izango litzateke bilakabidea: *iraztoi* > **iaztoi* > **iztoi* > *ixtor*

Eratorepeneko atzizki batekin gertatzen da eta ez kasu guztietan gainera:

-GURA → -KURRE (-GORRI)¹⁷⁴

pixekurre < txixagura

kakakurre < kakagura Baina, *azgure*

Atzizki honetaz gain, bada beste kasu bat:

*tarratulu*¹⁷⁵ < daratulu

• **/u/-ren ondorengo dardarkari xamurraren aldaketa.**

Ur hitzarekin egindako konposizioetan gertatzen da jaso ditugun hiru kasuetan, ondorengo bilakabidea iragarri dakiokelarik:

[r] → [h] → [b] / u__V

Uberte < *Uharte* < *Urarte*

*ubelde*¹⁷⁶ < *uhalde* < *uralde*

*Ubondo*¹⁷⁷ < *uhondo* < *urondo*

Ubela < *uhala* (gerrikoa)

2.2.6.2. [R], < RR>, DARDARKARI AZKARRA.

Xamurraren kasuan aipatutako mugimendua errepikatzerakoan bibrazioa sortzen da.

• **Hitz hasieran.**

Mailegu berrietan ez da bokal protetikorik sartzen:

¹⁷⁴ Ergoienako atzizkia dugu hauxe: *pixegorriye,-a*; *kakagorriye,-a*.

¹⁷⁵ MITXELENA, K. (1977, 258): “(...); ronc. *garatulu* (vize. *laratro*) ‘taladro’, cf. *daratulu*, *da(r)aturu*, etc.”

¹⁷⁶ Horrela esaten diote ibaia-ri Arbizu-n.

¹⁷⁷ Etxarriko toponimoa: *Ubondo-ko zuye* ‘Ubondo-ko zubia’.

raza, radiyo, remolatxa, ronda, rekexona, roskille, reume, rubiyo, redondue, rarue, rize tube, remolkie, ratue, reuniyue, rasionamentube, redios!, Rusie, Roma, repartittu ...

Eta bestela, hitz onomatopeikoak dira ζ anitzarekin hasten direnak:

rau! (momentuan egindakoa edo bapatekotasuna adierazteko)
rixt! (erraz mozten den zerbait adierazteko, edo berehala egiten dela)
ri-ra! (pentsatu bezain laster edo gehiegi pentsatu gabe egiten den ekintza)

Bestelakoak, bokal protetikodunak ditugu:

RA-	RE-	RO-	RU-
<i>arratoi</i>	<i>errezatu</i>	<i>arropa</i> ¹⁷⁸	<i>errueda</i>
<i>arrazoi</i>	<i>erriatu</i>	<i>errosayo</i>	
<i>arraziyo</i> (ración)	<i>errege</i>	<i>errota</i>	
<i>erreñu</i> (rayo)	<i>erremeyo</i>	<i>erromei</i>	
<i>errabiye</i>	<i>errespeto</i>		
<i>arrastaka</i>	<i>errenta</i>		
<i>Ze arrayo!</i>	<i>erreka</i>		
<i>arraso</i> (erabat)	<i>errendittu</i>		

- **Kontestu inplosiboko dardarkariak.**

Hitz bukaeran aurkitzen diren dardarkariak, ζ anitzera neutralizatzeko joera erakusten dute Sakana erdialdeko hizkeretan, toki gehienetan bezala:

ezkurraik (ezkur haiek)
aitzurrure (aitzur hura)
kaldorrartan (gailur hartan)
muxerrasko (muxar asko)
biorraikin (behor haiekin)
gezurretan
malkorramendi

- **Bokal arteko dardarkari azkarraren galera.**

¹⁷⁸ MITXELENA, K. (1977, 156): “Or. (oriental) *arropa* ‘ropa’, guip.vizc. *erropa*; ...”

Oso kasu gutxitan bada ere, jaso ditugu bi gutxienez bokalen artekoa eta beste bat bokal eta kontsonantearen artekoa. Hauxe izango litzateke bilakabidea:

$\acute{r} \rightarrow \emptyset / V_V$

*atsalde*¹⁷⁹ < arratsalde

beix < berriz

Eta bokala eta kontsonantearen artekoa, *nok*¹⁸⁰ < nork:

'*Nok esan duuzu ori?*' (Nork esan dizu hori?)

'*Nok ein dau?*' (Nork egin du?)

• **Bukaerako dardarkariaren galera.**

Bi dardarkariak dira galtzen direnak, bakoitza kasu batean besterik ez bada ere:

+ *Zer* galdetzailearen kasuan:

Ze esan dezu?

Aze politte! (Ah zer polita!)

+ *Behar* aditzaren kasua sandhietan:

Ein biezu? (Egin behar duzu?) (Etxarri)

Fan biduu? (Joan behar dugu?) (Arbizu)

(Etxarri)

(Arbizu) (Ergoiena)

<i>biet</i>	behar dut	<i>biaut</i>	<i>biot</i>
<i>biek-n</i>	“ duk-n	<i>biauk-n</i>	<i>biok-n</i>
<i>biau</i>	“ du	<i>biau</i>	<i>bio</i>
<i>biegu</i>	“ dugu	<i>biduu</i>	
<i>biezu</i>	“ duzu	<i>biauzu</i>	
<i>biezubie</i>	“ duzue	<i>biazubie</i>	
<i>biebie</i>	“ dute	<i>biaubie</i>	

¹⁷⁹ MITXELENA, K. (1977, 165): “Hay también aezc. Sal. *arts*, a.-nav. Baztán, lab. Hendaia *ats* ‘(primeras horas de la) noche’, del com *arrats*: la síncopa ha podido producirse en el primer miembro del compuesto muy usado *arratsalde* ‘tarde’, aezc. sal. *artsalde*, a.-nav. Baztán lab, vizc. Mondragón *atsalde*.”

¹⁸⁰ I. CAMINOK (Aezkera, 1997) Orbaizetan ere jasotzen du eta ohartxoan esaten du Muniberen *El borracho burlado*-n ere badela *noc* (Mendiguren 1987:152).

- **-lr-, -nr- kontsonante taldeak.**

Mailegatutako bi kasutan aipatu kontsonante taldeari /d/ herskari hortzetako ahostuna tartekaturik agertzen da:

endriatu < enredar
*ondratu*¹⁸¹ < honrar
aldrebes < al revés

- **C + r inguruneak.**

Euskarak berezkoak dituenak, lau /e/ bokalaren sinkopari esker gertatutakoak ditugu eta bostgarrena, /u/ bokalarenari. Azken hau, gainera, Arbizura mugatzen da. Besteak hitz mailegatuak ditugu:

andre < andere *bedratzi* < bederatzi
sobre < sobera *sobran* < soberan
libru < liburu (Arbizu)

kruze (errepideetakoa), baina *guutze* (crucifijo).
*pratu*¹⁸² (probar)

- **Aurkakotasunak:**

ari(jostekoa) ≠ *arri*
zure ≠ *zurre*
gora ≠ *gorra* (gogorra)
ure (hura) ≠ *urre*

2.2.7. SABAIKARITZE EDO PALATALIZAZIOA.

Guk, puntu honetan, palatalizazio edo bustidura ez adierazkorrari erreparatuko diogu, eta ez espresiboari.

Azterketa esparru osoan gertatzen da aipatu palatalizazioa, baina kasu gehienetan, sabaikaritu edo bustitzen den kontsonantea lexemaren bukaeran agertzen ez denean, hots, atzetik bokalen bat daramanean, jarraian ikusiko dugun moduan, Ana María Echaide-k kontrakoa esaten badu ere “*Distribución de las variantes palatalizadas y no palatalizadas*”

¹⁸¹ Etxarriko esaera zahar batean agertzen zaigu: ‘*Gu meye mei ondratu, leno lertu ze sobratu*’, (Gure mahaia mahai onratu, lehenago lehertu zer sobratu).

¹⁸² $V_1 V_2 > V_2 V_2 > V_2$ da bere bilakaera: *probatu* > *proatu* > *praatu* > *pratu*.

*de l y de n debidas al contexto fónico en los dialectos vascos. Con datos recogidos del 'Erizkizundi Irukoitza' o 'Triple Cuestionario' "*¹⁸³ *lanean. Horrela beraz, i-ren ondoan palatalizazioa gertatzen da sistematikoki, morfema mugetan, -a mugatzailea eranstea, eta morfemen barruan ere bai. Diptongoetako bokalerdia dugunean, bestalde, desagertu egiten da hauxe, kontsonantea bustitzearekin batera. Eta ondorengo erregela orokor hauek ditugu esparru osoan, palatalizazioari dagokionez:*

• $n \rightarrow \tilde{n} / i, j _ _ V$

amiñe, -a
fiñe, -a
axuñe, -a
geñen
eiñen (eginen)
zeñek
beñobeste (behin edo beste)
giñuben
ziñuben
biñe (bina, distributiboa)
soñeko
oñetako

Baina: *amin, fin, axuin, gein, ein, zein, bein, ...*

Maileguei dagokionez, badirudi gaztelerako mailegu zaharretan mantendu egiten dela kontsonante sabaikaria: *goñedo, goñeta, señele, gazteñe, geñu (guiño), keñu (caño), ...*

Eta beste zenbait mailegutuan, nahiz eta gaztelerako hitzek kontsonante sabaikaririk ez eduki, Sakana erdialdeko hizkeran bai agertzen zaizkigu kontsonante horiek sabaikariturik: *galtzetiñek, sanfermiñetan, fiñek, oñele*¹⁸⁴, *koziñek (kuntzak), manzeliñe*

¹⁸³ Ondorengoa esaten du aipatu autoreak lan honetan:

“a) ‘l’ y ‘n’ precedidas de ‘i’ vocálica y seguidas de vocal. (...) En la provincia de Navarra las formas palatalizadas abarcan la parte occidental hasta el valle de Esteribar (excluido), es decir, toda la parte correspondiente al dialecto alto-navarro septentrional y la parte occidental del alto-navarro meridional. **Hay que excluir también** las poblaciones lindantes con la provincia de Guipúzcoa cuyas hablas suelen considerarse del dialecto guipuzcoano (Olazagutía y **Echarri-Aranaz**).” Eta horrela jarraitzen du:

“b) ‘l’ y ‘n’ precedidas de ‘i’ semivocálica y seguidas de vocal. (...) **Se da palatalización también** en toda Guipúzcoa y Navarra, **salvo** el valle del Roncal, en el extremo oriental, y los pueblos navarros de dialecto guipuzcoano, Olazagutía y **Echarri-Aranaz**.”

(A.M.ECHAIDE, ‘Distribución de las variantes palatalizadas ...’, *F.L.V.* 23, 1976, 166-167)

¹⁸⁴ Honelakoa behar du izan hitz honen bilakabidea: *orinal(e) > oinale > oinele > oñele*.

(metatesia eta guzti), ... Hala ere, mailegu berriagoetan ez dira palatalizatu kontsonante horiek: *makine* (tresna), *gasoline*, *piszine*, *mandarine*, *gabardine*, *kabine*, *karabine*, ...

• $l \rightarrow ll / i, j _ V$

mutille, -a
makille, -a
illik
pille, -a
billetu
pilletu
selle, -a
melle, -a
mille, -a
mellube, -a
ollo, ollenda, ollerra

Baina: *mutil*, *makil*, *il zan*, *pil-pillen*, *seil bet*, ... Bestalde, zenbait maileguren kasuan, ez da bustitzen: *kilo*, *kilometrue*, ...

• $t \rightarrow tt / i, j _ V, \#$

Kasu honetan ez da beharrezkoa bustitzen den kontsonante herskariaren atzean bokalik egotea, eta diptongoetako bokalerdia ere ez da galtzen:

aittune, -a
itturri
ttut (ditut)
muittu
nolabeitt
politt
azpitti, goitti, Iriberritti, Olaztitti

Azken adibideotan ikusten den moduan, *-i* bokalez bukatutako lexemei ablatiboko morfema eransterakoan ere, palatalizazioa suertatzen da.

• $s \rightarrow x / i, j _ V$

ixo, ixildu
pixube, -a
geixo
aixe

- **-int-, -ind- eta -ild- kontsonante taldeak.**

Aipatu kontsonante talde hauek, kasu guztietan ez bada ere, palatalizatu egiten dira zenbaitetan:

pintterdi
indderra
me(i)nddere
*ape(i)nddu*¹⁸⁵
ainddu (agindu)
gildde (ginda, gerezia)
munttei (m(u)integi)

Baina: *bildu*, *bildur*, *mindu/minddu*, *zikindu/zikinddu*, ...

2.2.8. ERROTAZISMOA.

Esan daiteke ez dela errotazismo kasurik gertatzen azterketa esparru osoan. Guk burutzapen bat baino ez dugu jaso behintzat, *ortots* (ostots, trumoi) Uharten, eta galdetu badugu ere, gainerako guztietan *-st-* kontsonante taldez osaturiko emaitzak jaso ditugu:

Bost
Beste
Esan
Ostegun
Ostiele
Aunbeste
Itxi
Masusta
Este
Ostrilleka

Uharteko dotrinan *beste* eta *bost* agertzen dira beti. Hala ere, A.M. Echaidek (1984) *ortzilare* jaso zuen herri honetan, eta ekialderantz joanez hurrengo herria den Irañetan, berriz, *ortzegun* eta *ortzilere*. Gaur egun, Arakamak (1994) dionez, *orzilerie* izango genuke aipatu Irañetan. Bestalde, A.M. Echaidek (1989) *esan* eta *erran*, bi aldaerak jaso zituen Irañetan eta Ihabarren artean dagoen Murginduetan.

¹⁸⁵ Etxarrin asko erabiltzen da ondorengo esaldia: “*Arrapatzen dubetenien apenddukuaut!*” (Harrapatzen *diadanean apainduko haut!).

3. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

3.1. IZENORDAINAK

3.1.1. PERTSONA IZENORDAIN ARRUNTAK

Ondorengo koadroan azterketa esparruko herriz herriko pertsona izenordainak jasotzen dira. Forma bat baino ez denean ageri, esparru osoan horixe bera erabiltzen delako da; bestela, parentesi artean aipatzen dugu errealizazio bakoitzeko herriaren laburdura.

ABS.	ni	i	gu	zu	zuek, zub(u)ek (Arb.)
ERG.	nik	ik	guk	zuk	zuek, zub(u)ek (Arb.)
DAT.	nai, nei ¹ (Arb, Lak)	iri, ii (Arb.)	gui	zui	zuei(ri), zub(u)ei (Arb, Lak)
GEN.	nee, nei (Arb.)	ii, i (Arb.), ide (Liz)	guu, gui (Arb.), gue (Liz)	zuu, zui (Arb.)	zuen, zub(u)en (Arb.)
	nerie, neia (Arb.)	irie, ia (Arb.)	gurie, guia (Arb.)	zurie, zuia (Arb.)	zuena, zub(u)ena (Arb.)
DES.	netako	iteko	guteko	zuteko	zuendako, zub(u)endako (Arb.)
ASO.	neki	iki	guki	zuki	zueki, zub(u)eki (Arb)
INE.	ne(i)beitten ²	ibeitten	gu(i)beitten	zu(i)beitten	Zuenbeitten, zub(u)en beitten (Arb)
ADL.	ne(i)gana	igana	gu(i)gana	zu(i)gana	zuengana, zubengana (Arb)
AD.B.	ne(i)ganaño	iganaño	gu(i)ganaño	zu(i)ganaño	zuenganaño, zubenganaño (Arb)
ABL.	ne(i)gandi	igandi	gu(i)gandi	zu(i)gandi	zuengandi, zubengandi (Arb)
G.LO.	ne(i)beitteko	ibeitteko	gu(i)beitteko	zu(i)beitteko	zuenbeitteko
MOT.	ne(i)gati	igati	gu(i)gati	zu(i)gati	zuengati, zubengati (Arb)
INS.	nites	ites	gutes	zutes	zuetas, zubetas (Arb)

¹ Sinkretismoa dugu, beraz, Arbizuko hizkeran datibo eta genitibo kasuetako ia forma guztietan.

² Parentesi barruko bokala daramaten burutzapenak, Arbizukoak ditugu: *neibeitten*, *guigana*, *zuigandi*, ...

3.1.2. FORMA INDARTUAK.

Izenordain intentsibo hauei dagokienez, absolutibo eta ergatibo kasuak baino ez ditugu koadroan azalduko, gainerakoak deklinabideko kasu desberdinetako morfemak erantsiz gauzatzen baitira, normala denez. Horrela bada, bigarren pertsonako izenordain intentsibo edo indartua hartzen badugu, ondorengo eran gauzatuko litzateke deklinabideko kasu guztietan Etxarrin, izenorde pertsonal arruntak azaltzerakoan erabilitako orden berebean:

*Yori*³, *yorrek*, *yorri*, *yorren*, *yorrena*, *yorrendako*, *yorreki*, *yorren beitten*, *yorrengana*, *yorrenganaño*, *yorrengandi*, *yorren beitteko*, *yorrengati*, *yorretas*.

I. Caminok (1998) ere, galdetzaile pertsonalen atalean, aezkeran, ondorengo formak jaso ditu: *yor*, *york*, *yorri*, *yoren*, *yoreki*, *yorendako*, *yortas*.

	etxarri	lizarraga	dorrao	unanu	arbizu	lakuntza	arruazu	uharte
ni	nioni, nionek	nioni, nionek	neroi, nionek	nioni ⁴ , nionek	neroi, nionek	nioi, nionek	neoni, neonek	neoni, neonek
i	yorri, yorrek	yorri, yorrek	yeroi, yorrek	yeroi, yorrek	yor, yorrek	yoi, yorrek	yorri, yorrek	yorri, yorrek
gu	gioi, giok	gioi, giok	geroi, giok	gioi, giok	geroi, giok	gioi, giorrek	geoi, geok	geoi, geok
zu	zio(r)i, ziorrek	zio(r)i, ziorrek	zeroi, ziorrek	zioi, ziorrek	zioi, ziorrek	zioi, ziorrek	zeoi, zeok	zeoi, zeok
zuek	zioik, ziok	zioik, ziok	zerok, ziok	zioik, ziok	zeroik, zioiek	zeroik, zioiek	zeoik, zeoyek	zeoik, zeoyek

Edute genitiboaren kasuan *geen(a)* (geren, -a) forma erabiltzen da eta ez **gioin(a)*.

Eta Uharteko dotrinan ere horrelako adibide asko agertzen zaizkigu:

³ Forma honen jatorria Mitxelena (1977, 210) aipatu “hi-hor-e” delakoa izango litzateke. Bestalde, O. Ibarak (1995, 324) Irigoienek “*De re philologica linguae vasconicae*” lanari jarraituz, horrela azaltzen ditu izenordain intentsiboen azpiko egiturako formak:

“1. Ni-er-onek → neronek
 2. hi-er-hori → eori, erori
 1.p gu-er-ok → gerok, geok
 gu-er-oiek → gerokek
 2. zu-er-orrek → zerorrek
 2.p zu-er-ok → zeok
 zu-er-oiek → zioiek”

⁴ ‘*nerau*’ forma ere jaso dugu Unanun egindako grabaketan. Baina behin bakarrik agertzen da eta ‘*nioni*’ berriz oso maiz.

“*Egun iguzu guri gueren egunerosco oguiye, barca dazquiguzu guri gueren zorrac, guc gueren zordugunei ...*” (Bon. Ond. Esk, 1993., 603)

3.1.3. IZENORDAIN MUGAGABEAK.

Nor, zer, zein eta *edo* partikulez gain bada beste bideren bat izenordain mugagabeak eraikitzeke Sakana erdialdeko hizkeretan, hala nola *bakar* hitzaren edute genitiboaren mugagabeko forma eta *bat* zenbatzailearen bidez (Ikus 73. orrialdea):

*bakarren bat*⁵, *bakarren batek*, *bakarren bati*, *bakarren batekin*,
bakarren batengana, *bakarren baten*, ...

Eta izenordeaz gain, determinatzaile lanak egiteko ere bide berbera erabiltzen da esparru osoan:

-ren bat: -V + -ren bat → -VV + nbat *peligroon bat, etxeen bat,*
mendiin bet, alabaan bat, mutuun bet.

-en bat: -C + en bat *lurren bat, gizonen bat, ...*

Baina goian esan bezala, aipatu partikulen bidez gauzatzen dira izenordain mugagabeak:

*Iyor*⁶(e)(z)/ *iñor*(e)(z) (inor ere (ez)) *Iyore etor da?* (Inor ere etorri da?)

Norbeitt(e)(re) *Norbeitt*(e)(re) *gaubes sartu emen dek!*
(Norbait (ere) gauez sartu omen duk!)

Zerbeitt(e)(re) < zerbait ere *Aittu yau zerbeitt*(e)(re)⁷ *ortas!*
(Aditu diagu zerbait (ere) horretaz!)

Zenbeitt < zein bait *Zenbeittek eztik nolanei aztutzen!*

Eze(r)e ≠ *eze*(r)ez *Eze*(r)e *bayaka, ixilik yonko itzeke!*

*Zeoz*er (zer edo zer) *Zeoz*er *esan dik orrek!*

⁵ Ultzameran ere horrela jasotzen du O.Ibarrak: “Gainerako kasuetan, ‘-ren bat’ genitibo mugagabearen formula erabiltzen da, gehienetan *-on bat* ahoskatzen dena: *neska onbat, itxon bat*.” (1995, 325).

⁶ Arruazun, sudurkariz osatutako aldaerak ditugu: *iñor, iñun, iñundi, ...* Begira zer dioen J.M. ARAKAMAK (1994, 577), /n/ sudurkaria aztertzen ari delarik: “*Oraingoan ere bi gunere bereizten zaizkigu Sakanan: iñor/baiño motakoak Arruazura orduko jaso ditugu (baiño Lakuntzan ere). Sakanako erdialdeko hizkeretan eta burunderan, aldiz, iyor/bai(y)a tankerakoak erabiltzen dira (i(y)or/york bezalakoak aezk. eta zaitz. altxatu zituen Echaidek (1989: 126 gald) Halaber, Goñerriko XIX. Mendeko testuetan iolaco/iondic... (F.L.V, 57 zkia.)- Eta baia Beriaín idazle nafarrarengan nahiz Mendebaleko zenbait hizkeretan –baya Portal arabarrak eta Mikoleta bilbotarrak agertzen dute- erabilia izan da. Sakanako hizkera hauek zubia atzera berriz”.*

⁷ Dardarkariarekin zein gabe entzun daiteke Etxarriko hizkeran.

Yoz(e)in, oozin (edozein) *Eyokela olakoik yoz(e)iñi esan!*
Batee < bat ere *Baziok batee onttoik?*
Bation bat < bat edoren bat *Bationbatek esanko zoon!*
Bakarren bat “... eta bakarren bat atatzeko espiatzia ...” (Lizarraga⁸)

Ikusten denez, *ere* partikulak presentzia nabaria du izenordain mugagabe hauen artean, gehienetan agertzen baita.

Eta izenordain hauen artean, lehenaren taula osatuko dut, besteak ere nola deklina daitezkeen ikusteko, eta nahiko berezia delako. Askotan, gainera, gaizki erabiltzen da ‘ere’ eta ‘ez’ partikulak gehitzen zaizkiolarik beharrik gabe, baiezko eta ezezko formak nahastuz⁹:

<i>Baiezkoa</i>	<i>Ezezkoa</i>
<i>iyor(e)</i>	<i>iyorez</i>
<i>iyork</i>	<i>iyorezek</i>
<i>iyoi</i>	<i>iyorezi</i>
<i>iyoon</i>	<i>iyorezen</i>
<i>iyooki(n)</i>	<i>iyorezeki(n)</i>
<i>iyortas</i>	<i>iyorezetas</i>
<i>iyun, iyon (Lak)</i>	<i>iyuneez</i>
<i>iyungo</i>	<i>iyuneezko</i>
<i>iyua</i>	<i>iyuarez</i>
<i>iyoon beitten</i>	<i>iyorezen beitten</i>
<i>iyooingana</i>	<i>iyorezengana</i>
<i>iyundi, iyondi (Lak)</i>	<i>iyuneezti</i>
<i>iyooingati</i>	<i>iyorezengati</i>
<i>iyondako</i>	<i>iyorezendako</i>
<i>iyooingandi</i>	<i>iyorezengandi</i>

⁸ G. Solis (F.L.V. 62, 1993, 117)

⁹ Horrela egin dute *Etxarrietatik Sakanerara* (1998, 46) liburuan taula hauxe osatzerakoan:

“ *iyore* ----- (inor ere)
iyork ee / iyorezek ---- (inork ere / inor ere ez-ek)
iyorezi ----- (inor ere ez-i) ...”

Ikusten denez, ezezko formak bitxiak dira, ezen deklinabideko morfemak ‘ez’ partikulari eransten baitzaizkio (*iyorezi* ‘inor ere ez-i’; *iyorezendako* ‘inor ere ez-endako’; *iyunezti* ‘inon ere ez-tik’), eta normalean ‘ez’ partikula errepikatu egiten da esaldian:

Ez giñuban iyorezengana fan! (inor ere ez-engana)

Ezin ziobau iyoi esan ori! (inori) *Ezin ziobau iyorezi esan!* (inor ere ez-i)

Iyua fatekotan, zuen errie! (inora)

Iyundienak aittu ber zittubau! (Inon direnak entzun behar ditugu!)

3.1.4. ERAKUSLEAK.

Geroxeago koadroan ikusiko ditugu herrian herriko burutzapen guztiak eta, honetaz gain, erakusleak sandhietan, hots, determinatzaile direnean eta ez izenorde, daukaten jokaera osoa aztertuko dut, era enklitikoan erabiltzen baitira gehienbat azterketa esparru osoan:

- Determinatzen den lexema –a bokalez bukatzen denean, erakuslea eransten zaio aipatu bokala galtzen duelarik lexemak. Honetaz gain, bigarren graduko erakusleak, *ori*-k, dardarkari xamurra galtzen du, baina ez izenordain moduan erabiltzen dugunean:

Amau (ama hau), amoi (ama hori), amure (ama hura), amioikin

Alabau, alaboi, alabure, alabarrengana

Plazau, plazoi, plazure, plazartan

- Determinagaia –e edo –o bokalez amaitzen denean, determinatzailea eransterakoan, aipatu bokalak itxi egiten dira, triptongoa sortzen delarik lehen eta bigarren graduko kasuetan:

Semiau, semioi, semiure, semioikin

Etxiau, etxioi, etxiure, etxiontaa

Goñeduau, goñeduoi, goñedure, goñeduoikin

Zuluau, zuluoi, zulure, zuluartan

- Determinagaia –i edo –u bokalez bukatzen denean, /y/ sabaikoaren epentesia lehenaren kasuan eta /b/ ezpainetakoarena bigarrenarenean, jasotzen dute erakuslea eransterakoan:

Iriyau (idi hau), *iriyoi*, *iriyure*, *iriyarrekin*

Mendiyau, *mendiyoi*, *mendiyure*, *mendiyontati*

Katubau, *katuboi*, *katubure*, *katubarrengati*

Mundubau, *munduboi*, *mundubure*, *mundubontako*

Uharteko dotrinan ere, J.M. Arakamak (1994, 570) horrela dio:

“-u bokalaren osteko epentetikoaz hauxe azpimarra liteke, salbuespen kopururik haziena zenbait kasumarka nahiz atzizki gehitzerakoan sortuko da: *infernuetara*, *ceruetara*, *mandamentuetati*, *jaquinsuen*, *gauero*, ... Halere, *cerubetan* pl.-ko kasu markaz ere, eta *gaubien* bezalakoak ditugu. Era berean, erakusleak enklitiko moduan /b/ epentetikoaz loturik: *mandamentubontan*, *momentubartaraño*, *becatubore*, *infernubartas* ..., zein berezirik: *mandamentu ontan*, *mundu ontan*, *modu ontas* ... ager dakizkiguke.”

- Eta azkenik, determinatu beharrekoa kontsonantez bukatzen denean, besterik gabe eransten zaio erakuslea:

Gizonau, *gizonoi*, *gizonure*, *gizonartas*

Lurrau, *lurroi*, *lurrure*, *lurraiten*

Orain arte aipatutakoaz gain, badirudi azentuari ere eragiten diotela sandhi hauetako burutzapenek, ezen azentua erakuslearen bokalean erortzen dela baitirudi:

áma > *amáu*, *amói*, *amúre*

séme > *semiáu*, *semiói*, *semiúre*

íri > *iriyáu*, *iriyói*, *iriyúre*

goñédo > *goñeduáu*, *goñeduói*, *goñedúre*

kátu > *katubáu*, *katubói*, *katubúre*

gizón > *gizonáu*, *gizonói*, *gizonúre*

3.1.4.1. ERAKUSLEEN TAULAK.

Jarraian herriz herriko izenordain erakusleen koadroa osatuko dugu, eta koadroko emaitzak hobeto ulertu eta identifikatzeko, aldaera orokorretik aldentzen denari, atzetik, parentesi artean, herriaren izena jarriko diogu. Oso forma homogeenak ditugu esparru osoan, gutxi direlarik, beraz, forma desberdinak. Bestalde, aipatzekoa da pluraleko lehen eta bigarren graduen arteko sinkretismoa, ia herri guztietan gertatzen dena, forma bera erabiltzen baita bi mailak adierazterakoan:

Erakusleak singularrean

Au	Ori, oi (Arb)	Ure, -a
Onek	Orrek	Arrek
Oni	Orri	Arri
Onena	Orrena	Arrena
Oneki	Orreki	Arreki
Onendako	Orrendako	Arrendako
Onengati	Orrengati	Arrengati
Ontan	Ortan	Artan
Onen beitten	Orren beitten	Arren beitten
Ontati	Ortati	Artati
Ontaa	Ortaa	Artaa
Onengana	Orrengana	Arrengana
Ontakue, -a	Ortakue, -a	Artakue, -a
Ontaño	Ortaño	Artaño
Onengandi	Orrengandi	Arrengandi
Ontas	Ortas	Artas

Hirugarren graduako ondorengo adibideak aipatzen ditu Arakamak Uharteko dotrinan: *arrec, arren, arrequi ...*

Erakusleak pluralean

Oik, auk (Un), ubek (Arb)	Oik, Oiek (Arb)	Aik, Aiek (Arb)
Oik, Ubuek (Arb)	Oik, Oiek (Arb)	Aik, Aiek (Arb)
Oiri, ubuei (Arb), oui (Un)	Oiri, oigi (Liz), oiyi (Un) Oyei (Arb)	Airi, aigi (Liz), aiyi (Un) Ayei (Arb)
Oina, oigena (Liz), auena (Un) Uena (Arb)	Oina, oigena (Liz) Oyena (Arb)	Aina, aigena (Liz), ayena (Arb)
Oiki, aueki (Un), ueki (Arb)	Oiki	aiki
Oindako, uendako (Arb)	Oindako, Oyendako (Arb)	Aindako, ayendako (Arb)
Oingati, uengati (Arb)	Oingati, Oyengati (Arb)	Aingati, ayengati (Arb)
Oiten, uetan (Arb)	Oiten	aiten
Oin beitten, uen beitten (Arb)	Oin beitten, Oyen beitten (Arb)	ain beitten, ayen beitten (Arb)
Oiteti, uetati (Arb)	Oiteti	aiteti
Oitaa, uetaa (Arb)	Oitaa	aitaa
Oingana, uengana (Arb)	Oingana, Oyengana (Arb)	Aingana, ayengana (Arb)
Oitekue, uetakua (Arb)	Oitekue, -a	Aitekue, -a
Oitaño, uetaño (Arb)	O(i)taño	aitaño
Oingandi, uengandi (Arb)	Oingandi, Oyengandi (Arb)	Aingandi, ayengandi (Arb)
Oites, uetas (Arb)	Oites, Oyetas (Arb)	Aites, ayetas (Arb)

Forma indartuak. 3. gradukoen formak dira erabiltzen direnak:

<i>Bera</i>	<i>Berak</i>
<i>bia</i>	<i>yak, erak</i>
<i>biak</i>	<i>yak, erak</i>
<i>berai</i>	<i>(y)erai</i>
<i>bee beitten</i>	<i>(y)eran beitten</i>
<i>begana</i>	<i>(y)erangana</i>
<i>begandi</i>	<i>(y)erangandi</i>
<i>bee</i>	<i>(y)eran, (b)een</i>
<i>beraki(n)</i>	<i>(y)eraki(n)¹⁰</i>
<i>berangati</i>	<i>(y)erangati</i>
<i>berandako</i>	<i>(y)erandako</i>

“..., eta iak dielakos mendizalerik hoberenak, iak eztebiela hondatzen iak bizi behar dien lekube, hori denok dakigu.” (NEM I, 19, Etxarri).

“Orduben ierakin hitzein ondoren hori asmatu giñuben, ...” (NEM I, 19, Etxarri).

Eta berorikako tratamenduaren zerrenda:

biori/biorrek, biorrendako, biorreki(n), biorri, biorren (beitten), biorrengati, biorrengana, biorrengandi, ... Eta pluralak: *bioik, bioindako, bioiki(n), bioiri, bioin, ...*

3.1.5. GALDETZAILEAK.

Nor, zein, ze(r) ditugu berezko izenordain galdetzaileak, eta berezkoak diogu gainerakoak hauetatik eratorriak baititugu. Baina, azterketa esparruaren kasuan lehena, *nor*, ez da ia erabiltzen galdetzaile moduan, bere ordeaz *zein* aurkituko

¹⁰ Horrela agertzen EHHA-n jasota Dorraon: “..., érakin tréznatú ta anillúe jarri bí puntetán, béstelá, érak ásten dianén, bí arí, ordúen dalká”.

dugarik. Hala ere, bai izenorde zehaztugabeetan bai izenorde pertsonal gisa, ageriko zaigu *nor*, hurrengo adibideotan ikus daitekeen moduan:

Norbeitt, norbeitteki(n), norbeittengana, norbeitten, ...

Iyore < inor + ere

Nor baintz, ez yauke olakoik esanko!

Bestalde, *-tzu* atzizkia ez da erabiltzen galdetzaile plurala sortzeko, eta forma berak balio du singularerako zein pluralerako:

Zein etor da?, Zein etor die?

Gauzak horrela, *zein* galdetzaileak berea eta *nor*-en esparruak jasotzen ditu eremu osoko hizkeretan.

Jarraian galdetzaile guztiak bilduko ditugu herriz herriko emaitzak jasotzen dituen koadroan:

etxarri	lizarraga	dorrao	unanu	arbizu	lakuntza	arruazu	uharte
(nor) zein	Nor, zein	zein	zein	zein	zein	zein	zein
Nok	Nok	nok	nok	nok	nok	nok	nok
Noi	Noi	noi	noi	noi	noi	noi	noi
Noon	Noon	noin	noin	noon	noon	noon	noon
Noki(n)	Noki(n)	noiki	noiki	noki	nooki	nooki	nooki(n)
Nondako	Nondako	noindako	noindako	nondako	noondako	noondako	noondako
(nortas) zeinetas	Zeinetas	zeinetas	zeinetas	zeinetas	zeinetas	zeinetas	zeinetas
Nun	Nun	nun	nun	nun	nun	nun	nun
Nungo	Nungo	nungo	nungo	nungo	nungo	nungo	nungo
Nua	Nua	nua	nua	nua	nua	nua	nua
Nuaño	Nuaño	nuaño	nuaño	nuaño	nuaño	nuaño	nuaño
Nundi	Nundi	nundi	nundi	nundi	nundi	nundi	nundi
Nongana	Nongana	noingana	noingana	nongana	noongana	noongana	noongana
Nongandi	Nongandi	-	-	nongandi	noongandi	noongandi	noongandi
Nongati	Nongati	noingati	noingati	nongati	noongati	noongati	noongati

Zein eta *ze(r)* galdetzaileak era berdinean, gutxi gora behera, erabiltzen dira esparru osoan:

Zein	Ze
zeiñek	Zek
Zeïni	Zeï
Zeïnen	Zeen
Zeïneki	Zeeki
Zeïñendako	Zeendako
Zeïñetas	Zetas
Zeïñetan, zeïñengan	Ze(r)tan
Zeïñetako	Zetako
Zeïñeta	Zetaa
Zeïñetaño	Zetaaño
Zeïñetati	Zetati
Zeïñengana, zeïñenganaño	Zengana
Zeïñengandi	Zengandi
Zeïñengati	Zengati

3.2. DETERMINATZAILEAK.

3.2.1. ERAKUSLEAK. (Ikus ezaugarri morfologikoen 3. orrialdea)

3.2.2. ZENBATZAILEAK.

3.2.2.1. ZENBATZAILE ZEHAZTUAK.

- Bateko eta hamarrekotan asimilazio atzerakaria eta sinkopa kasuak ditugu aipagarri, eta milakoaren kasuan asimilazio aurrerakaria:

Bedratzi, ameika, ameiru, mille, -a.

- Bestalde, aipagarria da *bat* zenbatzaileak jasaten dituen burutzapenak determinatzen duen hitzaren bukaeraren arabera:

+ *b-* ezpainetakoaren galera gertatzen da hitza *-a*, *-e* eta *-o* bokalez bukatzen denean, eta baita zenbaki konposatuetan ere:

plazaat, alabaat, makinaat ≠ makiñaat¹¹, palaat, segaat, etxiaat, semiaat, zuluaat, manduaat, basuat uts, kiluat saar, ogeitaat, laurogeitaat...

- + Zenbatzaileak asimilazio aurrerakaria jasaten du hitza *-i* eta *-u* bokalez bukatu edota kontsonantez bukaturiko azken silabako bokalak badira hauexek:

erri bet, mendi bet, gurdi bet belar, leku bet, mutu bet, mutil bet, eliz bet, egun bet, ezur bet, ...

- Ehunekotan, bi joera daude ia esparru osoan (Arbizun eta Unanun esaten digute soilik lehen zutabeak erabiltzen direla), eta biak bizirik gainera herri gehienetan:

<i>Berreun, -aun</i>	<i>bitenaun</i>
<i>Irureun, -aun</i>	<i>irutenaun</i>
<i>Laureun, -aun</i>	<i>lautenaun</i>
<i>Bosteun, -aun</i>	<i>bostenaun</i>
<i>Seireun, -aun</i>	<i>seitenaun</i>
<i>Zazpireun, -aun</i>	<i>zazpitenau</i>
<i>Zortzireun, -aun</i>	<i>zortzitenau</i>
<i>Bedratzireun, -aun</i>	<i>bedratzitenau</i>

- ORDINALAK:

Lenbizikue, -a
Bigerna, Irugerna, Laugerna
Atzena, azkena

¹¹ Lehen, nekazaritzan erabiltzen den tresna edo besterik gabe ‘makina’ bat da; bigarrena, aldiz, zenbatzaile zehaztugabea dugu.

3.2.2.2. ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEAK.

Lehenik azterketa esparruko zenbatzaile zehaztugabeen zerrenda emango dut eta, ondoren, aipagarrienen berezitasunak azalduko ditut:

<i>batzuk, -(r)en bat/batzuk</i>	<i>moltsuaat</i> (multzo bat)
<i>zenbeitt</i> (zenbait)	<i>samaldaat</i> (samalda bat)
<i>asko</i>	<i>salduaat</i> (saldo bat)
<i>eskutiat</i> (eskute, eskutada bat)	<i>gutxi</i>
<i>besarkadaat</i> ¹²	<i>pillaat</i> (pila bat)
<i>aunbeste</i> (hainbeste)	<i>paxuaat</i> (haxe bat)
<i>izugerri, izugarri</i>	<i>pixkaat, pixkeet</i> (Un) (pixka bat)
<i>yo(o)z(e)in, eozein</i> (Arr) (edozein)	<i>puxkaat, puxkeet</i> (Un) (puska bat)
<i>makiñaat</i> (makina bat)	<i>seil bet, sellaat</i> (Un) (sail bat)
<i>aliaate(z), aleike(z)</i> (Un), <i>alebate(z)</i> (Liz) (ale bat ere (ez), alerik ere (ez))	
<i>obeki, gooti</i> (gogotik)	
<i>uberi</i> (ugari)	
<i>franko</i>	
<i>poleki</i> (poliki)	
<i>neiko</i> (nahiko)	

a) *Batzuk, -(r)en bat/batzuk:*

Batzuk-en kasuan ez da bereizten forma aktiboaren eta pasiboaren artean, hots, sinkretismoa dugu nagusiturik absolutibo/ergatibo kasuei dagokienez azterketa esparru osoan:

Gizon batzuk etor die.

Gizon batzuk ein debie.

¹² Kasu honetan ‘besarkada’, besoetan kabitzen dena adierazteko erabiltzen da, ez da beraz besarkatzea, neurria edo kopurua baizik.

Eta determinatzen duen izenaren azken bokala itxia bada, asimilatu egiten da zenbatzailearen bokal irekia:

Aur betzuk etor ttuk.

Makil betzugin jo zittubabien!

Mendi betzuk oso zeillek ttuk!

Ba emen ziek orti beste mundu betzuk!

Bestalde, -a, -e eta -o bokalez bukaturiko lexemekin gertatutako sandhi-etan ezpainenetako herskariaren galera suertatzen da:

Plazaatzuk, alabaatzuk, jendiatzuk, bestiatzuten, zuluatzuk, jituatzuk, ...

Eta *-(r)en bat/batzuk* formari dagokionez, lexemaren edute genitiboko mugagabeko morfemaren araberakoa izango dugu bilakabidea:

Amaan bat/batzuk

Semeen bat/batzuk

Mendiin bet/betzuk

Zuloon bat/batzuk

Munduun bet/betzuk

Bakarren bat/batzuk

b) *Zenbeitt* (zenbait):

Azterketa esparruan beti ezker aldean ageriko zaigu eta aditzaren komunztadurari dagokionez, singularrez nahiz pluralez erabil daiteke aditza:

Zenbeitt mutikok eztaka lotsaik!

Zenbeitt emakomek eztakabie aurrik.

c) *Asko*:

Lehena, ia kasu guztietan eskuinaldean badoa ere, bada zenbait kasu zeinetan izenaren ezker aldean erabiltzen den, hala nola haurrekin hitzegiterakoan, zenbatzailearen esanahia azpimarratzeko seguraski, hasierako bokala luzatzen delarik:

Aasko diru dakau!, Aasko muxu eman!

“Nik soruen asko lan in dot” (Lizarraga, NEM I, 37)

Diru asko zakanau! (Arbizu)

Patxi Goenagak (1980, 82) esaten du idazle zaharrek aurretik jartzen bazuten ere, egun gehienbat izenaren multzoaren eskubitara agertzen dela.

Bestalde, adierazpide moduan ere erabiltzen da, kexa adierazteko bestearen esana edo eginagatik:

Askuek!, Askook/n! (Arbizu) (Asko duk!)

Askuek, gizona! Beixee i izen ber! (Berriz ere hi izan behar!)

d) *Aunbeste, e(i)nbeste* (Un) (hainbeste):

Forma bakarra dugu eta ez da, beraz, komunztadurarik gordetzen pertsona izenordainekiko:

Ni aunbeste alditen faten neiz elizaa!

Ze mous ago? Aunbestien nion!

Zuk aunbeste ardi dazkazu.

Lengusubek e(i)nbeste egur ekar zuen.

e) *Aliaate* (ale bat ere) **eta bat-ez osaturikoak:**

aliaate-k (ale bat ere) izena partitibo kasuan eskatzen du, ezezko zentzua baitaukate zenbatzaile zehaztugabe honekin eraikitako esaldiek:

Ikus dek ardiik aliaate? (Etxarri)

Ikus dok ardiik alebate? (Lizarraga)

Launzaleik aliaate eztek guaño agertu!

Gainontzekoak *bat* zenbatzaileaz osaturik agertzen zaizkigu:

*Moltsuaat*¹³ (multzo bat)

Paxuaat (haxe, sorta bat)

¹³ $V_1 V_2 \rightarrow V_2 V_2$ izango litzateke bere bilakabidea: multzo > *moltsa*

Samaldaat (samalda bat)

Salduaat (saldo bat)

Besarkadaat (besoetan sartzen den kopurua)

Seil bet (sail bat)

Eskutiat (eskute(kada) bat)

f) *Izugerri, izugarri:*

‘asko’-ren parekoa dugu esanahiaren aldetik. Bi posiziotan ager daiteke, eskuinean zein ezkerrean:

Izugerri jende etor da!

Jende izugerri yoondua!

g) *Beste batzuk.*

Ataltxo honetan, zenbatzaile izan gabe horien lekuan ageri diren beste zenbait partikula sartu ditugu, hala nola *obeki*, *gooti* (gogotik), *franko*, *poleki*, *neiko* / *aski* eta *uberi*. Azken biak izan ezik, besteek izena mugaturik eskatzen dute:

Obeki aditzondoa eta *gooti* ere erabiltzen dira zenbatzaile zehaztugabearen ordean, eskuinaldetik:

Diruba obeki zakanau! (Arbizu)

Dirube gooti zikobiek! (Etxarri)

Franko ere beti eskuinaldean agertuko zaigu eta determinatzen duen izena mugaturik izatea eskatzen du:

Itze franko eitten dezubie!

Dirube franko galdu ye!

Guk lana franko ein yau guu biziye!

Eta azkeneko hirurei dagokienez, antzeko esanahia dute hirurek, eta *neiko* izenaren aurrean doa beti:

Jende uberi etor da!

Jende poleki yoonda zan!

Neiko-k bestalde, ezker aldean eta izena mugagabe doalarik “behar adina”-ren esanahia hartzen du:

Neiko jende yoonda zan!

Neiko diru atia diau!

Arruazutik ekialdera, bestalde, *aski* erabiltzen da zenbatzaile zehaztugabe moduan:

Aski diru atia duu!

3.2.2.3. ZENBATZAILE OROKORRAK.

Dena, *guzie/a* eta *osue/a* ditugu zenbatzaile orokorrak Sakana erdialdean.

Lehenari erreparatzen badiogu, EGLU-k (1985, 236) esaten duenari aurre eginez¹⁴, esan dezakegu izenari lotuta ere ager daitekeela:

Unenuko aur denak etor die!

Zaldi denak yaaman ttubie mendie!

Ogi dena jan dau!

Hala ere, zabalduago dago *guze*-ren erabilera izenari loturik. *Guze*, eta ez *guzi*, aipatu dut ezen hauxe izan behar baita lexema hutsa, mugatzerakoan ematen dituen burutzapenengatik, *guzie(k)/a(ek)*, hau da, -e bokalaz bukatutako lexemen modura eta baita, Etxarrin behintzat, balio enfatikoaren eman nahi zaionean, errepikatzerakoan, honela entzun daitekeelako:

Basurde guze-guziek il zittubiek!

¹⁴ Horrela diosku EGLU-k aipatu orrialdean: “*Dena* zenbatzailea bakarrik doa, izenik gabe”. Gerorago, hurrengo orrialdean, ondorengo gehitzeko: “Honen arabera, bada, zalantzakoak ditugu ondoko esapide hauek: (494) (a) ? *Neska txiki denak hasi ziren dantzan.* (b) ? *Kukuso denak bildu nituen.*”

Osue/a zenbatzaile orokorrari dagokionez, berriz, balio enfatikoa ematerakoan, ondorengo burutzapena gertatzen da:

ososue/a < oso(o)sue < oso-osoa

Ogi ososue jan zeen!, Ogi ososua jan zuen! (Un)

Egun ososuek pasatzen zittuk guatzien!

3.3. DEKLINABIDEA.

Atal honetan deklinabide-kasu guztiak aztertuko ditugu banan-banan eta herriz-herriko berezitasunak jaso afinitate edota desberdintasunak erakutsiko dituzten mapak eta taulak gauzatuko ditugularik.

Hala ere, eta kasuz kasuko azterketari hasiera eman baino lehen azterketa esparruko mugagabearen erabilera, sinkretismo kasuak eta *-a* organikoaren erabilera zehazten hasiko gara.

3.3.1. MUGAGABEA.

Orokorrean esan daiteke ondo betetzen dela azterketa esparru osoan mugagabe kasu-markaren erabilera, hurrengo adibideotan nabarmen geratzen den modura:

a) Izen bereziekin.

Fraxkuukin yondu neiz! (Fraxkurekin egon naiz!)

Joxeena den ori! (Joxerena dun hori!)

b) Zer eta zenbat galdetzaileekin.

Ze meikuukin yondueiz? (Zein medikurekin egon haiz?)

Ze tontakei esan dek?

Ze arrayo!

Ze orduten dek partidue? (Zer ordutan duk partidua?)

Ze ataiten bizieiz? (Zer ataritan bizi haiz?)

Zenbat kilometrotaa ziok? (Zenbat kilometrotara zegok?)

Zenbat etxe ein ttuzubie? (Zenbat etxe egin dituzue)

c) Osagarri predikatiboak.

Utse ardo biyurtu zian! (Ura ardo bihurtu zian!)

Alkate elejittuebie! (Alkate aukeratu dute!)

Morroi fan zan! Artzei fan dek Ameiketaa! (Artzain joan duk Ameriketara!)

Pillotai artu ye! (Pilotari hartu diate!)

*Zorra zor, lepue lodi!*¹⁵

d) Esapide bereziak.

Izerdi patsetan yon!

Utsetan biatzen jarri (Uretan beratzen jarri)

Utsetaa bota.

Agetaa botaik! (Erremediorik gabe)

*Elurretan ai dik! Izotzetan da elurretan*¹⁶ ...

Zizetaa, onttotaa, ardotaa ... fan.

Iruzkiten yon. (Eguzkitan egon)

Suten jarri. (Haserrerazi), *Suten*¹⁷ *yon* (Erretzen)

Kristoonak esan berotan.

Ametsetan, lotan ... yon.

Larruten arrapatu. (Larrua jotzen)

Lekuten zioke ori!

Txikiten (Haur denboran)

Nua jo ber diau gio, eskubitaa oo ezkerretaa? (Nora jo behar dugu gero, eskubitara ala ezkerretara?)

¹⁵ Etxarriko esaera zaharra dugu hauxe.

¹⁶ Etxarriko “Urteberri” kantak dakartza horrelako lerroak: “... izotzetan da elurretan, gu geixubok oñutsetan ...”

¹⁷ Su gainean lapikoa jarrita dagoela adierazteko, mugatu singularra erabiltzen da: *Alubiyek suben jarrita zien!* (Babarrunak suan jarrita zeuden!). Baina zerbait erretzen ari dela adierazteko, mugagabeen behar da: *Etxie suten zikone!* (Etxea sutan zeukaten!).

e) **Beste batzuk.**

Zuk aañe/-a diru dakau! (Zuk adina diru daukagu!)

Gose aañe diru bagiñuke!

Alako orduten esan zoon etortzeko!

3.3.2. PLURAL HURBILA.

Azterketa esparru osoan erabiltzen da plural hurbila, zenbakiekin nahasturik bereziki eta lehen eta bigarren pertsonetan soilik.

Zuek irurok izendu zarie / zaiye (Zuek hirurok izan zarete)

Amaki biyok fan gettuk (Amarekin biok joan gaituk)

I aneyek eta laurok yos giñuban (Hire anaiek eta laurok erosi genian)

Bostok ein berko yau (Bostok egin beharko dugu)

Gaztiok ez zarie ezekin konformatzen (Gazteok ez zarete ezerekin konformatzen)

Anei-arrebok fanko gaa (Anai-arrebok joango gara)

3.3.3. SINKRETISMOAK.

Funtzio gramatikal diferenteak adierazteko kasu-marka berbera erabiltzeari esaten zaio *sinkretismo*-a. Eta horrelako kasuetan testuinguruak soilik laguntzen digu forma bakoitzaren funtzioa bereizten, ezaugarri edo morfema desberdin horiek bat eginik agertzen zaizkigulako.

Sinkretismo kasu nabarietak absolutiboko mugatu pluralaren marka edo morfema eta ergatiboko mugatu singularra eta pluralaren marken artekoa izaten dira:

Alkatiek etor die (Alkateak etorri dira), *Amak etor die*

Alkatiek esan dau (Alkateak esan du), *Amak esan dau*

Alkatiek ein debie (Alkateek egin dute), *Amak ein debie*

Hizkera estandarizatuan ere gertatzen da sinkretismoa, baina lehenengo bi kasuetara mugatzen da, ez da inola ere ergatiboaren mugatu pluralaren markarekin gertatzen gure kasuan bezala.

Deklinabideko beste hainbat kasutan ere gertatzen da sinkretismoa:

- Inesiboan, mugagabea eta mugatu pluralaren marken artean:

Bi etxetan < Bi etxetan --- mugagabea

< Bi etxeetan --- mugatu plurala

- Edutezko genitiboan, mugatu singularra eta pluralaren marken artean:

Umien < umearen --- mugatu singularra

< umeen --- mugatu plurala

3.3.4. –A ORGANIKOA GALTZEN DUTEN HITZEN ZERRENDA.

Asko eta asko dira berezkoa edo organikoa esaten zaion bukaerako -a galtzen duten hitzak azterketa esparru osoan. Deklinatzerakoan ikus daiteke galera, ezen bukaerako –a gabe balira bezala jokatzeko baitute kasu markak eransterakoan edo zenbatzaileekin mugatzerakoan: *fameliye, inbiiye, premiye, feriyee, aneyee, gauz bet, iru aittun, bost amin, gazteñ asko, ...*

<i>Aittun</i>	<i>arbol</i>
<i>Amin</i>	<i>eliz</i>
<i>Anei</i>	<i>animeli</i>
<i>Ator</i>	<i>egi</i>
<i>Donosti</i>	<i>Gipuzku</i>
<i>Erromei</i>	<i>fameli</i>
<i>Feri</i>	<i>grazi</i>
<i>Gartzel</i>	<i>gauz</i>
<i>Gazteñ</i>	<i>are</i>
<i>Inbii</i>	<i>inportanzi</i>
<i>Kate</i>	<i>laban</i>
<i>Naparru</i>	<i>Bizkai</i>
<i>Pasai</i>	<i>Errentei</i>
<i>Premi</i>	<i>txemeni</i>

Tontokei alukei

3.3.5. DEKLINABIDE TAULAK.

-Izen arruntak, bokalez amaiturik: **seme, toki**

	MGG	SING	PL
ABS	seme, toki	semie, -a, tokiye, -a	semiek, tokiyek
ERG	semek, tokik	semiek, tokiyek	semiek, tokiyek
DAT	semei, tokii	semiei, tokiyai	semiei, tokiyei, -ai
GEN	semen, tokiin	semien, tokiyaan	semien, tokiyen
DES	semendako, tokiindako	semiendako, tokiyaandako	semiendako, tokiyendako
SOZ	semeeki, tokiiki	semieki, tokiyaaki	semieki, tokiyeki
ADL	tokita, semengana	tokie, tokira, semiengana	tokita, semiengana
AD-B	tokitaño	tokieño, tokiraño	tokitaño
INE	tokiten, semen beitten	tokiyen, semien beitten	tokiten, semien beitten
ABL	tokiteti, semengandi	tokit(t)i, semiengandi	tokiteti, semiengandi
G-LO	tokiteko, semen beitteko	tokiko, semien beitteko	tokiteko, semien beitteko
MOT	semengati, tokingati	semiengati, tokiyangati	semiengati, tokiyengati
INS	tokis, semes	tokiyes, semies	tokites, semetas
PRO	semetako, tokitako		
PAR	semeik, tokiik		

- kontsonantez amaiturik: **gizon, elur**

	MGG	SING	PL
ABS	gizon, elur	gizona, elurre, -a	gizonak, elurrek
ERG	gizonak, elurrek	gizonak, elurrek	gizonak, elurrek
DAT	gizoni, elurri	gizonai, elurrai	gizonai, -ei, elurrai, -ei
GEN	gizonen, elurren	gizonaan, elurraan	gizonen, elurren
DES	gizonendako, elurrendako	gizonaandako, elurraandako	gizonendako, elurrendako
SOZ	gizonaki, elurreki	gizonaki, elurraki	gizonaki, elurreki
ADL	elurreta, gizonengana	elurria, gizonaangana	elurreta, gizonengana
AD-B	elurretaño	elurriaño	elurretaño
INE	elurretan, gizonen beitten	elurrien, gizonaan beitten	elurretan, gizonen beitten
ABL	elurretati, gizonengandi	elurreti, gizonaangandi	elurretati, gizonengandi
G-LO	elurretako, gizonen beitteko	elurreko, gizonaan beitteko	elurretako, gizonen beitteko
MOT	gizonengati, elurrengati	gizonaangati, elurraangati	gizonengati, elurrengati

SAKANA ERDIALDEKO EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

INS	gizonas, elurres	gizonas, elurres	gizonetas, elurretas
PRO	gizonetako, elurretako		
PAR	gizonik, elurrik		

- Izen bereziak: **Joxe, Fermin, Arbizu, Etxarri**

ABS	Joxe	Fermin	Arbizu	Etxarri
ERG	Joxek	Fermin ̃ ek	Arbizuk	Etxarrik
DAT	Joxei	Fermin ̃ i	Arbizui	Etxarrii
GEN	Joxeen	Fermin ̃ en	Arbizuun	Etxarriin
DES	Joxeendako	Fermin ̃ endako	Arbizuundako	Etxarriindako
SOZ	Joxeeki	Fermin ̃ eeki	Arbizuuki	Etxarriiki
ADL	Joxeengana	Fermin ̃ engana	Arbizue, Arbizura	Etxarrie, Etxarrira
AD-B			Arbizue ̃ o, Arbizure ̃ o	Etxarrie ̃ o, Etxarrire ̃ o
INE	Joxeen beitten	Fermin ̃ en beitten	Arbizun	Etxarriin
ABL	Joxeengandi	Fermin ̃ engandi	Arbizuti	Etxarriti
G-LO	Joxeen beitteko	Fermin ̃ en beitteko	Arbizuko	Etxarriko
MOT	Joxeengati	Fermin ̃ engati	Arbizuungati	Etxarriingati
INS	Joxes	Fermin ̃ es	Arbizus	Etxarris
PRO	Joxetako	Fermin ̃ etako	Arbizutako	Etxarritako
PAR	Joxeik	Fermin ̃ ik	Arbizuik	Etxarriik

3.3.6. DEKLINABIDE-KASUAK.

Emaitza guztiak izango ditugu kontuan absolutiboa eta beste kasu guztiak aztertzerakoan, hots, lexemaren bukaerako hizkia edo fonema eta deklinabideko atzizkien artean sortzen diren berezitasunak jasoko ditugu. Gertaera guztiak izan ditzaketen lexema eredu batzuk ezarriko ditugu eta horiekin deklinabideko kasuz kasuko taulak egingo ditugu.

3.3.6.1. ABSOLUTIBOA.

EGLU-ri jarraituz, -Ø da bere marka, hau da, bere forma kontuan hartuz gero, inolako kasu-markarik gabe agertzen zaigu. Hala ere, artikulua eransterakoan burutzapen desberdinak agertzen zaizkigu azterketa esparruko herrietan zehar:

- a) *a-z* bukatzen diren lexemek, bi jokabide desberdin erakusten dute, aurreko silabako bokalaren tinbrearen arabera, hau da, bokal hori itxia edo goikoa izan ala ez jokaera desberdina izango du absolutibo kasuko markak. Horrela, itxia bada aurreko silabako bokala, asimilazioa gertatuko da absolutibo kasuko markaren bokalean, eta irekia edo erdikoa bada, berriz, ez da horrelakorik suertatzen, morfemaren bokal irekia mantentzen delarik:

- $A + A(K) \rightarrow A(K) / V_{[-goi]} C A$

Ama(k), korta(k), borda(k), lotsa(k), soka(k), anka(k), ...

- $A + A(K) \rightarrow E(K) / V_{[+goi]} C A$

Zume(k), plume(k), txume(k), zille(k), pille(k), mille(k), ...

Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun singularrean ez dira asimilatzen¹⁸, soilik pluralean:

Zuma(ek), pluma(ek), txuma(ek), zilla(ek), pilla(ek), milla(ek), ...

- b) kontsonantez bukatzen diren lexemak, aurreko kasuan bezala jokatzeko dute, hau da goiko bokala izanez gero aurreko silaban asimilatu egingo delarik deklinabide morfemaren bokala, eta behekoa bada, berriz, ez:

- $C + A(K) \rightarrow A(K) / V_{[-goi]} C$

Biorr(a)(k), gizon(a)(k), bikorr(a)(k), balon(a)(k), kamion(a)(k), ...

- $C + A(K) \rightarrow E(K) / V_{[goi]} C$

- $C + A(K) \rightarrow A(EK) / V_{[goi]} C$

Lurr(e)(k), makill(e)(k), gauz(e)(k), gris(e)(k), aittun(e)(k), amiñ(e)(k), ziriñ(e)(k), ziraun(e)(k), mutill(e)(k), ...

Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun, lehengo kasuan bezala, ez dira asimilatzen singularrean: *lurra(ek), makilla(ek), gauza(ek), ...*

- c) *e-z* bukatzen diren lexemek, mugatutako lexemaren azken bokala eta morfema mugatzailearen bokalaren, asimilazioz hau, itxiera jasotzen dute:

¹⁸ Ikus bokalismo ataleko 53. orrialdea, asimilazio aurrerakariari dagokion atalean esaten duguna, J.I. HUALDERi jarraituz.

	E + AK → IEK	E + A → IA, IE
<i>Guutze</i>	<i>guutziek</i>	<i>guutzia, guutzie</i>
<i>Etxe</i>	<i>itxiek, etxiek</i>	<i>itxia, etxie</i>
<i>Bele</i>	<i>beliek</i>	<i>belia, belie</i>
<i>Ume</i>	<i>umiek</i>	<i>umia, umie</i>
<i>Seme</i>	<i>semiek</i>	<i>semia, semie</i>
<i>Guze</i> ¹⁹	<i>guziek</i>	<i>guzia, guzie</i>

Uharteko dotrinan, sistematikoki agertzen da aditz izenen kasuan eta baita gainerako lexemen kasuan ere:

<i>Amacie</i> (amatzea)	<i>Deseiyecie</i> (desiratzea)
<i>Eguityie</i> (egitea)	<i>Contentacie</i> (kontentatzea)
<i>Santifiquetcie</i> (santifikatzea)	<i>Siñestacie</i> (sinistatzea)
<i>Onrracie</i> (onratzea)	<i>Salbadorie</i>
<i>Ilcie</i> (hiltzea)	<i>Glorificadorie</i>
<i>Ebastie</i> (ebastea)	<i>Gurie</i>
<i>Esatie</i> (esatea)	<i>Siñelie ...</i>

- d) i-z bukatzen diren lexemek ez dute bilakabide homogenea erakusten azterketa esparruko herri guztietan. Horrela, Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun, mugatu singularraren morfema eransterakoan ez dute asimilaziorik jasaten, baina bai mugatu pluralaren morfema eransten zaienean. Edozein kasutan ere, bai singularra nola pluralaren kasuetan, bietan sortzen da /y/ sabaiko kontsonante epentetikoa. Gainerako herrietan, bi kasutan gertatzen da asimilazioa eta kontsonante sabaikoaren epentesia:

¹⁹ Lizarragan argi eta garbi agertzen da –e bukaerarekin, Etxarrin bezala (G. SOLIS, 1993, 121):

“G- (...), *etxe guzetan ittentzan?*

F- *Ez, ezan itten etxe guzetan labie zakanak.*

G- *Eta etxe guziek ez zakuerien labek?”*

-I + -AK → IYEK -I + -A → IYA, IYE

<i>mendiyek</i>	<i>mendiya, mendiye</i>
<i>erriyek</i>	<i>erriya, erriye</i>
<i>inbiyek</i>	<i>inbiya, inbiye</i>
<i>premiyek</i>	<i>premiya, premiye</i>
<i>feriyek</i>	<i>feriya, feriyeye</i>
<i>graziyek</i>	<i>graziya, graziye</i>
<i>tontokeyek</i>	<i>tontakeya, tontakeye</i>
<i>txikiyek</i>	<i>txikiya, txikiye</i>
<i>jarriyek</i>	<i>jarriya, jarriye</i>
<i>iriyek</i>	<i>iriya, iriye</i>

- e) o-z bukatzen diren lexemetan, absolutibo kasuko morfema eransterakoan, bi bokalen itxiera jasaten dute aurreko kasuan bai mugatu singularraren kasuan nola pluralekoan asimilazioa jasotzen zuten herrietan, eta erdiko bokalarena soilik beste herrien kasuan. Beraz, hurrengo bi bilakabideetan lehena Etxarrin, Lizarragan, Lakuntzan eta Uhartan suertatuko da eta bigarrena Arbizun, Dorraon, Unanun eta Arruazun:

-O + -AK → UEK -O + -A → UA, UE

<i>zulo</i>	<i>zuluek</i>	<i>zulua, zulue</i>
<i>soro</i>	<i>soruek</i>	<i>sorua, sorue</i>
<i>moto</i>	<i>motuek</i>	<i>motua, motue</i>
<i>ero</i>	<i>eruek</i>	<i>erua, erue</i>
<i>mando</i>	<i>manduek</i>	<i>mandua, mandue</i>

“*Febrerue, kintuen ta zatamarruen illeetie*” (Lakuntza, *Guaixe* 3, 16).

- f) u-z bukatzen diren lexemetan, i-z bukatzen diren kasuetako emaitza berbera izango dugu, baina kontsonante epentetikoa aldatuz, /b/ ezpainetako herskaria tartekatzen delarik. Emaitzak ere errepikatu egiten dira herriz herriko banaketari dagokionez:

-U + -AK → UBEK -U + -A → UBA, UBE

SAKANA ERDIALDEKO EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

<i>esku</i>	<i>eskubek</i>	<i>eskuba, eskube</i>
<i>mundu</i>	<i>mundubek</i>	<i>munduba, mundube</i>
<i>buu</i>	<i>buubek</i>	<i>buuba, buube</i>
<i>lib(r)uu</i>	<i>lib(r)uubek</i>	<i>lib(r)uuba, libuube</i>
<i>katu</i>	<i>katubek</i>	<i>katuba, katube</i>

Horrela, laburbilduz, ondorengo koadroan jasoko ditugu azterketa esparruko hizkera guztietan absolutibo kasuak jasotzen dituen burutzapenak. Ikus daitekeenez 2 multzotan biltzen dira herriak:

1. Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uharte: kasu-markaren bokalaren itxiera edo asimilazioa gertatzen da sistematikoki.
2. Arbizu, Dorrao, Unanu eta Arruazu: kasu-markaren bokalaren itxiera edo asimilazioa ez da singularrean gertatzen, pluraleko morfemarekin baizik (gogoratu bokalismoaren sailean, 5. orrialdean, asimilazio aurrerakariari buruz genioena).

	V_[-goi] C + a(k)	V_[+goi] C + a(k)	V_[-/+goi] C a + a(k)	E + a(k)	i + a(k)	o + a(k)	u + a(k)
1.	a(k)	a, ek	a(k)/a,ek	ia, iek	iya, iyek	ua, uek	uba, ubek
2.	a(k)	e(k)	a(k)/e(k)	ie(k)	iye(k)	ue(k)	ube(k)

Eta lexema zehatzei erreparatzen badiegu, ondorengoak izango lirateke bi herri-multzoetako emaitzak:

1. multzoa


2. multzoa

<i>gizon; bikor</i>	<i>gizona, gizonak; bikorra, bikorrak</i>	<i>gizona, gizonak; bikorra, bikorrak</i>
<i>lur; mutil</i>	<i>lurra, lurrek; mutilla, mutillek</i>	<i>lurre, lurrek; mutille, mutillek</i>
<i>ama; zuma</i>	<i>ama, amak; zuma, zumek</i>	<i>ama, amak; zume zumek</i>
<i>leze</i>	<i>lezia, leziek</i>	<i>lezie, leziek</i>
<i>mendi</i>	<i>mendiya, mendiyek</i>	<i>mendiye, mendiyek</i>
<i>beso</i>	<i>besua, besuek</i>	<i>besue, besuek</i>
<i>katu</i>	<i>katub(u)a, katub(u)ek</i>	<i>katube, katubek</i>

Begira hurrengo mapan nola banatzen diren aipatu bilakabideak, morfema mugatzaile singularra eransterakoan. Gogoratu, pluralaren morfemarekin kasu

guztietan gertatzen dela aurreko silabako goiko bokalak (dagoen kasuetan) eragindako asimilazioa:

III. Mapa



3.3.6.2. ERGATIBOA.

-k dugu bere marka eta hitz oina kontsonantez bukatzen denean, normalean, /e/ loturazko letra tartekatzen da. Artikulua eransterakoan, singularra edo plurala izanik hauxe, emaitza desberdinak agertzen ditu Euskal Herriko hizkeretan, baina nagusiki bi multzotan bereizten dira euskalkiak deklinabide kasu honen eta aurrekoaren buratzapenen arabera. Horrela, horietako multzo bat osatuko lukete absolutibo plurala eta ergatibo pluralaren arteko desberdintasuna egiten duten hizkerak; eta bestea, desberdintasunik egiten ez dutenek. Gure kasuan, bigarren multzoan sartu beharko dugu Sakana erdialdeko hizkera, sinkretismoa baita nagusi herri guztietan, morfologia atal honen hasieran ikusi ahal izan dugun moduan. Horrela ageri zaigu EHHA-n Dorraoko emaitza hauxe: “*Kási lenágoko zarrák géyo usétzen tzuen*”.

- a) Lexema edo hitz oinak kontsonantea edo –a bokala badu bukaeran, sinkretismoa gertatzen da mugagabe eta mugatuaren artean, mugagabearen –a- loturazko bokala tartekatuta eta mugatueta, berriz, -ak bien kasuan hartzen duelarik:

$V_{[-\text{goi}]} C + (a)(e)K \rightarrow -AK$

Zenbeit gizonak eztikik (ez zekik) ori eitten!

Zuen etxeke gizonak esan dik!

Erriko gizonak ein debie!

$V_{[+\text{goi}]} C + (a)(e)K \rightarrow -EK$

Zenbeit lapurrek ez dik baliyo ori ostutzeko.

Lapurrek ostu dau.

Lapurrek ostu debie.

$V_{[-\text{goi}]} C A + (a)(e)K \rightarrow -AK$

Zenbeit amak eztikik!

Amak esan dau!

Amak esan debie!

$V_{[+\text{goi}]} C A + (a)(e)K \rightarrow -EK$

Zenbeit aittek eztik izenoi meezi!

Aittek esan dau!

Aittek ein debie.

- b) Lexemak /e/, /i/, /o/ edo /u/ badu bukaeran, sinkretismoa kasu mugatueta soilik gertatzen da, mugagabea desberdintzen delarik:

$V + K \rightarrow K$

Zenbeitt umek, txorik, otsok, katuk, ...

-e + -AK, -EK → -IEK

Umiek ein d(a)u

Umiek ein debie/dub(i)e

-i + -AK, -EK → -IYEK

Txoriyek ekar d(a)u

Txoriyek ekar debie/dub(i)e

-o + -AK, -EK → -UEK

Otsuek il d(a)u

Otsuek il debie/dub(i)e

-u + -AK, -EK → -UB(U)EK

Katubek artu(a)u

Katubek artuebie/artuub(i)e

- c) Deklinabideko kasu hau, ergatiboa, erabiltzen da gorputzaren egoerak adierazteko ‘egon’ aditzarekin buruturiko perifrasietan:

*Gosiek noo/nau!, Egariyek zoon/zion!, Otzak garbitzen gaude/gode!,
Pixekurriek lerreitten ago!*

Eta Uharteko dotrinan ere, hala ageri zaizkigu:

“Vigarna, gosiec dagonari ... Irugarna, egariyec dagonari ...” (Bon. Ond. Esk., 1993, 621).

Eta Etxarriko dotrinan ere berdintsu:

“Bigarrena, gosiac dagonari ... Irugarrena, egarriyac dagonari ...”
(Bon. Ond. Esk., 1993, 2977)

3.3.6.3. DATIBOA.

Bere marka –i da kasu guztietan, baita bokalez bukatzen denean hitz oina, ezen bokal arteko –r- dardarkaria erori egiten baita, kasu guztietan ez bada ere, geroxeago ikusiko dugun moduan. Bestalde, kasu-markaren morfemako bokal irekia ez da asimilatzen kasu guztietan, hots, ez da asimilatzen hitz oina kontsonantez edota –a, -i edo –u bokalez bukatzen denean, nahiz eta aurreko silabako bokala itxia izan.

- a) Lexema edo hitz oina kontsonantez bukatzen denean hiru burutzapen desberdin izango ditugu, mugagabea eta bi mugatuak:

+ Mugagabea, hitz oinari –i erantsiz gauzatzen da azterketa esparru osoan:

Bost gizoni bakarrik gertatu zikiyok ori!

Makinaat txakurri ein ziobau ori!

+ Mugatu singularraren kasuan, –ari morfema eransterakoan bokal arteko dardarkari xamurra erori egiten da beti beherunzko diptongoa sortuz:

gizonai, mutillai, txakurrai, sorgiñai, aitzurrai, ...

+ Mugatu pluralari dagokionez, badirudi –ei morfema jasotzen duela eta ez dela, beraz, sinkretismorik suertatzen datibo kasuan²⁰. Hala ere, Etxarrin bahintzat, forma berdina erabiltzen da ia beti, bai singularrerako nola pluralerako:

gizonei, mutillei, txakurrei, sorgiñei, aitzurrei, ... EHHA-n horrela jaso dute Dorraon: *béko kíméi; kíma esáten dógu guk ille orrí; kámpoko ta denéi.*

²⁰ Juanjo Olasagarre (AEB, l.a.) arbizuarrak horrela jasotzen du: *meiza eman diot zui ollerrei.* Eta Lizarragan ere, *Lizerrako amei esan bedoot,* jaso dugu.

- b) *-a* hizkia bukaeran daramaten lexemei dagokienez, sinkretismoa gertatzen da mugagabearen eta mugatu singularraren artean, plurala delarik desberdintzen den kasu bakarra, bai arrunta nola hurbila:

$-a + ri \rightarrow ai$ ²¹ $-a + ari \rightarrow \hat{a}i$ ²²

	mgg.	sing.	pl.
ama	<i>amai</i>	<i>amâi</i>	<i>amei</i>
gazta	<i>gaztai</i>	<i>gaztâi</i>	<i>gaztei</i>
denbora	<i>denborai</i>	<i>denborâi</i>	<i>denborei</i>
alaba	<i>alabai</i>	<i>alabâi</i>	<i>alabei</i>

Bestalde, ez da asimilatzen datibo kasuko morfemaren bokal irekia, nahiz eta aurreko silabako bokala goikoa izan eta absolutibo eta ergatibo kasuetan asimilatu:

$Zuma + a(k) \rightarrow zume(k)$ baina,
 $Zuma + ri, ari \rightarrow zumai, zumâi$

- c) *-e*, *-i* eta *-o* bokalez bukatzen denean lexema, sinkretismoa gertatzen da berriro ere, Etxarrin behintzat, baina kasu hauetan mugatutakoen artean. Arbizun berriz, ez da horrelakorik gertatzen eta hiru forma desberdin ditugu:

$-e + ri \rightarrow ei$; $-e + ari \rightarrow iei / iai$; $-e + ei \rightarrow iei$
 $-i + ri \rightarrow ii$; $-i + ari \rightarrow iyai$; $-i + ei \rightarrow iyai / iyei$
 $-o + ri \rightarrow oi$; $-o + ari \rightarrow uei / uai$; $-o + ei \rightarrow uei$

- Etxarrin:

	mgg.	sing.	pl.
andre	<i>andrei</i>	<i>andriei</i>	<i>andriei</i>

²¹ Bokal arteko *-r-* xamurra erori egiten da.

²² Hemen ere *-r-* galtzen da, eta erabateko sinkretismoa gertatzen da Etxarriko hizkeran, hiru formen artean.

etxe	<i>etxei</i>	<i>etxie</i>	<i>etxie</i>
eme	<i>emei</i>	<i>emie</i>	<i>emie</i>
ardi	<i>ardii</i>	<i>ardiyai</i>	<i>ardiyai</i>
mendi	<i>mendii</i>	<i>mendiyai</i>	<i>mendiyai</i>
feri	<i>ferii</i>	<i>feriyai</i>	<i>feriyai</i>
otso	<i>otsoi</i>	<i>otsuei</i>	<i>otsuei</i>
zulo	<i>zuloi</i>	<i>zuluei</i>	<i>zuluei</i>
mando	<i>mandoi</i>	<i>manduei</i>	<i>manduei</i>

- Arbizun²³:

Andre	<i>andrei</i>	<i>andriai</i>	<i>andriei</i>
Ardi	<i>ardii</i>	<i>ardiyai</i>	<i>ardiyai</i>
Otso	<i>otsoi</i>	<i>otsuai</i>	<i>otsuei</i>

- d) *-u* bokalez bukatzen diren lexemekin, ez da inongo sinkretismorik gertatzen ez Etxarrin ez Arbizun, ondorengoak direlarik gertatzen diren burutzapenak:

$-u + ri \rightarrow ui$; $-u + ari \rightarrow ub(u)ai$; $-u + ei \rightarrow ub(u)ei$

	mgg.	sing.	pl.
buru	<i>burui</i>	<i>bu(r)ub(u)ai</i>	<i>bu(r)ub(u)ei</i>
katu	<i>katui</i>	<i>katub(u)ai</i>	<i>katub(u)ei</i>
mutu	<i>mutubai</i>	<i>mutub(u)ai</i>	<i>mutub(u)ei</i>

- e) Joxe Mari Arakamak (SE, l.a.) dionez *-airi* izango litzateke mugatu pluralaren kasu-marka Burundako herrietan eta horretarako EI-k jasotako adibideak erabiltzen ditu: “ ‘gizonairi’ *Ol. (EI, 201)*; ‘dianairi’ (... ezin diznairi *fân ...-1967,54-*), ‘mutilairi’ (*naiko lana emen zukan mutilairi agintzen -1967, 80*), ‘ileiri, txumairi’ (...) ‘zarrairi’ (...) ‘mutileiri’ “.

²³ Horrela jasotzen ditu Olasagarrek (AEB, l.a.):

$e + ri = ei$, $e + ari = iai$, $e + ei = iei$

$i + ri = ii$, $i + ari = ttai$, $i + ei = ttei$

$o + ri = ooi$, $o + ari = uai$, $o + ei = uei$

Eta begira nolako antza agertzen duten forma hauek eta Sakana erdialdeko herrietako hizkeretan suertatzen den izenaren eta pluraleko hirugarren graduko erakuslearen artean sortutako sandhi-en emaitzek:

Airi (haiei)

Dienairi < diren haiei (*dienai* < direnei)

Mutillairi < mutil haiei

Illairi < ile haiei

Txumairi < txuma haiei

Zarrairi < zahar haiei

- f) Eguraldiarekin zerikusia duten esaldiak ere datibo kasuan erabiltzen dira, batez ere egoera meteorologiko berria adierazteko direnean:

Auriyai eman ziok!

Elurrai jo zioban ordubentxe!

Eta era berean erabiltzen da zaletasun edo joerak adierazteko orduan, aditz izen bati eransten zaiolarik datiboaren kasu-marka:

Erretziei eman doo.

Yanai jo beño len pensazak aungi!

3.3.6.4. EDUTE GENITIBOA.

EGLU-k argitzen digun moduan, *-en* dugu genitiboaren kasu-marka eta, haxe, zuzenean eransten zaio deklinatzen den hitzari.

Sakana erdialdeko herrietan ere *-en* dugu marka, baina aldaera fonetiko batzuk suertatzen zaizkigu lexemen bukaeren arabera.

Badirudi zenbait hiztunek bereizten duela pluralaren forma besteengandik, baina bada, Etxarrin behintzat, sinkretismoa egiten duen makina bat pertsona, hau da, burutzapen bera erabiltzen du batek baino gehiagok hiru formen kasuan gainera:

Makiñât gizonân negarrak ikus ttûgu! (Makina bat gizonen negarrak ikusi ditugu).

Zû gizonân negarra ikus diau! (Zure gizonaren negarra ikusi dugu).

Erriyontako gizonân negarrak ikus ttûgu! (Herri honetako gizonen negarrak ikusi ditugu).

Hala ere, esan behar da, zenbaiten kasuan bederen, bereizten direla hiru formak, hots, mugagabea eta bi mugatuak.

a) Mugagabea: burutzapen desberdinak gertatzen dira deklinagaiaren bukaerako hizkiaren arabera:

- Kontsonantez bukatzen bada lexema, *-en* atzizkia eransten zaio zuzenean. Unanun eta Dorraon *-ein* atzizkia eransten zaio:

Makiñât gizonen negarrak ikus zittubau!

Bost mutillen aztarnak ikus zittubiek!

Bi gizonein arrastuek ikus ttie! (Unanu)

- Bokalez bukatuz gero, aldiz, *-r-* dardarkari xamurraren erorketaz gain, ondorengo burutzapena gertatzen da:

$V_1 V_2 > V_1 V_1 > V_1$

Amân < amaan < amaen < amaren

Semên < semeen < semeren

Errîn < erriin < errien < erriren

Mandôn < mandoon < mandoen < mandoren

Katûn < katuun < katuen < katuren

Unanun eta Dorraon, dardarkari xamurraren erorketa ondoren, erdiko bokalaren itxiera gertatzen da: *amain*, *semein*, *mandoin*, *katuin*. *Arramain*, *txérri belárriyein tipoá*, *ernia dá aziyein jéyoéra* (EHHA, Dorrao)

b) Mugatu singularra: *-en* morfemarekin batera (*-ein* Unanun) deklinagaiari artikulua eta *-r-* loturazkoa ere eransten zaizkio, ondoren bokal arteko dardarkari xamurraren galera eta absolutibo kasuko burutzapenak suertatzen direlarik lexemaren bukaeraren arabera:

- Deklinagaia kontsonantez, *-a*, *-i* edo *-u* bokalez bukatzen bada, ondorengo burutzapena gertatzen da:

-AREN > *AEN* (bokal arteko *r*-ren galera) > *AAN* ($V_1V_2 > V_1V_1$) / *AIN* (Unanun)
> *AN* ($V_1V_1 > V_1$)

gizonân, *gizonain* < *gizonaan* < *gizonaen* < *gizonaren*

alabân, *alabain* < *alabaan* < *alabaen* < *alabaren*

mendiyân, *mendiyein* < *mendiyaan* < *mendiyaen* < *mendiyaren*

katub(u)ân, *katubein* < *katubaan* < *katubaen* < *katubaren*

- Deklinagaia *-e* edo *-o* bokalez bukatzen denean:

Bi joera ditugu esparruan, absolutibo kasuan egindako isoglosa maparen berdinak. Lehena Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uhartekoa; eta bigarrena Dorrao, Unanu, Arbizu eta Arruazukoa:

-AREN > *AEN* (bokal arteko *r*-ren galera) > *IEEN*, *UEEN* (disimilazioa: *-e*, *-o* + *a* = *-ie*, *-ue*) > *IEN*, *UEN* ($V_2V_2 > V_2$)

semiên < *semieen* (disimilazioa) < *semeaen* < *semearen*

astuên < *astueen* (disimilazioa) < *astoaen* < *astoaren*

-AREN > *AEN* (bokal arteko *r*-ren galera) > *IAEN*, *UAEN* (disimilazioa: *-e*, *-o* + *a* = *-ia*, *-ua*) > *IAN*, *UAN* ($V_1V_2 > V_1V_1 > V_1$) / *IAIN*, *UAIN* (Unanun)

semiân, *semiein* < *semiaan* < *semiaen* < *semearen*

astuân, *astuein* < *astuaan* < *astuaen* < *astoaren*

- c) Mugatu plurala. Herri guztietan berdin, baita Unanun ere:

Gizonen < *gizon* + *-en*

Alaben < *alaba* + *-en*

Mendiyen < *mendi* + *en*

Katuben < katu + -en

Semien < seme + -en

Astuen < asto + -en

- d) Bestalde, etxeen izenak aipatzerakoan, horietako asko deklinabideko kasu honetan, edute genitiboan, ematen dira. Besteak beste hurrengo koadroan ezarri ditugunak jaso ditugu herriz herri, azterketa esparru osoan. Argitu beharrekoa iruditzen zaigu ez direla, aipatu koadroan, azterketa esparruko herri guztietako etxeen izenak jaso nahi izan, etxearen izena aipatzerakoan lerro hauetan aztertzen ari garen edute genitiboarekin soilik erabiltzen direnak baizik, eta horien artean ere ez guztiak, koadroa osatzeko adina baizik. Leku genitiboa aztertzeraz iristen garenean, beste hainbeste jasoko ditugu, bi kasu hauek baitira etxeen izenak erabiltzerakoan nagusitzen diren formak, nahiz eta besteren batzu ere izan.²⁴

VII. koadroa

Etxarri	Lizarraga	Dorrao	Unanu	Arbizu	Lakuntza	Arruazu	Uharte
Agustiñaundina	Altzegana	Antoniëna	Agirrëna	Alonsöna	Amoenea	Anduezana	Aldaiarena
Alpargatteröna	Antoniöna	Arbisuina	Anatxöna	Antiäna	Anjelenea	Bisierena	Antoniarena
Alsasuarräna	Batistäna	Asintxe(i)na	Bizentäna	Antonena	Antoniaenea	Elontorena	Antoriena
Altxagäna	Bekomotxaliäna	Baldäna	Danboliñena	Apezäna	Arginenea	Erregëna	Blankarena
Antonaundina	Bergundöna	Erreroina	Donfermiñena	Arakildarräna	Argiñäna	Erroldäna	Danboliñarena
Antoniöna	Danbiäna	Fermiñena	Dorraobarrena	Argiñäna	Arrosaenea	Kasadöna	Domingorena
Artoaundina	Domingöna	Fidelenä	Frairiarena	Arozäna	Asuraenea	Kristabalena	Etxabarriñena
Artxeyäna	Maskaliäna	Iturrina	Kittueina	Arriazäna	Ataundarraena	Matxiñäna	Eunzalearena
Baleztenäna	Dorrauberräna	Juanbinitoina	Kristoaltxöna	Aulojiäna	Barrenäna	Tresäna	Frankonea
Baleröna	Erreruäna	Kataliñena	Manuelena	Azpirozena	Batistenea	Trisontöna	Felziarena
Bexartëna	Estebanena	Kisuskilleina	Mariena	Baldäna	Beltranena	Tximonenä	Frankorena
Beleztiñena	Migelantonena	Kristojoseina	Migeliköna	Batistäna	Bernaraenea	Txuriöna	Gasparrena
Belokina	Felixena	Manuelena	Migelantoniöna	Bekoestän(i)a	Bisernea		Hijorena
Bertxeräna	Gabrielena	Matiesaina	Milikoina	Biziberrina	Egurzäna		Illardiarena
Berjeräna	Gokotxeräna	Patxiköna	Mozöna	Blasentxa	Elaenea		Jualizena
Biorrutsena	Ijurköna	Pedromarieina	Nabarrö(i)na	Boniñöntxa	Erreroenea		Kalekonea
Dorrönsöna	Indianöna	Pedromigelenä	Patxiköna	Brauliöna	Ezkerraenea		Leizarena
Emañäna	Ixidrona	Pepeina	Torranöna	Burutxurina	Fermiñena		Lorenzäna
Errexikiñena	Josepetxikiyana	Soldaina	Txoköna	Demoniäna	Gartxienea		Mandadöna
Eskalusöna	Juanesena	Tomasena	Zaldubeina	Domingorrubiöntxa	Geesinenea		Markorena
Fanixiöna	Juanenäna	Torranoäna		Erriyántxa	Gorgotxoenea		Mutillarena
Fermintxikina	Juanmarina	Txantxillena		Errotazarrántxa	Illorrienea		Sastriarena
Forteisena	Kamineruäna	Zeziioina		Estangäna	Ifigöna		Huarterena

²⁴ Azterketa esparruko etxeen izenak ezagutzeko ikusi Rafael Karasatorre Bidaurre, *Barranca-Burunda*, 1993. Lan honetan Sakanako herri guztietako etxeen izenak dokumentaturik agertzen dira.

3.3.6.5. PARTITIBOA.

Mugatzailerik eta plural markarik gabe erabiltzen da beti, eta deklinagaia kontsonantez bukatzen bada, *-ik* morfema eranstean zaio:

Gizonik, elizik, gauzik, utsik, izotzik, txakurrik, ...

Eta bokalez bukatzen bada, berriz, *-rik* hartzen du, baina hori bai, *-r* bokalarteko dardarkari xamurra galtzen duelarik:

Amáik, etxéik, mendík, zulóik, katúik, ...

Eta gaineratu behar dugu, zenbaitetan, partitiboaren morfema honek protesi bat jasotzen duela, *-iken* bihurtzen delarik:

Zuloiken, ogíken, etxeiken, amurrazíken (amorrerazirikan), ... Horrela jaso du EHHA-k Dorrau-n ere: *eizeikan otzena* ‘haizerik hotzena’, *oáñddikén* ‘oraindik’.

Pertsona nagusiei entzuten bazaie, oso nabaria da adibideetan markatu dugun azentua (atal hau aztertzen dugun momentuan sakonago azalduko dugularik), eta baita bokal luzapena *-i* bokalaz bukatzen diren lexemen kasuan. Pertsona gazteagoei entzunez gero, aldiz, gehiago kostatzen da azentuaketaz edota luzapenez ohartzea.

Kasu honen erabilerari dagokionez, ondorengo testuinguruetan agertzen zaigu azterketa esparruko herrietan:

a) Ezezko esaldietan:

Ez(t)ioK gauz onik oikin! (Ez zegok gauza onik hauekin!)

Bi egunetan ezta yonko utsik! (Bi egunetan ez da egongo urik!)

b) Galderetan:

Ogík badó? (Ogirik badago?)

Bâkazu kotxéik? (Badaukazu kotxerik?)

c) Gabe/bage partikularekin:

Ardoipê²⁵ gaude! (Ardorik gabe gaude!)

Diruipê geldittuá! (Dirurik gabe gelditu da!)

d) Zenbatzaile mugagabeekin ere zenbait kasutan ager daiteke:

Eskerrik asko!

Gezurrik²⁶ franko!

e) Superlatiboa egiterakoan:

Aittunik aundína.

Neskatóik polittena.

f) Adberbio zein predikatuaren funtzioan agertzen diren zenbait hitz:

Pozik

Utsik (hutsik)

Beteik

Erreik

Auzomotojorik!²⁷

3.3.6.6. SOZIATIBOA.

-eki(n) dugu azterketa esparruan soziatiboaren kasu marka. Baina bukaerako *-n* parentesi artean jarri dugu eta esan daiteke, sudurkaririk gabeko burutzapenak entzuten direla, gehienbat adineko hiztunen artean. Horrela, ondorengo burutzapenak ohikoak dira azterketa esparruko herri guztietan:

nêki, zûki, amâki, aittâki, launâki, aittunâki, txakurrâki, ...

²⁵ Bi eratara erabiltzen da *bage* partikula Etxarrin: bata hemen agertzen zaigun moduan, partitibo kasuarekin, hots, belareko herskari ahoskabea galdu eta ezpainetako herskari ahostuna ahoskabe bihurtuz; eta bestea, aipatu kasu markarik gabe eta ezpainetako ahostuna mantenduz (*ardo bê gaude!*). Hala ere, goian aipatutakoa da gehien entzuten dena. (Ikus kontsonantismo ataleko 17. Orrialdea).

²⁶ Hala ere, zabalduago dago partitiboaren marka baino forma mugagabea: *gezur franko!*

²⁷ Hitz honekin, Etxarrin, erabat harroturik dabilenari esaten zioten. *Auzo* hitzarekin, urtean zehar herrian egiten ziren bilerak eta ondorengo afariak aipatzen ziren; *moto*-a, berriz, ilearen apaindura berezia edo izan zitekeen. Beraz, guztiak bilduta, auzoko festarako ile motoa prestaturik zeukanean bezalako harrokeriarekin dabilela norbait, edo antzeko zerbitu adierazi nahi izan da seguraski, hots, erabat harroturik dabilenean norbait.

Hala ere, behin baino gehiagotan entzungo dugu hitza bera bi burutzapen desberdinetan, Etxarrin behintzat, *-kin* eta *-ki* morfemen alternantzia nabari-nabarian agertzen delarik. J.M. Arakamak ere jasotzen du alternantzia honen lekukotasuna:

“(...) Halaber, Etx.-Ar. Euskeran ‘-n’-dun aldakia besterik ez dugu kausitu: ‘*honekin / artzeiekin ...*’ –NEM--; ‘*beiyekin / idiyekin ...*’ –grab--; ‘*katubaakin / gizonaakin ...*’ – Etxarri-Aranatzko euskara--.

Behin Ergoienan barneratuz gero, aldiz, aldaera biak lehian idoro ditugu, hala nola: ‘*beyeki / iriyeki / goldaaki / amaaki...*’ informatzaile batek sistematikoki ‘-ki’ eman zuen; ‘*trankilidadiekin*’ beste informatzaile batek esanda, Liz.-Erg. –NEM --; ‘*loyekin*’ (ink) / ‘*luma beltz dunarekin, guziareki, nereki, hicketasunareki*’ Do. –Orreaga, lehiakide direla bi aldaerak --; (...)” (SE, 109)

Eta horrela jarraitzen du *-kin* / *-ki* lehia aipatuz Arbizu, Lakuntza eta Uharten ere. Eta guk Arakamak aipatu lehia horretan Etxarriko hizkeraren kasua ere sartu beharrean aurkitzen gara, hala baita lekukoek erakutsi digutena.

Bestalde, Nafarroako beste zenbait hizkeratara joaz, I. Caminok (1997) ere Aezkoako hizkerari dagokionez esaten digu atzizkiak *-n*-dunak nahiz gabeak izan daitezkeela, nahiz eta *-kin* forma erabiliagoa izan; eta O. Ibarrak (1995) Ultzaman, Anuen eta Atetzen kasu sozietiboan *-ki* morfema *-n* gabekoa izango dela ohikoa esaten digu.

Azterketa esparrura itzuliz, J. Olasagarreren lanean Arbizurako *-n* gabeko formak ematen dira sistematikoki:

Neeki, hiiki, harreki, guuki, astuaki, astueki, negubuaki, ...

Horrela da, orduan, sozietibo kasuaren burutzapena Sakana erdialdeko herrietako hizkeretan:

a) Mugagabea.

Lexema kontsonantez bukatzen bada *-eki(n)* morfema eransten zaio, eta bokalez bukatuz gero *-reki(n)*, baina ondorengo bilakabidea jarraitzen duelarik:

$V_1 \text{ r } V_2 \rightarrow V_1 V_2 \rightarrow V_1 V_1 \rightarrow V_1$

Yozin amâki(n) < amaakin < amaekin < amarekin

Yozin umêki(n) < umeekin < umerekin

Bost irîki(n) < iriikin < iriekin < irirekin (idirekin)

Makiñât mandôki(n) < mandookin < mandoekin < mandorekin

Lau katûki(n) < katuukin < katuekin < katurekin

*Yozin gizoneki(n)*²⁸

Lau lapurreki(n)

Yozin launeki(n)

b) Mugatu singularra.

Kasu honen hasieran esan dugun moduan, *-ekin* da erabiltzen den atzizki edo morfema, lexemari aipatu morfemaren aurretik *-a* artikulua eta *-r-* loturazkoa eransten zaizkiolarik, *-a + r + ekin*, beraz. Eta azterketa esparruko herrietan, absolutibo eta edute genitiboaren kasuetan esan bezala, deklinagaiaren bukaeraren araberrako burutzapenak suertatzen dira artikulua eransterakoan, beti ere bokal arteko dardarkari xamurra galtzen delarik. Hauxe da bilakabidea deklinagaiaren bukaeraren arabera:

- Deklinagia kontsonantez, *-a*, *-i* edo *-u* bokalez bukatzen bada, ondorengoa da bilakabidea:

-AREKI(N) > AEKI(N) [-r-ren galera] > AAKI(N) [V₁V₂ > V₁V₁] > AKI(N) [V₁V₁ > V₁]

gizonâki(n) < gizonaaki(n) < gizonaeki(n) < gizonareki(n)

aitzurrâki(n) < aitzurraaki(n) < aitzurraeki(n) < aitzurrareki(n)

amâki(n) < amaaki(n) < amaeki(n) < amareki(n)

alabâki(n) < alabaaki(n) < alabaeki(n) < alabareki(n)

biziyâki(n) < biziyaaki(n) < biziyaeki(n) < biziyareki(n)

mendiyâki(n) < mendiyaaki(n) < mendiyaeki(n) < mendiyareki(n)

eskubâki(n) < eskubaaki(n) < eskubaeki(n) < eskubarekin

mundubâki(n) < mundubaaki(n) < mundubaeki(n) < mundubareki(n)

- Deklinagaia *-e* edo *-o* bokalez bukatzen bada berriz, ondorengoa da bilakabidea:

²⁸ Gaur egun *gizonaki* ere entzun daiteke, erabateko sinkretismoa suertatzen delarik hiru kasuetan.

-AREKI(N) > AEKI(N) [-r-ren galera] > IEEKI(N), UEEKI(N)
 [diptongazioa, disimilazioa eta ondorengo asimilazioa: -e, -o + -a = -jè, -wè] >
IEKI(N), UEKI(N) [V₁V₁ > V₁]

umièki(n) < umieeki(n) < umeaeki(n) < umeareki(n)

semièki(n) < semieeki(n) < semeaeki(n) < semeareki(n)

manduèki(n) < mandueeki(n) < mandoaeki(n) < mandoareki(n)

zuluèki(n) < zulueeki(n) < zuloaeki(n) < zuloareki(n)

c) Mugatu plurala.

Orokorrean esan daiteke sinkretismoa gertatzen dela mugatu singularrarekin kontsonantez, *-a*, *-e* eta *-o* bokalez bukatzen diren lexemen kasuan, hala suertatzen baita Etxarrin behintzat, eta baita zenbait kasutan, kontsonantez eta *-a* bokalaz bukatzen direnetan, mugagabearekin ere. Soilik *-i* eta *-u* bokalez bukatzen diren kasuetan bereizten dira hiru formak. Arakamak Uharteko dotrina aztertzerakoan horrela esaten digu:

“Soziatiboaz den bezainbatean, sgl.-erako *-areki(n)* eta pl.-erako *-aki(n)* erabiltzen ditu egileak: *aundiyerequi*, *Jaungoycotasunerequin* ... sgl.-ean; *obraqui*, *penaquiñ*, *gaiztuaqui* ... pl.-ean”. (ASJU XXVIII-2, 1994, 578).

Mgg	Sing	Pl
<i>Gizonâki(n)</i>	<i>gizonâki(n)</i>	<i>gizonaki(n)</i>
<i>Alabâki(n)</i>	<i>alabâki(n)</i>	<i>alabaki(n)</i>
<i>Semêki(n)</i>	<i>semiêki(n)</i>	<i>semieki(n)</i>
<i>Mendîki(n)</i>	<i>mendiyâki(n)</i>	<i>mendiyeki(n)</i>
<i>Zulôki(n)</i>	<i>zuluêki(n)</i>	<i>zulueki(n)</i>
<i>Katûki(n)</i>	<i>katubâki(n)</i>	<i>katubeki(n)</i>

Neskoorri makiñaat gizonâki(n) ikus ziobiek!

Li gizonâki(n) eztion (ez zegon) ezee eittekoik!

Erriyontako gizonaki(n) eztiok ezee eitteik!

Aipatzekoa da, bestalde, azken silabak, kontsonantez bukatzeaz gain, goiko bokala badarama, ez dela gertatzen erabateko sinkretismoa, mugagabea eta mugatu pluralarena baizik:

Bi lapurreki(n) arrapatu debie!
Lapurraki(n) ezin da iyuafe fan!
Erriyontako lapurreki(n) eztiok ezee eitteik!

d) Funtzioa eta erabilera.

Kasuaren izenak berak azaltzen duen moduan kidetasuna adierazteko erabiltzen dugu, baina zenbaitetan instrumentalaren ordeaz ere erabiltzen da:

Atayâki(n) autsiet bietza! (Atariarekin hautsi dut behatza!)
Mellubâki(n) jo dik ankan!
Eskubeki(n) il dik!
Sarturi oingana makil autsiyâki(n)!

Eta horrela, instrumentalaren ordeaz ere, jaso ditu hurrengo adibideak Arakamak (1994) Uharteko dotrinan: *guezurrerequin, erretzatcearequi maiz, ...*

Denborazko zentzuan ere erabiltzen da sozietiboa:

Eta ori eittieki neiko izengo yau gaurko! (Eta hori egitearekin nahiko izango diagu gaurko!)
Launbetaki da aurten Sanadrian!
Sanjuan egunaki gertatu zan!
Ez etortzieki(n) pentsatu giñuben eziñubela nei.

Eta azkenik, O. Ibarak (*Ultzamako hizkera*, 1995) dioen moduan, zenbait aditzekin ere erabiltzen da Sakana erdian sozietiboa:

Kristôn konfiyentza dakau zûki(n)!
Asko akordatzen gaa arreki(n)!

Aik neeki(n) dakabie espiantza!

Nor ezta baa arrittuko ikustieki(n)!

3.3.6.7. INSTRUMENTALA.

Azterketa esparru osoan jatorrizko igurzkari ahoskabe bizkarhobietakoak, /s/, hortzobietakoaren, /ś/, aldeko neutralizazioa jasaten du, -(e)s²⁹ delarik hartzen duen forma, -s soilik bokalez bukatzen denean hitz oina, eta -es kontsonantez denean. Bestalde, aipatu behar dugu ez dela era mugatuan ia erabiltzen, hots, ez da oso kasu murrizetan ez bada burutzen forma honekin ez singularrean ez pluralean, sozietibo eta motibatibo kasuak baitira horrelakoetan erabiltzen direnak:

Labanes il ziyân txakurre! Labanez hil zuen, eta ez beste inongo tresnaren medioz.

Labanâki(n) ein zioke ori! Labana oso zehatzaz ari zaigu.

Horrela bada, esan daiteke era mugagabeen erabiltzen dela deklinabide kasu hau gaia (hau adierazterakoan bereizten dira mgg eta mpl), denbora iraupena, tresna, etab. adierazteko, eta baita beste zenbait kontzeptu desberdin adierazten dituzten adberbio, lokuzio eta esapideak burutuz:

Emakomes/emakometas ai gettuk izketan! (erabaki)

Bi egunes yondu giñunan bertan!

Urtiatzus an ibildu giñen.

Tiros il ziyân erbiye.

Zulos josîk utzi zioban atorra!

Gurdis ekar ye egur guzie.

Oñes fan ttuk.

Erris erri! Etxes etxe!

²⁹ Aezkerak ere horrela hartzen du (I. Camino, 1997) eta baita Ultzamerak eta Nafarroako beste hizkera batzuek ere O. Ibarra-k esaten digun moduan: “Kasu instrumentalaren ebakera apikaria orokorra da eremu guztian (...) Kasu instrumentalaren ebakera apikari hau, oso arrunta da hegoaldeko GN-z (Erroibar, Oltza, Goñi), eta aezkeraz. Baina, neutralizazio hau mendebaldera ere hedatu da, Etxarri Aranatzen, eta Basaburuko herrietan maiztasun handia izanik.” (1995, 384,386).

Géñes eín (Arbizu, EHHA); *Béres, májiñaldís* (Dorrao, EHHA).

Geñes gein ibiltzen zan mendiyen.

Bûs biâ! (Buruz behera!)

Burus ikes dik dena!

Ankas guâ bota ziyân golpiates! (Ankaz gora bota zian golpe batez)

Auspes! (Ahozpez)

Boda pozes eta etxia goses! (Lizarragako esaera)

Kristônak esanes aldein dik!

Aspertuik noo ori esates!

Egunes, gaubes, bildurres, negarres, euskias, erdias, eskus, askos obe, nee ustes, itxures, egiyes, biyotzes, aldi betes, ...

Olasagarrek (*AEB*, l.a.), berriz, hiru formak bereizten ditu: mugagabea, mugatu singularra eta plurala (*katutez, katubuez, katutez*); eta gaineratzen digu instrumentalaren esparru semantikoa beste kasu batzuek hartu dutela, bai soziatiboak nola motibatiboak.

Azkenik, galdetzaile eta pertsona izenorde zein zenbait zehaztugaberekin *-tas* da erabiltzen den morfema, eta batzuetan *-etas* ere entzun daiteke:

Ezertas, nitas, itas, zutas, gutas, aites, ontas, ortas, artas, zertas, zeinetas, etxiatzus/etxiatzutes, oites, ...

Uharte eta Etxarriko dotrinetan ere ugari dira horrelako burutzapenak, gehiago lehenengoan hala ere:

“E. Ez eguityie iñorc iñori gaitcic, ez itzas, ez obras, eta ez deseyos”. (ASJU XXVIII-2, 1994, 599). (Uh.D.)

“E. Ez eguitia iñori gaitzic ez itzas, ez obras, eta ez deseyuz”. (B.O.E., 2974) (Etx.D.)

3.3.6.8. DESTINATIBOA.

Deklinabide kasu honen atzizki edo morfema edute genitiboari erantsiz gauzatzen da, baina ez *-tzat* atzizkia erabiliz, *-dako* baizik. Horrela jasotzen du I. Caminok ere Aezkera deskribatzerakoan:

“Ezaguna denez, destinatiboko atzizkia *-rendako* da aezkeraz pertsona izenordainetan, *-retako* lehen pertsonako *ni* eta *gu* nahiz bigarreneko (*h*)*i* eta *zu* aldaeretan. Zaraitzun ere *-rendako* da. Goi-nafarreraz ere -Baztanen, Ultzaman, Atetzen, Anuen, Erroibarren, Eguesibarren, Garesen, Oltzan, Goñerrin, Sakanan ...- oso hedatua da atzizki hau kasu marka honetarako”. (1997, 380)

Azterketa esparruan ere pertsona izenordainetan *-d(t)ako* atzizkia edute genitiboko formei erantsiz gauzatzen da:

Netako

Iteko

*Arrendako, onendako, orrendako*³⁰.

Guteko

Zuteko

Zuendako

Aindako, auendako, oindako

Hiru formak bereizten dira, beti ere edute genitiboaren kasuan bezalatsu:

a) Mugagabea:

- Kontsonantez bukatzen denean deklinagaia *-endako* atzizkia eransten zaio:

Makiñât gizonendako izenkua ori!

Bost mutillendako izendu da!

- Bokalez bukatuz gero, deklinagaiaren azken bokala luzatu eta *-ndako* eransten zaio:

Yozin amândako oso zelle da ori eittie!

Zenbat semêndako ekar ttuzubie libûbok?

Makiñât errîndako eziñezkue dek!

³⁰ Horrela agertzen da EHHA-n Dorraon: *Parétiak sérbitzen dó étxiendakó ta órrendáko*.

Bost mandôndako lana zio!

Aunbeste katûndako janik eziok!

b) Mugatu singularra:

- Deklinagaia kontsonantez, *-a*, *-i* edo *-u* bokalez bukatzen denean *-andako* eransten da:

Gizonandako

Alabandako

Mendiyandako

Katubandako

- Deklinagaia *-e* edo *-o* bokalez bukatuz gero *-endako* eransten zaio:

Semiendako

Astuendako

Etxiendako

c) Mugatu plurala. Kasu guztietan *-endako* atzizkia erantsiz gauzatzen da:

Gizonendako

Alabendako

Mendiyendako

Katubendako

Semiendako

Astuendako

d) Erabilerari dagokionez, zenbait kasutan destinatibo honek norbaitekiko jarrera ere adieraz dezake:

Guteko esanbierrak dazka!

Errespeto aundiye daka zuteko!

3.3.6.9. PROLATIBOA.

Guk deklinabide kasu bezala kontsideratu badugu hemen aipatzerakoan, ikus dezagun berau aztertzeari ekin baino lehen zer dioen Euskaltzaindiak honi buruz:

“Gaur egungo gramatikarik gehienek –TZAT atzikia kasu markatzat hartu ohi dute. Hala ere, kasu marka izatekotan, oso berezia dela kontutan hartu behar dugu: beste kasu marka guztiak paradigma hirukoitzean agertu ohi dira, hots: mugagabea, mugatu singularrean eta mugatu pluralean. Baina –TZAT izen edo izen sintagma soilari, mugatzailek gabekoari alegia, eransten zaio”. (EGLU, 446)

“Hortaz, -TZAT horrek bi balio hauek ditu nagusiki: a) Nolabaiteko xedea edo adierazten du (horregatik erabiltzen dute zenbait euskaldunek subjuntiboarekin ere: egin dadintzat, e.a.. Hau da, adibidez, ‘*Oparitzat erloju bat eman nion*’ eta ‘*Emaztetzat herriko neskatxarrik politena eskaini zioten*’ perpausek adierazten dutena. b) Ustezko kutsua du. Hau batez ere adjetiboren bat tartean dugunean gertatzen zaigu”. (EGLU, 449)

Gure kasuan, *-tako*³¹ da atzikia azterketa esparru osoan eta gehien bat EDUKI eta HARTU aditzekin erabiltzen da:

Biak egurretako zizkok makil koxkorrok! (Xedezkoa)

Semetako zikobiek! (Xedezkoa)

Ezazubie tontotako urai ori! (Xedezkoa)

Txaboloi etxetako artu ye! (Xedezkoa)

Erotako artu ziobabien! (Xedezkoa)

Txakur onetako zikobau guk ori! (Ustezkoa)

Ikusten denez, xedezko balioarekin da gehien erabiltzen dena prolatibo kasua Sakana erdiko herrietako hizkeretan, eta EHHA-n ere horrela jaso dute Dorraon eta Arbizon:

Ez, ubéldian ez ..., kamínotáko da. Púnta mí ói; prótxatzen eztaná, suégurretako kendú ta óñi gélditzen dá. Gogórra dá, zúretáko ézta ittén, gútxi azítzen da. (Dorrao)

Iritaako. (Arbizu)

³¹ Aezkeran ere hauxe dugu atzikia bakarra kasu honetarako eta Ultzaman ere bai O. Ibarra-k bere lanean aipatzen digunez (Ultzamako hizkera, 1994, 424)

3.3.6.10. MOTIBATIBOA.

Kasu hau ere edute genitiboari atzizki bat erantsiz gauzatzen da, *-gati* hain zuzen:

Zûgati etor gaa onutza!

Aittângati ezpalitz eziñukie ezee jango!

Semiêngati bakarrik eitten die olako gauzek!

Nori eta Zeri buruz-en orde zere erabiltzen da nongati galdetzailea:

Nongati ai zarie izketan? Zu alabângati ai ga!

Aditz izenei erantsita ere aurki dezakegu, baina horrelakoetan *-s* hortzobietako igurzkari ahoskabea eransten dio batek baino gehiagok (instrumentalaren marka, *-z*, ziur aski), ondorengoa delarik bilakaera:

-t(z)eagati > t(z)eaati (bokal berdinen arteko belareko herskari ozenaren galera) *> -t(z)ieeti* (ea > ie disimilazioa eta ondorengo asimilazioa) *> -t(z)ietî* (bukaerako belareko herskari gorraren galera) *> -t(z)ietîs* (igurzkari ahoskabearen eransketa, instrumentala)

Ori esatietî(s) gertatua dena!

Zu etortzietî(s) ein debie!

Eitten diaun guzie iraztietî(s) eitten diau!

Arropa sekatzietî(s) atia dau balkonia!

Ikusten denez, kausa edo motiboa adierazten du kasu honek esaldi horietan, baina, euskaran orokorra den bezainbatean, ez da hori atxekitzen zaion funtzio bakarra, ezen batzutan balio kontzesiboarekin ere erabilzen baita:

Ori esanâti ez dezu lortuko!

Zu yonâti agertuko die yak dee!

3.3.6.11. INESIBOA.

Nun eta zertan dira bere galdetzaileak azterketa esparru osoan eta, bere formari erreparatzen badiogu, EGLU-k dioenarekin bat dator Sakana erdiko hizkera ere, hots, *-n* izango dugu atzizki nagusia. Hala ere, gainera dezakegu orokorrean *-tan* mugagaberako, *-an* singularerako eta *-etan* pluralerako direla erabiltzen diren morfema nagusiak. Hau guztia, jakina, lexema bizigabeei gagozkiolarik, ezen *beitten* erabiliko baita bestela, bizidunekin, deklinagaia edute genitiboaren markarekin doalarik:

Ne beitten ..., eziñezkue zala pentsatzen neen, beye? (Nere baitan ...)

Ori zuen beitten ziok!

Yozin mutillen beitten jartzen dik konfiyentza!

Eta Uharteko dotrinan ere horrelakoak irakur daitezke: *criadorearen baiyen, Jaungoicoaren baiyen, veraren baityen, deseiyecen duenaren baitan, ...*

Baina ikus dezagun nolakoak diren kasu honen burutzapenak deklinagaiaren bukaerako hizkiaren arabera eta hiru forma nagusiak aztertuz, baina kontutan izanik erabateko sinkretismoa gertatzen dela mugagabea eta mugatu pluralaren artean:

a) Mugagabea eta mugatu plurala.

- Deklinagaia kontsonantez edo *-a* bokalaz bukatzen denean *-etan* da hartzen duen morfema:

Bost arboletan beiretu yau. Kattagorriyek arboletan bizi ttuk.

Makiñât gauzetan galtzen dik denbora! Bee gauzetan ziillek sartuta!

Yozin balkonetan jartzen ye ikurriñe! Balkonetan jartzie eskatu ye!

Makiñât plazetan ibildu gettuk dantzan! Sakanako plazetan, musike ona!

- Gainerako bokalez bukatzen denean, berriz, *-tan* da hartzen duen atzizkia, asimilazioa jasaten badu ere *-i* edo *-u* bokalen kasuan:

Yoz(e)in etxetan gertatzen da ori!

“ *erriten* “ “ “

“ *basotan* “ “ “

“ *moduten* “ “ “

Arbizuko hizkerari dagokionez ia gauza bera dio Olasagarre-k bere lanean:

Mgg		Mg pl	
-a + tan	= etan	-a + etan	= etan
-e + tan	= etan	-e + etan	= etan
-i + tan	= iten	-i + etan	= iten
-o + tan	= otan	-o + etan	= otan
-u + tan	= uten	-u + etan	= uten
K + etan	= K etan	K + etan	= K etan “

(AEB, 1990)

b) Mugatu singularra.

- Kontsonantez eta *-e* bokalez bukatzen diren deklinagaien kasuan disimilazioa eta ondorengo asimilazio bilakaera berbera gertatzen da:

$-K + EAN \rightarrow -K + IEN$

$-E + AN \rightarrow -IEN$

arbolien

balkonien

lurrien

etxien

bestien

kalien

Hala ere Olasagarrek honela jasotzen du lehen kasuan, baina ez bigarrean, hau da, $-E + AN = -EN$ ematen du berak. Nire ustean akatsa izan behar du, kontsonantez bukatzen diren kasuetan ere disimilazioa eta ondorengo asimilazioa ederki jasotzen baitu, eta oraingoan ere horrela beharko luke izan.

- Gainerako bokaletan bukatzen denean, absolutibo kasuko burutzapenei

–n erantsiz gauzatzen da:

Plaza + -a > *plaza* + -n > *plazan*

Mendi + -a > *mendiye* + -n > *mendiyen*³²

Zulo + -a > *zulue* + -n > *zuluen*

Mundu + -a > *mundube* + -n > *munduben*³³

Gogoratu behar dugu hemen Arbizon, Unanun, Dorraon eta Arruazun ez dela absolutibo singularrean asimilazioa gertatzen. Bai, ordea, inesiboaren kasuan, honetan asimilatzeko beharrezkoa duen kontsonantea baitauka atzetik (Ikus bokalismo sailean, 113. orrialdea).

c) Inesiboaren erabilera.

Hasteko ikus dezagun zer dioen EGLU-k inesiboaren erabilerari buruz:

“Euskal deklinabidearen atzizki guztien artean ez dago besterik –kasu instrumentalaren –z izango luke lehiatzaile bakarra, baina horri ere alde handia kentzen dio- inesiboaren –n hau bezain emankorrik, bizirik, hizkuntzari (posposizio, esaera adverbial edo antzekorik sortzeko) honek adina zerbitzu prestatu dionik. Bestela esan, biziki produktiboa gertatu zaio hizkuntzari kasu inesiboaren –n atzizki hau”. (357-358)

Guk ere hala ikusten dugu deklinabide kasu hau Sakana erdialdean, oso emankorra, baina hemen, soilik aipagarriak iruditzen zaizkigun kasuak baino ez ditugu komentatuko, hori bai, beti ere kasuaren erabilera desberdinak kontuan hartuz:

- Inesiboa lekua adieraziz:

Nunean ibillita de bueltatuko ttuk.

Nunean < *nun* + *e(r)e* + *(h)an*, ‘edozein tokitan’ adierazteko erabiltzen da, *nunei* < *nun* + *na(h)i* bezala.

³² Badirudi Arbizon sabaiko igurzari epentetikoa herskaria dela gehiago, eta ‘*menditten*’ edo antzeko zerbait esaten da.

³³ Arbizon ‘*mundubuen*’ eta ‘*eskubuen*’ da absolutiboan ikusi dugun moduan.

- Denbora adieraziz:

Bildotxetan ez dik baliyo aragitako!

Gaztetan eitten ttuk astakeyek!

Aurretan gertatu zikiegubân!

- Modua adieraziz:

Modu txarrien esan zio bân.

Ittokarrien fan yauben. (presaka)

Erkan-erkan sartuko zarie. (txandaka)

Errenkan atia ttuk. (iladan)

Ator utsien yonduiek egun guzie.

Indderrien zio kuaño Felipe!

Olluek arrontza moko-mokuen zikok! (ageri zaiolarik errun egiterakoan)

- Jarduera adieraziz:

Pillotan, futbolien, musien, ... jolastu.

Ollo-kaketan ibilli. (tontakerietan)

- Beste batzuk:

Goyen-barna³⁴ ein be utzi dik.

Mendiyen barna ibilli.

Aldapan³⁵ gora fan dek!

3.3.6.12. LEKU-GENITIBOA³⁶.

³⁴ Soroa lantzerakoan ganaduairekin edo traktorearekin bi muturrak, *goiko bûbe* eta *beko bûbe*, egiteke geratzen dira hasiera batean, beste guztia bukatu ondoren, beste erara egiteko, hots, *goyen-barna* egiteko.

³⁵ Beste era batera ere esan daiteke: *aldapa gua*. Ikusten denez, kasu batean erdiko bokala bere tinbrearekin eta bokal arteko dardarkari xamurra mantentzen dira, bestean ez.

Nungo da leku-genitiboaren galdetzailea eta *-ko* bere morfema nagusia, eta bestela *-(e)tako* bai mugagabearen kasuan, nola mugatu pluralarenean, sinkretismo garbia gertaten delarik. Lexema bizidunekin berriz, *-kiko* morfema erabiltzen da:

Ez zikobiek nêkiko batê errespetoik!

Semiekiko konfiyenza urai ber dik!

a) Mugagabea eta mugatu plurala: erabateko sinkretismoa gertatzen da bi era hauen artean, inesiboaren kasuan bezalaxe.

- Deklinagaia kontsonantez edo *-a* bokalaz bukatzen denean *-etako* dugu morfema:

Yozin lurretako sârrak ez ttuk onak! (m_{gg})

Makiñât plazetako arbolak zikobiek geitzi! (m_{gg})

Gû arboletako sârrak askos obiek die. (pl)

Sakanako plazetako arbol guziek zikobiek geitzi. (pl)

- Bestelako bokalez bukatzen diren deklinagaiei berriz, *-tako* atzizkia eranstean zaie:

Lau kaletako zaborrak erre zittubiek.

Bi erriteko alkatiek bakarrik etor ttuk!

Makiñât leyotako kristalak pusketu ttubie

Ez ekarri gio, yozin moduteko launek!

Unenuko kaletako zaborrak bildu ttubie.

Zuen erriteko emakomiek asarre dê.

Leyotako kristalak allâtu die.

Naparruko portuteko aldapak oso gôrrak die.

b) Mugatu singularra.

³⁶ EGLU-ri (1985, 367) jarraituz eman diogu izen hau deklinabide kasu honi, jakinik ez dela beti lekuzkoa suertatzen: *Egun hartako lana, Bihotz oneko neska, ...*

Kontsonantez bukatuetan izan ezik, *-eko* izango dugu halakoetan, beste kasu guztietan *-ko* da erabiltzen den morfema:

Plazako alkiyek berriyek die.

Etxeko guatzie bezelakoik eztiok!

Mendiko gaztak ttuk obênak!

Basoko aranak aundiyokuek izeten die.

Munduko goraberak aparte utzi ber zittubâu.

Lurreko urrek, erdiyek ustelak!

c) Erabilera.

Kasu honetako morfema edo atzizkia oso joria suertatu da izenak sortzeko garaian, asko eta asko izan baitira berari esker sortu diren hitzak, adierazpen desberdinen arabera agertuko ditugularik:

- Txanponak:

Lauko, zortziko, bosduroko, ogeiduroko, millepeztako, ...

- Golpeak edo zartadak:

Muturreko, belarrondoko, lepageñeko, lepatxikiko, bizkerreko, ipurzuloko, masailleko, zaplastako, zaztako, zizteko, zartako, taloaiñeko, ...

- Animaliak:

Zaldiko, ariko, ...

- Etxeen izenak: asko dira leku-genitiboaren bidez gauzatzen diren etxeen izenak esparru osoan. Horietako asko, edute genitiboa lantzerakoan buruturiko koadroan daude (ikus 176 orrialdea). Hona hemen beste batzuk: *Edronekua, Lixernekoa, Mextrubenekue, Donpolonekue, Errekondokua, ...*

- -BEKO < -BEEKO < BAGEKO (GABEKO):

onbeko, ajolabeko, lotsabeko, itxurebeko, ...

- Bestelakoak: *Belarriteko, eskuturreko, lepoko, bertako, buuko* (buruko), *ipuuko* (idi + buruko), *zurrupeko, zaldisko, fuako, itturriko, oñetako, soñeko, lauortzeko, bosteko* (eskua), ...

3.3.6.13. ADLATIBOA.

Nuá dugu kasu honetako galdetzailea, baina *-(e)ra* singularerako eta *-(e)tara* mugagabe eta mugatu pluralerako ditugu erabilienak kasu honen formei gagozkielarik. Sinkretismoa dugu, beraz, mugagabe eta mugatu pluralaren artean, dagoeneko ikusi ditugun beste deklinabide kasu batzuetan gertatzen den moduan.

a) Mugatu singularra.

Hala ere, ez dira aipatu moduan gauzatzen herriko hizkeran burutzapen horiek, ezen bokal arteko dardarkari xamurra galdu egiten baita kasu guztietan, eta ez hori bakarrik, *-a* bokalez bukatzen diren deklinagaietan izan ezik diptongo bigarrenkariak ere sortzen dira beste burutzapen guztietan:

<i>-a + -ra</i>	→ <i>aá</i>	<i>plazaá</i> [plasá:]
<i>C + -era</i>	→ [já]	<i>lurriá</i> [lu'ɾjá]
<i>-e + -ra</i>	→ [já]	<i>kaliá</i> [kaljá]
<i>-i + -ra</i>	→ [jé] [já]	<i>errié</i> [e'ɾjé], <i>erriá</i>
<i>-o + -ra</i>	→ [wá]	<i>zuluá</i> [sulwá]
<i>-u + -ra</i>	→ [wé] [wá]	<i>mundué</i> [mundwé], <i>munduá</i>

beheko diptongoa + -ra → :

- Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uharte: *dipt. + -re*

ibeire (ibaira), *aurpeire* (aurpegira), *meire* (mahaira), *zartaire*, *argizaire*, *laure*, *matoire*, *zoire*, *Bilbaure*, *Errendeire*, ...

- Arbizu, Dorrao, Unanu eta Arruazu: *dipt. + -ra*

ibeira, aurpeira, meira, zartaira, argizaira, laura, matoira, zoira, Bilbaura, Errendeira, ...

Arbizurako ere gauza beretsua jaso zuen Olasagarrek, soilik *-i* eta *-u* bokalez bukatzen diren deklinagaien singularreko formak bereizten dituelarik:

$i+RA = IRAA$; $u+RA = URA$

Eta neuk ere horrelako burutzapenak jaso ditut: *errira, mendira, putzura, zerura, ...*

b) Mugatu plurala eta mugagabea.

Mugagabe zein mugatu pluralari dagokienez, aldiz, bokal arteko dardarkariaren galera baino ez zaie gertatzen:

Lurretaá, plazetaá, kaletaá, menditaá, zulotaá, mundutaá.

Aurreko zatian esan dugun moduan, modu berean jaso zituen Olasagarrek bere lanean Arbizurako.

c) Leku izenak.

Bokalez bukatzen diren leku izenekin, gainerako izen arruntekin bezala burutzen da:

Arbizué, Bakeikué, Olaztié, Ubertiá, Eginuá, Iruñaá, ...

Gogoratu Arbizun *-i* edo *-u* bokalez bukatzen diren lexemak *-RA* morfema matentzen dutela:

Arbizura, Bakeikura, Olaztira, ...

Kontsonantez bukatzen direnen kasuan, berriz, *-a* da erabiltzen den morfema eta aurreko bokala itxia bada, morfema horrek asimilazioa jasaten du:

-a > -e / i, u C _

Parise, Madrìde (Madrille), Irune, Zarautze, Irurzune, Bitoire, Burgosa, Urdiñe,
...

Eta Arbizun, Arruazun, Unanun eta Dorraon gogoratu hitz bukaerako bokal irekia ez dela asimilatzen:

Parisa, Madrilla, Iruna, Zarautza, Irurzuna, Bitoira, Urdiña, ...

d) Bizidunekin.

Bizidunen kasuan, edute genitiboko burutzapenei *-gana* morfema eranstearekin gauzatzen da, *noongana* delarik galdetzailea:

Alabângana < alabaren + -gana
Katubângana < katuaren + -gana
Felipêngana < Feliperen + -gana
Aundiyângana < handiaren + -gana
Manolôngana < Manoloren + -gana
Zûgana < zure + -gana
Nêgana < nere + -gana

3.3.6.14. ADLATIBO BIDE ZUZENEZKOA.

Ez da erabiltzen esparru osoan, eta bere ordeaz, *-Ø aldia* (Ø aldera) posposizioa agertzen da. Badira, hala ere, erakusleen zenbait burutzapen, zeinetan deklinabide kasu honetako markak ikus baitaitezke, baina horietan ere ez da norabide zuzenezko zentzua inondik inora ere agertzen, adlatiboarena soilik baizik: *onutz(a)* (hona), *orrutz(a)* (horra), *autz(a)* (hara).

2.3.6.15. ADLATIBO BUKATUZKOA.

Leku muga edo tarteari erreparatzen badiogu *nuãño* dugu galdetzailea, eta denbora zentzua duenean *noiz artio* (*arte*).

Lehen erabilerari dagokionez, pentsa daitekeenez, adlatibo arruntari *-ño* eransten zaio, bai mugatu singularrean, nola plural edo mugagabeen:

Etxiáño, mendiéño, plazaáño, zuluáño, putzuéño, lurriáño,...

Etxet(a)áño, menditeño, plazet(a)áño, zulot(a)áño, putzuteño, lurret(a)áño, ...

Baina ez da bakarrik leku edo tarte zentzuarekin erabiltzen morfema hau, sarritan entzun baitaiteke denbora esanahiarekin ere:

Biyer goiziáño ez espiatu!

Gaubonetaáño baziok denbora ori eitteko!

Ez da etorri guaño (oraino)!

Elduen urtiáño ez zioz batee prisaik!

Malamente zailtzie bâtxuyek jartzen, aik eta illonduáño!

“San Kirikok esan dau: elduen urtiaño; San Adriñek esan doo: espiazak guaño!”
(Etxarriko esaera)

Hasieran esan dugun moduan, denbora zentzuarekin bereziki lotua dugu *arte* edo *artio*³⁷ posposizioa, azkena delarik gailentzen dena hiztun zaharren artean behintzat:

Biyer artio!

Nei dezubienien artio!

Ez gaa muittuko esan dezuna bete artio!

Jotake ibiltzen da egunio, nekatu artio!

3.3.6.16. ABLATIBOA.

Nundi eta *noongandi* ditugu kasu honetako galdetzailak, lehena bizigabeekin eta bizidunekin bestea. Eta erabiltzen den morfemari gagozkiolarik *-ti(-di)*³⁸ dugu erabat zabaldurik (ikus kontsonantismoko 17. orrialdea) eremu osoan.

³⁷ I. Caminok ere hala jaso du Aezkoan: “Horiatarik erabiltzen badira ere, *ártio* posposizioarekin egiten direnak dira usuenak aezkeraz:

Sarri ártio (Orb.) *Bihar ártio* (Ab.) *Ikus ártio* (Hir.)” (Aezkera, 1997, 471 or.)

³⁸ Nafarroan nahiko hedatua dugu: Aezkoan (I. Camino 1997, 463 *-tziztukalditi, karreterati* (Hir), *nondi* (Ab., Hir.)), Ezkarozen (K. Artola, EAEL II, 271 *-kándi*), Zugarramurdin (Satrustegi 1987 b, 85 *-orreati*), Ororbian (Satrustegi

Horrela jaso du J.M. Arakamak (SE, l.a.) ere:

“Laburbilduz zera esan daiteke: ‘-ti’ aldaera maizago entzuten dela Sak(ana).-ko mend. eta erd.-ko euskeran; ek.-runtz zuzendu ahala ‘-k’-duna maiztasun haundiagoz suertatuko dela, goi-naf.-ri hurbilduz beraz.” (SE, 111)

Hala ere, guk jaso ditugu Uharteko dotrinan belare herskari ahoskaberik gabeko adibideak: *gaiztotati, etsayetati, mandamenduetati, Marierengandi, arteti, ...* Eta baita bestelakoak ere: *ertetic, partetic, Virgiñerengandic, andic, ...* Eta EHHA-n ere, bi burutzapenak jaso dituzte Dorraon eta Arbizon: *ótatik* (horietatik), *áuteti* (hauetatik), *kaparratati, oñi* (oraindik) lehen herrian; *arrúntzetik ataa, astizkeneti* bigarreanean.

Sinkretismo garbia dugu kasu honetan ere, berriro mugagabea eta mugatu pluralaren artean, bai Etxarri nola Arbizon, Olasagarrek jaso duen moduan, beti ere deklinagai bizigabeei gagozkielarik.

- a) Mugatu singularra: bokalez bukatzen diren lexemei *-ti* morfema erantsiz gauzatzen da; kontsonantez bukatzen denean, berriz, *-eti* izango dugu eranskina, baita *-n* edo *-l* badira ere bukaerako kontsonanteak:

*Mezati, etxeti, menditti*³⁹, *zuloti, infernuti, arboleti, kamioneti, ...*

Lexema bizidunei dagokienez, edute genitiboko formei *-gandi* morfema erantsiz gauzatzen da:

Amângandi, semiengandi, aneyângandi, goñeduengandi, lengusubângandi, launângandi, ...

- b) Mugagabea eta mugatu plurala: *-tati* dugu forma bien⁴⁰ morfema *-e, -i, -o* eta *-u* bokalez bukatzen denean deklinagaia; eta *-etati* *-a* bokala edo kontsonantez bukatzen denean.

1987, 99 *-erioHeti, ebengati*) eta Utergan (Ondarra 1980, 195 *-nondi*). Bestalde hala digu Mitxelena-k F.H.V.-n: “Es interesante el problema que plantea el suf. de ablativo *-tik*, que presenta una variante *-ti* en vizc. y sul., que se repite en *-ga(i)ti* junto a *-ga(i)tik* ‘por, a causa de’” Ikusten denez Euskal Herriko bi muturretako (Bizkaia eta Zuberoa) bilakaera dugu hauxe.

³⁹ Palatalizatu egiten da beti, nahiz eta gero eta gehiago ari den zabaltzen palatalizatu gabeko forma: *menditi*.

<i>Yozin plazetati</i>	<i>Iruñeko plazetati</i>
<i>Yozin etxetati</i>	<i>Erriko etxetati</i>
<i>Yozin menditeti</i>	<i>Sakanako menditeti</i>
<i>Yozin zulotati</i>	<i>Mendiko zulotati</i>
<i>Yozin infernuteti</i>	<i>Mundubontako infernuteti</i>
<i>Yozin arboletati</i>	<i>Plazako arboletati</i>

Eta bizidunen kasuan, berriro ere edute genitiboak markatzen du bilakabidea, aipatu kasuari –*gandi* atzizkia eransten baitzaio. Hala ere, gainera daiteke zenbait hitzunek ez dituela dagoeneko bereizten bi kasuak, sinkretismoa nagusituz doalarik:

<i>Yozin amangandi</i>	<i>Erriyontako amengandi</i>
<i>Yezin semengandi (Lak)</i>	<i>Zû(i) semiengandi</i>
<i>Oozin aneyangandi</i>	<i>Zû(i) aneyengandi</i>
<i>Eoz(e)in goñedongandi</i>	<i>Zû(i) goñeduengandi</i>
<i>Yozin lengusungandi</i>	<i>Zû(i) lengusubengandi</i>

3.4. POSPOSIZIOAK.

Kasu-atzizkien funtzioa betetzen duen hitz askea da posposizioa, eta perpauseko sintagmen arteko erlazio gramatikalak adierazten ditu. Horrela azaltzen dizkigu EGLU-k:

“Erlazio gramatikalak adierazten dituzten aldetik, kasu marken pareko dira; baina azken hauek forma klitikoak ditugu, bakarrik ez baizik sintagmari loturik azaltzen zaizkigunak. Posposizioak, ordea, lehen esan bezala, forma askeak dira”. (EGLU, 1985, 438)

Eta horrexegatik hain zuzen, kasu marken pareko direlako, aztertzen ditugu hementxe, deklinabide kasuen segidan, hauetako morfema edo kasu markak erabiliko baitira posposizio guztiekin edota hauen aurrean doazen hitzekin.

Patxi Goenagaren (1980, 100) arabera, horietako asko (*ondo, azpi, gain, aurre, arte, erdi, ...*) izenak dira edo “*izentzat* har daitezke, nahiz eta oso jokabide berezia izan.”⁴¹

⁴⁰ Azken urteotan badirudi sinkretismoak beste bidea hartu duela, hots, mugagabea eta mugatu singularra modu berebean egitearena.

⁴¹ P. GOENAGA (1980, 100): “Hala ere, badirudi Villasantek nahiago dituela (ik. *Estudios de sintaxis vasca*, 47 eta hurr. orr.) posposiziotzat hartu. Baina neure uste apalez, gehienetan izentzat har daitezke ematen dituen ‘posposizio’ gehienak. Bakarren batzu kenduta, noski. Adibidez: *gabe* eta beste zenbait. Baina ez dut ikusten zergatik ez dugun *izentzat* hartu behar *erru*, adibidez, sintagma honetan: *neure erru aundiz* (op. cit., 75 orr.). Eta horrela ia gehienak.”

Guk, azterketa esparruko herrietan gehien erabiltzen direnak eta ikuspuntu dialektologikotik aipagarri iruditu zaizkigunak jasoko ditugu:

ALAI⁴² [-en ___ -ra] *Geen alayera jokatzen yau musia!*

ALBIZIO [-en ___ -ra] *Guu ardiyek een albiziora ibiltzen ttuk mendiyen.*

Utzi gaitüzte mason, eta protestantiaren albiziora oien atzaparretan (V.Huizi, 1899, 99).

ALDE [Ø ___ -ra] *Baso aldia⁴³ abiyetu ttuk!*

Hauxe da norabide zuzenezko kasuaren morfemaren ordeztu erabiltzen dena. Ez da aipatu kasu marka, *-runtz/-rantz*, erabiltzen azterketa esparru osoan, erakusleen kasuan baino: *onutz(a)*, *orrutz(a)*, *autz(a)*.

Bestalde, posposizioa bereizirik nola izenari loturik joan daiteke:

Etx(e)aldia fateko ordube den!

[Ø ___ -an] *Eliz aldien gertatu emen dek!*

[-en ___ Ø] *Noon alde zaudie?*

Beti pobrien alde atiatzen yauben!

[-en ___ -an] *Guu aldien dirube dakabie!*

Aittan aldien sasoye zikok orrek!

[-ak ___ -ra] *Goizeko zazpiyek aldia etor dek!*

ANTZ(A) [Ø ___ Ø, -n] *Je antza nalle aste guzien! (medio de fiesta)*

Je antzien gailte aspaldiyontan!

APARTE [-z ___ Ø] *Etxes aparte, kotxie de galdu dik!*

Ortas aparte ezer gutxi zikiyan!

⁴² *Alai*, *albizio* eta *kasa / kisa* esanahi berberarekin erabiltzen dira, ‘nahi bezala’, ‘bakoitza bere modura’ adieraziz.

⁴³ Ikus goranzko diptongoen saila.

[-ti(k) ___ Ø] *Orti(k) aparte ein zak nei dekena!*
Be garaitti aparte eztek atiatzen!

ARO [-en ___ -ra] *Aittu diaunan arua⁴⁴ eziñezkue da ori gertatzie!*

ARTE, ARTIO⁴⁵ [Ø⁴⁶ ___ Ø] *Biyer artio! Gero artio! Ikusi artio!*
Nei dezun artio!
Akatu artio ez diau bazkalduko!
Nik esan artio ez muittu!

Gaur egun biak entzun badaitezke ere, bigarrena da, adibideetako, adineko pertsonen ahotan maizago dabilena.

[-ak ___ Ø] *Irurek arte/artio yonko ga!*

BARNA [-n ___ Ø] *Mendiyen barna fan zan.*
Ameiketan barna ibildua.

BATIA ('batera') [-ki(n) ___ Ø] *Zueki batia jatxiko gettuk.*

BEITTEN ('baitan') [-en ___ Ø] *Nee beitten ..., pentsatu niyan!*
Eztakigu noon beitten doon ori.

Uharteko dotrinan, Kredoan, agertzen da hiruren bat aldiz norengan deklinabide kasuaren orde:

⁴⁴ Ikus goranzko diptongoen saila.

⁴⁵ Horrela jasotzen du O. Ibarra ere Ultzameran:

“Posposizioen alorrean ultzameraz *artio* da formarik erabiliena, goinafarrera hegoaldekoan bezala; *arte* + (*d*)*ino*-ren laburtzapena ziurrenik. Imotz eta Basaburuan, ordea, *arte* izango dugu, mendebaldeko formei atxikiz. Zenbaitetan, denborazko posposizio honi lekuzko morfema mugatzailea ezartzen zaio: *-raino* eta honenbestez, *arteino* izango dugu. *Ill artañocuan* (ASTETE: A52) eta *orainartiño* (Garz) (EI).

Nolanahi ere, kontutan hartu behar da De Rijken hipotesi berria forma hauei buruz; beronentzat *artedo* > *arteo* > *artio* bilakabidea gertatu da ...”

(O.Ibarra, 1995, 405)

⁴⁶ Denbora unitatea edo aditz partizipioak eskatzen ditu bere ezkerrean posposizio honek.

“..., *ceruberen eta lurreren criadoriaren baiyen, ... gure jaunaren baiyen, (...) Espiritu Sanduberen baiyen, ...*” (Bon. O.E., 603)

BE(HE) [Ø ___ -ra] *Aldapa bia*⁴⁷ *abiyetu dek.*

Malda bia eroi da!

[-ti(k) ___ -ra] *Buuti bia ein ziobau!*

Goitti bia fan den!

[-z ___ -ra] *Bus bia bota yauben!* (Buruz behera ...)

BIERRIEN (‘beharrean’) [-a, -tu ___ Ø] *Bazkaye birrien ostikuat eman zioan!*

Bazkaldu birrien guatzia fan dek!

BILLE [-en ___ Ø] *Astuen bille zailtziek!*

[Ø ___ -n] *Diru billen ai ttuk!*

BIYERTE (‘bitarte’) [-ra ___ -n] *Etxia biyertien kontatuko dunet.* (denbora)

[-ra ___ Ø] *Bideberritti sorua biyerte eztiok sasiik!* (espazioa)

BUELTA [-en ___ -n] *Bi urten bueltan jakingo yau!*

BU(RU) [-en ___ -z] *Bee bus ikes ziyen.*

[-en ___ -n] *Bi egunan buben emen yonko nok!*

ESKE [Ø, -a(k) ___ Ø] *Ardo eske bieldu duubiet.*

Ardiyek eske fan dek.

“... *eta gue Gertrudis esnie eske fantzan, ...*” (Lizarraga, G. Solis, 118)

⁴⁷ Hauxe da bere bilakera: *behera > beera > bera > bea > bia*.

ESKER [-ri ___ Ø] *Zui esker ez da ezere gertatu.*
Emakomiei esker, bestela ...!

ESKU [-en ___ Ø] *Ez utzi besten esku ori!*

ESPIA [-ri ___ Ø] *Zui espia geldittu die.*

GARNEKO (garreneko) [Ø ___ Ø] *Bi egun garneko emen yonko die.*
Akatu garneko asi zien garraxika!

GIO [-z ___ -z] *Esanes kios einko giñuban!*
Gones kios allatu ttuk!

GOI [-ti(k) ___ -ra] *Azpitti gua ziyuek.*
Eskellerati gua iyes ein din!

[Ø ___ -ra] *Aldapa gua fan dek!*
Eskellera gua iyes ein dik!

INGU(RU) [Ø, -ak ___ -n] *Etxe inguben ibilduek! (espazioa)*
Goizeko ordu biyek inguben etor den.

[-en ___ -n] *Aneyan problemaan inguben itzein bierra dakau!*

KA(B)U [-en, Ø, ___ -z] *Bee kaus bota dek lurria.*
Bia kabos botauk lurria! (Arbizu)

KANPO [-ti(k) ___ -ra, Ø] *Emendi kanpua ein zak nei dekena!*
Orti kanpua eziok beste ezere!
Bee garaiti kanpua eztek onttoik atiatzen.
Elizeti kanpo ez gettuk belauniketzen.

KASA [-en ___ Ø] *Bakuitzek bee kasa eitten zittuk etxeko lanak!*

KISA [-en ___ -n] *Nor bee kisen, aungi züillek!*

KONTRA [-en ___ Ø] *Launan kontra ezin da jokatu.*

LANBIDE [-en ___ -n] *Nori edo zeri buruz-en parekoa litzateke:*

Bee buuban lanbidien ai dek! (Zeri buruz)

Geen lanbidien ai gaa gu eta ez sartu!

LANDA [-z ___ -ra] *Zutaz landara, jaso dute Uharterako Iñaki Mundiñano eta Eneka Maiz-ek (Etxarrieratik sakanerera, 1998)*

Eta guk, Uharteko dotrinan bada ere, jaso dugu horrelakorik:

“G. Credo eta articuloas landara, siñestacen ...” (Bon.O.E., 611)

LEGE [Ø ___ -ra] *Gosai legia ein ziyabien.*

MEDIYO [-en ___ -z] *Alkatien mediyos lortu diau!*

MENDE [-en ___ -n] *Guu mendien doo erriye!*

MODU [-en ___ -ra] *Bakuitzek bee modue eitten zittuk gauzek!*

ONDO [-en ___ -n] *Zuu onduen ezin da yon.*

ORDU [Ø ___ -ko] *Bi egun orduko emen oonko dia (Arbizu)*

PARE [-en ___ -n] *Nee parien tokatu ber ori de!*

PARTE [-en ___ -z] *Noon partes etor zarie?*

PE⁴⁸ (BAGE) [-ik ___ Ø] *Diruipe geldittu neiz.*

Lanipe eztoo bizitzeik!

TRUK(E) [-en ___ Ø] *Nei dezunan truke emanko duuzut.*

Bos duron truke.

[Ø ___ Ø] *Manten(u) truk(e)*

Musu truk(e)

Nei bau yaaman, diru truk yaman berkoik!

3.5. IZENONDOAK GRADUATU EDO MAILAKATZEKO PARTIKULA ETA ATZIZKIAK.

Izenondoak mailakatzeko oso bide emankorra osatzen dute konparaketek, eta bereziki hiru atzizkiren bidez (-en, -ago, -egi) lor daiteke mailakatze hori.

3.5.1. OSO, ASKO ETA DEMONTRIEN/AN (DEMONTREAREN).

Oso, asko eta demontrien/an (demontrearen) dira.

Ondoren ikusiko ditugun atzizkiez gain, *oso* eta *asko* partikulak graduatzaile moduan erabiltzen dira Sakana erdialdean. Lehena izenondoaren aurrean nola atzean joan daiteke; bigarrena eta laugarrena, aldiz, beti atzean; eta hirugarrena, beti aurretik. Eta kasu guztietan izenondoa mugaturik:

Oso gastiyek dek etxioi! (Oso garestia duk etxe hori!)

Gastiyek oso dek etxioi!

Gastiyek asko dek etxioi!

*Politte askua neskatuoi!*⁴⁹ (Polita asko da neskato hori!)

⁴⁸ Ondorengoa da bere bilakaera: *bage > bae > bee > be, -rik be > -ipe.*

Aundiye askua mutikuoi!

Politte askoon mutikuoi! (Arbizu)

Demontrien gastiye dek etxioi!

“..., eta demontrian dibujueki geña ator aik ...” (Lizarraga, G. Solis, 113)

3.5.2. –EN ATZIZKIA.

Aipatu dugu bokalismoaren atalean, bokal geminazioa aztertzen genuenean, baina ez dugu bere osotasunean aztertu.

Atzizki honen bidez, *-en*, maila superlatiboa lortzen da adjetiboari lotzen zaionean, ondorengo burutzapen eta bilakabideak gertatzen direlarik:

V + *-en* > VVn

Luze + *-en* > *luzeen*

Asto + *-en* > **astoen* > *astoon*

Argi + *-en* > **argien* > *argiin*

Mutu + *-en* > **mutuen* > *mutuun*

Naranja + *-en* > **naranjaen* > *naranjaan*

C + *-en* > Cen

Aul + *-en* > *aulen*

Errez + *-en* > *errezen*

Gizon + *-en* > *gizonen*

Polit + *-en* > *politten*

Eta kasu gutxitan baino ez bada ere, absolutibo mugagabeari erantsi beharrean superlatiboaren morfema, partitiboan ezarritako lexemari eransten zaio hurrengo kasuan:

⁴⁹ ‘Etxarrieratik Sakanerara’ liburuaren egileek ‘*Polit askoa da!*’ dela egitura esaten dute, baina guk horrela jaso dugu, bai Etxarrin, bai Arbizun. Gainera, izatekotan, Etxarrin, ‘*Politt askue da!*’ eta Arbizun ‘*Politt askua don!*’ beharko lukete izan. Horrela burutzen da Sakana erdialdean: *-Politte asko duk/dek neskatuoi! –Zer dela/dala esan duk/dek? –Politte asko!* Eta inondik ere ez: *Politt askue/a!*

“...; herriyen balin bada eta langillikena dok eta, eztana gelditzen minutu batien de.”
(Lizarraga, NEMI, 37)

Gizon ezaunik badoo, ori dek emen ezaunikena! (Etxarri)

3.5.3. –AGO ATZIZKIA.

Bi elementu erlazioan jartzeko eta konparatzeko erabiltzen da, eta goragoko maila duenari *-ago* atzizkia eransten zaio. Hauxe da gertatzen zaion bilakabidea kasu guztietan:

-AGO > AO > OO ; -AGO > AO > AU (Ergoiena)

*len + -ago > *lenao > lenoo + -ago > *lenuao > lenuoo⁵⁰, lenau*

*urdin + -ago > *urdiñao > urdiño, urdiñau*

*beltz + -ago > *beltzao > beltzoo, beltzau*

*naranja + -ago > *naranjao > naranjoo, naranjau*

*luze + -ago > *luziao > luzioo, luziau*

*aundi + -ago > *aundiyao > aundiyoo, aundiyau*

*bero + -ago > *beruao > beruoo, beruau*

*alu + -ago > *alubao > aluboo, alubau*

Bestalde, *-xe* morfema tartekatzen da sarritan, konparazioko maila hori zertxobait leuntzen delarik:

Lentxoo < lehen + (t)xe + -ago

Urdinxoo, beltzexoo, naranjaxoo, luzexoo, aundixoo, beroxoo, aluxoo, ...

Eta honetaz gain, *-KO* morfema eransteko joera da nagusi esparru osoan, *-AGOKO*⁵¹ morfema sortzen delarik, kalitate nahiz kantitate adieraziz:

⁵⁰ Gogoratu bokal geminazioa aztertzerakoan, 1.1.5.3. puntuan genioena, hots, ‘lehen’ aditzondoaren kasuan zenbaitek bi aldiz eransten diola *-ago* morfema graduatzaile edo mailakatzaila.

⁵¹ O. Ibarak (1995) ere jaso du: “Adjetiboen graduatzile konparaziozkoari, *-ago-ri*, *-ko* atzizkia lotzen zaio, *-agoko* sortuz, kalitatea adierazteko. Kantitatea konparatzeko *geigakoa* ere erabiltzen da. Forma hauek Ultzaman, Imotzen,

Ori polittokue da! (Hori politagokoa da!)
Zabalookue zan zuen launure!
Gu beño zarrookuek obeki jakingo ye!
Zuena beño urte geyooko aittune agertu dek telebisiyuen!

3.5.4. –EGI ATZIZKIA.

Gehiegizko maila adierazteko erabiltzen da atzizki hau. Bokalez bukatzen denean adjetibo edo adberbioa, *-gi* atzizkia eranstean da, eta bestela *-egi* Etxarriko hizkeran. Arbizukoan aldiz, bokal arteko belare herskari ahostuna erori egiten da sistematikoki, baina gehiegizko maila adierazteko morfema lexema mugatuari eranstean zaio, Etxarrin ez bezala:

Luze + -gi > luzegi, luziei
Aundi + -gi > aundigi, aundiyei
Ero + -gi > erogi, eruei
Biandu + -gi > biandugi, biandubei
Polit + -egi > polittegi, polittei
Txukun + -egi > txukunegi, txukunei

Baina Arbizun, lehen esan bezala, ondorengo burutzapenak dituzte:

Luze + -gi > luziei (luze + -a > luzia + -gi > luziegi⁵² > luziei)
Aundi + -gi > aundiyei (aundi + -a > aundiya + -gi > aundiyei > aundiyei)
Ero + -gi > eruei (ero + -a > erua + -gi > eruegi > eruei)
Biandu + -gi > biandubei (biandu + -a > bianduba + -gi > biandubegi > biandubei)
Polit + -gi > polittei (polit + -a > politta + -gi > polittegi > polittei)
Txukun + -gi > txukunei (txukun + -a > txukuna + -gi > txukunegi > txukunei)

basaburuan, Baztanen (N'Diaye 1970: 145) eta ezkabarten eriden daitezke; beraz, iparraldeko eta hegoaldeko goinafarreraz hedatzen ira" (1995, 521)

⁵² Gogoratu Arbizu, Arruazu, Dorrao eta Unanun asimilazioaren auzia, hots, -a bokala itxi egiten da asimilazio aurrerakariaren testuinguruan, hitzaren bukaera ez denetan: *luzia* baina *luziek*, *semia* baina *semiek*, ...

Harritzekoa bada ere (gogoratu kontsonantismoan ikusi dugunez oso maiz erortzen dela bokal arteko belare herskari ahostuna) mantendu egiten da /g/ kontsonantea Etxarriko hizkeran, nahiz eta bokal artean egon, salbuespen bat badelarik, lexema oso bezala hartzen delako seguru aski:

Geyei (gehiegi)

3.6. ADITZONDOAK.

Aditzondoak elementu aldakaitza eta autonomia behar du izan (P.Goenaga, 1980, 143), hots, inolako erlazio atzizkirik gabe agertuko zaigu, eta lan honetan bere eduki semantikoari erreparatuz aztertuko ditugu eta agertuko zaigun sail bakoitzaren barnean galdekariak, erakusleak eta zehaztugabeak, daudenean jakina, aipatuko ditugu. Bost sail izango ditugu kontuan aditzondoan azterketan: denbora aditzondoak, lekuzkoak, moduzkoak, maila aditzondoak eta iritzizkoak.

3.6.1. DENBORA ADITZONDOAK.

*Agudo, aldiyen, aspaldi, atziabeix/beixatzia*⁵³ (atzera berriz), *atzo, aurki, aurten, bart, bein, beinobeste, bela* (berehala), *biandu, beti, biyer, dauneko* (dagoeneko), *etzi, etzidamu, gaur, gio, goiz, guai, guaikanen, laster, len, lenguen, lenbizi, meiz, noizbeitt(e), noizenbein, noizenkuando, sarri*⁵⁴, *sekule, yaniaun, yaniauntzitti*

-xe atzizkiaren medioz forma indartuak sortzen dira zenbait aditzondoren kasuan:

*beleixe*⁵⁵ < berehalaxe (bela + -xe)

geroxo(o) < geroxeago

*guaixe*⁵⁶ < oraintxe (guai + -xe)

⁵³ Arruazun horrela esaten omen da, Oihana Zubeldiak dionez.

⁵⁴ Laister, geroxeago eta berehala-ren zentzua du: *Sarri etorkua!* (laister etorriko da!)

⁵⁵ *Bealaxe* Arruazun.

⁵⁶ *Ointxe* Arruazun.

3.6.2. LEKU ADITZONDOAK.

a) Erakusleetatik eratorriak:

<i>Nun</i>	<i>emen</i>	<i>or</i>	<i>an</i>
<i>Nungo</i>	<i>emengo</i>	<i>orko</i>	<i>ango</i>
<i>Nundi</i>	<i>emendi</i>	<i>orti</i>	<i>andi</i>
<i>Nua</i>	<i>onutz</i> ⁵⁷	<i>orrutz</i>	<i>autz</i>
<i>Nuaño</i>	<i>onutzeño</i>	<i>orrutzeño</i>	<i>autzeño</i>
<i>Nuako</i>	<i>onutzeko</i>	<i>orrutzeko</i>	<i>autzeko</i>

Forma indartuak soilik inesibo kasuan erabiltzen dira: *ementxe*, *ortxe*, *antxe*.

Eta adlatiboaren kasuan ere bai, baina –ago morfema mailakatzaillearekin batera doanean:

Onutz + *-xe* + *-ago* > *onutzexoo*

Orrutz + *-xe* + *-ago* > *orrutzexoo*

Autz + *-xe* + *-ago* > *autzexoo*

b) Zehaztugabeak:

nunei, *nunbeitt(e)*, *iyun/iyon/iñun* (inon), *iyuare/iñuare* (inora ere), *nuanei*, *nuabeitt(e)* (norabait ere), *nunean* (non ere han)

c) Bestelakoak:

barnen, *gertu*, *aparte*, *kanpuen*, *irriti*, *atzien*, *aurrien*, *aldien*, *onduen*, *inguben*, *erdiyen*, *bien*, *goyen*, *aldemenien*, ...

⁵⁷ Horrela jasotzen du J.M. Arakamak Sakanako hizkera lan argitaragabeen: “ ‘(h)ona/(h)onutz(a)’, bigarren aukeraz baliatuko dira, oro har, *Sak.-ko mend. eta erd.-ko hiztunak*: ‘onutza’ Zi., Alts., Bak., Do(rrau) eta Arru(azu) – Ech., 1989; Iz., 1967; ink.–; ‘onutz’ Etx.-Ar., Liz.-Erg., Un(enu) eta Lak(untza) ... ” (SE, 112) Parentesi arteko herrietako izenen zatiak guk erantsi ditugu.

3.6.3. MODU ADITZONDOAK.

a) Erakusleetatik eratorriak:

ola (honela, horrela), *ala* (hala). Lehenak lehen eta bigarren graduatarako balio du. Forma indartuak *-xe* atzizkiaren bitartez egiten dira: *olexe, alaxe*.

b) Zehaztugabeak:

nolabeitt(e), nolanei.

c) Atzizkiren batez eratorriak:

- -KI: *obeki, aungi, geizki, txarki, poleki, aurki, ederki, ...*

Aipatutako aditzondoez aparte ez da bestela emankorra atzizki hau Sakana erdialdean, aditzlagunak erabiltzeko joera baitago erabat zabaldua azterketa esparru osoan:

Normalien ez diau ori eitten! Hau bezalako esaldiak erabiltzen dira eta ez *Normalki ...!* bezalakoak.

Gauza bera esan daiteke aditzondo moduan erabiltzen diren izenondoen kasuan: *Zuzen jokatu bierra zio!* esaldiaren modukoak erabiltzen dira eta ez *Zuzenki jokatu ...!* bezalakoak.

Bestalde, esan behar dugu ez dela *-TO* atzizkia erabiltzen aditzondoak sortzeko, bai ordea Burundan⁵⁸, isoglosa nabarmena marka daitekeelarik Burunda eta Sakana erdialdearen artean.

⁵⁸ J.M. Arakama (Sakanako hizkera lan argitaragabea): “Sak.-ko euskeran banaketa garbia agertuko dute bi adberbio hauek: Bur.-ko euskeran ‘ondo/(h)obeto’ formei eusten zaien bitartean (haatik, ‘ongi’ jaso zuen AM^a Echaidek Bak.-n – 1989,215 gald.-), ‘ongi/(h)obeki’ gertatuko dira Sak.-ko erd. eta ek. guztian.”

- -KAN: *arrastakan, banakan, laixterkan, arriken, inbuluzken, zilipurdiken, furrutekan, ...*
Ikusten denez, -N sudurkariaren paragoea jasotzen du atzizki honek.
- -IK: *nekatuik, ikusiik, bakarrik, utsik, ixilik, ixixilik, pozik, zuti(k), alperrik, ...*
- -TA: *nekatuta, ikusita, einda, esanda, neita, ...*
- Beste batzuk: *malamente*⁵⁹, *ge(i)xkixe(i)*⁶⁰ (ederki), *majo* (bapo, ederki), ...
Ño, majo bazkaldu yet gaur! (bapo) (Etxarri)
Majo esan doozubie ori! (ederki, ongi) (Etxarri)

3.6.4. MAILA ADITZONDOAK.

*Oso, erabat, dexente, arraso, izugerri, ik(i)agarri, onen, orren, ain, zeñen, erdi, xamar, alenoi*⁶¹ (*alenu, alenure*), *gooti* (gogotik), ...

Zeñen txikiye dakazu buube!

Arraso jota zioz zuen launoi!

Erdi ustelduik opatu zittubabien ontto guziek!

Geldi xamar ibiltzen da azkenontan!

Tonto alenoi! (Tonto halakoa!) (¡So tonto!)

Ze eitten ziñubien atzo Fraxku alu alenarrekin?

Ibillaazi ziek gooti! Jo gooti!

“Biyek elkar ikusi ta gooti elkar zaletu ... dena bat”. (Blas Alegria, 143)

Ikiagarri geizki atia zikiyobiek dena!

⁵⁹ Gaztelerako ‘en vano’ zentzuarekin erabiltzen da: *“Malamente abil, ez dek eze lortuko!”*.

⁶⁰ Ikusten denez esanahiagatik, ironikoa dugu aditzondo honen etimologia, ezen kontrako esanahia adieraztetik baitator: *Geixkixe biziiz i!* (Zein ederki bizi haizen hi!), ‘*gaizki* + *-xe*’-tik datorrelarik.

⁶¹ Alenoi > ‘halaren hori’ (*alaren* > *alaen* > *aleen* > *alen* + *ori* > *oi* izango litzateke bere bilakabidea) eta deklina daiteke: *alenorrek* (halaren horrek), *alenorri*, *alenarrekin*, ...

3.6.5. IRITZIZKOAK.

Nunbeitt, apike/apeki (Unanu), bierba (behar bada), agi danes (ageri denez), ...

Eztakazubie gogo aundiik nunbeitt!

Apike biak ein zoon!

Agi danes eztoo ezee eittekoik!

Bierba ezien autzeño fan ber!

3.7. ERATORPENA.

3.7.1. AURRIZKIAK.

Aurrizki ia bakarra erabiltzen da Sakana erdialde osoan, *des-*, eta oso gutxi dira gainera burutzapenak:

Desein, desberdin, desagertu, desaldartie, ...

Ez- aurrizkia ez da ia erabiltzen esparru osoan. Soilik adibide bat aurkitu dugu, *ezayen* (ezarian).

Ultzameraren kasuaren antzera, aurrizki moduan har daitekeen *ubes-* (ugatz)⁶² daukagu Etxarri, Arbizu eta Ergoienan, *ubetz-* Arruazu eta Lakuntzan.

Ubesaitte, ubetzaitte,-a

Ubesama, ubetzama

Ubesaneye, ubetzaneye,-a

Ubesalaba, ubetzalaba

Ama lijitue beye ubesaitte zikobaan arrek! (Anbruxio Erdozia etxarriarrari hartu diot)

3.7.2. ATZIZKIAK.

Posposizioen kasuan egin dugun moduan, atzizkirik aipagarrienak baino ez ditugu hemen jasoko, eta aipagarritasun hori, beti ere, zentzu dialektologikoan ulertu behar da.

⁶² R.M. AZKUE (1969, 8,-9): "... que para padre nutricio con extensión de padrastro tenemos, repartido en varios dialectos, el vocablo *ugazaita* (que viene de *ugatz* primer alimento del niño) con sus parientes *ugazama*, *ugazalaba*, *ugazseme* o *ugaseme*, *ugazume* y *ugazauride ...*".

- -ALDE. Tokia, baina multzoaren zentzuan adierazten du, eta horregatik *-degi* atzizkiaren pareko dugu:

garialde (gaztelerako ‘trigal’), *artalde*⁶³ (‘maizal’), *aritzalde* (‘robledal’), ...

- -ALDI. Saioa, epea eta baita ekintza bat azpimarratzeko ere erabiltzen da. Izen kategoriakoa dugu edo hitz askea, gutxienez, R.M. Azkuek (1969, 119) esaten duen moduan:

inderraldi, bustialdi, garraxialdi, mozkorraldi, yauntsialdi, estualdi, atialdi, lasterraldi, egueldi, kaxkaldi, ...

A ze estualdiye eman ziobau! (Menudo apuro ...)

Bustialdi bikeñe artu dik! (Vaya remojón ...)

Arrek zittuban, arrek, atialdiyek! (Menudas salidas tenía)

- -ANTZA (-ANTXA). Erabat zehaztugabeko zerbait edo horretarako joera adierazten du. Zerbait erdizka geratu dela adierazteko ere erabiltzen da, eta zentzu honetan graduatzaile kategoria (R.M. Azkue, 1969, 201) ere erants diezaiokegu:

Gordiñantza zioz ori guaño! Gutxiantza ziozba denondako!

Bustiantza geldittu dek! Oztantza zioz gaur!

Gorriantza jar yauben! Geldiantza zailtziek gaur korredoriek!

Motelantxa, epelantxa, gaziantza, ...

- -AUNTZI. Berez, izena edo lexema autonomoa dugu, eta konposaketan erabiltzen da zenbait kasutan, hala nola ‘*austontzi*’-rean, baina atzizki edo morfema moduan ere agertzen zaigu mesprezua eta gehiegikeria azpimarratzen dituelarik:

pixauntzi, itzauntzi, berriketauntzi, kakauntzi, ...

- -(K)AZO. Tresna batekin emandako kolpea adierazten du:

⁶³ *arto* + *-alde*, artasoroa, ez nahastu *artalde*-rekin (< *ardi* + *talde*). Sakana erdialdean azken hau, *arsaldo* (*ardi* + *saldo*) dugu. AZKUEk (1969, 81) ere horrela dakar: “El hecho de que como sufijo no forme más vocablos se debe, sin duda, a que su función es también desempeñada por otros elementos: temas independientes como *saldo* rebaño ...”.

labankazo, aizkorazo, makilkazo, mellukezo, segakazo, arrikezo, ...

- -BEKO⁶⁴ / -BAIKO (Arbizu eta Unanun). Gabezia adierazten du:

lotsabeko, ajolabeko, fundementubeko, onbeko, ...

lotsabaiko, ajolabaiko, fundementubaiko, onbaiko, ...

- -BERA . Biguntasuna adierazteko, eta baita joera edo beharra ere:

Gaztanbera, larbera / kardanbera (Un) (landare errenduna, baina *larra* edo *kardua* baino samurragoa), *ospela*⁶⁵ / *auspela (Arb, Un, Do)* (hotz + bera, ‘sabañón’), ...

Egarbera (egarriak garbitzen dagoena), *gosebera* (goseak garbitzen dagoena), *minbiatuik* (minberaturik, minak mendean hartuta egon), *orbiatuik*⁶⁶ (ankak hazirik eta egosirik egon), ...

- DEI⁶⁷, -TEI. Zuhaitz eta zenbait animalia-aren tokia adierazten dute:

Arizdei, intxordei, sardei, masdei, urrizdei, fagadei, sasidei, ...

Ollotei, txerritei, Eperteita (toponimoa), *Astateita* (toponimoa), *zalditei, ...*

- -DO. Ezaugarri bat azpimarratzeko erabiltzen da, *-dun* atzizkiaren parekoa dugu:

bizerdo, bizkerdo / bixkerdo (Un) (konkorduna), *kalfardo* (ile luzeduna), ...

⁶⁴ -BAGEKO da jatorrizko morfema edo atzizkia, ondorengo bilakabidea jarraitu ondoren:

bageko > baeko > beeko > beko / bageko > baeko > baiko (Arb, Un)

Eta hau azpimarratzeko, Anbruxio Erdozia-ri egindako grabaketan eta ondorengo transkribaketan entzun eta irakur daiteke ‘*neibagie*’ hitza.

⁶⁵ R.M. AZKUE (1969, 12): “Hay varios adjetivos, uno de ellos sinónimo y los otros parientes de *bera*, que apuntan esta evolución. *Egosbeila* (*egosbeila*) dicen los roncaleses, y nosotros *egosbigun* por *egosbera*; ...”.

⁶⁶ Ondorengoa izan daiteke bere bilakabidea: *oin + bera*.

⁶⁷ TRACASA (Nafarroako Toponimia eta Mapagintza, XII, 98): “*INTXORDEGIA* (...) *Obs.- El nombre nos habla de la existencia en el término de nogales (intxaur, intxor). En la Barranca hay cierta tendencia a sustituir el sufijo -di, colectivo de fitónimos, por -degi*”.

- -DURE/-A, -URE/-A. Efektoa adierazteko erabiltzen da:

irinddure/a, oliyodure, kolokadure (klaketeoa, mugimendua), *lokure/a* (txistorra, tripaki edo biriketan, loturen artekoa. *Dozena erdi bet lokure jan zittuk!*).

- -(K)ERA. Neurria, ekintza, modua eta hitz egiteko era adierazten ditu eta koloreekin ere erabiltzen da:

luzera, zabalera, lodiera, ...

*asiera, atiaera, etorrera, itzoera, pasera, akabera*⁶⁸, ...

*ibillera, jazkera, orrazkera, albizona*⁶⁹, ...

gipuzkera, nafarrera, arbizuera, esayera (errefraua, esaldia), ...

orikera, urdinkera, gorrikera, ...

- -ERO. Denbora maiztasuna adierazten du atzizki honek. Ez du bokalarteko dardarkari xamurraren galera jasaten:

goizero, egunero, aldiero, jeyero, ...

- -EYE/EYA (-UYE/UYA). Osasun arazoak eta baita denboraldia ere adieraz dezake:

kakeye/a, auleye/a, odoluye/a, daldaleye/a, ...

goizteye/a izan da denbora zentzuarekin aurkitu dugun adibide bakarra.

- -GALE, -GANE, -ANE. Nahia edo gura adierazteko:

goragalie, botagalie, loganie, uxenie (gabezia), ...

- -GARRI, -KARRI. Zerbait sortu, posible dela edo merezi duela adierazteko:

⁶⁸ Honela agertzen da Uhartea eta Etxarriko dotrinetan:

“G. Eta munduberen acabera baiño len ...” (Uh. D., BOE, 611)

“G. Eta mundubaren acabera baiño lenago ...” (Etx. D., BOE, 2968)

⁶⁹ ‘albizio + era’, ‘nahi duen moduan’ esan nahi du.

*pozgarri, izugerri, urrikarri(tt), aspergarri, luzegarri*⁷⁰ ...
ikusgarri, aipegarri, ...
yamangarri, jangarri, ...

- -GIL(LE), -GIN (-KIN). Zerbaiten egilea eta lanbidea ere adierazten ditu, baina oso adibide gutxi aurkitu ditugu:

Kisusgil lanetan asi dek Periko!, Bi kisusgil bier zittubau!

Langille

Zurgiñe

Ikezkiñe

Bestalde, etxeen izenetan badugu bigarren atzizkiaren aztarnarik:

Argiñana (Arbizu), Emañana < emaginarena (Etxarri), Zapatañenekue < zapataginanekoa (Etxarri)

- -GO. Lanbidea adierazten du, baina guk bat besterik ez dugu aurkitu:

nekazalgue

- -ILO. Gehiegikeria adierazten du eta zentzu peioratiboa du:

mukilo, txerrilo, ...

- -ITZI. Berez ‘iritzi’ aditza izango genuke morfema edo atzizki moduan erabiltzen den zerbaitetarako ustea edo iritzia emateko hauxe:

luzitzik < luze + iritzirik (berandu delakoaren ustea izan) (‘tardado’)

geyeitzik < gehiegi + iritzirik (gehiegi delakoaren ustea izan) (‘abrumado’?)

⁷⁰ *Luzegarriek eman* gaztelerako ‘dar largas’-en kidea litzateke.

- -KA. Moduzko adberbioak sortzeko:

poldoka (irina biltzen denean), *korronka* (eztul fuertea)

*ikurke-makurke*⁷¹ (zigzagueante)

oskolka < *uts* (ur) + *golpeka* izan daiteke bere bilakabidea (gehiegikeria)

- -KADA. Kantitatea adierazteko erabiltzen da:

besarkada, *gurdikada*, *esportakada*, *platerkada*, ...

- -KALTE. Kaltea baino ez duela sortzen adierazteko.

etxekalte, ...

- -KAN. Ekintza baten errepikapena adierazten du eta, ikusten denez, -n sudurkariaren paragoea du, baita atzizkiaren beraren errepikapena ere zenbaitetan, *-kakan* (*-kekan*):

laixterkan, *ague zabalkan*, *ozkakan*, *inbuluzkekan*, *zilipurdiken*, *saltokan*, *bueltakan*, *pirriñekan*, *furrutekan*, *kurrixken*, *iyeyken*, *erkan-erkan* (txandaka), *errenkan* (iladan), *arrastakan*, ... (*itzülken* ere bai Dorraon, eta *elkarri jokan* Arbizun, EHHA-n).

- -KEI (-KERI). Zentzu peioratiboa edo kualitate txarrak adierazten ditu:

zurkillokeye (zikoizkeria), *abarkeye* (gehiegikeria), *astakeye*, *tontakeye*, *alukeye*, *geiztenkeye*, *bierreztankeye*⁷², ...

- -KEITZ (-GAITZ). Zailtasuna edota kualitate txarra adierazten du:

moldakeitze

⁷¹ Etxarriko *Txortxor* toponimoaren eremuan '*Ikurke-makurkeko xenda*' dago.

⁷² Hauxe da bere osaketa eta esanahia: *behar* + *ez* + *den* + *-keria* → *bierreztankeye*. Gertatzea nahi ez den edozein ekintza izango litzateke, beraz.

izerkeitze

*ustekaitzien*⁷³

- -KERA. Koloreekin erabiltzen da gehien bat, oso kolore zehatzekoa ez dena definitzeko. Oso zehatza ez bada ere, halako kolorearen antza gehiago duela adierazteko:

gorrikera, urdinkera, orikera, txurikera, ...

- -KETA(N). Kantitate handia eta ekintza baten era intentsiboa ere adieraz dezake, azken hau -n sudurkaria bukaeran erantsiz:

jendeketa, elurketa, egurketa, ...

*lapurketan, ostosketan, amesketan, iyeiketan, artatxuiketan, sarketakan*⁷⁴,
*asneiketan*⁷⁵ ...

- -KETO (-KITO) Txikigarria da, baina era berean sendotasuna ere adierazten du:

mozketo, mozkito, ...

- -KI. Haragi mota adierazten du eta baita zerbaiten gaia edo zerbaitetarako gauza ere. Ikusi dugu lehenago (2.6.3.) moduzko aditzondo zenbait sortzeko ere erabiltzen dela:

txerriki, ardiki, beiki, antxumeki, axurki, tripeki, urdei (urdeki), ...

*gizenki (gantza, lodiera), entraki*⁷⁶, ...

epeki (petacho, Arbizun), yaski (petacho, Etxarrin), galtzasoki/a (liga), ...

⁷³ Uste + gaitz izango lirateke bere osagaiak. Kasualitatez edo nahi gabe gertatu daitekeena adierazteko erabiltzen da: 'Ustekaitzien etorko balie ...!'

⁷⁴ Ganadoa zaintzen ibiltzen zirenen jokoa: *sar(tu)* + *-keta* + *-kan* izango litzateke bere bilakabidea. Makila bat lurrean sartu behar zen, zutik utziaz eta beste jokalaria(ar)ena(k), momentu berean, lurrera botatzen saiatuz.

⁷⁵ Dorraon horrela jaso dute EHHA-n: *asnéiketan ásten zaá*.

⁷⁶ Lagun talde edo koadrila batean kide berria onartzeko, honek *entrakiye* (janaria) eta *erlanardue* eskeini behar zien gainerakoei.

- -KILLO. Zerbaitetarako joera adierazteko, eta baita ontzia edo neurria ere:

biazkillo, muzkillo / muztillo (Un, Arb) (negarti), zurkillo⁷⁷, pokillo / matsakillo (Un, Arb) (racimo), pexkillo ...

- -KO, -KA, -XKA. Atzizki txikigarria dugu hauxe, eta aditzei lotua ekintza adierazten du:

mutiko, zaldiko, ariko, bioka, pottoka, baxaka (basurde kume), mandako⁷⁸, iriko, ... mendixka, bidexka, errixka, luzexka, gorrixka, orixka, mordoxka, eroska, erdixka, ... galdeska, farreska, ...

- -KOI, -KOR. Zerbaitetarako joera. Adibide bat baino ez dugu jaso lehenarekin, Etxarriko toponimian ugari agertzen bada ere:

*axkoi⁷⁹ (vivero)
sentikor, kelkor(tu), ...*

- -KUNDE⁸⁰. Badirudi ihauteriei lotuta garatu dela atzizki hau. Ihauterietako egunen izenak atzizki honekin gauzatutako hitzez izendatzen dira:

⁷⁷ Zurkillo izena du Etxarriko dermiotik pasatzen den erreka batek. Berez *zur* (zikoitz, zeken) izenetik eratorria izango genuke, ez baitu ur gehiegirik inoiz eramaten. *Zurkillokeye* hitza ere erabiltzen da, zikoizkeria hitzaren sinonimo moduan.

⁷⁸ Etxarrin, herri kanta batean agertzen zaigu: “*Arre, arre, manddako, biyer Iruñarako, etzi Tolosarako, ...*” (Ikus lexikoaren atala, x orrian).

⁷⁹ TRACASA-koek horrela jaso dute: “Axkodi (axkooi) parece ser un genérico local. Nuestro informante los define así: ‘*hemen askooi tiki bet eta hemen besti at. Puskek, ez deenak, esan duten bezala ... zaborra, arbol txikiyek eta ... axkooiek*’. Son pues terrenos no cultivados donde crece todo lo que sale, sucios de vegetación. Podría proceder del fitónimo *harizko, haizko*, diminutivo de *haritz* ‘roble’, muy conocido en la toponimia vasca de Navarra, más el sufijo –di. El informante, en efecto, dice que suelen estar poblados de arbustos”. (Nafarroako toponimia eta mapagintza, XII, 37 orr.)

Guk ez dugu uste horrela denik, ezen esan digutenez *muntei* (mintegi) hitzaren sinonimoa da eta, beraz, zentzu osoa izango luke (*h*)azi + *koi*-tik eratorriko bagenu, hau da, ‘landareak hazten diren tokia’ izango litzateke, eta behin haziz gero, *axkoi*-a *muntei* izatera pasatuko litzateke. Gainera, *-di* atzizkia ez da Etxarrin erabiltzen *-degi (-tegi) > -dei, -tei* baizik.

⁸⁰ Honela jaso zuen V. HUIZI-k (1899, 145 orrialdea): “*KUNDE: gizekunde, el carnaval de los varones – andrekunde, el de las mujeres – kabikunde, el día que forcejean los jóvenes de ambos sexos*”.

gizekunde, andrekunde, garikunde, kabikunde, ...

- -KURRE / -GORRI (Erg.), -KARRE. Premia adierazten du:

kakakurre / kakagorri, pixekurre / pixegorri, ittokarrien (ito + gurean)

Badira, bat baino adibide gehiago herri bakoitzeko jaso ez badugu ere, Etxarrin eta Arbizun belare herskari ahostuna daraman atzizkidun burutzapenak, -GURA:

azkura (Arbizu), jolasgure (Etxarri)

- -MEN, -PEN, -BEN. Atxekitzen zaion aditzaren egintza adierazteko erabiltzen da:

gozamen

iruipe / iduipen (Erg) (susmo), iruipenuts ((re)celoso)

nabarben (harro)

- -NEI. -gura atzizkiaren ordeztu erabiltzen da Etxarrin:

asnei < hatz + nahi

- -OSO. Ugaritasuna adierazten du. Ez dago oso zabaldua:

kasketoso, nekoso, kakuso, ...

- -PE. Beheko edo azpikoa adierazteko:

estalope⁸¹, illunpe, errotape⁸², meipe⁸³, estalpe, besape, izterpe, ankape, ...

⁸¹ Gerardo Lz. De Guereñu-k 'olbea' jaso zuen Agurainen, 'Arcos o cubierto en paseo público' direla esanez. Etxarrin, udaletxeko arkupeari esaten zaio horrela, eta bere bilakabidea, seguru aski, ondorengoa da: *estal(i) + ohol + behe > estal + ol + pe > estalope*.

⁸² Etxarrin haur kanta honetan agertzen da: "Sugendilla kuxkur / aitte tama nun ttuk / **errotapien** / zertan / zotza biltzen / zotza zetako / sube eitteko / sube zetako / amin zarrak biotzeko / amin zarrak zetako / olluei jana emateko / olluek zetako / arrontzak jartzeko / arrontzak zetako / apezai emateko / apeza zetako / ..."

- -TI. Joera adierazten du:

gezurti, bildurti, negarti, lotsati, ...

- -TO, -TTO / -TXO. Txikigarriak egiteko erabiltzen dira:

txikito, ttikitto, neskato, axkolto⁸⁴, zikinto, ezpeinto, eltxeto, karreto / karroto (Arb), zakuto, mozketo, ratotxo, ...

- -TZA, -TZE. Ekintza eta baita leku zehatza ere adierazten du:

bizitze, ezkontza, beiretze, ...

guatze, ezkaatza, patatatze⁸⁵ ('patatal') ...

- -XE. Intentsiboa dugu atzizki hau:

nexkixe, gexkixe⁸⁶, guaixe / oixe (Un), beleixe, frexkixe⁸⁷, ...

- -ZALE (-tzaile). Zerbait gustoko duela adierazteko eta baita lanbidea ere. Azken adiera hau nagusitu dela dirudi eta esan daiteke dagoeneko -tzaile atzizkiaren tokia hartu duela:

⁸³ Norbait otorduetara berandu iristen denean, horrela esaten da Etxarrin: "*Meipeti pixtu einko doogu!*" Paskual Rekaldek esaten didanez, Baztan aldean ere antzeko esaldia erabiltzen da: "*mahaiPETIK xixtu ...*"

⁸⁴ Unanun esaten didate ez dela bertan erabiltzen eta gaineratzen didate Etxarri eta Uharten entzuten dela gehien. Unanun *aizkora txikia* esaten diote.

⁸⁵ Toponimian agertzen da Etxarrin (NTM XII, 1993, 48): *Juanagustiñen patatatze ...*, "*El patatal de Juan Agustín*".

⁸⁶ 'ederki' aditzondoaren esanahia du. Gaizki + -xe da bere bilakabidea eta esanahiaren aldetik, ironia erabiltzen du, ezen kontrako esanahia ematen baitzaio.

⁸⁷ Apuro eza adierazten du. Frexko-tik dator, gaztelerako 'tan fresco' bezala: *A ze frexkixe zuena!* (Ezta apuratu ere zuek!, '¡Vaya frescura!').

launzale (ayudante), *yakuszale*, *motxale*, *salzale*, *ereinzale*, *ilzale*, *urdilzale*, *andreizurrezale*⁸⁸, ...

Azken adiera honetan agertzen da Uharteko dotrinan ere: “..., *baño atriciua dauquenac beguiracendio Juez zucen castigalieri becela*, ...” (Bon. O.E., 623)

- -ZEI. Zerbait zaintzen duena:

txertxei, *auntzei*, *beizei*, *artzei*, *biortzei*, *mandazei*, *i(n)gurei*⁸⁹, ...

- -ZU. Ugaritasuna adierazten du, baina gehienetan ugaritasun hori metaforikoa da:

berrizu, *zorrizu*, *kakazu*, *mukizu*, *bizerzu*, *illezu*, ...

- -ZULO. Joera, zaletasuna adierazten du:

amazulo, *aittezulo*, *etxezulo*, *tabernazulo*, ...

3.8. ADITZAREN MORFOLOGIA.

Aditzaren morfologia aztertzerakoan euskal aditz laguntzailearen lau sailak (N, NN_i, NN_k, NNN) izango ditugu kontuan oinarrian, gero, sail bakoitzaren barruan aditzaren denboraldiari erreparatuko diogularik, berezitasun aipagarrienen azalpenak ere emango ditugularik.

Aditz forma bat ematen denean soilik, azterketa esparru osoan horrela gauzatzen dela esan nahi du; bestela, gainerako burutzapenak ere jasoko ditugu.

Lehenik, Sakana erdialdeko aditzen ezaugarri nagusiak ezagutu ditugu; ondoren aditz laguntzailea aztertu; eta azkenik, tratamendu bereziak jasoko ditugu: hiketa edo alokutiboa, tratamendu errespetutsua eta xuketa edo umeei zuzendutako hizkera berezia.

⁸⁸ Horrela jaso diogu Inozentzia Markotegiri: *Etor zan, gizon begigorri andreizurrezaliat*, ... Eta hartzen diogun zentzua, ‘mujeriego’-rena litzateke, ‘andreak izorratzen dituena’.

⁸⁹ Horrela izango litzateke bere bilakabidea: inguru + zain > *i(n)gurei* (guarda). Sudurkaria parentesi artean jarri dugu, bi eratara jaso dugulako.

3.8.1. SAKANA ERDIALDEKO ADITZAREN EZAUGARRI NAGUSIAK.

3.8.1.1. PARTIZIPIOETAKO –I BOKALAREN SINKOPA.

Aditz partizipioetako –i bokalaren sinkopa dugu hauxe, eta partizipioa modu proklitikoan edo enklitikoarekin doanean gertatzen da, Mitxelenak⁹⁰ dioen moduan:

Etorco neiz, etorkua (etorriko da), ...

Ikus det, yos dau, yoskuau (erosiko du), ...

Ekar det, etor da, ibil neiz, ...

Arakamak (L.A.) ere jasotzen du gertaera hau eta gaineratzen du “oro har, ‘-i’-z amaitu hiru silabadun partizipioetan beteko da”-la, “bisilabikoetan ez dela gertatzen”. Salbuespenak ere aipatzen ditu, “*yoskuau*” Etxarrirako, baina berez hiru silabatakoa (“erosi”) delako egiten duela sinkopa dio. Uharte eta Irañetan jasotzen ditu salbuespen moduan “*jarrzienien*” eta “*jarrbeittet*”, eta Etxarriko “*jarrikuau*” adibidea azaltzen du bisilabikoen sinkopatzeko ezintasuna frogatu nahian edo. Gure aldetik erantsi nahi dugu entzuten dela Etxarrin adibide honen forma sinkopatua ere: “*jarkuau*”, forma sinkopatua eta sinkopatu gabea lehian agertzen direlarik. Eta azken honen moduan, *jantzi* aditzarekin ere jaso ditugu ondorengoak:

Jazkuau (jantziko du)

Jantzikuau (jantziko du)

Bestalde, Arakamak berak Uharteko dotrinan jasotakoak ditugu hurrengoak: *etorco, etor cienien, icus duzu* (1994, 583).

3.8.1.2. PARTIZIPIO ANALOGIKOAK.

-n edo –i bokalaz bukatzen diren aditzei –tu edo –du morfema eranstea datza gertaera hau eta Sakana erdialdeko hizkeretan oso hedatua dugu, ez ordea aldameneko Burundakoan:

⁹⁰ SHLV (1988, 930)

-n

yoon *yoondu* “Beraakin pixkaat izketan ioondu nintzen ...”
(Santiago Ezkerra Beltza, 1980, 6)

izen *izendu* “Zein izendua ori esan deena?”

jakin *jakindu* “Atzo jakindu giñuben etorko ziñela”

-i

ibilli *ibildu* “Gaur beño len ibildua bei ori pillotan!”

bizi *bizittu* “Tragoxkarrek bizittu zoon pixkat!”

*bidali*⁹¹ *bieldu* “Zakurran ipurdie bieldu zebien!”

urai (edugi) uraittu “Eztiau denboraik uraittu ori eitteko!”

Ultzameraren eremu osoan ere suertatzen da gertaera hau O. Ibarrek (1995, 543. orrialdea) dioskun moduan.

3.8.1.3. –GI MOTATAKO ADITZ PARTIZIPIOEN MORFEMAKO KONTSONANTEAREN GALERA.

Sakana erdialdean, *-gi* morfemaz osatutako aditz partizipioek aipatu belare herskari ahostunaren galera dute, batzuen kasuan aldaketa haundia gertatzen delarik bere formari dagokionez:

*Edugi*⁹² > *urai, uittu* (Lak), *irui* (Arb.), *idui* (Un), *udi(g)i* (Arr)

*Irazegi*⁹³ > *izerai, izei* (Lak), *ixiin* (Arr)

⁹¹ Hauxe da bere bilakabidea: *bidali* > *bideli* (asimilazioa) > *bieli* (bokal arteko –d-ren galera) > *bieldu* (partizipio analogikoa).

⁹² Hauxe izango dugu bilakaera Etxarriko formarako: *edugi* > *udegi* (metatesia) > *uregi* (d/r txandaketa) > *urei* (bokal arteko –g-ren galera) > *urai* (diptongo irekidura). Eta Arbizuko burutzapenerako: *edugi* > *idugi* (hasierako e-ren itxiera) > *irugi* > *irui*.

⁹³ Bilakaera: *irazegi* > *izeragi* (metatesia) > *izerai*.

Erabagi > erabai

*Ebagi > ebai*⁹⁴

Jagi > jai, jei (Lak, Arr, Arb)⁹⁵

Iragi > irai, irei (Lak, Arr, Arb)

Aipatu joera hau, Etxarritik Arruazurainoko hizkeretan gertatzen da; behin Uhartera iritsiz gero *-ki* morfema nagusitzen delarik, belare herskari ahoskabea galdu gabe, Arakama-k (LA) jasotako adibide hauetan ikus daitekeen moduan:

Eoki / iuki (Uharte eta Egiarreta)

Jeki / xeki (Uharte eta Ihabar), *ideki* (Murgindueta)

3.8.1.4. PARTIZIPIOEN ERABILERA ATRIBUTO GISA.

Ez da erabiltzen azterketa esparruan *-a(k)* morfemaz osaturiko partizipioa, bai ordea beste biak, *-(r)ik* eta *-ta (-da)*, lehena maizago erabiltzen delarik, eta gainera *-(r)iken* aldaera ere erabiltzen da, oso hitzun gutxiren kasuan bada ere:

Atsaundituik geldittua!

Tontotuik doo erabat!

Aurrek lokartuik zeen gu allatziako!

Eiñik zizkok einbierrak!

Oso aurriatuik dakabie lana dauneko!

Ederki kasueiñik doo ori!

Artubierrak artuik aldein zeen!

Galduik(en) zoon erabat!

Loteye artuik(en) dakau dauneko!

Hala ere, adibide hauekin guztiekin erabil daiteke *-ta (-da)* morfema ere inoren belarria behartu gabe. Horrela, bi eratara, agertzen da EHHA-n Dorraoko galdetegian ere:

⁹⁴ *Ébagi* EHHA-n, baina guk bokal arteko herskaria galduz beti.

⁹⁵ Guk horrela jaso badugu, belare herskari ahostunaren galeraz, Echaidek *jagi* dakarkigu EHHA-n.

Esanbierrak esanda fan zan!

Majo kasueinda uraittuebie guai artio!

Aspertuta ikusten dakik azkenontan!

Lánzárra ... íbillíta dáoná; burúba sartutá; patáta, por ejémplo, lúrrien ustélduik elduá. (Dorrao, EHHA).

3.8.1.5. ADITZ IZENAK.

Aditz izenak burutzeko erabiltzen den *-t(z)en* morfemaz gain, Sakana erdialdean badira beste bi, *-ketan* eta *-kan (-kekan)*, atzizkiak aztertzerakoan aipatu ditugunak. Gogoratu ekintza baten errepikapena adierazten duela, eta askotan ‘egin’ aditzaz buruturiko aditz perifrasiekin erabiltzen dira:

Estalketan ibilduaki(g)u! (Estaltzen ibili zaigu!)

Eztulketan akatu eta botaketan asia! (Eztula egiten bukatu eta botatzen hasi da!)

Ostosketan yondua egun guzien! (Ostots egiten egon da egun guztian!)

Laixterkan fan/juan da! (Laister egiten joan da!)

Ague zabalkan arrapatu diau/duu! (Ahoa zabaltzen harrapatu dugu!)

Ozkakan da inbuluzkekan ibildu die! (Hozka egiten eta itzulipurdika egiten ibili dira!)

3.8.1.6. ADITZ OINAREN ERABILERA.

Ahalera, subjuntiboera eta aginterazko adizkietan aditz oina erabiltzen da sarritan Sakana erdialdeko hizkeretan Euskal Herriko ekialdeko hizkeretan bezala:

Sar detteke/daittike? (Sar daiteke?), *As netteke/naittike?* (Has naiteke?), *Jolas zettezkie/zaittizkie!* (Jolas zaitezketel!), *Geldi zettezke/zaittizke nei dezun/duzun artio!* (Geldi zaitezke nahi duzun arte!), *Gerta detteke/daittike olakoik gaurko egunien?* (Gerta daiteke horrelakorik gaurko egunean?), ...

Laun ziaun! (Lagun dezagun!), *Afal ziaun!* (Afal dezagun!), *Zuek bille zazubien nei diau/duu!* (Zuek bila dezazuen nahi dugu!), *Buelta gettezen!* (Buelta gaitezen!), ...

Eskaiozu!, *Yakus yoogun!* (Erakus diezaiogun!), *Jenzak orti!* (Ken ezak hortik!), *Arzazu!*, *Arrapaiok!*, *Mugiri!* (Mugi hadi), *Mui zettez!* (Mugi zaitez!), “*Beira zazubie (begira ezazue): emen, Ipar Amerikako dolar batek ...*” (Santiago Ezkerra Beltza,

1980, 6).

Eta Arakama-k ere ondorengoak jaso ditu Uharteko dotrinan: *libra gachazu, santifica bedi, erreguzazu, salba cechala, acorda gaitcen, esca zozu, ...* (1994, 583).

Baina badira, hala ere, batez ere ezezko esaldietan, aditz partizipioz osaturiko burutzapenak:

Eztetteke sartu! (Ez daiteke sartu!), *Ezettez etorri!* (Ez zaitez etorri!), *Ezazubie beiretu!* (Ez ezazue begiratu!), ...

3.8.1.7. ADITZAREN ASPEKTUA.

Etorkizunezko aspektuari dagokionez, bi morfema erabiltzen dira nagusiki azterketa esparruan: *-en* eta *-ko*, belare herskari ahoskabea erabiltzen delarik soilik bigarren morfemaren kasuan, aditz oina *-n* edo *-l* batez bukatzen bada ere:

Etorko, bazkalduko, yoosko, esanko, fanko, emanko, izanko, yoonko, ilko, ...

Bestalde, *-n* eta *-l* kontsonantez amaituriko aditz oinen kasuan, etorkizunezko aspektua egiteko *-en* morfema⁹⁶ ere erabil daiteke:

Esanen, fanen/juanen, emanen, izanen, yoonen/oonen/eonen, illen, ...

“Jotzen baut pantzan,

fanen eiz dantzan!;

jotzen baut zillen,

sekule ezeiz illen!” (Etxarriko esaera)

Uharteko dotrinan, berriro, Arakamak jasoak ditugu hauek: *emanen, jaquiñen, icenen, juanen, eguinen, esanen, illen, ...* (1994, 583).

Eta kasu batzuetan, *-(r)enko* bezalako egitura pleonastikoa ere erabiltzen da Zuberoan⁹⁷ bezala:

⁹⁶ Gogoratu bokalismoaren atalean genioena: Arbizun era sistematikoan, eta beste herrietan noiz edo noiz a bokala aurretik daramaten n-z bukatutako aditz oinen kasuan, hurrengo bilakabidea gertatzen da:

$n \rightarrow \downarrow / a_en \quad esanen > *esaen$
 $V_1 V_2 > \bar{V}_1 V_1 \quad *esaen > esaan$

⁹⁷ Hala dio K. Zuazok (1998): “Zuberoan oso hedatuta dago gaurregun *-KO* eta baita *-RENKO* tankerako egitura pleonastikoa ere hizkera batzuetan *-Eskiulan* eta *Santa Grazin*, esate baterako-: *ikusienko, eamanenko, izanenko.*”

Izanenko ttuk bei olakuek beixe!

Yamanenko zittubau guk! (Eramanen(ko) ditiagu guk!)

Gustua ibillenko zan! (Gustura ibiliren(ko) zen!)

Eta azkenik, *ibilli* aditzak ere bi morfemak onartzen ditu, *ibilko* eta *ibillen*, ziurrenik bukaerako *-i* bokalaren sinkopa dela eta, *-l* kontsonantez bukatutako gainerako aditz oinen modura:

Ardiyen atzeti ibillen da segurasko!

Seguro i bakarrik ibillen eizela?

Gustua ibillen guen! (Unanu)

Aipatzekoa da, era berean, *-n* kontsonantez bukatutako aditzen *-en* etorkizuneko morfemaren disimilazioa:

$Vn + -en > Ven > VVn > Vin$

Arakamak *fain*, *egoin*, *esain* eta EHHA-k *izein*, *egoin* jaso dituzte Dorraon, eta guk Unanun ere jaso ditugu horrelako formak:

“Beya, an izein da, ez?” (Unanuko grabazioa)

“A, debalde emain diot, ...” (Unanuko grabazioa)

3.8.1.8. PERTSONA EZAUGARRIAK.

- NN_i aditz laguntzailearen Niri pertsonaren marka edo ezaugarria *-t* dugu azterketa esparruko hizkera gehienetan, bai orain aldi nola iragan aldi, aldaketa jasaten ez duelarik iragan aldiko marka eransten zaionean. Etxarri, Ergoienako hirurak, Arbizu, Lakuntza eta Arruazun gertatzen da horrela, azken herri honetan orain aldi bakarrik bada ere:

Zait - zitzaidan

Dakit - zakit(t)en (Etxarri, Unanu, Arbizu, Lakuntza)

Dakit - *nakin* (Lizarraga, Dorrao)

Dakit - *zakien* (Arruazu)

Dakie - *zakien* (Uharte)

Dake - *zaken* (Irañeta)

Ikusten da beraz, aldaketa edo eboluzioa gertatzen dela Sakana erdialdean mendebaldetik ekialdera:

-kit → *-kie* → *-ke*

NNN sailean ere antzeko burutzapenak izango ditugu Niri pertsonaren gainean:

Dit – zidan

Duut - *zuuten* (Etxarri, Ergoiena)

Dit(t) - *zitten* (Arbizu, Lakuntza)

Dit - *zien* (Arruazu)

Die - *zien* (Uharte)

Dee - *zeen* (Irañeta)

- Pluraleko bigarren pertsonak, Zuek, ez du *-t-* kontsonanterik hartzen azterketa esparruan, bai ordea ekialdeko hurrengo herriko hizkeran, Irañetan. Nor sailean, burutzapen nahiko homogeenak ditugu Sakana erdialdean, *zarie* / *zaaye* orain aldi (dardarkari xamurra erori/ez erori) eta *ziñ(i)(eri)(e)(iy)en* iragan aldi:

Zarete – zineten

Zarie - *ziñien* (Etxarri, Unanu)

Zarie - *ziñerien* (Lizarraga, Dorrao, Uharte)

Zaaye - *ziñeen* (Arbizu)

Zaaye - *ziñien* (Lakuntza)

Zaaye - *ziñiyen* (Arruazu)

Zaate - *ziñeten* (Irañeta)

NN_i, NN_k eta NNN sailetan ere nahiko homogeenak ditugu burutzapenak, eta aurrekoetan bezala, Irañetan *-t-* kontsonantea agertzen zaigu:

Zaizue – zitzazuen

Dakizub(i)e - zakizub(i)en (Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte)

Dakizie - zakizien (Ergoiena)

Dakizte - zakizten (Irañeta)

Duzue – zenuten

D(e)(u)zub(i)e - ziñub(i)en (Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte)

Dezie - ziñu(ri)en (Ergoiena)

Duzte - ziñuten (Irañeta)

Diozue – zenioten

D(i)ozub(i)e - z(e)(i)nob(i)en (Etxarri, Lakuntza, Arruazu, Uharte)

Doozie - ziñorien (Ergoiena)

Diozubie - ziñiyuen (Arbizu)

Diozte - ziñioten (Irañeta)

Ondorio moduan, beraz, esan daiteke pluraleko bigarren pertsonaren markak Sakana erdialdean ondorengoak direla: *-(R)IE* N sailean eta *-ZUB(I)E*, *-ZIE* NN_i, NN_k eta NNN sailetan.

- Pluraleko hirugarren pertsonaren morfema edo ezaugarriari dagokionez, aldiz, ondorengoak ditugu herriz herriko hizkeren burutzapenak, *-t-* kontsonantea oraingoan ere agertzen ez delarik:

Zaie – zitzaien

Daki(y)ob(i)e - zaki(y)ob(i)en (Etxarri, Lakuntza, Arruazu, Uharte)

Dakiyue - zakiyuen (Ergoiena, Arbizu)

Dakiote - zakioten (Irañeta)

Berrito ere, azterketa esparruaren ekialdean, Irañetan, agertzen zaizkigu *-t-* kontsonantedun burutzapenak.

Bestalde, aipagarria litzateke pluraleko hirugarren pertsona honen markak singularreko marka bera ere mantentzen duela esatea:

Dakiyo + *-bie* (Etxarri)

Dakio + *-be* (Lakuntza, Arruazu, Uharte)

Dakio + *-te* (Irañeta)

NN_k sailean: *dute* - *zuten*

D(e)(u)b(i)e - *z(e)(u)b(i)en* (Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte)

Due - *zuen* (Ergoiena)

Dute - *zuten* (Irañeta)

NNN sailean: *diote* - *zioten*

D(i)ob(i)e - *z(i)ob(i)en* (Etxarri, Lakuntza, Arruazu, Uharte)

Diyue - *ziyuen* (Arbizu)

Door(i)e - *zor(i)en* (Ergoiena)

Diote - *zioten* (Irañeta)

Pluraleko hirugarren pertsonaren kasuan ere, ondorengo moduan labur daitezke azterketa esparruko hizkeren markak:

- (O)B(I)E(N) izango dugu, beraz, marka hiru sailetan Etxarri, Lakuntza, Arruazu eta Uharteko hizkeretan, eta marka honexek ere balio du Arbizuko hizkeran NN_k sailean.
- (Y)UE(N) da erabiltzen den marka Ergoienako hiru herrietan NN_i eta NN_k sailetan eta Arbizuko NN_i eta NNN sailetan.
- OR(I)E(N) da, azkenik, NNN saileko marka Ergoienako hiru herrietan.

3.8.1.9. IRAGANALDIKO EZAUGARRIAK.

Normalean aditz flexioek iraganaren bi marka edo ezaugarri eramaten dituzte, baina azterketa esparruaren kasuan, oraineko marka mantendu egiten da,

bukaeran soilik eransten zaiolarik iraganaren marka, *-(e)n*:

Naki(y)on (nintzaion)

Naki(y)en (nekien)

Nakan (nakan) Etxarri, Arbizu, Lizarraga eta Dorrao.

Zakabien/zakiyen/za(u)kuen (zeukaten) Etxarri, Arbizu, Lizarraga, Dorrao, Unanu.

Zaamabien (zeramaten)

Zaallen (zebilen)

3.8.1.10. ZENBAIT ADITZEN ERABILERA.

- *Gose, egarri* eta horrelako aditzekin, ‘egon’ erabiltzen da gehien, nahiz eta gaur egun oso zabaldurik izan ‘eduki’-rena ere, gazteleraren eraginez:

Gosiek noo irrikitten!

Egarriyek zaude?

Uharte eta Etxarriko dotrinek ere hala ekartzen dute:

“*Vigarna, gosiec dagonari yatera ematie. Yrugarna, egarriyec dagonari edatera ematie.*” (Bon.O.E., 620, Uharte)

“*Bigarrena, gosiac dagonari jatera ematia. Iruigarrena, egarriyac dagonari edatera ematia.*” (Bon.O.E., 2977, Etxarri)

- *Izan / egon* aditzak testuinguru berdinetan erabiltzen dira. Hala ere, Olasagarrek Arbizurako esaten duenez oso ongi ezberdintzen da noiz bata eta noiz bestea erabili, eta ondorengo adibideak jartzen ditu:

‘Está en Pamplona’ *Iruñen da*

‘Está en la cama’ *Guatzien dau*

Horrela beraz, badirudi *egon* erabiliz gero mugimendu eza edo egoera estatikoa adierazi nahi dela, ‘*Iruñen da*’, han dabil gaur edo orain, eta ‘*Iruñen dau*’ esango bagenu, han bizi dela, egoten dela normalean, adieraziko genuke.

- *Ari izan / ibilli* aditzak testuinguru berean erabil daitezke esparru osoan:

Emen ai neiz jolasien!

Emen nail(le) jolasien!

- *Eduki*-ren ordeztan *egon* aditza erabiltzen da Lizarragan forma perifrastikoetan, eta sintetikoetan aldiz, *eduki*:

“... *beia komodak yonkottezie zek ee komodak etxetan, ...*” (Lizarraga⁹⁸)

“*Zenbat kilo yotentzuen gutxi gorabera ogi bakotxak?*” (Lizarraga⁹⁹)

3.8.2. ADITZ LAGUNTZAILEA.

3.8.2.1. NOR SAILA.

a) INDIKATIBOKO ORAIN ALDIA.

neiz

yeiz, eiz (Un)

da

gaa

zaa

zarie, zaaye (Arb., Lak., Arr.)

die, dia (Arb., Erg., Arr.)

Ikusten denez, asimilazio atzerakaria dugu singularreko lehen bi pertsonetan eta aurrerakaria pluraleko hirugarren pertsonan Etxarri, Lakuntza eta Uhartan, baina ez Arbizu, Ergoiena eta Arruazun; honetaz gain, singularreko bigarren pertsonaren hasieran *y-* testigatzen delarik (ikusiko dugu beste sailetan, edota aditz trinkoekin ere). Bokal arteko dardarkari xamurra ere galtzen da pluralean, salbuespen moduan zuek pertsonaren forman gelditzen bada ere Etxarri, Ergoiena eta Uhartan.

⁹⁸ G.Solis (1993, F.L.V. 62, 114)

⁹⁹ G.Solis (1993, F.L.V. 62, 122)

Basaburuan eta Imotzen ere horrela jasotzen ditu O. Ibarrek (1997, 416) pluralerako:

gu gaa

zu zaa

haik dee

Azken honen kasuan gainera, Sakana erdialdeko hizkeren bilakabidearekiko estadio bat gehiago eboluzionaturik genuke:

dira > *dire* (asimilazio aurrerakaria) > *die* (bokal arteko dardarkariaren galera) > *dee* ($V_1 V_2 > V_2 V_2$)

b) INDIKATIBOKO LEHEN ALDIA.

nitzen

(y)itzen

zan, zen (Arb., Lak., Arr., Uh.)

giñen

ziñen

ziñien, ziñeen (Arb.), *ziñerien* (Liz., Dor., Uh.), *ziñiyen* (Arr.)

zien, zian (Erg.)

Arbizu eta Arruazun bestalde, dagoeneko gauzatzen da asimilazioa, bokal asimilatuaren ondoren kontsonante bat doalako:

$a > e / V_{[+goij]} C _ C$

ziran > *ziren* > *zien*

c) BALDINTZA AURREKOA.

<i>Ni</i>	<i>Bani(n)tz</i>
<i>I</i>	<i>Bai(n)tz</i>
<i>Ure</i>	<i>Balitz</i>
<i>Gu</i>	<i>Bagiñe, bagiña</i> (Arbizu)
<i>Zu</i>	<i>Baziñe, baziña</i> (Arbizu)
<i>Zu(bu)ek</i>	<i>Baziñie, baziñiye</i> (Arruazu), <i>baziñe</i> ¹⁰⁰ (Arbizu)

¹⁰⁰ J. Olasagarrek jaso. (Ikus hurrengo oharra).

<i>Aik / ayek</i>	<i>Balie, balia</i> (Arbizu, Ergoiena)
-------------------	--

Ikusten denez, oso era homogeneousan jokatzen da baldintza aurrekoa azterketa esparru osoan. Lehen bi pertsonen kasuan, aipagarria da sudurkariaren galera oso zabaldua dagoela, nahiz eta zenbaitetan entzun daitekeen. Gero eta gutxiago entzuten bada ere, aipagarriak dira adinekoek erabiltzen dituzten baldintza aurreko *-ke* atzizkidun formak: *fanko banitzeke, etorko baziñeke, ...*

“... ni guai *fanko banitzeke ure saltokan asiko litzeke, ...*” (Lizarraga, G. Solis, 119)

d) BALDINTZAREN ONDORIOA.

<i>Ni</i>	<i>Ni(n)tzeke, nitzike</i> (Lakuntza)
<i>I</i>	<i>I(n)tzeke, yitzeke</i> (Arruazu, Uharte), <i>itzike</i> (Lakuntza)
<i>Ure</i>	<i>Litzeke, litzike</i> (Lakuntza)
<i>Gu</i>	<i>Giñeke, giñike</i> (Lakuntza)
<i>Zu</i>	<i>Ziñeke, ziñike</i> (Lakuntza)
<i>Zu(bu)ek</i>	<i>Ziñekie, ziñekiye</i> (Arruazu), <i>ziñikie</i> (Lakuntza)
<i>Aik / ayek</i>	<i>Lieke, liake</i> (Ergoiena), <i>litzekie</i> ¹⁰¹ (Arbizu)

Aipagarria da Lakuntzako burutzapena, zeinetan sistematikoki aditz formaren erdiko bokalaren asimilazioa suertatzen baita.

Berrito ere aipatu behar dugu azterketa esparruko homogeneousotasuna, ondoko Burundako burutzapenekin kontrastatuz, zeinean asimilaziorik ez gertatzeaz gain, pluraleko formetan, *-d-* kontsonantea tartekatzen baita: *gindake, zindake, zindakei*.

e) AHALEZKOA.

- Oraina:

<i>Netteke</i> (Etx, Un ¹⁰²)	<i>Naitteke</i> (Liz, Do, Arb)	<i>Naittike</i> (Lak, Arr, Uh)
--	--------------------------------	--------------------------------

¹⁰¹ Horrela jaso zuen J. Olasagarrek ‘Arbizuko euskeraren bilketa’ (1990) lan argitaragabeen.

¹⁰² GAMINDEK (‘Aditza Ipar goi-nafarreraz’, 1985a) horrela jaso zuen: *nitteke, itteke, ditteke, gitezke, zitezke, zitezkie, dittezke*. Eta beste lan batean (‘Nor-en ahalezko oraina eta joan, ibili eta egon aditzen alokutiboak (Nafarroan)’, 1985b, F.L.V. 46, 215-264), autore berak, beste modu honetan jaso zuen: *nitteke, aitteke, ditteke, gaitteke, zaitteke, zaittekie, dittezke*. Eta lan honetan (1985b) bertan, Etxarri, Arbizu, Lizarraga eta Dorraokotzat ondorengo formak jasotzen ditu: *naitteke, gaitteke* (Etx)/*aitteke* (bestetan), *daitteke, gaittezke, zaittezke, zaittezkie, daittezke*. Lakuntzako formak, diptongoa itxiz ematen ditu: *neittike, eittike, ...*

<i>Etteke</i> (“)	<i>Aitteke</i> (“)	<i>(y)aittike</i> (“)	
<i>Detteke</i> (“)	<i>Daitteke</i> (“)	<i>Daittike</i> (“)	
<i>Gettezke</i> (“)	<i>Gaittezke</i> (“)	<i>Gaittizke</i> (<i>Lakuntza</i>)	<i>Gaizke</i> (<i>Arr, Uh</i>)
<i>Zettezke</i> (“)	<i>Zaittezke</i> (“)	<i>Zaittizke</i> (“)	<i>Zaizke</i> (“)
<i>Zettezkie</i> (“)	<i>Zaittezkie</i> (“)	<i>Zaittizkie</i> (“)	<i>Zaizki(y)e</i> (“)
<i>Dettezke</i> (“)	<i>Daittezke</i> (“)	<i>Daittizkie</i> (“)	<i>Daizke</i> (“)

Hortzetako herskari ahoskabearen palatalizazio edo sabaikaripenak erakusten digu *ai* > *ei* diptongoaren bilakabidea Etxarriko kasuan, eta *ai* > *i* monoptongaketa Unanukoan. Kasu guztietan palatalizatzen da hortzetako herskari gorra eta baldintzaren ondorioaren kasuan bezalaxe, Lakuntzako formen kasuan (Arruazu eta Uhartekoak ere bai orainoan) asimilazio aurrerakaria gertatzen da. Azkenik, aipatu Arruazu eta Uharteko pluraleko formek sabaiko herskari gorraren galera jasotzen dutela.

- Iragana:

Iraganari erreparatuz gero, orain aldikoaren oso era analogikoan gauzatzen da hauxe (Ultzameran bezala, O. Ibarrek esaten duen moduan): oraineko formei, iraganeko ezaugarria, *-n*, erantsi eta hirugarren pertsonetako ezaugarria, *d-*, aldatu, *z-* erabiliz:

Esan dezun ordubean, ni etor netteke (netteken) biyer (atzo)!

Noiznei gerta detteke (zetteken) ori!

Olasagarrek (AEB, l.a.) ordea, ondorengo formak jaso zituen: *nitteken*, *ziñekien*, *zitteken*, *giñekien*, *ziñezkien*, *zitzezken*. Beraz, aipatutakoaz gain *ai* > *i* monoptongaketa ere jasotzen du iraganeko formak Arbizun.

- Alegiazkoa:

Aipatu berri dugun autoreak ondorengoak jaso zituen Arbizun: *nitteke*, *ziñeke*, *litteke*, *giñezke*, *ziñezkie*, *littezkie*. Etxarrin hirugarren pertsonak baino ez dira erabiltzen alegiazko eran: *letteke* – *lettezke*.

f) SUBJUNTIBOERA.

Ez da ia erabiltzen aditz era hau, eta bere ordeztu aditz jokatu gabeak ditugu normalean:

Zu etortzie nei diau!

Gelditzeko esan duugubie!

Hala ere, badira subjuntiboerako formak, baina gehienetan *-la* morfemarekin erabiltzen dira:

Zu etor zettezela nei diau!

Geldi gettezela eskatu duugubie!

Fan nayela esan duubiet!

Horrela osatuko litzateke subjuntiboerako Nor saila orain aldi, ezen iraganean ez baitira erabiltzen dagoeneko:

<i>Nayela (Etx), neittela (Arb), neyela (Un)</i>
<i>Ayela (Etx), eyela (Un)</i>
<i>Dayela (Etx), daittela (Arb), deyela (Un)</i>
<i>Gettezela (Etx), geittela (Arb), gaittizela (Lak)</i>
<i>Zettezela (Etx), zeittela (Arb), zaittizela (Lak)</i>
<i>Zetteziela (Etx, Arb), zaitti ziela (Lak)</i>
<i>Dettezela (Etx), daiztela (Arb), daittizela (Lak)</i>

Ez dira aurkitzen azterketa esparruan *n-z* bukatutako subjuntiboerako aditz formak. Ikusten denez, *-la* morfemaren medioz burututakoak ditugu forma hauek.

g) AGINTERA.

Ez dira azterketa esparru osoan erabiltzen *bedi / bitez* bezalako formak. Hirugarren pertsonak, normalean, *-la* morfemarekin gauzatzen dira, hots, subjuntiboerako forma berberak erabiltzen dira eta aditz sintetikoaren kasuan ere, *-la* atzizkia erabiliz burututako dira aginterako formak:

Duela! (Bihoa!), *Duezela!* (Bihoaz!), *Daallela!* (Bebil)
Doola! (Bego!), *Deela!* / *Doila!* (*Un*) (Beude!)

Hauexek lirateke, beraz, aginterazko formak nor eran:

I	Ari ¹⁰³ (<i>Etx, Liz</i>), ai (<i>Arb</i>), yei (<i>Lak</i>)
Zu	Zettez (<i>Etx</i>), zette (<i>Arb</i>)
Ure	Daiyela (<i>Etx, Arb</i>), deiyela (<i>Un</i>)
Zu(bu)ek	Zettezie (<i>Etx</i>), zettezte / zaizte (<i>Arb</i>)
Aik / ayek	Dettezela (<i>Etx</i>), daiztela (<i>Arb</i>) Daitziela (<i>Etx, Arb</i>)

3.8.2.2. NOR-NORI SAILA. ORAIN ETA LEHEN ALDIA.

Hasteko, Azkuek (Morfologia vasca, 1969, 575) honi buruz esaten diguna ekarriko dugu gogora:

“Sólo en un rincón paradisíaco de nuestra hermosa Nabarra y en limitadas zonas de Bizkaya, como Bakio, Lemoniz y Barrika, se oyen flexiones de verbo auxiliar de indicativo en que figura el reflexivo *ki*. Doce o catorce años atrás oí hacia Etxarri-Aranaz, con una fruición que sin duda asomó al semblante, estas lindísimas flexiones: *etorri dakit* se me ha venido, *etorri dakik* se te ha venido, *etorri dakin* se te ha venido, mujer, *etorri dakio* se le ha venido, *dakigu*, *dakizu*, *dakizue*, *dakioe*, formas que luego he visto recogidas por el Benjamín de nuestra Academia en su *Burundako Euskalkia*, dialecto de la Burunda”.

Damaso Inza dugu aipatu ‘benjamin’ hori, eta horrela jaso zuen berak –*ki*-erroaren auzia:

“Euskalki onen sustraiak bi itz. Len esan duten *uu* ta *oo* sustraiak landara Euskalki onen Aditz Aldakaitzak garai geienetan *ki* deramate sustraitako. Dakit = *zait* esateko; lakit = litzait esateko; nakizun = nitzaizun esateko ta ala. *Ki* ori nondik sortu ziteken ikusiz, Kampion Euskaltzain Jaunaren Gramatika nasten ari nintzen au’reko egun batean. Ontan Lakuntza’ta’r Bizente Unanu’ko Apez jaunaren eskutitz edo karta bat eto’ri zait eta artan esaten dit <Do’raun aitu dut eta oarturik nago *egon* aditza *euki* bezala artzen dutela. Aza onak egon dauzkizie? (Aza onak dauzkatzue?) Belak egon dauzkizie = B-dotuzue argizariak? Onek irudi du laterazko *pecunia est tibi?*> Oneraño nere adiskide o’rek e’rderaz esaten zirena. Orduntxe ikusten nuen Kampion jaunak diola; bere begi luzeaz zerpait sumatuz bezala: <Ez liteke –dio berak- eziñazkoa bezala au’retik jo, *egon*

¹⁰³ Gogoratu r/d alternantzia aipatzerakoan (kontsonante herskarien atala) esaten genuena.

aditza ez dela izan aditz aldakaitzaren laguntzale. Eta ortik *ki* sustraitako gelditzea. Jaunak: o'ra ba non dagoan nere ustez ere *ki* o'ren jato'ria, *egon* aditzak *euki* edo *est mihi* esan nai duan ezkeroz". (Euskera III, II zkia., 1922, 71-72)

Koldo Zuazok (1998, F.L.V. 78, 223) ere eremu banaketa nabarreko ezaugarrien artean hauxe jasotzen du beste batzuen artean Sakanakoari orokorrean eta Etxarriko hizkerari modu zehatzean erreferentzia eginez:

“Nor-Nori saileko iraganaldiko adizkietan –ki- erroa dago NG-ko eta B-ko hizkera batzuetan, hala nola, Eugiko (Esteribar) *zakiden, zaki(k)en / zakinen, zakion, zakigun, zakizun, zakizien, zakioten* (orok. ‘zitzaidan’) (Gaminde 1986: 186). Badirudi Sakana (Burunda da salbuespena) berritzaile izan dela eta orainaldira ere hedatu duela erro hau. Horren adibide Etxarri-Aranazko *dakit, dakik/n, daki* (sic), *dakigu, dakizu, dakizubie, dakibie* (sic) (orok. ‘zait’) (Karasatorre et alii 1991: 78).

NG-ri dagokionez, Artzibarren, Erroibar gehiengan (iparraldeko Bizkarreta-gerendiain, Mezkiritz eta Esnotz dira salbuespena), Esteribarren, Anueko hegoaldean, Atezko hizkera batzuetan eta Sakanan erabiltzen da –ki- erroa, baina gaurregun euskara galduta dagoen NG-ko hegoaldeko beste hizkera batzuetan ere bazen antzina (Irizar 1992 eta 1992b). B-n, berriz, iparmendebaldean, Uribe Kosta eskualdean erabiltzen da, Gaminderen (1994: 549) arabera”.

Guk jarri ditugu Zuazoren aipamen honetako lehen zatiko parentesi arteko (sic) ohartxoak, bi aditz forma hauek ez baitatoz bat Etxarriko NN_i erako laguntzailearekin, eta bai, aldiz, *jakin* aditzaren formekin, aditz honetako formak direlarik bi hauek. Laguntzailearenak *dakiyo* eta *dakiyobie* dira, eta gainerako guztiak NN_i laguntzailearenak zein *jakin* aditzarenak izan daitezke, sinkretismo kasu baten aurrean garelarik.

O. Ibarrek ere jasotzen ditu “-ki morfemaz eraikitako lehenaldi”-ko formak Imotz, Atez eta Anuen (1995, 468).

Gure partetik, horrela jaso ditugu azterketa esparruko NN_i aditz formak, -ki- erroa daramatelarik, bai orain aldi nola iraganean. Horrela aztertu beharko genituzke, beraz, *dakit* eta *dakizubie* aditz formak:

D - nor ‘hura’-ren morfema edo ezaugarria

A - orain aldiko ezaugarria

Ki - NN_i aditz laguntzailearen erroa

T / zubie - nori ‘niri’-ren ezaugarria / nori ‘zuei’-ren ezaugarria

a) Orainaldiko paradigma:

Nor hirugarren pertsona denean, edozein delarik Nori pertsona, ederki mantentzen dira aditz formak Sakana erdialdeko hizkera guztietan. Horrek ez du esan nahi gainerako Nor pertsonekin gordetzen ez direnik aditz formak, baina ez guztiak, eta guk hemen, Nor

Hura eta Haiek denean sortutako aditz formekin egindako herriz herriko paradigma osatuko dugu. Gainerako formak ere aipatuko ditugu, baina solteak izango dira horiek, inola ere ez paradigma osoa burutzeko modukoak:

	<i>ure</i> (hura)	<i>aik</i> (haiek)
<i>Nai / nei</i> (niri)	<i>Dakit</i> <i>Dakie</i> (Uharte)	<i>Dazkit, dakizkit</i> (Lakuntza) <i>Dazkie</i> (Uharte)
<i>Iri</i> (hiri)	<i>Dakik / n</i>	<i>Dazkik / n, dakizkik / n</i> (Lakuntza)
<i>Arri</i> (hari)	<i>Daki(y)o</i> ¹⁰⁴	<i>Dazki(y)o</i> ¹⁰⁵ , <i>dakizkio</i> (Lakuntza)
<i>Gui</i> (guri)	<i>Daki(g)u</i> ¹⁰⁶	<i>Dazki(g)u, dakizkiu</i> (Lakuntza)
<i>Zui</i> (zuri)	<i>Dakizu</i>	<i>Dazkizu, dakizkizu</i> (Lakuntza)
<i>Zu(bu)ei</i> (zuei)	<i>Dakizub(i)e</i> ¹⁰⁷ <i>Dakizie</i> (Ergoiena)	<i>Dazkizub(i)e, dakizkizube</i> (Lakuntza) <i>Dazkizie</i> (Ergoiena)
<i>Airi / ayei</i> (haiei)	<i>Daki(y)ob(i)e</i> ¹⁰⁸ <i>Dakiyue</i> (Arbizu, Ergoiena)	<i>Dazki(y)ob(i)e, dakizkiobe</i> (Lakuntza) <i>Dazkiyue</i> (Arbizu, Ergoiena)

Lehentxeago esan dugun moduan, badira Hura eta Haiek pertsonekin jokatzeko diren formez gain beste batzuk, singularreko eta pluraleko lehenak gehienbat, oraindik entzun daitezkeenak herriko hizkera oso ongi menperatzen dutenen ahotan:

	<i>ni</i>	<i>gu</i>
<i>Iri</i>	<i>Nakik / n</i>	<i>Gazkik / n</i>
<i>Arri</i>	<i>Naki(y)o</i> (aurreko koadroan bezala)	<i>Gazki(y)o</i>
<i>Zui</i>	<i>Nakizu</i>	<i>Gazkizu</i>
<i>Zu(bu)ei</i>	<i>Nakizub(i)e, nakizie</i> (Erg)	<i>Gazkizub(i)e</i>
<i>Airi / ayei</i>	<i>Naki(y)ob(i)e</i> (aurreko koadroan bezala)	<i>Gazki(y)ob(i)e</i>

Horrela, gainerako formak analogiaz atera daitezke, baina ez dira dagoeneko entzuten: (y)akit (hatzait), (y)akiyo (hatzaio), zazkit (zatzaizkit), zazkiyo (zatzaizkio), zazkibiet (zatzaizkidate), zazkigubie (zatzaizkigute), ...

¹⁰⁴ *Dakio* forma Lakuntza, Arruazu eta Uharten erabiltzen da, hots, -y- kontsonante epentetikorik gabekoa.

¹⁰⁵ *Dazkio* forma Arruazu eta Uharten.

¹⁰⁶ *Dakiu* forma Arbizu, Lakuntza eta Arruazun.

¹⁰⁷ *Dakizube* forma Lakuntza, Arruazu eta Uharten.

¹⁰⁸ *Dakiobe* forma Lakuntza, Arruazu eta Uharten.

b) Iragana.

Sakanako aditzaren berezitasunen artean aipatu dugu lehenago iraganeko ezaugarriarena, bukaerakoa baino hartzen ez duenakoa, aditz forma batzuen artean NN_i laguntzaileak. Eta hala da, ezen soilik bukaerako *-n* ezaugarriak eta hirugarren pertsonetako *z-* ezaugarriak bereizten baititu bi denborak, Sakana erdialdeari orokorrean gagozkiolarik. Hala ere, aipagarria suertatzen da Ergoienako kasua, edo zehatzago izateko Lizarraga eta Dorraoko formak (Unanukoan soilik singularreko bigarrena gauzatzen da beste biren moduan), zeinetan singularreko lehen bi pertsonetan eta pluraleko lehenean gutxienez (badirudi Lizarragaren kasuan Zu eta Zuek pertsonekin bi erataraz erabiltzen dela) Nor pertsonaren marka edo ezaugarria aditz formaren hasierara pasatzen den, eta horretaz gain iraganeko bi ezaugarriak eramaten baititu pluraleko kasuetan:

Ziña(z)kizun / za(z)kizun (zaitzai(zki)zun), Lizarragan.

Giña(z)kin (Liz.), *giña(z)kigun* (Do.)

Na(z)kin (Liz., Do.), *ya(z)kin / ya(z)kiñen* (Liz., Do., Un.)

Nor hirugarren pertsonari dagokien azterketa esparruko paradigma hauxe izango litzateke:

	<i>ure</i> (hura)	<i>aik</i> (haiek)
<i>Nai / nei</i> (niri)	<i>zakiten, zakitten</i> (Lak) <i>zakien</i> (Uh), <i>nakin</i> (Li, Do)	<i>zazkiten, zazkitten</i> (Un), <i>zakizkitten</i> (Lak) <i>zazkien</i> (Arr,Uh), <i>nazkin</i> (Li, Do)
<i>Iri</i> (hiri)	<i>zakiyaan/ñaan, zakien/ñen</i> (Lak) <i>yakin/ñen(en)</i> ¹⁰⁹ (Li, Do), <i>zakien/ñen</i> (Un)	<i>zazkiyaan/ñaan, zakizkien/ñen</i> (Lak) <i>yazkin/ñen(en)</i> (Erg)
<i>Arri</i> (hari)	<i>zaki(y)on</i> ¹¹⁰	<i>zazki(y)on, zakizkion</i> (Lakuntza)
<i>Gui</i> (guri)	<i>zaki(g)un</i> ¹¹¹ , <i>giñaki(gu)n</i> ¹¹² (Li, Do)	<i>zazki(g)un, zakizkiun</i> (Lakuntza) <i>giñazki(gu)n</i> (Li, Do)
<i>Zui</i> (zuri)	<i>Zakizun</i>	<i>zazkizun, zakizkizun</i> (Lakuntza)
<i>Zu(bu)ei</i> (zuei)	<i>zakizub(i)en</i> <i>zakizien</i> (Ergoiena)	<i>zazkizub(i)en, zakizkizuben</i> (Lakuntza) <i>zazkizien</i> (Ergoiena)
<i>Airi / ayei</i> (haiei)	<i>zakiyob(i)en</i> <i>zakiyuen</i> (Arbizu, Ergoiena)	<i>zazkiyob(i)en, zakizkioben</i> (Lakuntza) <i>zazkiyuen</i> (Arbizu, Ergoiena)

¹⁰⁹ Lizarragan egiten dira *yakiñenen/yazkiñenen* aditz formak.

¹¹⁰ *Zakion/zazkion* formak Lakuntza (pluralekoan ez), Arruazu eta Uharten.

¹¹¹ *Zakiun/zazkiun* formak Arbizu, Lakuntza (pluralekoa ez) eta Arruazun egiten dira.

¹¹² *Giñakigun/giñazkigun* Dorraon erabiltzen da.

Eta Nor erako gainerako pertsoneri buruz, berriz, orainaldikoan esandakoari atxikiko gatzazkio berriro, hori bai, oraingoa aditz formak bukaeran lehen aldiko ezaugarria, *-n*, eramanez:

	<i>ni</i>	<i>gu</i>
<i>Iri</i>	<i>Nakiyaan /ñaan</i> (Etx, Arb)	<i>Gazkiyaan /ñaan</i> (Etx, Arb)
<i>Arri</i>	<i>Nakiyon</i> (Etx, Arb)	<i>Gazkiyon</i> (Etx, Arb)
<i>Zui</i>	<i>Nakizun</i> (Etx, Arb)	<i>Gazkizun</i> (Etx, Arb)
<i>Zu(bu)ei</i>	<i>Nakizubien</i> (Etx, Arb)	<i>Gazkizubien</i> (Etx, Arb)
<i>Airi / ayei</i>	<i>Nakiyobien</i> (Etx, Arb)	<i>Gazkiyobien</i> (Etx, Arb)

h) Izendatzea.

Norbaiti izena galdetu edo ematerakoan NN; aditz laguntzailea erabiltzen da Sakana erdialdean, pluralegilea eta guzti daramalarik normalean. Beste hizkuntzetako hitzak galdetzerakoan ere erabiltzen da:

Nola da(z)kizu? (Nola duzu izena?),

Guu launai Felipe da(z)kiyo!

Nola da(z)kiyo francesien txapelai?

Franzesien nexkixai 'mademoiselle' da(z)kiyo!

Horrela dator Uharte eta Etxarriko dotrinetan ere:

“E. Bitara: batari daizquio Contriciua et bestieri atriciua”. (Bon.O.E., 623)

“E. Bitan: batari daizquiyo contriciyua, eta bestiari atriciyua.” (Bon.O.E., 2980).

Goi-nafarreraz oso hedatua dugu egitura hau EAEL-en (371. galdera) ikusten den moduan. I. Caminok eta O. Ibarrak ere jaso dituzte Aezkoan eta Ultzaman:

Gregorio zeizkio gorri (Gar.), Nola zeizkion lagartoari (Gar.), Nola zeizkio?(Ab.), Amari zaizkio Maria beti birjinik erdia ... (Hir.) (Aezkoan)

Nola zaio?, Berari zaio. (Ultzaman, aditza singularrean)

i) Baldintza aurrekoa eta ondorioa NN_i eran.

Oso gutxi erabiltzen dira dagoeneko baldinkerako aditz formak Nor-Nori eran, eta erabiltzen direnak Nor hirugarren pertsoneri lotuak ditugu:

ure (aik)

<i>bala(z)kit</i>
<i>bala(z)kik/n</i>
<i>bala(z)kiyo</i>
<i>bala(z)kigu, bala(z)kiu (Arb)</i>
<i>bala(z)kizu</i>
<i>bala(z)kizubie, bala(z)kizie (Do)</i>
<i>bala(z)kiyobie, bala(z)kiyue (Arb), bala(z)kiyorue (Do)</i>

Singularreko lehen pertsonarekin ere erabiltzen da: *banakik/n, banakiyo, banakizu, banakizubie, banakiyobie/banakiyue*. Eta modu berean ondorio oraina eta iragana (bukaerako *n-k* soilik desberdintzen duelarik): *nakiyeke(n)/nakiñeke(n), nakiyoke(n), nakizuke(n), nakizubieke(n), nakiyobieke(n)/nakiyueke(n)*.

Eta ondorioa, oraina eta iragana, aurreko kasuan bezala bukaerako *n-z* desberdindurik:

<i>ure</i>	<i>aik</i>
<i>lakiteke(n)</i>	<i>lazkiteke(n)</i>
<i>lakiyeke/ñeke(n)</i>	<i>lazkiyeke/ñeke(n)</i>
<i>lakiyoke(n)</i>	<i>lazkiyoke(n)</i>
<i>laki(g)uke(n)</i>	<i>lazki(g)uke(n)</i>
<i>lakizuke(n)</i>	<i>lazkizuke(n)</i>
<i>lakizubieke(n)</i>	<i>lazkizubieke(n)</i>
<i>lakiyobieke(n), lakiyueke(n) (Arb)</i>	<i>lazkiyobieke(n), lazkiyueke(n) (Arb)</i>

Metterioi loteye tokatu balakiyo, elakiguke geyoo etorko! (Emeteriori loteria tokatu balitzaio, ez litzaiguke gehiago etorriko!)

j) Subjuntiboera NN_i eran:

-la morfemaz burutzen da oraingoan ere eta Nor Hura/Haiek pertsonekin bakarrik entzun daiteke, *-z-* pluralegilea tartekatzen delarik hirugarren pertsonak bereizteko. Bestalde, oraina/iragana desberdintzeko, bukaeran *-la* morfema daramanez, hasierako *d-/z-* morfemen bidez egiten da:

<i>oraina</i>	<i>iragana</i>
<i>da(z)kitela (Etx, Arb)</i>	<i>za(z)kitela (Etx, Arb)</i>
<i>da(z)kiyela/ñela (Etx, Arb)</i>	<i>za(z)kiyela/ñela (Etx, Arb)</i>
<i>da(z)kiyola (Etx, Arb)</i>	<i>za(z)kiyola (Etx, Arb)</i>
<i>da(z)ki(g)ula (Etx, Arb)</i>	<i>za(z)ki(g)ula (Etx, Arb)</i>
<i>da(z)kizula (Etx, Arb)</i>	<i>za(z)kizula (Etx, Arb)</i>
<i>da(z)kizubiela (Etx, Arb)</i>	<i>za(z)kizubiela (Etx, Arb)</i>
<i>da(z)kiyobiela, da(z)kiyuela (Arb)</i>	<i>za(z)kiyobiela, za(z)kiyuela (Arb)</i>

k) Ahalera NN_i eran:

Aurreko aditz eretako kasu berdinak izango ganituzke, eta oraingoan bata bestearen segidan jasoko ditugu: *da(z)kiteke(n)*, *da(z)kiyeke(n)/ñeke(n)*, *da(z)kiyoke(n)*, *da(z)ki(g)uke(n)*, *da(z)kizuke(n)*, *da(z)kizubieke(n)*, *da(z)kiyobike(n)/da(z)kiyueke(n)*, *na(z)kiyeke(n)/ñeke(n)*, *na(z)kiyoke(n)*, *na(z)kizuke(n)*, *na(z)kizubieke(n)*, *na(z)kiyobieke(n)/na(z)kiyueke(n)*.

3.8.2.3. NOR-NORK SAILA.

Nor Hura denean gertatzen diren burutzapenei dagokienez (Bonapartek¹¹³ hain garrantzitsutzat hartu zituenak), hiru emaitzak ditugu Sakana Erdialdeko hizkeretan:

- *dot, dok/n, do, dou ...* (Ergoiena)
- *det, dek/n, dezu, dezubie ...* (Etxarri)
- *dut, duk/n, du, duu ...* (Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte)

Azkuek (1969, III, 76), azken hauek hobesten ditu besteen aurrean, baina hori esaterakoan, badirudi *-au-* erro zaharra onartzen diola Nor-Nork erako aditzari:

“Asimismo considero mucho más normales *dut, dugu, duk, dun ...* (que más o menos se oyen en todos los dialectos) y no las corrientes entre vascos occidentales *dot, dogu y det, degu* que al fin son síncopas de *daut, dauk, daugu*, etc.”.

¹¹³ URKIJIO, J. (1910, 280). Nafarroako Araitz, Larraun eta Basaburuako hizkerak gipuzkera edo nafarreraren barruan sailkatu behar ote ziren jakiteko, hiru ezaugarriari begiratzeko esan zion Etxenike bere laguntzaileari Londres-etik, 1864ko Azaroaren 7an bidalitako eskutitzean: “Que parle-t-on dans les vallées d’Araiz, de Larraun et de Basaburua? Le tout considerait á savoir: 1° (...). 2° *dut, duzu, dugu, duzue* ou bien *det, dezu, degu, dezute* ou *dezue*.”

Guk ere horrela pentsatzen dugu, hau da, *-au-* dela NN_k erako aditz laguntzailearen erroa gure azterketaren esparruan. Eta erro honek bilakabide desberdinak jarraituko lituzke gorago aipatu hiru burutzapenetan:

- *au* > *o* : **daut* > *dot*, **dauk/n* > *dok/n*, **dau* > *do* (Ergoiena¹¹⁴)
- *au* > *u* : **daut* > *dut*, **dauk/n* > *duk/n*, **dau* > *du* (Arb, Lak, Arr, Uh)
- *au* > *eu* / *_V,C* (Etxarri):
 - eu* > *ee* > *e*¹¹⁵ / *_C*: **deut* > *det*, **deuk/n* > *dek/n*
 - eu* > *eb*¹¹⁶ > *ee* / *_V*: **deuela* > **debela* > *deela*
 - au* / *_Ø*: *dau* (du), *banau* (banu), *balau* (balu) ...

Eta Etxarriko bilakabidea azpimarratzeko, morfemaren bat eransten bazaio singularreko hirugarren pertsonako aditz formari, *-au-* erroa *-eu-* bihurtuko zaigu adierazitako moduan:

Ikus dau + -ela > **deuela* > **debela* > *deela*
Ikus dau + -en > **deuen* > **deben* > *deen*

Begira, hau guztia hobeto ikusteko, ondorengo bi esaldiok:

Frantxikok dirube nei dau. Baina, Dirube nei deena Frantxiko da.

Hau guztia nolabait konfirmatzera datoz V. Huizik¹¹⁷ bere gramatikaren sarreran erabiltzen dituen ondorengo aditz formak:

“..., *onek iraunten deben artian*, ...” (M.G.B., 1899, II)

“..., *onek iraunten deben bitartian Euskaldunak beti Euskaldun.*” (M.G.B., 1899, II)

¹¹⁴ Ergoienako hizkeretan hiru bilakabideak dituzte: *dot*, *dok/n*, *do*, *dou*, *dezu*, *dezie* eta *due*.

¹¹⁵ Bi bilakabide izango genituzke, beraz, Etxarriko kasuan: alde batetik, *-au-* dugu aditzaren erroa, baina zerbait eransten zaionean, bai sintaxi mailako morfema nola pertsona mailakoa, *-eu-* bihurtzen da; eta bestetik, *V₁V₂* > *V₁V₁* > *V₁* bilakabidea jarraituz *-eu-* > *e* bihurtzen da. Beraz, *au/eu* izango dugu aditz erroa NN_k eran.

¹¹⁶ AZKUE, R.M. (1969, 617): “La *u* de los diptongos *au* y *eu* permuta mucho en *b* al chocar con otra vocal”.

¹¹⁷ HUIZI, Victoriano (‘Manual de Gramática Bascongada’, 1899, Pamplona).

“..., *jakiñik oiek baño obeki egiasko Elizak erakusten deben dotriña, umill gordetzen dau bere bizimoduan.*” (M.G.B., 1899, II)

Ohar gaitezen azken aipameneko bi aditz formetan, *deben* eta *dau*, aditz forma bera bien kasuan, baina erlatiboaren morfema, *-en*, erantsi zaiolarik lehenari. Gaur egun, *deen* izango litzateke, aipatu dugun bilakabidearen hurrengo estadioan.

Hala ere, ez dugu uste mende honen hasieran horrela, *deben*, erabiliko zenik. Gehiago dirudi autorearen beraren ekoizpena edo ikerketen ondorioa, sarrera beraren gaztelerazko zatian aipatzen baitu euskara arauetara moldatzeko (bakarren bat berari bururatutakoa agian, “y no todas inventadas por cierto” esaten baitu berak) asmoa:

“*Mi objeto, pues, es sujetar a reglas (y no todas inventadas por cierto), en dialecto nabarro, el baskuenz que anda hecho jiras y desfigurado, ...*” (M.G.B., 1899, VIII)

Antzeko zerbait egiten du objektu pluraleko beste aditz forma baten kasuan ere. *Ttu* (ditu) esango genuke gaur egun eta, era berean, *ttu* + *-elako* > *ttu(be)lako*. Bada, Huizi-k galdutako *di-* silaba eransten dio, eta baita *u* bokalaren ondorengo kontsonante epentetikoa ere (hauxe dugu, kontsonante epentetikoa, gaur egun galdu-ez galdu lehan kasu honetan), ondorengo esaldian:

“..., *galdu eta ondatu ditübelako demborak*”. (M.G.B., 1899, III).

Eta lehen aldian ere bilakabide berdina izango dugu:

**neuen* > **neben* > *neen*

**heuen* > **yeben* > *yeen*

**zeuen* > **zeben* > *zeen*

Gogoratu orain arteko guztia Nor Hura denean gertatzen dela. Nor Haiek denean, berriz, burutzapen homogeeoagoa da burutzen dena, *-au* > *-u* azterketa esparru osoan, Ergoienako hizkeretako aditz forma batzuk izan ezik, geroxeago ikusiko dugun moduan. Eta homogeeotasun hori sendotuz, aferesia ere gertatzen da herri guztietako hizkeretan, lehen silabaren aferesia edo galera¹¹⁸, eta honetaz gain, *it* pluralegilearen ondorioz, herskari gorraren palatalizazioa: *ttut*, *ttuzu*, ... Hala jasotzen du O. Ibarrek (1995) ere:

“Nor-Nork sistemako pluralgileari dagokionez, [t]-z hasitako formak dira orokorrean erabiltzen direnak, honen ondorioz horrelakoak ditugularik: *ttut*, *ttute* etab.

Hau bide da sortu den bilakabidea:

sg. *dut* → pl. *ditut* → *dittut* → *ttut*

Dirudienez, *i*-ren ondoko [t] busti ondoren, *di-* morfema desagertzen da. Fenomeno hau arrunta da hegoaldeko goinafarreraz (Oltzan) (ik. ONDARRA 1982: 195): *tut*, *tiet*, *tiñet*, *tuzu* ..., eta baita

¹¹⁸ AZKUE, R.M. (1969, III, 76): “En la variedad nabarra, como se ha visto en el paradigma accesorio, suprimen siempre la primera sílaba y palatalizan la t: *ttut*, *ttuk*, *ttun* ...etc.” (1969, III, 103-104 orrialdeak): “El dialecto nabarro de la frontera se aparta radicalmente del dialecto guipuzkoano en las flexiones de objeto plural; (...). Mientras en varias zonas nabarras se oyen hoy mismo íntegras tales flexiones, en esa región fronteriza ha desaparecido la sílaba inicial *di* quedando ¡¡cosa muy curiosa!! sólo su efecto fonético, la palatalización de la *t* inmediata”.

ekialderagoko hizkeretan ere, Aldudetan eta Baztanen: *tuzte*, etab (ik. Lacombe 1971-72). Halaber, Anue haranean [t] herskari ahoskabea ez da sabaikaritzen eta pluraleko forma arruntak hauek dira: *tut*, *tuzu*, *tu*. Badirudi, Anue ekialderago dagoen harana denez, hegoaldeko goinafarreraren formei hurbiltzen zaiela”. (1995, 430)

a) Indikatiboko orain aldiaren paradigmak.

Nor Hura denean:

Etxarri Ergoiena

Arb., Lak., Arr., Uh.

<i>det</i>	<i>dot</i>	<i>dut</i>
<i>dek/n</i>	<i>dok/n</i>	<i>duk/n</i>
<i>dau</i>	<i>do</i>	<i>du</i>
<i>diau</i> ¹¹⁹	<i>dou (Liz), dieu (Do), dau (Un)</i>	<i>duu</i>
<i>dezu</i>	<i>dezu</i>	<i>duzu</i>
<i>dezubie</i>	<i>dezie</i>	<i>duzube, duzubie (Arb, Lak)</i>
<i>debie</i>	<i>due</i>	<i>dube, dubie (Arb, Lak)</i> ¹²⁰

Nor Haiek denean:

<i>Ttut</i>
<i>Ttuk/n</i>
<i>Ttu</i>
<i>Ttugu (Etx, Liz), ttuu (Arb, Lak, Arr, Uh), ttieu (Do), tteu (Un)</i>
<i>Ttuzu, ttezu (Ergoiena)</i>
<i>Ttuzubie (Etx, Arb, Lak)</i> ¹²¹ , <i>ttuzube (Arr, Uh), ttezie (Ergoiena)</i>
<i>Ttubie (Etx, Arb), ttube (Lak, Arr, Uh), ttue (Li, Do), ttie (Un)</i>

¹¹⁹ Posible litzateke forma hau alokutibotik sortua izatea, *diagu* > *diau*, eta gainera, forma alokutiboa oso antzekoa da etxarrieran, *yau/ñau*, ondorengo delarik bere bilakabidea:

diagu > *diau* > *iau* > *yau*
dinagu > *diñau* > *iñau* > *ñau*

¹²⁰ Guk horrela jaso dugu, eta *Guaixe* aldizkarian ere halako burutzapena jaso dugu: “... *guardatuubie* ...” (*Guaixe* 2, 16)

¹²¹ Aurreko ohartxoan bezala: “... *eiñ ttubie (...)* aaztu zittubiela ...” (*Guaixe*, 2, 16 orr.), “... *jarriko ttubie* ...” (*Guaixe*, 3, 16)

Gainerako pertsonekin, gauzak nahasiago daude gaur egun. Lizarraga, Arbizun eta Lakuntzan erabiltzen dira benetako NN_k erako aditz formak era normalean. Gainerako herrietan, soilik adineko jendeak gogoratzen ditu, baina besteok bezala, NNN saileko formak erabiltzen ditu hala ere:

Alsasue yaman dubet iri. (Altsasura eraman haut)

Sar bat yaman dubet iri. (Sagar bat eraman diat)

Ikus niezu goizien kalien? (Ikusi nauzu goizean kalean?)

Eta dagoeneko, gaztelerako kalko honen eraginez, baita Nor hirugarren pertsonen kasuan ere hasi da erabiltzen NNN saila:

Alsasue yaman diau Fermin (Altsasura eraman dugu Fermin), esan beharrean, askotan entzun daiteke, *Alsasue yaman doogu Fermiñi* (*Altsasura eraman diogu Fermiñi).

Hala ere, Etxarrin bertan, geratu dira halako esaldi edo forma fosilizatuak, hala nola:

Jenduri, bestela jokuaut! (Ken hadi, bestela joko haut!)

“Jotzen baut pantzan, fanen eiz dantzan;

jotzen baut zillen, sekule ezeiz illen” (Etxarriko esaera)

Esan bezala, adineko jendeak dioskunez, beren aita eta aitonek bai erabiltzen omen zituzten Nor Hura edo Haiek ez diren gainerako forma guztiak ere NN_k eran. Eta Irizarrek ere ondorengo esaten digu Etxarri, Lizarragabengoa eta Ergoienako aditz formak aztertzerakoan:

“II-2-i *duut* Echarri-Aranaz (Y,B,F,G,Ig), Lizarragabengoa (B)

dut Echarri-Aranaz (I)

nau Echarri-Aranaz (F,Ig)

II-2-m *ziek* Echarri-Aranaz (Y,B,Ig)

ziak Echarri-Aranaz (F, Lizarragabengoa (B)

II-4-i	<i>duutie</i>	Echarri-Aranaz (I)
	<i>duubiet</i>	Echarri-Aranaz (Y,B,G,Ig), Lizarragabengoa (B)
	<i>naubie</i>	Echarri-Aranaz (Ig)

El informador de Igartua, D. Ambrosio Erdozia, decía que la forma *naubie*, así como *zeittut* (II-5-r), *aut* (II-5-m,f), *zeittu* (II-6-r), *au* (II-6-m,f), *zeittugu* (II-7-r), *zeittubie* (II-8-r), *zeittugu* (II-21-c) y *zeittubie* (II-22-c) ‘lehengokoek erabiltzen zituzten’.

En relación con las formas recogidas por Igartua para las flexiones II-7-r, m, f es muy interesante la observación de su informador, que Igartua me transmite: ‘Ambrosiok dioenez ‘lenô’ *dakizu, dakik, ... zen berriz* ‘goai’ *duuzu, duubau, duunau, eittugu* ‘zaharrago’ omen da’ (...)

Con frecuencia se confunden las flexiones de la columna 3ª de este Cuadro (NN_k) con las de la misma columna del Cuadro III (NNN_k): ‘betiko nahasketa’, me dice Igartua’.

(IRIZAR, Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano (estudio dialectológico), 1991, tomo II, 399).

Era berean, badira beste aditz forma batzuk, zeinekin testigatzen den NN_k aditz sailaren erabilera Nor hirugarren pertsona ez izanik ere, hala nola: *Yaman nazazu!*, *Nua naamazubie?* (Nora naramazue?), *etab*.

O. Ibarrek ere gauza bera, NN_k eta NNN-en arteko nahasketa jasotzen du Ultzameraren esparruan:

“Aditz forma hauek ikusirik ondorio garbi bat ateratzen da, Nork-Nor sistema aurreko garaietan hedatuago egon zela, eta Yrizarrek lana egin zuenean, txandaketak bazeudela. Baina, itxura guztien arabera, aditz sistema hau galtzen hasi zen euskara pobretzen joan zen haranetan, alegia, erdaldunenetan, hain zuzen ere Muzkitz, Beratsainen eta abarretan, Euskaldunagoetan, aldiz, bere osotasunean denbora gehiago mentendu da, oraingo Basaburuko arrastoei iradokitzen dutenez: (haut, zaittot).

Jakina denez, hegoaldeko GN-z sistema honen galera nahiko aurreratua zegoen, nahiz hizkera guztietan berdina ez zen; adib. Ihabarren honako formak bildu ziren:

dee (o de) *nau*-ren ordez

zeek (o zek), *n(a)ik*-en ordez

diete, *naute*-ren ordez (Yrizar 1981a: 362)”

(1995, 428-429)

Horrela jaso zuen Irizarrek¹²² Sakana erdialdeko herri guztietan, eta hurrengo paradigmaren agertzen den moduan jaso dugu guk ere:

¹²² IRIZAR (II, 1991, 392 Etxarrirako; eta ondorengoak 1992, 51 Arbizurako; 77 Lakuntzarako; 16 Uharterako; 28 Arruazurako; ...)

	<i>Ni</i>	<i>i</i>	<i>gu</i>	<i>zu</i>	<i>zuek</i>
<i>nik</i>		<i>(y)aut, out (Liz)</i>		<i>zettut</i>	<i>zettub(i)et, zaittuet (Liz)</i>
<i>ik</i>	<i>nauk/n, nuk (Liz), nok (Un)</i>		<i>gettuk/n</i>		
<i>biak</i>	<i>nau, nu (Liz), nou (Un)</i>	<i>(y)au¹²³</i>	<i>gettu</i>	<i>zettu</i>	<i>zettub(i)e, zeittue (Liz)</i>
<i>zuk</i>	<i>nauzu, nezu (Liz)</i>		<i>gettuzu, gaittezu (Liz)</i>		
<i>guk</i>		<i>(y)augu</i>		<i>zettugu, zeittau (Liz)</i>	<i>zettub(i)egu, zettubiau (Arb), zeittau (Liz)</i>
<i>zuek</i>	<i>nauzub(i)e, nezie (Liz, Un)</i>		<i>gettuzub(i)e, gaittezie(Liz)</i>		
<i>aik</i>	<i>naub(i)e, nue (Liz), nie (Un)</i>	<i>(y)aub(i)e</i>	<i>gettub(i)e, gaittue(Liz)</i>	<i>zettub(i)e, zeittue (Liz)</i>	<i>zettub(i)e, zettue (Liz)</i>

Baina alokutiboari erreparatzen badiogu (kontuan izan Nor saileko laguntzaile alokutiboa NN_k saileko laguntzaile zehaztugabearen bidez gauzatzen dela), aldatu egingo lirateke paradigmako zenbait aditz forma. Etxarrin, adibidez, ondorengoak izango genituzke adizki horiek:

Niok/n (nauk/n), gettuk/n (gaituk/n)

Eta honetaz guztiaz gain, Etxarriko lau pertsonak (Anbruxio Erdozia –Irizaren informatzaile berbera-, Pedro Agirre, Inozentzia eta Euxebio Markotegi) baieztatu digute ‘*lengo zarrak*’ bai erabiltzen zituztela NN_k erako formak, hurrengo esaldiak aipatu dizkigutelarik:

Alsasue yamankoa ut nik!

Bidien artu geittuzu lentxoo.

Esan debie ostutzen arrapatu zeittubiela!

M^a Carmen Goñi Insaustik (77 urte), aldiz, Arbizukotzat jotzen ditu halako aditz formak eta NNN sailekoak erabiltzen ditu berak, *dubet/net, duuzubiela*, lehen eta

¹²³ Metatesiak lantzerakoan aipatu dugun Etxarriko haur jokoetarako kontaketa sistemak aditz forma hau agertzen digu: “... *sagu zarrak jan al au, ...*” (jan ahal hau).

hirugarren esaldietan, baina ezin izan du bestea, bigarrena, NNN saileko aditz formaz gauzatu: *zuk gui bidien artuezu*.

b) Indikatiboko iraganaren paradigmak.

Nahiko homogeneousak ditugu aditz formak indikatiboko lehen aldiaren azterketa esparru osoan. Bitxikeriazat har daiteke, bestalde, Nor Haiek denean, Arbizu eta Uhartan izan ezik beste herri guztietan erabiltzen diren bi pluralegileak, *-it-* Nork singularreko pertsonen kasuan eta pluraleko hirugarrenean, eta *-zki-* gainerako pluralekotan:

<i>Ure</i>	<i>aik</i>
<i>nu(b)(u)en</i> ¹²⁴ , <i>neen</i> (Etx)	<i>nittu(b)(u)en</i>
<i>u(b)(u)en</i> , <i>yeen</i> (Etx, Un), <i>yuen</i> (Uh)	<i>ittu(b)(u)en</i> , <i>gittuen</i> (Liz)
<i>zu(b)(u)en</i> , <i>zeen</i> (Etx)	<i>zittu(b)(u)en</i>
<i>giñu(b)(u)en</i> , <i>giñun</i> (Arr)	<i>giñuzki(y)en</i> , <i>giñuzkuen</i> (Do), <i>giñittubuen</i> (Arb), <i>giñuztien</i> (Lak), <i>giñttuen</i> (Uh)
<i>ziñu(b)(u)en</i> , <i>ziñun</i> (Arr)	<i>ziñuzki(y)en</i> , <i>ziñittubuen</i> (Arb), <i>ziñuztien</i> (Lak), <i>ziñttuen</i> (Uh)
<i>ziñub(i)en</i> , <i>ziñurien</i> (Erg)	<i>ziñuzkib(i)en</i> , <i>ziñittubien</i> (Arb), <i>ziñuztien</i> (Lak), <i>ziñuzkiyen</i> (Arr), <i>ziñttuben</i> (Uh)
<i>zuen</i> (Erg), <i>zebien</i> (Etx), <i>zub(i)en</i>	<i>zittu(b)(i)en</i>

Eta gainerako Nor pertsonari dagokienez, askoz ere urriagoak izan dira jasotako emaitzak. Arbizun, esate baterako, ondorengoak jaso ditu Olasagarre-k: *ninduzun*, *nindubuen*, *ninduzubien*, *nindubien*, *zinttubuen* (arrek zu), *giñuzkizun* (zuk gu), *giñuzkiyen* (arrek gu), *giñuzkizubien* (zuek gu), *giñuzkibien* (ayek gu).

c) Baldintza aurrekoa eta ondorioak (oraina eta iragana).

¹²⁴ Hauexek lirateke burutzapen desberdinak: *nubuen* (Arb), *nuben* (Lak), *nuen* (Erg, Arr, Uh).

Berriro ere *-au-* / *-u-* erroen arteko lehia ikus daiteke, ez herrien arteko hizkeretan soilik, Etxarrikoan esate baterako, biak agertzen baitira sail bereberetan, paradigmaren ikus daitekeen moduan.

- Nor Hura denean:

<i>Baldintza aurrekoa</i>	<i>Ondorio oraina / iragana (-n)</i>
<i>banu, banau (Etx), bano (Un)</i>	<i>nuke(n), nauke(n) (etx)</i>
<i>bau, bayau (Etx)</i>	<i>uke(n), yuke(n) (Uh), yauke (Etx)</i>
<i>balu, balau (Etx)</i>	<i>l(z)uke(n), l(z)auke(n) (Etx)</i>
<i>bagiñu</i>	<i>giñuke(n)</i>
<i>baziñu</i>	<i>ziñuke(n)</i>
<i>baziñub(i)e</i>	<i>ziñukie(n), ziñukiye(n) (Arr)</i>
<i>balub(i)e, balebie (Etx)</i>	<i>l(z)ukie(n), l(z)ukiye(n) (Arr), l(z)aukie(n) (Etx)</i>

- Nor Haiek denean erabat homogeneoa da azterketa esparru osoan eta bi pluralgile desberdin erabiltzen dira ondorioan, *-it-* eta *-z-*:

<i>banittu</i>	<i>nittuzke, nauzke</i>
<i>baittu</i>	<i>ittuzke, auzke¹²⁵</i>
<i>balittu</i>	<i>littuzke, lauzke</i>
<i>bagiñittu</i>	<i>giñuzke</i>
<i>baziñittu</i>	<i>ziñuzke</i>
<i>baziñittub(i)e</i>	<i>ziñuzkie</i>
<i>balittub(i)e</i>	<i>littuzkie</i>

Pentsa daitekeen moduan ondorio iragana, bukaeran *-n* erantsiz gauzatzen da: *nittuzken, ittuzken, zittuzken, ...* Baina baita indikatibo arrunteko lehen aldiko formak erabiliz ere.

Eta Nor hirugarren pertsonak ez diren kasuetan, ez da ia erabiltzen. Olasagarrek hiru aditz forma baino ez ditu jaso bere lanean: *baninduzu – ninduzuke, banindu – nindubueke, banindubie – nindubieke*.

¹²⁵ Horrela erabiltzen du V. HUIZIK: “... *pantalonak ez baiya gonak jantzi bear auzke ik ...*” (M.G.B., 1899, 139)

d) Subjuntiboera.

Aurreko sailetan bezala, *-la* morfema eranstean zaio azterketa esparru osoan:

Ori zuk ein zazula nei diau! Etxia yaman nazazula eskatzen duuzut!

Ori aik ein zabiela nei diau! Etxia yaman nazabiela eskatzen doobiet!

Ori arrek ein zala nei diau! Etxia yaman nazala eskatzen doot!

Pluralgilea *-zki-* dugu Etxarrin eta Arbizon, aldiz, *-it-*:

Oik zuk ein zazkizula nei diau! Oyek zuk ein ttazula nei duu!

Oik aik ein zazkibiela nei diau! Oyek aik ein ttitela nei duu!

Bestalde, aditz forma bat gutxienez jaso dugu *-la* morfemarik gabekoa, eta aurreko silabaren galera edo aferesia jasaten du: *ziaun* (dezagun). Eta pluraleko forma ere *-zki-* pluralgilearekin gauzatu: *zazkigun* (ditzagun).

Lehen aldiko formak dagoeneko galdutzat eman daitezke, nominalizazioen bidez egiten direlarik halako esaldiak:

Etxia yamatie eskatu nuuzun!

e) Ahalera.

Nor hirugarren pertsona denean baino ez da erabiltzen, eta pluralgiletzat *-z-* hartzen du:

<i>hura</i>	<i>haiek</i>
<i>dezaket</i>	<i>dezazket</i>
<i>dezakek/n</i>	<i>dezazkek/n</i>
<i>dezake</i>	<i>dezazke</i>
<i>dezakegu, dezakiu (arb)</i>	<i>dezazkegu, dezazkiu (Arb)</i>
<i>dezakezu</i>	<i>dezazkezu</i>
<i>dezakezubie</i>	<i>dezazkezubie</i>
<i>dezakebie, dezakie (Arb)</i>	<i>dezazkebie, dezazkiye (Arb)</i>

Gamindek Uhartan lehen silabaren aferesidun formak jaso zituen (Aditza Ipar Goi-Nafarreraz, 1985):

Zaket, zakek/n, zake, zakeuke, zakezuke, zakezubeke, zakie

Ikusten denez, ahalerako *-ke-* partikula errepikaturik agertzen da pluraleko formetan eta gauza bera gertatzen da Arruazu, Lizarraga, Dorrao eta Unanun:

Dezakeguke, dezakeuke, ...

Eta iraganeko formak, Nork pertsonaren morfema aurrera pasatuz eta bukaeran *-n* erantsiz burutzen da:

<i>Hura / haiek (z)</i>
<i>neza(z)ken</i>
<i>eza(z)ken</i>
<i>zeza(z)ken</i>
<i>geneza(z)ken</i>
<i>zeneza(z)ken</i>
<i>zeneza(z)kebien</i>
<i>zeza(z)kebien</i>

Alegiazkoan ere entzun daiteke noiz edo noiz, hirugarren pertsonetakoekin batez ere:

leza(z)ke, leza(z)kebie.

f) Agintera.

<i>ik ni</i>	<i>nazak/n</i>
<i>arrek ni</i>	<i>nazala</i>
<i>zuk ni</i>	<i>nazazu</i>
<i>zuek ni</i>	<i>nazazubie</i>
<i>aik ni</i>	<i>nazabiela</i>

Berriro ere *-zki-* izango dugu pluralegilea Etxarrin eta Nork Hura edo Haiek denean *-la* morfema eransten zaio. Eta Nor hirugarren pertsona denean *e-* hasierako bokalaren elisioa gertatzen da:

<i>ik ure (aik)</i>	<i>za(zki)k/n</i>
<i>zuk ure (aik)</i>	<i>za(zki)zu</i>
<i>zuek ure (aik)</i>	<i>za(zki)zubie, zazie</i>

Ekarri aditzarekin aferesiak bi silabatako maila lortzen du:

*Ekatzu*¹²⁶ (ekar ezazu)

Ekatzubie (ekar ezazue)

Badira beste aditz forma batzuk, aginteran, esanahiaren aldetik ‘hartu’ aditzarenak behar dutenak izan: *to* (har ezak), *no* (har ezan), *to(r)i(zu)* (har ezazu), *to(r)izubie* (har ezazue). I. Caminok ere jaso ditu Aezkoan, *to* (Ab), *ortxú* (Abpea), *tori* (Gar). Eta ohartxoak dakar Abaurrepekoan:

“*Hartu* aditzaren forma trinkoa, behe-nafarrerazko *orizu* gogora dakarkiguna. Abaurrepeko emazteki batek esan zigun hori, baina beldur gara Abaurreagainean zerbitzari egon zenean zaraitzuarren bati ikasia ote den”.
(1997, 442)

Olasagarrek *geittazu* (gaitzazu) eta *geittazubie* (gaitzazue) formak ere jaso ditu Arbizuko hizkeran.

3.8.2.4. NOR-NORI-NORK SAILA.

Sakana erdialdeko hizkeretan, NNN aditz sailari dagokionez, isoglosa garbi batek bi eremu edo talde bereizten ditu:

- *-I-* aditz erroa eta *-it-* pluralgilea: Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Uhartan. Koldo Zuazok EH-ko erdiguneko eremu murrizagoko bereizgarritzat du hauxe:

¹²⁶ Burutzapen berbera jasotzen du I. Caminok Garraldan.

“N-N-N saileko *-i- erroaren erabateko nagusitasuna; cf. *diguzu, didazu, didak/n*. Euskara giputzean eta NG gehienean zabaldu da. NG-ri dagokionez, Burunda, Etxarri-Aranatz eta Ergoiena, alde batetik, eta Aurizberritik (Aurizberri administrazioz Errobarri badagokio ere, hizkera aldetik Aezkoatik dago hurbil) ekialdeko hizkerak, bestetik, dira salbuespena. Artzibarko iparraldean (Luzarreta, Hiriberri, Arrieta, Azparren eta, beharbada, Zaragueta, Gorraitz eta Imizkotz), Orotz-Betelun eta Erroibarko iparraldean (Bizkarreta-Gerendiain, Mezkiritz, Esnotz eta Lintzoain) *-i- eta *-ako/-eko-* tankerako erroak lehian (izan) dira eta, bigarren hauek, datiboa 3. pertsonakoa denean erabili ohi dira (Irizar 1992b). (1998, *FLV*, 78, 202-203)

Horrela beraz, esan daiteke orokorrean EH-ko mendebalean **eutsi*, erdialdean **-i*, eta ipar-ekialdean **era(d)u(n)* erroak erabiltzen direla.

- -ERAU- erroa eta -zki- pluralgilea: Etxarri eta Ergoienan. Erro hau ondoko Burunda bailaran ere erabiltzen dute, herri batetik bestera bilakabide desberdinak jarraitzen baditu ere, Damaso Inzak¹²⁷ erakutsi bezala: *derubet* (Olazagutia eta Ziordi), *deubet* (Urdiain), *daubet* (Iturmendi eta Bakaiku).

Guk Etxarri eta Ergoienan jaso ditugun burutzapenen arabera, ondorengo bilakabidea proposatzen dugu:

**erau* > **-u(u)- / _ C : du(u)t* (dit), *du(u)biet*, *du(u)tie* (didate)

**erau* + *-o* > **-oo-* : *doot* (diot), *doogu* (diogu), *doobiet* (diet)

Horrela, hauexek liriateke bilakabide honen zehaztapenak:

Du(u)biet < (V₁V₂ > V₂ V₂ > V₂) **deubiet* < **deaubiet* < **deraubiet*

Du(u)gu < **deraugu* (digu)

doozubie < **derauozubie* (diozue)

zoon < **zerauon* (zion)

zoobien < **zerauobien* (zioten)

Bestalde, badira beste zenbait berezitasun sail honen burutzapenean eta jarraian aipatuko ditugu:

- Sinkretismoa dugu pluraleko hainbat formatan, datiboaren hirugarren pertsonekin batez ere, zenbaitetan hirukoitza ere izan daitekeelarik:

¹²⁷ D. Inza, “Burundako euskalkia”, 1922, Euskera III, 3-42 orrialdeak.

doogu, guk-hari-hura eta guk haiei hura (Etxarri eta Ergoienan)

doozu, zuk-hari-hura eta zuk-haiei-hura (Etxarri)

doozubie, zuek-hari-hura eta zuek-haiei-hura (Etxarri)

doobie, haiek-hari-hura, hark-haiei-hura eta haiek-haiei-hura (Etxarri)

duuzubie, haiek-zuri-hura, hark-zuei-hura eta haiek-zuei-hura (Etxarri)

diou-diau, guk-hari-hura eta guk-haiei-hura (Arbizutik Uharteraino)

diozu, zuk-hari-hura eta zuk-haiei-hura (Arbizutik Uharteraino)

diozub(i)e, zuek-hari-hura eta zuek-haiei-hura (Arbizutik Uharteraino)

diob(i)e, haiek-hari-hura, hark-haiei-hura eta haiek-haiei-hura (Arbizutik Uharteraino)

- N_i -ren ezaugarriak, normalean, aditz formaren barruan doaz, baina Etxarrikoan, singularreko lehen pertsonarekin jokatzeko diren N_k -en bigarren pertsonen kasuan, badirudi aditz formaren hasierara pasatzen dela niri pertsonaren morfema edo ezaugarria: *nizu* (didazu, nauzu), *niek/n* (didak/n, nauk/n) eta *nizubie* (didazue, nauzue). Hala ere, NN_k eran gertatzen zenaren alderantzizko fenomenoak dela uste dugu, hots, NN_k eran NN_iN_k -eko formak erabiltzen badira, oraingoa alderantziz suertatzen da, NN_k -eko aditz formak erabiltzen dira NN_iN_k -ekoen ordean. Eta horrela, berdinean esaten da:

Ikus nizu gaur goizien plazan? (Ikusi nauzu gaur goizean plazan?)

Ikus nizu atia dakiten ospela? (Ikusi didazu atera zaidan ospela?)

Eta bilakabideari dagokionez, gogoratu NN_k erako laguntzailearen erroa *-eu-* dugula, beraz ondorengoa litzateke, bukaerako disimilazioa eta guzti:

neuk/n > neek/n > nek/n > niek/n

neuzu > neezu > nezu > nizu

- Etxarri eta Ergoienako aditz formak pluraleko hirugarren pertsonen morfemak bereizten dituzte, *-bie* izango dugularik Etxarri, eta *-r(i)(u)e* Ergoienan:

doobie, doobiet, doobiek/n, ...

doorie-doorue, dooret, doorek/n, ...

- NN_k saileko forma ugari erabiltzen dira Ergoienako hizkeretan, batez ere Gamindek jasotako burutzapenetan ikusten den moduan. Irizarrek ere horrelako asko jaso ditu.
- Eta pluralgileei dagokienez, hiru dira gutxienez erabiltzen direnak esparru osoan, -*it*-, -*zki*- eta -*tza*:

+ *-it*- Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Uhartan.

+ *-zki*- Etxarri eta Ergoienan.

+ *-tza*- Etxarrin, baina soilik datiboko hirugarren pertsonekin, eta -*zki*- pluralgilearekin lehia dago aipatu kasu honetan ere.

a) Indikatiboko orainaldia.

Lehenik datiboko hirugarren pertsonak aztertuko ditut, hauexek baitira osoen agertzen zaizkigunak herri guztietan, eta behar adina zutabetan ezarriko ditut (Etxarri-Ergoiena eta Arbizutik ekialdera) desberdintasunak eta kidetasunak hobeto bereizteko:

+ (Nor)k-Hari-Hura paradigma:

	<i>Etxarri</i>	<i>Ergoiena</i>	<i>Arbizu</i>	↔	<i>Uhart</i>
<i>nik</i>	<i>doot</i>		<i>diot</i>		
<i>ik</i>	<i>dook/n</i>		<i>diok/n</i>		
<i>arrek</i>	<i>doo</i>		<i>dio</i>		
<i>guk</i>	<i>doogu</i>		<i>diou</i>	<i>deeu (Lak.)</i>	<i>diau (Arr, Uh)</i>
<i>zuk</i>	<i>doozu</i>		<i>diozu</i>		
<i>zuek</i>	<i>doozubie</i>	<i>doozie (Erg.)</i>	<i>diozubie</i>	<i>diozube (Lak, Arr, Uh)</i>	
<i>aik</i>	<i>doobie</i>	<i>doorie (Liz, Do)</i>	<i>diyue</i>	<i>diobe (Lak, Arr, Uh)</i>	

+ (Nor)k-Haiei-Hura paradigma:

<i>Etxarri</i>	<i>Lizarraga-Dorrao</i>	<i>Unanu</i>	<i>Arbizu-Lakuntza</i>	<i>Arruazu-Uhart</i>
<i>doobiet</i>	<i>dooret</i>	<i>doruet</i>	<i>diot</i>	<i>diobet</i>
<i>doobiek/n</i>	<i>doorek/n</i>	<i>doruek/n</i>	<i>diok/n</i>	<i>diobek/n</i>

SAKANA ERDIALDEKO EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

<i>doobie</i>	<i>doore</i>	<i>dorue</i>	<i>dio</i>	<i>diobe</i>
<i>doogu</i>	<i>dooregu</i>	<i>doruegu</i>	<i>diou, deeu (Lak.)</i>	<i>diau</i>
<i>doozu</i>	<i>doorezu</i>	<i>doruezu</i>	<i>diozu</i>	<i>diozu</i>
<i>doozubie</i>	<i>doorezie</i>	<i>doruezie</i>	<i>diozub(i)e</i>	<i>diozube</i>
<i>doobie</i>	<i>doorie</i>	<i>dorue</i>	<i>diyue, diobe (Lak.)</i>	<i>diobe</i>

+ Gainerako aditz formak: Ergoienaren kasuan, NN_k sailak kendu dio tokia hainbat eta hainbat formatan. Forma bakoitza hiru lerrotan ematen dugu: lehena Etxarrikoa, bigarrena Ergoienakoa eta hirugarrena Arbizutik ekialdera:

	<i>Niri</i>	<i>Hiri</i>	<i>Guri</i>	<i>Zuri</i>	<i>Zuei</i>
<i>nik</i>		<i>dubet/net</i> <i>duet/net</i> <i>diet/ñet</i>		<i>duuzut</i> <i>duuzut</i> <i>dizut</i>	<i>duuzubiet</i> <i>duziet</i> <i>dizub(i)et</i>
<i>hik</i>	<i>niek/n</i> <i>dok/n</i> <i>diek/n</i>		<i>giek/n</i> ¹²⁸ , <i>duuguk/n</i> <i>dok/n</i> <i>diuk/n</i>		
<i>hark</i>	<i>duut</i> <i>duut</i> <i>ditt, die (Uh)</i>	<i>duuk/n</i> <i>duuk/n</i> <i>dik/n</i>	<i>duugu</i> <i>duugu</i> <i>diuu</i>	<i>duuzu</i> <i>duuzu</i> <i>dizu</i>	<i>duuzubie</i> <i>duzie</i> <i>dizub(i)e</i>
<i>guk</i>		<i>dubau/nau</i> <i>dakik/n</i> <i>diau/ñau</i>		<i>duuzugu</i> <i>dakizu</i> <i>dizuu</i>	<i>duuzubiegu</i> <i>dazkizie</i> <i>dizub(i)au, dizueu (Uh)</i>
<i>zuk</i>	<i>niezu</i> <i>dezu</i> <i>diezu</i>		<i>giezu, duuguzu</i> <i>dezu</i> <i>diuzu</i>		
<i>zuek</i>	<i>niezubie</i> <i>dezie</i> <i>diezub(i)e</i>		<i>giezubie, duuguzubie</i> <i>dezie</i> <i>diuzub(i)e</i>		
<i>haiek</i>	<i>duubiet</i> <i>duutie</i> <i>ditee, diebe (Uh)</i>	<i>duubiek/n</i> <i>duuk/n</i> <i>diyee/ñee</i>	<i>duugubie</i> <i>duugu</i> <i>diub(i)e, digube (Arr,Uh)</i>	<i>duuzubie</i> <i>duuzu</i> <i>dizub(i)e</i>	<i>duuzubie</i> <i>duzie</i> <i>dizub(i)e</i>

¹²⁸ Forma hau Irizarrek jaso da (Morfologia del verbo auxiliar guipuzcoano, 1991, tomo II).Berez, *duuguk/n* beharko luke izan.

+ (Nor)k-Hari-Haiek paradigma:

	<i>Etxarri</i>	<i>Ergoiena</i>	<i>Arbizu</i>	↔	<i>Uharte</i>
<i>nik</i>	<i>doozkiyot, dootzat</i>	<i>dozkoot</i>	<i>ttot,</i>		<i>ttiot (Lak., Arr., Uh.)</i>
<i>hik</i>	<i>doozkiyok/n, dootzak/n</i>	<i>dozkook/n</i>	<i>ttok/n,</i>		
<i>hark</i>	<i>doozkiyo, dootza</i>	<i>dozkoo</i>	<i>ttoo,</i>		<i>ttio (Lak., Arr., Uh.)</i>
<i>guk</i>	<i>doozkiyogu, dootzagu</i>	<i>dozkoogu</i>	<i>ttau,</i>		<i>ttiau(Lak.)ttiogu (Arr,Uh)</i>
<i>zuk</i>	<i>doozkiyozu, dootzazu</i>	<i>dozkoozu</i>	<i>ttozu,</i>		<i>ttiozu (Lak., Arr., Uh.)</i>
<i>zuek</i>	<i>doozkiyozubie, dootzazubie</i>	<i>doozkozie</i>	<i>ttozubie,</i>		<i>ttiozube (Lak,Arr, Uh)</i>
<i>aik</i>	<i>doozkiyobie, dootzabie,</i>	<i>dozkoore (Liz,Do) dozkorie (Un).</i>	<i>ttyue,</i>		<i>ttiobe (Lak, Arr, Uh)</i>

+ (Nor)k-Haiei-Haiek paradigma:

	<i>Etxarri</i>	<i>Liz, Do., Un.</i>	<i>Arb., Lak.,</i>	<i>Arr., Uh.</i>	
<i>nik</i>	<i>doozkiyobiet, dootzabiet</i>	<i>dozkoot</i>	<i>ttiot</i>	<i>ttiobet</i>	
<i>hik</i>	<i>doozkiyobiek/n, dootzabiek/n</i>	<i>dozkook/n</i>	<i>ttiok/n</i>		
<i>hark</i>	<i>doozkiyobie, dootzabie</i>	<i>dozkoo</i>	<i>ttio</i>		
<i>guk</i>	<i>doozkiyogu, dootzagu</i>	<i>dozkoogu</i>	<i>dozkooruegu</i>	<i>ttiau</i>	<i>ttiou</i>
<i>zuk</i>	<i>doozkiyozu, dootzazu</i>	<i>dozkoozu</i>		<i>ttiozu</i>	
<i>zuek</i>	<i>doozkiyozubie, dootzazubie</i>	<i>dozkoozie</i>	<i>dozkoorezie</i>	<i>ttiozub(i)e</i>	
<i>aik</i>	<i>doozkiyobie, dootzabie</i>	<i>dozkoore</i>	<i>dozkoorie</i>	<i>ttiobe</i>	

+ Gainerako formak Nor edo Zer Haiek denean, pluralgilea tartekatuz burutzen

dira, *-zki-* Etxarri eta Ergoienan, *-it-* Arbizutik Uharteraino:

	<i>Niri</i>	<i>Hiri</i>	<i>Guri</i>	<i>Zuri</i>	<i>Zuei</i>
<i>nik</i>		<i>duzkiyet/ñet</i> <i>duzkiet/ñet</i> <i>ttiet/ñet</i>		<i>duuzkizut</i> <i>duzkizut</i> <i>ttizut</i>	<i>duuzkizubiet</i> <i>duzkiziet</i> <i>ttizub(i)et</i>
<i>hik</i>	<i>nizkiek/n</i> <i>ttuk/n</i> <i>ttiek/n</i>		<i>gizkie(gu)k/n</i> ¹²⁹ , <i>duuzkiguk/n</i> <i>ttuk/n</i> <i>ttiuuk/n</i>		
<i>hark</i>	<i>duuzkit</i> <i>duuzkit</i> <i>ttit, ttie (Uh)</i>	<i>duuzkik/n</i> <i>duuzkik/n</i> <i>ttik/n</i>	<i>duuzkigu</i> <i>duzkigu</i> <i>ttiuu</i>	<i>duuzkizu</i> <i>duzkizu</i> <i>ttizu</i>	<i>duuzkizubie</i> <i>duzkizie</i> <i>ttizub(i)e</i>
<i>guk</i>		<i>duzkiyau/ñau</i> <i>dazkiik/n</i> <i>ttiau/ñau</i>		<i>duuzkizugu</i> <i>dazkizu</i> <i>ttizuu</i>	<i>duuzkizubiegu</i> <i>dazkizie</i> <i>ttizub(i)au, ttizueu (Uh)</i>
<i>zuk</i>	<i>nizkiezu</i> <i>ttezu</i> <i>ttuzu, ttiezu</i> <i>(Lak)</i>		<i>gizkiezu, duuzkiguzu</i> <i>ttezu</i> <i>tt(i)uzu</i>		
<i>zuek</i>	<i>nizkiezubie</i> <i>ttezie</i> <i>ttiezub(i)e</i>		<i>gizkiezubie,</i> <i>duuzkiguzubie</i> <i>ttezie</i> <i>ttiuzub(i)e</i>		
<i>haiek</i>	<i>duuzkibiet</i> <i>duzkitie</i> <i>ttitee, ttiebe (Uh)</i>	<i>duuzkibiek/n</i> <i>duzkiik/n</i> <i>ttiyee/ñee</i>	<i>duuzkigubie</i> <i>duzkigu</i> <i>ttiuub(i)e, ttuu (Arb)</i>	<i>duuzkizubie</i> <i>duzkizu</i> <i>ttizub(i)e</i>	<i>duuzkizubie</i> <i>duzkizie</i> <i>ttizub(i)e</i>

b) Indikatiboko iragana.

¹²⁹ Forma hau Irizarrek jaso da (Morfologia del verbo auxiliar guipuzcoano, 1991, tomo II).Berez, *duuguk/n* beharko luke izan.

Orain aldiari bezalaxe, absolutibo eta datiboaren hirugarren pertsonekin emango diogu hasiera paradigmak burutzeari:

+ (Nor)k-Hari-Hura paradigma:

	<i>Etxarri</i>	<i>Ergoiena</i>	<i>Arbizu ↔ Uharte</i>
<i>nik</i>	<i>noon</i>		<i>nion</i>
<i>ik</i>	<i>yoon</i>	<i>goon</i>	<i>yio(be)n</i>
<i>arrek</i>	<i>zoon</i>		<i>zion</i>
<i>guk</i>	<i>genon</i>	<i>giñoon</i>	<i>giñ(i)on</i>
<i>zuk</i>	<i>zenon</i>	<i>ziñoon</i>	<i>ziñ(i)on</i>
<i>zuek</i>	<i>zenobien</i>	<i>ziñorien</i>	<i>ziñobien</i> <i>ziñubien (Arb)</i>
<i>aik</i>	<i>zoobien</i>	<i>zoorien (Liz,Un)</i> <i>zooruen (Do)</i>	<i>zioben</i> <i>ziyuen (Arb)</i>

+ (Nor)k-Haiei-Hura: esan daiteke oraintxe bertan ikusi ditugun formekiko sinkretismoa dela nagusi, ezen errepikatu egiten baitira datibo singularreko hirugarren pertsonetako adizki ia guztiak, Etxarri eta Unanuko hizkeretan izan ezik. Bi herri hauetan, aipatu aditz formen Hari-ren morfemari, Haiei-rena eransten zaie, *-bie* Etxarrin, eta *-rie* Unanun. Hala ere, ikusiko ditugu forma sinkretikoak hauetan ere:

<i>noobien</i>	<i>noorien</i>
<i>yoobien</i>	<i>yoorien</i>
<i>zoobien</i>	<i>zoorien</i>
<i>genobien</i>	<i>giñoorien</i>
<i>zenobien</i>	<i>ziñoorien</i>
<i>ziñobien</i>	<i>ziñoorien</i>
<i>zoobien</i>	<i>zoorien</i>

+ Datiboko gainerako pertsonekin burututako aditz formak. Orain aldi bezala, oraingoan ere, hiru lerrotan emango dugu aditz forma bakoitza: lehena, Etxarrikoa; bigarrena, Ergoienakoa; eta hirugarrena, Arbizutik ekialdera bitarteko herrietakoa:

	<i>Niri</i>	<i>Hiri</i>	<i>Guri</i>	<i>Zuri</i>	<i>Zuei</i>
<i>nik</i>		<i>nubaa/naa</i> <i>nuun/nen</i> <i>ni(y)en/ñen</i>		<i>nuuzun</i> <i>nuzun</i> <i>nizun</i>	<i>nuuzubien</i> <i>nuzien</i> <i>nizub(i)en</i>
<i>hik</i>	<i>niebaa/naa</i> <i>guen</i> <i>(y)ie(y)en/ñen</i>		<i>giebaa/naa ?</i> <i>guen</i> <i>(y)iu(b)en/nen</i>		
<i>hark</i>	<i>zuuten</i> <i>zuuten</i> <i>zi(t)(t)en</i>	<i>zubaan/naan</i> <i>zuben/nen</i> <i>zi(y)en/ñen</i>	<i>zuugun</i> <i>zuugun</i> <i>ziun</i>	<i>zuuzun</i> <i>zuuzun</i> <i>zizun</i>	<i>zuuzubien</i> <i>zuuzien</i> <i>zizub(i)en</i>
<i>guk</i>		<i>genubaa/naan</i> <i>zakien/ñen</i> <i>giñi(y)en/ñen</i>		<i>genuuzun</i> <i>zakizun, giñuzun</i> <i>giñizun</i>	<i>genuzubien</i> <i>zakizien, giñuzien</i> <i>giñizub(i)en</i>
<i>zuk</i>	<i>niezun ?</i> <i>ziñuen</i> <i>ziñe(y)en</i>		<i>giezun ?</i> <i>ziñuen</i> <i>ziñ(i)un</i>		
<i>zuek</i>	<i>niezubien ?</i> <i>ziñerien, ziñuen (U)</i> <i>ziñubien, ziñeeyen</i>		<i>giezubien ?</i> <i>ziñerien, ziñuen</i> <i>ziñub(i)en</i>		
<i>haiek</i>	<i>zubieta</i> <i>zuut(i)en</i> <i>zit(t)en, zieben</i>	<i>zubaabien/naabien</i> <i>zuben/nen</i> <i>ziyen/ñenen</i>	<i>zuugubien</i> <i>zuugun</i> <i>ziu(be)n</i>	<i>zuuzubien</i> <i>zuuzun</i> <i>zizub(i)en</i>	<i>zuuzubien</i> <i>zuuzien</i> <i>zizub(i)en</i>

Irizarrek datibo pluraleko lehen pertsonako *Hik-Guri-Hura*, *Zuk-Guri-Hura* eta *Zuek-Guri-Hura* aditz formetan NN_k erako burutzapenak jaso zituen: *auen*, *ziñuben* eta *ziñubien* Etxarrin; *guen*, *ziñuen*, *ziñerien* Ergoienan; *ziñegun*, *iuben*, *ziñun* ... Arbizutik ekialdera. Eta gauza bera egiten du datibo singularreko lehen pertsonako *Zuk-Niri-Hura* eta *Zuek-Niri-Hura* aditz formekin: *ziñuben*, *ziñubien*.

+ Absolutibo pluraleko aditz formak, orain aldian bezala, pluralgileak tartekatuz gauzatuko dira, *-zki-* Etxarri eta Ergoienan, eta *-it-* gainerako herrietako hizkeretan: *zuuzkizun-zittizun* (Hark-Zuri-Haiek), *noozkiyon-nittion* (Nik-Hari-Haiek), ...

c) Baldintza NNN sailean.

NN_k sailean aipatu dugun moduan Nori hirugarren pertsona denean erabiltzen da gehien bat. Hala ere, sail honetan gehiago entzuten dira gaur egun oraindik datiboko beste pertsonen burutzapenak ere.

+ Nori Hari eta Nor Hura paradigma:

<i>BALDINTZA AURREKOA</i>			<i>ONDORIO ORAINA</i>			
etxarri	ergoiena	Arb <-> Uh	etxarri	ergoiena	Arb <-> Uh (uharte)	(arruazu)
<i>banoo</i>		<i>banio</i>	<i>nooke</i>		<i>nioke</i>	
<i>bayoo</i>	<i>bagoo (liz)</i>	<i>bayo</i>	<i>yooke gooke, yauke (Un)</i>		<i>yoke</i>	
<i>baloo</i>		<i>balio</i>	<i>looke</i>		<i>lioke</i>	
<i>bageno</i>	<i>bagiño</i>	<i>bagiño</i>	<i>genoke giñooke</i>		<i>giñoke giñioke</i>	
<i>bazeno</i>	<i>baziño</i>	<i>baziño</i>	<i>zenoke ziñooke</i>		<i>ziñoke ziñioke</i>	
<i>bazenobie</i>	<i>baziñorie</i>	<i>baziñubie</i>	<i>ziñokie</i>		<i>ziñukie ziñiokie ziñokiye</i>	
<i>balokie</i>	<i>balorie</i>	<i>baliyue</i>	<i>lookie</i>		<i>liokie</i>	<i>liokiye</i>

Ondorio lehena, *-n* morfema erantsiz burutzen da, eta Nor plurala berriz, pluralgilea tartekatuz, *-zki-* Etxarri eta Ergoienan eta *-it-* gainerako herrietan. Gogoratu Etxarrikoan datiboaren hirugarren pertsonekin *-tza-* pluralgilea ere erabiltzen dela: *banoozkiyo-banootza*, ... Azkenik, datibo pluraleko hirugarren pertsonari, *-bie*, *-rie* morfema erantsen zaio Etxarrin eta Ergoienan eta *-yue* Arbizun: *banoobie*, *bagiñorie*, *baliyue*, *bagiñiyue*, ...

Bestalde, datiboko gainerako pertsonen burutzapenak, era logikoan gauzatzen dira, hots, lehen aldiko formei bukaerako iraganeko ezaugarria kendu eta ba- aurrizkia erantsiz. Honetaz gain, ergatiboko hirugarren pertsonen hasierako *z-* morfema l- rengatik aldatzen dute:

Banuuzu (banizu), *baluut* (balit), *bagenuzubie* (bagenizue), *balizube* (balizuite), *baluutie* (balidate), ...

d) Ahalera eta subjuntiboera.

Ez dira erabiltzen NNN sailean ahalera eta subjuntiboerako aditz formak. Ahalerari dagokionez, indikatiboko aditz forma gehi *al* (ahal) partikula erabiliz burutzen da:

Nik eman al duuzut ogiye! (Eman ahal dizut, diezazuket)

Guk yoosi al genubaan sorue! (Erosi ahal genian, geniezaiokean)

e) Agintera.

Aditz era hau bai erabiltzen da azterketa esparruan NNN sailean, baina soilik datiboa hirugarren pertsona denean, objektu singularra zein pluralarekin:

	<i>arri</i>	<i>airi</i>
<i>ik</i>	<i>yok/n, yozkiyok/n, (yotzak/n), zok/n (Un)</i>	<i>yobiek/n, yozkiyobiek/n, (yotzabiek/n), zok/n (Un)</i>
<i>biak</i>	<i>yola, yozkiyola, (yotzala)</i>	<i>yobiela, yozkibiela, (yotzabiela)</i>
<i>zuk</i>	<i>yozu, yozkiyozu, (yotzazu)</i>	<i>yobiezu, yozkibiezu, (yotzabiezu)</i>
<i>zuek</i>	<i>yozubie, yozkizubie, (yotzazubie)</i>	<i>yobiezubie, yozkibiezubie, yotzabiezubie</i>
<i>aik</i>	<i>yobiela, yozkibiela, (yotzabiela)</i>	<i>yobiela, yozkibiela, (yotzabiela)</i>

3.8.3. ADITZ TRINKOAK.

3.8.3.1. ETORRI ADITZA.

Esan daiteke ia-ia ez dela erabiltzen era sintetikoan azterketa esparru osoan. Soilik aditz forma solte batzuk entzun daitezke aginteran, eta gainera *zu* eta

zuek izenordainei dagozkien formek, izenordainaren marka, hasierako *z-*, galtzen dute, singularreko bigarren izenordainaren analogiaz seguru aski:

Ator onutz! (Hator hona!)

*Atoz*¹³⁰ *belexe!* (Zatoz berehalaxe!)

Atozie lenbeilen! (Zatozte lehen bailehen!)

Etorri aditzaren ordeaz, *eldu* erabiltzen da Sakana erdialde guztian, berdin Nor sailean nola NN_i-koan:

Oraina	Iragana
<i>Eldu neiz</i> (banator)	<i>eldu nintzen</i> (banentorren)
<i>Eldueiz</i>	<i>elduitzen</i>
<i>Eldua</i>	<i>eldu zan</i> (zen)
<i>Eldu gaa</i>	<i>eldu giñen</i>
<i>Eldu zaa</i>	<i>eldu ziñen</i>
<i>Eldu zarie</i>	<i>eldu ziñien</i>
<i>Eldu die</i>	<i>eldu zien</i>

Ez da, beraz, *eldu* aditza ‘iritsi’ aditzaren esanahiarekin erabiltzen, ‘etorri’-renarekin baizik, eta ez zaizkio aspektuko morfemak, -t(z)en eta -ko, eransten:

Eldu neiz (banator) ≠ *etor neiz* (etorri naiz)

Etortzen neiz, ez **eltzen neiz*

Etorko neiz, ez **elduko neiz*

NN_i eran ere, lehenago esan dugun bezala, *eldu*-rekin burutzen da:

Elduakit < *eldu dakit* (datorkit)

Elduakizu < *eldu dakizu* (datorkizu)

Elduakiyo < *eldu dakiyo* (datorkio)

Eldu gazkizu (gatozkizu)

Eldu zazkiyobien (zetozkien), ...

¹³⁰ Abereei egokitzen zaienean, hasierako igurzari ahoskabeaz gain orainaren marka ere galtzen du: *Toz*, *Beltxa*, *toz!* (Beltxa izeneko behiari dei eginez). *Zatoz* > *atoz* > *toz* litzateke, beraz, bere bilakabidea.

3.8.3.2. IBILLI ADITZA.

Nafarroako hizkera askotan bezala (Garzaron, Jaunsaras, Arraras, Beruete, Aezkoa), aditz honek, bukaeran, bokal bat darama singularreko formetan era sintetikoan:

Na(a)lle, a(a)lle, da(a)lle (nabil, habil, dabil).

Burundan berriz, ez da horrelakorik gertatzen.

Askotan ‘ari izan’-en ordeztzen da esparru osoan:

Jolasien dailte frontonien!, Egunio daille entrenatzen!

Nahiko burutzapen homogeenak ditu ‘ibili’ aditzak esparru osoan. Arbizukoan, pluraleko formetan, erroaren kontsonante albokaria galtzen da. Nor sailean baino ez da dagoeneko entzuten.

Oraina		Iragana	
<i>Orok.</i>	<i>Arbizu</i>	<i>Orok.</i>	<i>Arbizu</i>
<i>naill(e)</i>		<i>n(a)illen</i>	
<i>a(b)ill(e)</i>		<i>(a)illen</i>	
<i>daill(e)</i>		<i>z(a)illen</i>	
<i>gailte</i>	<i>gaizte</i>	<i>g(a)iltzen</i>	<i>giñaitzen</i>
<i>zailte</i>	<i>zaitze</i>	<i>z(a)iltzen</i>	<i>ziñaitzen</i>
<i>zailte(y)e</i>	<i>zaitte</i>	<i>z(a)iltzien</i>	<i>ziñaitzen</i>
<i>dailte</i>	<i>daizte</i>	<i>ziltzien</i>	<i>zaitzen</i>

Ahaleran oso gutxi dira entzuten diren formak, eta horien arabera, taula osatu dugu, iragana –n bukaeran erantsiz burutuko litzatekeelarik:

Badailke (bazailzke) kontus, bestela... !

<i>nailke</i>	<i>nailken</i>
<i>ailke</i>	<i>ailken</i>
<i>dailke</i>	<i>zailken</i>

<i>gailzke</i>	<i>gailzken</i>
<i>zailzke</i>	<i>zailzken</i>
<i>zailzkie</i>	<i>zailzkien</i>
<i>dailzke</i>	<i>zilzkien</i>

3.8.3.3. YON¹³¹/OON/EON (EGON) ADITZA.

Hau ere soilik Nor sailean erabiltzen da. Esan daiteke nahiko homogenea dela esparru guztian ‘egon’ aditza. Hala ere, bilakabide desberdinak ikus daitezke herri batetik bestera orainaldian:

- Herri guztietan, erroaren belare herskariaren galera gertatzen da, Etxarri, Ergoiena eta Arruazuko singularreko bigarren pertsonaren kasuan izan ezik: *noo*, *nao*, *nau*, ...
- Etxarri eta Arruazun bakarrik mantentzen da pluraleko hortzetako herskaria: *gaude*, *gode*, ... Baina Etxarrikoaren kasuan, hala ere, pluraleko hirugarren pertsonetan (bai orain aldi, nola iraganean), badirudi *d/r* txandaketa gertatu dela, eta ondoren bokal arteko dardarkariaren galera. Bilakabidea, beraz, ondorengo izango litzateke:

Daude > **daure* > **dare* > **dae* > *dee*

Zeuden > **zeuren* > **zeren* > *zeen*

- Arbizun pluraleko forma guztietan eta Ergoiena eta Uhartan pluraleko bigarrenan *d/r* txandaketa gertatzen da: *goure*, *zorie*, ...

<i>etxarri</i>	<i>ergoiena</i>	<i>arbizu</i>	<i>lakuntza</i>	<i>arruazu</i>	<i>uharte</i>
<i>noo</i>	<i>nao</i>	<i>nau</i>	<i>nao</i>	<i>nao</i>	<i>nao</i>
<i>ago</i>	<i>ago</i>	<i>au</i>	<i>ao</i>	<i>ago</i>	<i>ago</i>
<i>doo</i>	<i>dao</i>	<i>dau</i>	<i>dao</i>	<i>dao</i>	<i>dao</i>
<i>gaude</i>	<i>goi</i>	<i>gore</i>	<i>gaue</i>	<i>gode</i>	<i>gue</i>
<i>zaude</i>	<i>zoi</i>	<i>zore</i>	<i>zaue</i>	<i>zode</i>	<i>zue</i>
<i>zaudie</i>	<i>zorie</i>	<i>zo(u)rie</i>	<i>zaudie</i>	<i>zooye</i>	<i>zorie</i>
<i>dee</i>	<i>doi</i>	<i>do(u)re</i>	<i>daue</i>	<i>dode</i>	<i>due</i>

¹³¹ Ikus bokalismo saila, 11-12 orrialdeak, ‘egon’ > (y)oon bilakabideaz jabetzeko.

Ikusten denez, bilakabide desberdinak aukeratu dituzte herrietako hizkerak:

- Singularrean, bokal arteko –g- belarearen galera besterik gabe Ergoiena, Lakuntza, Arruazu eta Uharten; galera gehi diptongazioa Arbizon; eta galeraz gain, $V_1V_2 > V_2V_2$ Etxarrin.
- Pluralean ere bilakabide desberdinak ikus daitezke goian aipaturiko *d/r* txandaketaz gain: *-au-* diptongoaren burutzapen desberdinak eta hortzetako herskariaren galera zenbait kasutan.

Bestalde, *yon* aditza laguntzaile moduan ere erabil daiteke aditz nagusia atzizki modalez mugaturik doanean:

Yonik gaude Parisen!

Kanzerrakin geixo yonda doo!

Apiki fanik doon! (Etx), Apeki fanik daon! (Un)

Eta ager daiteke ‘ari izan’ aditzaren ordeez ere:

Auriten doo/dau!, Bei guziek ausnarrien dee/dore!

Lehen aldian, erroaren kontsonantea mantendu egiten da singularreko lehen bi pertsonetan Etxarrin, ez ordea Arbizon:

<i>Etxarri</i>	<i>Un, Liz</i>	<i>Arbizu</i>	<i>Lakuntza</i>
<i>nengon</i>	<i>nion</i>	<i>nion</i>	
<i>(y)engon</i>	<i>yon</i>	<i>yon</i>	
<i>zoon</i>	<i>zion</i>	<i>zion</i>	
<i>geunden</i>	<i>giñorien</i>	<i>giñouden</i>	<i>giñaurien</i> ¹³²
<i>zeunden</i>	<i>ziñoin</i>	<i>ziñouden</i>	
<i>zeundien</i>	<i>ziñorien</i>	<i>ziñoudien</i>	
<i>zeen</i>	<i>zo(o)in</i>	<i>zo(u)ren</i>	

Eta baldintza eta ahaleran honako formak geratu dira, ondorengo esaldietan ikus daitekeen moduan:

¹³² Horrela jaso zuen GAMINDEk (F.L.V., 56) Lakuntzan: “*Auriye asi denien karriken giñaurien*”.

Bier dan tokiyen balee (bageunde, baloo, ...), ez zan geyoo gertatuko!

Pozik ee bazoozke (badoozke)!

<i>Baldintza</i>	<i>ahalezkoa</i>
<i>Banengo, banio</i>	<i>Nooke, nioke</i>
<i>Baengo, bayo</i>	<i>Yooke</i>
<i>Baloo, balio</i>	<i>Looke, lioke</i>
<i>Bageunde, bagiñoude, bagiñoi</i>	<i>Goozke, giño(u)ke</i>
<i>Bazeunde, baziñoude, baziñoi</i>	<i>Zoozke, ziño(u)ke</i>
<i>Bazeundie, baziñoudie, baziñorie</i>	<i>Zoozkie, ziño(u)kie</i>
<i>Balee, bazoure, bazoi</i>	<i>loozke, lo(u)kie</i>

3.8.3.4. FAN/JUAN (JOAN) ADITZA.

Etxarriko hizkeran bi forma erabiltzen dira pertsona bakoitzeko, *nue/niyue*. Bestalde, bigarren forma hau Ergoiena, Arruazu eta Uhartan erabiltzen dute, sabaiko igurzkaria agertzen delarik. Honetaz gain, aipagarria da Arbizun ez dela erroaren bokal irekia asimilatzen.

Orain aldian:

<i>etxarri</i>	<i>ergoiena</i>	<i>arbizu</i>	<i>lakuntza</i>	<i>arruazu</i>	<i>uharte</i>
<i>n(iy)ue</i>	<i>niyue</i>	<i>Nua</i>	<i>nue</i>	<i>noye</i>	<i>noye</i>
<i>gue/yue</i>	<i>gue, gua (Un)</i>	<i>Ua</i>	<i>gue</i>	<i>goye</i>	<i>goye</i>
<i>d(iy)ue</i>	<i>diyue, dua (Un)</i>	<i>Dua</i>	<i>due</i>	<i>doye</i>	<i>doye</i>
<i>g(iy)uez(e)</i>	<i>gu(e)ze</i>	<i>Guzte</i>	<i>gueze</i>	<i>goazte</i>	<i>gazte</i>
<i>z(iy)uez(e)</i>	<i>zuez</i>	<i>Zuez</i>	<i>zuez</i>	<i>zoaz</i>	<i>zazte</i>
<i>z(iy)uezie</i>	<i>zu(e)zie</i>	<i>Zuztie</i>	<i>zuezie</i>	<i>zoaztiye</i>	<i>zaztie</i>
<i>d(iy)ueze</i>	<i>du(e)ze</i>	<i>Duzte</i>	<i>dueze</i>	<i>doazte</i>	<i>dazte</i>

Iraganean:

<i>Etx, Erg</i>	<i>Arb</i>
<i>niyuen</i>	
<i>iyuen</i>	
<i>ziyuen</i>	
<i>giyuezen</i>	<i>giñuzten</i>

<i>ziyuezen</i>	<i>ziñuzten</i>
<i>ziyuezen</i>	<i>ziñuztien</i>
<i>ziyuezien</i>	<i>zuzten</i>

Ahaleran ‘egon’ aditzaren kasuan esan dugun bezala, gutxi dira erabiltzen diren formak, eta hauexek ditugu:

Bayueke zakurran ipurdie!

Nengati badueke nei denien!

Bazuezke lenbeilen!

<i>nueke</i>
<i>yueke</i>
<i>dueke</i>
<i>guezke</i>
<i>zuezke</i>
<i>zuekie</i>
<i>duezke</i>

Forma hauekin batera erabiltzen da ahalezkoa egiteko beste modu bat: *-t(z)en + ahal + aditz laguntzailea*

Faten al zaa lenbeilen!

Eitten al diau laster!

+ Agintera gauzatzekoan, bada normala den moduz gain, beste era bat esanahi berbera duelarik:

fanari / juan yei (joan hadi) = *ordek/n*¹³³

fan zettez = *ordezu*

¹³³ Seguru aski elipsi bat da forma honetan eta modu klitxatuan geratu zaigu dagoeneko aginterazko adierazpen hau:

Or dek (bidea)! (Hor duk bidea!)

V. HUIZIk horrela erabiltzen du: “..., *ordek diote lagunak ordek pantalonak ez baiya gonak jantzi bear auzke ik ...*” (M.G.B., 1899, 139)

fan zettezie = *ordezubie*

Fan aditza NN_i sailean ere erabiltzen da Etxarrin gutxienez, eta forma guztiak jaso ez baditugu ere, hemen daude jasotakoak:

Orain aldia

duekiyo/duzukiyo (doakio), *nuekiyo* (noakio), *nuekizu* (noakizu), *nuekizubie* (noakizue), *nuekiyobie* (noakie), *duekigu/duzekigu* (doa(z)kigu), *duekizu/duzekizu* (doa(z)kizu), *duekizubie/duzekizubie* (doa(z)kizue), *duekiyobie/duzekiyobie* (doa(z)kie).

Lehen aldia

niyuekiyon (nindoakion), *niyuekizun* (nindoakizun), *niyuekizubien* (nindoakizuen), *niyuekiyobien* (nindoakien), *ziyuekiyon/ziyuezkion* (zihoa(z)kion), *ziyuekiyobien/ziyuezkion* (zihoa(z)kien), *ziyuekizun/ziyuezkizun* (zihoa(z)kizun), *ziyuekizubien/ziyuezkizubien* (zihoa(z)kizuen).

3.8.3.5. YAMAN (ERAMAN) ADITZA.

<i>etxarri</i>	<i>ergoiena-arbizu</i>	<i>lakuntza-arruazu-uharte</i>
<i>daamat</i>	<i>daamit, daamat (Un)</i>	<i>deamat</i>
<i>daamak/n</i>	<i>daamik/n</i>	<i>deamak/n</i>
<i>daama</i>	<i>daami</i>	<i>deama</i>
<i>daamagu</i>	<i>daami(g)u (Liz)</i>	<i>deama(ki)u (Arr)</i>
<i>daamazu</i>	<i>daamizu</i>	<i>deamazu</i>
<i>daamazubie</i>	<i>daamiz(ub)ie (Arb), daamazie (Un)</i>	<i>deamazube</i>

	<i>daamazie (Un)</i>	
<i>daamabie</i> ¹³⁴	<i>daami(y)e (Do, Arb), zaamie (Un)</i>	<i>deamaye, deamie (Uh)</i>

Eta objektu plurala, kasu guztietan, *-zki-* pluralgilea tartekatuz burutzen da. Etxarrin, pluralgile honetaz gain *-tza-* ere erabil daiteke:

daamatzazu / daamazkizu

Lehen aldia ia galdutzat eman daiteke, baina hala ere, ondorengo formak jaso ditugu: *baziaman, bazamabien, niaman, yaaman, ziaman, gaaman, zaaman, zaamazubien, zaamabien*.

Olasagarrek (AEB, l.a.) dionez, ‘eraman’ eta ‘erabili’ aditzak nahasi egiten dira Arbizun, eta gaur egun ‘erabili’-k bere esparru semantikoa kendu dio ‘eraman’ aditzari:

Ba daabizu umia ikastolaa! (Badaramazu umea ikastolara!)

Aipatu autorearen arabera modu berean sortuko lirateke bi aditz hauen formak, bakoitzaren erroko kontsonanteak bereizten dituelarik, *-b-* (erabili) eta *-m-* (eraman):

daamit / daabit

daamizubie / dabizubie

Guk singularreko formak baino ez ditugu jaso: *naabiyen, yaabiyen, zaabiyen*.

Eta Etxarrin ere horrelako aditz formaren bat edo beste jaso dugu:

“Ik konpaatukuek etxien daabikena ta kanpokue!”

*“Daabizken oñetakuok ez ttuk batee onak!”*¹³⁵

¹³⁴ Zenbaitetan badirudi metatesia gertatzen dela, ‘*Ez die ez irrutie fanko, janik ee ez diamabe ta!*’ hartu diot Anbruxio Erdoziari. *Diamabe* = *daamabie*.

Beste herrietako hizkeretan ez da ‘erabili’ aditza era sintetikoan erabiltzen. Are gehiago, Etxarrin adibidez, *ibilli* aditza erabiltzen da ‘erabili’-ren esanahiarekin ere, nahiz eta era trinkoan ez izan:

Ibilduezu kotxe berriye? (Erabili duzu kotxe berria?)

Nok ibilduau nee txapela? (Nork erabili du nire txapela?)

3.8.3.6. *URAI / UITTU / IRUI*¹³⁶ / *IDU(G)I*¹³⁷ / *UDI(G)I*¹³⁸ (EDUKI) ADITZA.

Gehien bat objektua hirugarren pertsona denean erabiltzen da eta objektu hori plurala denean *-z-* pluralgilea tartekatzen zaio, Lakuntzan izan ezik, hemen *-zki-* baita pluralgilea.

Bestalde, */au/ > /a/* monoptongaketa gertatzen da Etxarri, Arbizu, Lizarraga eta Dorraon; */au/ > /e/* Lakuntzan; */au/ > /o/* Arruazun; eta */au/ > /ou/* diptongo itxiera Uharten.

Eta bokal asimilazioa ere gertatzen da Unanun, Arruazun eta Uharten.

<i>etxarri-arbizu</i>	<i>lizar.-dorrao</i>	<i>unanu</i>	<i>lakuntza</i>	<i>arruazu</i>	<i>uharte</i>
<i>da(z)kat</i>		<i>do(z)kuet</i>	<i>deka(zki)t</i>	<i>do(z)kit</i> ¹³⁹	<i>dou(z)ket</i>
<i>da(z)kak/n</i>		<i>dau(z)kek/n</i>	<i>deka(zki)k/n</i>	<i>do(z)kik/n</i>	<i>dou(z)kek/n</i>
<i>da(z)ka</i>		<i>dau(z)ke</i>	<i>deka(zki)</i>	<i>do(z)ki</i>	<i>dou(z)ke</i>
<i>da(z)kau</i>		<i>do(z)kia</i>	<i>deka(zki)u</i>	<i>do(z)kigu</i> ¹⁴⁰	<i>dou(z)keu</i>

¹³⁵ Etxarriko Isidora Izari jasoak biak.

¹³⁶ *Iru* forma Arbizukoa da.

¹³⁷ *idui* aldaera Unanukoa dugu eta *idugi*, berriz, Uhartekoa, halaxe agertzen delarik Uharteko dotrinan bertan: “*G. Eta noiz idugui bierdu dolorie au?*” (Bon.O.E., 623).

¹³⁸ Guk horrela jaso dugu Arruazun, baina NEM II-n (121. orrialdean) horrela agertzen da: “... *ta nik ordubeh hamasei urte ero irukiko nittun ...*”

¹³⁹ *doket* forma agertzen da NEM II-n: “*Bai nik e estudioik eztoket, ...*”

¹⁴⁰ *doki* forma agertzen da *Guaixe* I, 12: “*Neuba geñen doki eta elkarrekin ezpaga ...*”

SAKANA ERDIALDEKO EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

<i>da(z)kazu</i>	<i>dau(z)kezu</i>	<i>deka(zki)zu</i>	<i>do(z)kizu</i>	<i>dou(z)kezu</i>
<i>da(z)kazubie da(z)kazie</i>	<i>dau(z)kezie</i>	<i>deka(zki)zube</i>	<i>do(z)kizube</i>	<i>dou(z)kezube</i>
<i>da(z)kabe¹⁴¹, da(z)kue</i> <i>da(z)kiye</i>	<i>dau(z)kie</i>	<i>deka(zkiy)e</i>	<i>do(z)kiye</i>	<i>dou(z)kie</i>

Eta gainerako pertsonekin osatutako paradigma, pertsona bakoitzeko lehen lerroan Etxarri-Arbizu eta Lizarraga Dorrao, bigarren lerroan Unanu, hirugarrenean Lakuntza, laugarrenean Arruazu, eta bostgarrenean Uharteko aditz formak daudelarik:

	<i>nik</i>	<i>hik</i>	<i>hark</i>	<i>guk</i>	<i>zuk</i>	<i>zuek</i>	<i>haiek</i>
<i>ni</i>		<i>nakak/n</i> <i>naukek/n</i> <i>nekak/n</i> <i>nokik/n</i> <i>noukek/n</i>	<i>naka</i> <i>nauke</i> <i>neka</i> <i>noki</i> <i>nouke</i>		<i>nakazu</i> <i>naukezu</i> <i>nekazu</i> <i>nokizu</i> <i>noukezu</i>	<i>nakaz(ub)ie</i> <i>naukezie</i> <i>nekazube</i> <i>nokizube</i> <i>noukezube</i>	<i>nakabie, nakue</i> <i>naukie</i> <i>nekae</i> <i>nokiye</i> <i>noukie</i>
<i>hi</i>	<i>yakat</i> <i>yauket</i> <i>yekak</i> <i>yokit</i> <i>youket</i>		<i>yaka</i> <i>yauke</i> <i>yeka</i> <i>yoki</i> <i>youke</i>	<i>yakau</i> <i>yaukeu</i> <i>yekau</i> <i>yokigu</i> <i>youkeu</i>			<i>yakabie, yakue</i> <i>yaukie</i> <i>yekae</i> <i>yokiye</i> <i>youkie</i>
<i>gu</i>		<i>gazkak/n</i> <i>gauzkek/n</i> <i>gekazkik/n</i> <i>gozkik/n</i> <i>gouzkek/n</i>	<i>gazka</i> <i>gauzke</i> <i>gekazki</i> <i>gozki</i> <i>gouzke</i>		<i>gazkazu</i> <i>gauzkezu</i> <i>gekazkizu</i> <i>gozkizu</i> <i>gouzkezu</i>	<i>gazkaz(ub)ie</i> <i>gauzkezie</i> <i>gekazkizube</i> <i>gozkizube</i> <i>gouzkezube</i>	<i>gazkabie, gazkue</i> <i>gauzkie</i> <i>gekazkie</i> <i>gozkiye</i> <i>gouzkie</i>
<i>zu</i>	<i>zazkat</i> <i>zauzket</i> <i>zekazkit</i> <i>zozkit</i> <i>zouzket</i>		<i>zazka</i> <i>zauzke</i> <i>zekazki</i> <i>zozki</i> <i>zouzke</i>	<i>zazka(g)u</i> <i>zauzkeu</i> <i>zekazkiu</i> <i>zozkigu</i> <i>zouzkeu</i>			<i>zazkabie, zazkue</i> <i>zauzkie</i> <i>zekazkie</i> <i>zozkiye</i> <i>zouzkie</i>

¹⁴¹ *Daukie* ere bai Etxarri: *Primeran daukie jarriik etxie!* (Primeran daukate jarririk etxea!).

zuek	<i>zazkabet</i>		<i>zazkabe</i>	<i>zazkabiegu</i>		<i>zazkabe,</i> <i>zazkue</i>
	<i>zauzkeziet</i>		<i>zauzkezie</i>	<i>zauzkezieu</i>		<i>zauzkezie</i>
	<i>zekazkizubet</i>		<i>zekazkizube</i>	<i>zekazkizubeu</i>		<i>zekazkizubee</i>
	<i>zozkizubet</i>		<i>zozkizube</i>	<i>zozkizubegu</i>		<i>zozkizubee</i>
	<i>zouzkezubet</i>		<i>zouzkezube</i>	<i>zouzkezubeu</i>		<i>zouzkezubee</i>

Lehen aldiari dagokionez, orain aldiko marka mantendu egiten da Etxarri, Arbizu eta Ergoienan. Hauxe litzateke, beraz, Nor Hura edo Haiek direnean, gauzatutako paradigma:

<i>etxarri</i>	<i>arbizu</i>	<i>Lizar.-dorrao</i>	<i>Unanu</i>	<i>Lakuntza</i>	<i>Arruazu</i>	<i>Uharte</i>
<i>na(z)kan</i>			<i>no(z)kien</i>	<i>neka(zki)n</i>	<i>no(z)kin</i>	<i>nou(z)ken</i>
<i>ya(z)kan</i>			<i>yau(z)ken</i>	<i>yeka(zki)n</i>	<i>yo(z)kin</i>	<i>you(z)ken</i>
<i>za(z)kan</i>			<i>zo(z)kien</i>	<i>zeka(zki)n</i>	<i>zo(z)kin</i>	<i>zou(z)ken</i>
<i>giñu(z)ken</i>	<i>giña(z)kan</i>		<i>giñau(z)ken</i>	<i>giñeka(zki)n</i>	<i>giño(z)kin</i>	<i>giñou(z)ken</i>
<i>ziñu(z)ken</i>	<i>ziña(z)kan</i>		<i>ziñau(z)ken</i>	<i>ziñeka(zki)n</i>	<i>ziño(z)kin</i>	<i>ziñou(z)ken</i>
<i>ziñu(z)kien</i>	<i>ziña(z)kazubien</i>	<i>ziña(z)kizien</i>	<i>ziñau(z)kizien</i>	<i>ziñeka(zki)zuben</i>	<i>ziño(z)kizuben</i>	<i>ziñou(z)kezuben</i>
<i>za(z)kabien</i>	<i>za(z)kiyen</i>	<i>za(z)kuen</i>	<i>zau(z)kuen</i>	<i>zeka(zki)yen</i>	<i>zo(z)kiyen</i>	<i>zou(z)kien</i>

Gainerako pertsonak, orainaldiko formei bukaerako *-n* erantsiz gauzatzen dira:

Nakazubien (neukazuen)

Nakabien (neukaten)

Gouzkezun (geneukazun)

+ *Yon* aditzaren kasuan esan dugunaren antzera, laguntzaile moduan ere erabiltzen da aditz hau aditz nagusia *-(r)ik* atzizki modalez mugaturik doanean:

Ikusiik beizakan pelikulare!

Eiñik dazkau einbierrak!

Ezakan pasatuik alako negube!

Seme guziek ezkonduik dazka!

+ Baldintza: pentsa daitekeenez, lehen aldiko formei *ba-* aurrizkia erantsi eta iraganeko bukaerako marka kenduz gauzatzen dira.

Banaka (Etx, Arb, Liz, Do), banauke (Un), baneka (Lak), banoki (Arr), banouke (Uh)
Balaka (Etx, Arb, Liz, Do), balauke (Un), baleka (Lak), baloki (Arr), balouke (Uh)

3.8.3.7. JAKIN ADITZA.

Berriro ere Lakuntzan bakarrik aldatzen da pluralgilea, eta lehen bokalaren itxiera jasaten du aurrekoan bezala:

<i>Etx, Arb, Arr, Uh</i>	<i>Ergoiena</i>	<i>Lakuntza</i>
<i>da(z)kit</i>		<i>deki(zki)t</i>
<i>da(z)kik/n</i>		<i>deki(zki)k/n</i>
<i>da(z)ki</i>		<i>deki(zki)</i>
<i>da(z)kigu</i>		<i>deki(zki)u</i>
<i>da(z)kizu</i>		<i>deki(zki)zu</i>
<i>da(z)kizub(i)e</i>	<i>da(z)kizie</i>	<i>deki(zki)zube</i>
<i>da(z)kibie, da(z)kiye (Arb, Arr), da(z)kie (Uh)</i>	<i>da(z)kie, da(z)kiyue (Un)</i>	<i>deki(zki)e</i>

Zenbait esalditan, *jakin* aditzak ohikotasun zentzua edo adiera hartzen du:

Kontus guaño, bazikik meyetzien dee elurre eitten da! (Kontuz oraino, bazekik maiatzean ere elurra egiten eta!)

Eta lehen aldiari dagokionez, gogoratu singularreko formek *-a-* mantentzen dutela, Lakuntzako hizkeran ezik:

Sakana erdialdea	Lakuntza
<i>Na(z)kiyen</i>	<i>Neki(zki)yen</i>
<i>Ya(z)kiyen</i>	<i>Yeki(zki)yen</i>
<i>Za(z)kiyen</i>	<i>Zeki(zki)yen</i>
<i>Giñe(z)kiyen</i>	<i>Giñeki(zki)yen</i>
<i>Ziñe(z)kiyen</i>	<i>Ziñeki(zki)yen</i>

<i>Ziñe(z)kizub(i)en, ziñe(z)kizien (Erg)</i>	<i>Ziñeki(zki)zubien</i>
<i>Za(z)kibien, za(z)kien (Erg)</i>	<i>Zeki(zki)bien</i>

3.8.3.8. EKARRI ADITZA.

Arruazu eta Uhartan baino ez da erabiltzen era sintetikoan:

<i>Arruazu</i>	<i>Uhartan</i>
<i>dea(z)kat</i>	<i>deakarra(zki)t</i>
<i>dea(z)kak/n</i>	<i>deakarra(zki)k/n</i>
<i>dea(z)ka</i>	<i>deakarra(zki)</i>
<i>dea(z)kau</i>	<i>deakarra(zki)u</i>
<i>dea(z)kazu</i>	<i>deakarra(zki)zu</i>
<i>dea(z)kazube</i>	<i>deakarra(zki)zube</i>
<i>dea(z)kaye</i>	<i>deakarr(azk)ie</i>

3.8.3.9. IRUITTU (IRUDITU) ADITZA.

Gero eta gutxiago erabiltzen da, eta bere ordez *eman* aditza erabiltzen da:

Badirui yozin gauze! Yozin gauze ematen dau!

<i>orain</i>	<i>lehen</i>
<i>diruit</i>	<i>niruiyen</i>
<i>diruik/n</i>	<i>iruiyen</i>
<i>dirui</i>	<i>ziruiyen</i>
<i>diruigu</i>	<i>giñiruiyen</i>
<i>diruizu</i>	<i>ziñiruiyen</i>
<i>diruizubie</i>	<i>ziñiruibien</i>
<i>diruibie</i>	<i>ziruibien</i>

3.8.4. ADITZ ALOKUTIBOAK.

Nor, Nori eta Nork sintagmei dagozkien pertsona markez gainera, aditz multzoan beste pertsona marka bat gehiago ager daiteke, pertsona marka hau ez dagokiolarik perpausoko beste inolako sintagmari, hiztunak aurrean duen hizketa lagunari baizik. Horrela beraz, pertsona marka haxe daramaten aditz formei esaten diegu, hain zuzen, adizki alokutiboak.

Eta pertsona marka horri esker, hiztunak aurrean daukana emakumezkoa ala gizonezkoa den erakustez gain, hizketa errejistro desberdin batekin egiten dugu topo, lagunarteko errejistroa deitzen duguna, lagunartekoan eta familia giroan erabiltzen delako. Desberdina suertatzen da, beraz, *'i izendu yeiz'* edo *'zu izendu zaa'* bezalako esaldia erabiltzea, besterik ez bada ere, lehenak nahitaez hikako forma alokutiboak erabiltzera behartzen gaituelako, ezinezkoa delarik batetik bestera pasatzea mintzaldi berberean:

**I izendu yeiz, gios berai eztakiyo ezee ein ber!* Esaldia gaizki legoke, beraz.

I izendu yeiz, gios berai ezikiyok ezee ein ber! Errejistro berdina mantenduz.

Bere erabilerari dagokionez, badirudi mugak dituela, hori bai, desberdinak autoreen arabera. Bonapartek¹⁴², esate baterako, ezin zela menpeko esaldietan erabili esaten zuen. Natxo Urkijok¹⁴³ oraindik gehiago zehazten du alokutiboaren erabilera, baldintza, subjuntibo eta agintaldian, ez direla alokutiboaren formak erabiltzen esanez. Eta gaineratzen du adizki alokutiboak, bakar bakarrik, perpausetako aditz nagusietan erabil daitezkeela, menpeko perpausetan, hitanozko tratamenduan ere, aldatu gabe suertatzen zaizkigula adizkiak gehituz. Eta laburpen moduan honako honekin bukatzen du: “Bestela esanda, edozein aurrizkiz zein atzizkiz doazen adizkiak era zehaztugabeen erabiltzen dira”

EGLU ez da hain kategorikoa eta muga edo debeku hauei buruz, ondorengoa esaten digu:

“Baina badira, izan, testuinguru sintaktikoak ezartzen dizkigun debekuak ere. Adibidez, badirudi erabilera jatorrenari jarraituz behintzat, perpaus txertatueta ez dela forma alokutiborik agertzen ahal. (...) Arrazoin beragatik, subjuntibo deitu formetan, subjuntiboak subordinazioan bakarrik erabiltzen direnez, ez zaigu alokutiborik agertuko. (...) Beste zenbait perpaus motatan ere ez dirudi alokutiboa agertzea zilegi denik. Joera nagusi bezala behintzat ez. Hori da galderazko perpausetan gertatzen dena, eta, baita harridurazkoetan eta hirugarren pertsonako agintekeran (...) Iduri luke, forma alokutiboa zuzenean baieztatua edo enuntziatua denerako gordetzen dela. Baieztapen soila izatetik urruntzen garenean alokutiboaren erabilerak debekuak aurkitzen dituela dirudi.” (EGLU II, 389)

¹⁴² BONAPARTE, L.L. (1864)

¹⁴³ URKIJO, Natxo (Euskal aditz laguntzailea: alokutiboa, Cryn creations)

Eta EUSKALTZAINDIAK (1995) argitaratutako arauen artean, hamalagarrenean, adizki alokutiboak tratatzen ditu, hasiera-hasieran ohar pare bat emanez. Eta horietako bigarrenak horrela dio:

“Euskaltzaindiaren lana adizkeren formaren finkatzea izan da eta ez da sartu erabilera arazoetan. Jakina denez, korapilo asko ditu erabilerak, bai morfosintaxiaren aldetik, bai eta, are gehiago, gizarteko baliagarritasunaren aldetik ere.”

Etxarriko berriemaleek esan digutenez, *noketan* lagun artean eta gazteagoko jendearekin baino ezin daiteke erabili. Inoiz ez zaharragokoarekin, ez eta senar-emazteen artean ere. Nobiotan bai, noketan aritzen omen ziren, baina behin ezkonduz gero, *zuketan*. Haurrekin ere, koxkortu arte zuketan egiten omen zitzairen, ezagun berriei bezala. Eta azkenik, esaten digute, garai batean, apaiza, mediku, maixtru eta halakoei *beorretan* hitzegiten zitzaizela.

Guk Sakana erdialdeko hizkeretan erabiltzen diren formak jaso ditugu eta erabilerari erreparatuz, esan daiteke ez dela erabiltzen menpeko esaldietan (baldintzazkoetan bai zenbait kasutan), baina bai, ordea, galderazko eta harridurazko esaldietan:

Tia, ik ikuskuek begi betekin nik biikin ikusten ez tetena! (‘Tira, hik ikusiko duk begi batekin nik birekin ikusten ez dudana!’), Etxarriko Miguel Ulaiar Arinek bere anaia Aszensio begibakarrari esandakoa, Pedro Aiestaran-i jasoa Bekolako grabazioan) Ikusten denez, erlatibozko esaldiaren aditza errejistro neutroan dago, *ez det + -ena*; bere kide alokutiboa, *ez yet + -ena*, **yetena* litzateke.

Eztikik zenbat zakiyen arrek! Arrek zikiyan, arrek! (Pedro Aiestarani jaso aurrekoan aipatu grabazioan). Esaldi honetan ederki ikus daiteke adizki berbera bi errejistrotan: lehenean, zehar galderaren parte denez, errejistro neutroan (*zakiyen* < zekien), eta aditz nagusia forma alokutiboa (*eztikik* < ez zekik); bigarrenean, harridurazkoan, baina bakuna esaldia, forma alokutiboa (*zikiyan* < zekian).

Lehen esan bezala, galderetan ere erabiltzen da Etxarrin:

Nola zizkiyok orri?

Zein etor dek azkena?

Nok ein dik ori?

Fan ttuk?

Eta menpekoen artean hauek izan dira jaso ditugun adibideak:

Esan ziobet ama eztala etorri. (ez *eztekela)
Alkatie emen dala aittu ñet! (ez *dekela)
Esan zieguk aneyek ein deela. (ez *dikela)
Aitte etor zanien ez giñunaan ezee sentittu! (ez *yaubenien)
Etor gaan orduben ezioban iyore! (ez *gettuken)
Etxia etor baa itz einko ñau! (ez *badek)
Lana ein bagiñu eziyan ezee esanko! (ez *bagiñubaa)
Egunartan ekar neena ez zikiyobabien gustetu! (ez *niyana)
Nik esan neelako ein ziyabien! (ez *niyalako)
Galdetuik iye etor gaan! (ez *gettuken)
Ikustia fan ttuk iye ein diaun! (ez *ñaun)
Etor banitz ez yauben ori gertatuko! (ez *banittubaa/naun)
Fan balie ez ziyabien gauz onik einko! (ez *baittuben)

Bestalde, aditz formak hartzen baditugu kontuan, ondorengo ezaugarriak dituztela ikusiko dugu:

- *k/n* dira erabiltzen diren markak, baina morfemaren bat eransten zaienean atzetik (iraganekoa gehien bat), *a/na* bihurtzen dira, eta Etxarriko kasuan /y/ sabaiko igurzkaria eta /b/ ezpainetako herskari ahostuna tartekatzen direlarik, lehen morfemari dagokionez, aurreko bokalaren arabera:

$k > a > ba / e, o, u _ C$

esan doo (esan dio) > *esan zio* (alokutibo oraina) > *esan **zioban*** (lehena)
esan duuk (esan dik, hitano oraina) > *esan **zuban***¹⁴⁴ (lehena)
etor nettekek (etor naitekek, alokutibo oraina) > *etor **nettekeban*** (lehena)

$k > a > ya / i _ C$

esan dau (esan du) > *esan dik* (alokutibo oraina) > *esan **ziyan***¹⁴⁵ (iragana)

¹⁴⁴ Ikusten denez ez da asimilaziorik gertatzen, nahiz eta ia erabat automatikoa izan Etxarriko hizkeran asimilazio aurrerakaria, ezaugarri fonetiko-fonologikoetan ikusi dugun moduan.

¹⁴⁵ Aurrekoaren berdin.

- Aipagarria da, era berean, nola Etxarriko hizkeran ez den asimilazio aurrerakaria gertatzen hitano edo alokutiboaren morfemetako bokaletan, eta beste herrietan bai:

Fan nittuban/nan, esan zian/ñan, ... (Etxarri)

Fan nittuben/nen, esan ziyen/ñen ... (Arruazu-Uharte)

Fan niyuen/ñuen, ziyen/ñen ... (Arbizu)

Fan nittuen/nen, baina zian/ñan (Unanu)

- Hirugarren pertsonako hasierako *d-* morfema edo ezaugarria *z-* bihurtzen da azterketa esparru ia osoan (Ergoienako Lizarraga eta Dorraon *d-* morfema mantentzen da, eta Unanun¹⁴⁶ ere bai ‘egon’ eta ‘eduki’ aditzen alokutiboetan), isoglosa nabarmena sortzen delarik aldameneko Burunda ibarreko /j/ belare ahoskabearekin konparatzen badugu:

Burunda	Sakana erdialdea	Lizarraga-Dorrao	
<i>juak</i>	<i>ziek</i>	<i>dik</i>	(zidak)
<i>jeau</i>	<i>ziobau</i>	<i>diogu</i>	(zioagu)
<i>j(e)ak</i>	<i>ziok</i>	<i>dioik</i>	(ziok)
<i>jok (egon)</i>	<i>ziok</i>	<i>diok</i>	(zagok)

3.8.4.1. LAGUNTZAILE ALOKUTIBOAK NOR ERAN.

a) Indikatiboera.

	<i>Etxarri</i>	<i>Liz. Do.</i> <i>Un. Arr</i>	<i>Arb. Lak. Uh.</i>
Nauk/naun	<i>n(i)ok/n</i>	<i>nok/n</i>	<i>nauk/n</i>
Duk/dun	<i>dek/n</i>	<i>dok/n</i>	<i>duk/n</i>
Gaituk/gaitun	<i>geittuk/n</i>	<i>gittuk/n</i> <i>geittuk/n</i>	<i>geittuk/n</i>
Dituk/ditun	<i>ttuk/n</i>	<i>ttuk/n</i>	<i>ttuk/n</i>

Ikusten denez, nahiko era homogeneoan burutzen da herri guztietan, pluraleko formak ia berberak direlarik.

¹⁴⁶ Unanuko transkribaketan, behin eta berriro ageri zaigu: “*Gue estarbiyen an diok, or onkook oiño!*”, “*An diok gue etxien, nionek einda lizerraakin, beya goneskio pipiyek janik ionen dok.*”, “*Guk e, etxia bertan dokiau, e?*”.

<i>zikiyoban/nan</i>	<i>zakiyoyen/ñonen</i>	<i>zakien/yonen</i>	<i>zakiyuen/ñen</i>	<i>zakioben/nen</i>	<i>zakioben/nen</i>
<i>zikiéguban/nan</i>	<i>giñakien/ñen</i>	<i>zakien/gunen</i>	<i>zakiubien/nen</i>	<i>zakiuben/nen</i>	<i>zakiuben/nen</i>
<i>zikiyobabien/nabien</i>	<i>zakiyuenen</i> <i>zakiyoyen/ñen</i>	<i>zakiyonen</i>	<i>zakiyuen/yonen</i>	<i>zakioben/nen</i>	<i>zakioben/nen</i>

+ Eta gainerako Nor pertsonekin ondorengoak ditugu aditz forma alokutiboak, beti ere aurreko paradigma komentatzerakoan pluralgileari buruz esan ditugunak kontuan hartuz. Hala ere, askoz ere forma berdinagoak ditugu esparru osoan, jarraian ikusiko dugun moduan:

	<i>Etxarri</i>	<i>Arbizu - Ergoiena</i>	<i>Lak.-Arr.-Uh.</i>
Natzaioak/natzaion	<i>nikiyok/n</i>	<i>nakiyok/n</i>	<i>nakiok/n</i>
Natzaiek/natzaian	<i>nikiyobiek/n</i>	<i>nakiyuek/n</i>	<i>nakiobe/ne</i>
Gatzaizkiok/gatzaizkion	<i>gizkiyok/n</i>	<i>gazkiyok/n</i>	<i>ga(ki)zkiok/n</i>
Gatzaizkiek/gatzaizkien	<i>gizkiyobiek/n</i>	<i>gazkiyuek/n</i>	<i>ga(ki)zkiobe/ne</i>
	<i>iragana</i>		
Nintzaioan/nintzaionan	<i>nikiyoban/nan</i>	<i>nakiyoen/nen</i>	<i>nakioben/nen</i>
Nintzaiean/nintzaianan	<i>nikiyobabien/nabien</i>	<i>nakiyuen/nen</i>	<i>naki(o)eben/nen</i>
Gintzaizkioan/gintzaizkionan	<i>gizkiyoban/nan</i>	<i>gazkiyoen/nen</i>	<i>ga(ki)zkioben/nen</i>
Gintzaizkiean/gintzaizkienan	<i>gizkiyobabien/nabien</i>	<i>gazkiyuen/nen</i>	<i>ga(ki)zki(o)eben/nen</i>

3.8.4.3. LAGUNTZAILE ALOKUTIBOAK NN_K ERAN.

a) Indikatiboera.

+ Nor hirugarren pertsona singularra denean, burutzapen berdintsuak gertatzen dira azterketa esparru osoan. Itxuraz Etxarrikoa desberdintzen bada ere, sakonean forma bera dugu hauxe ere, paradigma ikusi ondoren aztertuko dugularik:

	<i>Etxarri</i>	<i>Liz. Do. Un.</i>	<i>Arb.</i>	<i>Lak.</i>	<i>Arr. Uh.</i>
Diat/dinat	<i>yet / ñet</i>	<i>diet/ñet</i>			
Dik/din	<i>dik / n</i>				
Diagu/dinagu	<i>yau / ñau</i>	<i>diau/ñau, diou/ñou(Do)</i>			
Diate/dinate	<i>ye / ñe</i>	<i>die/ñe</i>	<i>diye</i>		<i>diye</i>

Diat > diet > diyet > yet

Ondorengo bilakabidea izan duelarik:

- asimilazio aurrerakaria: *diat* > *diet*.
- *i + V* > *i/y/V*, kontsonante epentetikoa: *diet* > *diyēt*.
- lehen silabaren aferesia: *diyēt* > *yet*. NN_k saileko laguntzaile neutroarekin gertatzen den moduan: *ditut* > *dittut* > *ttut*.

Dinat > *dinet* > *diñet* > *ñet*.

Dia(t)e > *diee* > *diye* > *ye*.

Dina(t)e > *dinee* > *diñe* > *ñe*.

Diagu > *diyagu* > *diyau* > *yau*. Asimilaziorik gabe, /au/ diptongoa sortzean.

Dinagu > *diñagu* > *diñau* > *ñau*.

Eta benetan aipagarria iruditzen zaigu Nor pluralarekin gertatzen dena, hots, aferesia Etxarri ez beste herri guztietako hizkeretan suertatuko baita, aurrekoan gertatzen zenaren aurkakoa. Bestalde, *-it-* da pluralgilea kasu guztietan:

	<i>Etxarri</i>	<i>Ergoiena</i>	<i>Arbizu</i>	<i>Lakuntza</i>	<i>Arruazu Uharte</i>
Ditiat/ditinat	<i>zittubet/net</i>	<i>ttiet/ñet</i>			
Ditik/ditin	<i>zittuk/n</i>	<i>ttik/n</i>			
Ditiagu/ditinagu	<i>zittubau/nau</i>	<i>ttiau/ñau, ttiou/ñou (Do),</i>	<i>ttau (Arb)</i>		
Ditiate/ditinate	<i>zittube/ne</i>	<i>ttie/ñe, ttiye (Arb, Arr, Uh)</i>			

Hauxek izango lirateke aferesi horien bilakabideak:

Ditiat > *dittiat* > *ttiat* > *ttiet*

Ditinat > *dittiñat* > *ttiñat* > *ttiñet*

Ditik > *dittik* > *ttik*

Ditin > *dittin* > *ttin*

Ditiagu > *dittiagu* > *ttiagu* > *ttiau* > *ttau*

Ditie > *dittie* > *ttie* > *ttiye*

+ Eta lehen aldiari dagokionez, gogoratu soilik oraingoan Etxarri eta Unanun ez dela asimilaziorik gertatzen. Bestela oso burutzapen homogeneousak ditugu Nor singularra denean. Nor plurala denean, Etxarrin bi forma erabiltzen dira pertsona bakoitzarekin: bata, beste herrietan bezala *-it-* pluralgilea hartzen duelarik; eta bestea, *-zki-* hartuz.

	<i>Etxarri</i>	<i>Unanu</i>	<i>Liz, Do, Lak</i>	<i>Arb, Arr, Uh</i>
Nian/ninan	<i>niyan/ñan</i>	<i>nian/ñan</i>	<i>nien/ñen</i>	<i>niyen/ñen</i>

SAKANA ERDIALDEKO EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

Zian/zinan	<i>ziyan/ñan</i>	<i>zian/ñan</i>	<i>zien/ñen</i>	<i>ziyen/ñen</i>
Genian/geninan	<i>giñuban/nan</i>	<i>giñuen</i>	<i>giñ(i)en/ñenen</i>	<i>giñiyen/nen</i>
Ziaten/zinaten	<i>ziyabien/nabien</i>	<i>zian/ñan</i>	<i>zien/ñen, ziñenen (Lak)</i>	<i>zieben/nen, ziyeen/ñenen (Arb)</i>

Eta, lehentxoago esan dugun bezala, Etxarriko hizkeran bi forma erabiltzen dira Nor pertsona plurala denean:

Nitian/nitinan	<i>nizkiyan/ñan</i>	<i>nittuban/nan</i>
Zitian/zitinan	<i>zizkiyan/ñan</i>	<i>zittuban/nan</i>
Genitian/genitinan	<i>giñuzkiyan/ñan</i>	<i>giñittuban/nan</i>
Zitiaten/zitinatzen	<i>zizkiyabien/nabien</i>	<i>zittubabien/nabien</i>

Eta gainerako herrietako hizkeretan:

<i>Lizarraga</i>	<i>Dorreo</i>	<i>Unanu</i>	<i>Arbizu</i>	<i>Lakuntza</i>	<i>Arr.-Uh.</i>
<i>nittien/ñenen</i>	<i>nitten/iñen</i>	<i>nittian/ñan</i>	<i>nittiyen/ñen</i>	<i>nittien/ñen</i>	<i>zittiobet/net</i>
<i>zittien/ñenen</i>	<i>zitten/iñen</i>	<i>zittian/ñan</i>	<i>zittiyen/ñen</i>	<i>zittien/ñen</i>	<i>zittiok/n</i>
<i>giñezkien/ñenen</i>	<i>giñezkien/ñen</i>	<i>giñezkian/ñan</i>	<i>giñittiyen/ñen</i>	<i>giñizkien/ñen</i>	<i>zittau/onau</i>
<i>zittien/ñenen</i>	<i>zitten/iñen</i>	<i>zittian/ñan</i>	<i>zittiyen/ñen</i>	<i>zittien/ñen</i>	<i>zittiobe/ne</i>

b) Ahalera.

Orain eta lehen aldiko formak jarraian jarriko ditugu, eta aipatu -z- pluralgilea hartzen duela Nor Haiek denean:

	<i>Etxarri</i>	<i>Un, Liz</i>
zezakeat/zezakenat	<i>zezakebat/nat</i>	<i>zakiet / ñet</i>
Zezakek/zezaken	<i>zezakek/n</i>	<i>zakek/n</i>
Zezakeagu/zezakenagu	<i>zezakebau/nau</i>	<i>zekiauk/n</i>
Zezakeate/zezakenate	<i>zezakebiek/n</i>	<i>zekiek/n</i>
	<i>iragana</i>	
Nezakean/nezakenan	<i>nezakeban/nan</i>	<i>nikian/ñan</i>

Zezakean/zezakenan	<i>zezakeban/nan</i>	<i>zikian/ñan</i>
Genezakean/genezakenan	<i>genezakeban/nan</i>	<i>giñikian/ñan</i>
Zezaketean/zezaketenan	<i>zezakebaben/nabien</i>	<i>zikiyen/ñen</i>

3.8.4.4. ALOKUTIBOAK NNN SAILEAN.

a) Orain aldia:

Aditz forma laguntzaile neutroaren kasuan bezalaxe landuko ditugu alokutiboaren formak paradigmetan:

+ (Nor)k-Hari-Hura/Haiek paradigma: *zioat/zionat, ziok/zion, ...*

<i>Etxarri</i>	<i>Lizarraga</i>	<i>Dorrao</i>	<i>Unanu</i>	<i>Arbizu</i>	<i>Lakuntza</i>	<i>Arr.-Uh.</i>
<i>Ziobet/net</i> ¹⁴⁷	<i>Diot/ñot</i> ¹⁴⁸	<i>Doyet/ñet</i>	<i>Ziot/net</i>	<i>Ziyuet/zonat</i>	<i>Ziyuet/zionet</i>	<i>Ziot/net</i>
<i>Ziok/n</i>	<i>Dioik/n</i>	<i>Dioik/n</i>	<i>Ziok/n</i>	<i>Ziok/n</i>	<i>Ziok/n</i>	<i>Ziok/n</i>
<i>Ziobau/nau</i>	<i>Diogu/ñogu</i>	<i>Diogu/doiñou</i>	<i>Zioguk/n</i>	<i>Zioau/nau</i>	<i>Ziyouau/ñoau</i>	<i>Ziau/ñau</i>
<i>Ziobe/ne</i>	<i>Diore/ñore</i>	<i>Dooyie/dooiñe</i>	<i>Ziorie/zione</i>	<i>Ziyue/zione</i>	<i>Ziobe/ne</i>	<i>Ziobe/ne</i>
<i>Nor haiek</i>						
<i>Zizkiyobet/net</i> ¹⁴⁹	<i>Dozkioit/ñot</i>	<i>Dozkoyet/ñet</i>	<i>Zozkiot/net</i>	<i>Zittiyuet/tonat</i>	<i>Zittiyuet/ionet</i>	<i>Zittiot/ionet</i>
<i>Zizkiyok/n</i>	<i>Dozkieik/n</i>	<i>Dozkiok/n</i>	<i>Zozkiok/ñan</i>	<i>Zittok/n</i>	<i>Zittioik/n</i>	<i>Zittioik/n</i>
<i>Zizkiyobau/nau</i>	<i>Dozkiogu/ñogu</i>	<i>Dozkiogu/koiñou</i>	<i>Zozkiogu/ñau</i>	<i>Zittiyuau/ñuau</i>	<i>Zittiyuau/ñuau</i>	<i>Zittiau/onau</i>
<i>Zizkiyobe/ne</i>	<i>Dozkioire/ñore</i>	<i>Dozkooiye/ñe</i>	<i>Zozkorie/ne</i>	<i>Zittiyue/ttone</i>	<i>Zittioube/ione</i>	<i>Zittiobe/ne</i>

Ikusten denez, Nor plurala denean *-zki-* pluralgilea hartzeaz gain, /y/ kontsonante epentetikoa ere tartekatzen da Etxarrin eta pluralgile berbera hartzen dute Ergoienako (berriro ere *d-* morfema daramatelarik hasieran Lizarraga eta Dorraon) formek, ez ordea Arbizutik ekialderako hizkerek, zeinetan *-it-* baita pluralgilea aditz laguntzaile neutroaren kasuan bezala.

¹⁴⁷ *ziobat/nat* formak ere erabiltzen da Etxarrin Nik-Hari-Hura flexioan.

¹⁴⁸ NEM I-ek horrela jasotzen du aldiz:
 “Egin don hori. Hori askotan esan diñoat”

¹⁴⁹ *zizkiyobat/nat* formak ere bai.

Bestalde, Nori kasuko pertsona plurala denean, Haiei, ia erabateko sinkretismoa (erabatekoa Lizarraga, Dorrao, Arbizu eta Lakuntzan) gertatzen da ikusi berri ditugun formekin azterketa esparruko hizkera guztietan. Hala ere, badira zenbait forma desberdin, hala nola:

Eman ziolet / zioabiet (Etxarrin, nik-hari-hura / nik-haiei-hura)

Eman ziot / zioriet (Unanun, forma berdinak)

Eman ziot / ziolet (Arruazu eta Uharten, forma berdinak)

+ Gainerako formen paradigma hauxe izango litzateke:

	<i>Etxarri</i>	<i>Liz.-Do.</i>	<i>Un</i>	<i>Arb.-Lak.</i>	<i>Arr.-Uh.</i>
Zidak/zidan	<i>ziek/n</i>	<i>dik/n</i>	<i>ziik/n</i>	<i>ziek/n</i>	
Ziguk/zigun	<i>zieguk/n</i>	<i>die/ñe, diik/n (Do)</i>	<i>ziguk/n</i>	<i>ziuk/n</i>	
Zidatek/zidaten	<i>ziebe/ne</i>	<i>die/ñe</i>	<i>zirie/ñe</i>	<i>ziee, zieye/ñe (La)</i>	<i>ziebe/ne</i>
Zigutak/ziguten	<i>ziegube/ne</i>	<i>die/ñe</i>	<i>zigue/ne</i>	<i>ziene, ziube/ne(La)</i>	<i>ziube/ne</i>

Zer-Haiek aditz formei dagokienez esan dezagun, Etxarri eta Unanun soilik tartekatzen dela *-zki-* pluralgilea, eta *-it-* beste guztietan, Lizarraga eta Dorraoan, gainera, lehen silabaren aferesia gertatzen delarik: *ttik/n, ttie/ñe*.

b) Iragana:

+ (Nor)k-Hari/Haiei-Hura/Haiek: *nioan/nionan, zioan/zionan, ...*

Sinkretismoa da nagusi datiboaren singularra eta pluralarekin, hots, Hari edo Haiei pertsonekin, aditz forma berdinak erabiltzen dira Etxarri eta Unanuko oso kasu zehatz batzuetan izan ezik:

nik-hari-hura *nioban* (Etx) *nion* (Un)

nik-haiei-hura *niobabien* (Etx) *niorien* (Un)

guk-hari/haiei-hura *genoban/genobabien* (Etx)

hark-hari/haiei-hura: *zion/ziorien* (Un)

<i>Etxarri</i>	<i>Lizarraga</i>	<i>Dorrao</i>	<i>Unanu</i>	<i>Arr-Lak-Uh</i>	<i>Arbizu</i>
<i>nioban/nan</i>	<i>nion/nen</i>	<i>noiyen/ñen</i>	<i>nion/nen</i>	<i>nioben/nen</i>	<i>niyuen/ionen</i>
<i>zioban/nan</i>	<i>zion/nen</i>	<i>zoyen/ñen</i>	<i>zion/nen</i>	<i>zioben/nen</i>	<i>ziyuen/ionen</i>

<i>genoban/nan</i>	<i>giñooren/nen</i>	<i>giñoiyen/ñen</i>	<i>giñorien/nen</i>	<i>giñoben/nen</i>	<i>giñiyuen/onen</i>
<i>ziobabien/nabien</i>	<i>zioren/ñoren</i>	<i>zoiyen/ñen</i>	<i>ziorien/nen</i>	<i>zioben/nen</i>	<i>ziyuen/onen</i>

Objektu singularra eta plurala bereizteko *-zki-* eta *-it-* pluralgileak erabiltzen dira, lehen Etxarri eta Ergoienan, eta bigarrena Arbizutik ekialdera: *nizkiyoban/nan*(Etx), *nozkieen/nen*(Liz, Un), *nozkoiyen/ñen* (Do), *nittioben/nen* (Lak, Arr, Uh), *nittiyuen/ttonen* (Arb), ...

+ Gainerako pertsonekin, ondorengoak dira erabiltzen diren aditz formak: *zidaan/zidanan*, *ziguan/zigunan*, ...

<i>Etxarri</i>	<i>Liz, Do</i>	<i>Unanu</i>	<i>Arbizu</i>	<i>Lakuntza</i>	<i>Arr, Uh</i>
<i>zieban/nan</i>	<i>zien/ñe(ne)n</i>	<i>zien/ñen</i>	<i>zieen/nen</i>	<i>zieyen/ñenen</i>	<i>zieben/nen</i>
<i>zieguban/nan</i>	“	“	<i>ziubien/nen</i>	<i>ziuben/nen</i>	<i>ziuben/nen</i>
<i>genoban/nan</i>	“	“	<i>zieen/nen</i>	<i>zieyen/ñenen</i>	<i>zieben/nen</i>
<i>ziobabien/nabien</i>	“	“	<i>ziubien/nen</i>	<i>ziuben/nen</i>	<i>ziuben/nen</i>

Eta objektu pluralarekin, aurreko kasuan bezala, baina Lizarraga eta Dorraoko hizkeretan *-it-* pluralgilea erabiltzen dutelarik: *zizkieban/nan* (Etx), *zizkian/ñan* (Un), *zittien/ñenen* (Liz), *zitten/iñen* (Do), *zittieen/nen* (Arb), *zittieyen/ñen* (lak), *zittieben/nen* (Arr, Uh), ...

3.8.4.5. ADITZ TRINKOEN ALOKUTIBOAK.

a) Nor erakoak:

- *FAN* (JOAN) ADITZA.

+ Nor saila:

Nihoak/nihoan	<i>niyuek/n</i>
Zihoak/zihoan	<i>ziyuek/n</i>
Gindoazek/gindoazen	<i>giyuezek/n, guztek/n</i>
Zihoazek/zihoazen	<i>ziyueziek/n, zuztek/n</i>

Lehen aldiari dagokionez, bukaerako iraganeko *-n* morfemak eraginda, *k/n* morfemak *ba/na* bihurtzen dira: *niyueban/nan*, *ziyueban/nan*, ...

+ NN_i saila: aditz forma neutroen lehen alditik eratorriak ditugu. Horrela, datiboa hirugarren pertsona singularra denean:

Nihoakiok/nihoakion	niyuekiyok/n
Zihoakiok/zihoakion	ziyuekiyok/n
Gindoazkiok/gindoazkion	giyuezkikyok/n
Zihoazkiok/zihoazkion	ziyuezkikyok/n

Eta hirugarren pertsona plurala, hots, Haiei, *-bie*-morfema tartekatuz gauzatzen da: *niyuekiyobiek/n*, *ziyuekiyobiek/n*, *giyuezkikyobiek/n*, *ziyuezkikyobiek/n*.

Eta iragana, berriro ere, *k/n* morfemak ba/na bihurtuz: *niyuekiyoban/nan*, *ziyuekiyoban/nan*, ...

Datiboa hirugarren pertsonak ez direnetan: *ziyuekitek/n* (Hura-Niri), *ziyuekiguk/n* (Hura-Guri), *ziyuezkitek/n* (Haiek-Niri), *ziyuezkiguk/n* (Haiek-Guri). Eta hauen iragana: *ziyuekiteban/nan*, *ziyuezkiguban/nan*, ...

- *IBILLI* ADITZA.

nabilek/nabilen	naillek/n
zabilek/zabilen	zaillek/n
gabiltzak/gabiltzan	gailtzek/n
zabiltzak/zabiltzan	zailtz(i)ek/n

Etxarriko hizkeran, paradigmaman aipatu formekin batera, ondorengoak ere entzun daitezke: *niillek/n*, *ziillek/n*, *giiltzek/n*, *ziiltziek/n*. Eta honek, gure ustean, ondorengo bilakabidea burutzen ari dela adierazten du:

$$V_1V_2 > V_2V_2$$

Gailtzek > giiltzek

Eta lehen aldiko formak, espero zitekeen moduan: *nailleban/nan*, *gailtzeban/nan*, ...

- *YON / OON* (EGON) ADITZA.

	<i>Etxarri</i>	<i>Unanu</i>	<i>Arbizu</i>
nagok/nagon	niok/n		
zagok/zagon	ziok/n		
gaudek/gauden	gaudek/n	gioik/n	go(u)rek/n
zaudek/zauden	ziek/n	zioik/n	zo(u)rek/n

Eta iraganeko formak: *nioban/nan*, *gaudeban/nan*, ...

b) NORK ERAKOAK.

- *URAI / IRUI / UIITU / IDUI / UDII* (EDUKI) ADITZA.

Nor hirugarren pertsonekin:

	<i>Etxarri</i>	<i>Unanu</i>	<i>Arbizu</i>
zeukaat/zeukanat	<i>zikobat/nat</i> ¹⁵⁰	<i>zokiet/ñet</i>	<i>zaka(na)t</i>
zeukak/zeukan	<i>zikok/n</i>	<i>zokik/n</i>	<i>zakak/n</i>
zeukaguk/zeukagun	<i>zikobau/nau</i>	<i>zokiau/ñau</i>	<i>zaka(na)u</i>
zeukatek/zeukaten	<i>zikobiek/n</i>	<i>zokie/ñe</i>	<i>zakiye/zakane</i>

Eta objektoa plurala denean, -z- pluralgilea tartekatzen da: *zizkobat/nat*, *zizkobau/nau*,

...

Lehen aldiko formak, berriz, hauexek izango genituzke: *ni(z)koban/nan*, *zi(z)koban/nan*, *giñu(z)keban/nan*, *zi(z)kobabien*.

Eta gainerako pertsonekin, sinkretismoa da nagusi:

Hark-hura	<i>zikok/n</i>	haiek-hura	<i>zikobiek/n</i>
Hark-ni	<i>zikok/n</i>	haiek-ni	<i>zikobiek/n</i>
Hark-gu	<i>zikok/n</i>	haiek-gu	<i>zikobiek/n</i>

- *JAKIN* ADITZA.

	<i>Etxarri</i>	<i>Unanu</i>	<i>Arbizu</i>
zekiat/zekinat	<i>zi(z)kiyet/ñet</i>	<i>Ziki(ñ)et</i>	<i>Zaki(ñ)et</i>
zekik/zekin	<i>zi(z)kik/n</i>	“	<i>Zakik/n</i>
zekiagu/zekinagu	<i>zi(z)kiyau/ñau</i>	<i>Ziki(ñ)au</i>	<i>Zakiyau/ñau</i>
zekitek/zekiten	<i>zi(z)kiye/ñe</i>	<i>Ziki(ñ)e</i>	<i>Zakiye/ñe</i>

Ikusten denez, kasu honetan ere -z- da pluralgilea. Eta iraganari dagokionez, hauexek dira aditz formak: *ni(z)kiyan/ñan*, *zi(z)kiyan/ñan*, *giñe(z)kiyan/ñan*, *zi(z)kiyabien/ñabien*.

- *IRUITTU* ADITZA.

Ergoienan ez da ‘*iruditu*’ aditza erabiltzen, eta horren ordez ‘*nabari*’ erabiltzen da: *nebai diet*, ...

¹⁵⁰ Erabiltzen da beste aditz forma bat ere: *zikobet/net*.

	<i>Etxarri</i>	<i>Arbizu</i>
zirudiat/zirudinat	<i>ziruiyet/ñet</i>	<i>ziruiyet/ñet</i>
zirudik/zirudin	<i>ziruik/n</i>	<i>ziruik/n</i>
zirudiagu/zirudinagu	<i>ziruiyau/ñau</i>	<i>ziruiyau/ñau</i>
ziruditek/ziruditen	<i>ziruiye/ñe</i>	<i>ziruiye/ñe</i>

Iraganeko formak: *niruiyan/ñan*, *ziruiyan/ñan*, *giñiruiyan/ñan*, *ziruiyabien/ñabien*

- *YAMAN* (ERAMAN) ADITZA.

	<i>Etxarri</i>	<i>Arbizu</i>
zeramaat/zeramanat	<i>ziamabet/net</i>	<i>zaabiyet/ñet</i>
zeramak/zeraman	<i>ziamak/n</i>	<i>zaabik/n</i>
zeramaagu/zeramanagu	<i>ziamayau/ñau</i>	<i>zaabiyau/ñau</i>
zeramatek/zeramaten	<i>ziamab(i)ek/n</i>	<i>zaabiye/ñe</i>

Eta lehen aldiko formak: *n(i)amaban/nan*, *z(i)amaban/nan*, *g(i)amaban/nan*, *z(i)amabieban/nan*.

3.8.5. SAKANA ERDIALDEKO ADITZAREN EZAUGARRI-LABURPENA.

Aditzaren morfologiaren atalaren hasieran, azterketa esparruko aditzaren ezaugarri nagusiak zehatz-mehatz aztertu ditugu. Hala ere, oraingoan, inguruko hizkerekiko konparaketa errazteko, lehen aipatuak eta beste batzuk jasoko ditugu bata bestearen jarraian:

- NNN eta NN_k aditz sailen arteko nahasketa. Batez ere, Dorrao, Unanu, Arruazu, Uharte eta Etxarriko hizkeretan gertatzen da, baina garbi geratu da duela gutxiko kontua dela, ezen mende hasierakoek ondo bereizten baizituzten (gogoratu informatzaileek esandakoa eta alokutiboen burutzapenak), eta gainera, herri guztietan gelditzen dira NN_k erako formak bizirik oraindik.
- NN_i saileko laguntzailean *-ki-* errodun formak erabiltzen dira azterketa esparru

osoan

- c) *Zuek* pertsonaren morfema edo ezaugarriak:
- ZIE Ergoienan (*dakizie*)
 - ZUB(I)E gainerako herrietan, ondorengo bilakabidea duelarik:
ZUE > ZUBE (epentesia) Lakuntza, Arruazu, Uharte (*dakizube*)
> ZUBIE Etxarri, Arbizu (*dakizubie*)
- d) *Haiek* eta *haiei* pertsonen morfemak:
- (R)IE /(R)UE Ergoienan (*due, ttue/ttie; zoorien/zooruen* Dorraun)
 - B(I)E Etxarri, Lakuntza, Arruazu, Uharte (*debie/dub(i)e, ttub(i)e; dakiyobie/dakiobe; zoobien/zioben*)
 - YUE Arbizu, Ergoiena. (*dakiyue; ziyuen* Arbizun)
- e) Singularreko bigarren pertsonaren hasierako /y/: *yeen/yuen, yuke/yauke, yeiz, ...*
- f) Pluralgileak:
- NN_i eran, -z- herri guztietan, Lakuntzan izan ezik: -zki-.
 - NN_k eran, -it- herri guztietan orain aldiak; -zki- iraganeko pluraleko lehen eta bigarren pertsonetan Etxarri, Ergoiena eta Arruazun; -z- ahaleran eta -zki-aginteran.
 - NNN sailean, -it- Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Uharte; -zki- Etxarri eta Ergoienan. Etxarrin, datiboa hirugarren pertsona denean, -zki- pluralgilearekin batera, -tza- ere erabiltzen da.
- g) NNN saileko erroa, -ERAU- Etxarri eta Ergoienan eta -I- Arbizutik ekialdera.
- h) NN_k eran, -AU-/-EU- erroa esparru osoan, baina bilakabide desberdinak: *dot-det-dut*
- i) -GI motako aditz partizipioen herskari ozenaren galera esparru osoan, Uhartan izan ezik: *jai/jei* (jagi), ...
- j) -DU partizipio analogikoak, -I edo -N hizkiz bukatutako aditzekin ere: *(y)oondu, ibildu, uraittu, itzuldu, izandu, ...*
- k) Partizipio burutua egiteko -(r)ik + -(e)ko forma erabiltzen da:
Ik esanikekuek aungi asko aittu zittubau!
Aik eiñikekue diau txabolo!
- l) N/L ondoren ere -KO etorkizuneko erabiltzen da, nahiz eta -EN ere erabil ahal izan: *(y)oonko, izanko, esanko, ilko, (y)oonen, izanen, esanen*¹⁵¹, *illen, ...*
- m) Aditz oinaren erabilera oso zabaldurik dago: *konta zazu, ibil zettez, jar zettezkie, ...*

¹⁵¹ Zenbait kasutan, ondorengo bilakabidea ere izan dezake: *izanen > izaen > izaan*. Etxarriko transkribaketetan, Euxebio Markotegik hala esaten du: “*Aldiyartan ai zan alubiye ta patata artzen. Denborau izaan zan, bei, denborau izaan zan. Otza eitten zeen, akordatzen neiz otza eitten zeela!*”

- n) Nahiz eta lehen aldia izan, NN_i saileko laguntzaileak eta aditz trinkoek *-a-* morfema erabiltzen dute: *zakiten, nakiyon, naillen, zaundien, zakibien, nakan, balaki, naaman, ...*
- o) Ahaleraren erabilera pleonastikoa suertatzen da, zerbait gertatzea edo nahi dugula adierazteko:

Eitten al dezubie ori!

Eta Ultzamerarekin (Ibarra, 1995, 554-555) konparatzen badugu, esan daiteke ia ezaugarri berberak direla bi bailaretan.

4. EZAUGARRI SINTAKTIKOAK

Ez zaio dialektologiaren historian zehar sintaxiari garrantzi gehiegirik eman. Ia esan daiteke bazterturik geratu den arloa izan dela dialektologia alorrean, eta hau, dirudienez, hizkuntza guztietan gertatu da (Hudson, 1981; Mitxelena, 1985). Egitura sintaktikoak askoz ere modu homogeneoagoan daude hedaturik hizkuntza baten eremuan elementu morfologiko edota fonetiko eta lexikoak baino. Egitura sintaktiko desberdinek, agian, gizarte edo kultura maila desberdinak bereizteko aukera gehiago emango dute. Bonapartek bere sailkapenak egiterakoan erabili zituen ezaugarri sintaktikoak oso urriak izan ziren eta Koldo Zuazok ere, plazaraturiko ‘Euskalkiak gaur’ lanean erabiltzen dituen 108 ezaugarrietatik, ez dira hamar baino askozaz ere gehiago sintaxi mailakoak edo, beste modu batean esanda, gutxienez sintaxiarekin zerikusi zuzena izan dezaketenak.

Guk azterketa esparruan erabiltzen diren egitura sintaktikoak jasoko ditugu, eta ondoren, beste esparruetakoekin parekatuko ditugu, ondoriorik edo atera badaiteke, azkeneko hausnarketan kontuan ere izateko.

4.1. GALDERAZKO ESALDIAK ETA HARRIDURAZKOAK

4.1.1. GALDERAZKOAK

Ez da esparru osoan *al* partikula erabiltzen, ez eta aditz jokatuari eransten zaion *-a* galde marka ere. Bestalde, aukera galderetan, *oo* (edo) juntagailu disjuntiboa erabiltzen da eta ez ‘ala’, esparru osoan:

*Ze neyoo dezu, txistorra oo birike?
Zein da obie, Marino oo Gorospe?*

Askotan erabiltzen da, bestalde, funtzio fatikoa gauzatu eta baita esaten duguna konfirmatzeko erabiltzen den partikula: *alezta (beyetz) (ezetz)?* (Hala ezta?)

*Bart neiko biandu etor ziñen, alezta?
Eztakizu ogiye eitten! Alezta ezetz?*

4.1.2. HARRIDURAZKO ESALDIK

Harridura adierazi nahian edo, era eta partikula desberdinak erabiltzen dira nonahi eta hori bera gertatzen da gure esparruan ere.

a) Interjekzioak:

Interjekzioz edo dagoeneko interjekzio bihurtu diren esamoldeez osaturiko harridura perpausak, edo adierazkorrak gutxienez, izango genituzke hurrengoak:

Aiaupenani! (Ai, hau pena nik!), *aieneni!* (Lizarraga) Hau eta hurrengoak erabiltzen dira zerbait sinesgaitza dela adierazteko.

Iyundienak! /iñundienak Arruazun (Inon direnak!), *Auxeek auxe!* (Hauxe duk hauxe!) *Au duk/dek au!* Harridura adierazteko.

Askuek/n! (Asko duk/n!), *askook/n!* Nahi ez duguna gertatzerakoan.

Oixe! Kquanto! Jakiñe!, -a, Nei lauke! Esaten ari zaigunarekin erabateko adostasuna adierazteko: *Kquanto (beyetz), egiye dala! Nei lauke, denon artien launduta!*

Biejundayokela! Ongi iruditzen zaigun zerbaitek, mirespena eta guzti sortu digularik. *Biejondakiobela!* (Arruazu, Guaixe 13, 14. orrialdea)

Bienke! (gaztelerazko ‘desde luego’)

Utekio! Jakin ezak/n/zu. Auskalo!

Bal(d)inbes (ee)! (Horrela beharko du izan!): *Einko dezubie, balinbes!*

Aze gio de! (A zer, gero ere!, A zer gauza!) Zerbaitek zuregan eraginik ez duela izan adierazteko. Ez du harritzerik sortu: *Aze gio de, egun guzie aizien ibilli ta, ekar dezubiena!*

Ze demontre! (Ze(r) arraio! –ren parekoa)

Obiek utse! (Hobe duk hutsa!, gaztelerazko ‘más te vale ...’)

Kostaye kosta, einko diau/duu! (gaztelerazko ‘cueste lo que cueste’)

b) Erakusleak erabiliz:

- *Au, o(r)i, ure, aik, ona(tx), orra(tx), a(r)a(tx):*

*Au politte!, Ure e(d)erra!, Aik garayek!
Au da au, politte!, Ure zan ure, e(d)erra!
Ona nun doon/daun! (Hona non dagoen!), Orra or zu andregiye!,
A(r)atx nua fan dan!*

- Erakuslea + izena + instrumentala: *Ure jendes etor auben! Au kotxes!*
- Erakuslea + izena + adjektiboa mugaturik: *Oik jende klasiek! Ure etxe klasie! Au andre tuntune! Ori gizon kozkorra!*
- Erakuslea + izenlaguna + adjektiboa mugaturik: *Au gizonan txikiye! Ori libuuban politte!*
- Erakuslea genitiboan + adjektiboa mugaturik: *Onen politte, -a! Orren go(i)xua, -e!*

c) Galdetzaileak:

Galdetzaileak soilik eta aditzari *-n* erantsiz, eta baita ‘*A ze(r)...!*’ interjekzioaz lagundurik, nolako galdetzailearen zentzua hartuz:

*Ze politte!, Zenbat tontakei!, A, ze etxie!
Ze politte dan!, Zenbat txotxolokei eitten deen!, A, ze politte (dan)!
Zeïnen aundiye (dan)!, A, ze tantue (ein deen)!*

d) Bei partikularekin:

Bei politte ure!, Bei e(d)erra!, Bei irraazi dee! (Bai irabazi ere!)

e) Konparatzaileak:

-oo (-ago) konparatzailea eta aditza:

Txintxuboo da!, Polittoo zan!, Izendu zan onoo!

f) Bokatiboa (apelatiboa):

Era adierazkorrean erabiltzen da eta, adierazkortasun hori lortzeko, *-a* morfema mugatzailea, asimilatu gabe, berean mantentzen da:

Neskatua!, Mutikua!, Demoniua!, Semia!, Aitta!, Aluba!, ...

g) Beste batzuk:

Beste partikula edo hitz batzuen bidez: *bierrik/eskerrak*, *atrebi*, *aixe*, *al* (ahal), *sikia* (siquiera), *zarra/kozkorra/puske*, *-a*, *zikiña(k)*, *aleena(k)* (halarena), *sekuleko*, *barratu artio* ...

Lehena, *bierrik/eskerrak*, hiru eratan erabil daiteke: aditzari *-n* edo *-(e)la* erantsiz eta erantsi gabe:

Bierrik onek ein dau!, *Bierrik onek ein deen!*, *Bierrik onek ein deela!*
Eskerrak goizter etor zaa!, *Eskerrak goizter etor zaan!*, *Eskerrak goizter etor zaala!*

Bigarrenak, *atrebi*, debekua edo abisua besterik gabe, adierazten du:

Atrebi izaan dek! (Ez duk egingo/esango!)
Atrebi gio! (Ezta pentsatu ere!)

Hirugarrenak, *aixe*, erraztasuna, meriturik eza edota zerbait aurpegiratu nahi dugunean erabiltzen da:

Aixe einkuezu! (Erraz egingo duzu!)
Aixe joko dook mutiko txikiyorri!
Aixe irraazi ziñuben, bestiek esku betekin jokatuta!

Hurrengoak, *al* (ahal), desio handia¹ (beste bati kalteren bat opatuz, askotan) eta zerbait komenigarria dela adierazten du eta, hortaz, ezin dugu nahasi potentzialetan agertzen denarekin, are gutxiago gure azterketaren esparruan, ez baita horrela erabiltzen. Aipatu komenigarritasuna adierazteko, *-t(z)en al* (ahal), erabiltzen da, eta desio handia adierazteko berriz, *-ko al*. Azken honi dagokionez, gure azterketaren kasuan, *'sikia'* (sikira < 'siquiera') hitza ere erabiltzen da, baina baldintzarekin batera:

Eitten al dezubie, bestela ...! (Hobe duzue egitea, bestela ...!), *Faten al zarie lenbeilen!*
Etorko al dek! (Etorriko ahal duk!)
Ilko al yeiz!, *Autsiko al dek buube!*
Sikia ilko bai(n)tz! *Buube autsiko balau sikia!*

¹ R.M. AZKUEk (1969, 501) interjekzioak aztertzerakoan horrela jasotzen du hauxe: “4° Maldicientes, sí, las hay todavía, y que guardan cierto género de ritual para que sus imprecaciones lanzadas contra algún enemigo (...), y luego ¡Áren! Itoko alda ¡voto, ojalá se ahoge!, ¡ezalda gehiago oetik yagiko! ¡ojalá no se levante más de la cama! ... etc., etc.”

Jarraian datozen hirurak, *zarra*²/*puske-zikiña-alena*, intentsitatea emateko erabiltzen dira, lehenengo biak zentzu peioratiboa dutelarik (gaztelerako ‘So ...!', adierazten du), eta besteak berriz, bai zentzu peioratiboa nola ona ere izan dezake:

Ago ixilik, pelma zarra!, Txakur (t)zar!, Ago ixilik, pelma zikiña!, Ago ixilik, pelma alena!
Lapur zikiñak!, Lapur alenak!
Politte alena!, Gizajo alena!

Baina *zar(ra)*, *kozkorra* eta *puske*³, *-a*, bestalde, handigarri moduan ere erabiltzen dira, inongo zentzu peioratiborik gabe:

A ze gizon zarra!, A ze gizon puske!, Aittun kozkorra zan ure!

Eta azkeneko biak, *sekuleko* eta *barratu artio*, intentsitatea maila garaienera daramate:

Sekuleko gizona zan ure! (Ez da beste horrelakorik izan)
Sekuleko estualdiye eman ziobau!
Sekuleko inyerra!, Sekuleko berue!, ...
Barratu artio ai neiz ikesten!
Barratu artio jan dek!

4.2. ESALDI ELIPTIKOAK

4.2.1. ADITZ LAGUNTZAILEAREN ELIPSIA:

Ezta bier dee! Ezta pentsatu dee!
Zeiñek obeki (ein)! Apostua.
Aungi bizi! Norbait despeditzerakoan esaten dena.
Ara esan nik! ‘Abisatuta zaude(te)’ edo antzekoa adieraziz.

4.2.2. ADITZ NAGUSIAREN ELIPSIA:

Ez ote? Bai ote? Izango da? Ez da izango?
Horrela erabiltzen du Blas ALEGRIAk:

² V. HUIZIK (1899, 146) horrela jaso zuen: “TZAR, *aglutinante o adherente que sirve para aumentar y despreciar la significación de las palabras: ¡ori gizon tzarra!, ¡qué hombráz!, hombrachón*”.

³ V. HUIZI (1899, 148): “*El aumentativo, con TZAR o PUSKA: hura gizon tzarra, qué hombrachón – au andre puska, qué mujerona.*”

“¿Baote?” (Lakuntzako Pertza, 144)

Zeiñek obeki! Zeiñek geyoo!

Arbizuee bierrien Lakuntzaa!

Ez auntzetako, ez arditako! Ezbaian gelditu dela edo ezintasuna ere adierazteko, jakin gabe zer egin.

Ez bat, ez beste!

Bei, ik itze franko!

“*Kafie, bazkai onan dijigarri, ta bazkai txarran berdingarri!*” horrela jaso zioten Periko Lizarraga, Bekola eta Lixarregoko semea, zenari.

4.3. KOORDINAZIOA

Lau koordinazio motak izango ditugu kontuan atal honetan, nahiz eta koordinazioarena, P. Goenagak (1980, 230) dioskun moduan, funtsean fenomeno bakarra izan.

4.3.1. KOORDINAZIO KOPULATIBOAZ.

Azterketa esparruan erabiltzen diren juntagailuak ez dira batere orijinalak beste eremuetakoekin konparatzen baditugu, baina aldaketa fonetiko ugari jasotzen dituztenez, hemen bilduko ditugu eta erabiltzen diren testuinguruetan kokatu:

- (E)TA, DA. Normalean *e-* bokalaren aferesia izaten du, batez ere Etxarriko hizkeran. DA juntagailua *-n* edo *-l* kontsonantez bukatu-rik hitz baten ondoren agertzen da:

Mikel etorri ta belexe fan zan.

Etxeko lanak ein da basua fan da.

Il da enterratu lenbeilen!

“..., alde bateti bestea pillota pasatzen, da ez zugubien erabaitzen, da etsi in giñuben” (NEM I, Etxarri,17)

- -AKI(N) BIYOK/IRUROK (-arekin biok) , ... ETA BIYOK / IRUROK ...

Hona hemen beste bi era koordinazio kopulatiboa gauzatzeko: *soziatiboa + zenbatzailea plural hurbilean* eta *izena + (e)ta + zenbatzailea plural hurbilean*:

I aneyaaki irurok fanko geittuk, iruitzen baakik!

Atzo Donostie fan giñuban ii guresueki irurok.

Etxien geldittu geittuk andrieki biyok.

Aspertuik gaude zuu aneye ta biyok.

Eta K. ZUAZO-k ere horrela jaso ditu antzinako Arañaz elkartearen eremuan (1995, 340):

“*Amaakin biyok fan ber ga Iruñaa*” (Etxarri)
 “*Aittu giñen Patxikon anayeiki biyok*” (Dorrao)
 “*Aizpaaki biyok prestatu duu afaaiya*” (Arbizu)

- (D)EE (ere). Kontsonantismoa aztertzerakoan genioen moduan, *r/d* txandaketa gertatzen da juntagailu honen burutzapenean kasu batzuetan, eta bokal arteko dardarkariaren galera bestetan. Hortzetako herskaria daraman forma aurreko hitza bokalez bukatzen denean erabiltzen da, eta bestea, kontsonantez bukatzen denean:

Pello dee etor dek.

Zu dee ez zaa makala!

“*Ba nik e estudioik eztoket, ...*” (NEM I, Arruazu, 121)

“*..., eta hilikekuek e gutxi ya, ta goartu giñen ba nola izeiñek hil tzien, ta beste pixti betzuk e desagertuik zela, ...*” (NEM I, Etxarri, 17)

“*... bestiek maldiziyue zayola ta au de, ...*” (Inozenzia Markotegi, transkribaketa)

“*... gareyeiten koltxillek eta mantak ee eman zian akaso bei mantak akaso dee ustiot ...*” (Gregoria Solis, 1993, 113)

Nolabeitte(e)... (nolabait ere)

- (D)EBEI (ere bai). Aurreko kasuan bezala gertatzen da, hasierako kontsonantea manten daiteke ala ez:

“*... sujetadore eta oik denak bei eta gonak ebei ...*” (G. Solis, 1993, 113)

“*... kofren bat ebei arropa zuyeki ...*” (G. Solis, 1993, 113)

“*-Fiyetzen bazaa, saldu debei!*” (Inozenzia Markotegi, transkribaketa)

“*Baakik, Patxikai askotan alleatu nok esaten, goñatai, eta nee gizonai debei, ...*” (NEM I, Lizarraga, 39)

- (D)EEZ (ere ez). Aurrekoak bezala:

-Ni eneiz izendu! –Ni deez!

-Nik eztet ein! –Nik eez!

- BEITA ... (D)EE (baita ere); EZTA ... (D)EE (ezta ere). Lehenengoaren kasuan gogoratu diptongoen atalean esaten genuena, ai > ei bilakatzen dela sarritan:

Beita nik ee! Beita guu aneye dee!

Ezta aik ee! Ezta zuu laune dee!

- BEI ..., BEI ... ; EZ ..., EZ ... ; EZ ..., EZ ..., (...) EZ MUNDU!

*Antxe agertu zien, bei Felipe, bei Frantxiko!
Ezta sekule garais etortzen, ez bazkaltzia, ez afaltzia!
Eztakau ez arrazoi, ez gogo, ez ilusiyo, ez mundu! (Ezta ezer ere!,
adierazteko).*

4.3.2. JUNTAGAILU DISJUNTIBOAZ.

ala juntagailua ez da erabiltzen esparru osoan, beraz o(o)⁴ (edo) baino ez dago testuinguru guztietarako, aukeraketa egin behar denean eta guzti:

“Bei, ba, illik balin bazaude aunbeste egun, jakiñen dezu zeruben o(o) infernuben o(o) purgatoiyuen o(o) nun zaude, ba, zu?” (I.Markotegi, transkribaketa).

“Orduben hasi giñen ... ba ... zeengati heldu ote an hau, o, nundi, o ze kristo, ...” (NEM I, Etxarri, 17)

Nua fanko gaa, Iruñaa o(o) Donostie?

Ez dek ein ber, oo?

“..., etzinko gaa o ez gaa etzinko ...” (Lizarraga, G. Solis, 1993, 119)

4.3.3. JUNTAGAILU ADBERSATIBOAK.

Juntagailu adbersatibo anitz ez badago ere (perpaus elkartuak bideratzeko erabiltzen direnak, esan nahi dugu, hots, gramatika juntadura gauzatuz), ugari dira azterketa esparruan testu mailako lotura bideratzen duten aurkaritzako lokailuak:

- BEYE, BEYA (baina).

“... zengati guai komuniyue ta dena ekartzen debie batien, beye orduben fan zan ...” (I. Markotegi, transkribaketa)

“..., sikia arrijaik zuitzen fateko, beia lejie dendan ...” (G. Solis, FLV 62, 112)

Garais etor ziñen, beya bei lixto fan ee! (Arbizu)

- SOLO partikula.

Euskal *ordea*, *baina*, *bakarrik* adbersatiboen ordeaz erabiltzen da gazteleratik sartutako partikula hau, eta normalean esaldiaren bukaeran kokatzen da, hasieran ere ager daitekeelarik:

⁴ Bokalismoan, bokal luzeak aipatzerakoan genioen moduan, hauxe da bere bilakabidea: *edo > eo > oo > o*.

*Eztau esan solo! Ez deela ein solo!
Solo ez dala etorri!
Ez tuu ezee esan solo! (Arbizu)*

Iñaki Caminok (1997, 593-594) ere jaso du partikula hau Aezkeran eta esaten du gazteleratik sartutako *solo* partikula aspalditik dabilela Nafarroa Garaiko euskarara sartuta. Eta adierari dagokionez, euskal *bakarrik* edo *soilik* adbersatiboen adiera berekoa dela aezkeraz dio, *baina* bezalako zerbait, beste esanahi batzuen artean.

- ALEE (DEE), ALAI DEE (hala ere).

“-Bei, ba fan ber neiz galdeittia!’, gu aittek alee!” (I. Markotegi, transkribaketa)

Alee dee ezan konforme gelditu! (Etxarri)

“... etxi artan eztakit alai dee noiz ikusten tzan arrijie” (G. Solis, *FLV* 62, 112)

- SALBOZE (salbuz ere)

Salboze iri esan duubiek, ba!⁵, ‘hala ere’-ren parekoa izango genuke.

- BA- ... (D)EE. (ba- ... ere)

Asko yan bazeen dee, ezan mozkortu! (Etxarri)

Asko aan bazuben ee, eztu nebai! (Arbizu)

- BEE (bage). Arruazun gabe erabiltzen da.

Eztezu ezere lortuko, eskatu bee! (Etxarri) (... , eskatuta ez bada!)

- DANA DALA, DENA DELA

Dana dala barkatuik zaude!

“Iguel duekiyobie dana dala, beye ... dena yaman!” (I. Markotegi, transkribaketa).

Dena dela barkatuik, ola balin baa dee! (Arbizu)

- BEIX (berriz).

Nik atzo enakan batee goseik, zuek beix iriye jango ziñukien!

“Dotriñe bex primera komuniyorako ...” (NEM I, Lizarraga, 39)

⁵ Horrela jaso du R. CARASATORREK *Barranca-Burunda* lanean (1993, 304).

- ORDIE, ORDIA (ordea, izan ere).

*Eztezu gauz onik eitten, ordie!
Arrek, ordie, ezen ezere ein!
Arrek ordia, ezuben eitten ezere! (Arbizu)*

- BESTEIK. (besterik)

*Zuk besteik, iyorek eztaki ori emen eitten!
Ogiye besteik ez giñuben artu!*

- EZPADA (ez bada)

*Ezin da etorri, trenes ezpada! (Etxarri)
Ik esanda ezpada, ezin dik jakin! (Etxarri)*

Eta J.M. Arakamak horrelakoak aipatzen ditu Uharteko dotrina aztertzerakoan:

*“eztaizquio barcacen ezpada confesiuaquin”
“ezpada errecibitcen bier den disposiciuaqui”
“bada ascotan eztire ezpada venialac” (1994, 585)*

- (EZ) BESTE.

*Nik ez beste guziek dakibie ori!
Zuen ardiyek beste denak artuubie geitsoi! (Arbizu)*

- -(E)NGATI BESTELA, -S BESTELA (-z bestela, baizik), ... BESTE GEÑAKUEN (beste gainerakoan)

*Umiengati bestela eztaki orrek itzeitten!
Amas bestela, eztau emakomiekkin itzeitten!
Zu beste geñakuen, ezta iyore atrebittu!*

- EZEZE (ez ezik).

*Ogiye ezeze ardue dee ekar yau!
Ik ezeze guk ee errez asko ein zezakebau!*

4.3.4. JUNTAGAILU DISTRIBUTIBOAK.

- ALDIATETI ... TA BESTETI ... (alde batetik ... eta bestetik ...)

Aldiateti fatie nei det, ta besteti oso nekatuik noo!

Aldiateti bei ta besteti ez!

- BEI ... BEI ... (bai ... bai ...) / EZ ... EZ ... / (NOLA) ... NOLA ...

Bei batzuk bei bestiek, berdiñek ttuk!

Ez ik ez arrek, eztakizubie bier bezela yoten!

(Nola) kotxes nola oñes, fan bierra zikonau!

“..., nola basuen egurretan, bi pareeki igual, nola mendiyen egurretan, ...”

(Lizarraga, NEM I, 37)

4.4. MENPEKO ESALDIAK.

4.4.1. OSAGARRIAK: -LA, -NIK; NOMINALIZAZIOA; ZEHAR GALDERAK.

4.4.1.1. -LA, -NIK.

Bi menperagailu hauek azterketa esparru osoan erabiltzen dira. Lehena, *-la*, testuinguru guztietan ager daiteke, baiezko zein ezezko esaldietan; eta bigarrena, *-enik*, normalean ezezko esaldietan agertzen da, eta baita galderazkoetan, erantzuna ezezkoa izango dela irizten diogunean:

“- Ba, hori pues,e, hainbeste anekdota klase aitzen duzu, elizeko gauzek e, gauza asko izeten dia egiak, beste atzuk pues, e, len pasatuiko gauzek eta, batién santuba sartu zubela errekaa sekoa ziolakos ta harria bota zuela ondorian ta, hainbeste gauza aitzen duzu, pues, e ...” (NEM I, Arruazu, 123)

Hurrengo adibide guztiak Iñaki Gamindek (1990, 228) jasoak dira. Hemendik aurrera, herriaren izena kurtsibaz daramaten esaldiak Gaminderi hartutakoak dira:

Esan dau etorko ala (Etxarri)

Goartu naiz emengua zaala (Arbizu)

Orrek esan ziek etorriko dela (Lakuntza)

Badakitt astelena dela (Uharte)

Ikusten denez, Lakuntza eta Uharten $a + e > e$ bilakabidea gertatzen da, ez ordea Arbizu, Etxarri eta Lizarragan: *etorko ala* (etorriko da + ela > dala).

Gure aldetik, ondorengoak dira jaso ditugun adibideak:

“..., *gue mutikuarrek esan do izketan dee yon dala ...*” (Lizarraga, G. Solis, 1993, 117)

Baakizu ori geixo doola! (Etxarri)

Ez det uste biandu etor danik (Etxarri)

Ez diau esan ori geixo doonik/doola (Etxarri)

Gizonoi emen oondu ala esan ditee (Arbizu)

Ikusiu (ikus du) etorri ala (Arbizu)

Aittuuzu zuk aateik (auzaterik) eztaunik/eztaula? (Arbizu)

Egiye otia (ote da) ezere eitteik eztakaunik? (Etxarri)

Egiye da Frantxikok etxeti aldein deela? (Etxarri)

Eta Gamindek, goian aipatu lanean, galderazko esaldietan eta baita nagusia ezezkoa denetan ere, beste adibide hauek gaineratzen ditu:

Enok goartu emen daola (Lizarraga)

Eztet uste ekar deela (Etxarri)

Eneiz konturatu emen daola (Arbizu)

Eztitte esan ezubiela eiñen (Lakuntza)

Eztut siñestatzen ekar duela (Uharte)

Ezaiz oartu emengue naizela edo ze? (Lizarraga)

Eztuuzut esan yoos detela? (Etxarri)

Eztizut esan oosi utela? (Arbizu)

Eztube ba esan despeittu dubiela? (Lakuntza)

Eztiet uste ekar daunik (Lizarraga)

Eztut aittu gaizki daonik (Lakuntza)

Garbi geratzen da, beraz, *-ela* morfema testuinguru guztietan erabiltzen dela Sakana erdialdean, eta honetaz gain, ez genuke aipatu gabe utzi nahi *-enik* morfema erabiltzen dela, era berean, erlatibo kutsuarekin:

Ikusteko zioz zuek ori einkuezubienik! (Etxarri)

Yorrek ee eztek siñisten iraaiziko debienik! (Etxarri)

Yorrek ee eztek pentsatzen aunbeste iraaizukenik! (Arbizu)

4.4.1.2. NOMINALIZAZIOAK.

Perpaus oso bat, edo gutxienez aditza, izen bihurtzeari esaten diogu (P. Goenaga, 1980, 355) nominalizazioa.

Iñaki GAMINDEren ‘Nafarroako nominalizazioez’ lana (*FLV*, 62, 75-94) hartuko dugu oinarri bezala (beti ere ez nahasteko, gogoratu Gaminderen adibideek herriaren izena kurtsibaz eramango dutela eta gureek, berriz, itxura arrunta) eta berak erabiltzen dituen adibideak, azterketa esparruko hizkera guztietara zabalduko ditut, herrian herriko berezitasunak konfirmatzeko, hortarako aukera emango balute emaitzek:

- -T(Z)IE / -T(Z)IA (-t(z)ea)

Gamindek bi burutzapenak bereizten ditu, *-te + a > -tia* Arbizon (Arruazu, Dorrao eta Unanun ere bai, gogoratu asimilazioaren araua), eta *-te + a > -tie* Lizarraga, Etxarri, Lakuntza eta Uharten, ondorengo adibideak jaso dituelarik:

Aurrei gustatzen dakiyo jolasien ibiltzia (Arbizu)

Aurreri gustatzen dakiyue jostatzie (Lizarraga)

Mendiyeen ibiltzie oso ona da (Lakuntza)

Nik, ondorengoak jaso ditut nire aldetik:

Aurrai gustetzen dakiyobie ikastola fatie (Etxarri)

Aurrei gustatzen dakiyue ikastola fatie (Lizarraga)

“..., an fantzan, yo pentsatu giñuen Bibianoki fatie zengana, ...” (Lizarraga, G. Solis, 117)

Tabernaa fatia asko gustetzen zakiuk! (Arbizu)

“Ta gero Iruñen de egondu nitzen ni katedralian eta han e, bi ez kille eerrak, klaro katedralien normala da haundiyek eotia.” (Arruazu, NEM II, 123)

- -T(Z)IEK (-t(z)eak)

Adibide bat baino ez digu ematen Gamindek oraingoan:

Ez ongi ikustiek buruko miñe ematen du (Uharte)

Ondorengoak nik jasotakoak dira, eta argi ikus daiteke dagoeneko herri guztietan burutzapen berdinak gertatzen direla (gogoratu asimilazioaren araua):

Asko yatiek ez tik gauz onik ekartzen (Etxarri)

Asko aatiek ez tu gauz onik ekartzen (Arbizu)

Ubeldia atraatziek kalte aundiyek ein ttu (Arruazu)

- -T(Z)EIK (-t(z)erik)

Hauexek dira herriz herri jaso ditudan adibideak:

Emen etzion ezee eitteik! (Arbizu)

Eztakazu ola ibiltzeik! (Etxarri)

- -T(Z)IEKI(N), -T(Z)IAKI(N) (-t(z)earekin)

Lehena besterik ez da Gamindek, aipatu lanean, jaso:

Kontentu noo ikustieki (Etxarri)
Ori esatieki eztek ezee konpontzen! (Etxarri)
Oi esatieki eztuk ezee arreglatzen! (Arbizu)

- -T(Z)ES (-t(z)eaz)

Kasu honetan ere, lehena baino ez da Gamindek jasotakoa:

Pozik nao zu ikustez⁶ (Lakuntza)
Aspertuik noo beti gauze bia eittes! (Etxarri)
Aspertuik nau beti gauza bia eittes! (Arbizu)
“Eta gero atzenian soziedadian asanblea atian tratatu zen ya ezukela gauza, festa hoy organizatzeko holako gauza haundiya, ta utzi ein zan eitteas bei.” (Arruazu, NEM II, 125)

Bestalde, Gamindek instrumentalaren kasu marka ere aipatzen du, baldintza gisa, eta Etxalekun jasotako adibidea Etxarri, Arbizu eta Lakuntzan ere agertzen dela esaten du:

Gaizki itzittes ohea isilik yotia! (Etxaleku)

Guk ez dugu horrelakorik jaso, baina bai itxuraz antzekoa dena, hots, baldintzako kutsua duena, Etxarrin eta Arbizun behintzat, -t(z)eraz > t(z)ias :

Geizki itzeittias, obe ixilik yotie! (Etxarri)
Priseka ibiltzias, neyo det etxien gelditzie! (Etxarri)
Priseka ibiltzias, obiaut ez ibiltzia! (Arbizu)

- -T(Z)IETI(S) / -T(Z)IATI(S) (-t(z)eagatik)

Balio kausala du, batez ere:

Berdura jaten diet ez gizentzeatik (Lizarraga)
Presaka ibiltzietis bota in da (Etxarri)
Ez afaltziati fan dia (Arbizu)
Presaka fateati bota in naiz (Uharte)

Guk beste hauek jaso ditugu herriz herri:

Jaleue ez armatzietis ixildu nitzen (Etxarri)
Jaleua ez armatziatitis obeñet ixilik ootia! (Arbizu)

- -T(Z)IEN (-t(z)ean)

⁶ Guk hortzobietako igurzkaria jaso dugu, eta ez bizkarhobietakoa: *ikustes*.

Denbora adierazten du.

Ateatzien ataiye ertsiut (Uharte)
Atiatzien (atiatzekuen) ataiye itxiet (Etxarri)
Ataiya ixtien pasatuakiyo (Arbizu)

- -T(Z)IA (-t(z)era)

Gamindek jasotako formak ez zaizkigu egokiak iruditzen, guk jasotakoak, bokal arteko dardarkariaren galeraz gain, disimilazioa ere gertatzen dela erakusten baitute esparru osoan:

<u>Gamindek</u>	<u>Guk</u>
<i>Etorri nok ama ikustea (Lizarraga)</i>	<i>Etor nok ama ikustia (Lizarraga)</i>
<i>Etor neiz ama ikustea (Etxarri)</i>	<i>Etor neiz ama ikustia (Etxarri)</i>
<i>Itxea noye jatea (Uharte)</i>	<i>Itxia noye jatia (Uharte)</i>
	<i>Ama ikustia niyuen! (Arbizu)</i>

- -T(Z)IAKO (-t(z)erako)

Aurrekoan suertatutako gauza bera gertatu zaigu Gamindek jasotako adibideekin:

Bazkaltzen asteako eskuak garbitak (sic) (Lizarraga)
Gu fateako fanik zeen (Lizarraga)
Gu fatiako fanik zeen (Etxarri)
Gu etortziako fanik zaurenen (Arbizu)

- -T(Z)EKUEN (-t(z)ekoan)

Guk jasotakoak dira jarraian ematen diren adibideak:

Etortzekuen ikus duuzut (Etxarri)
Eittekuen ez geittuk quartu (Etxarri)
Gosaltzekuen pasatuakizu (Arbizu)

- -T(Z)ETI, -T(Z)IEI / -T(Z)IAI, -T(Z)ES, -T(Z)IE (-t(z)etik, -t(z)eari, -t(z)eaz, -t(z)ea)

UTZI aditzarekin erabiltzen diren morfemak dira eta lehenik Gamindek esparruan jasotakoak aipatuko ditugu:

Utzi dube gariye eraitteti (Lakuntza)
Utzi due garie eraittie (Uharte)

Ondorengoak, guk jasoak dira:

Gariye, ereitteti utzi ein debie (Etxarri)
Gariya ereitteti utziñe (Arbizu)
Gariye ereittiei utzi doobie (Etxarri)
Gariya ereittia utziubie soruartan (Arbizu)
Gariye ereittes utzi debie (Etxarri)
Gariya ereittes utziubie (Arbizu)

• -T(Z)EKO

Horrela jaso ditu Gamindek:

+ Konpletibo moduan:

Amak esan duut yooteko emen (Etxarri)
Eztut eskatu ekartzeko (Lakuntza)

+ Final moduan:

Au yoos diet aurrai emateko (Lizarraga)
Au yoos det aurrai emateko (Etxarri)
Fan neiz tiendaa ator bat oosteko (Arbizu)

+ Adizlagun bezala:

Ori doo etortzeko (Etxarri)

+ Izenlagun moduan:

Eztaka gogoik jateko (Etxarri)

Eta -T(Z)EKOTAN edo -T(Z)EKOTZAT adierazteko ondorengoak jasotzen ditu:

+ -T(Z)EKO ideetan:

Etor ttuk guekin itzitteko ideetan (Lizarraga)

+ -T(Z)EKO idearekin:

Fan neiz dendaa ator bat yoosteko ideaki (Etxarri)
Dendaa fan nok ator bat yoosteko idiaki (Lizarraga)

Guk bai jaso dugu -T(Z)EKOTAN morfema, baina baldintzazko zentzuarekin, eta gainera, berarekin batera beste morfema hauek, -T(Z)IAS (*-t(z)eraz) eta -T(Z)ESKIOTAN (*-t(z)ez gerotan), erabiltzen da:

Ori eittekotan/eittias, belexe ein ber dik! (Etxarri)

Fatekotan/fatias, lenbeilen! (Etxarri, Arbizu)

Geizki eittekotan/eittias, obe ez eittie! (Etxarri, Arbizu)

Ori eitteskiotan, lenbeilen ein ber dik! (Etxarri)

Etortzeskiotan, gaur etorkuek! (Etxarri)

Gamindek berak ere, zentzu honekin jasotzen du adibide bat:

Gaizki ittekotan obe da uztie! (Lizarraga)

- ADITZ BEREZIAK EDO PERIFRASIAK.

Nominalizazioen atalaren hasieran esan dugun moduan, Gamindek jasotako adibideak jasoko ditugu lehenik, eta ondoren konfirmatzen eta gainerako herrietara hedatzen ahaleginduko gara. Gogoratu, Gaminderen adibideetan herria kurtsibaz agertuko dela:

+ *Aburrittuik yon.* (Asperturik egon).

Aborrittua nao espean (Arbizu)

*Aburrittuik noo espeatzez*⁷ (Etxarri)

Guk horrela jaso ditugu herriz herri:

Aburrittuik noo espiatzes (espia) (Etxarri)

Aburrittuik nau espia (espera) (Arbizu)

+ *Nekaturik egon.*

Nekatute niok belarra ebaitzez (Lizarraga)

*Nekatuik noo belarra ebaitzeti*⁸ (Etxarri)

Guk horrela jaso ditugu:

Nekatuik noo/nau belarra ebaitzes (Etxarri/Arbizu)

+ *Intentatu / prokuretu.* (Egin ahalak egin / saiatu).

Intentatuko et akabatzie listo (Etxarri)

⁷ Gogoratu, hortzobietako igurzkaria erabiltzen dela eta ez bizkarhobietakoa. Beraz, *espiatzes* da.

⁸ Ez dugu guk horrelakorik konfirmatu, eta agian zentzu kausala duen *ebaitziet(i)s* izan daiteke.

Eta guk horrela jaso ditugu:

Prokuretuket akaatzie lixto (Etxarri)
Prokuretukoñet akaatzia lixto (Arbizu)

+ *Akordatu*. (Oroitu).

- Indikatiboarekin: -T(Z)EKO, -T(Z)IA (-t(z)ea), -T(Z)ES (-t(z)ez)

Akordatu in neiz yoosteko (Etxarri)
Akordatu naiz iosteko (Lakuntza)
Akordatu neiz oostia (Arbizu)

Guk jasotakoak:

Akordatu neiz (y)oostes / (y)oostie, -a (Etxarri, Arbizu)

Eta ‘ahaztu’ aditzarekin, aldiz, -T(Z)IE morfema erabiltzen da:

Eittie, -a aztuakit! (Etxarri, Arbizu)

- Aginterarekin: -T(Z)EKO, -T(Z)IA (-t(z)ea), -T(Z)ES (-t(z)ez)

Akordatu zaitte yoosteko (Etxarri)
Akorda zettez yoostes (yoostie) (Etxarri)

+ Jakin: -T(Z)EN

Orrek baakik itten (Lizarraga)
Bazikik bizikletan ibiltzen (Etxarri)

+ Ikasi: -T(Z)EN

Ikasi⁹ u txistuba jotzen (Arbizu)
Ixilik yoten ikesi au (Etxarri)

+ Erakutsi: -T(Z)EN, -T(Z)EKO

Ez da oraingoan ere Gaminderen lanean –T(Z)EN morfemadun adibiderik ageri, baina bai bere erabileraren aipamena Lizarraga, Etxarri eta Lakuntzan:

Auskias itzeitten yaakusko doogu (Etxarri)

⁹ Asimilatu egiten da Arbizun: *ikesiu* ...

Gauzek aungi eitten yaakus doot (Etxarri)

Bigaren morfemarekin, aldiz, Gamindek Arbizun jasotzen du hurrengo adibidea:

Eakus diot eitteko (Arbizu)

Baina, gure ustean, adibide honek agintezko zentzua du argi eta garbi, desberdinak direlarik bi morfemen esanahiak ‘erakutsi’ aditzarekin:

Aakus diot, eitteko! → Egin behar duela erakutsi diot.

Aakus diot eitten → Nola egiten den erakutsi diot.

+ *Atrebittu*. (Ausartu)¹⁰: -T(Z)IA (-t(z)era)

Atrebittu da arrapatzea (Lakuntza)

Guk, -T(Z)IA (-t(z)era) eta -T(Z)EN jaso ditugu:

Atrebittuek, -uuk arrapatzia (arrapatzen) (Etxarri, Arbizu)

Atrebittuen, -uun sartzen (sartzia) (Etxarri, Arbizu)

+ Utzi: -T(Z)EN, -T(Z)EA

*Utzi duubie*¹¹ pasatzen (Etxarri)

Utzi diebe pasatzea (Uharte)

Emen yoten utzi duugubie (Etxarri)

Emen ooten utzi geittubie (Arbizu)

Uharteko dotrinan -t(z)era agertzen zaigu behin gutxienez:

“... ez gatchazule uci tentacion erortcera, ...” (Bonaparteren ondareko eskuizkribuak, 603)

Etxarrikoan aldiz, -t(z)en erabiltzen du:

“... eta ezgaitzazula utzi tentacyuan erortzen, ...” (Bonaparteren ondareko eskuizkribuak, 2959)

+ Eman: -T(Z)IA (-t(z)era)

¹⁰ Miren AZKARATE (1999, 955): “Euskalkien arabera: Ipar-Ekialdean -t(ze)ra ausartu, Mendebaldean -t(ze)ra ausartu.”

¹¹ *Duubiet* (haiek niri hura / haiek ni) edo *doobie* (haiek hari hura / haiek hura) izan behar du. Gamindek aipatu aditz formarik ez dago Etxarriko hizkeran.

Gamindek ez du adibiderik jasotzen esparruan, baina aipatzen du Lizarraga, Etxarri eta Lakuntzan erabiltzen dela, eta guk hala konfirmatu dugu herri guztietan:

Jatia eman ber duuzubiet (Etxarri)
Jatia eman bizubiet (Arbizu)

Hala agertzen da Uharteko dotrinan ere:

“Vigarna, gosiec dagonari yatera ematie. Irugarna, egarriyec dagonari edatera ematie” (Bonaparteren ondareko eskuizkribuak, 620)

+ Hasi: -T(Z)EN

Asi de jaten (Uharte)
Ikesten asiakigu anei txikiye (Etxarri)

+ Lagundu: -T(Z)EN, -T(Z)IA

Lagundu diot despeitzen (Lakuntza)

Eta guk jasotakoek erakusten digute bi morfemak erabiltzen direla, Etxarrin behintzat:

Ongarriye atiatzen/atiatzia laundu doot (Etxarri)
Beyek jaxten/jaxtia laundu niezu (Etxarri)

+ Paratu: -T(Z)EN, T(Z)IA (-t(z)era)

Guk jasotakoak dira adibide guztiak:

Paazazu zopa biotzen (biotzia) (Etxarri, Arbizu) (Para ezazu zopa berotzen/berotzera)
Arropa sekatzan (sekatzia) paatuet, -uut (Etxarri, Arbizu) (Arropa sikatzan/sikatzera paratu dut)

+ Segitu: -T(Z)EN

Ez da aipatzen ez adibide ez erabilerarik Gaminderen lanean azterketa esparru osoan, baina guk ondorengoak jaso ditugu:

Segi ziaun estudietzen (Etxarri)
Segi ziaun itzeitten lasei (Etxarri)

+ Harrapatu: -T(Z)EN

Ori arrapatu u ostutzen (Arbizu)

Tabernati atiatzen arrapatu zebien (Etxarri)

+ Zaila izan: -T(Z)IE/-A (-t(z)ea), -T(Z)EKO

Ez du Gamindek lehen morfemarekin adibiderik jasotzen, bai ordea aipatu Lakuntza eta Arbizon erabiltzen dela. Bigarrenaren kasua, berriz, Etxarrikotzat soilik du, adibide eta guzti:

Ori zalle da sinistatzeko (Etxarri)

Guk bi eratara jaso dugu Etxarrin eta Arbizon:

Ori zeille/a da siñistetzeko

Ori siñistetzie/a zeille/a da

Ez dugu, berriz, -t(z)en-ez osaturiko burutzapenik jaso esparru osoan.

+ Erraza izan: -T(Z)IE/A (-t(z)ea), -T(Z)EKO

Oi aise da eittie (Uharte)

Ori oso erraza da eitteko (Lakuntza)

Ori eittie/eittia oso erreza da (Etxarri, Arbizu)

Ori oso erreza da eitteko (Etxarri)

4.4.1.3. ZEHAR GALDERAK.

-N morfemaren bitartez burutzen dira zehar galderak, baina sarritan *iye / iya* (ea) partikula hartzen dute honelako egiturek. Ikusten denez, hasierako erdiko bokalaren itxiera eta /y/ kontsonantearen epentesia gertatzen dira partikula horretan, azken hau erdiko bokalaren itxierak sor zezakeen diptongoa hausteko:

Iye einkuezun galdetu duubiet (Etxarri)

Iya einkoozun galdetuite (Arbizu)

Eztakit nua fanko dan / fankuan (Etxarri / Arbizu)

“..., zengati estal duuzubieten galdetzen baduubiet ...” (Eusebio Markotegi, Transkribaketa)

“..., nik eztakit ze dakaten, (...) ikiagarrisko gogorra dau ta nik eztakit ze pasatzen dakiyon, ...” (Lizarraga, G. Solis, 118)

Iye partikulari dagokionez, aipatu *iye* (ia) adberbioarekin nahas daitekeela idatzietan, baina azterketa esparruan azentuaren bidez desberdintzen dira: zehar galderetako partikula oxitonoa dugu, [iγé]; eta bestea, [iγe], paroxitonoa.

Bestalde, galdetzailerik ez dagoenean, hots, aukeratasuna azpimarratzeko edo, -N OO EZ erabiltzen da:

Ez duugu iyorezek galdetu iye ikus diaun oo ez (Etxarri)

Gamindek, ‘Nafarroako menperagailuez’ lanean (1990, 235), ondorengo adibideak jaso ditu:

Eztakit etorri dien (Lizarraga)

Eztakitt nungue zaan (Etxarri)

Esan tzazu iya biyar etorko dien (Arbizu)

Etzekiet etorri den (Lakuntza)

Ikus duzu afaldu duen? (Uharte)

4.4.2. PERPAUS ERLATIBOAK.

- -N morfema adizki menperatuari erantsiz da esaldi erlatiboak egiteko modurik zabalduena, eta berdin esan daiteke gertatzen dela Sakana erdialdean ere:

Etor dan gizona nee laune da (Etxarri)

Ikus diaun baserriye zarra den (Etxarri)

“*Eztakitena gustetu, eztutena entendittu nee biziyeen ...*” (Lizarraga, NEM I, 37)

Gamindek ‘Nafarroako menperagailuez’ lanean (1990, 234) jaso ditu morfema honen bidez burututako esaldi erlatiboak:

Eman diot dirube etor dan andre orri (Lizarraga)

Oyek dee guu yoondu gaan etxien (Etxarri)

Etorri an gizon oi ezta emengoa (Arbizu)

Arbizun bizi ena gaizki dao (Lakuntza)

Etorri en gizon oi kanpoko da (Uharte)

Kasu honetan ere, -ela morfemaz burututako osagarriekin gertatzen zen moduan Etxarri, Lizarraga eta Arbizun, $a + e > a$, eta Lakuntza eta Uharten, $a + e > e$, bihurtzen dira fonetika mailan: *dan, gaan, an / ena, en*.

Hala ere, Arbizuko hizkeran nahasmendua nabari da $a + e$ bilakaerari dagokionez, hurrengo adibidean ikus daitekeen moduan. Baina gehienetan, $a + e > e$ izaten da burutzapena:

Fan den astien etorri an gizona ikus duk? (Joan den astean etorri den gizona ikusi duk?).

Fan zen astien etor zen gizona ikusi uk?

Emen oondu an andria ikusi uk? (Hemen egon den andrea ikusi duk?)

- Partizipioa + -TAKO (-DAKO)

Ik esandakuek ez zittubet/ tiet aztutzen (Etxarri, Arbizu)

Bikeñe, -a zoon/zion zuk ekarritako ardue, -a! (Etxarri, Arbizu)

- Partizipioa + -IKEKO (-ik + (e)ko)

Zuk eiñikekue, -a da makilloi (Etxarri, Arbizu)

Gui emanikekotati artu zittubiek (Etxarri)

“... ta nai iruitzen zakiten biak asmatuikoko personajen bat zala Juan Soldado, ...” (Inozenzia Markotegi, transkribaketa)

“... kutxat betek doi ta gue etxien piezak, eunek goxuek, eskuben iñikekuek; ...” (Lizarraga, G.Solis, 113)

J.M. Arakamak Uharteko dotrina aztertzerakoan, horrela aipatzen du:

“Aipagarria da, bide batez, erlatibo laburtuetako eraikuntza, non *-(r)ikiko* tankerako atzikia erabiltzen baita: *ofendityuriquico, emaniquico, azturiquico*. Beharbada Ekialdeko zenbait euskalkitan ohizkoa den *-(r)ik(a)ko* horren bilakabidea izan liteke (edota eraikuntza pleonastikoa)” (1994, 583)

- Partizipioa + -A(K)

Ori ortan ibilliyek besteik eztikik! (Etxarri)

I dee biandu asko etorriye yeiz, ba! (Etxarri)

Etxe onien jeyuek gettuk, ba, gu! (Etxarri, Arbizu)

- Leku-denborazko erlatiboak: -LA, NOIZ ... -N, NUN ... -N, -NA

Bayauben garai bet txoriyek ee agertzen ez ziela! (Etxarri)

Bauben garai bet txoiyek ee eziela agertzen! (Arbizu)

Bayauben garai bet, noiz txoriyek ee agertzen ez zien! (Etxarri)

Badek toki bet, nun arbolak ee ez ttubien ezautzen! (Etxarri)

Bazourek tokiyek, arbolak ee ettubienak ezautzen! (Arbizu)

4.4.3. DENBORAZKOAK.

Iñaki GAMINDEren ‘Nafarroako bariedade batzutako perpaus denborazkoez’ lana (FLV 56, 165-204) goitik behera aztertu ondorengo emaitza duzue jarraian azalduko duguna. Beraz, lan horretan oinarritu gara, eta azterketa esparruko herriz herriko ekarpenekin osatu dugu, zenbaitetan, aipatu laneko batzuk ere zuzentzen ausartu garelarik.

4.4.3.1. “NOIZ” GALDETZAILEARI ERANTZUTEN DIOTEN MENPERAGAILUAK.

Jakina denez, hiru dira esaldi nagusiaren eta menpekoaren arteko ekintzak burutzeko era desberdinak, esaldi nagusiko aditzaren noiz galderari erantzuten bazaio beste esaldi baten medioz:

- a) Ekintzak aldi berean gertatzen direnean.
- b) Ekintzak bata bestea baino lehen gertatzean.
- c) Bata bestearen ondoren.

Eta guk, era desberdin bakoitzean, Sakana erdialdean, erabiltzen diren menperagailuak hemen islatu ditugu.

- a) Ekintzak aldi berean.

Sakana erdialdeko herrietan ez da erabiltzen –T(Z)EN –ELARIK menperagailua. Ez dugu guk horrelakorik jaso eta Gamindek ere ez.

a.1. –T(Z)EN –NIEN, -NIEN, -ELA eta forma ez-jokatuak.

- -T(Z)EN –NIEN (-nean)

Ekintzak gertatzeko dira oraindik, hots, etorkizun daude:

Antton etortzen danien itzeinko yau (Etxarri)
Esaten dezunien fanko gaa (Etxarri)
Esaten dozunien fanko gaa (Lizarraga)
Esaten duzunien fanko gaa (Arbizu, Lakuntza)

Gamindek, bestalde, ondorengoak jaso ditu:

Yoosten dokenien eakutsikook (Lizarraga)
*Akaatzen dezunien fanko gaa etxea*¹² (Etxarri)
Yoosten dezunien eakutsi in bie niezu (Etxarri)¹³
Oosten duzunien aakusko uzu nei (Arbizu)
Akabatzen duunien faen gaa itxaa (Arbizu)
Akabatzen duzunien etorriko a (Arbizu)
Despeitzen duunien joaen gaa itxea (Lakuntza)

¹² ‘etxia’ izango litzateke.

¹³ Etxarrin, ‘yoosten dezunien yakusi ein ber niezu’ izan behar du.

Erosten dukenien eakusko ik (Lakuntza)

- -TU -NIEN (-nean)

Ekintzak gertatu dira dagoeneko:

Antton etor danien gertatua (Etxarri)

Antton etorrianien gertatua (Arbizu)

Antton etorri danien gertatu da (Lizarraga)

“... , ortan giñoin etortzakitenien Maritxu mandatuboi ematia, ...” (Lizarraga, G. Solis, 118)

“... segiduen esaten dizube, (...) goittik jesten zaanien, ...” (Arruazu, NEM II, 125)

Eta Gamindek jasoak ondorengoak dira:

Auriye asi dauenien kanpuen giñaurien (Lizarraga)

Auriye asi anien kanpuen geunden (Etxarri)

Ibili giñenien basuen aparezittu zen (Arbizu)

Asi anien auriya kallien gounden (Arbizu)

Alleatu gaenien goatzea fan gaa (Arbizu)

Auriye asi denien karriken giñaurien (Lakuntza)

- -ELA.

Ekintzak momentu berean gertatzen ari dira, esaldiko bi ekintzen arteko puntualtasuna adierazten da:

Kanpuen bizi zala/zela gertatu zakiyon (Etxarri, Arbizu)

Izketan ai ziñela agertu zan/zen (Etxarri, Arbizu)

“... ta zapatak jentzen aiziala (...), beste anka berak jaso mentzuen” (Lizarraga, G. Solis, 120)

“Gu, mutiko txikiyak giñala, lengo sakristubaaki faten giñen gora, ...” (Arruazu, NEM II, 121)

Basuen giñabiltzela agertu uen (Lizarraga, Gaminde)

Basuen gailtzela agertu zen¹⁴ (Etxarri, Gaminde)

Itxeti atratzen ari zela zakurrek ozka in dio (Uharte, Gaminde)

Mendiyeen giñailtzela aparezittu uen (Lakuntza, Gaminde)

Eldu intzela ikusi yaut (Lakuntza, Gaminde)

- Forma ez-jokatuak: -T(Z)IEN (-t(z)ean), -T(Z)IAKUEN (-t(z)erakoan, -T(Z)EKUEN (-t(z)ekoan), -ERAN.

¹⁴ ‘zan’ izan behar du.

Gamindek Etxarrin baino ez du jaso adibiderik lehen bi morfemen kasuan. Hirugarren morfemarenean, soilik Lizarragako adibidea aipatzen du, eta laugarrenaren kasuan, bai jaso ditu Etxarri, Arbizu eta Lakuntzan. Guk laurak jaso ditugu esparru osoan, eta Olasagarrek¹⁵ ere hala dio bere lanean: “... LARIK /-ENEAN: beti bigarrena. Denborazko beste guztiak (-tzerakoan, -tzekotan, -tzean, ...) erabiltzen dira”.

Etxia etortzien ikus niyan/niyen (Etxarri, Arbizu)
Etxia etortziakuen ikus niyan/niyen (Etxarri, Arbizu)
Etxia etortzekuen ikus niyan/niyen (Etxarri, Arbizu)
Etxetik ateatzien txakurrek eñ doo ozka (Etxarri, Gaminde)
Ateatzeaakuen itxi ataiye (Etxarri, Gaminde)
Etortzeaakuen ikusi duuzut (Etxarri, Gaminde)
Ataatzekuen ataiye itxi zak (Lizarraga, Gaminde)
Etorreran ikus duuzut (Etxarri, Gaminde)
Ataeran itxi ataiya (Arbizu, Gaminde)
Etxeti ataeran zakurrek ozka in zio (Lakuntza, Gaminde)
Ataeran itxi ataiye (Lakuntza, Gaminde)

a. 2. BITARTEAN sailekoak:

- -N BIYERTIEN (-n bitartean)

Ik eitten deken/duken biyertien, guk gosaldu einko yau (Etxarri, Arbizu)
Zuek akaatzen dezubien bittartien ni etxea fanko neiz (Etxarri, Gaminde)
Oi itten duken bittartien, bazkaiye prestatuko diet (Lakuntza, Gaminde)
“Ni, bai, osasuna doten bittertien ni ... jokoot behintzat e, ...” (Arruazu, NEM II, 125)

- -N LAURRIYEN (-n neurrian)

Txuleta eitten dan laurriyen jan ber dik (Etxarri)

- Aditza jokatu gabe: (BIYEN) BIYERTIE(N), BIYERTIO, ARTIO, -T(Z)EKO DENBUAN (bien bitartean, bitarte, arte, -t(z)eko denboran)

Ik ein biyertien gosalduko yau (Etxarri, Arbizu)

¹⁵ Arbizuko euskeraren bilketa, lan argitaragabea, 1991.

Zuk akaatu biyertio bazkaiye, -a prestatukuet, -koot (Etxarri, Arbizu)

Etxia fan artio tabernan (y)onko gaa (Etxarri, Arbizu)

Iruñaa fateko denbuan/denboran illik zikobau/zakau txerriye, -a (Etxarri, Arbizu)

“... labie bildu biyen biyertie, ogyiure etortzen da, ...” (Lizarraga, G. Solis, 121)

Gamindek, bestalde, ondorengoak jaso ditu:

Zek akabatu bittartien ni etxera fanko nok (Lizarraga)

Ik ori iñ bittartien nik bazkaye prepaatuko diet (Lizarraga)

Zuek akaatu bittartien ni etxea fanko neiz (Etxarri)

Zuek oi eiñ bittartien nik prestatuko et bazkaiye (Etxarri)

Oi despeittu bittartien joaen nok itxea (Lakuntza)

Etorri bittartien emen eongo nok (Lakuntza)

Espeatuko diet ik despeittu bittartien (Lakuntza)

Ori in bittartio nik bazkarie prestatuko ut (Uharte)

- ALA (ahala)

Eiñ ala jan ber die txuletak (Etxarri)

Eiñala jan biye txuletak (Arbizu)

Ikusi ala iltzen zittubiek/ttiye muxer guziek (Etxarri, Arbizu)

a.3. GUZIETAN sailekoak.

Maiztasun zentzua ere eransten zaio menpeko esaldiari:

- -N GUZITEN (-n guztietan)

Etortzen dan/den guziten armatzen dik jaleue, -a (Etxarri, Arbizu)

Jokatzen zeen guziten aztatzen zeen (Etxarri)

- -N BAKUITZIEN (-n bakoitzean)

Etortzen dan/den bakuitzien moxkortu eitten da (Etxarri, Arbizu)

Atiatzen gaan bakuitzien zerbeitt gertatu ber (Etxarri, Arbizu)

- -N ALDIERO, -N ALDIYO

Gamindek jasoak aipatuko ditugu:

Etortzen dan aldiro afaiyan gelditzen dok (Lizarraga)

Etortzen dan aldiero zerbait ekartzen dik (Lizarraga)
Etortzen dan aldioro¹⁶ gelditzen da afaltzen (Etxarri)
Etortzen dan aldioro ekartzen dau zerbait (Etxarri)
Etortzen den aldiero afaittea gelditzen da (Uharte)
Etortzen den aldiyo afaltzen gelditzen dun (Arbizu)

- -N ALDIKO

Aurrekoa erabiltzen da gehiago, baina hau ere bai zenbaitetan, Gamindek soilik Lakuntzan jaso badu ere:

Etortzen dan/den aldiko kotxe berriye, -a ekartzen dik (Etxarri, Arbizu)
Etortzen den aldiko afaltzen gelditzen duk (Lakuntza, Gaminde)

- -N BETIYO (-n betiero)

Etortzen den betiyo gelditzen da afaltzen (Arbizu, Gam)

b) Ekintzak, bata bestea baino lehen.

Era ez-jokatuan burutzen dira denborazko esaldi hauek:

- BEÑO (BAÑO) LEN (baino lehen)

Etxia allaatu beño len esan ziebabien (Etxarri)
Bazkaldu baño len garbitzazu eskubek (Etxarri, Gam)
Iazi baño len layoa itxiko diet (Lakuntza, Gam)
Bazkaldu baño len eskubek garbitzak (Lakuntza, Gam)
Gu etorri baño len joan in ittuben (Lakuntza, Gam)

- BEÑO (BAÑO) LEN(A)O (baino lehenago)

Fan beño leno eman naazak/tzan musu bet (Etxarri, Arbizu)
Izi baño lenao ataiye itxi zak (Lakuntza, Gam)

- AURRETI (aurretik)

Etxia allaatu aurreti esan ziebabien (Etxarri)

- ORDUKO

Zuk itz ein orduko etor zan (Etxarri)

¹⁶ 'aldiero' izan behar du.

Txuletak ein orduko jaten zittubabien (Etxarri)
Zuk esan orduko etor zen (Arbizu)

- -T(Z)IAKO (-t(z)erako)

“Ikuskuen, guatziako denak janik!” Inozentzia Markotegi,
Etxarriko transkribaketa.

Eittiako pensa zak aungi (Etxarri, Arbizu)

Izeratzeako¹⁷ itxi zazu leyue (Etxarri, Gaminde)

Bazkaltzen asteako eskuek garbitak (Lizarraga, Gaminde)

- BEIYOON / BEÑO(O)N (bainon)

Baino lehen denborazko menderagailuaren parekoa dugu, eta
guk Arbizun jaso dugu:

Jan beiyoon eskuek garbitu (Uharte, Gaminde)

Argiya izi bayon itxi leyoa (Arbizu, Gaminde)

Argiya izei beñon itxi leyua (Arbizu)

Gu allatuko gattuk zuek fan beñoon! (Arbizu)

c) Ekintzak, bata bestearen ondoren.

c.1. Adizki jokatuekin.

- -NIAKO (-nerako)

Etortzen daniako eiñik uraiko yau (Etxarri)

Etortzen deniako eiñik iruiko ñau (Arbizu)

Allaatu zaniako akatuik zioban (Etxarri)

Txakurrek jaunka itten du otsa aitzen duuneako¹⁸ (Arbizu,
Gaminde)

- -NETI(K)

Ixildubee zioak allaatuaneti (ailegatu denetik) (Etxarri)

Ots bat aitzen deeneti jaunkes asten dek (Etxarri)

Fan zaneti/zeneti ez diau/duu ezee jakin (Etxarri, Arbizu)

- -N ORDUKO

¹⁷ ‘izeraitziako’ izan behar du.

¹⁸ Guk ‘dubeniako’ jaso dugu.

Ez da erabiltzen era jokatuan, bai ordea ez-jokatuan geroxeago ikusiko dugun moduan. Gamindek hurrengo esaldia jaso zuen hala ere:

Zakurrek jaunka itten dik ots bat aitzen duen orduko (Lakuntza)

c.2. Adizki ez-jokatuekin.

- (E)TA

Oso zabaldua dago honen erabilera esparru osoan.

Kotxia itzota aldein ziyen (Etxarri)

Leyua at(i)ata esan zioban/ziyuen (Etxarri, Arbizu)

Dirube artute fan in dok (Lizarraga, Gaminde)

Dirube artuta fan zan (Etxarri, Gaminde)

Dirube artute joan iñ uen (Lakuntza, Gaminde)

- ONDUEN (ondoan)

Guk otorduen inguruan (*bazkal, afal, gosál onduen*) baino ez dugu konfirmatu. Hala ere, Gamindek ondorengoak jaso ditu:

Bazkal onduen fanko gaa etxea (Etxarri)

Lan akai in onduen bazkalduko deau¹⁹ (Etxarri)

Bazkal onduen joaen gaittuk itxea (Lakuntza)

Lan iñ onduen bazkalduko diau (Lakuntza)

- ONDOR(I)EN

Lan in ondoren bazkalduko dieu (Lizarraga, Gaminde)

Jan ondorien faen gaa itxaa (Arbizu, Gaminde)

Lan in ondorien jaen duu (Arbizu, Gaminde)

Jan ondorien garbittu eskubek (Arbizu, Gaminde)

Guk Etxarrin bertan bi eratara, *ondoren / ondorien*, jaso ditugu:

Zuk itzein ondorien etor zan/zen (Etxarri, Arbizu)

Aixe jakinkuek aittu ondoren (Etxarri)

¹⁹ Izatekotan, 'lana akatu onduen bazkalduko diau' edo 'lanak ein onduen ...' izan beharko luke, ez da Etxarrin 'akai' forma erabiltzen, ezta 'deau' aditz forma ere.

- Partizipioa + TA SEITTUN / SEGIDUEN (eta segituan, segidoan)

Alleatu te seittun goatzera fan uen (Lizarraga, Gaminde)

Gaizkittu te seittun il uen (Lizarraga, Gaminde)

Gaizki jarri tte segiduen il uen (Lakuntza, Gaminde)

Etxarri eta Arbizun *segiduen* forma jaso dugu guk ere:

Etxia fan da segiduen guatzia sartu auben (Etxarri)

Etxeti at(i)a ta segiduen gertatu zikiyok/zakiyok (Etxarri, Arbizu)

- Partizipioa + TA GIO (eta gero)

Partidue akaatu ta gio gertatu yen (Etxarri)

Lana ein da gio afalduko yau (Etxarri, Arbizu)

- Partizipioa + TA AGUDO

Ure aittu ta agudo bota zioban (Etxarri)

Kobratu ta agudo gastatu dee (Etxarri, Arbizu)

- Partizipioa + TA BELA / BELEXE (eta berehala/-xe)

Gaizkittu ta beala il tzen (Arbizu, Gaminde)

Kafie akaatu ta belexe sortu zeen geyoo (Etxarri)

Geizkittu ta belexe il zan/zen (Etxarri, Arbizu)

- Partizipioa + ORDUKO

Aipetu orduko emen zieban/zourien denak (Etxarri, Arbizu)

Gertatu orduko entiatu ittuben (Etxarri)

Soiñue aitu orduko ezautu dot (Lizarraga, Gaminde)

Txakurrek jaunka itten dik soiñu at aitu orduko (Lizarraga, Gaminde)

Alleatu orduko oatzera yoan zen (Uharte, Gaminde)

Aaittu orduko ezautu diet (Lakuntza, Gaminde)

Alleatu orduko goatzea joan uen (Lakuntza, Gaminde)

- Partizipioa + BEZIN LASTER (bezain laster)

Aittu bezin laster ezautu duuzut/zeittut (Etxarri, Arbizu)

Allaatu bezin laster sartu zan guatzien (Etxarri)

- ETA GUAIXE (oraintxe) (bezain laister-en zentzua du)

“...; *eta guaixé ikus dau an amiñe, ...*” (Euxebio Markotegi, transkribaketa)

“..., *eta guaixé bero-berue noo, allatzen da ure.*” (Euxebio Markotegi)

- -T(Z)IEKI(N) (BATIA) (-t(z)earekin batera)

Etortzieki goatzea fan zan (Etxarri, Gaminde)

Aitzieki ezautu eiñ det (Etxarri, Gaminde)

Batia partikula agertzen da guk jasotakoetan:

Etortzieki batia guatzia fan zan (Etxarri)

Aitzieki batia pensatu ñet i eizela (Arbizu)

Aitzieki batia ezautuet (Etxarri)

Esatieki batia gertatuek (Etxarri)

- BESTEIK EZ (besterik ez)

Etorri besteik ez, guatzia fan da (Etxarri, Arbizu)

Gertatu besteik ez, jakindu diau (Etxarri)

Aittu besteik ez, ezautuet (Etxarri)

- BERRI(TEN)

Gertatu berri zabaldua (Etxarri)

Ein berriten/berriyen jakitten da (Etxarri, Arbizu)

Ezautu berri itzein ber dik garbi (Etxarri)

Ezkon berriten dena izeten da gozue (Etxarri)

4.4.3.2. NOIZKO, NOIZTIK, NOIZ ARTE GALDETZAILEEI ERANTZUNEZ.

Orain arte ikusitako menperagailuen bitartez esaldi nagusiko aditzaren aurrean egindako noiz galderari erantzuten bazaio, hemendik aurrera *noizko*, *noiztik* eta *noiz arte* galderei erantzuten dieten morfemak aztertzeari ekingo diogu.

a) NOIZKO galdetzaileari erantzuten dioten menperagailuak.

- -T(Z)EN –NIAKO (-t(z)en –nerako)

Akaatzen dezuniako emen yonko gaa beixe (Etxarri) (Akabatzen duzunerako hemen egongo gara berriz ere)

Faten zaniako ederki ein dezakezu dena (Etxarri, Arbizu) (Joaten zarenerako ederki egin dezakezu dena)

- -T(Z)IAKO (-t(z)erako)

Zuk akaatziako emen yonko gaa beixe (Etxarri)

Ori eittiako zartuko yeiz (Etxarri)

“... eta elizeko zeremonioi ittentzan eta gosaya, argitziako eliza eta gio gosaya, ...” (Lizarraga, G. Solis, 113)

“..., klaro bueltan etortziako ata nitzen ni, mutikuei bueltan atatziko, ata nitzen ni etxe aurrekaldionta, ...” (Lizarraga, G. Solis, 117)

Ik akabatzeako etorriko ok (Lizarraga, Gaminde)

Zuk akaatzeako etorko a (Etxarri, Gaminde)

Oi akabatzeako etorriko da (Uharte, Gaminde)

Oi itteako bazkaiya prestatuko ut (Arbizu, Gaminde)

Despeitzeako etorriko uk (Lakuntza, Gaminde)

- ONDORIAKO (ondorerako)

Zuk akaatu ondoriako emen gaude (Etxarri, Arbizu)

Nik esan ondoriako denak zikiyabien (Etxarri)

b) NOIZTIK galdetzaileari erantzunez.

- -NETI(K)

Eztek, -uk ikusi etor zaneti/zeneti? (Etxarri, Arbizu)

Fan dieneneti eztebie ezee jakin (Etxarri)

Etorri zenetik eztiet ikusi (Lakuntza, Gaminde)

- -NESKIOS (-nez gero)

Etor zaaneskios (zaren ezker) *eztuuzut/etzeitut ikusi* (Etxarri, Arbizu)

Fan zaneskios (zen ezker) *eztet ezee aittu* (Etxarri)

Jakindu deteneskios eztet ezee esan (Etxarri)

- ESKIOS (-ez gero)

Etorri eskios eztet, -ut ikusi (Etxarri, Arbizu)

Arbizuko festetan yon eskios eyet ikusi (Etxarri)

“..., beñ gareyoita ellatuskios ez zion iyore de yotek, amarretaskios erretiro ori bei, ...” (Lizarraga, G. Solis, 114)

Etorri ezkeoz eztet ikusi (Etxarri, Gaminde)

Etorrizkeo eztiet ikusi (Etxarri, Gaminde)

Etorri ezkeos eztut ikusi (Arbizu, Gaminde)

c) NOIZ ARTE galderari erantzunez.

- -NIAÑO (-neraino)

Orduen kasuan gertatzen den bezala (*'goizeko lautaño yonko gaa'*), -NERAINO morfema erabiltzen da zenbait kasutan. Gamindek aipatzen duenez Arruitzen bakarrik agertu zitzaion berari: *'etortzen deeneaño emen egoen gaa'*.

Emen geldittuko gaa agertzen daniaño (Etxarri)

Nei dezuniaño utziko diau apustube (Etxarri)

Nei duzuniaño utziko duu apustuba (Arbizu)

- ARTE

Lanien segittuko diau akaatu arte (Etxarri)

Eztie, -a sartuko zu fan arte (Etxarri, Arbizu)

- ARTIEN / BIYERTIE(N) (artean, bitartean)

Zuek etorri biyertie(n) yonko neiz emen (Etxarri)

"..., gio gosaldu eta bazkaye biyertie, arrijiek ematentzian etxetaa, ..."
(Lizarraga, G. Solis, 113)

Etorri artien emen yoonko gaittuk (Lizarraga, Gaminde)

Etorri artien emen eonen naiz (Arbizu, Gaminde)

- ARTIO, -N ARTIO, AIK ETA ... ARTIO (harik eta ... arte)

Geizkittu artio yondu zan jaten (Etxarri)

Nei dezun artio utziko diau apustube (Etxarri)

Aik eta zuk ein artio ez gaa emendi muittuko (Etxarri, Arbizu)

Espeatuko det akaatu artio (Etxarri, Gaminde)

- AIK ETA ... EZ -N -T(Z)EN (harik eta ... ez -n -t(z)en)

Aik eta zuk eztezun eitten ez gaa muittuko (Etxarri)

Aik eta partido guziek ez ttuugun iraazten eztaieu zelebratuko (Etxarri)

- NUNDI TA ... EZ -N -T(Z)EN (nondik eta ...)

Baldintzazko kutsua du erabat, baina *noiz arte* galderari ere erantzuten dio:

Nundi ta bier bezela eztezun esaten ez gaa atiako (Etxarri)

Nundi ta nota onak atiatzen ez ttuken eztakak pagaik (Etxarri)

4.4.4. MODUZKO ESALDIAK.

- -N BEZELA (-n bezala)

Etor zaan bezela fan berko zaa (Etxarri, Arbizu)

Esan diaun bezela ein berko diau (Etxarri)

In diau ik esan doken bekela (Lizarraga, Gaminde)

Lana ein det zuk esan niezun bezela (Etxarri, Gaminde)

Orrek itzitten du nai duben bezela (Arbizu, Gaminde)

Ein diau ik esan duken bezela (Lakuntza, Gaminde)

Bazkarie prestatzen du amak esan duen bezela (Uharte, Gaminde)

- -N MO(D)UBEN (-n moduan)

Etor zaan mo(d)uben fan berko zaa (Etxarri, Arbizu)

Esan diaun moduben ein berko diau (Etxarri)

- -N ERAN

Esan diaun eran ein berko diau (Etxarri)

Etor zan eran kriston zaplastakue eman zoon (Etxarri)

Elduan eran zaplastakuat eman diot (Arbizu)

Allaatu zan eran eman zoon bi musu (Etxarri)

Azkeneko bi esaldietan ikusten den moduan, batzuetan denborazko zentzua ere har dezake menperagailu honek.

- -N LEGIA (legera) / MODUE / ERAA (modura / erara)

Esan debien/dubien legia dena gezurre, -a da (Etxarri, Arbizu)

Jokatzen ai zaan legia eztakazu ezee eittekoik (Etxarri)

Ein zeen/zuben modue, -ra oso zeille zan/zen (Etxarri, Arbizu)

Iraaz(i) zeen eraa bakarrik iraa zezakeban (Etxarri)

- -N KISEN (-n gisa)

Esan debien/dubien kisen ezin da siñistu (Etxarri, Arbizu)

Beti nei dezubien kisen aitzen zarie (Etxarri)

- -N BEZELAKUE,-A / MOUKUE, -A / ERAKUE, -A / KISEKUE, -A (-n bezalako/moduko/erako/gisakoa)

Esan ziñuben bezelakue, -a ikus giñuben (Etxarri, Arbizu)

Yos diaun moukue da orkuoi (Etxarri)
Oosi duun moukua da orkuoi (Arbizu)
Goizien agertu dan kisekue dek ori dee (Etxarri)
Esan dezubien erakuek ttuk or deenak (Etxarri)

- -NES (-nez)

Esaten debienes/dubienes oso onak ttuk (Etxarri, Arbizu)
Ematen deenes ezkie denak etorri (Etxarri)
Dakizunes Osasunek irraazi ein dau (Etxarri)
Esan duenes etorko ttuk (Lizarraga, Gaminde)
Esaten debienes etorko die etxea (Etxarri, Gaminde)
Aaitzen denes etxie saldu iñen die (Lakuntza, Gaminde)

- -TAKO MO(D)UBEN (-tako moduan)

Yositako mo(d)uben saltzen dubet/diet (Etxarri, Arbizu)
Aik esandako moduben gertatu dek (Etxarri)

- -AN ARUA (-ren arabera)

Esaten ziñubenan arua ezetteken gertatu (Etxarri, Arbizu)
Ematen doobienan arua gastatzen dau (Etxarri)

- -LA

Nua fan ez dakiyela doo/dau (Etxarri, Arbizu)
Buubai aldiatia ta bestia eitten doola geldittua (Etxarri)

- BA- ... BEZELA

Abiatsa balitz bezela daille (Etxarri, Arbizu)
Dena balaki bezela ibiltzen da (Etxarri)
Orrek itzitten dik balaki bekela (Lizarraga, Gaminde)
Orrek itziten du balaki bezala (Uharte, Gaminde)

- BIGERREN²⁰ (bigarren)

Oso aungi kantatuau Frantxikok gaur, bigarren Luis Mariano (balitz)
 (Etxarri)

²⁰ MITXELENA (OEH, 279): “Bigarren, doble, copia o réplica de una persona”. Eta beste batzuen artean halako adibidea jartzen du, Etxarrin daukan erabilera berekoa: “Hartarakotz bada orai ezta ikhustea baizik hunek [Axularrek] egin zuen liburu ttipi handia, bigarren Thomas a Khempis Eskual –Herrikoa”.

Aparneka, bigerren ontto kaporiyan modue (balitz) dek (Etxarri) (Bixente Gillen²¹)

- -S (-z)

“Ogi puskat ezin sortus, ardo pixkat ezin urais (bizi zien)” (Mikaela Mauleon, Etxarri)

Eskubek alkarri emanek konpondu die (Etxarri)

- TA/-DA

Eskubek alkarri emanda konpondu die/dia (Etxarri, Arbizu)

Arduatzuk alkarreki artuta a(d)ixkidetu die/dia (Etxarri, Arbizu)

- -IK

Itxixetuik ibillia azken aldiyontan (Etxarri)

Labankazos josiik utzi zebien/zubien bide baztarrien (Etxarri, Arbizu)

“..., aittuik uraikuezu, beye ...” (Inozenzia Markotegi, transkribaketa)

- -T(Z)EN

Gazteñek jaten pasatu diau/duu negu ososue, -a (Etxarri, Arbizu)

Askotan gorriyek ikusten ikesten da (Etxarri)

- ESPERUEN (esperoan)

“Beste zortzi egun esperuen neiko bazikonet!” (Inozenzia Markotegi, transkribaketa)

4.4.5. ESALDI KONPARATIBOAK.

4.4.5.1. MAILA KONPARATZEN DENEAN.

Hiru esaldi konparatibo mota bereiziko ditugu kalitateari erreparatuz:

- a) Berdintasuna adierazten dutenak.
- b) Desberdintasuna adierazten dutenak.
- c) Bestelakoak.

²¹ Nolakoa den jateko orduan ‘aparneka’ (Lepiota procera) ziza adierazteko, Bixente Gillen-ek esandakoa dugu hau. Oso biguina omen da jateko.

a) Berdintasuna.

- BEZIN (bezain)

Ni i beziñ ona n(i)ok (Etxarri, Arbizu)

Zuk beziñ aungi ein diau (Etxarri)

Guu etxie zuena beziñ aundiye dek (Etxarri)

Zuk esan dezuna/duzuna beziñ motza esan diau/duu guk (Etxarri, Arbizu)

Aik ekar ttubienak bezin polittek die floriok (Etxarri)

Oi zuk ikusi uzun bezin aundiya da (Arbizu, Gaminde)

- NOLAKO (-N), ALAKO

Aitte nolakue, -a, semie, -a olakue, -a (Etxarri, Arbizu)

Nolako astakeyek eitten dien gaztetan, alako ajiek izeten die gio (Etxarri)

- AIN ..., NOLA ... (hain ..., nola ...)

Ain zeille dek ik ori eittie, nola yorrek onartzie (Etxarri)

Ain txintxube, -a da mutikuau, nola bestioi (Etxarri, Arbizu)

b) Desberdintasuna.

- BEÑO ... –OO (baino ... –ago)

Ni i beño lotsatiyoo niok/nouk (Etxarri, Arbizu)

Ori zu beño zikiño da (Etxarri)

“Guu aittune uste beño lixtuo auben” (Inozenzia Markotegi, transkribaketa)

“... eta andrie ezin beño kontentubo autzi zuen eta denok pazkuek beño kontentubo giñon, ...” (Lizarraga, G. Solis, 118)

- -OOKUE(K) (-agokoak)

Txikiyokuek dee ikus zittubau/ttiau (Etxarri, Arbizu)

Ezin polittokue den libuboi (Etxarri)

“..., zeñ beño zeñ polittokuek ziana” (Lizarraga, G. Solis, 115)

“... opille dee beño txikiyokuek” (Lizarraga, G. Solis, 122)

- ZEIN BEÑO ZEIN ... –OO (zein baino zein ... –ago)

Zein beño zein tenkorroo zien (Etxarri, Arbizu)

Zein beño zein obio dan nei debie jakin (Etxarri)

c) Bestelakoak.

- ZENBATENES -OO ... (-N), (ORDUBEN DA) (-OO)
(zenbatenez -ago ... (-n), (orduan) eta -ago)

Zenbatenes abiatsoo neizen, (orduben da) obekiyoo bizi neiz
(Etxarri, Arbizu)

Zenbatenes goroo itzo(tzen dan), (orduben da) argiyoo ikusten da
(Etxarri)

Zenbatenes geyao ekartzen doken da obe (Lizarraga, Gaminde)

Zenbatenes geyoo ekartzen dezun da obeki (Etxarri, Gaminde)

Zenbates gorao zoren ikusiko uzu obeki (Arbizu, Gaminde)

Zenbatenes geyo ekartzen duken ta obe (Lakuntza, Gaminde)

Zenbatenes geyo ekartzen duzun obe (Uharte, Gaminde)

- (AIK ETA) ... -OO, (ORDUBEN) TA ... -OO (harik eta ... -ago,
orduan eta -ago)

Zarroo ta bierroo (Etxarri, Arbizu) (Zaharrago eta beharrago)

(Aik eta) txikiyoo, (orduben) ta polittoo (Etxarri)

- GIO TA ... -OO; GERUEN DA ... -OO (gero eta ...-ago; geroan
eta ...-ago)

Gio ta geyoo ai da aunditzen (Etxarri, Arbizu)

Geruen da geyoo ai da aunditzen (Etxarri)

Gio ta gutxiyoo nabaitzen dakiyo kanpotarra dala (Etxarri)

Umie gio ta ederroo dakazubie (Etxarri)

- ... BEÑO ...-OKUE(K) (... baino ... -agokoak)

Geiztue, -a beño geiztuokue, -a ai da bueltatzen (Etxarri, Arbizu)

Zuen alaboik ederrak beño ederrokuek jar dazkizubie (Etxarri)

- ZEIN BEÑO ZEIN ... -OKUE(K) (zein baino zein ... -agokoa(k))

“..., beia nik iru erregioigena, zeñ beño zeñ polittokuek ziana, ...”
(Lizarraga, G. Solis, 115)

- (...) KUANTO ... (-ELA)

Itzeitten d(a)u kuantu dena balaki/dakiyela! (Etxarri, Arbizu)

Kuanto erritti sekule atia ez dala ematen dau! (Etxarri)

Kuanto basuen aizala indiyuein bat oo! (Dorraoko transkribaketa)

- LENOO ... ZE ... (lehenago ... zer ...)

Guu meye mei onratu, lenoo lertu ze sobratu! (Etxarriko esaera)
Lenoo asikueiz i lanien ze bia! (Etxarri)

Eta Uharteko dotrinan horrela esten da:

“E. Lenago nai icetie mundu gucie galdu ece Jaungoycua ofendiyu” (Bonaparteren ondareko eskuizkribuak, 614)

4.4.5.2. KANTITATEA KONPARATUZ.

Aurrekoen kasuan bezalako esaldi motak ditugu:

a) Berdintasuna adieraziz.

- AIÑE, -A (adina)

Zuk aiñe, -a ezt(a)u emen iyorek eitten (Etxarri, Arbizu)
Mikelek Patxik aiñe urte zizkon (Etxarri)

- -N AIÑE, -A (-n adina)

Zuk eittzen dezun/duzun aiñe, -a ezt(a)u emen iyorek eitten
(Etxarri, Arbizu)
Mikelek Patxik dazkan aiñe urte zizkon (Etxarri)
Ekarri diet amak esan duena aaiñe (Lizarraga, Gaminde)
Ekar det amak esan duuten aaiñe (Etxarri, Gaminde)
Ekarri ut amak esan ditten aaiña (Arbizu, Gaminde)

- (-N) AINBET ((-n) hainbat)

Zuk ainbet ezt(a)u emen iyorek eitten (Etxarri, Arbizu)
Ik ainbet eitteko eztik asko bier (Etxarri)

b) Desberdintasuna adieraziz.

- BEÑO ... GEYOO / GUTXIYOO (baino ... gehiago/gutxiago)

Ik beño diru geyoo zikobet/zakat (Etxarri, Arbizu)
Etxionek bestiorrek beño leyo gutxiyoo zizkok (Etxarri)
Begiyen zaborra beño gutxiyoo nei yet ikustie ori (Etxarri)

c) Bestelakoak.

- ZENBAT ETA ... GEYOO / GUTXIYOO, (ORDUBEN DA) – OO (zenbat eta ... gehiago / gutxiago, (orduan eta) –ago)

Zenbat eta diru geyoo urai/irui, (orduben da) geyoo gastatu (Etxarri, Arbizu)

- ZENBAT ETA ... GEYOO / GUTXIYOO –N, (ORDUBEN DA) –OO

Zenbat eta gogo gutxiyoo dakaten, (orduben da) geyoo ein bier izeten yet (Etxarri)

4.4.6. HELBURUZKO ESALDIAK.

- -T(Z)EKO

Esaldi finalak edo helburuzkoak burutzeko morfemarik erabiliena dugu, Etxarriko haur kanta honek erakusten digun moduan:

‘Xegundilla kuxkur / aitte tama nun ttuk? / errotapien! / zertan? / txotxa biltzen! / txotxa zetako? / sube eitteko! / sube zetako? / amin zarrak biotzeko! / amin zarrak zetako? / olluei jana emateko! / olluek zetako? / arrontzak jartzeko! / arrontzak zetako? / apezai emateko! / apeza zetako? / ...’

Au yoos diet aurrai emateko (Lizarraga, Gaminde)

Au yoos det aurrai emateko (Etxarri, Gaminde)

Fan neiz tiendaa ator bat oosteko (Arbizu, Gaminde)

- -T(Z)EKOTAN

Biyer goizien eittekotan geldittu die/dia (Etxarri, Arbizu)

Li laun guziek ezkontzekotan emen zailtziek (Etxarri)

Etxe berriye eittekotan emen dailtzie Meixtrubenekuek (Etxarri)

- -T(Z)IETI(S) / -T(Z)IATI(S) (-t(z)eagatik)

Egunon esan duuzut/dizut zerbeitt esatietis/esatiatis (Etxarri, Arbizu)

Gaubien atiatzietis ibildua ain txintxu (Etxarri)

Partidue ikustietis etor neiz goizter (Etxarri)

4.4.7. ESALDI KAUSALAK.

- -LAKOS (-lako(tz))

Kanpuen geldittu zien biandu etor zielakos (Etxarri, Arbizu)

Ezen ein denbora ezakalakos (Etxarri)

“..., batién santuba sartu zubela errekaa sekoa ziolakos ...” (Arruazu, NEM II, 123)

Gaur astelena dalakos fan nok lanea (Lizarraga, Gaminde)

Ezta etorri beandu dalakos (Etxarri, Gaminde)

Eztut iñ lo kafía ean dutelakos (Arbizu, Gaminde)

Eztuk etorri beandu delakos (Lakuntza, Gaminde)

- -LA TA

Ez giñen abiyetu biandu izenko zala ta (Etxarri, Arbizu)

Denboraik ezakala ta ezeen ein (Etxarri)

Enaiz etorri beandu izango dela ta (Uharte, Gaminde)

- TA

Ezeen ein, denboraik ezakan da (Etxarri)

Azkeniako ez giñuben yoosi, gastíye zan da (Etxarri)

- BEI(T) (bait)

Mundu guziek ereitten zeen/zuben gariye/a, ordubén dirube/a ematen beizeen/beizuben (Etxarri, Arbizu)

Ezan (i)billeraa fan, ezpeizakiyen bazoonik (Etxarri)

Eztie iye etxeti atiatzen, zarrak beitie (Etxarri)

“Paotei lodi ta abarsu aik estalpe ona ematen baiziobien, ...” (Blas Alegria, Lakuntzako Pertza, 143)

Eta Uharteko dotrinan ere, Kredoan hain zuzen ere, horrela agertzen zaigu:

“Nic siñestacen dut Jangoyco Aita guztis poderoso, ceruberén eta lurreren criadorearen baiyen, arren seme bacar Jesu Christo gure Jaunaren baityen, ceñ concebiyu baicen Espiritu Sanduberen obras eta virtutes, ...” (Bonaparteren ondareko eskuizkribuak, 603)

- -T(Z)IETI(S), -T(Z)IATI(S) (-t(z)eagatik)

Gauzek bier bezela ez eittietis/eittiatís, atía bee geldittu die/día (Etxarri, Arbizu)

Garais ez etortzietis bazkaldu bee geldittu zan (Etxarri)

“... *gutxines irurogei kilometro in kabinat arrapatzia, jakittati nola zion ...*” (Lizarraga, G. Solis, 120)

Berdura jaten diet ez gizontzeatik (Lizarraga, Gaminde)

Presaka ibiltzietis bota in da (Etxarri, Gaminde)

Ez afaltziati fan dia (Arbizu, Gaminde)

Presaka fateati bota in naiz (Uharte, Gaminde)

- -N ESKIOS (-nez gero)

Emen gauden eskios ikus berko diau/duu (Etxarri, Arbizu)

Asi zaan eskios akaazazu (Etxarri)

- NOLA ... -N

Nola kanpokue dan/kanpokuan, eztaki auskias (Etxarri, Arbizu)

Nola ezaan sekule yoondu, eztakizu nolakue dan (Etxarri)

Oi kanpokue nola den eztaki euskeaz (Lakuntza, Gaminde)

- NOLABEITT ... -N²² (nolabait ... -n)

Guk Ergoiena, Arbizon eta Etxarrin jaso ditugu menderagailu honen adibideak, baina azterketa eremu osoan dago hedaturik:

Nolabeitt ez dakiyen ixilik geldittua (Etxarri, Arbizu)

Nolabeitt biandu etor dan ez dau afalduko (Etxarri)

“... *eta guk nolabett in giñuen ezkontza batez beste, (...), an geldittu zian, ...*” (Lizarraga, G. Solis, 113)

“*Ta nolabaitte hemen Sakanan eztien nolanahi ikusten, da halako gauz o animeli bereziye dan, ba, nolabaitte etzakan problema haundiik erreportaje hoy eittia(k), nolabaitte ux garbitan den, da erreka ttikiten, da eztia asko mugitzen, ba, erraza dala, horreati aukeratu giñuben hori.*” (Etxarri, NEM I, 17)

- ZENGATI ... (-N) (zerengatik ... (-n))

Asarre jarria zengati biandu etor dakiyo(n) (Etxarri)

Ori esan det/dut zengati len zuk berdiñe, -a esan dezun/duzun (Etxarri, Arbizu)

Yaaman zazu paraguasa zeengatik ematen deen auriye in ber deela (Etxarri, Gaminde)

Eneiz etorri zengati beandu dan (Arbizu, Gaminde)

²² Horrela agertzen dute ‘Nafarroako Euskara multimedia bidez’ (CD-Rom, 1997) Nafarroako gipuzkeraren sintaxi mailako 50. ezaugarrian: “*Nolabaitte* (adizkian *-n* duela) euskalki honetako juntagailu eskusiboa da, Etxarrin behintzat ...” Eta adibide moduan NEM I-eko bi azaltzen dituzte.

“..., hure fateako al duten lan guzie in dot, zengati ni, gaztetati hasi eta goai bittartien beti sorun ibili naizen ...” (Lizarraga, NEM I, 37)

Uharteko dotrinan asko dira honelakoak:

“..., au da onai emanen dio vere glorie cergati guardatu ciyuben arren mandamentubek, eta gaiztoai seculaco pena, cergati guardatu eciyuben” (Bonap. Ondar. Eskuiz., 605)

“G. Cergati? E. Cergati den Cristo Crucifiquetuberen figure, ...” (Bon. Ond. Esk., 606)

4.4.8. BALDINTZAZKOAK.

- -T(Z)EN (BALIN) BA-, ... -KO /-EN

Baldintza errealak burutzeko erabiltzen da.

Eitten (balin) beezu/baazu paatuko duuzut/dizut (Etxarri, Arbizu)

Etortzen (balin) baa emanen doogu (Etxarri)

Ekartzen bauuk ori etxera yaamanen diet (Lizarraga, Gaminde)

Ori ekartzen bezu nik yaamanen det etxera (Etxarri, Gaminde)

Oi ekartzen badiezu eamaen dut itxaa (Arbizu, Gaminde)

- -KO BA-, -KO -KE

Baldintza irrealak burutzeko.

Sanfermiñetaa fanko banitz bertan geldittuko nitzeke (Etxarri, Arbizu)

“... ni guai fanko banitzeke ure saltokan asiko litzeke, ...” (Lizarraga, G. Solis, 119)

Ik ekarko bauke ori guk yaamanen giñikek (Lizarraga, Gaminde)

Basoa fanko balieke galdu inko lieke (Etxarri, Gaminde)

Eualdi ona iñen baluke faen giñeke basoa (Arbizu, Gaminde)

Mendie joaen balie galdu eiñen littuzkek (Lakuntza, Gaminde)

- BA- , -KO iragana

Iraganeko formak burutzeko.

Ein baziñu eziñuben guai ezee aittuko (Etxarri, Arbizu)

Garais etor baziñe ederki bazkalduko ziñuben (Etxarri)

Etxera fan bagiñe ikusiko giñourien (Lizarraga, Gaminde)

Etxea fan bagiñe ikusko giñuben (Etxarri, Gaminde)

Itxea joan bagiñe ikusko giñian (Lakuntza, Gaminde)

- ESKIOS (-ez gero)

Zui esaneskios erri guzie entiatukua (Etxarri, Arbizu)

Egueldi ona eiñeskios basua fanko gaa (Etxarri)

“... eta ateye zabalik yoneskios, telefonuan otsa aungi aitzen da, ...”
(Lizarraga, G. Solis, 119)

- -T(Z)EKOTAN

Etortzekotan aungi afaltzeko da (Etxarri)

Zinia fatekotan belexe atia berko gaa (Etxarri)

- -T(Z)IA(S) (-t(z)era)

Jakittia(s) eneen/enuben einko (Etxarri, Arbizu)

Izetia(s) zuk esan dezun bezela (Etxarri)

Ezere ez gertatzias, erraz irazko dik! (Etxarri)

- BALDIN ETA ... BA-

Baldin eta ori eitten beezu, ezaa geyoo guukin etorko (Etxarri)

Baldin eta ezpeezu ori eitten, ez gaa beixe juntetuko (Etxarri)

- NUNDI TA ... BA- / -N (nondik eta ... ba- / -n)

Ori ez da gertatuko, nundi ta zuek ez badoozubie launtzen (Etxarri)

Ori ez da gertatuko, nundi ta zuek launtzen eztoozubien (Etxarri)

- -ELA²³

Ezere gertatzen ez dakiyola, erraz irazko dik! (Etxarri)

Gauzek bier bezela eztakiyela sartuko doozubie ziriye! (Etxarri)

Aur txikiye zueki daamazubiela, eztuuzubie pegaik jarriko! (Etxarri)

4.4.9. ESALDI KONTZESIBOAK.

- (BALIN) BA- ... DEE ((baldin) ba- ... ere)

Politte (balin) baa dee, eztakit batee gustetzen (Etxarri, Arbizu)

Mozkortuik (balin) badoo dee, eztau gezurrik esaten (Etxarri)

Eztiot emango belauniko eskatzen baduut ere (Lizarraga, Gaminde)

Ongi ezpadoo de baliyo au (Etxarri, Gaminde)

²³ Miren AZKARATE (1999, 964): “Kontua da, gure eskuetatik hamaika liburu eta gramatika pasa arren, oraindik ez dugula ikusi baldintzazko “-ela”ri buruz ezertxo ere”.

Kotxien faten bagaa re ya ezkaa alleatzen (Arbizu, Gaminde)
Etorko balitz goizta re ezkiñikek alleatuko (Lakuntza, Gaminde)

- NEIZ ETA (nahiz eta)

Neiz eta politte, -a izen, eztakit batee gustetzen (Etxarri, Arbizu)
Neiz eta biandu etorri, betiko ordubon jaitzen da (Etxarri)

- BEYE/BEYA (baina)

“... hemen ezan zan apez hoi de, horra, nik enuen ikusi beia” (Lizarraga, NEMI, 41)

“Garei betien, zek eztezie ezautu beia, egosi itten zian lixuek” (Lizarraga, G. Solis, 112)

“Goien malkorrien ataaten da utsa, izugarrizko utsa ataaten da, oain gutxi etorko da beia” (Unanu, NTM)

Len, guk eyau ikusi olakoik beye, lixube eitten ziyabien (Etxarri)

- -AATI(S) (-agatik)

Politte, -a izenaati(s), eztakit batee gustetzen (Etxarri, Arbizu)

Zuk ola esanaatis, ezan olexe gertatu (Etxarri)

Ontto gutxi yonaati, beti zerbeitteki etxia! (Etxarri)

- -NA –AATI(S) (-ena –agatik)

Bia dana izenaatis, ez ziobau dena utzi ber. (Etxarri)

Yonduana yonaatis, eztek ezee aldatu. (Etxarri)

J.M. Arakamak ere horrelakoak aipatzen ditu Uharteko dotrinan:

“Egitura kontzesiboen artean: naiz icen (10), hienagati ere (20) bildu ditugu. 21. orrialdeko zu zarena icenagati esamoldea, aldiz, kausazko egiturei hurbiltzen zaiela dirudi” (1994, 586)

Eta jarraian ondorengo ohartxoak gehitzen du:

“Halaber, cf.: Ultzam.: zu norzarena icenagatic ASJU, 1992, 958; Etxarriko eta Urdaingo dotrinak: zu (nor) cerana izanagatic; ...”

- -LA DEE (-la ere)

Biandu etortzen dala dee, agudo jaitzen da goizien (Etxarri)

Geyei yan deela dee, ezta iyorekin sartzen (Etxarri)

- Partizipioa + -TA DEE (-ta ere)

Biandu etorrita dee/re, agudo muitzen da (Etxarri, Arbizu)
Geyei yanda dee, ezta iyorekin sartzen (Etxarri)

- *Partizipioa + -IK EE (-ik ere)*

Yanik ee, eztakiyo nabaitzen (Etxarri)
Aspertuik ee, bee lanien segittukuau (Etxarri)

4.4.10. ESALDI KONTSEKUTIBOAK.

- *AIN ..., -LA (hain ..., -la)*

Ain inoxentie, -a da, denak farra eitten doobiela/diyuela (Etxarri, Arbizu)
Ain luzie izendu zan bidie, erabat nekatuik akaatu neela (Etxarri)

- *AIN ..., ZE ... (-N) (hain ..., ezen ... (-n))*

Ain inoxentie da, ze denak farra eitten doobie(n)/diyue (Etxarri, Arbizu)
Ain luzie izendu zan bidie, ze arraso nekatuik akaatu neen (Etxarri)

- *AUNBESTE ..., ZE ... (hainbeste ..., ezen ...)*

Aunbeste jaten d(a)u, ze dirube, -a eztakiyo allatzen (Etxarri, Arbizu)

- *AUNBESTE ..., ... -LA -T(Z)EN (hainbeste ..., ... -la -t(z)en)*

Aunbeste kafe artzen d(a)u, ezteela/eztubela bier bezela lo eitten (Etxarri, Arbizu)

- *GIOS (geroz)*

Oso biandu etor yeiz, gios eyeiz biyer atiako.
Geizki jokatu zian, gios ezioban ezee eitteik.

Uharteko dotrinan agertzen da partikula hauxe behin baino gehiagotan:

“G. Gueros nor da Jesucristo?” (Bon. Ond. Izk., 609)

“G. Gueros, cembat gauce bier dire confesio onbat eguityeco?” (Bon. Ond. Izk., 622)

- *ORDUBEN (orduan)*

Oso biandu etor yeiz, orduben eyeiz biyer atiako.
Geizki jokatu zian, orduben ezioban ezee eitteik.

5. LEXIKOA

Autore asko izan dira lexikoaren aldagarritasuna azpimarratu dutenak. Horien artean K. Mitxelenak (1976) aipatzen digu oso aldakorra dela lexikoa, H.A. Gleason-ek (1973) bezala, zeinek ohartarazten baitigu lexikoaren etengabeko aldakuntzaz. Eta bide beretik doakigu L. Hjemlev (1976), hitzak etengabe aldatzen ari zaizkigula esaten digunean.

Guk ere halako ustea barneratu dugu, herriz herri ibili garenean galdetegiak pasatzen eta grabaketak bideratzen. Lexikoaren atal honi dagokionez, izugarria izan da jaso dugun emaitza, hitzak barra-barra sortu baitzaizkigu itaundutako aitona-amonen ahotan. Eta gainera dezakegu asko eta asko izango direla galduko direnak, azken hogeita hamar urteetako bizimoduaren aldaketaren eskutik. Sanchez Carrión-ek ere antzeko zerbait esaten digu Etxarriri dagokionez duela ia hogeita hamar urte:

“El vasco de Echarri-Aranaz es de un léxico notoriamente empobrecido debido a su contacto con el castellano y a su ligazón a una determinada temática (lo que va reduciendo su caudal expresivo).”
(José M^a Sánchez Carrión, *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra*, (1970), F.L.V. 37, 19-97, Pamplona 1972).

Horrela, beraz, esan bezala, orain arte Sakana erdialdeko hizkeren buruz egindako lanetan jaso ez den hitz asko agertu zaigunez, eta kontuan izanik lan honetako helburu espezifikoa ez dela hiztegi bat osatzea, beste baterako utziko dugu altxor preziatu hau jasotzeko eginkizuna. Eta oraingoan azterketa esparruaren inguruko hizkerekin (Burunda, Goierri, Ultzama, Arakil, Goñerri, ...) parekatzeko emaitzak baino ez ditugu jasoko.

Honetaz gain, Nafarroako zenbait lurraldeetako lexikoari buruzko monografiak eta beste lan orokor batzuk izan ditugu kontuan, hala nola Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*, Etxaide-ren *Erizkizundi Irukoitza*, R. M. Azkueren “*Diccionario vasco-español-francés*”, *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa*, J. M. Iribarrenen *Vocabulario Navarro*, M. Izetaren *Baztango Hiztegia*, *Euskal Dialektologiaren Hastapenak* laneko lexikoaren atala, K. Izagirrearen *Altsasuko Euskeraren gai batzuk*, R. Carasatorrearen *Barranca-Burunda*, ... Eta denbora gutxi izan badugu ere horretarako, argitaratu berria baita urte honetan, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlas*a-ren Dorrao eta Arbizuko emaitzak kontuan izan ditugu.

Metodologiari dagokionez, esan behar dugu ez dugula jarraitu aipatu lanetako inongo galdetegi zehatzik. Alor semantiko zenbait aukeratu eta azterketa esparruko herri guztietan jaso ditugu emaitzak, elkarren artean alderatu eta ondorioak ateratzeko, isoglosa lexikoren bat ezartzeko asmoa eta guzti. Hala ere, azpimarratu nahi izan dugu, posible izan den neurrian, gipuzkera eta nafarrera, edo K. Zuazoren *Euskalkiak*, *gaur* lanaren ondorioz, Euskal Herriko erdialdeko hizkera eta nafarrera-ekialdeko hizkeren alderaketa lexikoa, beti ere azterketaren helburu nagusia, Sakana erdialdeko hizkerak euskalki berekoak direla, finkatu asmoz.

5.1. ALOR SEMANTIKOAK.

Eta aipatu alor semantiko horiek ondorengoak izan ditugu:

- Denbora eta eguraldiarekin lotutako lexikoa: astea, hilabeteak, urtaroak, denbora aditzondoak, urteko egun edo jai eta ospakizun berezien izenak eta eguraldia.
- Senidetasuna, etxea: senidetasun izenak, etxea eta arropak.
- Gorputz atalak, gaisotasunak, erremedioak.
- Nekazalga: tresnak, laboreak, lanak, loreak, belarrak.
- Azienda, produktuak eta lanak.
- Hegaztiak eta gainerako animaliak.
- Basoa eta zenbait lanbide: zuhaitzak, perretxikoak, lanak, lanbideak.
- Haur hizkuntza.
- Kolpeen izenak eta beste zenbait hitz.

5.1.1. DENBORA ETA EGURALDIAREKIN LOTUTAKO LEXIKOA.

a) Asteko egunak:

Esparru osoan erabiltzen dira hitz berberak, asimilazioaren gorabeherak soilik desberdintzen dituelarik:

astelena, *ast(i)e(a)rtie (-a)*, *asti(a)zkena*, *ostegune (-a)*, *ostielie (-a)*, *launbeta*, *iyendie (-a)*.

b) Hilabeteak:

Homogeneotasun handiko emaitzak ditugu Sakana erdialde osoan hilabeteak izendatzerakoan:

Ilbeltza

Otseille¹, -a, otsailla (Arb), ***otseilla*** (Lak, Arr, Un)

Marsube, marsuba (Arb, Arr, Do, Un), ***martxua*** (Lak)

Apibille, apibilla (Arb), ***apirilla*** (Lak, Uh), ***apribilla*** (Arr)

Meyetza, mayetza (Arb), ***meyatza*** (Lak)

Garagarzarue, -a, garagarrilla (Arb), ***-e*** (Lak)

Garille, -a

Aguztube, -a, abuztuba (Lak, Arr)

Urriye, -a, iraila (Arb)

Lasteille, -a, urrilla (Arb)

Azarue, -a (Arb, Lak)

Abendube, -a, -bua (Arb)

c) Urtaroak:

*Udaberriy*e (-a), *ude* (-a), *udatzena*, *negube* (-a) (-bua).

d) Denbora aditzondoak:

Gaur, *biyer*, *atzo*, *yaniaun/aanion/eraniaun* (herenegun), *etzi*, *etzidamu* (etziren hurrengo), *yaniaun auntzitti / aanion etzitti* (herenegun aurrekoa), *bart*, *guaixe* (oraintxe), *gio* (gero), *bela/beleixe(ko)* (berehala/berehalaxe(ko)), *segiduen* (berehala), *lenbeilen* (lehen bait lehen), *lentxoo* (lehentxoago), *aaztiyen* (Arb) (arestian), *goizien*, *eguerdiyen*, *atsaldien*, *gaubien / gobien*, *illuntzien*, *gosalonduen* (gosaldu ondoan), *argisentiyen/gareisentiyen* (Arr) (argitzerakoan), *egun da Jesukristo* (sekula), *sekule, -a*, *atzenien*, *azkenien*, *sarri*, ...

Egun da Jesukristoti eztiñet esan oi! (Arbizu)

¹ Josetxo Artieda Arbizu etxarriarrak esan digunez, ba omen zen, garai batean, ardiak Urbasa mendira behar baino lehen eraman nahi zituen artzaina. Eta berak, esan bezala, otsaila bukatu baino lehen igo zituen, azken egunean bere ustez, 28an alegia. Ardiak bertan utzi eta horrela esan omen zuen: “***Otsailko, Otsailko! Ibilko ttuk iigati nee ardiyek mendiyen salto ta brinko!*** Baina ez zuen kontuan hartu, nonbait, urte hartan otsailak 29 egun zituela eta, hurrengo egunean, izugarritzko elurtea egin eta ardirik gabe gelditu omen zen gure artzaina.

e) Urteko egun edo jai eta ospakizun berezien izenak:

<i>aittun aundiya, amin txikiya</i>	Ihauteetako pertsonaiak Arbizun. Igande arratsaldean soka lodi eta luze (<i>tokara</i>) batetik zintzilikaturik egoten dira <i>txatarrek</i> harrapatu eta su eman arte.
<i>andrekunde</i>	Ihauterietan, emakumeen afari eta festa.
<i>astegune, lanegune</i>	Igandea ez beste egunak, garai batean. Arbizun <i>astroona</i> esaten diote.
<i>austerre egune</i>	Hausterre eguna.
<i>azaroafai</i>	Garia erein ondorengo afari berezia etxean.
<i>benduafai</i>	Afari-merienda
<i>domine santu egune</i>	Santu guztien eguna.
<i>erlanardo</i>	Ezkondu aurreko igandean, ezkontideen etxeetan, bisitariei ematen zitzaien ardoa, gozoa normalean.
<i>erramu egune</i>	Garizumako igandea. “ <i>Erramu beruek itto, ta Lazaro otzak il</i> ”.
<i>fe(r)iyek</i>	Feriak. Etxarrin, urriaren lehen asteburuan. Arbizun, bokal arteko dardarkari xamurra erortzen da, <i>feiyek</i> .
<i>festak</i>	Festak, jaiak.
<i>gaizime, -a</i>	Garizuma. Arruazun <i>gaizuma</i> .
<i>garikunde</i>	Ihauteetako eguna.
<i>gizekunde</i>	Ihauterietan, gizonen afari eta festa.
<i>inoxente egune</i>	Inozenteen eguna.
<i>iyotie</i>	Ihauteria. Arbizun <i>txatarrak</i> .
<i>jei</i>	Jai.
<i>kabikunde, burrukeko egune</i>	Ihauterietako eguna, gazteek borrokatzen zutenekoa.
<i>kaldorfasta</i>	Etxe berri bati teilatua jartzerakoan egiten zena.
<i>katola</i>	Unanuko <i>mamuxarro</i> -ek erabiltzen duten maskara. Etxarrin <i>katuela</i> eta Lizarragan <i>taatule</i> . Badirudi, beraz, ‘caratula’-tik datorrela.
<i>Kixkimau pinto</i>	Etxarriko ihauteetako pertsonaia.
<i>Lazaro egune, -a</i>	Erramu hurrengo igandea.
<i>mamuxarro</i>	Unanuko Ihauteetako pertsonaiak.
<i>moxorro</i>	Lizarragako ihauteetako pertsonaia.
<i>Pazko bezpera</i>	Gabon gaua.
<i>Pazko egune</i>	Abenduak 25
<i>Urteberri egune</i>	Urtarrilak 1
<i>Urtezar egune</i>	Abenduak 31
<i>xorginafai</i>	Hamabietatik aurrera egiten den bigarren afaria.
<i>zaldunafai</i>	Ihauteetako afaria, garai batean.
<i>zalduniyote</i>	Ihauteetako eguna, hurrei eskainia, normalean igandean.
<i>zatamarro</i>	Lakuntzako ihauteetako pertsonaia.

f) Eguraldia:

<i>agortu</i>	Sekatu. Lehortea.
<i>aldeye</i>	Eguzki aldea, ‘egutera’
<i>argisentiye</i>	Eguzkia ateratzeko momentua. Arruazun <i>gareisentiya</i> .
<i>arrasgorri</i>	Arratsaldeko zero gorritua.
<i>atei</i>	Eurie egiteaz uzten duenean, ‘ateri’.
<i>aterkuentza</i>	Ateri dagoenean.
<i>auri</i>	‘Euria’
<i>bisuts</i>	Elur ekaitza, haizea eta guzti.
<i>botera</i>	Euria gogotik botatzen duenean, ‘botaera’.
<i>egoaize</i>	‘Hego-haizea’
<i>egolegie</i>	Hegoaizearen antzekoa, baina ez erabatekoa.
<i>egutera</i>	Eguzki aldea, ‘aldeye’
<i>ekaitze</i>	Ekaitza.
<i>ekaitz-buru</i>	Ekaitza pasatu eta eguraldia jasotzen denean.
<i>elurbusti</i>	Erdi euri, erdi elur egiten duenean.
<i>elurfitsek</i>	‘Elur malutak’
<i>elur</i>	‘Elurra’
<i>erleño</i>	Laino argia. Beheko lainoa ere bai. (<i>H</i>) <i>erri</i> + <i>laino</i> .
<i>erreñu</i>	Eguzki izpia, eta baita zerbaiten islada edo itzala ere.
<i>gareisenti</i>	Eguzkia ateratzeko momentua, Arruazun.
<i>gatzela</i>	Araba aldetik jotzen duen haizea.
<i>gesala</i>	Elurra beratzen hasten denean.
<i>idergi</i>	‘Ilargi’
<i>ilberri</i>	Ilargiaren aurpegia ilundurik ikusten denean.
<i>illondo</i>	‘Ilbehera’
<i>intze</i>	‘Ihintza’
<i>iñezture, -a</i>	‘Oinaztura’, ‘tximista’
<i>iper</i>	‘Ipar-haizea’
<i>iruzkiaize</i>	Haize hotza, eguzkia ateratzen den aldetik jotzen du. ‘Matacabras’.
<i>iruzki</i>	Eguzkia, Uharten <i>iduzki</i> .
<i>ittefure/ittejure</i>	Itogina. <i>Itxexura</i> Unanun, <i>itxufura</i> Lizarragan, <i>itxesura</i> Arruazun, <i>itxixura</i> (<i>Arb</i>).
<i>izer</i>	‘Izarra’
<i>izotz</i>	‘Izotza’, ‘gela’, ‘horma’.
<i>Jangoikuen gerrikue</i>	‘Ortzadar’, <i>ostrilleka</i> ere bai Etxarrin.
<i>kalda</i>	Sargoria, bero itsaskorra.
<i>kalma</i>	Zerua hodeiez estalirik dagoenean.
<i>korromatu</i>	Elurra gogortzen denean.
<i>kaxkar</i>	Kazkabarra
<i>langar, lanbur</i> (<i>Arb</i>)	Ziri-miri

² Etxarriko ‘Urteberri’ kantan agertzen da: “(...) *Aizie dabil mendebala, jeiki, jeiki, guregana ...*”.

<i>lantxurde</i>	Antzigar, ihintz izoztua da.
<i>lauso</i>	Euri tantak baino ez, <i>langarra</i> baino gutxiago.
<i>leño</i>	Lainoa eta baita hodeia ere.
<i>malota</i>	Elurrez egindako pilota. Arbizun <i>maleta</i> .
<i>maskilletu</i>	Ekaitz garaian euri tanta lodiak botatzen dituenean, burbuila modukoak egiten ditu lurrian. <i>Auriye maskilletuik ai dik botatzen</i> .
<i>mendebala</i> ²	Mendebaldeko haizea.
<i>mututu</i>	Eskuak hotzarekin ezin mugitu.
<i>odoi</i>	‘Ekaitza’. Urrutitik datorrela ikusten denean.
<i>ostots</i>	‘Trumoia’
<i>ostrilleka</i>	‘Ortzadar’, ostadar. Ikusten denez, errotazismoa erabiltzen ez duen formaren hasiera bera du. Beste osagaiak, <i>euri</i> eta <i>leka</i> ³ izan daitezke, azken hau palatalizaturik eta bokala asimilaturik, hori bai. Beraz, <i>ost(e) + (eu)ri + leka</i> izan daitezke bere osagaiak, hau da, ‘euriak zeruan utzitako arrastoa’.
<i>sargoi, kandura (Do)</i>	‘Sargori’. <i>Kalda</i> ere esaten zaio.
<i>tinte</i>	‘Tanta’
<i>txintxirrin</i>	Teilatu ertzetan zintzilik egoten diren izotz estalaktitak.
<i>txiri-miri, txiri-txiri</i>	Etengabeko elur edo euria, baina leun-leuna botatzen duenean.
<i>txirikota</i>	Apirileko kazkabarrari esaten zaio Etxarrin.
<i>txoki</i>	Leku ‘abrigoa’, babestua.
<i>txuketu</i>	Ur baltsa lehortu.
<i>urtu</i>	Elurra ur bihurtu.
<i>xorginaize</i>	Haize nahasia, zurrumbiloa.
<i>yauntsi, aauntsi</i>	‘Erauntsi’
<i>zaldisko</i>	Erauntsia pasatu eta atzetik beste bat datorrenean.
<i>zaparrada</i>	Tanta handiz osatutako erauntsi laburra.

5.1.2. SENIDETASUNA. ETXEA.

a) Senidetasun izenak:

<i>Aide, aidetasun</i>	‘Senide’, senidetasuna.
<i>Aittaiarreba</i>	Emazte edo senarraren aita.
<i>Aitte, ama</i>	Aita, ama.
<i>Aittef(j)unteko</i>	Haren besoetakoa, gizonetzkoa. “Padrino”.
<i>Aittun</i>	Aitona.
<i>Aizpe</i>	Arreba beste neska batentzat.
<i>Amaiarreba</i>	Emazte edo senarraren ama.

³ Mitxelena, K (OEH, XI, 485): “2 **leka** (...) 3. (BNc), baba o líquido viscoso de anguilas, limacos. *Eskuak leka tut* (BN-baig), tengo viscosas las manos”.

<i>Amaf(j)unteko</i>	Haren besoetakoa, emakumezkoa. “Madrina.
<i>Amin</i>	Amona.
<i>Andre, gizon</i>	Emaztea, senarra.
<i>Anei, arreba</i>	Anaia, arreba.
<i>Atso</i>	Emea. Ez du zentzu peioratiboa beti.
<i>Aurtzei</i>	Haurrak zaintzen dituen.
<i>Besotako</i>	‘Ahijado, -a’.
<i>Bestengusu</i>	Bigarren lehengusu edo antzekoa.
<i>Biboro, bibero</i>	Batera jaiotako umeak. Bikiak. Arruazun <i>bibero</i> .
<i>Bixki</i>	Bikiak Arbizun.
<i>Errein</i>	Semearen emaztea.
<i>Goñedo</i>	Koinatu.
<i>Goñeta</i>	Koinata.
<i>Guexkide</i>	Guraso + kide. ‘Compadre’, ‘pariente’.
<i>Gureso</i>	Aitamak.
<i>Illeba</i>	“Sobrino-a” eta “nieto-a”.
<i>Izeba txiki</i>	Ama edo aitaren lehengusu propioa.
<i>Izterlengusu</i>	Lehengusu ‘politikoa’. ‘Pariente lejano’ Arbizun.
<i>Lengusu propiyo</i>	Lehengusu, anai-arreben seme-alabak.
<i>Lijito</i>	‘Legitimo’. Benetakoa: <i>seme lijitue, jito lijitue, ...</i>
<i>mutiko</i>	Haur eta mutilaren artekoa.
<i>Mutilzar</i>	Ezkongabea eta adinean ‘aurrera’ doan gizonezkoa.
<i>neskato</i>	Haur eta nexkixaren artekoa.
<i>neskazar</i>	Ezkongabea eta adinean ‘aurrera’ doan emakumea.
<i>nexkixe</i>	Andrea edo neskazaharra aurrekoa. Baita neskame ere.
<i>Osaba, izeba</i>	Gurasoen anai-arrebak.
<i>Osaba txiki</i>	Ama edo aitaren lehengusu propioa.
<i>Sasipeko ume</i>	Sasikumea. <i>Ganbelazpikue</i> eta <i>Iriyaan azpikue</i> ere esaten omen zen Etxarrin, Anbruxio Erdoziak esan didanez.
<i>Seme, alaba</i>	(sic)
<i>Senide</i>	Familiakoa, baina oso hurbilak, anai-arrebak.
<i>Sui</i>	Alabaren senarra.
<i>Ubesaitte</i>	Aita ordea.
<i>Ubesalaba</i>	Alaba ordea.
<i>Ubesama</i>	Ama ordea, eta baita ditia eman diona ere. Arruazun <i>ubetzama</i> .
<i>Ubesanei</i>	Anaia ordea.
<i>Ubesilleba</i>	Odolekoa ez den iloba.
<i>Ubetza</i>	Titi beretik hartutakoa.

b) Etxea, arropak.

<i>Adaro</i>	Labea garbitzeko tresna, txondorretan erabiltzen den <i>pelaki</i> -a bezalakoa.
<i>Aide</i>	Ikuiluko txerritokia.
<i>Aldemen</i>	Auzo, ondoko etxeko biztanlea.

<i>Alkoba</i>	Ganbarako gelak, leihorik gabekoak.
<i>Arpillera</i>	Ehunezko, lihozko maindirea, latza. Dorraon, ezpartuzkoa.
<i>Atai</i>	Atari.
<i>Ataka</i>	Txerritokiaren sarrera edo atea, hestua.
<i>Atalaga</i>	Atariari eusteko barneko haga.
<i>Atalgein</i>	Atari laurdena, goikaldekoa, bakarrik ireki daitekeena.
<i>Atorra</i>	Alkandora.
<i>Auntziyek (ein)</i>	Sukaldeko ontziak. ‘Fregatu’ eta ‘eultzi’ ere bai.
<i>Aurroyel</i>	Jaioberriei jartzen zaizkien oihalak.
<i>Baztarreko</i>	Beheko suan jartzen den enbor handia.
<i>Bizer labana</i>	Bizarra egiteko erabiltzen den labana berezia.
<i>Borda</i>	Abereendako eraikuntza. Etxearen ondoan nola mendian egon daiteke.
<i>Botin</i>	Bota.
<i>Botito</i>	Gomazko botak.
<i>Bruse</i>	Ator lausoa.
<i>Burkiño</i>	Arroparen ontzia, <i>paziñe</i> , buru gainean eramateko oihala. <i>Buru + gain</i> -etik seguraski.
<i>Buuko</i>	Burukoa.
<i>Eltxetxu(be)</i>	Eltze-itsu. ‘Hucha’.
<i>Eltzaburni</i>	Beheko suan eltzea edukitzeko burdinezko tresna.
<i>Eltze</i>	Lapikoa.
<i>Endei</i>	Egurrezko pala, ogia labetik ateratzeko.
<i>Epeki</i>	Petatxoa, Arbizun. <i>Petxatuba</i> Dorraon.
<i>Ertoki</i>	Ikuiluko gainzorua.
<i>Eskuoyel</i>	Eskuak, aurpegia eta abar garbitzeko oihala.
<i>Estalope</i> ⁴	Eliza eta, bereziki, udaletxeko arkupea Etxarrin.
<i>Estarbi</i>	Ikuilua. <i>Estrabi</i> Arruazun eta Uharten.
<i>Etxeaundi</i>	Udaletxea Etxarrin.
<i>Ezkaatza</i> ⁵	Etxearen sarrera
<i>Ezpartin</i>	‘Alpargata’
<i>Galtzasoki</i>	‘Liga’. <i>Galtzasoka</i> Dorraon.
<i>Ganbara</i>	<i>Ganbazeleye + alkobak</i> , etxeko lehen solairu osoa.
<i>Ganbatxo</i>	Ganbara, Arbizun. <i>Ganboikoa, pastarda</i> .
<i>Ganbazelei</i>	Etxeko lehen solairuko zelaia, alkoben inguruko pasabide guztia.
<i>Ganbela</i>	Abereen jana edo ura emateko tresna. Aska.
<i>Ganboiko</i>	Etxeetako teilatu azpiko solairua. Belarra biltzekoa. <i>Ganbatxo, pastarda, safeiye</i> .
<i>Garraton</i>	Ohearen bi aldeetako egur luzea. Arbizu eta Dorraon

⁴ Gerardo Lz. de Guereñu-k ‘*olbea*’ jaso zuen Agurainen, ‘Arcos o cubierto en paseo público’ direla esanez. Seguru aski, ‘*ohol + behe*’-tik eratorria dugu eta, orduan, Etxarriko aldaera honen bilakabidea haxe izango genuke: *estal(i) + ohol + -pe > estalope > estalope*.

⁵ Aezkoako Garraldan horrelaxe jaso du I. Caminok (1997, 353, 88 oharra): “Baita *ezkaatza* ere Garraldan”.

	<i>karratona.</i>
<i>Gingirrin</i>	Beheko suan janariak erretzeko tresna. ‘Parrilla’.
<i>Gona</i>	Gona
<i>Gonyere</i>	Jaioberriei haur-oihalen gainean jazten zaien soinekoa. <i>Gonyuberia</i> Dorraon.
<i>Guatze</i>	Ohe, ohatze.
<i>Ilintxe</i>	Ongi egosi ez den ikatz zatia.
<i>Illeki</i>	Erabat erre gabeko makila, inkerra eta guzti. <i>Ilitiyek</i> Dorraon.
<i>Inker</i>	Sutan dagoen egur zati gorria.
<i>Isets</i>	Erratza, normalean ilarrezkoa.
<i>K(r)ixketa</i>	Etxeko argiak piztu eta itzaltzekoa.
<i>Kaldor</i>	Teilatuaren gailurra.
<i>Karzu</i> ⁶ , -a	Ezpartinaren soka.
<i>Kiarra, kearra</i>	Kedarra.
<i>Kie</i>	Kea.
<i>Kijera</i>	Taza txikia. Neurria bezala ere erabiltzen zen. “Jícara”-tik.
<i>Kolarre</i>	Bordari esaten zaio Unanun eta Dorraon, eta Etxarrin ere bai mendikoari, Jose Luis Garmendia artzainak esan digunez.
<i>Koleragarri</i>	Ogia egiterakoan, labean sartzen ziren abar txikiak, ogiari kolorea emateko. “Koloregarri”-tik? <i>Gorrigarriyek</i> ere bai, Etxarrin.
<i>Korta</i>	Eraikuntza baten atzekaldea. <i>Elizkorta</i> . Unanu eta Dorraon <i>atzokota</i> , Arbizun <i>kantona</i> .
<i>Koxera</i>	Goilara.
<i>Koxerille</i>	Goilaratxoa.
<i>Kriada</i>	Laratzetik zintzilik dagoen tresna, beheko suan ontziak jartzeko. Dorraon <i>neskazarra</i> .
<i>Kube</i>	Sehaska.
<i>Laatz</i>	Beheko suan ontziak zintzilikatze burdina.
<i>Labe</i>	Labea
<i>Lixu</i> ⁷	Arropa garbiketa.
<i>Maatil</i>	Maratila. Dorraon <i>matella</i> .
<i>Mandarra</i>	<i>Mantala</i> eta <i>demantala</i> ere entzun daiteke Etxarrin. ‘Delantal’.
<i>Mauke</i>	Mahuka. Arbizun eta Dorraon <i>mokua</i> .
<i>Me(i)nddere</i>	Izara. Lakuntzan <i>manderie</i> .

⁶ Iribarren-ek ‘cadarzo’ jaso zuen Argako Miranda, Marzilla eta Melidan, ‘cinta de las alpargatas’ esanahiarekin. Eta bokal berdinen arteko hortzetako herskari ozenaren erorketarekin, oso erraz suertatzen da gure esparruko aldaera.

⁷ Horrela kontatu digu M^a Carmen Goñi Insaustik nola egiten zuten ‘lixube’ garai batean Etxarrin: “*Sukautsakin garbitzen zan. Arrisko txorro geñen jartzen zan oyela laune, zulo estukue, eta arren geñen, zakubetien, sukautse, eta onen geñeti botatzen zan uts berue, beko suben, laatzien txintxiliketuteko pertzien biotube.*”

<i>Moxkor</i>	Beheko suan jartzen den egur zatia, <i>baztarreko</i> -aren beste aldean.
<i>Murrillu</i>	‘Pestillo’
<i>Mustu</i>	Estreinatu. Jantzi edo bestelako tresnaren bat lehen aldiz erabili.
<i>Oiñetako</i>	Oinetakoa.
<i>Oller</i>	<i>Gingirriñ</i> -aren punta sartu eta maila desberdinetan kokatzeko erabiltzen zen burdinezko tresnari esaten zaio.
<i>Ollotasi</i>	Oiloen tokia ikuiluan.
<i>Ollozulo</i>	Etxeko atea behekaldean daukan zuloa.
<i>Oltza</i>	Oholez egindako pareta.
<i>Omei</i>	Ogia egiteko ‘masa’ prestatzeko mahaia. <i>Ore + mahai</i> .
<i>Pantalon</i>	Prakak
<i>Pastarda</i>	Ganbarari esaten diote horrela Unanun. Etxarrin <i>ganboiko</i> .
<i>Pazin</i>	Metalezko ontzia, arropak garbitzera, <i>lixube</i> -n, eramateko <i>burkiño</i> -an (buru gaineko oihala).
<i>Pertza, pertzeko</i>	Lapiko handia, normalean abereen janaria egosteko.
<i>Petrin</i>	Gerrikoa.
<i>Pexkillo</i>	Beheko suan ontziak edukitzeko tresna.
<i>Plater</i>	Platera.
<i>Puzte</i>	Ikuiluko sarrera, ongarrri pila ondokoa.
<i>Safei</i>	Teilatu azpiko solairua Uharten. <i>Ganboiko, pastarda, ganbatxo</i> .
<i>Sangaioyela</i>	Zaurietarako oihala. Arbizon <i>peixa</i> .
<i>Satarra</i>	Labea garbitzeko oihala.
<i>Soiñeko</i>	Soinekoa
<i>Suiñerri</i>	Beheko suaren inguru edo esparrua. Dorraon <i>sumiñuba</i> .
<i>Sukelde</i>	Sukaldea.
<i>Talaburni</i>	Taloak egiteko tresna, burdinezkoa: <i>talo + burni</i> .
<i>Talol</i>	Taloak egiteko tresna, zurezkoa: <i>talo + o(ho)l</i> .
<i>Tapaboka</i>	Koadrodun manta handia, etxetik kanpo lo egiteko erabiltzen zena. ‘Bufanda’ ere bai. Arbizon <i>tapooka</i> .
<i>Telletu</i>	Teilatu.
<i>Tenteko</i>	Zutoin, zutabe, ‘poste’-a.
<i>Traste, -iek</i>	Arropa. Etxarri eta Arruazun, gutxienez, erabiltzen da, Oihana Zubeldia Jaka-k esan digun moduan: “ <i>jeiteko trastiek</i> ”, “ <i>traste zarrak</i> ”, “ <i>Atia ttuzu trastiek?</i> ”
<i>Txangola</i>	Ganbaratik ikuiluraino iristen zen zuloa etxeetan, bertatik belarra botatzeko. Dorraoko hitza dugu hau.
<i>Txapittela</i>	Teilatura ateratzeko zulo edo leihatila. Dorraon <i>txapittola</i> .
<i>Txemeni</i>	Tximenea.
<i>Ubela</i>	Uhala, gerriko.
<i>Xaka</i>	Txaketa Unanun.
<i>Txoxa (Arb)</i>	Lehen solairutik ganbarara doan eskilara hasiera, itxia.
<i>Yaski</i>	Petatxoa.
<i>Zagi</i>	Zahagia.
<i>Zali</i>	Janaria plateretan banatzeko goilara handi eta sakona.

	‘Cazo’
<i>Zapata</i>	Zapata
<i>Zardeittu</i>	Patatak, behin egosi eta gero, orduetara, hartzen duten egoera.
<i>Zartai</i>	Zartagin.
<i>Zata</i>	Gomazko oinetakoa.
<i>Zatabartan</i> ⁸	Gomazko oinetakoa eta ‘polaina’.
<i>Zato</i>	Zahatoa.
<i>Ziordinddu</i>	<i>Zardeittu</i> . Patata egosiak bereziki, hurrengo egunerako uzten direnean.
<i>Zierrekalde</i>	Eraikuntza edo eremu baten aldea, ez aurrea ez atzea ez dena. Zeharreko aldea.
<i>Zirrittu</i>	Zirrikitua.
<i>Ziyetu</i>	Zihatu, zihotu ⁹ . Gantzak solidifikatu edo hoztu.

5.1.3. GORPUTZ ATALAK, GAIXOTASUNAK ETA ERREMEDIOAK.

<i>Agin</i>	Hagin.
<i>Ago</i>	Aho.
<i>Aide beltz</i>	Behazuneko mina.
<i>Aidien (ortzak)</i>	Hortzetako mina, ‘dentera’.
<i>Aixetu</i>	Lasaitu, atsedean hartu.
<i>Aize eztul</i>	Eztul leuna, korronkarik gabekoa.
<i>Aje</i>	Gorputzaren ondoeza, adinarekin lotua normalean.
<i>Altzo</i>	Magal. <i>Amaan altzuen zioz beti!</i>
<i>Anka</i>	Hanka eta oina.
<i>Ankakoxkor</i>	Orkatila.
<i>Antxumekiyek</i>	Haragi zabaldurak, hanketan gehien bat. Dorraon <i>antxumiek</i> .
<i>Arjueta</i>	Behi edo zezenak adarrekin besteen azal edo larruan egiten duen marka, haragian sartu gabe. ‘Cicatriz’.
<i>Aska</i>	Aurrekoaren antzekoa, baina haragi puska eta guzti kentzen duenean.
<i>Atza</i>	Hazkura gogor eta iraunkorra, ‘herpes’.
<i>Atzapar</i>	Hatzapar, zarpa, esku handia.
<i>Aulei</i>	Ahulezia.
<i>Aundixoriyek</i>	Besapeko hazidurak, ‘golondrinos’.
<i>Aundizorri</i>	Eztarriko hazidura, ‘ganglios’. Dorraon <i>angellek</i> .
<i>Aurpei</i>	Aurpegi.

⁸ Bada Etxarrin hitz honen bigarren osagaia erabiltzen duen toponimoa: *bartanitturri*.

⁹ SARASOLA (H-LEH, 1995, 1129): “**zihotu, zih**, **zihotzen**. da-du *ad.* (*1926, 1961; *zihatu* *1926; *ziatu* *1562). *Ipar.* 1. Zihoztatu. 2. Zihoa bezala gogortu.” “**ziho**. *iz.* (1858; *zia* *1562). *Ipar.* Bilgorra, gantza. *Ziho-argia. Ziho-kandela.*”

<i>Axkalamiyek</i>	Auhenak, kexak.
<i>Azkazkal</i>	Hatzazal. Arruazu eta Dorraon <i>azazkal</i> .
<i>Aztal</i>	Orkatilatik belaunera bitarteko hanka zatia, atzekaldekoa.
<i>Aztalzein</i>	‘Tendón de Aquiles’.
<i>Bare</i>	Barea.
<i>Begiluze</i>	Ahal baino gehiago hartzen duenari esaten zaio.
<i>Begibakar</i>	‘Tuerto’.
<i>Begimakur</i>	Begi zehar, ezkel. ‘Bizco’.
<i>Bekain</i>	Begi gaineko ertz iletsua.
<i>Belarr(i)ondo</i>	Belarri atzekaldea.
<i>Belarrimotx</i>	Erdaldun. Beti erdaraz hitz egiten duenari esaten zaio.
<i>Belaunkozkor</i>	‘Rótula’.
<i>Bernazaki</i> ¹⁰	Hankezur. Belaunetik beherako aurrekalde gogorra.
<i>Besape</i>	Galtzarbea.
<i>Besomotx</i>	Besoa falta zaiona. ‘Manco’.
<i>Betorra</i>	Begi bikorra. ‘Orzuelo’.
<i>Bieka</i>	Sarkutza. Aldaka ere bai. ‘Ijada’, ‘cadera’.
<i>Bietz</i>	Hatza.
<i>Bietz aundiye</i>	Hatz handia. ‘Pulgar’.
<i>Bietz txingerra</i>	Hatz txikia. ‘Meñique’.
<i>Biezeñe</i>	‘Hiel’.
<i>Bi(l)ixkorriko</i>	Biluzik. Arbizun <i>bixkorratxiko</i> eta Unanun <i>bilixkorriyan</i> .
<i>Biyotza</i>	Bihotza.
<i>Biyotz-birikek</i>	Birikak.
<i>Bizerra</i>	Bizarra.
<i>Bizker</i>	Bizkar, sorbalda.
<i>Bizkerrezurre</i>	Bizkarrezurra.
<i>Botagalie, -a</i>	Tripakoak botatzeko gogoa.
<i>Bu(r)u</i>	Burua.
<i>Egarbera</i>	Egarriak garbitzen dagoena.
<i>Epatsa, apatsa</i>	Korrokada, ‘eructo’.
<i>Elatu</i>	Xinpletu, txotxolotu, maitemindu, zaletu, buruan besterik ez eduki. <i>Elatuta dau!</i> (Xinpletuta dago!) Arbizun.
<i>Eratu, erotu</i>	Erotu.
<i>Erde</i>	Lerdea.
<i>Errei</i>	Erraiak, gerriaren atzekaldea.
<i>Errekajiya</i>	Erraiteko mina Arbizun. “Erraietako ajea?”
<i>Eskuturre</i>	Eskumuturra. Arbizun <i>eskumuturra</i> .
<i>Este</i>	Hestea.
<i>Estaundiye</i>	Heste lodia.
<i>Estegorri</i>	‘Esófago’.
<i>Estemiek</i>	Heste meheak, tripakiak egitekoak. Dorraon <i>estegorriya</i> .
<i>Estemau</i>	Urdaila. ‘Estómago’.
<i>(Begi) Ezkela</i>	‘Bizco’

¹⁰ K. MITXELENA (OEH 804): “bernazaki (Lar, Dv, H) ... 1. Pantorrilla.” Etxarrin ‘espinilla’-ri esaten zaio.

<i>Ezpein</i>	Ezpain.
<i>Eztarri</i>	Zintzur, eztarri.
<i>Gantxo, kantxo</i>	‘Verruga’.
<i>Garbieratu</i>	Erotu, zoratu, nahastu.
<i>Gernujariyue</i>	Txixa jarioa, ‘incontinencia’.
<i>Gernumiñe</i>	Próstata.
<i>Gerrikomiñe, -a</i>	‘Lumbago’.
<i>Gizendu</i>	Loditu.
<i>Gosebera</i>	Goseak garbitzen dagoena.
<i>Giltzurriñek</i>	Giltzurriak. Arbizun eta Arruazun <i>giltzurriñek</i> .
<i>Ille</i>	Ilea.
<i>Ipurgeñe</i>	Ipurdi gaina.
<i>Ipurkonkor</i>	Barrearen hezurra. ‘Coxis’.
<i>Ipurmaseillek</i>	Ipurmamiak.
<i>Ipurtestie</i>	Ipurdiko hestea, ‘recto’.
<i>Ipurzulo</i>	Uzkia.
<i>Iruorriyen (yon)</i>	Apuraturik (egon).
<i>Itsu</i>	‘Divieso’
<i>Itxu</i>	Ikusten ez duena.
<i>Izerkeitz</i>	Zorabioa. Izerdi hotza.
<i>Izter</i>	Belauna eta gorputzaren arteko hanka zatia.
<i>Kakei</i>	Kakeria.
<i>kalenture</i>	Sukarra.
<i>Kalfar</i>	Ile nahasi eta luzea, ‘txuma’.
<i>Kaskezur</i>	Buru hezurra, kalabera.
<i>Kasko</i>	Buru hezur atzekaldea.
<i>Kike</i>	Zotin.
<i>Kinkur</i>	Zintzur. ‘Nuez’.
<i>Kontrako-eztarri</i>	‘Tráquea’.
<i>Kopeta</i>	Bekokia.
<i>Korronka</i>	Eztul gogorra, barruan mina sentiarazten duena.
<i>Kuzkur</i>	Adinarekin uzkurtutako jendea.
<i>Lepagein</i>	Lepoa eta burua elkartzen diren atzekaldeko zatia. ‘Nuca’.
<i>Liluittu</i> ¹¹	Zorabiatu. <i>Begiyek liluittuik zizkok!</i> (Zorabioaren eragina begietan nabari zaionean norbaiti).
<i>Lo (lue)</i>	‘Sien’.
<i>Makal</i>	Ahul, gaixo.
<i>Maki</i>	Maingu, herren. Arbizun <i>meiki</i> .
<i>Makoye</i> ¹² (<i>punte</i>)	Aluaren beheko puntua.
<i>Malkar</i>	Lo ondorengo begi ertzetan geratzen den zikinkeria.
<i>Mangulu</i>	Muleta. “Makulu”-tik, seguru asko.
<i>Maseil</i>	Aurpegiko bi zati mamitsuak.

¹¹ MITXELENak (OEH, XI, 592) *liluri* eta *lilurikatu* jaso ditu, ‘mareo’ esanahiarekin.

¹² Arakilgo Etxeberriko aitona batek horrela esaten omen zuen: “*Del culo a la makoxa, no va el canto de un duro*”.

<i>Maskeillu</i>	Larrumintzan ateratzen den orbatua, gehienetan erretzeagatik. Burbuila ere bai. I. SARASOLAK gutxi erabiltzen den hitza gisa jaso du (<i>HLEH</i> , 774, <i>maskuilo</i>).
<i>Masku(b)i</i>	Maskuria. Arruazun <i>maskuuyua</i> .
<i>Matagin</i>	Letagina.
<i>Matei</i>	Materia, pus.
<i>Matreil</i>	Kokotseko hezurra.
<i>Minbiatu</i>	Oinekin erabiltzen da gehien bat. Hauek ‘egosita’ daudenean sortzen den minari egokitzen zaio. <i>Min</i> + <i>beratu</i> -tik dator seguru aski.
<i>Mi (miye)</i>	Mihia.
<i>Moto</i>	Buru gainean bildutako ile mordoa. Arbizun <i>mottoka</i> .
<i>Mukilo</i>	Beti mukiak zintzilikan dituena.
<i>Muñe</i>	Muinak.
<i>Musu</i>	Mutur, aurpegi.
<i>Musugorri</i>	Aurpegi gorritua.
<i>Musuzikin</i>	Hurrei esaten zaie, aurpegia zikina dutenean.
<i>Muturbeltz</i>	Beti serio dabilenari esaten zaio.
<i>Muturzikin</i>	Pertsona gazteei esaten zaie, oraindik heldu gabe daudela adierazteko. <i>Gazte muturzikin!</i>
<i>Mututu</i>	Hotzarekin eskuak mugi ezinik gelditu.
<i>Neibagie</i>	Nahigabea. Ondoeza, konorte galtzea.
<i>Odoluye</i>	Haragi kolpatuan geratzen den marka, ‘cardenal’.
<i>Okatu</i>	Erabat asetu.
<i>Okolondo</i>	Ukondoa.
<i>Okolle</i>	Gibelego mina.
<i>Okotza</i>	Kokotsa.
<i>Oñeze</i>	Oinazea. Mina.
<i>Opo</i>	Orpoa.
<i>Orbiatuik</i>	Oinak mindurik edukitzea, handiturik eta guzti. ‘Agujeta’-k edukitzea. Gehien bat ardiekin erabiltzen da.
<i>Ortz</i>	Hortza.
<i>Oskolka</i> ¹³	Gehiegikeria.
<i>Ospela, auspela</i>	‘sabañón’
<i>Otzikera</i>	Hotzikara.
<i>Ozpiñerrie, ozpindduik</i>	Bihotz-errea.
<i>Pattal</i>	Osasunaz gaizki dabilela, ahul samar.
<i>Pettere</i>	Lasai, gustora egon. <i>Pettere ago!</i>
<i>Petxo</i>	Bularra.
<i>Pinpiliñe</i>	Zakila.
<i>Pitiliñe</i>	Zakila.
<i>Pixe</i>	Txixa.
<i>Pottuek</i>	Barrabilak.
<i>Putze</i>	Soinurik gabeko puzkarra. ‘ <i>Itzek launek, ta putzek miñek!</i> ’

¹³ Hau izan daiteke haren bilakabidea: *uts* + *golpe* > *uskolpe* > *oskolpe* > *oskolka*.

	esaera.
<i>Sabela</i>	‘Ventre’
<i>Siñetsiye</i>	‘Calambre’.
<i>Sorra</i>	Gorra.
<i>Sosietu</i>	Lasaitu, sosegatu.
<i>Sumiñe</i>	Hotzetik berora bapatean pasatzeak eragindako mina.
<i>Suur</i>	Sudurra.
<i>Titi</i>	Ditia.
<i>Titimutur</i>	‘Pezón’
<i>Titipunte</i>	‘Pezón’
<i>Toxa</i> ¹⁴	Alua. <i>Toxagorri</i> esaten zaio neska gazteari. Dorraon <i>txakilla</i> .
<i>Tripe</i>	Tripak, ‘entrañas’
<i>Txakur eztule</i>	Korronka, eztul fuertea.
<i>Txiertu</i>	Txertoa, ‘vacuna’.
<i>Tximikorra</i>	Mihi puntan ateratzen den bikor txikia.
<i>Txonbolo</i>	Orkatila. Dorraon <i>txongolo</i> .
<i>Txope</i>	Heste lodia. Honekin egiten dira txerriaren odolkiak.
<i>Txopiñe</i>	Urdaileko garraztasuna.
<i>Txu</i>	Lixtua. Dorraon <i>leixtuba</i> .
<i>Txugalie</i>	Txu gehiegi egiten denean, normalean goragalearekin erlazionatzen da.
<i>Uberra</i>	Haragia irekitzen denean, hotzarengatik, esaterako.
<i>Uxenie</i>	Gabezia.
<i>Uzker</i>	Puzkarra, soinua eta guzti.
<i>Uzki</i>	Ipurtestea kanpora ateratzen denean.
<i>Zille</i>	Zilborra.
<i>Zimurrek</i>	Larruazalaren tolesdurak, kopetakoak batez ere.
<i>Ziyorrada</i>	Estomagoko mina. ‘Retorcijón de estómago’.

5.1.4. NEKAZALGOA.

a) Tresnak

Adabuteko larruba Uztarriaren gainean jartzen zen ardi larruari esaten zaio Unanun. *Adar* + *buru* + *-etako* izan daiteke bere bilakabidea. Etxarrin *buuko larrube*.

¹⁴ Horrela dakar I. SARASOLAK *HLEH*-n (1031): “**toxa**. iz. (1890). Tabako-ontzia. *Atera zuen sakeletik bere akerlarruzko toxa. Toxa bete belar ez dut aski egunean*”. Aipatu autoreak dionez, Joannateguy-ren ‘*Sainduen bizitzea*’-n agertzen da. Ez da irudimen gehiegirik behar ‘larruzko tabako-ontzia’ eta aluaren irudiak elkarrekin identifikatzeko, ezta G. GARATEren (1998, 359) ondorengo atsotitz edo esaera zaharrari bigarren esanahia eransteko ere: “*Nolako pipe, alako toxa* (tabakorri zorrotxo). SO (Soule familia, Arizkun, Nafarroa garaia).”

<i>Aitzur pikue</i>	Aitzur aho luzeduna, lurrean gehiago sartzeko.
<i>Aizkora</i>	Horrelaxe.
<i>Akerra</i>	Gurdi bolantearen koska, ejea sartzeko.
<i>Akillu</i>	Akuilu. Unanu eta Dorraon <i>akullu</i> .
<i>Aldiek</i>	Gurdiaren aldeetako hagak, endaitzari paraleloak. Unanun <i>meizterrak</i> .
<i>Amute</i>	Neurria, bolumena, ordaina emateko.
<i>Are</i>	Lurra txikitzeo tresna, makinatu eta bostortzatu ondoren.
<i>Arebaldarra</i>	Lurra berdintzeo tresna, aretu ondoren.
<i>Ardatza</i>	Lihoarekin sortutako haria biltzeko, bira eta bira eginez.
<i>Aritto</i>	Belarra biltzeko tresna horzduna. Dorraon <i>bostortxikua</i> .
<i>Arpona</i>	Lurra lantzeko bi hortzeko tresna, giderduna.
<i>Arrittukola</i>	Gurtolaren gainetik jartzen da, bolumen gehiago hartzeko gurdiak.
<i>Axkolto</i>	<i>Aizkora txikiya</i> Unanun.
<i>Bartotza</i>	Gurdiziria Uhartan. <i>Gurtziye</i> Etxarrin.
<i>Bartubela</i>	Gurdiaren endaitza uztarrian lotzeko larruzko sokaz egindako tresna.
<i>Baye, beya</i>	Bahea.
<i>Bidurrek</i>	Txarrantxak lotzen dituzten kateak.
<i>Bostortza</i>	Makinatu ondoren soroan pasatzen den tresna.
<i>Burni</i>	Burdina.
<i>Buuko larrube</i>	Uztarri gaineko ardi larruari Etxarrin. Unanun <i>adabuuteko larruba</i> .
<i>Egittei, eittiya</i>	Igitai.
<i>Endeitz ipurdiye</i>	Endaitzaren atzeko punta.
<i>Endeitze</i>	Gurdiaren lema. Bertan abereak lotzen dira.
<i>Ere</i>	Hede. Larruzko sokak, ganadoa uztarrian lotzeko erabiltzen zena.
<i>Ernalziri</i>	Aizkora, aitzur edo mailuaren giderra behar bezala hestutzeko sartzen den zirria.
<i>Erremala</i>	Soka lodia.
<i>Erriaube</i>	Bolumen neurria, ‘robo’.
<i>Esku(d)ere</i>	Aritto-ak baino hortz luzeagoak dituen tresna. Dorraon <i>eskuberia</i> .
<i>Ezpartube</i>	Gari balak lotzeko soka.
<i>Forrei, jorrei</i>	Aitzur txikia, baratzen erabiltzen da gehien bat.
<i>Gabiya</i>	Egurrezko tresna lihoa jotzeko, Dorraon.
<i>Galga</i>	Gurdiaren freno.
<i>Galtzeiru</i>	Altzairu.
<i>Ganga</i>	Aizkoraren zuloa giderra sartzeko, Esteban Mundiñano etxarriarrak esan didanez.
<i>Garba</i>	Lihoa jo ondoren, leuntzeko erabiltzen zen tresna.
<i>Gariforreye</i>	Garia jorratzeko erabiltzen zen tresna.
<i>Geitzaube</i>	Bolumen neurria, <i>amute</i> eta <i>erriau</i> -aren artekoa. Lau <i>amute</i> . Dorraon <i>geitzeruba</i> .
<i>Giderra, girtena</i>	Kirten. Biak erabiltzen dira Etxarrin. Sakanari

	dagokionez, lehena Arbizutik ekialdera eta bigarrena Burundan. Dorrao eta Unanun <i>kiderra</i> .
<i>Golda, -e</i>	Lurra irekitzeko tresna.
<i>Gurdi</i>	Abereez tiratutako garraio tresna gurpilduna.
<i>Gurdibolante</i>	Gurpil erradiodunak dituen gurdia.
<i>Gurdikama</i>	<i>Alde, orrazi</i> eta <i>endeitz</i> -ez osatutako gurdi zatia. Gurdiaren ‘gorputza’, zama ezartzen den lekua.
<i>Gurtola</i>	Gurdiaren aldeetako oholak eta <i>atze-aurrekuek</i> . Dorraon <i>urtelak</i> .
<i>Gurtziye</i>	Endaitzeko zuloetan sartzen diren ziriak, bartubelaren aurretik eta atzetik. <i>Bartotza</i> Uharten.
<i>Iddebiyurre</i>	Babarrunak, babak, etab. jotzeko tresna, bi makil katez elkarri lotuak. Iturmendin <i>iyebiyor</i> .
<i>Ipuuko</i>	Abereei uztartzerakoan jartzen zaien tresna buruan. <i>Idi + buruko</i> .
<i>Istaasa</i>	Eultzian, lastoa eta alea bereizteko tresna. Unanun <i>istresiya</i> . Dorraon <i>entresiya</i> . Lakuntzan <i>estosiye</i> . Uharten <i>estrasiye</i> .
<i>Karramarro</i>	Bostortz mota.
<i>Karrola</i>	<i>Gurtola</i> Arbizun, atzekoa eta aurrekoa.
<i>Kirru</i>	Eskuara baino hortz luzeagoak dituen tresna.
<i>Kontrabartotz</i>	Gurdiziria Uharten, baina finkoa.
<i>Lauortzeko</i>	Burdinezko lau hortz luze eta tolestuak dituen tresna.
<i>Laye, leya</i>	Laia.
<i>Legate</i>	Gari balak lotzeko soka Unanun, eta belarra, babarrunak, eta abar biltzeko maindireetako lau puntetako sokei esaten zaie Etxarrin. Azken honi, <i>ligertza</i> esaten zaio Unanun.
<i>Like, -a</i>	Lur itsaskorra.
<i>Lirdiketu</i> ¹⁵	Txikitu, xehatu. Dorraon <i>txirdiketu</i> .
<i>Lumea</i>	Gurdiaren <i>zille</i> -ari (ardatza) ematen zitzaion ‘grasa’. Etxarriko zaharrek diotenez, Gipuzkoatik ekartzen zuten eta, ziur aski, balearena zen.
<i>Makine</i>	Bravant-a. Soroetan, lurra irekitzeko tresna burdinezkoa.
<i>Maldagarrota</i>	Gurdi egurra lotzeko erabiltzen den haga. Dorraon <i>marguleta</i> .
<i>Maldasega</i>	Sasi eta larrak hautsi edo mozteko tresna.
<i>Mukuru</i> ¹⁶	Erabat beterik. Ez da ale edo tanta bat ere sartzen.
<i>Muturreko</i>	Abereei muturrean ez jateko jartzen zaien tresna, kateez egina.
<i>Olabaye</i>	Erabat egurrezkoa den bahea, sarea eta guzti esportak egiten diren moduan egina. Gehien bat babak bahetzeko erabiltzen zen.

¹⁵ MITXELENA-k (OEH, 605) hala jaso zuen: “(R), *aplstar, se dice hablando p. ej. de frutas. A.*”.

¹⁶ Guaixe aldizkarian, Arruazuko berri emaleak, Gorka Ovejero-k, horrela erabiltzen du: “*Autobia in berriya, eta, herriaako in zuben azpiko zubiya goreño udres beteeik, mukuru.*” (Guaixe 1, 12)

<i>Orraziyek</i>	Gurdiaren <i>alde</i> -etatik endaitzara perpendikularki doazen hagak.
<i>Otajaki, otafaki</i>	Arbiak eta remolatzak moztu edo txikitzeko labana edo aizkora modukoa.
<i>Otatza</i>	Gari soroan, urari bidea emateko, egiten den erreka. ‘Surco’.
<i>Penezillua</i>	‘Adabuteko larrua’ haizeak mugi ez dezan, uztarri gainean jartzen den tresnatxoa, aipatu larruari behar bezala eusteko.
<i>Pikemellu</i>	Sega zorrozteko tresna.
<i>Piketu</i>	Zorroztu (sega).
<i>Pirrin-kate</i>	‘ <i>Pirriñe</i> ’ kate batez lagundurik eramatean oinarritzen den jokoa eta tresnak.
<i>Pirriñe</i>	Zenbait ontziren oinarri biribila. ‘Aro’.
<i>Pirrixkek</i>	Gurpilak. Arbizun <i>txirrinkek</i> .
<i>Sarde</i>	‘Horca’.
<i>Segate</i>	Zikirioarekin egindako soka Unanun.
<i>Segapoto</i>	Sega zorrozteko harria gordetzeko ontzia.
<i>Sokabiye</i> ¹⁷	Sokorrak hausteko egurrezko mailu handia. Unanu, Dorrao eta Lizarragan <i>koskabiya</i> , <i>-e</i> .
<i>Sokor</i>	Lur zati gogortua. Unanu, Dorrao eta Lizarragan <i>kozkor</i> .
<i>Tokara</i>	Erremala baino handiagoko soka Arbizun. Etxarrin eta Dorraon <i>sokaundiye</i> , <i>-a</i> .
<i>Txarrantxa</i>	Gurdiaren aldeetan tente jartzen diren estakak.
<i>Txingui(ye)</i>	Ingude.
<i>Txiñel</i>	Gurdiaren ardatzaren ‘pasadore’-a.
<i>Txistera, txiste,-a</i>	Akuiluaren muturreko eztena. Uharten akuiluari berari esaten zaio <i>txiste</i> .
<i>Uzterri</i>	Uztarri.
<i>Zandale</i>	Pentsua.
<i>Zildei</i>	Uztarri gaineko <i>peineta</i> edo <i>penezillua</i> Uharten.
<i>Zille, -a</i>	Gurdiaren ardatza Uharte, Etxarri eta Dorraon gutxienez. Etxarrin, egun <i>ejie</i> esaten bada ere, ondorengo esaldia jaso dugu: <i>Gurdiye zillaño sartu zikieguk loyen</i> . Eta abereekin ere erabiltzen da. Badirudi ‘zil’arekin lotzen dela, gorputz edo, kasu honetan, tresnen erdiarekin nonbait.
<i>Zumitz</i>	Gazta egiteko ontzia.

b) Laboreak eta lanak.

<i>Abolba</i>	Alholva.
<i>Agotz, lagotz</i>	Gariaren lastoa.
<i>Alubi, aloi</i>	Babarrun.

¹⁷ *sokor + gabi* (‘mazo para el tormón’).

<i>Alubi ttopor</i>	Babarrun beltza.
<i>Amuko</i>	Lihoarekin egindako aria, <i>mulu</i> -a baino finagoa. ‘Estopilla’.
<i>Arbi</i>	<i>Nabue</i> esaten zaio Etxarrin.
<i>Aretu</i>	Area soroan pasatu.
<i>Arjo</i>	Harrak jota egon, urrek, adibidez, zulo txiki bat izaten dute. <i>Arjue jota ziok!</i>
<i>Artabizer</i>	Artoak buru puntan izaten duen ile modukoa.
<i>Artabuu</i>	Urbeldu gabeko artaburua. Arbizun <i>meizabuu</i> .
<i>Artakoxkor</i>	Artaburu urbeldua. <i>Meizakoxkorra</i> .
<i>Artirin</i>	Artoz egindako irina.
<i>Arto</i>	<i>Meiza</i> esaten diote Arbizun.
<i>Arrauts</i>	Trilladora-tik ateratzen den hauts zikina.
<i>Atzeaurre</i>	Goldatu edo makinatu gabe gelditzen den soro zatia, mugaraino ezinezkoa izaten baita golda edo makinaz iristea. Ondoren zeharka edo <i>trunketaa</i> goldatu edo makinatzen diren zatiak. <i>Goyenbarna</i> ere esaten zaio.
<i>Aune</i>	Ehuna, lihoa. <i>Liyue</i> , -a.
<i>Auntzi</i>	Eultzi
<i>Baatxui, -tzui</i>	Baratxuri
<i>Baatze</i>	Baratza
<i>Bakandu</i>	Sarriegi dauden landareak atera, sendoenak aurrerako utziaz.
<i>Bala</i>	Bospasei espal.
<i>Begeinddu</i>	Banatu. Alerik hoberenak banatu. Senar-emazteak banatzea ere, <i>begeinddu</i> litzateke.
<i>Bentzai</i>	Bentzagia.
<i>Bianta</i>	Berandu ateratzen den labore edo landarea. ‘Tardía’.
<i>Borta</i>	Bere kabuz jaiotzen den laborea, ‘silvestre’. <i>Patata borta</i> , esaterako.
<i>Bostortzatu</i>	Bostortza pasatu.
<i>Ebai</i>	Ebaki
<i>Erlastu</i>	Soroetan iraulitako, edo euria egin ondoren, goiko zatia lehortzen denean. Ereiteko unerik egokiena da.
<i>Eru</i>	‘Yero’.
<i>Eseki</i>	Zikirioarekin egindako soka. Unanu eta Dorraon <i>liyua</i> .
<i>Espala</i>	Gari multzoa. ‘Gavilla’. Unanu eta Dorraon <i>ormena</i> .
<i>Ezpala</i>	Aizkoraz egurra ebakitzerakoan ateratzen diren zatiak.
<i>Experrau</i>	Zainzuri
<i>Forratu, jorratu</i>	Jorratu
<i>Gaagar</i>	Garagarra
<i>Galbizer</i>	Gari bizarrak.
<i>Garbatu</i>	Lihoa jo eta leundu.
<i>Gibel</i>	Soroak makinatzerakoan lurra, dena batean ateratzen denean, horrela esaten diote Arruazun.
<i>Goizter</i>	Goiz atera edo jaiotzen den labore edo landarea. ‘Temprana’.

<i>Goyenbarna</i>	Soroa lantzerakoan, erabat mugaraino iritsi gabe geratzen den zatia. <i>Atzeaurrie</i> ere esaten zaio.
<i>Ibintze</i>	Uzta jaso ondoren abereentzat libre geratzea soroak. ‘Rastrojera’.
<i>Ibiñe</i>	Garia moztu ondoren geratzen den soroaren zorua. ‘Rastrojo’.
<i>Ider</i>	Ilar.
<i>Irauli</i>	Laiekin lurra mugitu egiten denean, behekoa gora atereaz.
<i>Irin, artirin</i>	Irin. Artoz egindako irina.
<i>Isutsi, isustu</i>	Sakabanatu, hazia edo mineralak.
<i>Ixui(ye)</i>	‘Isurketa’. Guk solidoekin erabilia jaso dugu: “ <i>A, ze ixuye ein deken emen!</i> ” ¹⁸ , ogi apurrez beterik utzi duela zorua esanez. Ezkur asko dagoenean ere horrela esaten omen da, lurrean ageri direnean: “ <i>ezkur ixuiye</i> ”.
<i>Iyola</i>	Txikia baina sarria: <i>arto iyola</i> .
<i>Izerai, ixein</i>	Lurra lantzeko moduan jarri, gaineko belarra kenduz. ‘Desbrozar’. <i>Larreñe izerai, baatzie izerai, ...</i>
<i>Kapazo</i>	Artaburuaren hostoak edo lastoak.
<i>Karga</i>	Hamar bala.
<i>Kaskañe</i>	Talo mota bat.
<i>Kelkortu</i>	Zenbait material, gogortu eta hamaika puskatan hausten denean.
<i>Lanzartu</i>	Lurra hobetzeko, beste zerbait erein, ez betikoa. ‘Añejar’.
<i>Laparra</i>	Aitzurrean itsatsirik geratzen den lurra.
<i>Larre</i>	Landu gabeko lurra, belardia. <i>Aurten larre utzi ttugu soro guziek!</i>
<i>Larreñ(e, -a)</i>	Beti edo ia beti larre, hots, landu gabe, mantentzen den lur zatia.
<i>Lasto</i>	Laboreen fruitua bildu ondoren geratzen den landare zatia.
<i>Layetu</i>	Laiatu
<i>Liyo</i>	Lihoa, <i>aune</i> .
<i>Luitto</i>	Soroak sanotzeko egiten diren luebakiak. ‘Drenaje’. Soro edo lur eremu <i>siyets</i> -etan egiten dira.
<i>Makinetu</i>	Bravant-a pasatu.
<i>Malkar</i>	Gurdi belar edo gurdi babalastoari zintzilik geratzen zaizkion lasto eta leka hutsak.
<i>Metatu</i>	Metak egin. Normalean belarra. Garoa ere metatzen da. <i>Belarmeta, ixtormeta, egurmeta, ...</i>
<i>Metu, txertu</i>	Txertoa.
<i>Mulu</i>	Lihozko aria. ‘Estopa’.
<i>Mulutu</i>	Lihoari azala, <i>kaskala</i> , kendu, saltarazi.
<i>Olo</i>	Oloa.
<i>Ondalandu</i>	Aitzur pikoarekin lurra landu. Ondo landu.
<i>Ongarri</i>	Zimaur.

¹⁸ Etxarriko Isidora Izari jaso diogu.

<i>Paxo</i>	‘Ramillete’
<i>Piper</i>	Piperra.
<i>Porka</i>	Artaporka.
<i>Remolatxa</i>	Erremolatxa.
<i>Siyetsa</i>	Ur baltsak dituen lur eremua.
<i>Sokalaster</i>	Gero eta gehiago estutzen den korapilloa. Gorbata.
<i>Soro</i>	Lantzen den lur zatia.
<i>Sustopil</i>	Talaburnian, su gainean, ez labean, irinarekin egiten den opila.
<i>Talo</i>	Artirinaz egindako opila.
<i>Tipule</i>	Tipula.
<i>Topillo, koopillo</i>	Korapilloa.
<i>Txietu</i>	Xehetu, txikitu.
<i>Txindille</i>	Txindila
<i>Txistopillo</i>	Korapillo laua.
<i>Txitxiyo</i>	Txitxirioa
<i>Txuittu, zuittu</i>	Zuritu, azala kendu.
<i>Urbeldu, bikortu</i>	Aleak edo bikorrak kendu. Aletu.
<i>Urriforratu</i>	Azkeneko jorraldia eman, hirugarrena, ia landarea erabat ondua dagoenean.
<i>Urtuts</i>	Landu gabe urte batez uzten denean lurra.
<i>Zalke</i>	‘Veza’. <i>Vitia Sativa</i> .
<i>Zarandatu</i>	Bahean aleak pasatu.
<i>Zikiiyo</i>	Zekalea. <i>Secale Cereale</i> .
<i>Zoi</i>	Lur zatia, belarra eta guzti.

c) Belarrak eta loreak.

<i>Ayena</i>	‘Liana’. Lizarragan <i>iyerdure</i> .
<i>Axuñe</i>	Asuin.
<i>Azkibelarra</i>	“Ezpata belarra” bezala ere jaso du Carasatorre-k.
<i>Baballeka</i>	<i>Arctostaphilos uva-ursi</i> landarea.
<i>Brikoliñ(e), frikoliñ(e), prokoliñ(e)</i>	Pistilorik handiena, gehien ageri dena. <i>Atiarik zikok brikoliñe!</i> Azalorearen buruari, txikia denean, <i>prokoliñe</i> esaten zaio.
<i>Esnebelar</i>	Belar esneduna Arbizun.
<i>Gernubelar</i>	Gernumina sendatzeko belarra.
<i>Iruorribelar</i>	Irusta.
<i>Iyertu</i>	Ihartu.
<i>Kaparrosa</i>	<i>Pupurruba</i> Arbizun. ‘Amapola’.
<i>Kardamotz</i>	
<i>Kooxo</i>	<i>Stellaria media</i> , landarea.
<i>Larbera</i>	
<i>Larbera txui</i>	<i>Kandabera</i> Ergoienan, <i>kardabera</i> Arbizun.
<i>Larra</i>	‘zarza’.
<i>Manzeliñe, -a</i>	Kamamila.

<i>Migure</i>	Viscum album, landarea.
<i>Osto</i>	Hostoa.
<i>Ubeldegari</i>	Erreka eta ibai ondoan, bere kabuz, ateratzen den gariaren antzeko landarea, Arbizun.
<i>Ziepe</i>	Brassica nigra, landarea.
<i>Ziyorri</i>	Landare mota bat.
<i>Ziyortu</i>	Zimeldu.

5.1.5. AZIENDA, PRODUKTUAK ETA LANAK.

a) Azienda.

<i>Abaro</i>	Ganaduak atsedean hartzen duenean, nahiko janda edo itzal bila.
<i>Abere</i>	Zaldia eta behorra; besteak ganaduak.
<i>Aida!</i>	Aurrera egiteko ganaduei, behiei bereziki, esaten zaien hitza.
<i>Akerra</i>	Ahuntzaren arra.
<i>Almazai</i>	Zaldi arra, behorrek ernaltzeko izaten dena.
<i>Altan</i>	Txakurraren araldia.
<i>Antxume</i>	Ahuntzaren kumea.
<i>Añarriye</i>	Katu eta piztien garraxi mindua. Pertsonen kasuan ere erabiltzen da.
<i>Apote</i>	Txerri arra, emeak ernalteko izaten dena.
<i>Ardi</i>	1. Txerri emea, ahardia. 2. Ahariaren emea.
<i>Ari</i>	Aharia.
<i>Ariko</i>	Aharikoa, gaztea.
<i>Arkaxte</i>	Ardi gaztea.
<i>Arkia</i>	Ardiaren araldia.
<i>Arrantza</i>	Astoaren garraxia.
<i>Arriyue</i>	Behi mota bat: lepo azpi handia eta motza, bular handia eta ipur mehea. Arreokoa?
<i>Artxo</i>	Arkume emea.
<i>Atxe</i>	Aratxe. Behikumea, bai arra nola emea.
<i>Aundizorri</i>	Zuldarra. Behiei larru azpian sortzen zaien harra. Arbizun <i>mandozorri</i> .
<i>Auntz</i>	Ahuntza.
<i>Aunzkia</i>	Ahuntzaren araldia.
<i>Auxo</i>	Ahuntz gazte emea. <i>Ahuntz</i> + <i>-txo</i> izan daiteke bere bilakabidea.
<i>Axartu</i>	Txerriak muturrarekin lurra irauli edo mugitu.
<i>Axui</i>	Arkumea, bai arra nola emea.
<i>Bei, -ye/a</i>	Behia.
<i>Besalei</i>	Uztarrian doazen abereak bata bestearen aurka bultzatuz dabiltzanean.

<i>Bigentxa</i>	Behi gaztea, emea. Dorraon <i>beikua</i> .
<i>Bildotxa</i>	Urteko ardi emea.
<i>Bioka</i>	Behor gaztea.
<i>Bior</i>	Behorra.
<i>Borro</i>	Ardi mota, ‘merina’.
<i>Estali</i>	Emeari arra bota.
<i>Esti!</i>	Atzera egiteko ganaduari, behiei bereziki, esaten zaien hitza.
<i>Ganado</i>	Aziendako abereak ez direnak.
<i>Garikolore</i>	Behi mota bat.
<i>Gazteinkolore</i>	Behi mota.
<i>Gorriye</i>	Behi mota, ‘pirenaika’.
<i>Idoittu</i>	Txerriak edo basurdeak lokatzetan itzulipurdika ibili, parasitoak kentzeko.
<i>Illorra</i>	Umea galtzea, ‘aborta’-tzea. (<i>H</i>)il + (<i>h</i>)aur, again.
<i>Irausi</i>	Txerria araldian.
<i>Iri, idi</i>	Idia.
<i>Iyel</i>	Behorra araldian.
<i>Jaunke</i>	Zaunka, txakurraren hotsa.
<i>Kurrixke,-uxka</i>	Txerriaren garraxia.
<i>Larrutu</i>	Larrua kendu.
<i>Marraka</i>	Ardiaren garraxia.
<i>Moxo tak!</i>	Aharia zirikatzeke.
<i>Obia</i>	Txakurraren araldia Dorraon.
<i>Ollenda</i>	Oilo gaztea.
<i>Oller</i>	Oilarra.
<i>Ollo</i>	Oiloa.
<i>Ordotsa</i>	Txerri arra.
<i>Oreitze</i>	Umea izan berri duen behiaren esnea, ‘calostro’-a.
<i>Osatu</i>	Zikiratu, kastratu.
<i>Ostiko</i>	Ganaduaren ostikada.
<i>Ozka</i>	Koska (egin).
<i>Plumetu</i>	Lumak kendu, baina baita, hegazti txikien kasuan, gorputza lumaz bete ere.
<i>Potto</i>	Zaldikumea, bai arra nola emea.
<i>Susai</i>	Behia araldian.
<i>Ttite</i>	Txitoa.
<i>Txegelle</i>	Urteko ahuntz emea. <i>Ahuntz</i> + <i>gai</i> izan daiteke bere bilakabidea.
<i>Txekor</i>	Behikume arra.
<i>Ubera</i>	Katuaren araldia.
<i>Uñuñetu</i>	Zaldia bi hanka gainean jarri. “Oin”-etik, seguru asko.
<i>Uñiño</i>	Aberearen ostikada.
<i>Uo!</i>	Ganaduei, behiei bereziki, gelditzeko esaten zaien hitza.
<i>Urde</i>	Txerri handia.
<i>Ye!</i>	Behorrei hots egiteko.
<i>Zaldiko</i>	Zaldi gaztea.

<i>Zizku</i>	Behiaren errapeko titimutur bakoitza.
<i>Zuldarra</i>	Behien larru azpiko arrak eragindako gaitza.

Behi izenak: *Txata, Morika, Urdiña, Motza, Beltxa, Ñabarra, ...*

b) Produktuak eta lanak.

<i>Almakiye</i>	Joarearen mihia lotzeko larruzko soka.
<i>Altsei</i>	Ganadua orokorrean zaintzen egoten dena.
<i>Altxerri</i>	Mendi eta basoetako ardien abaro lekuetan gelditzen den ardikaka, baina hauts bihurtua edo lurrarekin nahasia.
<i>Anderreiyek</i>	‘Lechezuelas’. Papadako haragia.
<i>Ardiki</i>	Ardiaren haragia.
<i>Artille</i>	Ardi illeaz egindakoa. ‘Lana’.
<i>Artzei</i>	Artzain.
<i>Asteye</i>	Joarearen giderra, <i>ustei</i> -tik zintzilikatzeko.
<i>Auntzei</i>	Ahuntzak zaintzen dituen.
<i>A(u)ntzutu</i>	Esnea moztu.
<i>Axuizei</i>	Arkumeak zaintzen dituen.
<i>Basare</i>	Txerria hil eta senideei txerrikiren bat (gibela, solomoa, odolkia, ...) ematen zitzaien, <i>basare</i> -an bildua. Txerriaren tripako sarea izango genuke.
<i>Beizei</i>	Behiak zaintzen dituen.
<i>Biorzei</i>	Behorrek zaintzen dituen.
<i>Birike</i>	Txerri birikak, bihotza, gantzak eta abarrekin egindako txistorra modukoa, hauxe baino lodiagoa.
<i>Ellorra</i>	Ardien zotol handia, harrizko hormak dituela. <i>Egi + le(h)or</i> seguru aski.
<i>Erautzi</i>	<i>Atxie</i> (behikumea) behiaren tititik kendu, esne gehiago har ez dezan. ‘Debekatu’ ere, esan nahi du.
<i>Errekeru, -be</i>	Sutan prestatzerakoan, janariak hartzen duen errearen zaporea, <i>gaztanbera</i> -k esate baterako.
<i>Erron, errun</i>	Oiloak arraultzak jartzea.
<i>Esne, esine</i>	Esne. Ergoienan <i>esine</i> .
<i>Esnie jatxi</i>	Behi, ardi edo ahuntzen esnea bildu. ‘Ordeñar’.
<i>Fale</i>	Joare.
<i>Gatzai</i>	Esnea gatzatzekoa. ‘Cuajo’.
<i>Gaztanbera</i>	Mamia.
<i>Gazure</i>	‘Suero’-a.
<i>I(n)gurei</i>	‘Guarda’. Unanukoa dugu <i>ingurei</i> aldaera. <i>Inguru + zain</i> seguru aski. Eta Arbizuko toponimian ere, <i>ingurei xenda</i> jaso dute NTM-n (1993, 75).
<i>Irinddure</i> ¹⁹	Esnea jaisterakoan, “golpean” datorrenean. Esne golpea.
<i>Itturriko</i>	Ganadoaren aurretik, gidari moduan, doan pertsona. Idi +

¹⁹ K. MITXELENAK horrela jaso du, eta berak dionez Zaraitzun erabiltzen dute hitz hau: “*erindura* ‘(Sal), circulación, por ej. de la leche’.”

	aurreko. Lizarragan <i>aurreko</i> , soilik.
<i>Karreyo</i>	Garraioa.
<i>Kasuein</i>	Zaindu. <i>Beyek kasueitten yondu nok.</i>
<i>Keru</i>	Usain, zapore.
<i>Kostala</i>	Garia biltzeko zakuaren modukoa. Zaku pentsua, ehunezkoa.
<i>Mandazei</i>	Mandoak zaintzen dituena.
<i>Matoi, -re</i>	Gaztanbera ‘hautsi’ edo nahastu egiten denean, gazura eta gazta izango den matoia bereizteko.
<i>Miye</i>	Joarearen mihia.
<i>Motxale</i>	Ganaduaren ilea mozten duena. Egun, etxe-izena bezala geratu da Lizarragan eta Uhartan.
<i>Piperropilla</i>	Arbizun egiten den opil mota bat. Etxarrin ere erabiltzen da.
<i>Presente</i>	Txerria hiltzen zenean, familiakoei edo lagunei ematen zaizkien zatiak.
<i>Sendokeru, -be</i>	Janariak, haragia gehien batean, pasatzen hasten denean hartzen duen usain edo kerua.
<i>Solomo</i>	Txerriaren haragia, ‘lomo’.
<i>Sosietu</i>	Ganadoa sosegatu, lasaitu.
<i>Tripeki</i>	Ardiaren odolez egindako odolkia.
<i>Tripota</i>	Txerriaren odolez egindakoa.
<i>Ttiteki(ye)</i>	Samur. Isidora Iza etxarriarrari hartu diogu, <i>ttitte</i> + <i>-ki</i> , hots, txitoaren haragia izan daitekeelarik bere bilakabidea, samurtasuna adieraziz.
<i>Txantxorropille</i>	Txerriaren gantz txigortuez egindako opila.
<i>Txerriki</i>	Txerriaren haragia.
<i>Txertxei</i>	Txerriak zaintzen dabilena.
<i>Txintxorta</i>	‘Opil’ mota bati esaten diote Lizarragabengoan.
<i>Txipotxa</i>	Odolki zuria, arkumearena.
<i>Txirikota</i>	Matoiarekin batera sortzen den likidoa, beherakoa sortzen duena.
<i>Txolortatu</i>	Arraultza ‘batueco’ bihurtu. Dorraon <i>txoloxtatu</i> .
<i>Txope</i>	Heste lodiarekin egindako odolkia.
<i>Urdilzale</i> ²⁰	Txerriak hiltzen dituena.
<i>Usteye</i>	Joareari eusteko erabiltzen den ganadoaren lepokoa.
<i>Zingiye</i>	Infekzioa errapean, ‘mamitis’. Dorraon <i>pelua</i> .
<i>Zotola</i>	Basoan dagoen txerri txabola. <i>Zo(h)i</i> + <i>ola</i> .

5.1.6. HEGAZTIAK ETA GAINERAKO ANIMALIAK.

a) Hegaztiak.

²⁰ Hauxe izango litzateke haren bilakabidea: *urde* + *(h)il* + *-tzaile* > *urdilzale*.

<i>Apeztxori</i>	<i>Motacilla Alba</i> . Buztanikara. Arbizun <i>ipurtxuiya</i> . Lizarragan ‘enara’-ri esaten diote horrela.
<i>Ariztxori</i>	<i>Sitta europaea</i> . ‘Picatroncos’.
<i>Arrano</i>	Saia, putrea.
<i>Baseperra</i>	Eperra.
<i>Basuso</i>	Basoko usoa. ‘Torcaz’.
<i>Bele</i>	<i>Corvus</i> generoko hegazti beltza.
<i>Bigerro</i>	Birigarroa. <i>Turdus philomelos</i> .
<i>Egamakur</i>	<i>Alauda arvensis</i> . Hegazti migratzailea.
<i>Eperra</i>	Galeperra.
<i>Erakatu</i>	Hegan egin. Arbizun <i>airetu</i> .
<i>Erregetxori</i>	Txori oso txikia, bi zulodun habia egiten duena. ‘Pájaro reina’.
<i>Exkabuxo</i>	<i>Garrulus glandarius</i> . Hegaztia.
<i>Galarbele</i>	<i>Ariztxori</i> -aren antzerakoa, baina beltza.
<i>Galartxori</i>	‘Gorrión’.
<i>Gautxori</i>	‘Chotacabras’.
<i>Iñere</i>	Enara. Dorraon <i>txirriña</i> .
<i>Iñerexagu</i>	Saguzar.
<i>Kafi</i>	Habia.
<i>Kalfarra</i>	Mirua. ‘Gavilán’.
<i>Kinkilinporka</i> ²¹	‘Alcaudon’?
<i>Kokille</i>	‘Picatroncos’.
<i>Kuku</i>	<i>Cuculus canorus</i> .
<i>Kurrillube</i>	Kurriloa. <i>Grus grus</i> .
<i>Ollagorra</i>	Oilagor. <i>Scolopas rusticola</i> .
<i>Ontza</i>	‘Búho’. ‘Lechuza’.
<i>Papagorri</i>	Pasatzen diren azken usoetarikoa, gazteenak omen.
<i>Pikaratza</i>	‘Urraca’
<i>Pinpintxori</i>	‘Lavandera’. Dorraon <i>sorgintxoya</i> .
<i>Pipi</i>	‘Polilla’
<i>Tordantxa</i>	‘Estornino’
<i>Ttitemeru</i> ²²	‘Milano’, Arbizun <i>mirubua</i> .
<i>Txontxolongorri</i>	Txantxangorria.
<i>Txorijale</i>	Hegazti harrapakina.
<i>Txortxabala</i> ²³	‘Cernícalo’.
<i>Zeinzuye, -a</i>	Arrano mota bat. ‘Aguilucho’.
<i>Zozo</i>	<i>Turdus merula</i> .

²¹ Ez da oso seguru, baina txori honek zintzilik uzten ditu bere harrapakinak sasietan, eta bere izenak hori adieraz lezake, agian: *zintzilik + porka*.

²² Etxarrin, honelako esaera jaso dugu: “*Ttitemeru ollojanzale, alkatie atzeti!*”.

²³ ‘Zorzal’-etik etor daiteke.

b) Gainerako animaliak.

<i>Abaaju</i>	‘Makailau’
<i>Aingera</i>	Angila.
<i>Amimoro</i>	<i>Amimora</i> (Arbizun), armiarma. Arruazun <i>imermau</i> . Lakuntzan <i>armi(a)mosa</i> .
<i>Amoma, amuma</i>	Armiarma sarea.
<i>Amurrei</i>	Amuarrain.
<i>Ar</i>	‘Gusano’.
<i>Arkakoso</i>	Arkakuso.
<i>Arraiburuaundi</i>	Zapaburua. <i>Kunkunburuba</i> Dorraon. Arbizun <i>zapandurra</i>
<i>Atxiyamatxiya</i>	Tximeleta Arbizun. <i>Matxita</i> (Etxarrin).
<i>Auli</i>	Euli.
<i>Aultxo</i>	Eltxo.
<i>Axai</i>	Azeri. Arruazun <i>exei</i> .
<i>Azkonar</i>	Azkonarra.
<i>Barbu</i>	Barboa.
<i>Bare</i>	‘Limaco’.
<i>Basakatu</i>	Katu basatia.
<i>Basauntze</i>	Oreina.
<i>Baxaka</i>	Basurde kumea.
<i>Buruaundi</i>	Zapaburua..
<i>Erbia</i>	Erbia.
<i>Ergueniri</i>	Erbinude. Arbizun <i>errekoniriya</i> .
<i>Erlamiñe</i>	Erlamin. Arbizun <i>erlemiña</i> .
<i>Ezkalu</i>	Ibaiko arrain txikia.
<i>Ezpore</i>	‘Tabano’
<i>Ikeiñe</i>	‘Garrapata’
<i>Ipurtargi</i>	‘Luciérnaga’
<i>Izeiñe</i>	Izain.
<i>Kaparra</i>	‘Garrapata’
<i>Kapaxta</i>	Xomorroa, parasittoa.
<i>Katamotza</i>	‘Lince’, ‘pantera’.
<i>Kattagorri</i>	Urtxintxa.
<i>Kattalingorri</i>	‘Mariquita’.
<i>Kilkirre</i>	Kilker. Arbizun <i>kirkirra</i> .
<i>Kunkun</i>	Apoa.
<i>Langosta</i>	Ibaiko karramarroa.
<i>Loine</i>	‘Madrilla’
<i>Mandauli</i>	Ganado inguruan dabilen euli handia.
<i>Matiesaltakalaye</i> ²⁴	Matxinsaltoa. Arbizun <i>martinsaltalaiya</i> .

²⁴ Horrela dago jasota NEM I-en (Etxarri, 17. orrialdean): “..., *ta beste pixti betzuk e desageturik zela, matiesaltakalaiak, eta holako xaguban tamañoko ta holako bitxo gehienak, ...*”

<i>Matxita</i> ²⁵	Tximeleta txikia, argiaren inguruan biraka dabilena.
<i>Miztu</i> (be)	Sugearen mihia, luzea eta mehea. Dorraon, honetaz gain, <i>limeztiya</i> ere esaten dute.
<i>Musker</i>	‘Lagarto’
<i>Muxer, muxar</i>	‘Liron’
<i>Otxarruitta</i>	‘Salamandra’ Arbizun.
<i>Partza</i> ²⁶	‘Liendre’.
<i>Sugegorri</i>	‘Víbora’. Arbizun, Olasagarre-k <i>sube beltza</i> jaso du.
<i>Sugendille</i>	‘Lagartija’, Arbizun <i>subengilla</i> .
<i>Triku</i>	‘Erizo’.
<i>Tximitxei</i>	‘Chinche’.
<i>Txingurri</i>	Inurri.
<i>Txipe</i>	Ibaiko arrain txikia.
<i>Txistera</i>	‘Lombriz’. Arbizun <i>txintxera</i> .
<i>Uberaga</i>	Igaraba.
<i>Untxiye</i>	Konejuari horrela esaten omen zitzaion garai batean Etxarrin, Anbruxio Erdoziak dioskunez. Gaur <i>konejube</i> .
<i>Ursagube</i>	Uretako arratoia.
<i>Zapabu</i> (r)u	Buruhaundia. Dorraon <i>kunkunburuba</i> .
<i>Zapo</i>	Zomorroa, edozein intsektu.
<i>Zapoziyela</i>	Igela. Arbizun eta Unanun <i>zapittela</i> . Dorraon <i>ñaskarra</i> .
<i>Zierrapo</i>	<i>Gammarus pulex</i> . ‘Camaron’. Dorraon <i>ñakarra</i> .
<i>Ziraun</i>	‘Lucion’
<i>Zorri</i>	‘Piojo’

5.1.7. BASOA ETA ZENBAIT LANBIDE.

a) Zuhaitzak eta perretxikoak.

<i>Agiñe</i>	<i>Taxus baccata</i> .
<i>Alkakaatxa</i>	<i>Rosa canina</i> .
<i>Ametza</i>	<i>Quercus pyrenaica</i> .
<i>Amoto, gorringo</i>	<i>Amanita caesarea</i> .
<i>Amube</i>	Landareen kimua. ‘Yema’.
<i>A(l)parneka</i> ²⁷	<i>Lepiota procera</i> .
<i>Aran</i>	Basarana, ‘endrina’.
<i>Arantza</i>	Arantza.

²⁵ Badirudi *pitxita* ere esaten dela Etxarrin, ondorengo esaldi jostagarrian ikus daitekeen moduan: “*Pitxita, pitxita, bota al dezu zuk uzkerria ipurdiye itxita?*” (Baleztenan etxeko Joxe Martiñi hartuta).

²⁶ San Juan bezperan, suak saltatzerakoan horrela esaten da Etxarrin: “*Zorriyek eta partzak iltzeko!*”.

²⁷ Hemen, seguru aski, metatesia gertatu da: *galanperna* > *alparneka*, eta latinean izan dezake bere jatorria, *gallum perna*, horrelako itxura baitu ziza honen hankak.

<i>Ardei</i>	Pagoan ateratzen den egur perretxikoa. ‘Yesquero’.
<i>Aritz</i>	<i>Quercus</i> taldeko zuhaitza. Dorraon <i>areitza</i> .
<i>Arraiaritz</i>	<i>Quercus petraea</i> .
<i>Arte</i>	Artea.
<i>Astaputz</i>	<i>Lycoperdon equinatum</i> .
<i>Astiger</i>	Astigarra.
<i>Ayena</i>	Aihena.
<i>Bonbor</i>	Orboa. ‘Abultamiento’.
<i>Borrozein</i>	Zuhaitz edo landarearen ondotik sortzen den kimua. ‘Brote’.
<i>Elorri</i>	Elorriondo.
<i>Erratza</i>	<i>Ruscus aculeatus</i> .
<i>Ezkur</i>	Aritzaren fruitua.
<i>Ezpel</i>	Ezpera.
<i>Fagatxi, paatxi</i> (<i>Lak., Arr.</i>)	Pagoaren fruitua. <i>Fago</i> + <i>hazi</i> izan daiteke bere bilakabidea. Lakuntza eta Arruazuko burutzapenean, <i>f/p</i> txandaketaz gain, bokalen arteko herskari ahostunaren galera suertatu da.
<i>Fago</i>	<i>Fagus silvatica</i> .
<i>Gaztein</i>	Gaztainondo.
<i>Gibelgorri</i>	<i>Russula</i> taldeko perretxikoa.
<i>Gibelurdin</i>	<i>Russula</i> taldeko perretxikoa.
<i>Gildde</i>	Gereziondo. <i>Gilda</i> Arbizun.
<i>Goñizize</i>	<i>Cantarellus Cibarius</i> Lakuntzan.
<i>Iller</i>	Ilar.
<i>Intxor</i>	Intxaurrondo. Lakuntzan <i>eintxor</i> , Arruazun <i>entxor</i> .
<i>Ipuu</i>	Ipuru. Dorraon <i>otia</i> .
<i>Ixtor</i>	Garoa.
<i>Jainkuen atxapar</i>	<i>Lonicera xilosteum</i> .
<i>Kapori</i>	<i>Boletus</i> taldeko onto ondua.
<i>Kattu</i>	Gorosti. ‘Cactus’-etik, agian.
<i>Koosti</i>	Gorosti. <i>Goosti</i> Arruazun.
<i>Larresulso</i>	<i>Psalliota campestris</i> . Ergoienan <i>sulso</i> . Ziza mota.
<i>Lertxuñe</i>	‘Alamo temblón’. <i>Koxku</i> eta <i>firi-firi</i> ere esaten zaio.
<i>Lizer</i>	Lizarra.
<i>Luxintxe</i>	‘Sauco’.
<i>Marmatille</i>	<i>Viburnum lantana</i> .
<i>Marrubi</i>	Marrubi. <i>Marrobi</i> ere entzun daiteke Unanu eta Lakuntzan.
<i>Masusta</i>	Laharraren fruitua.
<i>Mazpille</i>	<i>Sorbus torminalis</i> .
<i>Mizpero, -a</i>	Mizpira.
<i>Mube</i>	Muga.
<i>Neguzize urdiñe</i>	<i>Clytocibe nebularis</i> . Ziza mota.
<i>Neguzize zuiye</i>	<i>Clytocibe geotropia</i> . Ziza mota.
<i>Okaan</i>	Arana.
<i>Oldiyo</i>	Goroldioa.

<i>Ollogantza</i>	<i>Frangula alnus.</i>
<i>Ondo</i>	Zuhaitzen azpikaldea, moztu ondoren basoan geratzen dena. <i>Ondue jo</i> zuhaitza lurraren ondotik moztu eta botatzea litzateke.
<i>Onttobeltxa</i>	<i>Boletus aereus.</i>
<i>Orbo</i>	Zuhaitzen bonborra.
<i>Ostazuri</i>	<i>Sorbus aria.</i>
<i>Ota</i>	Ote. Dorraon <i>otaka.</i>
<i>Perretxiku</i>	<i>Cantharellus cibarius.</i>
<i>Piñu</i>	Pinondo.
<i>Primaberako zize</i>	<i>Tricholoma georgii.</i> Lakuntzan <i>Meyetzeko zize.</i>
<i>Saar</i>	Sagarrondo.
<i>Saarmiñe</i>	Sagarmin.
<i>Saats</i>	Sahatsa.
<i>Soye</i>	Zenbait materialetan egiten diren irekidura edo zirrikituak. ‘Grieta’.
<i>Sugemaatsa</i>	<i>Arum maculatum.</i>
<i>Sugendurre</i>	Zuhandor gorria. <i>Cornus sanguinea.</i> Ergoienan <i>zimendur.</i>
<i>Suizena</i>	Zuhaitzaren betak. Egur pasmatua, usteltzen hasia.
<i>Txipo</i>	Makal.
<i>Txoormatxa</i>	Bere kabuz sortzen den mahatsa.
<i>Udere</i>	Udare, madari.
<i>Untze</i>	<i>Hedera helix.</i>
<i>Urritz</i>	Urritzondo.
<i>Zaparra</i>	Edozein zuhaitzen plantak sarri daudenean.
<i>Zize</i>	Edozein perretxiko.
<i>Zume</i>	Zumondo.
<i>Zumer</i>	Zumarra.
<i>Zuztarra</i>	Amuak urte bat betetzen duenean. ‘Brote’.

b) Lanak eta lanbideak.

<i>Aaki</i>	Haga meheak, txondorrean sartzen direnak sua behar bezala hartzeko.
<i>Argiñe</i>	Harria lantzen duena.
<i>Arotza</i>	Ferragizona. ‘Herrero’
<i>Baldokan</i>	Enborrak lehertuz txikitu. ‘A gajos’.
<i>Betegarri</i>	Txondorra pizturik mantentzeko sartzen den egur xehea. Tximiniatik suetxera botatzen da eta, ondoren, satagarekin nahastu.
<i>Bilibirjiñe</i>	Bilabakin. ‘Berbiquí’.
<i>Borra</i>	Burniziriak enborretan sartzeko mailu handia. Giderra oso luzea du eta bi eskuez erabiltzen da.
<i>Burniziri</i>	Enborrak lehertzeko zirria.
<i>Buuzei</i>	Auzateetako ardo-banatzaila. <i>Buruzagi</i> -tik, ziur aski.
<i>Ferratu</i>	Ganadoari ferrak jarri. ‘Herrar’. Horretarako herrietan

	<i>ferratoki</i> -ak egoten ziren.
<i>Galtzarrotxa</i>	Orratz luzea, punta egiteko.
<i>Galtzinlabe</i>	Karea egiteko labea.
<i>Iketza</i>	Txondorrean egositako egurra. Lakuntzan <i>inketza</i> .
<i>Ikezkiñe</i>	Txondorrek egiten dituenak.
<i>Ilintxe</i>	Txondorrean gaizki egositako makila.
<i>Illeki</i>	‘Tizón’. Artzainek gauz otsoak uxatzeko erabiltzen zituzten, bata bestearekin eraginez, txinpartak sortuz.
<i>Inkerra</i>	‘Brasa’
<i>Iruie</i>	Txondorra estaltzeko erabiltzen zen lurra eta orbela egindako kapa.
<i>Jaupere</i>	Jaupada, jaupai egin ²⁸ . Irrintziaren moduko garrasia, otordu garaia dela abisatzeko basoan lanean dabiltzanei. Otordua prestatzen zuenak (rantxeroa) botatzen zuen <i>jaupere</i> -a.
<i>Joskiñe</i>	Josi egiten duen pertsona.
<i>Jostorratza</i>	Josteko orratza. Hariarekin jostekoa, txikia.
<i>Kaporratza</i>	Artilearekin josteko orratz handia.
<i>Kisusgille</i>	Igeltseroa.
<i>Lantei</i>	Markatutako zuhaitzak basotik ateratzeko lana.
<i>Lorrien</i>	Egurra basotik arrastaka ateratzeko sistema. Normalean idiek ateratzen zituzten toki zailenetatik horrela arbolak.
<i>Maldagarrota</i>	Gurdi egurra lotzeko haga. Dorraon <i>marguleta</i> .
<i>Narde</i>	Enborrak basoan herrestan eramateko endaitz luze eta jiratorioa.
<i>Olarreta</i>	Elurretan ibiltzeko tresnak, oholez eginak, oinetakoen azpian lotzen ziren, hankak elurretan ez hondoratzeko, Lakuntzako Felix Arregi-k kontatu digunaren arabera.
<i>Ondozulo</i>	Txondorrek behelaldean dituen airea hartzeko zuloak.
<i>Pastorratza</i>	Orratz handia eta sendoa, larrua eta beste material gogorretan erabiltzeko.
<i>Pelaki</i>	Ikatza biltzeko tresna.
<i>Pike</i>	Zuhaitz enborrak herrestan eramaterakoan edo zerratokian jiratzeko tresna puntaduna.
<i>Pion</i>	Peoi.
<i>Pottaka</i>	Abereen adarrekin egindako edalontzia.
<i>Sataga</i>	Txondorreko suetxeraino iristen den haga edo makila luzea. Tximiniatik suetxeraino iritsi behar da, suetxeko betegarria nahastu eta txondorra pizturik mantentzeko. Lakuntzan <i>satarra</i> .
<i>Suetxe</i>	Txondorraren zoruko erdi-erdian dagoen gunea. Hortik ematen zaio su txondorrari.
<i>Tarratulu</i>	Daratulu.

²⁸ K. MITXELENA (OEH, 175): “Jaupai egin. Gritar (...) *Manexen lagun ikazkin oiek / bizkor egin dite jaupai*. Or *Eus* 308”.

<i>Tieferra</i>	Enborrak edo zuhaitzak herrestan eramateko ziria, ferra itxurakoa. Tiratzeko ferra. Lakuntzan <i>tiaferra</i> .
<i>Tittere</i>	Hatz puntako babesa, orratza bultzatzeko. ‘Dedal’.
<i>Txantillona</i>	Txondorreko tximinia osatzeko erabiltzen diren egur zatiak.
<i>Txastañe</i>	Daratulu oso txikia.
<i>Txertu</i>	‘injerto’.
<i>Txondarplaza</i>	Txondorra egiteko tokia basoan. Normalean toki egokitua izaten zen, ez bakarrik txondorrerako, tresna eta txabolarako ere bai.
<i>Txondarra</i>	Txondorra.
<i>Txondarzulo</i>	Txondorraren zorua.
<i>Txuketu</i> ²⁹	Idortu, agortu. Ur baltsa bat, adibidez.
<i>Umeazulo</i>	Txondorrek airea hartzeko zuloa. Altueran, erdiparean egoten dira eta kea botatzen dute.
<i>Urdizale</i>	‘Matalechón’. Etxez etxe ibiltzen zen udazken eta negu aldean txerriak hiltzen.
<i>Zapatariye</i>	Larrua josteko soka, larruzkoa.
<i>Zeirube</i>	Zura lantzeko aitzurra.
<i>Zurgiñe</i>	Zura lantzen duen pertsona.

5.1.8. HAUR HIZKUNTZA.

<i>Amatto</i>	Amatxo.
<i>Amiña puzpuliña</i>	Haur txikiek amonari esaten diote, iseka moduan.
<i>Anjubek ein</i>	Hitzak esaten hasi baino lehenago, haurrari eskatzen zaizkion ‘azalpenak’.
<i>Attatto</i>	Aitatxo.
<i>Aittuna ttuntuna</i>	Amonaren kasuan bezala, aitonari.
<i>Apapattu</i>	Harrapatu.
<i>Apapax</i>	Pasiatzera atera. <i>Guazen apapax!</i>
<i>Apapo(x)</i>	Akabo! Zerbait bukatu edo norbait joan dela adierazteko.
<i>Apatxin</i>	Eserita.
<i>Apo-apo ein</i>	“ <i>Ez jo, apo-apo ein!</i> ” ‘Guapo’-tik dator ziur aski.
<i>Aupas</i>	Besotan eraman.
<i>Bixi-bixi</i>	Laztana. Haur joko batean <i>kurrin-kurrin</i> -en antonimoa izango litzateke.
<i>Eñeñe</i>	Esnea.
<i>Gullu-gullu</i>	Edan. <i>Kolo-kolo</i> -ren parekoa. Onomatopeikoa da.
<i>Kakalla</i>	Zakarra.
<i>Kakulle</i>	Txakurra.
<i>Kikixe</i>	Txerria.
<i>Kixona</i>	Gizona.

²⁹ Iparraldean *xukatu* (SARASOLA, 1995, 1091)

<i>Kol(o)-kol(o)</i>	Edan. <i>Gullu-gullu</i> -ren parekoa. Onomatopeikoa.
<i>Koxo-koxo</i>	Gozo-gozoa.
<i>Koko</i>	Gozokia.
<i>Kuku</i>	Haurrari, begiratu eta jarraian estaliz esaten zaio. <i>Ttuttu</i> -ren parekoa dugu.
<i>Kurrin-kurrin</i>	Haurraren eskua zapaldu, ahur atzekaldeko hezurak mugituz. <i>Bixi-bixi</i> -ren antonimoa litzateke. Onomatopeikoa.
<i>Mama</i>	Ura.
<i>Mamuxo</i>	<i>Mama</i> + <i>goxo</i> da bere bilakabidea. Aitona batek horrela esaten zion bere ilobatxoari Etxarrin, patxarana edaten ari zela: “ <i>Au da aittunaan mamuxue</i> ”. Ardoa esateko ere balio du.
<i>Mememe</i>	Ardia, arkumea. Onomatopeikoa.
<i>Mixine</i>	Katua.
<i>Mumube</i>	Behia. Onomatopeikoa.
<i>Niniye</i>	Umea.
<i>Ñoño</i>	Lo.
<i>Pa</i>	Musu.
<i>Papa</i>	Ogia.
<i>Papue</i>	Eulia.
<i>Pette</i>	Txupetea.
<i>Pipix</i>	Txixa.
<i>Pitte</i>	Pixka.
<i>Plisti-plasta</i>	Bainatu edo/eta uretan ibili. Onomatopeikoa.
<i>Popa</i>	Zopa.
<i>Pottotto</i>	Zaldia.
<i>Potxitxe</i>	Polita.
<i>Punpullun</i>	Hurra lurrera erori. “ <i>Punpullun-punpullun, lurria!</i> ”.
<i>Pupu</i>	Min.
<i>Tax-tax</i>	Jo. Onomatopeikoa.
<i>Ttattiko ein</i>	Errefusatu. Haur bat besotan hartu eta honek atzera egiten duenean, ez duela hartu dionarekin nahi adieraziz.
<i>Ttittle</i>	Txitoa.
<i>Ttotto</i>	Inozo. Tonto.
<i>Ttuttu</i>	<i>Kuku</i> -ren parekoa.
<i>Txintxin</i>	Dirua. Onomatopeikoa.
<i>Txist</i>	Ziztada.
<i>Txitxi</i>	Haragia.
<i>Txotxo</i>	Gozokia. Norbait hiltzen denean, horrela esaten da: “ <i>Fan dek/n alako txotxuek eittia zerue!</i> ”
<i>Xixi</i>	Oso beroa.
<i>Zapo</i>	Insektoa.

5.1.9. KOLPEEN IZENAK ETA BESTE ZENBAIT HITZ

a) Kolpeen izenak

Muturreko, belarrondoko, lepageñeko, lepatxikiko, bizkerreko, ipurzuloko, masailleko, zaplastako, zazitako, blastako, zizteko, taloaiñeko, zartako, kaskoko, kasketako, ostiko, makillezo, labankazo, aizkorazo, aitzurkezo, akill(uk)ezo, bulkezo, ...

b) Beste zenbait hitz

<i>Adan</i>	Baldar, jazkera ez egokikoa.
<i>Antxiken</i>	Saltokan, presaka.
<i>Anularun famularun</i>	Nora joan ez dakiela, ardurarik gabe. ' <i>An ibilko zan anularun famularun</i> '.
<i>Apio ein</i>	Uretan murgildu, burua eta guzti. Norberak bere buruari zein beste bati egin diezaioke, azken kasuan, gaztelerako 'aguadilla' delarik.
<i>Arrako</i>	Igeri egiterakoan ematen den besokada bakoitza. 'Brazada'. <i>Amar arrakotan ein yet ibei guzie!</i> (Hamar arrakotan egin diat ibai guztia!) <i>Ara arrakuek eitten!</i> (Haur bat lurrean etzanda eta besoak eraginez mugitu nahi duenean).
<i>Arra(n)palo</i>	Pilatzaile. Dena beretzat nahi duenari esaten zaio.
<i>Arrastiñetu</i>	Zerbaiten bila ibili.
<i>Arrasto</i>	Marra. Dorraon <i>arraska</i> .
<i>Arrekilkorres</i>	Bizkar gainean beste norbait eraman. <i>Txaliño(maliño)kan</i> Arbizun, eta <i>trikotan</i> Ergoienan, Dorraon <i>triko-triko</i> . Arbizun haur txikiei <i>arretxingorres</i> ere bai.
<i>Arrije</i>	Arroa, maletan eraman daiteken bakoitzaren jabegoa.
<i>Arrubiye</i>	Harrobia. Toponimian asko agertzen da. <i>A(r)anbeltzeko arrubiye, Altunaan arrubiye, Apezaan arrubiye, ...</i>
<i>Auzomotojorik</i> ³⁰	Harroturik.
<i>Aztapatu</i>	Tupust egin.
<i>Battako ezpata</i>	Pertsona gaiztoa.
<i>Battakurre</i>	Biren arteko lehian, hirugarren batek ateratzen duenean etekina, honi esaten zaion hitza.
<i>Beimena</i>	Baimena.
<i>Beittu</i>	Denunziatu.
<i>Bieltu</i>	Bidali.
<i>Bienarrien</i>	Bidenabar. Arbizun <i>biernar</i> .

³⁰ Badirudi, garai batean *auzoa* egiten zela herrietan, hots, bilera eta ondorengo afaria. Eta kontuan izanik *moto*-ak ilea apaindua edo bildua esan nahi duela, pentsa daiteke zein den hitz honen etimologia: *auzo* + *moto* + *jorik*, hau da, afarirako apaindurik (*motojorik*) bezala dabilena, harro-harro dabilena.

<i>Bueltaan-bueltaan</i>	Bira eta bira. Bueltaka. Zentzu figuratuan ere erabiltzen da.
<i>Bulketu</i>	Bultzatu.
<i>Denbuas</i>	Laster, berehala.
<i>Dulebre</i> ³¹	Fundamentua, gaitasuna, indarra edo sasoia ere adieraz dezake.
<i>Elo, -ue</i>	Nahi adina ez bada ere, gogoko den zerbait probatu, dastatu gutxienez.
<i>Enanzatu</i>	Lanean edo beste zerbaiten aurreratu, probetxua atera.
<i>Erdietu</i>	Lortu. <i>Erdieziaun tratue!</i> (Erdiets dezagun tratao!).
<i>Erkan-erkan</i>	Txandaka. Ordena jarraituz.
<i>Erautzi, Erootzi</i> ³²	Eragotzi, debekatu. Badirudi biak daudela lehian Etxarrin. <i>Itz zakarrok erootzi yozkiyok semiei!</i> (Mikaela Mauleon). Beste zenbaiti <i>erautzi</i> jaso diogu. Arbizun <i>galaazi</i> .
<i>Furruxte</i>	Trago laburra, txikia. <i>Furruxtaat besteik eñet bier!</i> (Furrusta bat besterik ez dinat behar!)
<i>Garbieratu</i>	Nahastu, erotu, galderak eginez adibidez.
<i>Gaztietu</i>	Abisatu.
<i>Gingirriñetan</i>	Haserre, bere onetik aterea saltatzeko prest.
<i>Gixetxar</i>	Jenio txarrekoa, beti urduri dabilena.
<i>Gorrotoiñe</i>	Gorrotoa, ezin eramana.
<i>Guri-guriye</i>	Itxura oso onekoa, diztira eta guzti.
<i>Ibei</i>	Ibai. Arbizutik ekialdera <i>ubelde</i> .
<i>Iderrosi</i>	Astindua.
<i>Iguindduik</i>	Nazkaturik, asperturik.
<i>Iluxioantonio</i>	Maliziarik gabea. ‘Iluso’.
<i>Ipurlaso</i>	Ipurdi handi eta eroria duena.
<i>Ipurserbitzai</i>	Morroi, peoi. Horrela jaso genion Mikaela Mauleon etxarriarrari: <i>Or ibilko itzeke denen ipurserbitzai!</i>
<i>Ipurloxintxero</i>	Zurikerietan ibiltzen dena, <i>limixtezale</i> . ‘Lameculos, pelota’.
<i>Ipurtargi</i>	1. ‘Luciérnaga’. 2. Buru-gaitasun gutxiko pertsona. 3. Argi exkaxa.
<i>Iretsi</i>	Irentsi.
<i>Iruli</i>	‘Presumido’
<i>Iseki</i>	Eskegi, zintzilik dagoena.
<i>Itzuldu</i>	Buelta eman gurdiak adibidez, zama guztia lurrera erortzen delarik, bide txarra delako.
<i>Iyola</i>	Txikia baina sarria. Artoa adibidez.
<i>Iyortzi</i>	Igurtzi.
<i>Kasketoso</i>	Tenkor.

³¹ K. MITXELENA (OEH, 308): “*Dulebreik bea, sin fundamento (Etxarri-Aranaz y Burunda, Inza RIEV 1928, 152)*”

³² OEH-k (740) horrela jasotzen du: *eragotzi, eraotzi (V-gip), erautzi (S), erautsi (S), eagotzi*. Eta ondorengoan izan daiteke bere bilakabidea gure esparruan: *eragotzi > eraotzi > erootzi*.

<i>Kattuestiek</i>	Pilotak egiteko ‘bihotza’. ‘Tripas de gato’.
<i>Lerrein</i>	1. Nekatu. 2. Amorrarazi.
<i>Leze</i>	Leize.
<i>Limitti(ye)</i> ³³	Gozozale, ‘laminero’.
<i>Limixtezale</i>	Zurikerietan ibiltzen dena. ‘Lameculos’. Mili(s)katu-ren metatesia, ziur aski.
<i>Lurresko</i>	Barrutik soilik estainatutako zeramika.
<i>Malamente</i>	Ezer egiterik ez dagoenean erabiltzen da, ‘en vano’.
<i>Maldur</i>	Osasuntsua eta ederra. Guria baino zerbait gehiago.
<i>Matxindeye</i>	‘Matxindegia’, jendetza asalaturik.
<i>Milixko</i>	Jateko gauza bereziak baino nahi ez dituen. Mili(s)katu-tik, seguruenik.
<i>Moko-mokuen</i>	Zerbait nonbaitetik atera behar denean, juxtu ageri hasten denean. ‘Asomando’.
<i>Morikesko</i> ³⁴	Buztinezkoa, zeramika, kanpotik eta barrutik estainatua.
<i>Muno</i>	Muinoa.
<i>Mutur laune</i>	‘Bizio’ haundiko pertsona, ez duena edozer jaten.
<i>Muzin</i>	Aurpegi txarra jarri.
<i>Nabarben</i>	Harro. Bere “burua” erakustea gustatzen zaiona.
<i>Nozittu</i>	Konturatu.
<i>Nunean</i>	Edozein tokitan. <i>Nun(er)e(h)an ?</i>
<i>Obaldu</i>	Makurtu, ganbeldu. ‘Flectar’.
<i>Ogi</i>	Elizan, erresponsoak egiteko, familia bakoitzak duen tokia. Badirudi <i>obi</i> beharko zuela izan, baina agian ogitik ere etor daiteke, ogia eramaten baitzen joaten zirenen artean banatzeko. Etxarrin eta Arbizun jaso dugu berdin, <i>ogi</i> .
<i>Opopotan</i>	Atzetik izan, oso hurbil. Opo-opotan. <i>Polizia opopotan zuten</i> . ‘Pisándoles los talones’.
<i>Otzille</i>	Uretara sartu aurretik, gorputza uraren tenperaturara egokitu nahian hartzen den bustialdia. Bustialdia, gehien bat sabel inguruan, kopetan eta kaskezurrean hartzen da.
<i>Pitte(-pittaat)</i>	Pixka. Oso gutxi. <i>Pittaat < pitta bat</i> .
<i>Pittilingorri</i>	Mutiko mukizua, gazteegia edozertarako.
<i>Pixerreka</i>	Pixaldia.
<i>Pixtu</i>	‘Silbato’.
<i>Poleki</i>	1. Kontuz, geldu. 2. Ongi.
<i>Porta-porta</i>	Barra-barra, ardurarik gabe. <i>Umiek porta-porta ein da ...</i> ‘A espuestas’.
<i>Pott ein</i>	Lagunak egin, adiskidetu. <i>Aspaldiyontan pott einda ziek!</i>
<i>Putzudore</i>	Ura lortzeko egiten den putzua, lurra zulatuz.
<i>Rebuxe</i>	Denetan txikiena edo balio gutxien duena. Soberan

³³ OEH (594): **limiti** (B; *VocB*). Ref.: A; Izeta *BHizt*. Goloso, laminero. “*Gure artean limiti aunitz badire*” Izeta *Bhizt*.

³⁴ *Majorika > mayorika > maorika > moorika > morika > morike + -sko (-zko)* izan daiteke bere bilakabidea.

	dagoen zerbait.
<i>Resumiña</i>	Arrenkura, gorrotoa Unanun. Etxarrin <i>erresumiñe</i> .
<i>Salioka</i>	Tenis-aren kontaketa sistemarekin arautzen den pilota jokoa.
<i>Siñetsa</i>	Pertsona fidagarria.
<i>Sonbela</i>	Sonbreroa.
<i>Toxagorri</i>	Neska mukizua, gazteegia edozertarako.
<i>Trunketaa</i>	Zeharka, era perpendikularrean. Trunketara.
<i>Ttirripitto</i>	Pertsona uxeroa, beti zerbait esateko duena. Sosegurik ez duen jendea ³⁵ .
<i>Ttopor</i>	Txikia eta zabala. Berdin pertsona nola animalia edo gauzei egokitzen zaie.
<i>Ttuttuipiko,</i> <i>txutxunpiko</i>	Norbaiten aho zulora begira gelditu belaunak makurturik eta gorputza zuzen duela. ‘En cuclillas’. <i>Txutxunpiko</i> aldaera Blas Alegriak erabiltzen du Lakuntzako Pertza-n (143): “... <i>erreka baztarrian txutxunpiko, ...</i> ”
<i>Txanke</i>	Karta jokoko ‘sotak’.
<i>Txiñer</i>	Anima, izpiritua.
<i>Txiñerratxo</i>	Sorgiña. Pertsona zitala, gaiztoa. Toponimian ere badago horrelako bat Etxarrin, <i>txiñermuno</i> .
<i>Txirrimixkei</i>	Egin beharrekoa, baina ez oso garrantzitsua. Denbora pasa bezala egiten diren egin beharrak. Arruazuko aldizkariari horrela jarri diote izena: <i>Txirrimiskeeyek</i> .
<i>Ur-urkatu</i>	Ur jauzia. Horrela dator R. Carasatorrek helerazi didan Nafarroako Artxibategi Orokorreko fotokopia batean. Fotokopia hori 1638ko dokumentu batena da, urte horretako sorta bakarreko 37 zenbakidunetik ateratakoa, eta horrela dio: <i>Y. Ur Urcatu que llaman al arroyo que se despeña de Verain...</i> Beraz, Beriain menditik salto egiten duen urari esaten zioten horrela.
<i>Uxalfer</i>	Lan iraukorra egiteko gai ez dena. Gaur hemen, bihar bestean dabilena.
<i>Uzkeldu</i>	Gainean duen zamarengatik makurtu. ‘Flectar’.
<i>Xukerreguxexu</i>	Emakume edo gizon ximplea, ajolagabekoa.
<i>Zakar</i>	Itsusi.
<i>Zilipurdiken</i>	Tontakerietan, arduragabeko solasaldian adibidez. <i>Emen niok neskatuoikin zilipurdiken!</i>
<i>Zimel</i>	Pertsonari egokiturik, indarrean dagoela adierazteko. Haragiari dagokionez, aldiz, ‘xamur’-aren aurkakoa.
<i>Zir-mur</i>	Zurumurrua.
<i>Ziyortu</i>	‘Zigortu’.
<i>Zoldoso</i>	Zikin.
<i>Zotza</i>	Pilota jokoa, gaizki ematen zaionean pilotari.
<i>Zurrupe</i>	Edaria, baina alkoholdua.

³⁵ Horrela definitu du I. Caminok (1997, 613) Aezkoako *tarrapatta*.

Zurrupeko Tragoxka.
Zurrupero Zurrutero, ardo zalea.

5.2. SAKANA INGURUKO HIZKEREKIKO ALDERAKETA ETA KIDETASUN LEXIKOAK.

Bestalde, lexiko jasotze eta alderaketa honetaz gain, lehen esan bezala, beste hainbat lan orokor eta monografia izan ditugu kontuan eta emaitza edo ondorio batzuk jaso ditugu, alor semantikoen ondoren azalduko ditugularik. Hauxek dira hain zuzen:

- *Gipuzkera-nafarrera muga lexikoak EAEL-en.*
- *El-ren galdetegi lexikografikoaren emaitzak Sakana erdialdean.*
- *Burunda eta Sakana erdialdearen arteko muga lexikoak.*
- *Goierry (Ataun, Zegama) eta Sakana erdialdearen arteko muga lexikoak.*
- *Euskal Dialektologiaren Hastapenak laneko lexikoaren ataleko gipuzkera, nafarrera garaia eta Sakana erdialdeko lexikoaren arteko alderaketa.*
- *Aezkera eta Sakana erdialdeko hizkeraren kidetasunak.*
- *Zenbait muga lexiko. (Burunda-Goierry-Sakana).*

5.2.1. GIPIZKERA-NAFARRERA MUGA LEXIKOAK EAEL-n.

Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa deritzan lanean ematen diren 569 emaitzak izan ditugu kontuan alderaketa lexiko hau egiterakoan. Alde batetik, gipuzkeraz mintzatzen diren herrietako emaitza nagusiak jaso ditugu, ezkeraldeko zutabeetan islatuz; bestetik, gauza bera egin dugu ‘nafarrera’ hizkeratzat izan dezaketenekin, eta hauek erdiko zutabeetan jaso ditugu; eta azkenik, Sakana erdialdean guk jaso ditugunekin konparatu ditugu, hauexek eskuinaldeko zutabeetan jarri ditugularik. Berrogeita hamarretik gorakoak izan dira gipuzkera-nafarrera alderaketan, nafar kutsua azaltzen duten Sakana erdialdeko emaitzak, eta ondorengo koadroan jaso ditugu, EAEL-en bertan daramaten zenbakia eta guzti, erreferentzia moduan.

	GIPUZKOA	NAFARROA	SAKANA ERDIALDEA
8	Mingaina	Mihia, mingaina	Miye, -a
15	Anka, berna, zango	Izterra, anka	Izterra, anka
26	Etorri da, badator	(e)tor(ri) da, eldu da	Etor da, eldu da
40	Apaiza	Apeza	Apeza
67	Kanpua, zelaya	Alor, zelai, soroa	Sorue, -a
68	Ate	Atari, ate	Atai
100	Moskito, eltxo	Ulitxe, eltxo	Aultxo
116	Euzki	Iguzki, iduzki	Iruzki, iduzki
132	Okela (mend), aragi (eki)	Aragi	Aragi
137	Itaie	Egitaia, itaia	Egittei
138	Atxur	Aitzur, altzur, ailtzur	Aitzur
142	Saski, otarra	Saski, zare, esporta	Jaski, zare, esporta
143	Tela	Oiala	Oyela
144	Alkandora	Atorra	Atorra
154	Dana	Dena	Dena
163	Beatzi, bederatzi	Bederatzi, bedratzi	Bedratzi

SAKANA ERDIALDEKO LEXIKOAREN AZTERKETA

165	Amaika	Ame(i)ka	Ameika
175	Irurogei	Iruetan hogei, irurogei	Irurogei, irutan ogei
177	Larogei	Lauetan ogei, laurogei	Laurogei, lautan ogei
180	Berreun	Berreun	Bitenaun, berreun
181	Irureun	Irureun, iruetanegun	Irutenaun, irureun
185	Bigarrena	Bigarrena, bigarna	Bigerna
186	Irugarrena	Irugarrena, irugarna	Irugerna
217	Itxusie, zatarra	Itsusi, zakarra	Zakarra
305	Txixa (G,B,Ar), pixa	Pixa	Pixe
319	Bultzatu	Bulkatu	Bulketu
321	Barre, parre	Irri	Farra (Etx, Urriz.), irri (Ergoiena)
326	Txistue	Listua, ttua	Txube, ttuba
336	Larru bixi, narru gorri	Larrugorri, biluxik	Bilixkorriko, larrugorriten
355	Aitona	Attuna (Leiza, Urd, Urriz)	Aittune, -a
359	Illoba	Illoba, illeba	Illeba
369	Aur egiteko, enbarazauta	Ernari (Alli, Eugi, Iraberri, Lekarotz)	Ernai
371	Bere izena da	Berai zago (Mezkiritz), zayo (Usi, Eugi, Ziganda)	Da(z)kiyo
382	Puskatu, apurtu	Autsi	Autsi, pusketu
383	...	Esie	Esiye
387	Oia	Goatzea	Guatze
394	Babarrune	Alubia	Alubi
406	Liñoa	Lioa, liyua	Liyue, -a
413	A(r)antza	Arantza, errena	Errena
416	Alia, azia	Azia, pikorra	Bikorra, aziye
426	Arkume, bildots	Axuri, bildots	Axui
437	Tximu, tximino	monoa	Monue, -a
454	Luma	Pluma, luma	Plume,-a
456	Mokua, (pikua)	Pikoa, (mokoa)	Pikue, -a
457	Abi, api, kabi	Kafi, kabi	Kafi
458	Arrautza	Arrontza, arroltza	Arrontza
490	Arotza	Zurgin	Zurgin
491	Errerua, errementarie	Arotza, errerue	Arotza, errerue
493	Prakak, galtzak	Pantalonak, galtzak	Pantalonak, galtzak
497	Sandaliak, alpagatak	Ezpartinak	Ezpartiñek
512	Kurpille, gupille	Errueda, firrilla, xirrika	Pirriñe, pirrixka, errueda, pirrika
523	Barrun	Barnean	Barmen
528	Biguna	Beratza	Biatza ³⁶
530	Astun, pixu	Pixu, pisu	Pixu
534	Garratza, mikatza	Samiña, kiratsa, miña	Miñe, -a
535	Gozoa	Goxo, dulce	Dulzie,-a
539	Gorra	Sorra, (elkor)	Sorra
546	Trumoi	Ostots, ortots	Ostotsa
547	Tximista	Oinaztura, tximista	Iñezture,-a
548	Erromako zubie, arkoirisa	Jangoikuen ..., arkoiris	Jangoikuen gerrikue,-a, ostrilleka

5.2.2. BURUNDA ETA SAKANA ERDIALDEAREN ARTEKO MUGA LEXIKOAK.

Muga lexiko hauen zerrenda osatzeko erabili ditugun iturriak ondorengoak izan dira: Candido Izagirrerren “*Altsasuko euskeraren gai batzuk*”, Ana M^a

³⁶ *Bigun* hitza ere erabiltzen da azterketa esparruan, baina gehien bat gorputzari egokitzen zaio, elastizitatea adieraziz edo. *Biatza* izango litzateke, beraz, gogorraren antonimoa, eta pertsonen izaerari ere egokitzen zaio.

SAKANA ERDIALDEKO LEXIKOAREN AZTERKETA

Echaideren “*Erizkizundi Irukoitza*”, Koldo Zuazoren “*Burundako hizkera*” eta Joxe M^a Arakamaren “*Sakanako hizkera*” lan argitaragabea.

BURUNDA	SAKANA ERDIALDEA
Gerba, Barga	Barga
Orri	Osto
Barru	Barne
Domeka	Iyende
Eroan	Yaman, aaman
Ira	Ixtorra
Izeko	Izeba
Izera	Menddere
Jostaiya	Ostotsa
Kare	Galtziñe, -a
Kale	Karrike, -a
Nesaki	Neskato
Mutiki	Mutiko
Oea	Guatze
Pitsa	Aparra
Uberaxa	Zapoziyela, zapittela, iyela
Gaztaia	Gazta
Bake	Pake, Bake
Barre	Farra, irri
Pago	Fago
Pagatxi	Fagatxi, paatxi
Gate	Kate
Kurutza	Gu(r)utze
Musti	Busti
Kipula	Tipula
Itain	Izeiñe
Txindurri	Txingurri
Txixa	Pixe, -a
Iyo	Itzo
Ura	Utse, -a
Narru	Larru
Nazka	Lazka
Neurri	Laurri
Bedar	Belar
Kendu	Gendu, jendu
Nire	Nee
Niri	Nai, nei
Baindo	Beño
Ondo	Aungi
Obeto	Obeki

Jorratu	Forratu
Lokatz	Loi
Guti	Gutxi
Eztai	Ezkontza
Lora	Florie, -a
Ankatakoko	Oiñetako
Autsi	Auski(n)
Luma	Plume, -a
Makar	Malkar
Mentzai	Bentzai
Odolki	Tripota
Txal	Atxe
Yazain	Piztu, izerai
Safai	Ganboiko, ganbatxo, pastarda
Tal-tal	Dal-dal

5.2.3. GOIERRI (ATAUN, ZEGAMA) ETA SAKANA ERDIALDEAREN ARTEKO MUGA LEXIKOAK.

Kasu honetan egin dugun alderaketa, Sakana erdialdeko hizkera eta Joxe Migel Azurmendi Albizuk Ataun eta Zegamako hizkerei buruz plazaratutako bi lanen artekoa izan da. Ez da gehiegizkoa aipatu lanetan jasotzen den lexikoa, baina bai nahikoa EAEL-en eta EI-n ikusten genituen mugak azpimarratu eta beste zenbait berri markatzeko.

ATAUN	ZEGAMA	SAKANA ERDIALDEA
urruti	urruti	irruiti
mingañe	mingañe	miye
tximue		monue,-a
ebi		auri
elbi		auli
lotsagabe		lotsabeko
Ese(r)i		jarri
barru		barne
okela	okela	aragi
jardun		aittu (aritu)
txikar		txinger
izara	izara	menddere
logure		logane
txixe		pixe,-a
txixegure		pixekurre
aski		neiko
zapatu	zapatu	launbeta

domeka		iyende
oia	oatzea	guatze
	alkondara	atorra
	artaazi	burize
	bekoki	kopeta
	emendau	itzeli
	txistue	txube
	keiza	gildde
	aran	okaan
	garo	ixtorra

5.2.4. AEZKERA ETA SAKANA ERDIALDEKO LEXIKOAREN KIDETASUNAK.

Iñaki Caminoren “Aezkera: dialektologi azterketa”-ko lexikoaren atalak izan ditugu oraingoan aztergai. Eta atalak diogu, ezen bi aldiz aztertzen baitu Caminok aipatu lanean aezeraren lexikoa: lehenik, zaraitzuerarenarekin alderatuz; eta ondoren, goi-nafarrera eta behe-nafarrerarekin konparatuz. Guk, ataltxo honen izenburuan diogun moduan, gure azterketa esparruko lexikoa eta Iñaki Caminoren liburuan agertzen denaren arteko kidetasunak baino ez ditugu jaso, eta ikus daiteke asko direla aipatu esparru geografiko hauen artekoak. Lehen zutabea, I. Caminoren liburuko hitzak azalduko ditugu, aezerakoak besterik gabe agertuko direlarik, eta besteak, zaraitzuera, goi-nafarrera eta behe-nafarrerakoak, parantesi arteko erreferentzia daramatelarik. Bigarren zutabea azterketa esparruko emaitzak.

AEZKERA/ZARAITZUERA/GN/BH	SAKANA ERDIALDEA
Gendu (Zar), gentu (Ezkaroz)	Gendu, jendu
Afari, afaldu	Afai, afaldu
Gerra	Gerra
Kafia	Kafi
Armamil, armimau (GN)	Amimoro,-a
Berendu	Beendu
Aurpegi (Aez, GN)	Aurpei
Kopeta	Kopeta
Akatu	Akatu
Ellegatu	Allaatu
Goatze (Aez, GN)	Guatze
Guzi	Guze,-i
Aretze	Aatxe
Armindderi	Ergueniri
Kisu (Zar)	Kisu
Chut (Zar 218), thu (BN)	Txube
Otsots	Ostots
Oinaztura (Aez), oñestur (GN)	Iñeiture,-a

SAKANA ERDIALDEKO LEXIKOAREN AZTERKETA

Soro (Zar, Aez)	Soro
Amiña	Amiñe, -a
Muña	Muñe, -a
Bekain	Bekaiñe
Kokots	Okotz
Ukondo	Okolondo
Titimutur	Titimutur
Zilko	Zille, -a
Pixauntzi (Zar)	Pixauntzi
Zango (Zar), oin (Aez)	Anka ³⁷
Atz (Zar), atzazkar (Aez)	azkazkal ³⁸
Uspel	Ospel
Urdai	Urdei
Bigantxa (Zar)	Bigentxa
Arrano	Arrano (saia)
Txorizale	Txorijale
Pinpintxori (Zar)	Pinpintxori
Garaitxori	Galartxori
Musker (Zar, Aez)	Musker
Eltxo	Aultxo
Lar (Zar)	Larra
Urritz	Urritze, -a
Erro (Zar), zain (Aez)	Erro, zein
Iñare	Iñere
Ote	Ota
Sasi	Sasi
Kalpitzar	Galbizer
Txingla (Zar)	Txindille, -a
Mizpira	Mizperue, -a
Maulubi (Aez), malubi (Otsagi)	Marrubi
Jangoiko (GN, Aez)	Jangoiko
Garagartzaro (GN, Aez)	Garagarzarue, -a
Garilla (GN), garil (Aez)	Garille, -a
Agostu (GN), abuztu (Aez)	Aguztu
Urri (GN, Aez)	Urriye (iraila)
Lastalla (GN)	Lasteille, -a (urria)
Azaro (GN, BN)	Azarue, -a
Lagumbat (GN), larumbat (Aez)	Launbeta
Lañu (GN)	Leño

³⁷ Ez da normalean *zango* hitza erabiltzen, baina ondorengo esaera jaso dugu Etxarrin eta Altsasun: “*Nun da nee gogue, an da nee zangue!*”. Eta antzeko zerbait esan dezakegu *oin* hitzari buruz, ez da erabiltzen lexema moduan, baina bai “*oiñetako*”.

³⁸ Jaso dugu Etxarrin *atz* lexema ere, baina ondorengo esanahiarekin: “*hazkura gogor eta iraunkorra, ‘erpes’-a*”.

Erreka, ibai (BN)	Erreka, ibei
Ugazanaya (GN, Aez)	Ubesaneye
Beatz (GN, BN)	Bietz
Txongolo (GN)	Txonbolo
Kalentura (GN)	Kalenture, -a
Argizari (GN, Aez)	Argizai
Mono	Monue,-a
Kalfor (GN, Aez)	Kalfar
Bele (BN)	Bele
Amurrai (GN)	Amurrei
Ipurtargi (GN, Aez)	Ipurtargi
Txipo (GN), txipu (Aez)	Txipo
Ezki (GN, Aez)	Ezki
Xunka (GN, Aez)	Txunke
Gasta, gazta (GN, Aez)	Gazta
Atari (GN, Aez)	Atai
Zartagi, zartaiñ (GN, BN)	Zartai
Orantza (GN, Aez)	Oreitza,-e
Ezkil (GN), ezkila (Aez)	Ezkillle, -a
Kurexa (GN), kuraxe (Aez)	Bur(e)ize
Estrabilia (Aurizberri)	Estarbiye, -a , Estrabi (Arruazu)
Bilatu (GN, Aez)	Billetu

5.2.5. “EUSKAL DIALEKTOLOGIAREN HASTAPENAK” LIBURUKO LEXIKOAREN ATALEKO GIPUZKERA, NAFARRERA GARAIA ETA SAKANA ERDIALDEKO HIZKEREN ARTEKO KIDETASUNAK.

Zerrenda honetan jaso ditugun emaitzak, aipatu liburuko hiru hizkeretan berdinak ez direnak izan dira. Lehen zutabeen gipuzkera, bigarrenan nafarrera garaia eta, azkenik, hirugarrenean, Sakana erdialdekoa. Guztira 41 hitz jaso ditugu zerrendan eta emaitzak, kasu honetan ere, adierazgarriak dira: 36 horietatik amankomunak dira Sakana eta nafarrera garaiaren artean, eta 5 baino ez dira gipuzkera eta Sakanakoaren artean.

GIPUZKERA	NAFARRERA GARAIA	SAKANA ERDIALDEA
Udara	Uda	Ude, -a
Ilbeltz	Izotzil	Ilbeltza
Otsail	Otseil	Otseille, -a
Garagarril	Garagartzaro	Garagarzaro
Uztail	Garille	Garille, -a

SAKANA ERDIALDEKO LEXIKOAREN AZTERKETA

Abuztu	Agostu	Aguztu
Agor	Urri	Urrille, -a
Urri	Lastail	Lasteille, -a
Igande, domeka	Igande	Iyende
Larunbat, zapatu	lagunbat	Launbeta
Jela	Izotz	Izotz
Eguzki	Iruzki	Iruzki
Ebi	Euri	Auri
Erromako zubi	Jangoikoain paxa	Jangoikuen gerrikue, -a
Trumoi	Ortots	Ostots
Sugar	Gar	Garra
Soro	Alor	Soro
Baso	Oian	Baso
Lokatza	Loi	Loi
Igeltzu	Kisu	Kisu
Kare	Galtzin	Galtziñe, -a
Lerde	Erde	Erdie, -a
Mingain	Mi	Miye, -a
Besoazpi	Besape	Besape
Txonkotila	Txongolo	Txonbolo
Kabi	Kafi	Kafi
Gaisotasun	Gaitz	Geitz
Triku	Sagarroi	Triku
Arkume	Axuri	Axui
Kangrejo	Langosta	Langosta
Armiarma	armimau	Amimoro, -a
Elbi	Uli	Auli
Landare	Planta	Planta
Sustrai	Zain	Zeñe, -a
Adar	Arrama	Arrama
Garo	Illestar	Ixtor
Osin	Axun	Axune, -a
Lasto	Agotz	(l)agotz
Babarrun	Alubia	Alubi
Lenteja	Txindil	Txindille
Marrubi	Malubi	Marrubi

5.2.6. “ERIZKIZUNDI IRUKOITZA”-ko GALDETEGI LEXIKOGRAFIKO-AN AGERTZEN DIREN SAKANA ERDIALDEKO EMAITZAK.

Ehundik gora dira egindako galdera lexikografikoak, eta azterketa esparruko Etxarri, Arbizu eta Uhartan erantzun ziren sistematikoki. Lakuntza eta Arruazun aldiz, hiruzpalauen erantzunak baino ez ziren jaso.

Honetaz gain, lexikoaren atal honetan agertzen diren emaitzek ez dirudite egokienak ondorio dialektologiko garbiak ateratzeko, atal fonetiko eta morfologikoekin gertatzen den bezala. Horrelaxe pentsatzen zuen K. Mitxelenak ere:

“Si el fruto de esta encuesta no ha sido mayor en el terreno de la geografía lingüística, ello se debe sobre todo a dos causas. A la finalidad, en primer lugar, porque el cuestionario se redactó con el objeto de proceder a una especie de plebiscito: para apoyar las decisiones de la Academia en orden a la unificación de la lengua literaria, se pensó que éstas debían fundarse en las variantes apoyadas por una mayoría de localidades consultadas. Entre las preguntas figuran, pues, bastantes de interés dialectológico muy limitado, al paso que muchas otras de primera importancia no fueron incluidas en el cuestionario. En segundo lugar, **los datos** recogidos sólo **se publicaron de forma muy imperfecta**, en resúmenes muchas veces cuantitativos acompañados de indicaciones de lugar sumamente vagas. Una excepción la constituyen las respuestas recogidas en dos puntos de la Soule por el prof. Henry Gavel, ...” (Luis MICHELENA, De dialectología vasca, 1991, *F.L.V.* 58, 183)

Eta hau gutxi balitz bezala, aipagarriak suertatzen direnak, gehienak dagoeneko aipatuak ditugu aurreko alderaketetan. Eta hauexek ditugu horietako batzuk, asteburuko egunak eta hilabeteenez gain:

Jarri (eseri), *jai* (jeiki), *iñerexagu* (txorixarra, saguzar), *zapoziyela / zapittela* (igela), *kunkun* (apo), *franzes* (prantzes), *Afrika* (Aprika).

5.2.7. LEXIKOAREN INGURUKO ZENBAIT BITXIKERIA.

Bitxikeria deitu diogu zenbait lexemak erakusten duen erabilerari. Normalean, lexema batzu erabiltzen dira azterketa esparruan, beste esparru geografiko edo hizkerek bereiziz, baina konposaketa, eratorpena, toponimia edota espresio berezi moduan, era normalean erabiltzen ez diren lexemak agertzen zaizkigu batzutan:

<i>Lazka</i>	baina	“ <i>iguindduik nakak!</i> ”
<i>Utse</i>	baina	“ <i>urtu</i> ”, “ <i>Urbijotzendenzui</i> ” (toponimoa)
<i>Osto</i>	baina	“ <i>iruorribelarra</i> ”
<i>Opo</i>	baina	“ <i>orbo</i> ” (zuhaitzen irtendurak)
<i>Anka</i>	baina	“ <i>oiñetako</i> ”
		“ <i>bernazaki</i> ” (Belaunetik orpora doan aurrekaldea)
		“ <i>Nun da nee gogue, an da nee zangue!</i> ” (Esaera)

SAKANA ERDIALDEKO LEXIKOAREN AZTERKETA

<i>Aragi</i>	baina	“ <i>Okelak ezin jasos zio!</i> ” Oso lodia dagoenean norbait.
<i>Iñerexagu</i>	baina	“ <i>Bat, bi, iru, lau, saguzarrak jan al au, ...</i> ” (Haur jokoetarako kontatzekoa)
<i>Aittu</i>	baina	“ <i>Meza entzun dek?</i> ”
<i>Zakar</i>	baina	“ <i>Bei, beye orrek itxusi eitten dau!</i> ”
<i>Plume</i>	baina	“ <i>lumeeye</i> ”, hegaztiak (olloak gutxienez) lumak aldatzen dituztenean.
<i>Planta</i>	baina	“ <i>birlandatu</i> ”.
<i>Erdie</i>	baina	“ <i>lirdiket</i> ”. Lerdez estali.

6. SAKANA ERDIALDEKO EUSKARARI BURUZKO ONDORIOAK.

Atal honetan, azterketa esparruko herrietako hizkerak arloz arlo aztertu ondoren, bertako hizkeren kidetasunak metatzeari ekingo diogu, Sakana erdialdeko hizkeraz hitz egin daitekeelarik frogatuz, aipatu kidetasun horien ugaritasuna ikusirik. Eta jarraian, inguruko hizkerekin alderatuko dugu, kidetasunak eta desberdintasunak direla medio, dagokion euskalki multzoan kokatzen ahaleginduko garelarik. Hala ere, lehenik, azterketa esparruko hizkerek dialektologoengandik nolako tratamendua jaso duten ikusiko dugu.

Bonapartek, hasiera batean, goian aipatzen genituen kidetasunak ikusi zituen nonbait, Echeniqueri, 1864ko otsailaren 8an, igorritako gutunean, geroxeago ideiaz aldatu bazuen ere:

“A Echarri-Aranaz on parle la variété de la vallée d’Araquil (Ipar Goi-Nafarreraren barruan sartu zuen Arakilgoa), qui est bien différente de celle de la Burunda pour les lettres et les changements euphoniques (...) Il pourrait se faire qu’à Echarri-Aranaz on ait adopté quelques formes de la Borunda; mais en général on y parle l’araquilais et non pas le burundais”. (Urquijo, J., “Cartas escritas por el príncipe L-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, RIEV 2, 276).

Burundakoa bertakoa ere, nafartzat hartu zuen aurreko urteko apirilean bidalitakoan, Etxarritik Uharterainoko hizkeraz desberdinduz, hala ere:

“Le dialecte de la Burunda constitue un sous-dialecte distinct du navarrais. A Lacunza les changements euphoniques n’existent pas; il en est de même à Huarte-Araquil jusqu’à Echarri-Aranaz inclusivement”. (Urquijo, J., *RIEV* 2, 263-264).

Gorabehera ugari izan zituen aurrerantzean ere, azken sailkapena burutu arte:

- Etxarri eta Burundako hizkeren arteko kidetasuna azpimarratzen du. (1864ko Martxoaren 7an: “*Il paraît en effet qu’à Echarri-Aranaz on suit plutôt les changements euphoniques de la Burunda que ceux de Huarte-Araquil*”).
- Burunda eta Arakilgo hizkerak gipuzkeraren barruan sartzen ditu. (1864ko Azaroaren 7an: “*En effet les deux versions (Urdiain eta Etxarriko dotrinez ari zaigu) que je reçois m’apprennent que dans la Burunda et dans la vallée d’Araquil on ne parle pas le navarrais, mais un sous-dialecte ou une variété guipuscoane*”).
- Aurrekoaren kasuan bezala, baina Etxarrikoa Burunda eta Arakilgoen arteko “zubi-hizkera”-tzat hartuz. (1864ko Abenduaren 31n: “*Echarri-Aranaz représente assez bien le basque de la vallée d’Araquil, mais les euphonies ou changements euphoniques de cette localité sont plutôt ceux de la Burunda; de sorte qu’il forme la transition du borundais à l’araquilais que je considère comme deux variétés distinctes du guipuscoan parlé dans la Navarre*”).

Hemendik aurrera, euskalki desberdinetan sailkatuko ditu Burunda eta Arakilgo hizkerak, eta baita Etxarri eta Ergoienakoak ere, goi- nafarreraren barruan Arakilgoa eta gipuzkeraren barruan besteak. Arbizun, alde batetik, eta Etxarri eta Ergoienan bestetik, ezarri zuen, beraz, gipuzkera eta goi- nafarreraren arteko muga.

Azterketa honen sarreran, tesiak izango dituen atalak aurkezten genituenean, esaten genuen moduan, seigarrenean, ondorioak islatzeaz gain, Bonaparteren sailkapenean halako garrantzia izan zuten bi dotrina, bata bestearekin konparatuko genituela, eta erakutsi, era berean, beste autore batzuk lehenago esan dutena, hots, lehenak, Uhartekoak¹, ederki islatzen badu bertako hizkera, bigarrenak, Etxarrikoak², ez duela horrelakorik egiten. (Ikus Erdozia, 2000):

- Aipatu lanean, Etxarriko dotrinako lehen lau orrietako aipagarriena laburbildurik ematen da:

¹ Horrela dio J.M. ARAKAMAK (Uharteko dotrina, ASJU, XXVIII-2, 1994, 569): “*Nork idatzi zuenari buruz zera esan dezakegu, egileak Uharteko hizkera ederki asko ezagutzen zuela, irakurtzean baiezia daitekeenez, bertako semea izan zitekeelarik.*”

² K. ZUAZO (Burundako hizkera, ASJU XXVIII, 1995, 358): “*Txukun eta aratz daude, egon, bi kristau-ikasbideok (Etxarri eta Urdiaingoz ari da), baina ez dute inondik inora islatzen herri bi horietako hizkera. Aitzitik, gipuzkerara hurbiltzen ahalegindu zirela itzultzaileak –edo moldatzaileak– ematen du, Bonaparteren asmo eta helburuei batere jaramonik egin gabe. Bestelakoa da Uharteko dotrinan azaltzen den jarrera, zuzenago islatzen da eta honetan herri horietako hizkera mintzatua.*”

- $z + z > z$ bada ere etxarrieraren burutzapena, dotrinan afrikatuaren alde neutralizatua agertzen da: *etzan jayo* (2966).
- NN_I erako aditz laguntzailea *-ki-* errorik gabe agertzen da maiz: *conveni zaiguna* (2970), *eraguzten zayote* (2977), *cer izanen zayo*, *erraz barcatzen zayon* (2982), *barcatzen zayo*, *eguitia izanen zayo*, *acordatzen bazayo* (2983), *eguitia conveni zayote*, *emateco conveni bazayo* (2984).
- Eduki aditzaren forma sintetikotan, *au* diptongoa mantentzen du: *norc dauca*, *arrazoyescua dauquien*, ... (2976).
- Ahalmenarako N erako laguntzailean, berriz, *ai* diptongoa mantentzen da itxi gabe eta ez da hortzetakoaren bustidurarik gauzatzen: *daitique*, ... (2976).
- Aditzen pluraleko hirugarren pertsonaren ezaugarritzat *-te* erabiltzen da, eta ez *-bie*: *eztute merci* (2978), *escogitzen dutenac* (2988), *garbiya dutenak*, *Nai eztutenac*, *Gorrotiñik eztutenac* (2989).
- *-t* singularreko lehen pertsonaren ezaugarria ez da inoiz *-da-* bihurtzen etxarrieran, bai ordea dotrinan: *eguin dudan becatu* (2991).
- Objektu plurala duten NN_K erako aditz forma aferesidunak ez dira ageri dotrinan: *eguiten dituen obra* (2978), *eguin dituen obra*, *eguin dituen falta* (2992).
- Pluraleko lehen eta bigarren graduko erakusleen sinkretismoa ez da gauzatzen: *auec* (2979), *aui* (2990).
- Belareko herskari gorraren aldeko neutralizazioa ageri da ‘kendu’ aditzaren kasuan, etxarrieran ozena edo igurzkarri gorraren alde egiten denean: *quentzeco aleguiña* (2974), *Ez quentzia* (2975).
- Galdetzaile gehienak *-r-*dunak ageri dira dotrinan, etxarrieran ia beti galtzen delarik dardarkaria (nok, ze, zengati, zetako, ...): *Norc dauka* (2976), *Eta cer gauza*, *Cergatic erraz* (2982), *Certaco da* (2983).
- *o > au* burutzapena ere ez da gauzatzen: *Ongui izanen* (2982), *Ongui diyozu* (2990).
- Lexikoari dagokionez, etxarrieran beste era batera erabiltzen diren zenbait hitz ageri dira: *iduiqui* (urai) (2981), *larru gorriyan* (bilixkorriko) (2977), *aunitz* (asko) (2973).


Bada dotrina honen beste bertsio edo eskuizkribu bat, ‘*Traducción original de Echarri-Aranaz por D. Esteban Zabala*’ jartzen duena bere lehen orrialdean. Norbaitek ‘*Ynutil por su confusion y poca solidez*’ idatzi du bertan. Aztertutakoaren testu berbera du, baina hala ere, soma daitezke zenbait aldaketa, eta hauek kontuan izanik, esan dezakegu, maila urrian bada ere, zenbait kasutan hurbiltzen dela Etxarriko hizkerara, nahiz eta dotrinaren edizioa (BOE, Gipuzkera 5, Euskal Ikaskuntzen Insitutua, 2958) aurkezterakoan esaten den moduan, egia izan ‘*ez dagoela arau tinko eta beti mantentzen denik ez batean eta ez bestean, txandaketak ugariak direlarik*’:

- Ageri da, noiz behinka baino ez bada ere, *i* eta *u* ondoko bokal asimilazioa: *infarnuetara* (*infarnubetara*, bestean), *gracie* (*graciya*, bestean), *glorie* (*gloriya*), *infernu* (*infarnu*), *dire* (*dira*), *garizimaco* (*garizumaco*), *guciei* (*guciyai*), ...
- (*l*),*n*,(*r*) ondoko iguzkariaren aldeko joera: *alcanzacia*, *onza* (*ontza*), *conciencia* (*contzientziya*), *indulgencia* (*indulgentziya*), ...
- Zenbait laburdura, lexema barruan nola sandhi-etan: *bela* (berla, berehala), *santuat* (*santu bat*), ...

- Hirugarren pertsona pluraleko ezaugarria, *-b(i)e: eztube (eztute)*, ...
 - Eduki aditzaren formen monoportongaketa: *dazcanari (dauzcanari)*, ...
 - *-on- ez* bukaturiko maileguak: *dona (doya)*, ...
 - *g-* hasierakoa, *-oa-* taldearekin: *guacera (oatzera)*, ...
 - *ai > ei* diptongo itxiera: *nei (nai, nahi)*, ...
- Uhartekoan, aldiz, lehen esan dugun bezala, etengabe ageri dira bertako hizkeraren ezaugarriak, baina ez hori bakarrik, Etxarriko hizkerarekin berarekin ere antza nabaria du, urte askotan zehar bertakotzat (Etxarrikotzat esan nahi da) aurkeztua izan den dotrinak baino askoz ere gehiago, dudarik gabe. Zehazki ezagutu nahi dituenak, J.M. Arakama-k egindako lana (Uharte-Arakilgo dotrina, ASJU XXVIII-2, 1994, 569-588) ikus dezake, eta guk hemen aipatu ezaugarri horietariko batzu soilik azalduko ditugu:
 - hitz bukaerako *-u/-i* bokalen ondoko epentesien agerpen ia sistematikoa (*bedicatube, araguiyaren, gaubien, becatube, condenatuben, infernube, etsaiye, viciyec, ...*).
 - *-ea > -ie* bokal taldearen disimilazioa (*borondatie, gurie, amacie, viez, bier, lucien, viyocien, golpie, ...*).
 - asimilazioak (*vediquecen, Elice, dire, moduten, damutasune, aunditasune, icaragarri bet, berri bet, ...*).
 - diptongoen burutzapenak: *au > u, o > au (barutu, aungui, ...)*.
 - sinkopak (*bigarna, irugarna, bedracigarna, ontan, ortan, ...*).
 - aferesiak NN_K erako aditz formetan (*tyu, zozu, tyuenac, tyuen, ttu, ...*).
 - *j/f*txandaketa, behin bakarrik bada ere (*faten*).
 - *ig-* > *iy-* bilakaera (*ityendetan*).
 - */t/* herskari ahoskabearen bustidura (*baityen, tyuenac, tyuen, cumplityuric, ...*).
 - *-s* instrumentalean (*deyes, negarres, egunerosco, ...*).
 - *n-*ren ondorengo igurzkiaren aldeko neutralizazioa (*pensatu, pensamentu, onza, ...*).
 - */h/* antzinako aspirazioaren aztarna (*agoti, ogaceti, ...*).
 - *baitan* partikularen erabilera norengan kasuan (*deseiyecen duenaren baitan, criadorearen baiyen, ...*).
 - *arrec, arren, arrequi* bezalako erakusleak.
 - *-i > □* sinkopa aditz partizipioetan (*etorco, etor cenien, icus duzu, ...*).
 - erlatibo laburtuetako erakuntza, *-(r)ikiko (ofendityuriquico, emaniquico, azturiquico)*.
 - *bait* partikularen erabilera (*cein concebiyu baicen, ceiñetan erredimiyu baizuen, ...*)
 - *cergati ... -n/□* kausazko egituraren erabilera (*cergati auena den, cergati auetan dagon, cergati auec hincenen dire*); ...

Bonaparteren sailkapenaren arabera Sakana erdialdeko mapa

IV. mapa




Eta sailkapen honek indarrean iraun du duela gutxi arte, K. Zuazok *Euskalkiak gaur* (1998, 191-233) lana aurkeztu arte, hain zuzen. Dialektologo honek, aurkezten duen mapan, Sakana erdialdeko hizkera (Etxarritik ekialdera) nafarreraren barruan sartzen du, sailkapenean erdialdeko ezaugarriak ere badituela gehituz (“... *eta Sakanara ere iristen dira erdialdeko ezaugarrietako asko, baina ez, nire ustez, eremu horretan bete-betea sartzeko adina. Erdialdeko hizkeren eta nafarreraren ‘tarteko’ hizkerak dira, beraz, hauek*”, *Euskalkiak gaur*, 228).

Autore berberak, aurreko lan batean, hurrengo ondorioa atera zuen:

“Gauzak horrela, ez dirudi aurrera begira Bonapartek asmatutako “Nafarroako gipuzkera” azpieuskalkiari eutsi dakiokeenik. Etxarrin hasi eta handik ekialderako hizkerak “goinafarrera” garbitzat joko genituzke guk geuk. Horretaz gain, ez zaigu oso ziurra iruditzen Etxarri-Ergoiena eta Arbizu arteko muga” (K. ZUAZO, 1995, 360).

Horrela beraz, hasieran esan dugun moduan, gure azterketa esparrua hizkeraren aldetik isomorfikoa den aztertzen hasiko gara, hots, ezaugarri multzo zabala duen ala ez amankomunean eta, ondorioz, ea Sakana erdialdeko hizkeraz hitzegin dezakegun aurrerantzean, Burundakoa edo Ultzamakoaz egiten den bezala.


VI. mapa



- **o**-ren itxiera sudurkariaren aurrean: *nun, nungo, nundi, nunei, aittun, trunku*, ... esparru osoan, EH gehiengan bezala.
- **o** > **au** hurrengo hiru burutzapenen kasuan, gutxienez: *aungi* (*ongi* ere bai Arruazun eta Lakuntzan), *auntzi* esparru osoan, eta *auspel* Arbizu, Lakuntza, Ergoiena eta Uharten.
- **i – u** > **i – i** : *atximixke, bi(l)ixkorriko/bilixgorri* (Uharte, Dorrao), *gaizime,-a/garizime* (Uharte) ia esparru osoan (*gaizuma* Arruazun, *gaazime* Lakuntzan, *garizuma* Dorraon).
- **ai** > **ei** : *izein, bei, jei, nei, urdei, mei*, ... esparru osoan.
- **ei** > **ai** : *aizien* (ehizan) esparru osoan; *urai* (edugi > udegi > udei > urei) Etxarrin; *axai* Etxarri, Unanu eta Arbizun (*exei* Uharten eta *axei* Dorraon). (Arruazun eta Lakuntzan, *ei* mantentzen da: *eizien, exei, ixiin/izei*, ...).
- **ei** > **i** : *bintzet/mintzet, yoozin/oozin/yezín* bi kasu besterik ez, baina ia esparru osoan (Arruazun *eoezin* eta *beintzet*, Uharten eta Dorraon *edozein*).
- **ei** > **e** : *ge(i)zki, leze* esparru osoan, bi burutzapen hauek.
- **u** > **au** : *autzi* (Uharte, Arruazu eta Lakuntzan ez), besterik ez bada ere.

- **au > o** : *arro(n)tza/ie* ('*arrutze*' Lizarragan, eta Arruazun biak, lehena gehiago erabiltzen delarik), *iyote*, *intxor/e(i)ntxor* herri guztietan. Oltza eta Goñin ere, *arrotze*.


VII. mapa



- **au > a** : *alki*, *Jangoiko*, ... herri guztietan, eta *dakat* ..., Etxarri, Arbizu, Lizarraga eta Dorraon.
- **au > u** : *iturriko* eta *baru* Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uhartea, Dorrao eta Lizarragan; *arrutze* Lizarraga eta Arruazun (zenbaitek); *entxurre* (intxaurre) Uhartean.
- **eu > au** : *auskias*, *auski(in)/autsiin* (eutsi), *aun* (ehun), *auri*, *auli*, *aultxo* (baina *eltxo* Lakuntzan), *auntzi/aultzi* (eultzi), *laurri*, *laun* (leun) ... herri guztietan.
- **-on-ez** bukaturiko maileguak : *jabona*, *kamiona*, *balona*, ... herri guztietan.
- goranzko diptongoak: *guazen*, *zuluat*, *etorkua* (etorriko da), *nua* (nora), *suerte*, *niyue/niyua*, *usuek*, *zia*, *tia*, *semiat*, *astiertie/ia*, *biotu*, *gio*, *nio(n)i*, ... ia esparru osoan erabiltzen dira, Arruazu gelditzen delarik kasu batzuetan horrelako burutzapenik egin gabe (*astertia*, *beotu*, *geo*, *neoni*).
- bokal asimilazioa: bi joera dauzkagu esparruan, baina muga jarri ezin delarik, tartekaturik baitaude joera hauek esparruko herrietan:

- **a > e / i,j,u,w __** : *mendiye/k, eskube/k, semie/k, zulue/k, ikesi, bizer, egune/k, utse/k (udse/k), aule/k, ...* Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uhartan.
- **a > e / i,j,u,w __ C**: *mendiya/ek, eskuba/ek, semia/ek, zulua/ek, ikesi, bizer, eguna/ek, utsa/ek, aula/ek, ...* Arbizu, Unanu, Dorrao eta Arruazun.

VIII. mapa



- geminazioa eta ondorengo bokal laburdura: *zarra, matsa, len, mi, ol, atsalde, ...* azterketa esparru osan gertatzen da, EH gehienez bezala.
- geminazioa : *gaa, zaa, baatze, paatu, suur, buu, goor, saar, toopillo/koopillo,-u* (korapilo), *noon* (*neraun, noren), *nooki(n)* (norekin), *aazi* (erazi), *txikiyoo, len(u)oo, ...* herri guztietan.
- aferesia : *ta, (d)e* (ere), *(d)o* (edo), *jito, txikoi/re* (Etxarri, Arbizu), *ttut/ttuzu/ttu, toz, men, maten* (Lakuntza), *makomia* (Lizarraga), *karri* (Lizarraga eta Lakuntzan), *Metterio* (Etxarri, Ergoiena), ... hasierakoak eta aditz formak herri guztietan burutzen dira.
- sinkopa : *gerna, barna, andre, bedratzi, pezta, ibilko, ikesko, erleju, libruu* (Arbizu, Arruazu, Lizarraga), *atra, pastu* eta *botzen* (Arruazu), ... hasierakoak esparru osoan.
- **-a** organikoaren galera: *eliz, gauz, anei, makil, ...* esparru osoan.
- metatesia : *mokuru/mukuru, izerai/ixein/ixiin, galtzarrotxa/galtzarrotza, ...* esparru osoan erabiltzen dira.

- bokal protetikoak: *arrama, arrazoi, arraziyo, errosayo, arropa, erremeyo, ...* herri guztietan ditugu, EH osoan bezala.
- paragogea **-dad-**ez osaturiko maileguetan: *amistede, trinidede/trinitete, kantidede, belozidede, ...* EH osoan erabiltzen dira eta, jakina, esparru osoan ere bai.


6.1.2. KONTSONANTISMOARI BURUZKOAK.

Kontsonanteei dagokienez ere, burutzapen ia berberak ditugu azterketa esparruko herri guztietan:

- palatalizazioa : *aittune/a, amiñe/a, ttut/ttu/ttuzu, ttittere, beño, miñe/a, illaate/illeete, ollo, pixe/a, ...* herri guztietan ematen da asimilazio bustidura.
- **ds** kontsonantearen agerpena, hitz soil batean baino ez bada ere, Uharte (*ure*) ez beste herri guztietan erabiltzen da: *udse, -a.* (ura).
- **-oa-** bokal multzoaren aurreko **g**-ren agerpena: *gua*⁴, *guatze, guartu, guai* (*oin* Arruazun, *orain* Uhartan, *orei* Dorraon), ... esparru osoan burutzen dira.
- **n/l** txandaketa: *larru, lazka* (baina *nazka* Arruazun), *laurri, lasei, ...* formak azterketa esparru osoan ematen dira.
- bokal arteko herskariaren erorketa: (*e*)*in, ezautu/ezootu, aurpei, ebai, zui* (zuri, zubi ere bai Etxarrin), *kaittu, illaate/illeete, suur, iruittu/iduittu, meiku, aittu, ...* herri guztietan burutzen dira, gainerako eremu gehienetan bezala.
- **d/r** txandaketa: *erabe, erai, iri, urai/irui, ari* (hadi), ... Ergoiena, Arruazu (*idi, udi(g)i*) eta Uharte (*edai, idi, idugi*) ez beste herri guztietan burutzen dira, eta Ergoienan, egon aditzaren forma batzutan ere bai, *zorie, go(u)re, ...*


⁴ Kaniketako (haur jokoa) zulotxoia izango genuke hauxe, eta *oha/e*-tik datorkigu seguruenik.

IX. mapa




- **b/p/f** txandaketa: *f*-dun aldaerak dira ugariagoak esparru osoan (*afaldu, fago, fagatxi, festa, farra, kafi*), baina badira *p*-dun zenbait ere (*napar, alper*), batez ere Arruazun (*pago, paatxi, pesta, kapi, pake, parra, ...*) eta beste zenbait Lakuntzan (*fago, baina paatxi, parra, kapi, pake*). Ikusten denez, *kafi* ia esparru osoan (Lakuntza eta Arruazun ezik); *farra* Etxarri, Arbizu eta Uharten, eta *irri* da Ergoienan; *bake* Etxarrin, *pake* Lakuntza, Arruazu eta Uharten, eta *fake* Arbizu eta Ergoienan.

X. mapa



- bukaerako **-n**-ren galera: *zartai, guai, amurrei, usei, artzei, ...* esparru osoan daude hedaturik, eta Hego EH osoan, mendebalean eta Baztanen izan ezik.
- txistukari igurzkarien aldeko neutralizazioa /n/, /l/, /r/ + s,z inguruetan: *pensatu, falso, marsube/a, bersolai, pulsu, pensube/a, dulce, zarzaro, inportanziye/a, ...* Ergoiena ez beste herri guztietako burutzapena dugu hauxe.

XI. mapa




- **d/l** txandaketa: *idergi, zider, ...* Uharte (*illergi, zillerra*) ez beste herri guztietako burutzapenak dira.
- **j/f** txandaketa: *fan* (baina *juan* Lakuntzatik ekialdera), *fale, forrei, forratu, ittefure* (Etxarri, Ergoiena), *otafaki* (Dorraon *otajakiya*), *Fantxoneko* (Etxarriko etxe baten izena), *Fanixiona/Juanixiona* (bi eratan esaten zaio Etxarriko beste etxe bati), *Fandalamikel* (Etxarriko toponimoa, *jaun + done + mikel* seguruenik⁵). Hasierako burutzapenak Etxarri, Arbizu eta Ergoienan erabiltzen dira, besteetan /j/-dunak, baina *fale* ere Lakuntzan eta Arruazun.
- /x/ belareko igurzkari ahoskabearen nagusitasun erabatekoa: *jan, jo, jendu, jarri, josi, ...* esparru osoan.

⁵ NTM (1984, 48)

- hasierako *e*-ri kontsonante erorkorra jarraitzen dionean, hiru burutzapen gertatzen dira azterketa esparruan:
 - Dorrao, Arruazu eta Uhartan ia berean mantentzen dira burutzapen horiek, Uhartean eta Dorraon bereziki: *e(r)an*, *e(r)antzi*, *e(r)osi*, *e(r)aniaun*, *e(g)on*, *egosi* (Dorraon ‘egosi’ eta ‘erosi’ adieraziz erabiltzen da), *erauntsiya*, ...
 - *e > y* : *yan* (edan), *yantzi* (erantzi), *yosi* (‘erosi’, eta ‘egosi’ ere bai Lakuntzan), *yan(i)aun* (herenegun), *yon* (egon), ... Etxarri, Lizarraga, Unanu eta Lakuntzan. Basaburuan eta Imotzen ere bai.
 - *e + V > V V* : *aan* (edan), *aantzi* (erantzi), *oosi* (erosi, egosi), *aanion*, *oon*, ... Arbizon.

XII. mapa



- *h,g,n > y / i _ V*: *iyesi*, *iyende*, *biyer*, *iyo* (eho), *liyue/a*, *oyu*, *biyotza*, *iyeketu* (igerikatu), *iyun* (inon), ... esparru osoan gertatzen dira.
- /y/ eta /b/ kontsonante epentetikoak: *mendiye/a*, *aneye/a*, *gorriye/a*, *mundube/a*, *katube/a*, *buube/a*, ... esparru osoan dira ezagunak, baina Arbizu, Lakuntza eta Arruazun, /b/ herskaria ebakitzen da. Hitz barnean ere gertatzen dira epentesi hauek: *ubela*, *Uberte*, *ubelde*, *giñuben/ziñuben*, ...

- bokal arteko *r*-ren galera : *nua, noi, atzia, noon, biandu/beandu, koosti/goosti, ...* herri guztietan gertatzen dira, gainerako eremuetan bezala.

6.1.3. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK.

Ugari dira, jarraian ikusiko dugun bezala, azterketa esparruan, era berdinean, erabiltzen diren izen zein aditzaren morfologiari buruzko ezaugarriak:

6.1.3.1. IZENAREN MORFOLOGIARI DAGOZKIONAK.

- izenordain forma berdintsuak : *nai/nei, negana, nee/nei, neebeyiten, nio(n)i, nionek, ziorrek, iyore/iñore, iyun/iyon/iñun, iyundi/iyondi/iñundi, ...* esparru osoan erabiltzen dira.
- erakusleak : *arrek, arri, arren, arrendako, oiten, airi/aiei, ...* formak ere, herri guztietan erabiltzen dira.
- zenbatzaile zehaztu zein orokorrak : *bitenaun, irutenaun, lauteaun, guze, dena, ...* aldaerak ditugu esparru osoan.
- sinkretismoa absolutibo pl. eta ergatibo sing. eta pl.-aren artean: *Alkatiek etor die / Alkatiek ein d(a)u / Alkatiek ein debie/dubie*. Herri guztietan suertatzen da.
- soziatiboaren morfema *-ki* da: *amaki, alabaki, eskubaki, ...* esparru osoan, nahiz eta zenbait hiztunek sudurkaria ahoskatu hitz bukaeran..
- instrumentalarena *-s*: *oñes, erris erri, buus bia, eskus, auskias, erdias, ...* herri guztietan horrela erabiltzen da.
- destinatiboan *-tako (-dako)*: *netako, zuteko, amandako, semiendako, ...* erabiltzen da esparru osoan.
- prolatiboaren morfema *-tako*: *alkatetako, meikutako, semetako, ...* herri guztietan ere.
- ablatiboaren morfema *-ti/-di* da: *plazati, etxeti, andi, orti, ...* burutzapenak daude herri guztietan (hala ere zenbait hiztunek, soziatiboaren kasuan bezala, bukaeran herskaria duela ahoskatzen du).
- bizidunei egokitzen zaien inesiboan, ez *-(r)engan, -(r)en baitan* baizik: *nee beitten, zuen beitten, aman beitten, ...* erabiltzen da esparru osoan.


- superlatiboaren bilakaera berdina, *V + -(r)ena > VVna*: *merkeena, astoona, biziina, mutuuna, ...* (Unanu eta Dorraon *merkeina, astoina, bizieina, mutueina, ...*)
- **-ago** konparatzailearen bilakabidea, *-AGO > AO > OO*: *beltzoo, merkioo, astuoo, biziyo, ...* esparru ia osoan, Unanu eta Dorraon izan ezik. Hemen, *-ago > -ao > au* dugu bilakabidea: *beltzau, merkiau, astuau, biziya, ...*

6.1.3.2. ADITZAREN MORFOLOGIARI DAGOZKIONAK.

- partizipioetako **-i** bokalaren sinkopa: *etorko, etor neiz, ekar d(a)u, ...* aldaerak esparru osoan erabiltzen dira.
- partizipio analogikoak: *izendu, jakindu, ibildu, bieldu, itzuldu, ...* bezalakoak herri guztietan ditugu.
- **-gi** motatako aditz partizipioen kontsonante herskariaren galera, Uharte eta Dorraon (*idugi* ‘edugi’, *idigi* ‘iregi’, *jaigi*, Uharten; *jagi, ebagi, ...* Dorraon) izan ezik: *urai/irui/uittu/idui/udii*, *izerai/ize/ixe/ixiin*, *irai/irei, jai/jei* (*jagi*), *ebai, ...* bezalakoak herri guztietan entzun daitezke.
- **-ketan, -(ke)kan** morfemez osaturiko gaztelaniako ‘gerundio’ak: *eztulketan, laixterkan, inbuluzkekan, pirriñekan/pirrinkekan/txirrinkekan, arrastakan, ...* formak ohikoak ditugu esparru osoan.
- geroaldiko **-en** eta **-aan** morfemaren erabilera (-ko ere bai): *esanen/esaan, fanen/faan, emanen/emaan, ...* Unanu eta Dorraon soilik erabiltzen da disimilaturik: *esain, fain, emain, ...*
- **/ki/** erroa NN_i erako aditz laguntzailearen formetan: *dakit(orok)/dakie* (Uharte), *zaki(t)en(orok)/nakin* (Lizarraga, Dorrao), *daki(y)o, nakizub(i)e, ...*
- singularreko lehen pertsona ezugarria, -T, ez da **-DA** bihurtzen: *zakiten, zuuten/ziten, dakitela, dutela/detela/dotela, ...* formak herri guztietan burutzen dira, ikusten denez.
- *zuek* pertsonaren ezaugarria **-ZUB(I)E** da : *dakizub(i)e, duzub(i)e/dezubie, doozubie/diozub(i)e, ...* Ergoienan, hala ere, **-ZIE** da morfema: *dakizie, dezie, ...*
- pluraleko hirugarren pertsonaren kasuan :
 - **-(O)B(I)E** (NN_I, NN_K, NNN sailetan Etxarri, Lakuntza, Arruazu eta Uharten, eta NN_K sailean Arbizun).

- *-(Y)UE* (NN_I sailean Arbizu eta Ergoienan, NNN sailean Arbizun, eta NN_K sailean Ergoienan).
- *-OR(I)E* (NNN sailean Ergoienan).

XIII. mapa



- sintetikoen iraganeko flexioetan, soilik bukaerako iraganeko marka: *naki(y)on*, *nakan/nokin/nekan*, *zaamabien*, *zakibien/zaki(y)en*, *na(i)lle(be)n*, ... esparru osoan dira ezagunak.
- **etorri**-ren forma sintetikorik ez dago, **eldu** erabiltzen da bere ordez: *eldu neiz*, *Orduben eldu zien!*, ... Herri guztietan gertatzen da hauxe.
- aditz laguntzailearen forma gehienak berdintsuak dira esparru osoan, soilik NN_K erako objektu singularra duten orain aldiko formak (Bonaparte-k kontuan hartu zituenak) dira desberdinak. NNN eran, bi joera daude: *-I*-errodunak (Arbizutik Uharteraino), eta *-ERAU*-errodunak (Etxarri eta Ergoiena).
- aditz trinko eta alokutiboen formak ia berdinak esparru osoan.
- NNN eta NN_K sailetako formen arteko nahasketa: Etxarri, Dorrao, Unanu, Arruazu eta Uharten gertatzen da gaur egun.
- singularreko bigarren pertsonaren marka *-y* da: *yeiz*, *y(a)uke*, *yueke/yuake*, *yakan/yauken/yekan/yokien/youken*, ... esparru osoan gertatzen da, nahiz eta Dorraon ez erabili zenbait kasutan: *eiz*, *uke*, ...

- **-ATU** motatako partizipioak, ez **-AU**: *gastatu, billetu, pasatu, paatu, ...* herri guztietan ditugu.

6.1.4. SINTAXIARI DAGOZKION EZAUGARRIAK.

- interjekzio amankomun zenbait: *Aiaupenani!/Aieneni!, Iyun dienak! / Iñun dienak!, Bierrik!, Sikia!/sikera!, Barratu artio!, Baote!, Ge(i)xkixe(i)! (Ederki!), Aixea/a! (Erraz!), ...*
- **ala** juntagailu disjuntiboa ez da inoiz erabiltzen, **o(o)** (edo) baizik.
- **(d)ee, debei/ebai, (d)eez** (ere, ere bai, ere ez) juntagailu kopulatiboak, esparru osoan.
- **bee** (bage) eta **solo** partikula adbersatiboak, ia herri guztietan dira ezagunak. Arruazun, hala ere, *gabe* erabiltzen da, eta Uharte eta Dorraon *bai/pai*.
- **-t(z)era eman** eta **-t(z)en utzi** erabiltzen dira esparru osoan.
- zehar galderetan **iye/iya** partikulak erabiltzen dira herri guztietan.
- **-ikeko** morfema erlatibozkoa esparru osoan.
- **eskio(s)** menperagailua ere, herri guztietan.
- denborazko menperagailuen artean **artio**.
- kausa eta helburuzko esaldiak gauzatzeko **-t(z)iet(i)s/-t(z)iat(i)s** morfema.
- kausazkoen artean, bestalde, eremu zabalagoan erabiliak diren ‘aditza + (e)ta’ eta ‘aditza + -la (e)ta’ menderagailuez gainera, **-lakos, bait-/beit-** eta **ze(e)ngati ... -n** dira oso erabiliak esparru osoan.
- baldintzazkoetan oso ohikoa dugu **-t(z)ia(s)** herri guztietan.
- kontzesiboen artean **-aati(s)**, dago hedatua esparru osoan.
- kontsekutiboen artean **gios** (geroz) (Dorraon *geros*) menperagailua ere oso hedatua dago.

6.1.5. SAKANA ERDIALDEKO LEXIKOA.

Lan honen seigarren atalean aztertu dugu Sakana erdialdeko lexikoa, eta baita beste esparru batzuetakoekin konparatu ere. Baina hemen, gure azterketa esparruari, lexikoaren ikuspegitik, halako batasun itxura ematen dioten hitz batzuen zerrenda baino ez dugu jasoko. Honek ez du esan nahi, hemen soilik erabiltzen direnik aipatu hitz horiek, baina bai ordea, ziur aski, hemen aipatzen ditugun guztiak batera, elkarrekin.

ilbeltza (urtarrila), *garagarzaro* (ekaina), *garilla/e* (uztaila), *urriya/e* (iraila), *lasteille/a* (urria), *udatzena*, *launbeta*, *iyendia/e*, *Jangoikuen gerrikua/e*, *ostrilleka* (ortzadar, Etxarri), *iñeztura/e*, *ostotsa/ortotsa* (Uharte), *izotza*, *kisuba/e*, *galtziña/e*, *osto*, *ixtor/eixterro/ixtaurro*, *menddere*, *fan*, *txingurri*, *itzo(o)/itzau*, *etzin*, *urrai/irui/idui/udi(g)i*, *arrantza/arrutze*, *farra/parra/irri*, *pixe/a*, *jendu*, *fale*, *forrei*, *loi*, *auski(n)/autsiin*, *tripota*, *dalka*, *miye/a*, *auli*, *auri*, *irriti/urriki* (Uharte), *iruzki*, *lotsa*, *lazka*, *laskatu*, *lasatu*, *kakakurre/kakagorri*, *guai*, *iyote*, *idergi*, *zider*, *izeba*, *atorra*, *guatze*, *ago*, *estarbi/estrabi* (Arruazu eta Uharten), *lixu*, *kaldor*, *arrije*, *az(k)azkal*, *kalfar*, *maki/meiki*, *maskubi*, *gatzai*, *gaztanbera*, *matoi*, *gazure/a*, *opo*, *ostiko*, *ozka*, *osatu* (zikiratu), *errun/erron*, *kasuein* (zaindu), *iñere*, *arrano* (saia), *amimoro/a/armimosa/imermau*, *amoma/amuma*, *kunkun*, *intxor/e(i)ntxor/entxur*, *masusta/masosta*, *zize/a*, *ttittere*, *beittu*, *ttuttuipiko/txutxu(n)piko*, *moko*, *i(n)gurei*, *itsesi/itsere* (akotatuak), *Barga* (Sakana osoko toponimoa), ...

6.1.6. SAKANA ERDIALDEKO HIZKERARIK BA OTE DAGOEN.

Laurogeitik gorakoak izan dira kontuan izan ditugun ezaugarriak gure esparruko hizkera aztertzerakoan, eta ikusi berri dugu gehienak esparru osoan erabiltzen direla. Hogeitik gora izan dira bokalismoari buruzko ezaugarriak, eta ia guztiak bilakabide berdinarekin eremu osoan; hamabosten bat edo kontsonantismoari buruzkoak, eta gauza bera esan dezakegu; hogeitik gorakoak ere ezaugarri morfologikoak, eta gehienak, berriro, amankomunak esparru osoan; sintaxiari dagokionez, berdina da azterketa esparruko herri guztietan; eta lexikoaz, zer esanik ez, oso gutxi dira herri batetik bestera aldatzen diren hitzak. Honek ez du esan nahi desberdintasunik ez dagoenik, baina daudenak hain dira urriak eta zortzi herrien artean sakabanatuak, ezen ezinezkoa suertatzen baita horien araberrako muga dialektologikoa ezartzea esparruaren barruan. Aipagarrienak, aditzetako $a + e > e$ eta NN_K saileko $-u$ -erroak (Arbizutik ekialdera) eta a eta $-e$, $-o$, $-au$ - (Etxarri eta Ergoienan) ditugu (gogoratu, hala ere, lau aditz forma baino ez direla NN_K erako horiek). Gainerako desberdintasunen kasuan, banaketa ez da hain garbia gertatzen eta esparruko herriak tartekatu egiten dira bilakabide baten edo bestearen alde (*asimilazioak*, *hasierako e- + kontsonante erorkorraz sortutako bilakabidea*, *hiatoetako -b- epentetikoaren ebakera desberdinak*, ...). Horrela beraz, dagoeneko baieztatu dezakegu hizkera bat hitzegiten dela Sakana erdialdeko herrietan, eta ez duela inolako zentzurik, bere garaian Bonaparte-k, Etxarri-Ergoiena eta Arbizuren artean ezarritako muga dialektologikoak. Horrela pentsatzen du K. Zuazo-k ere:

“Gauzak horrela, ez dirudi aurrera begira Bonapartek asmatutako ‘Nafarroako gipuzkera’ azpieuskalkiari eutsi dakiokenik. Etxarrin hasi eta handik ekialderako hizkerak ‘goinafarrera’ garbitzat joko genituzke guk geuk. Horretaz gain, ez zaigu oso ziurra iruditzen Etxarri-Ergoiena eta Arbizu arteko muga. (...) Guri geuri behinik behin ez zaizkigu begitantzen azpieuskalki bi $-are$ gutxiago “euskalki” bi, Bonapartek nahi bezala- egiteko

aski arrazoi. Hizkerok *banatzen* dituzten ezaugarriak aldamenean *batzen* dituztenak jarriko bagenitu, gainera, are gure aldekoagoa litzateke emaitza”. (Burundako hizkera, 1995, 360).

Eta horixe bera egin dugu guk oraintxe bertan, azterketa eremuko hizkeren ezaugarri amankomunen metaketa, zeinek azpimarratzen baitu duela lau urte dialektologo eibartarrak esandakoa. Hori bai, geroxeagorako utziko dugu zein euskalki multzotan egokitzen dugun Sakana erdialdeko hizkera hau.

Bestalde, Ergoienako hizkera, gipuzkerako beste barietate batean kokatu zuen printzeak, Etxarrikoarengatik banaturik, Burundakoan hain zuzen. Eta honetan ere, ez dugu uste asmatu zuenik, ezen Ergoienan ezaugarri gehiago baitira Sakana erdialdeko hizkerara lerratzen direnak, burunderaren aldekoak baino. Esan daiteke ia bakarra dela Ergoiena eta Burundan erabiltzen den burutzapen komuna, Sakana erdialdean burutzen ez delarik: NN_K erako laguntzailearen *-o-* erroa (*dot, dok/n, ...*) (Ikusi 6.2.6. puntuko alderaketa)

6.2. SAKANA ERDIALDEKO HIZKERA ETA GAINERAKO HIZKEREN ARTEKO ALDERAKETA.

Behin azterketa esparruko hizkeraren ezaugarriak zehaztu eta gero, oharturik, ezaugarri fonetiko-fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoen metaketak erakutsi digun eran, hizkera berbera (herri bakoitzeko bitxikeriak kontuan izanik, jakina) dugula eremu osoan, jarraian, Euskal Herriko ezaugarri multzoek bereizten dituzten hizkera ezberdinekin alderatuko dugu Sakana erdialdeko hau, azkenik, horietako eremu zabalagokoan kokatzen ahaleginduko garelarik. Horretarako, K. Zuazok aurkeztu berri duen *Euskalkiak gaur* lanaren ildo jarraituko dugu, eta bertan agertzen dizkigun eremukako ezaugarriak erabiliko ditugu guk geuk ere, horietako eremu batean kokatzeko asmoz.

6.2.1. EH-KO ERDIGUNEKO EREMUAREKIKO SAKANA ERDIALDEKO HIZKERAREN KIDETASUN ETA DESBERDINTASUNAK.

Ataltxo honetan, Euskal Herriko erdiguneko eremu zabaleko zein murriztagoko ezaugarriak izango ditugu kontuan, eta ikusi ahal izango dugu nola ez den erabat egokitzen Sakana erdialdeko hizkera Euskal Herriko erdiguneko ezaugarrietara. Izan baditu eremu honetako ezaugarriak, baina ez bertakotzat hartzeko adina, ezen erdiak baino ez baitira gertatzen esparru osoan (parentesi artean eta hizki txikiagoz ezartzen ditugunak, azterketa esparruan suertatzen ez diren EH-ko erdiguneko ezaugarriak ditugu):

- (Ez dago azterketa esparruan singularra eta plurala bereizten dituen azenturik).
- $-a + a > -a$ bilakabidea dugu esparru osoan, G-ko ekialdea, NG gehiena, L eta NB-n bezala. Hala ere, kontuan hartzekoa dugu asimilazio

aurrerakariaren kasua, eta honen ondorioz, zenbaitetan berezko *-a* hori galdu egiten da: *makil, eliz, gauz, amin, ...*

- NNN sailean eta aditz sintetikoen alokutiboetako 3. pertsonetan z-erabiltzen da Lizarraga eta Dorrao ez beste herri guztietan, L, G eta NG gehienez bezala: *ziek/n, zikiyau/ñau, ziyuek/n, za(i)llek/n, zikok/zokik/zakak, ...*
- (Ablatiboan *-ti* eta motibatiboan *-gati* morfemak ditugu esparru osoan, eta ez *-tik* eta *-ga(i)tik*: *bideti, andi, zugati, semiengati, ...*).
- (Ez dira esparruan erabiltzen *-(eta)tik*/*-gandikan*, *-ga(i)tik*, *-(e)nikan*, *-(e)larikan* bezalako morfemak). Soilik partizipioetako eta partitiboetako *-(r)ikan* morfema erabiltzen du zenbait hiztunek: *aztuiken* (ahazturikan), *guañiken* (oraindikan), ...
- (Ez da aditzetan *-te* pluralgilea erabiltzen, *-(i)e*, *-b(i)e* eta *-zub(i)e* baizik: *zarie/zaaye, ziñien/ziñerien, zetzekie/zaittizkie, dub(i)e/debie, dakab(i)e, dakibie, duzub(i)e/dezubie, dakazub(i)e, dakizub(i)e, ...*)
- *-t(z)en* erabiltzen da aditz izenak sortzeko, baina *-ten* aditza *-n* edo *txistukaria* + *-i* batez bukatzen denean: *ematen, uzten, ixten, ...*
- (Ez da *-ki* aditz atzizkia erabiltzen esparru osoan).
- Hiatoetako epentesiak, [j] eta [b], bai gertatzen dira esparru osoan, bigarrenaren kasuan aipagarria delarik Arbizu, Lakuntza eta Arruazuko ebakiera herskaria: *erriy(a/e), auriy(a/e), eskub(a/e), mundub(a/e), ...*
- Asimilazio bustidura gauzatzen da azterketa esparruan, baina ez EH-ko erdiguneko zenbait tokitan gertatzen den indarrarekin, hots, ez da aipatu eremuan gertatzen den ingurune guztietan ematen. *N, l, t* eta *d* kontsonanteak bustitzen dira, baina beti */i,j __ V/* ingurunean, eta ez */i,j __ #/* ingurunean, *bait* partikulaz osaturiko izenordain mugagabeen kasuan izan ezik: *miñ(e/a), makill(e/a), opill(e/a), kitto, eitten, (di)ttut, zerbeitt, nolabeitt, inderra, gildde, ainddu,...* Baina: *min, makil, opil, baakit, dakit, ...*
- (Unanun eta Dorraon soilik gertatzen dira genitibo singularreko eta geroaldiko morfemen *-aren* > *-ain* eta *-anen* > *-ain* bilakaerak: *amain, semein, gizonain, esain, fain, ...*)
- NNN saileko erroari dagokionez, bi joera daude azterketa esparruan: **-i*-erroduna bata (Arbizutik ekialdera), EH-ko erdigune gehienez zabaldua; eta **-erai-* erroduna bestea (Etxarri eta Ergoienan), Nafarroako ekialdean bezala: *duuzut/dizut, noon/nion, ...*

- Erabiltzen dira Sakana erdialdean partizipio burutu gabea duten ahalerako egitura perifrastikoak, baina desioa edo nahia adierazi nahirik gehien bat: *Eitten al dek/duk ori!*, *Etortzen al da lixto, bestela ...!*,
- *O(o)* (edo) da esparru osoan erabiltzen den partikula hautakari bakarra EH-ko erdigune gehiengan bezala: *Zenbat eskatu ttuzu, bi o iru?*, *Tontue/a yeiz o?*, ...

Hamalau ezaugarri izan ditugu kontuan, eta sei baino ez dira, horien artean, azterketa esparru osoan erabiltzen direnak. Eta gainera, erdiak, EH-ko erdiguneko eremu murrizagokoan gertatzen direnak ditugu, Nafarroa Garaian nahiko hedapen zabala dutelarik bestalde, bai hauek nola eremu zabalekoak.

6.2.2. NAFARRERA ETA EKIALDEKO EREMUAREKIKO KIDETASUNAK.

K. Zuazok aurkezten dizkigun euskara nafarraren bereizgarrien arteko bat bakarra da azterketa esparruan erabiltzen ez dena, *geroaldiko eta partizipioa + behar inguruneko u > i bilakabidea*, hots, *allatuko* esaten da esparru osoan, eta ez *allatiko*.

Guk ondorengo bilakabideak izango ditugu kontuan, bai euskara nafarraren bereizgarritzat aurkezten direnak, bai NG gehiengan hedatuak direnak:

- Aferesiak: *ta, zazu/zak, toz, txikoi/txikore*, ... esparru osoan erabiltzen dira; *maten, manzalie*⁶, *men* Lakuntzan; *torri* Uharten⁷; eta *makome* Ergoienan.
- Sinkopak: *andre, bedratzi, gerna/garna, sobree, libruu* (Arbizu, Arruazu), *atra, pastu* (Arruazu), *ikusko, ibilko, etorko, ikusdau/du*, ...
- Instrumentalaren morfema *-(e)s* eta kausazkoen artean *-lakos* erabiltzen dira esparru osoan: *oñes, buus bia* (buruz behera), *Nei z(ub)elakos!* (Nahi zuelako!), ...
- Ipar EH-n eta euskara nafarrean suertatzen diren goranzko diptongoak: *itsés[we]* (itsasoa) / *itses[wé]* (itsasora), *ots[we]*, *andr[je]*, *lurr[já]* (lurrera), ...

⁶ Horrela jaso dugu guk, Eugenio ULAYAREN “Juan Miguel Gastesiren bi ‘Mayatzeko illabetia: Mariaren Illabetia’” (1987): “..., (*siñestatceco etcela hizandu golpe manzalie mundutarra baicic, beste munduoa:*) ...” Aurreko hitza *-e* bokalaz bukatzen delako ote?

⁷ Nicanor Beltzari horrela jaso diot transkribaketan: “*Egurte, karo, karruaki, idiyeki, fan e goizien zortzitan o bedratzitan ta atsaldeko iru o lautan ezin torri, oso urriti, baakik ...*”

- Aditzetako bigarren pertsona singularrean, *y-* erabiltzen da: *yeiz, yue, yauke, yakiyo* (hakio), *yoon* (hion), *yueke* (hoake), ...
- Arbizutik ekialderako herrietan baino ez bada ere, *-it-* pluralgilea erabiltzen da NNN sailean (Etxarri eta Ergoienan *-zki-*): *nittion* (nizkion), *zittizun* (zizkizun), *ttizut* (dizkizut), ...
- Prolatibo kasuan *-tako* morfema erabiltzen da NG gehiena eta Z-n bezala, eta destinatiboan, berriz, *-endako/-etako*, esparru osoan, euskara nafar gehienaren antzera: *semetako, alkatetako, amaandako, semiendako, zuendako, neetako, zuuteko*, ...
- *-oa-* bokal multzoaren aurreko *g-*ren agerpena, euskara nafarrean gertatzen den moduan: *guai, quartu, guatze, gua*, ...
- *-on* bukaeradun mailegu berrien kasuan, berean mantentzen da esparru osoan NG gehienean bezala: *balkona, kamiona, balona, jabona*, ...
- Aditzondoak absolutibo singularrean erabil daitezke: *Ago ixi-xille!, Nionek atia det bakar-bakarra!*, ...
- Nafarroako ekialdean *g-* atxikitzen zaie erakusleei, eta gure esparruan, kasu batean baino ez bada ere, halaxe gertatzen da: *goneskios* (honez gero).
- NG-ko ekialdeko erdian eta Zuberoan suertatzen den bezala, sozietiboko morfema *-ki* dugu: *neeki, zuuki, amaaki, nooki*, ...
- Bizidunen inesiboko morfema *-(ren) beitten* da azterketa esparruan, nafarrera eta ekialdeko hainbat hizkeren kasuan bezala: *Ori bier bezela eittie, zuen beitten ziok!*
- Geroaldia osatzeko bi aukera daude eremu osoan, *-ko* eta *-en*, oso zabaldua dagoelarik bigarren hau, *-n* batez bukatutako aditzen kasuan, *-ain* (ekialdean bezala) eta *-an* (Basaburuan bezala) bilakaerak ere eman dituelarik: *fanen/fain/faan, esanen/esain/esaan, izanen/izain/izaan*, ...
- Ergoienan baino ez bada ere, orainaldiko 2. Pertsona pluraleko adizkietan *u > i* bilakabidea suertatzen da, NG-ko ekialdeko erdian bezala: *dezie, dakizie, doozie, doorezie*, ...
- Lehen aldiko NN_K erako adizkietan, ekialdeko hizkeretako *-i-* agertzen da: *giñuben/giñuen/giñubuen/giñun, ziñuben/ziñuen/ziñubuen/ziñun, giñuzkiyen/giñuzkuen/ginttuen*, ...
- EH-ko ekialdeko hizkera gehien modura (badira zenbait hizkera ere Gipuzkoako iparraldean), *-a-* eta ez *-e-* erabiltzen da aditz sintetikoen lehen aldian: *zailen, zailzien, nakiyen, zakiyen, zakan*, ...

- *Eman* aditzarekin *adlatiboa* erabiltzen da azterketa esparruan, Ipar EH-n eta euskara nafarrean bezala: *jatia eman*, *yatia/aatia eman*.
- Kausazko perpausak burutzeko erabiltzen diren ondorengo morfema eta partikulak ere, *-lakos* eta *bait-*, ekialdeko euskalki multzora eramaten gaituzte berriro.
- Esaldi konparatiboetan *-ago* orokorraz gain, *-agokoa* ere erabiltzen da Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko beste zenbait hizkeratan bezala.

Asko dira, ikusten den moduan, Sakana erdialdeko euskara eta nafarrera edo Nafarroako eremurik zabalenean erabiltzen diren ezaugarrien arteko kidesunak. Eta gehiago dira oraindik, Nafarroako hainbat eremu eta EH-ko beste batzuetan ere erabiltzen direnak kontuan izaten baditugu. Eta horixe egingo dut hurrengo puntuan hain zuzen, aipatu berri ditudan ezaugarri hauek aztertu.

6.2.3. BESTE EREMU BATZUEKIKO KIDETASUNAK.

Ataltxo honetan, Sakana erdialdean erabiliak izanik, beste eremu batzuetan ere gertatzen diren ezaugarriak erreparatuko diet.

- Iparmendebaldeko bizkaiera (Uribe kosta) eta NG-ko beste zenbait eremutan (Esteribar, Erroibar, Anue, Atetz, Artzibar, ...) erabiltzen den NN_I saileko *-ki*-erroa: *dakit* (zait), *dakiyo* (zaio), *dakiyobie* (zaie), ...
- *Eu* > *au* bilakaera gertatzen da azterketa esparruan, bizkaieran (Mungia, Zeberio, Zeanuri) eta NG-n (Aezkoa, Ultzama, Oltza, Goñi, Gares⁸) bezala: *auri*, *auli*, *aun*, *laurri*, *auntzi*, *auskias*, ...
- *Ei* > *ai* bilakaera suertatzen da Sakana erdialdean, Burunda eta Bizkaiko Otxandio, Zeberio, Nerbioi arroa eta Uribe kostan bezala, baina aipatu *ei* diptongoa, bigarrenkaria delarik azterketa esparruan: *aizia* (ehizara), *irai* (iregi), *izerai* (irazegi), *nai* (neri), ...
- Partizipioetako *-i* bokalaren sinkopa gertatzen da bizkaieraren ipar-mendebaldea (Getxo), eta GN-ko (Aezkoa, Basaburua, Imotz, Bortziriak) eremu zabalarekin batera, eta hau ere, Sakana osoan betetzen da: *ibil neiz*, *etor gaa*, *ikusko diau/duu*, ...

⁸ Horrela dator azken hiru herri hauetako hizkeran, BONAPARTEK jasotako “Le cantique des trois enfants dans la fournaise”, 1869: “*Auri t’intza guciac*, ...” (Gares), “*Auri te intz guciac*, ...” (Oltza eta Goñi). (R.M. Pagola- Tx. Peillen- Pedro Díez de Ulzurrun, EUSKALKI LITERARIOAK, 1992, 117)

- *o > u* bilakaera suertatzen da sudurkari aurrean gure esparruan, eta ez soilik galdetzaileen kasuan, Zuberoa, Baztan, Bortziriak eta Mallabin bezala: *nun, nundi, nungo, iyundienak, nunbeitt, aittun, trunku, ...*
- *Izan egon*-en ordeztzen da zenbaitetan, batez ere adineko hiztunen artean, EH-ko beste zenbait eremutan, egun Hegoaldean bereziki, bezala: *Iruñen izendu neiz.*
- Hiatoetako *o > u* eta *e > i* disimilazio bilakaerak gertatzen dira azterketa esparru osoan, NB-ko Garazi eta Iholdi eta B-ko sartaldean bezala, baina baita ondorengo gorunzko diptongoen sorrera ere: *besua/e, semia/e, ...*
- Ez da errotazismorik gertatzen (Uhartan soilik agertu zaigu horren aztarna), hots, *-st-* kontsonante multzoa erabiltzen da Sakana erdialdean EH-ko mendebalean, erdialdean, Zuberoan eta Erronkariko iparraldean bezala.
- Ergoieta eta Arbizun baino ez bada ere, eta *egon* aditzaren forma batzutan soilik gainera, suertatzen da *au > ou* bilakaera, Zaraitzu, Aezkoa eta Bizkaiko Nerbioi arroan bezala, nahiz eta azken eremu honetan ‘egon’en adizkiekin ez gertatu: *goure, zoure, doure.*

6.2.4. GIPUZKERAREKIKO ALDERAKETA.

Gutxi dira, oso gutxi, Sakana erdialdeko hizkera gipuzkerara (ez erdialdeko euskalkira) hurbiltzen duten ezaugarriak, eta horietariko bat bera ere ez da hedatzen, gainera, gure azterketa esparru osoa. Hau gutxi balitz bezala, ezaugarri horietariko bat edo beste, beste eremuetara ere iristen da. Guk hauexek baino ez ditugu jaso azterketa eremuan:

- Bokalismoari dagokionez, *-a* berezkoaren galera gertatzen da Etxarrin, baina badirudi duela gutxiko kontua dela hau, eta gainera aurreko silabako bokala itxia denean suertatzen da soilik, hots, berezko *-a* asimilatu eta desagertarazten duelarik: *gauz, eliz, makil, egi, anei, ...* Hala ere, egun lehian soma daitezke *-a*-dun eta gabeko aldaerak: *gauz bet / gauzaat, eliz bet / elizaat, makil bet / makillaat, anei bet / aneyaat, ...*
- Kontsonantismoan, *d/r* txandaketa aipa dezakegu, oso kasu gutxitan (hiruzpalau) suertatzen bada ere Etxarri, Arbizu eta Lakuntzan: *urai / irui* (edugi), *erai* (edari), *iri* (idi). Ez da, beraz, gipuzkeran normaltzat hartzen diren beste kasuetan gertatzen: *badie* (badira), *bide, lodi, senide, soldado, ...* Bestalde, *[x]* ebakera dugu esparru osoan, Bizkaia eta Nafarroako beste zenbait hizkeretan bezala. Azken herrialde honi dagokionez, ondorengo hizkeretan ager dakiguke: Imotz eta Basaburuako zenbait herritan, Araitz,

Larraun eta XIX mendearen erdialdeko Garesekoan⁹ ere bai. Ultzamakoan ere entzun daiteke ebakera hau zenbait ingurunetan, hala nola mailegu berrienean. (Ibarra, 1994, 276)

- Aditzaren morfologiaren kasuan, bi baino ez dira gipuzkerara hurbiltzen diren ezaugarriak. Batetik, euskalkien sailkapenak egiterakoan hainbeste garrantzia eman izan zaien *det/dezu* aditz formena, eta soilik Etxarrin gertatzen da (gogoratu oinarri dialektologikoen bukaera aldera dioguna, goierritar etorkinei buruzkoa, 46 orrialdea); eta bestetik, *joan* aditzaren forma sintetikoetan, gipuzkerako *nijoa, dijoa, ...* horien antzekoak, *niyue, diyue, ...* daude Etxarri eta Ergoienan, baina beti ere *nue, due, ...* forma orokorrekin lehian. Ohartu, erabiltzen den kasuetan ere, ez dela kontsonante belarea erabiltzen dena, sabaikoa baizik.

Hauxek dira, orduan, Sakana erdialdeko hizkeran ager daitezkeen gipuzkerarekiko¹⁰ kidesunak. Hauexek bakarrik, bai, ezen izenaren morfologia, sintaxia eta lexikoaren arloan ez baitugu ezaugarri komun aipagarriarik aurkitu. Eta hemen agertutakoa, oso kidesun urria iruditzen zaigu, behinik behin, gipuzkerara atxikitzeko, ez Sakana erdialde osoko hizkera, jakina, ez eta Etxarri edo Ergoienako bertakoak ere, Bonapartek bere garaian egin zuen moduan.

6.2.5. SAKANA ERDIALDEA ETA ATAUNGO EUSKARA: ALDERAKETA.

Gipuzkerarekin aurreko puntuan konparatu badugu ere, oraingoan Sakana erdialdeak iparraldeko muga duen Ataungo hizkerarekin egingo dugu alderaketa, hurbiltasuna eta harreman estuak direla medio nahitaez izan behar dute hizkuntza ezaugarri amankomunak eta. Guk, hala ere, diferentziak bilatzeari ekin diogu, eta asko izan dira atzemandakoak, bi hizkera desberdinen aurrean gaudela esateko adina bai, bederen, jarraian ikus daitekeenez. Dena den, ez dugu ahaztu behar alderatzeko erabili dugun materiala J.M. Azurmendik (1996) aztertutakoa dela, eta bertan J.M. Barandiaranen gaztaroan egiten zen ataunera ageri dela:

- **Bokalismo eta kontsonatismoa:**
 - **bokal luzeak:** bokal luzeena izan daiteke Ataungo hizkeraren ezaugarriarik aipagarriena, bere ugaritasunagatik, ez soilik kantitateari begiratuta, testuinguru desberdinak ere asko baitira. Sakana erdialdean ere badira bokal luzeak, baina hurrengo testuinguruetan soilik: etimologikoki hasperenketaz banaturiko bi bokal berdinen ingurunean

⁹ Horrela jaso zuen Bonaparte printzeak (Opera omnia vasconice (I), 1991, 258 orrialdea)

¹⁰ Ohar ‘gipuzkera’ eta ez ‘erdialdeko euskalkia’ dela hemen aipatzen duguna. Egun ‘erdialdeko euskalkia’ moduan ezagutzen dugun hizkerarekiko alderaketa 6.2.1. puntuan burutu dugu.

sortutakoa (laburtu egiten dena ondoren: *zarra, len, lertu, matsa, ...*), herskari ahostun eta dardarkari xamurraren erorketak bi bokal berdinen inguruan sortutakoa (*baatxui, buu, goor, saar, suur, bierbaa, akaatu, iraaizi, elizaa, ...*), eta bokal desberdinen arteko kontsonanteen erorketak sortutako erabateko asimilazioa eta geminazioa (*illaate, toopillo, lendaazi, noon, amaan, berriina, allaatu, aundiyoo, noo, zoon, zuluuat, etxiaat, ...*). Ataungoan¹¹, aldiz, aipatu hauetaz gain, askoz gehiago dira testuinguru horiek: hitz elkartuak (*baseerri, mugaarri, aldeerdi, ollaarra, ...*), hitz eratorriak (*bazkaari, eraari, ...*), hitz amaierako bokalari mugatzailea eransten zaionean (*umeek, usook, ardiik, sugeeri, etxekooi, otsoon, odei guztiiñ, batzuekiñ, larreen, egiiz, besootan, ...*), -ago morfema konparatzailearekin ere era desberdinean egiten da (*tristeego/tristioo, gutxiigo/gutxiyoo, beanduugo/bianduboo, ...*), ere partikularekin (*iñolaare, zalaare, kateaare, ...*), pluraleko zenbait adizkien kasuan (*ittuun, zittuun, littuuzkeela, ...*), joan aditzaren adizkietan (*juun, dijoo, zijoon, ...*), subjuntibo eta aginterazko aditz formetan (*joo zak, botaa zak, artuu zaun, ...*), erakusleen zenbait formatan (*aak, ook, aatan, oolako, ...*), adizki alokutibo zenbait (*zeukeaat, bazeekiaat, diaat, ...*), /e/ luzea hirugarren pertsonaren ezaugarri moduan agertzen denean (*doeen* ‘duten’, *zoeen* ‘zuten’, *zaitzeet* ‘zaituztet’, ...), aditz-izenekin ere bai zenbaitetan (*artzeen, biltzeen, saltzeen, ...*), eta ‘azalpen iluneko’ (horrela agertzen ditu J.M. AZURMENDIk) beste zenbait adibide (*zeetorren, zeekarren, bigaarrena, laugarrena, irakiñ, egaaka, orraatz, ardooa, ...*).

- **bokal asimilazioa:** asimilazio inguruak antzekoak badira ere, salbuespenez josirik agertzen da Ataungo hizkera: *kanpaia, morroia, oia, legoia, erria, erdia, mendia, barrua, lekua, gaziña, muga, puska, pillla, makilla, tipula, amairu, zerbait, ...*
- **a + a > -ea** bilakabidea dugu Ataungo hizkeran, eta **a + a > a** Sakana erdialdekoan: *neskea, saldea, gauzea, denborea, sokea, puskea, ...*
- **f > p** txandaketa ia erabatekoa da Ataunen, eta ez Sakana erdialdean: *aparie, alporja, konporme, pesta, pigura, Villapranka, inparnu, panparroia, pago, ...*
- Sudurkari eta albokariaren **bustidura**, hitzaren bukaeran eta guzti, Sakana erdialdean ez bezala: *ariñ, beiñ, eiñ, zeñtzan, baldiñ, diñ, zeekiñ, ill, jentill, motill, ardiikiñ, denakiñ, alderdiñ, ...* Baita superlatiboaren morfemaren kasuan ere: *aundiiña, larriiñak, ...*
- /l,n,r/ kontsonanteen ondorengo txistukariaren **afrikapena** gertatzen da sistematikoki Ataunen, eta frikariak erabiltzen dira, berriz, Sakana erdialdean: *penitentzie, pentsau, ementzan, eintzak, jartzak, altzan, altzea, ...*
- Kontsonante **txandaketak:** d/r txandaketaren hiperzuzenketa (*beidau, adagi, ...*), d/l txandaketa (*illargi, zillar, ...*), l/n (*narru*), k/g (*keiza, kuutze, ...*). Sakanan kontrako burutzapenak ditugu.

¹¹ J.M. AZURMENDI (Ataungo euskara, 1996, 57-65).

- **Izen eta aditzaren morfologia.** Oso bestelakoak ditugu Ataunen izen eta aditzaren morfologiarekiko ezaugarriak, Sakana erdialdekoekin konparatzen baditugu:
 - Ablatibo eta motibatiboan –ti eta –**tio** Ataunen: *emendio, andio, orreatio, zeatio, ...* Sakana erdialdean: *emendi, andi, orrengati, zeengati, ...*
 - Soziatiboan –**kiñ** Ataunen eta –*ki* Sakanan: *mailluukiñ, zorrotzaakiñ, ...*
 - Instrumentalaren morfema –**zaz** da Ataunen: *Patxiizaz, sorgiñezaz, orrezaz, ...* Sakanan, –s.
 - Destinatiboko morfemak bi dira Ataunen, –**tzat** eta –**tzako**: *ietzat, beetzat, zuuntzat, neetzako, ...* Sakanan –*tako(-dako)*.
 - Prolatiboarena, –**tzat**: *apaiztzat, anratzat, azkartzat, ...* Sakanan, berriro ere –*tako*.
 - –**di** atzikia erabiltzen da Ataunen: *saasti, ...; -dei (-tei)*, berria Sakanan.
 - Nor erako **aditz laguntzailea**: *naiz, aiz, gea, zea, ...* Sakanan: *neiz, yeiz, gaa, zaa, ...*
 - NN_I erakoa: *zai/zayo, zaitzaion, zitzaien, ...; -ki-* errodun formak Sakanan.
 - NN_K erakoa: *deu, dezui, gendun, dit(t)ut, ...; Sakanan: d(a)u, dezubie/duzub(i)e, giñuben, ttut, ...*
 - NNN erakoa, –I- erroaz: *dik, diok, dizut, dizuet, ...; Etxarri eta Ergoienan, *-erau* erroa.
 - Eduki aditzaren formak: *dauket, daukezu, zeuken, ...; Etxarri, Arbizu, Lizarraga eta Dorraon: dakat, dakazu, zakan, ...*
 - –**atu** > (–**adu**) > –**au** bilakabidea partizipioetan: *abixau, ingurau, aukerau, nekau, zulau, ...; -atu* Sakanan.
- **Sintaxia eta lexikoa:**
 - Galderetan **al** partikula erabiltzen da Ataunen, Sakana erdialdean ez bezala: “*Ea ue gizona altzan galde ementzion*”.
 - Esaldi konpletiboetan, –**ela** eta –(e)**na** Ataunen: “*..., buruun zerbait zeukena igarri eñ ementzion*”; lehen morfema soilik Sakanan.
 - **Ala** juntagailua ere erabiltzen da Ataunen, Sakanan ez: “*Eroiko nok ala ez?*”.
 - Ez da *bait-* partikula erabiltzen **kausazko perpausetan**, *eta/-lako* baizik; Sakanan, ordea, bai.
 - **Lexikoa**: bi hizkeren alderaketa lexikoa egina dugu lexikoaren atalean. Hala ere, gogoratzeko baino ez bada ere, hona hemen desberdintasun aipagarrienak (lehena Ataungoa eta bigarrena Sakana erdialdekoa): *mingañe/miye, ebi/auri, elbi/auli, ese(r)i/jarri, barru/barne, txistu/txube, izara/meinddere, zapatu/launbeta, domeka/iyende, ...*

6.2.6. BURUNDA ETA SAKANA ERDIALDEKO HIZKERAK: ALDERAKETA.

Arrazoiak, edo diferentziak hobeto esanda, beste batzuk izanik, Ataungo hizkerari buruz genioena errepikatuko dugu oraingoan ere, hots, bi hizkera desberdin direla puntu honetan alderatuko ditugunak. Hala ere, Etxarrirekin muga egiten duen Bakaikuko hizkerak, Sakana erdialdekoarekin, gainerako Burundako herrietakoak baino kidesun gehiago erakusten ditu, eta hauexek alderaketa honen bukaeran azalduko ditugu.

Aurrekoan bezala, desberdintasunak aipatu eta Burundako emaitzak jasoko ditugu hemen, besteak, Sakana erdialdekoak, dagoeneko ezagunak baititugu.

- Bokalismo eta kontsonantismoa:

- Mugatzailearen asimilazioa ($i + a > ii$, $e + a > ii$, $u + a > uu$) gertatzen da Burundan, hitz oina bokalez bukatzen denean: *arrantzii*, *gaixuu*, *ganbelii*, *soruu*, *bakin*, *egunin*, *gaubin*, *itsasun*, *ondun*, ...
- Ez da gertatzen $V_1CV_2 > V_1V_2 > V_1V_1$ bilakabidea Burundan: *emaan*, *esaan*, *t(k)oopillo*, *lendaazi*, ... Sakana erdialdean, baina ez Burundan.
- $a + a (> -ea) > -ia$ disimilazioa: *alábian*, *neskiai*, *mangiekin*, ... eta honen ondorioz gertatzen den $-e > -a$: *anra*, *antxuma*, *basurda*, *bela*, ...
- Zenbatzaile orokorra: *danok*, *danak*, *dana*.
- Ez da beti ematen *i,u* bokal itxiek eragindako asimilazio, ezta pluraleko burutzapenetan ere: *aginak*, *ikezkinak*, *aundi bat*, *katilu bat*, ...
- $ei > ai$ diptongo irekiera askoz ere emankorragoa da Burundan: *araitz*, *bain*, *bairatu*, *maikuba*, ...
- $au > u$ monoptongaketa: *duka* (dauka), *dukau/dukeu*, *dukai/dukei*, ...
- $e > a / _ 'r$ bilakabideak ere maiztasun handiagoa erakusten du Burundan: *aguardi*, *eskarrik asko*, *maiztarra*, *izardi*, *muskar*, *infarnu*, ...
- Ez da Burundan aferesi eta sinkoparik.
- Ez da bustidurarik gertatzen, adierazkorra ez bada: *oilo*, *gaztaina*, ...
- *-nd-* kontsonante taldea usu ageri da: *baindo*, *oindo*, *gindan*, ...
- Kontsonante txandaketa zenbait (parantesi artean Sakana erdialdekoak): *kendu* (*gendu*), *kurutza* (*guutze*), *galte* (*kalte*), *pago* (*fago*), *barre* (*farra*), *kipula* (*tipula*), *galbario* (*kalbayo*), *bultzurrin* (*gu(i)ltzurri(u)n*), *txixa* (*pixa/e*), *iyo* (*it zoo*), *musti* (*busti*), *itein* (*izein*), *ura* (*utsa/e*, *udsa/e*), *txindurri* (*txingurri*), *sagona* (*jabona*), ...
- l/n txandaketa: *narruba*, *naurriya*, *nazka*.

- **Izen eta aditzaren morfologia:**

- Edute genitiboaren pluraleko morfema **-ein**, Unanu eta Dorraokoaren antzera (-ain): *txerriyein, ebein, ganaubein, ...*
- Soziatibo kasuan beti **-kin**.
- Instrumentalaren morfema **-z** da eta ez **-s**, Sakana erdialdean bezala.
- **-di** atzizki eratorlearen erabilera: *araizdiya, pagadiya, sagardi, sasidiya, ...*
- Aditzaren pluraleko 2. eta 3. pertsona, **-ei**: *dei* (dute), *dezei* (duzue), *nindukei* (nindukete), ...
- Eduki aditzaren pluralgilea, **-zki-**: *dukazki, dukazkizu, ...*
- NN_K laguntzailearen pluralgilea **-z-**: *genduzen, zenduzen, ...*
- NNN_K sailean **-tzi-** pluralgilea: *deatzit, ...*
- NN_I saileko erroa ez da **-ki-** Burundan, orokorrean, soilik lehenaldiko zenbait formetan, eta herri batzutan.
- Hitano alokutiboetan **j-**: *jitun, juak, ...*
- **-atu** > **-au** bilakabidea partizipioetan, Altsasun baino ez bada ere: *bueltau, faltau, gustau, arrapau, asarrau, eskau, ...*
- Lehen aldiko aditz formetan **-e-**: *genduben, zenduben, genduzen, ...*
- *niyu, diyu* edo *ziyula* tankerako joan aditzaren formak soilik.
- **-o-** eta **-e-**dun formak NN_K laguntzailean: *dot, dok, dezu, dezubei, ...*

- **Sintaxia eta lexikoa:**

- Kausazko esaldietan ez da bukaera txistukaria, *-lakos*, duen morfemarik erabiltzen, ezta *bait-* partikula ere.
- Lexikoan oso burutzapen desberdinak dira Burunda eta Sakana erdialdearen artean, eta hemen aipagarrienak jasoko ditugu:

BURUNDA	SAKANA ERDIALDEA
<i>orri</i>	<i>osto</i>
<i>barru</i>	<i>barne</i>
<i>domeka</i>	<i>iyende</i>
<i>eroan</i>	<i>eraman</i>
<i>ira</i>	<i>ixtorra</i>
<i>izeko</i>	<i>izeba</i>
<i>izera</i>	<i>menddere</i>
<i>jostaiya</i>	<i>ostotsa</i>
<i>kare</i>	<i>galtziñe</i>
<i>nesaki, mutiki</i>	<i>neskato, mutiko</i>
<i>oea</i>	<i>guatze</i>
<i>pitsa</i>	<i>aparra</i>
<i>uberaxa</i>	<i>zapoziyela, zapittela</i>

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: ONDORIOAK

<i>gaztaia</i>	<i>gazta</i>
<i>txixa</i>	<i>pixe</i>
<i>iyo</i>	<i>itzo</i>
<i>ura</i>	<i>utse, udse</i>
<i>ondo, obeto</i>	<i>aungi, obeki</i>
<i>guti</i>	<i>gutxi</i>
<i>txipi</i>	<i>txiki</i>
<i>eztai</i>	<i>ezkontza</i>
<i>autsi</i>	<i>auski(n), autsiin (Arr)</i>

Azkenik, komentatu *Continuum Geolektala*-ren teoriari jarraituz, Burundako ekialdeko Iturmendi eta, batez ere, Bakaikuko (Etxarri-Aranatz herriarekin muga egiten du honek) hizkerak direla gehien hurbiltzen direnak Sakana erdialdekora, ondorengo ezaugarrietan ikus daitekeen moduan:

BURUNDA	BAKAIKU	SAKANA ERDIALDEA
<i>kurutza</i>	<i>gurutza</i>	<i>guutze</i>
<i>pago</i>	<i>fago</i>	<i>fago</i>
<i>kipula</i>	<i>tipula</i>	<i>tipula</i>
<i>kendu</i>	<i>gendu</i>	<i>gendu, jendu</i>
<i>narru, nazka, neurri</i>	<i>larru, lazka, laurri</i>	<i>larru, lazka, laurri</i>
<i>bedar</i>	<i>belar</i>	<i>belar</i>
<i>jorratu</i>	<i>forratu</i>	<i>forratu</i>
<i>ardiyekin</i>	<i>ardiyeki</i> ¹²	<i>ardiyeki</i>
<i>gustau (Altsasu)</i>	<i>gustatu</i>	<i>gustetu</i>
<i>genduben, zenduben</i>	<i>ginduben, zinduben</i>	<i>giñuben, ziñuben</i>
<i>deatzit</i>	<i>datzat</i>	<i>dootzat</i>
<i>zizaiten, zitzaizun, zitzaion</i>	<i>zekidan, zekizun, zekion</i>	<i>zakiten, zakizun, zakion</i>

Hala ere, azken kidetasun hauek alde batera utzirik, Bakaikuko hizkera Burundakoaren barruan kokatzen da, gainerako ezaugarriek hala erakusten dute eta. Eta ikusi dugu, bestalde, desberdinak direla aldameneko hizkerak diren Burunda eta Sakana erdialdekoa, eta ondorio hauxe bera atera zuen K. Zuazo-k “Euskalkiak gaur” bere lanaren bukaeran:

“Burundako hizkera hau dela eta, ohar bat egin nahiko nuke. Sakanako gainerakoen aldean oso desberdina da hemengo hizkera eta, Bonapartek gipuzkeraren barruan kokatu zuen arren, bere aldameneko Goierrikoekin alderatuta, oso bestelakoa azaltzen da” (K. Zuazo, 1998, 225)

¹² Iñaki Mundiñano (Bakaikuko euskara, lan argitaragabea).

6.2.7. GURE PROPOSAMENA.

'Bridge dialect' edo **zubi hizkera** dugu Sakana erdialdeko hau, edo hobeto esanda (*nafarrera*-ren barruan kokatzen dela ikusiko dugu geroxeago) zubi lanak egiten ditu, eta zubi lan horiek EH-ko erdialdeko eremuaren eta Nafarreraren artean egiten ditu. Horrela dio K. Zuazo-k ere Hego Euskal Herriko egungo eremu banaketa planteatzerakoan, erdialdeko eremua azaltzerakoan, honen bukaeran: "... *eta Sakanara ere iristen dira erdialdeko ezaugarrietako asko, baina ez, nire ustez, eremu horretan bete-bete sartzeko adina. Erdialdeko hizkeren eta nafarreraren 'tarteko' hizkerak dira, beraz, hauek* (Bortziriak, Malerreka eta Sakanako hizkerez ari zaigu)" (Euskalkiak gaur, 1998, 228).

Guk, bestalde, Nafarreraren kutsu handiagoa hartu diogu EH-ko erdialdeko eremuarena berarena baino, eta ezaugarriak aztertzeari ekin diogunean, gure ustea erabat konfirmatu ahal izan dugu, grafiko baten bidez erakusten dugularik. Grafiko hau burutzerakoan 34 ezaugarri kontuan izan ditugu, guztiak Sakana erdialdeko hizkeran ezagunak direnak, eta EH-ko hizkera eremu desberdinetakoekin alderatu eta elkartu ditugu, zein eremurekin erakusten duen kidetasun handiagorik ikusteko asmoz. Eta emaitzak ondorengoak izan dira: nafarrera eta EH-ko ekialdeko eremura begiratzen duten ezaugarriak, 17 izan dira (% 50); EH-ko erdiguneko eremura, 7 (% 20); bizkaiera eta goi-nafarrerako zenbait hizkeretako ezaugarriak, 4 (% 12); gipuzkerakoak, 3 (% 9); eta iparraldekoak eta goi-nafarrerako zenbait hizkeretakoak, beste 3 (% 9). Beste hainbat ezaugarri, Sakanako hizkeraren deskribapenean jaso ditugu, baina ez ditugu kontuan izan azken alderaketa honetan, ezen eremu oso zabalekoak (mendebala, Gipuzkoa eta NG-ko sartaldea hartzen dute gehienek) suertatzen baitira: 'egin' aditz indargarria, perpaus konpletiboetako *-(e)la* eta *-(e)nik*, denbora eta modu perpausetako *-(e)la*, kausa perpausetako 'aditza + *(e)ta/-la (e)ta*', esaterako. Bestalde, hemen aipatzen den ezaugarriren bat edo beste (aferesiak eta sinkopak, esaterako), aldaera baino ez da, hau da, zenbait kasutan baino ez da ageri, baina, hala ere, garbi erakusten du ez dela burutzapen arrotza aztertu dugun eremuan eta, horrexegatik, izan dugu kontuan.

Eta erabili ditugun 34 ezaugarriak hurrengoak izan dira:



Nafarrera eta ekialdeko eremukoak

- Aferesiak.
- Sinkopak.
- *-(e)s* eta *-lakos* morfemak.

- Prolatiboan *-tako*.
- Destinatiboan *-(r)endako*.
- *y-* aditzetako 2. pertsona singularrean.
- *g-* *-oa-* bokal multzoarekin.
- *-on* bukaeradun maileguak.
- Aditzondoak absolutibo singularrean.
- *-(r)en baitan* bizidunen inesiboan.
- *-en* morfemaren erabilera geroaldian.
- NN_K saileko iraganean *-i-*.
- Aditz sintetikoen iraganean *-a-*.
- NNN sailean *-erau-* erroa (Etxarri eta Ergoienan).
- Eman aditza + adlatiboa.
- Kausazko *bait-* partikula eta *-lako(s)* morfema.
- *-ago* eta *-agoko* konparatzaileak.



EH-ko erdiguneko ezaugarriak

- *-a + a > -a*.
- NNN saila eta sintetikoen alokutiboetan *z-*.
- Hiatoetako epentesiak, [j] eta [b].
- Asimilazio bustidura.
- Partikula hautakari bakarra: (ed)o.
- Ahalerako egitura perifrastikoak partizipio burutugabearekin.
- Partizipio analogikoak.



Bizkaiera eta goi-nafarrerako ezaugarriak

- NN_i sailean –ki- erroa.
- eu > au bilakabidea.
- ei > ai bilakabidea.
- Partizipioetako –i bokalaren sinkopa.



Gipuzkeraren ezaugarriak

- Berezko –a bokalaren galera.
- d/r txandaketa (oso emankorra ez bada ere).
- NN_K erako –e-dun formak laguntzailean (Etxarrin eta Ergoienan).




Iparraldea eta goi-nafarrerako ezaugarriak

- Goranzko diptongoak.
- o > u / __n bilakabidea.
- j/f txandaketa.

I. grafikoa

Sakana erdialdeko hizkera



Nafarrera eta ekialdeko ezaugarriak



EHko erdialdeko ezaugarriak



Bizkaiera eta NG-ko ezaugarriak




Gipuzkeraren ezaugarriak



Iparraldea eta NG-ko ezaugarriak

Sakana erdialdeko hizkeraren deskribapen honen arabera, garbi geratzen da, beraz, Nafarreraren barruan kokatzen dela, eta zubi lanak egiten dituela, batez ere, erdialdeko euskalkiarekiko, hurrengo irudian ikus daitekeen moduan:

II. irudia: EUSKAL HERRIKO EUSKALKIAK ETA NAFARROAKO MENDEBALDEKO ZUBI-HIZKERAK



6. SAKANA ERDIALDEKO EUSKARARI BURUZKO ONDORIOAK.

Atal honetan, azterketa esparruko herrietako hizkerak arloz arlo aztertu ondoren, bertako hizkeren kidetasunak metatzeari ekingo diogu, Sakana erdialdeko hizkeraz hitz egin daitekeelarik frogatuz, aipatu kidetasun horien ugaritasuna ikusirik. Eta jarraian, inguruko hizkerekin alderatuko dugu, kidetasunak eta desberdintasunak direla medio, dagokion euskalki multzoan kokatzen ahaleginduko garelarik. Hala ere, lehenik, azterketa esparruko hizkerek dialektologoengandik nolako tratamendua jaso duten ikusiko dugu.

Bonapartek, hasiera batean, goian aipatzen genituen kidetasunak ikusi zituen nonbait, Echeniqueri, 1864ko otsailaren 8an, igorritako gutunean, geroxeago ideiaz aldatu bazuen ere:

“A Echarri-Aranaz on parle la variété de la vallée d’Araquil (Ipar Goi-Nafarreraren barruan sartu zuen Arakilgoa), qui est bien différente de celle de la Burunda pour les lettres et les changements euphoniques (...) Il pourrait se faire qu’à Echarri-Aranaz on ait adopté quelques formes de la Borunda; mais en général on y parle l’araquilais et non pas le burundais”. (Urquijo, J., “Cartas escritas por el príncipe L-L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, RIEV 2, 276).

Burundakoa bertakoa ere, nafartzat hartu zuen aurreko urteko apirilean bidalitakoan, Etxarritik Uharterainoko hizkeraz desberdinduz, hala ere:

“Le dialecte de la Burunda constitue un sous-dialecte distinct du navarrais. A Lacunza les changements euphoniques n’existent pas; il en est de même à Huarte-Araquil jusqu’à Echarri-Aranaz inclusivement”. (Urquijo, J., *RIEV* 2, 263-264).

Gorabehera ugari izan zituen aurrerantzean ere, azken sailkapena burutu arte:

- Etxarri eta Burundako hizkeren arteko kidetasuna azpimarratzen du. (1864ko Martxoaren 7an: “*Il paraît en effet qu’à Echarri-Aranaz on suit plutôt les changements euphoniques de la Burunda que ceux de Huarte-Araquil*”).
- Burunda eta Arakilgo hizkerak gipuzkeraren barruan sartzen ditu. (1864ko Azaroaren 7an: “*En effet les deux versions (Urdiain eta Etxarriko dotrinez ari zaigu) que je reçois m’apprennent que dans la Burunda et dans la vallée d’Araquil on ne parle pas le navarrais, mais un sous-dialecte ou une variété guipuscoane*”).
- Aurrekoaren kasuan bezala, baina Etxarrikoa Burunda eta Arakilgoen arteko “zubi-hizkera”-tzat hartuz. (1864ko Abenduaren 31n: “*Echarri-Aranaz représente assez bien le basque de la vallée d’Araquil, mais les euphonies ou changements euphoniques de cette localité sont plutôt ceux de la Burunda; de sorte qu’il forme la transition du borundais à l’araquilais que je considère comme deux variétés distinctes du guipuscoan parlé dans la Navarre*”).

Hemendik aurrera, euskalki desberdinetan sailkatuko ditu Burunda eta Arakilgo hizkerak, eta baita Etxarri eta Ergoienakoak ere, goi- nafarreraren barruan Arakilgoa eta gipuzkeraren barruan besteak. Arbizun, alde batetik, eta Etxarri eta Ergoienan bestetik, ezarri zuen, beraz, gipuzkera eta goi- nafarreraren arteko muga.

Azterketa honen sarreran, tesiak izango dituen atalak aurkezten genituenean, esaten genuen moduan, seigarrenean, ondorioak islatzeaz gain, Bonaparteren sailkapenean halako garrantzia izan zuten bi dotrina, bata bestearekin konparatuko genituela, eta erakutsi, era berean, beste autore batzuk lehenago esan dutena, hots, lehenak, Uhartekoak¹, ederki islatzen badu bertako hizkera, bigarrenak, Etxarrikoak², ez duela horrelakorik egiten. (Ikus Erdozia, 2000):

- Aipatu lanean, Etxarriko dotrinako lehen lau orrietako aipagarriena laburbildurik ematen da:

¹ Horrela dio J.M. ARAKAMAK (Uharteko dotrina, ASJU, XXVIII-2, 1994, 569): “*Nork idatzi zuenari buruz zera esan dezakegu, egileak Uharteko hizkera ederki asko ezagutzen zuela, irakurtzean baiezia daitekeenez, bertako semea izan zitekeelarik.*”

² K. ZUAZO (Burundako hizkera, ASJU XXVIII, 1995, 358): “*Txukun eta aratz daude, egon, bi kristau-ikasbideok (Etxarri eta Urdiaingoez ari da), baina ez dute inondik inora islatzen herri bi horietako hizkera. Aitzitik, gipuzkerara hurbiltzen ahalegindu zirela itzultzaileak –edo moldatzaileak– ematen du, Bonaparteren asmo eta helburuei batere jaramonik egin gabe. Bestelakoa da Uharteko dotrinan azaltzen den jarrera, zuzenago islatzen da eta honetan herri horietako hizkera mintzatua.*”

- $z + z > z$ bada ere etxarrieraren burutzapena, dotrinan afrikatuaren alde neutralizatua agertzen da: *etzan jayo* (2966).
- NN_I erako aditz laguntzailea *-ki-* errorik gabe agertzen da maiz: *conveni zaiguna* (2970), *eraguzten zayote* (2977), *cer izanen zayo*, *erraz barcatzen zayon* (2982), *barcatzen zayo*, *eguitia izanen zayo*, *acordatzen bazayo* (2983), *eguitia conveni zayote*, *emateco conveni bazayo* (2984).
- Eduki aditzaren forma sintetikotan, *au* diptongoa mantentzen du: *norc dauca*, *arrazoyescua dauquien*, ... (2976).
- Ahalmenarako N erako laguntzailean, berriz, *ai* diptongoa mantentzen da itxi gabe eta ez da hortzetakoaren bustidurarik gauzatzen: *daitique*, ... (2976).
- Aditzen pluraleko hirugarren pertsonaren ezaugarritzat *-te* erabiltzen da, eta ez *-bie*: *eztute merci* (2978), *escogitzen dutenac* (2988), *garbiya dutenak*, *Nai eztutenac*, *Gorrotiñik eztutenac* (2989).
- *-t* singularreko lehen pertsonaren ezaugarria ez da inoiz *-da-* bihurtzen etxarrieran, bai ordea dotrinan: *eguin dudan becatu* (2991).
- Objektu plurala duten NN_K erako aditz forma aferesidunak ez dira ageri dotrinan: *eguiten dituen obra* (2978), *eguin dituen obra*, *eguin dituen falta* (2992).
- Pluraleko lehen eta bigarren graduko erakusleen sinkretismoa ez da gauzatzen: *auec* (2979), *aui* (2990).
- Belareko herskari gorraren aldeko neutralizazioa ageri da ‘kendu’ aditzaren kasuan, etxarrieran ozena edo igurzkarri gorraren alde egiten denean: *quentzeco aleguiña* (2974), *Ez quentzia* (2975).
- Galdetzaile gehienak *-r-*dunak ageri dira dotrinan, etxarrieran ia beti galtzen delarik dardarkaria (nok, ze, zengati, zetako, ...): *Norc dauka* (2976), *Eta cer gauza*, *Cergatic erraz* (2982), *Certaco da* (2983).
- *o > au* burutzapena ere ez da gauzatzen: *Ongui izanen* (2982), *Ongui diyozu* (2990).
- Lexikoari dagokionez, etxarrieran beste era batera erabiltzen diren zenbait hitz ageri dira: *iduiqui* (urai) (2981), *larru gorriyan* (bilixkorriko) (2977), *aunitz* (asko) (2973).


Bada dotrina honen beste bertsio edo eskuizkribu bat, ‘*Traducción original de Echarri-Aranaz por D. Esteban Zabala*’ jartzen duena bere lehen orrialdean. Norbaitek ‘*Ynutil por su confusion y poca solidez*’ idatzi du bertan. Aztertutakoaren testu berbera du, baina hala ere, soma daitezke zenbait aldaketa, eta hauek kontuan izanik, esan dezakegu, maila urrian bada ere, zenbait kasutan hurbiltzen dela Etxarriko hizkerara, nahiz eta dotrinaren edizioa (BOE, Gipuzkera 5, Euskal Ikaskuntzen Insitutua, 2958) aurkezterakoan esaten den moduan, egia izan ‘*ez dagoela arau tinko eta beti mantentzen denik ez batean eta ez bestean, txandaketak ugariak direlarik*’:

- Ageri da, noiz behinka baino ez bada ere, *i* eta *u* ondoko bokal asimilazioa: *infarnuetara* (*infarnubetara*, bestean), *gracie* (*graciya*, bestean), *glorie* (*gloriya*), *infernu* (*infarnu*), *dire* (*dira*), *garizimaco* (*garizumaco*), *guciei* (*guciyai*), ...
- (*l*),*n*,(*r*) ondoko iguzkariaren aldeko joera: *alcanzacia*, *onza* (*ontza*), *conciencia* (*contzientziya*), *indulgencia* (*indulgentziya*), ...
- Zenbait laburdura, lexema barruan nola sandhi-etan: *bela* (berla, berehala), *santuat* (*santu bat*), ...

- Hirugarren pertsona pluraleko ezaugarria, *-b(i)e: eztube (eztute), ...*
 - Eduki aditzaren formen monoportongaketa: *dazcanari (dauzcanari), ...*
 - *-on- ez* bukaturiko maileguak: *dona (doya), ...*
 - *g-* hasierakoa, *-oa-* taldearekin: *guacera (oatzera), ...*
 - *ai > ei* diptongo itxiera: *nei (nai, nahi), ...*
- Uhartekoan, aldiz, lehen esan dugun bezala, etengabe ageri dira bertako hizkeraren ezaugarriak, baina ez hori bakarrik, Etxarriko hizkerarekin berarekin ere antza nabaria du, urte askotan zehar bertakotzat (Etxarrikotzat esan nahi da) aurkeztua izan den dotrinak baino askoz ere gehiago, dudarik gabe. Zehazki ezagutu nahi dituenak, J.M. Arakama-k egindako lana (Uharte-Arakilgo dotrina, ASJU XXVIII-2, 1994, 569-588) ikus dezake, eta guk hemen aipatu ezaugarri horietariko batzu soilik azalduko ditugu:
 - hitz bukaerako *-u/-i* bokalen ondoko epentesien agerpen ia sistematikoa (*bedicatube, araguiyaren, gaubien, becatube, condenatuben, infernube, etsaiye, viciyec, ...*).
 - *-ea > -ie* bokal taldearen disimilazioa (*borondatie, gurie, amacie, viez, bier, lucien, viyocien, golpie, ...*).
 - asimilazioak (*vediquecen, Elice, dire, moduten, damutasune, aunditasune, icaragarri bet, berri bet, ...*).
 - diptongoen burutzapenak: *au > u, o > au (barutu, aungui, ...)*.
 - sinkopak (*bigarna, irugarna, bedracigarna, ontan, ortan, ...*).
 - aferesiak NN_K erako aditz formetan (*tyu, zozu, tyuenac, tyuen, ttu, ...*).
 - *j/f*txandaketa, behin bakarrik bada ere (*faten*).
 - *ig-* *> iy-* bilakaera (*ityendetan*).
 - */t/* herskari ahoskabearen bustidura (*baityen, tyuenac, tyuen, cumplityuric, ...*).
 - *-s* instrumentalean (*deyes, negarres, egunerosco, ...*).
 - *n-*ren ondorengo igurzkiaren aldeko neutralizazioa (*pensatu, pensamentu, onza, ...*).
 - */h/* antzinako aspirazioaren aztarna (*agoti, ogaceti, ...*).
 - *baitan* partikularen erabilera norengan kasuan (*deseiyecen duenaren baitan, criadorearen baiyen, ...*).
 - *arrec, arren, arrequi* bezalako erakusleak.
 - *-i > □* sinkopa aditz partizipioetan (*etorco, etor cenien, icus duzu, ...*).
 - erlatibo laburtuetako erakuntza, *-(r)ikiko (ofendityuriquico, emaniquico, azturiquico)*.
 - *bait* partikularen erabilera (*cein concebiyu baicen, ceiñetan erredimiyu baizuen, ...*)
 - *cergati ... -n/□* kausazko egituraren erabilera (*cergati auena den, cergati auetan dagon, cergati auec hicensen dire*); ...

Bonaparteren sailkapenaren arabera Sakana erdialdeko mapa

IV. mapa



Eta sailkapen honek indarrean iraun du duela gutxi arte, K. Zuazok *Euskalkiak gaur* (1998, 191-233) lana aurkeztu arte, hain zuzen. Dialektologo honek, aurkezten duen mapan, Sakana erdialdeko hizkera (Etxarritik ekialdera) nafarreraren barruan sartzen du, sailkapenean erdialdeko ezaugarriak ere badituela gehituz (“... *eta Sakanara ere iristen dira erdialdeko ezaugarrietako asko, baina ez, nire ustez, eremu horretan bete-betea sartzeko adina. Erdialdeko hizkeren eta nafarreraren ‘tarteko’ hizkerak dira, beraz, hauek*”, *Euskalkiak gaur*, 228).

Autore berberak, aurreko lan batean, hurrengo ondorioa atera zuen:

“Gauzak horrela, ez dirudi aurrera begira Bonapartek asmatutako “Nafarroako gipuzkera” azpieuskalkiari eutsi dakiokenik. Etxarrin hasi eta handik ekialderako hizkerak “goinafarrera” garbitzat joko genituzke guk geuk. Horretaz gain, ez zaigu oso ziurra iruditzen Etxarri-Ergoiena eta Arbizu arteko muga” (K. ZUAZO, 1995, 360).

Horrela beraz, hasieran esan dugun moduan, gure azterketa esparrua hizkeraren aldetik isomorfikoa den aztertzen hasiko gara, hots, ezaugarri multzo zabala duen ala ez amankomunean eta, ondorioz, ea Sakana erdialdeko hizkeraz hitzegin dezakegun aurrerantzean, Burundakoa edo Ultzamakoaz egiten den bezala.

6.1. SAKANA ERDIALDEKO HIZKERAREN EZAUGARRIAK.


Jarraian Etxarritik Uharterainoko esparruko hizkeraren ezaugarri nagusiak jasoko ditugu arloz arlo, desberdintasunak ere aipatuko ditugularik.

6.1.1. BOKALISMOARI BURUZKOAK.

Bokalei dagozkien burutzapen fonetiko berdintsuak ditugu azterketa esparru osoan:

- **e-** hasierakoaren itxiera: *iruzki, iñere, iye (ea), iyo (eho), inbiye/a, bildur, giñuben/giñuen, ziñuben/ziñuen, ziñubien* aldaerak, esparru osoan ditugu hedatuak. Eta hauetaz gain, *itxe/a* Arbizu, Lakuntza, Arruazu eta Uhartan, *irui/idui* Arbizu eta Unanun eta *idugi* Uhartan.


V. mapa



- **e > a / __r** : *baztar* eta *asarre*, bi burutzapen hauek besterik ez badira ere, esparru osoan ematen dira.
- **a + e > a** (Etxarri, Ergoiena) eta **a + e > e** (Arbizutik³ Uharteraino) bilakaerak gertatzen dira ‘izan’ aditzaren hirugarren pertsona singularreko adizkiari esaldi erlatiboen eta konpletiboen menderagailuak eransterakoan: *dan, dala, zan, zala / den, dela, zen, zela*.

³ Gogoratu Arbizuko egoera nahasia orain aldiko burutzapenetan (ikus 383-384 orrialdeak): *Fanko ala esan du! Baakiu etorri ala!*


VI. mapa



- **o**-ren itxiera sudurkariaren aurrean: *nun, nungo, nundi, nunei, aittun, trunku*, ... esparru osoan, EH gehiengan bezala.
- **o** > **au** hurrengo hiru burutzapenen kasuan, gutxienez: *aungi* (*ongi* ere bai Arruazun eta Lakuntzan), *auntzi* esparru osoan, eta *auspel* Arbizu, Lakuntza, Ergoiena eta Uharten.
- **i – u** > **i – i** : *atximixke, bi(l)ixkorriko/bilixgorri* (Uharte, Dorrao), *gaizime,-a/garizime* (Uharte) ia esparru osoan (*gaizuma* Arruazun, *gaazime* Lakuntzan, *garizuma* Dorraon).
- **ai** > **ei** : *izein, bei, jei, nei, urdei, mei*, ... esparru osoan.
- **ei** > **ai** : *aizien* (ehizan) esparru osoan; *urai* (edugi > udegi > udei > urei) Etxarrin; *axai* Etxarri, Unanu eta Arbizun (*exei* Uharten eta *axei* Dorraon). (Arruazun eta Lakuntzan, *ei* mantentzen da: *eizien, exei, ixiin/izei*, ...).
- **ei** > **i** : *bintzet/mintzet, yoozin/oozin/yezín* bi kasu besterik ez, baina ia esparru osoan (Arruazun *eoezin* eta *beintzet*, Uharten eta Dorraon *edozein*).
- **ei** > **e** : *ge(i)zki, leze* esparru osoan, bi burutzapen hauek.
- **u** > **au** : *autzi* (Uharte, Arruazu eta Lakuntzan ez), besterik ez bada ere.

- **au > o** : *arro(n)tza/ie* ('*arrutze*' Lizarragan, eta Arruazun biak, lehena gehiago erabiltzen delarik), *iyote*, *intxor/e(i)ntxor* herri guztietan. Oltza eta Goñin ere, *arrotze*.


VII. mapa



- **au > a** : *alki*, *Jangoiko*, ... herri guztietan, eta *dakat* ..., Etxarri, Arbizu, Lizarraga eta Dorraon.
- **au > u** : *iturriko* eta *baru* Etxarri, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uhartea, Dorrao eta Lizarragan; *arrutze* Lizarraga eta Arruazun (zenbaitek); *entxurre* (intxaurre) Uhartea.
- **eu > au** : *auskias*, *auski(in)/autsiin* (eutsi), *aun* (ehun), *auri*, *auli*, *aultxo* (baina *eltxo* Lakuntzan), *auntzi/aultzi* (eultzi), *laurri*, *laun* (leun) ... herri guztietan.
- **-on**-ez bukatutako maileguak : *jabona*, *kamiona*, *balona*, ... herri guztietan.
- goranzko diptongoak: *guazen*, *zuluat*, *etorkua* (etorriko da), *nua* (nora), *suerte*, *niyue/niyua*, *usuek*, *zia*, *tia*, *semiat*, *astiertie/ia*, *biotu*, *gio*, *nio(n)i*, ... ia esparru osoan erabiltzen dira, Arruazu gelditzen delarik kasu batzuetan horrelako burutzapenik egin gabe (*astertia*, *beotu*, *geo*, *neoni*).
- bokal asimilazioa: bi joera dauzkagu esparruan, baina muga jarri ezin delarik, tartekatutako baitaude joera hauek esparruko herrietan:

- **a > e / i,j,u,w __** : *mendiye/k, eskube/k, semie/k, zulue/k, ikesi, bizer, egune/k, utse/k (udse/k), aule/k, ...* Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uhartan.
- **a > e / i,j,u,w __ C**: *mendiya/ek, eskuba/ek, semia/ek, zulua/ek, ikesi, bizer, eguna/ek, utsa/ek, aula/ek, ...* Arbizu, Unanu, Dorrao eta Arruazun.

VIII. mapa



- geminazioa eta ondorengo bokal laburdura: *zarra, matsa, len, mi, ol, atsalde, ...* azterketa esparru osan gertatzen da, EH gehienez bezala.
- geminazioa : *gaa, zaa, baatze, paatu, suur, buu, goor, saar, toopillo/koopillo,-u* (korapilo), *noon* (*neraun, noren), *nooki(n)* (norekin), *aazi* (erazi), *txikiyoo, len(u)oo, ...* herri guztietan.
- aferesia : *ta, (d)e* (ere), *(d)o* (edo), *jito, txikoi/re* (Etxarri, Arbizu), *ttut/ttuzu/ttu, toz, men, maten* (Lakuntza), *makomia* (Lizarraga), *karri* (Lizarraga eta Lakuntza), *Metterio* (Etxarri, Ergoiena), ... hasierakoak eta aditz formak herri guztietan burutzen dira.
- sinkopa : *gerna, barna, andre, bedratzi, pezta, ibilko, ikesko, erleju, libruu* (Arbizu, Arruazu, Lizarraga), *atra, pastu* eta *botzen* (Arruazu), ... hasierakoak esparru osoan.
- **-a** organikoaren galera: *eliz, gauz, anei, makil, ...* esparru osoan.
- metatesia : *mokuru/mukuru, izerai/ixein/ixiin, galtzarrotxa/galtzarrotza, ...* esparru osoan erabiltzen dira.

- bokal protetikoak: *arrama, arrazoi, arraziyo, errosayo, arropa, erremeyo, ...* herri guztietan ditugu, EH osoan bezala.
- paragogea **-dad-**ez osaturiko maileguetan: *amistede, trinidede/trinitete, kantidede, belozidede, ...* EH osoan erabiltzen dira eta, jakina, esparru osoan ere bai.


6.1.2. KONTSONANTISMOARI BURUZKOAK.

Kontsonanteei dagokienez ere, burutzapen ia berberak ditugu azterketa esparruko herri guztietan:

- palatalizazioa : *aittune/a, amiñe/a, ttut/ttu/ttuzu, ttittere, beño, miñe/a, illaate/illeete, ollo, pixe/a, ...* herri guztietan ematen da asimilazio bustidura.
- **ds** kontsonantearen agerpena, hitz soil batean baino ez bada ere, Uharte (*ure*) ez beste herri guztietan erabiltzen da: *udse, -a.* (ura).
- **-oa-** bokal multzoaren aurreko **g**-ren agerpena: *gua*⁴, *guatze, guartu, guai* (*oin* Arruazun, *orain* Uhartan, *orei* Dorraon), ... esparru osoan burutzen dira.
- **n/l** txandaketa: *larru, lazka* (baina *nazka* Arruazun), *laurri, lasei, ...* formak azterketa esparru osoan ematen dira.
- bokal arteko herskariaren erorketa: (*e*)*in, ezautu/ezootu, aurpei, ebai, zui* (zuri, zubi ere bai Etxarrin), *kaittu, illaate/illeete, suur, iruittu/iduittu, meiku, aittu, ...* herri guztietan burutzen dira, gainerako eremu gehienetan bezala.
- **d/r** txandaketa: *erabe, erai, iri, urai/irui, ari* (hadi), ... Ergoiena, Arruazu (*idi, udi(g)i*) eta Uharte (*edai, idi, idugi*) ez beste herri guztietan burutzen dira, eta Ergoienan, egon aditzaren forma batzutan ere bai, *zorie, go(u)re, ...*


⁴ Kaniketako (haur jokoa) zulotxoia izango genuke hauxe, eta *oha/e*-tik datorkigu seguruenik.

IX. mapa




- **b/p/f txandaketa:** *f*-dun aldaerak dira ugariagoak esparru osoan (*afaldu, fago, fagatxi, festa, farra, kafi*), baina badira *p*-dun zenbait ere (*napar, alper*), batez ere Arruazun (*pago, paatxi, pesta, kapi, pake, parra, ...*) eta beste zenbait Lakuntzan (*fago, baina paatxi, parra, kapi, pake*). Ikusten denez, *kafi* ia esparru osoan (Lakuntza eta Arruazun ezik); *farra* Etxarri, Arbizu eta Uharten, eta *irri* da Ergoienan; *bake* Etxarrin, *pake* Lakuntza, Arruazu eta Uharten, eta *fake* Arbizu eta Ergoienan.

X. mapa



- bukaerako **-n**-ren galera: *zartai, guai, amurrei, usei, artzei, ...* esparru osoan daude hedaturik, eta Hego EH osoan, mendebalean eta Baztanen izan ezik.
- txistukari igurzkarien aldeko neutralizazioa /n/, /l/, /r/ + s,z inguruetan: *pensatu, falso, marsube/a, bersolai, pulsu, pensube/a, dulce, zarzaro, inportanziye/a, ...* Ergoiena ez beste herri guztietako burutzapena dugu hauxe.

XI. mapa




- **d/l** txandaketa: *idergi, zider, ...* Uharte (*illergi, zillerra*) ez beste herri guztietako burutzapenak dira.
- **j/f** txandaketa: *fan* (baina *juan* Lakuntzatik ekialdera), *fale, forrei, forratu, ittefure* (Etxarri, Ergoiena), *otafaki* (Dorraon *otajakiya*), *Fantxoneko* (Etxarriko etxe baten izena), *Fanixiona/Juanixiona* (bi eratan esaten zaio Etxarriko beste etxe bati), *Fandalamikel* (Etxarriko toponimoa, *jaun + done + mikel* seguruenik⁵). Hasierako burutzapenak Etxarri, Arbizu eta Ergoienan erabiltzen dira, besteetan /j/-dunak, baina *fale* ere Lakuntzan eta Arruazun.
- /x/ belareko igurzkari ahoskabearen nagusitasun erabatekoa: *jan, jo, jendu, jarri, josi, ...* esparru osoan.

⁵ NTM (1984, 48)

- hasierako *e*-ri kontsonante erorkorra jarraitzen dionean, hiru burutzapen gertatzen dira azterketa esparruan:
 - Dorrao, Arruazu eta Uhartan ia berean mantentzen dira burutzapen horiek, Uhartean eta Dorraon bereziki: *e(r)an*, *e(r)antzi*, *e(r)osi*, *e(r)aniaun*, *e(g)on*, *egosi* (Dorraon ‘egosi’ eta ‘erosi’ adieraziz erabiltzen da), *erauntsiya*, ...
 - *e > y* : *yan* (edan), *yantzi* (erantzi), *yosi* (‘erosi’, eta ‘egosi’ ere bai Lakuntzan), *yan(i)aun* (herenegun), *yon* (egon), ... Etxarri, Lizarraga, Unanu eta Lakuntzan. Basaburuan eta Imotzen ere bai.
 - *e + V > V V* : *aan* (edan), *aantzi* (erantzi), *oosi* (erosi, egosi), *aanion*, *oon*, ... Arbizun.

XII. mapa



- **h,g,n > y / i** __ V: *iyesi*, *iyende*, *biyer*, *iyo* (eho), *liyue/a*, *oyu*, *biyotza*, *iyeketu* (igerikatu), *iyun* (inon), ... esparru osoan gertatzen dira.
- /y/ eta /b/ kontsonante epentetikoak: *mendiye/a*, *aneye/a*, *gorriye/a*, *mundube/a*, *katube/a*, *buube/a*, ... esparru osoan dira ezagunak, baina Arbizu, Lakuntza eta Arruazun, /b/ herskaria ebakitzen da. Hitz barnean ere gertatzen dira epentesi hauek: *ubela*, *Uberte*, *ubelde*, *giñuben/ziñuben*, ...

- bokal arteko *r*-ren galera : *nua, noi, atzia, noon, biandu/beandu, koosti/goosti, ...* herri guztietan gertatzen dira, gainerako eremuetan bezala.

6.1.3. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK.

Ugari dira, jarraian ikusiko dugun bezala, azterketa esparruan, era berdinean, erabiltzen diren izen zein aditzaren morfologiari buruzko ezaugarriak:

6.1.3.1. IZENAREN MORFOLOGIARI DAGOZKIONAK.

- izenordain forma berdintsuak : *nai/nei, negana, nee/nei, neebetten, nio(n)i, nionek, ziorrek, iyore/iñore, iyun/iyon/iñun, iyundi/iyondi/iñundi, ...* esparru osoan erabiltzen dira.
- erakusleak : *arrek, arri, arren, arrendako, oiten, airi/aiei, ...* formak ere, herri guztietan erabiltzen dira.
- zenbatzaile zehaztu zein orokorrak : *bitenaun, irutenaun, lauteaun, guze, dena, ...* aldaerak ditugu esparru osoan.
- sinkretismoa absolutibo pl. eta ergatibo sing. eta pl.-aren artean: *Alkatiek etor die / Alkatiek ein d(a)u / Alkatiek ein debie/dubie*. Herri guztietan suertatzen da.
- soziatiboaren morfema *-ki* da: *amaki, alabaki, eskubaki, ...* esparru osoan, nahiz eta zenbait hiztunek sudurkaria ahoskatu hitz bukaeran..
- instrumentalarena *-s*: *oñes, erris erri, buus bia, eskus, auskias, erdias, ...* herri guztietan horrela erabiltzen da.
- destinatiboan *-tako (-dako)*: *netako, zuteko, amandako, semiendako, ...* erabiltzen da esparru osoan.
- prolatiboaren morfema *-tako*: *alkatetako, meikutako, semetako, ...* herri guztietan ere.
- ablatiboaren morfema *-ti/-di* da: *plazati, etxeti, andi, orti, ...* burutzapenak daude herri guztietan (hala ere zenbait hiztunek, soziatiboaren kasuan bezala, bukaeran herskaria duela ahoskatzen du).
- bizidunei egokitzen zaien inesiboan, ez *-(r)engan, -(r)en baitan* baizik: *nee beitten, zuen beitten, aman beitten, ...* erabiltzen da esparru osoan.


- superlatiboaren bilakaera berdina, *V + -(r)ena > VVna*: *merkeena, astoona, biziina, mutuuna, ...* (Unanu eta Dorraon *merkeina, astoina, bizieina, mutueina, ...*)
- **-ago** konparatzailearen bilakabidea, *-AGO > AO > OO*: *beltzoo, merkioo, astuoo, biziyo, ...* esparru ia osoan, Unanu eta Dorraon izan ezik. Hemen, *-ago > -ao > au* dugu bilakabidea: *beltzau, merkiau, astuau, biziya, ...*

6.1.3.2. ADITZAREN MORFOLOGIARI DAGOZKIONAK.

- partizipioetako **-i** bokalaren sinkopa: *etorko, etor neiz, ekar d(a)u, ...* aldaerak esparru osoan erabiltzen dira.
- partizipio analogikoak: *izendu, jakindu, ibildu, bieldu, itzuldu, ...* bezalakoak herri guztietan ditugu.
- **-gi** motatako aditz partizipioen kontsonante herskariaren galera, Uharte eta Dorraon (*idugi* ‘edugi’, *idigi* ‘iregi’, *jaigi*, Uharten; *jagi, ebagi, ...* Dorraon) izan ezik: *urai/irui/uittu/idui/udii*, *izerai/ize/ixe/ixiin*, *irai/irei, jai/jei* (*jagi*), *ebai, ...* bezalakoak herri guztietan entzun daitezke.
- **-ketan, -(ke)kan** morfemez osaturiko gaztelaniako ‘gerundio’ak: *eztulketan, laixterkan, inbuluzkekan, pirriñekan/pirrinkekan/txirrinkekan, arrastakan, ...* formak ohikoak ditugu esparru osoan.
- geroaldiko **-en** eta **-aan** morfemaren erabilera (-ko ere bai): *esanen/esaan, fanen/faan, emanen/emaan, ...* Unanu eta Dorraon soilik erabiltzen da disimilaturik: *esain, fain, emain, ...*
- **/ki/** erroa NN_i erako aditz laguntzailearen formetan: *dakit(orok)/dakie* (Uharte), *zaki(t)en(orok)/nakin* (Lizarraga, Dorrao), *daki(y)o, nakizub(i)e, ...*
- singularreko lehen pertsona ezugarria, -T, ez da **-DA** bihurtzen: *zakiten, zuuten/ziten, dakitela, dutela/detela/dotela, ...* formak herri guztietan burutzen dira, ikusten denez.
- *zuek* pertsonaren ezaugarria **-ZUB(I)E** da : *dakizub(i)e, duzub(i)e/dezubie, doozubie/diozub(i)e, ...* Ergoienan, hala ere, **-ZIE** da morfema: *dakizie, dezie, ...*
- pluraleko hirugarren pertsonaren kasuan :
 - **-(O)B(I)E** (NN_I, NN_K, NNN sailetan Etxarri, Lakuntza, Arruazu eta Uharten, eta NN_K sailean Arbizun).

- *-(Y)UE* (NN_I sailean Arbizu eta Ergoienan, NNN sailean Arbizun, eta NN_K sailean Ergoienan).
- *-OR(I)E* (NNN sailean Ergoienan).

XIII. mapa



- sintetikoen iraganeko flexioetan, soilik bukaerako iraganeko marka: *naki(y)on*, *nakan/nokin/nekan*, *zaamabien*, *zakibien/zaki(y)en*, *na(i)lle(be)n*, ... esparru osoan dira ezagunak.
- **etorri**-ren forma sintetikorik ez dago, **eldu** erabiltzen da bere ordez: *eldu neiz*, *Orduben eldu zien!*, ... Herri guztietan gertatzen da hauxe.
- aditz laguntzailearen forma gehienak berdintsuak dira esparru osoan, soilik NN_K erako objektu singularra duten orain aldiko formak (Bonaparte-k kontuan hartu zituenak) dira desberdinak. NNN eran, bi joera daude: *-I*-errodunak (Arbizutik Uharteraino), eta *-ERAU*-errodunak (Etxarri eta Ergoiena).
- aditz trinko eta alokutiboen formak ia berdinak esparru osoan.
- NNN eta NN_K sailetako formen arteko nahasketa: Etxarri, Dorrao, Unanu, Arruazu eta Uharten gertatzen da gaur egun.
- singularreko bigarren pertsonaren marka *-y* da: *yeiz*, *y(a)uke*, *yueke/yuake*, *yakan/yauken/yekan/yokien/youken*, ... esparru osoan gertatzen da, nahiz eta Dorraon ez erabili zenbait kasutan: *eiz*, *uke*, ...

- **-ATU** motatako partizipioak, ez **-AU**: *gastatu, billetu, pasatu, paatu*, ... herri guztietan ditugu.

6.1.4. SINTAXIARI DAGOZKION EZAUGARRIAK.

- interjekzio amankomun zenbait: *Aiaupenani!/Aieneni!, Iyun dienak! / Iñun dienak!, Bierrik!, Sikia!/sikera!, Barratu artio!, Baote!, Ge(i)xkixe(i)! (Ederki!), Aixe/a! (Erraz!), ...*
- **ala** juntagailu disjuntiboa ez da inoiz erabiltzen, **o(o)** (edo) baizik.
- **(d)ee, debei/ebai, (d)eez** (ere, ere bai, ere ez) juntagailu kopulatiboak, esparru osoan.
- **bee** (bage) eta **solo** partikula adbersatiboak, ia herri guztietan dira ezagunak. Arruazun, hala ere, *gabe* erabiltzen da, eta Uharte eta Dorraon *bai/pai*.
- **-t(z)era eman** eta **-t(z)en utzi** erabiltzen dira esparru osoan.
- zehar galderetan **iye/iya** partikulak erabiltzen dira herri guztietan.
- **-ikeko** morfema erlatibozkoa esparru osoan.
- **eskio(s)** menperagailua ere, herri guztietan.
- denborazko menperagailuen artean **artio**.
- kausa eta helburuzko esaldiak gauzatzeko **-t(z)iet(i)s/-t(z)iat(i)s** morfema.
- kausazkoen artean, bestalde, eremu zabalagoan erabiliak diren ‘aditza + (e)ta’ eta ‘aditza + -la (e)ta’ menderagailuez gainera, **-lakos, bait-/beit-** eta **ze(e)ngati ... -n** dira oso erabiliak esparru osoan.
- baldintzazkoetan oso ohikoa dugu **-t(z)ia(s)** herri guztietan.
- kontzesiboen artean **-aati(s)**, dago hedatua esparru osoan.
- kontsekutiboen artean **gios** (geroz) (Dorraon *geros*) menperagailua ere oso hedatua dago.

6.1.5. SAKANA ERDIALDEKO LEXIKOA.

Lan honen seigarren atalean aztertu dugu Sakana erdialdeko lexikoa, eta baita beste esparru batzuetakoekin konparatu ere. Baina hemen, gure azterketa esparruari, lexikoaren ikuspegitik, halako batasun itxura ematen dioten hitz batzuen zerrenda baino ez dugu jasoko. Honek ez du esan nahi, hemen soilik erabiltzen direnik aipatu hitz horiek, baina bai ordea, ziur aski, hemen aipatzen ditugun guztiak batera, elkarrekin.

ilbeltza (urtarrila), *garagarzaro* (ekaina), *garilla/e* (uztaila), *urriya/e* (iraila), *lasteille/a* (urria), *udatzena*, *launbeta*, *iyendia/e*, *Jangoikuen gerrikua/e*, *ostrilleka* (ortzadar, Etxarri), *iñeztura/e*, *ostotsa/ortotsa* (Uharte), *izotza*, *kisuba/e*, *galtziña/e*, *osto*, *ixtor/eixterro/ixtaurro*, *menddere*, *fan*, *txingurri*, *itzo(o)/itzau*, *etzin*, *urrai/irui/idui/udi(g)i*, *arrantza/arrutze*, *farra/parra/irri*, *pixe/a*, *jendu*, *fale*, *forrei*, *loi*, *auski(n)/autsiin*, *tripota*, *dalka*, *miye/a*, *auli*, *auri*, *irriti/urriki* (Uharte), *iruzki*, *lotsa*, *lazka*, *laskatu*, *lasatu*, *kakakurre/kakagorri*, *guai*, *iyote*, *idergi*, *zider*, *izeba*, *atorra*, *guatze*, *ago*, *estarbi/estrabi* (Arruazu eta Uharten), *lixu*, *kaldor*, *arrije*, *az(k)azkal*, *kalfar*, *maki/meiki*, *maskubi*, *gatzai*, *gaztanbera*, *matoi*, *gazure/a*, *opo*, *ostiko*, *ozka*, *osatu* (zikiratu), *errun/erron*, *kasuein* (zaindu), *iñere*, *arrano* (saia), *amimoro/a/armimosa/imermau*, *amoma/amuma*, *kunkun*, *intxor/e(i)ntxor/entxur*, *masusta/masosta*, *zize/a*, *ttittere*, *beittu*, *ttuttipiko/txutxu(n)piko*, *moko*, *i(n)gurei*, *itsesi/itsere* (akotatuak), *Barga* (Sakana osoko toponimoa), ...

6.1.6. SAKANA ERDIALDEKO HIZKERARIK BA OTE DAGOEN.

Laurogeitik gorakoak izan dira kontuan izan ditugun ezaugarriak gure esparruko hizkera aztertzerakoan, eta ikusi berri dugu gehienak esparru osoan erabiltzen direla. Hogeitik gora izan dira bokalismoari buruzko ezaugarriak, eta ia guztiak bilakabide berdinarekin eremu osoan; hamabosten bat edo kontsonantismoari buruzkoak, eta gauza bera esan dezakegu; hogeitik gorakoak ere ezaugarri morfologikoak, eta gehienak, berriro, amankomunak esparru osoan; sintaxiari dagokionez, berdina da azterketa esparruko herri guztietan; eta lexikoaz, zer esanik ez, oso gutxi dira herri batetik bestera aldatzen diren hitzak. Honek ez du esan nahi desberdintasunik ez dagoenik, baina daudenak hain dira urriak eta zortzi herrien artean sakabanatuak, ezen ezinezkoa suertatzen baita horien araberrako muga dialektologikoa ezartzea esparruaren barruan. Aipagarrienak, aditzetako $a + e > e$ eta NN_K saileko $-u$ -erroak (Arbizutik ekialdera) eta a eta $-e$, $-o$, $-au$ - (Etxarri eta Ergoienan) ditugu (gogoratu, hala ere, lau aditz forma baino ez direla NN_K erako horiek). Gainerako desberdintasunen kasuan, banaketa ez da hain garbia gertatzen eta esparruko herriak tartekatu egiten dira bilakabide baten edo bestearen alde (*asimilazioak*, *hasierako e- + kontsonante erorkorraz sortutako bilakabidea*, *hiatoetako -b- epentetikoaren ebakera desberdinak*, ...). Horrela beraz, dagoeneko baieztatu dezakegu hizkera bat hitzegiten dela Sakana erdialdeko herrietan, eta ez duela inolako zentzurik, bere garaian Bonaparte-k, Etxarri-Ergoiena eta Arbizuren artean ezarritako muga dialektologikoak. Horrela pentsatzen du K. Zuazo-k ere:

“Gauzak horrela, ez dirudi aurrera begira Bonapartek asmatutako ‘Nafarroako gipuzkera’ azpieuskalkiari eutsi dakiokenik. Etxarrin hasi eta handik ekialderako hizkerak ‘goinafarrera’ garbitzat joko genituzke guk geuk. Horretaz gain, ez zaigu oso ziurra iruditzen Etxarri-Ergoiena eta Arbizu arteko muga. (...) Guri geuri behinik behin ez zaizkigu begitantzen azpieuskalki bi $-are$ gutxiago “euskalki” bi, Bonapartek nahi bezala- egiteko

aski arrazoi. Hizkerok *banatzen* dituzten ezaugarriak aldamenean *batzen* dituztenak jarriko bagenitu, gainera, are gure aldekoagoa litzateke emaitza”. (Burundako hizkera, 1995, 360).

Eta horixe bera egin dugu guk oraintxe bertan, azterketa eremuko hizkeren ezaugarri amankomunen metaketa, zeinek azpimarratzen baitu duela lau urte dialektologo eibartarrak esandakoa. Hori bai, geroxeagorako utziko dugu zein euskalki multzotan egokitzen dugun Sakana erdialdeko hizkera hau.

Bestalde, Ergoienako hizkera, gipuzkerako beste barietate batean kokatu zuen printzeak, Etxarrikoarengatik banaturik, Burundakoan hain zuzen. Eta honetan ere, ez dugu uste asmatu zuenik, ezen Ergoienan ezaugarri gehiago baitira Sakana erdialdeko hizkerara lerratzen direnak, burunderaren aldekoak baino. Esan daiteke ia bakarra dela Ergoiena eta Burundan erabiltzen den burutzapen komuna, Sakana erdialdean burutzen ez delarik: NN_K erako laguntzailearen *-o-* erroa (*dot, dok/n, ...*) (Ikusi 6.2.6. puntuko alderaketa)

6.2. SAKANA ERDIALDEKO HIZKERA ETA GAINERAKO HIZKEREN ARTEKO ALDERAKETA.

Behin azterketa esparruko hizkeraren ezaugarriak zehaztu eta gero, oharturik, ezaugarri fonetiko-fonologiko, morfologiko, sintaktiko eta lexikoen metaketak erakutsi digun eran, hizkera berbera (herri bakoitzeko bitxikeriak kontuan izanik, jakina) dugula eremu osoan, jarraian, Euskal Herriko ezaugarri multzoek bereizten dituzten hizkera ezberdinekin alderatuko dugu Sakana erdialdeko hau, azkenik, horietako eremu zabalagokoan kokatzen ahaleginduko garelarik. Horretarako, K. Zuazok aurkeztu berri duen *Euskalkiak gaur* lanaren ildo jarraituko dugu, eta bertan agertzen dizkigun eremukako ezaugarriak erabiliko ditugu guk geuk ere, horietako eremu batean kokatzeko asmoz.

6.2.1. EH-KO ERDIGUNEKO EREMUAREKIKO SAKANA ERDIALDEKO HIZKERAREN KIDETASUN ETA DESBERDINTASUNAK.

Ataltxo honetan, Euskal Herriko erdiguneko eremu zabaleko zein murriztagoko ezaugarriak izango ditugu kontuan, eta ikusi ahal izango dugu nola ez den erabat egokitzen Sakana erdialdeko hizkera Euskal Herriko erdiguneko ezaugarrietara. Izan baditu eremu honetako ezaugarriak, baina ez bertakotzat hartzeko adina, ezen erdiak baino ez baitira gertatzen esparru osoan (parentesi artean eta hizki txikiagoz ezartzen ditugunak, azterketa esparruan suertatzen ez diren EH-ko erdiguneko ezaugarriak ditugu):

- (Ez dago azterketa esparruan singularra eta plurala bereizten dituen azenturik).
- $-a + a > -a$ bilakabidea dugu esparru osoan, G-ko ekialdea, NG gehiena, L eta NB-n bezala. Hala ere, kontuan hartzekoa dugu asimilazio

aurrerakariaren kasua, eta honen ondorioz, zenbaitetan berezko *-a* hori galdu egiten da: *makil, eliz, gauz, amin, ...*

- NNN sailean eta aditz sintetikoen alokutiboetako 3. pertsonetan z-erabiltzen da Lizarraga eta Dorrao ez beste herri guztietan, L, G eta NG gehienez bezala: *ziek/n, zikiyau/ñau, ziyuek/n, za(i)llek/n, zikok/zokik/zakak, ...*
- (Ablatiboan *-ti* eta motibatiboan *-gati* morfemak ditugu esparru osoan, eta ez *-tik* eta *-ga(i)tik*: *bideti, andi, zugati, semiengati, ...*).
- (Ez dira esparruan erabiltzen *-(eta)tik*/*-gandikan*, *-ga(i)tik*, *-(e)nikan*, *-(e)larikan* bezalako morfemak). Soilik partizipioetako eta partitiboetako *-(r)ikan* morfema erabiltzen du zenbait hitzunek: *aztuiken* (ahazturikan), *guañiken* (oraindikan), ...
- (Ez da aditzetan *-te* pluralgilea erabiltzen, *-(i)e*, *-b(i)e* eta *-zub(i)e* baizik: *zarie/zaaye, ziñien/ziñerien, zetzekie/zaittizkie, dub(i)e/debie, dakab(i)e, dakibie, duzub(i)e/dezubie, dakazub(i)e, dakizub(i)e, ...*)
- *-t(z)en* erabiltzen da aditz izenak sortzeko, baina *-ten* aditza *-n* edo *txistukaria* + *-i* batez bukatzen denean: *ematen, uzten, ixten, ...*
- (Ez da *-ki* aditz atzizkia erabiltzen esparru osoan).
- Hiatoetako epentesiak, [j] eta [b], bai gertatzen dira esparru osoan, bigarrenaren kasuan aipagarria delarik Arbizu, Lakuntza eta Arruazuko ebakiera herskaria: *erriy(a/e), auriy(a/e), eskub(a/e), mundub(a/e), ...*
- Asimilazio bustidura gauzatzen da azterketa esparruan, baina ez EH-ko erdiguneko zenbait tokitan gertatzen den indarrarekin, hots, ez da aipatu eremuan gertatzen den ingurune guztietan ematen. *N, l, t* eta *d* kontsonanteak bustitzen dira, baina beti */i,j __ V/* ingurunean, eta ez */i,j __ #/* ingurunean, *bait* partikulaz osaturiko izenordain mugagabeen kasuan izan ezik: *miñ(e/a), makill(e/a), opill(e/a), kitto, eitten, (di)ttut, zerbeitt, nolabeitt, inderra, gildde, ainddu,...* Baina: *min, makil, opil, baakit, dakit, ...*
- (Unanun eta Dorraon soilik gertatzen dira genitibo singularreko eta geroaldiko morfemen *-aren* > *-ain* eta *-anen* > *-ain* bilakaerak: *amain, semein, gizonain, esain, fain, ...*)
- NNN saileko erroari dagokionez, bi joera daude azterketa esparruan: **-i*-erroduna bata (Arbizutik ekialdera), EH-ko erdigune gehienez zabaldua; eta **-erai-* erroduna bestea (Etxarri eta Ergoienan), Nafarroako ekialdean bezala: *duuzut/dizut, noon/nion, ...*

- Erabiltzen dira Sakana erdialdean partizipio burutu gabea duten ahalerako egitura perifrastikoak, baina desioa edo nahia adierazi nahirik gehien bat: *Eitten al dek/duk ori!*, *Etortzen al da lixto, bestela ...!*,
- *O(o)* (edo) da esparru osoan erabiltzen den partikula hautakari bakarra EH-ko erdigune gehiengan bezala: *Zenbat eskatu ttuzu, bi o iru?*, *Tontue/a yeiz o?*, ...

Hamalau ezaugarri izan ditugu kontuan, eta sei baino ez dira, horien artean, azterketa esparru osoan erabiltzen direnak. Eta gainera, erdiak, EH-ko erdiguneko eremu murrizagokoan gertatzen direnak ditugu, Nafarroa Garaian nahiko hedapen zabala dutelarik bestalde, bai hauek nola eremu zabalekoak.

6.2.2. NAFARRERA ETA EKIALDEKO EREMUAREKIKO KIDETASUNAK.

K. Zuazok aurkezten dizkigun euskara nafarraren bereizgarrien arteko bat bakarra da azterketa esparruan erabiltzen ez dena, *geroaldiko eta partizipioa + behar inguruneko u > i bilakabidea*, hots, *allatuko* esaten da esparru osoan, eta ez *allatiko*.

Guk ondorengo bilakabideak izango ditugu kontuan, bai euskara nafarraren bereizgarritzat aurkezten direnak, bai NG gehiengan hedatuak direnak:

- Aferesiak: *ta, zazu/zak, toz, txikoi/txikore*, ... esparru osoan erabiltzen dira; *maten, manzalie*⁶, *men* Lakuntzan; *torri* Uharten⁷; eta *makome* Ergoienan.
- Sinkopak: *andre, bedratzi, gerna/garna, sobree, libruu* (Arbizu, Arruazu), *atra, pastu* (Arruazu), *ikusko, ibilko, etorko, ikusdau/du*, ...
- Instrumentalaren morfema *-(e)s* eta kausazkoen artean *-lakos* erabiltzen dira esparru osoan: *oñes, buus bia* (buruz behera), *Nei z(ub)elakos!* (Nahi zuelako!), ...
- Ipar EH-n eta euskara nafarrean suertatzen diren goranzko diptongoak: *itsés[we]* (itsasoa) / *itses[wé]* (itsasora), *ots[we]*, *andr[je]*, *lurr[já]* (lurrera), ...

⁶ Horrela jaso dugu guk, Eugenio ULAYAREN “Juan Miguel Gastesiren bi ‘Mayatzeko illabetia: Mariaren Illabetia’” (1987): “..., (*siñestatceco etcela hizandu golpe manzalie mundutarra baicic, beste munduoa:*) ...” Aurreko hitza *-e* bokalaz bukatzen delako ote?

⁷ Nicanor Beltzari horrela jaso diot transkribaketan: “*Egurte, karo, karruaki, idiyeki, fan e goizien zortzitan o bedratzitan ta atsaldeko iru o lautan ezin torri, oso urriti, baakik ...*”

- Aditzetako bigarren pertsona singularrean, *y-* erabiltzen da: *yeiz, yue, yauke, yakiyo* (hakio), *yoon* (hion), *yueke* (hoake), ...
- Arbizutik ekialderako herrietan baino ez bada ere, *-it-* pluralgilea erabiltzen da NNN sailean (Etxarri eta Ergoienan *-zki-*): *nittion* (nizkion), *zittizun* (zizkizun), *ttizut* (dizkizut), ...
- Prolatibo kasuan *-tako* morfema erabiltzen da NG gehiena eta Z-n bezala, eta destinatiboan, berriz, *-endako/-etako*, esparru osoan, euskara nafar gehienaren antzera: *semetako, alkatetako, amaandako, semiendako, zuendako, neetako, zuuteko*, ...
- *-oa-* bokal multzoaren aurreko *g-*ren agerpena, euskara nafarrean gertatzen den moduan: *guai, quartu, guatze, gua*, ...
- *-on* bukaeradun mailegu berrien kasuan, berean mantentzen da esparru osoan NG gehienean bezala: *balkona, kamiona, balona, jabona*, ...
- Aditzondoak absolutibo singularrean erabil daitezke: *Ago ixi-xille!, Nionek atia det bakar-bakarra!*, ...
- Nafarroako ekialdean *g-* atxikitzen zaie erakusleei, eta gure esparruan, kasu batean baino ez bada ere, halaxe gertatzen da: *goneskios* (honez gero).
- NG-ko ekialdeko erdian eta Zuberoan suertatzen den bezala, soziatiboko morfema *-ki* dugu: *neeki, zuuki, amaaki, nooki*, ...
- Bizidunen inesiboko morfema *-(ren) beitten* da azterketa esparruan, nafarrera eta ekialdeko hainbat hizkeren kasuan bezala: *Ori bier bezela eittie, zuen beitten ziok!*
- Geroaldia osatzeko bi aukera daude eremu osoan, *-ko* eta *-en*, oso zabaldua dagoelarik bigarren hau, *-n* batez bukaturiko aditzen kasuan, *-ain* (ekialdean bezala) eta *-an* (Basaburuan bezala) bilakaerak ere eman dituelarik: *fanen/fain/faan, esanen/esain/esaan, izanen/izain/izaan*, ...
- Ergoienan baino ez bada ere, orainaldiko 2. Pertsona pluraleko adizkietan *u > i* bilakabidea suertatzen da, NG-ko ekialdeko erdian bezala: *dezie, dakizie, doozie, doorezie*, ...
- Lehen aldiko NN_K erako adizkietan, ekialdeko hizkeretako *-i-* agertzen da: *giñuben/giñuen/giñubuen/giñun, ziñuben/ziñuen/ziñubuen/ziñun, giñuzkiyen/giñuzkuen/ginttuen*, ...
- EH-ko ekialdeko hizkera gehien modura (badira zenbait hizkera ere Gipuzkoako iparraldean), *-a-* eta ez *-e-* erabiltzen da aditz sintetikoen lehen aldian: *zailen, zailzien, nakiyen, zakiyen, zakan*, ...

- *Eman* aditzarekin *adlatiboa* erabiltzen da azterketa esparruan, Ipar EH-n eta euskara nafarrean bezala: *jatia eman*, *yatia/aatia eman*.
- Kausazko perpausak burutzeko erabiltzen diren ondorengo morfema eta partikulak ere, *-lakos* eta *bait-*, ekialdeko euskalki multzora eramaten gaituzte berriro.
- Esaldi konparatiboetan *-ago* orokorraz gain, *-agokoa* ere erabiltzen da Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko beste zenbait hizkeratan bezala.

Asko dira, ikusten den moduan, Sakana erdialdeko euskara eta nafarrera edo Nafarroako eremurik zabalenean erabiltzen diren ezaugarrien arteko kidesunak. Eta gehiago dira oraindik, Nafarroako hainbat eremu eta EH-ko beste batzuetan ere erabiltzen direnak kontuan izaten baditugu. Eta horixe egingo dut hurrengo puntuan hain zuzen, aipatu berri ditudan ezaugarri hauek aztertu.

6.2.3. BESTE EREMU BATZUEKIKO KIDETASUNAK.

Ataltxo honetan, Sakana erdialdean erabiliak izanik, beste eremu batzuetan ere gertatzen diren ezaugarriak erreparatuko dit.

- Iparmendebaldeko bizkaiera (Uribe kosta) eta NG-ko beste zenbait eremutan (Esteribar, Erroibar, Anue, Atetz, Artzibar, ...) erabiltzen den NN_I saileko *-ki*-erroa: *dakit* (zait), *dakiyo* (zaio), *dakiyobie* (zaie), ...
- *Eu* > *au* bilakaera gertatzen da azterketa esparruan, bizkaieran (Mungia, Zeberio, Zeanuri) eta NG-n (Aezkoa, Ultzama, Oltza, Goñi, Gares⁸) bezala: *auri*, *auli*, *aun*, *laurri*, *auntzi*, *auskias*, ...
- *Ei* > *ai* bilakaera suertatzen da Sakana erdialdean, Burunda eta Bizkaiko Otxandio, Zeberio, Nerbioi arroa eta Uribe kostan bezala, baina aipatu *ei* diptongoa, bigarrenkaria delarik azterketa esparruan: *aizia* (ehizara), *irai* (iregi), *izerai* (irazegi), *nai* (neri), ...
- Partizipioetako *-i* bokalaren sinkopa gertatzen da bizkaieraren ipar-mendebaldea (Getxo), eta GN-ko (Aezkoa, Basaburua, Imotz, Bortziriak) eremu zabalarekin batera, eta hau ere, Sakana osoan betetzen da: *ibil neiz*, *etor gaa*, *ikusko diau/duu*, ...

⁸ Horrela dator azken hiru herri hauetako hizkeran, BONAPARTEK jasotako “Le cantique des trois enfants dans la fournaise”, 1869: “*Auri t’intza guciac*, ...” (Gares), “*Auri te intz guciac*, ...” (Oltza eta Goñi). (R.M. Pagola- Tx. Peillen- Pedro Díez de Ulzurrun, EUSKALKI LITERARIOAK, 1992, 117)

- *o > u* bilakaera suertatzen da sudurkari aurrean gure esparruan, eta ez soilik galdetzaileen kasuan, Zuberoa, Baztan, Bortziriak eta Mallabin bezala: *nun, nundi, nungo, iyundienak, nunbeitt, aittun, trunku, ...*
- *Izan egon*-en ordeztu erabiltzen da zenbaitetan, batez ere adineko hiztunen artean, EH-ko beste zenbait eremutan, egun Hegoaldean bereziki, bezala: *Iruñen izendu neiz.*
- Hiatoetako *o > u* eta *e > i* disimilazio bilakaerak gertatzen dira azterketa esparru osoan, NB-ko Garazi eta Iholdi eta B-ko sartaldean bezala, baina baita ondorengo gorunzko diptongoen sorrera ere: *besua/e, semia/e, ...*
- Ez da errotazismorik gertatzen (Uhartan soilik agertu zaigu horren aztarna), hots, *-st-* kontsonante multzoa erabiltzen da Sakana erdialdean EH-ko mendebalean, erdialdean, Zuberoan eta Erronkariko iparraldean bezala.
- Ergoieta eta Arbizun baino ez bada ere, eta *egon* aditzaren forma batzutan soilik gainera, suertatzen da *au > ou* bilakaera, Zaraitzu, Aezkoa eta Bizkaiko Nerbioi arroan bezala, nahiz eta azken eremu honetan ‘egon’en adizkiekin ez gertatu: *goure, zoure, doure.*

6.2.4. GIPUZKERAREKIKO ALDERAKETA.

Gutxi dira, oso gutxi, Sakana erdialdeko hizkera gipuzkerara (ez erdialdeko euskalkira) hurbiltzen duten ezaugarriak, eta horietariko bat bera ere ez da hedatzen, gainera, gure azterketa esparru osoa. Hau gutxi balitz bezala, ezaugarri horietariko bat edo beste, beste eremuetara ere iristen da. Guk hauexek baino ez ditugu jaso azterketa eremuan:

- Bokalismoari dagokionez, *-a* berezkoaren galera gertatzen da Etxarrin, baina badirudi duela gutxiko kontua dela hau, eta gainera aurreko silabako bokala itxia denean suertatzen da soilik, hots, berezko *-a* asimilatu eta desagertarazten duelarik: *gauz, eliz, makil, egi, anei, ...* Hala ere, egun lehian soma daitezke *-a*-dun eta gabeko aldaerak: *gauz bet / gauzaat, eliz bet / elizaat, makil bet / makillaat, anei bet / aneyaat, ...*
- Kontsonantismoan, *d/r* txandaketa aipa dezakegu, oso kasu gutxitan (hiruzpalau) suertatzen bada ere Etxarri, Arbizu eta Lakuntzan: *urai / irui* (edugi), *erai* (edari), *iri* (idi). Ez da, beraz, gipuzkeran normaltzat hartzen diren beste kasuetan gertatzen: *badie* (badira), *bide, lodi, senide, soldado, ...* Bestalde, *[x]* ebakera dugu esparru osoan, Bizkaia eta Nafarroako beste zenbait hizkeretan bezala. Azken herrialde honi dagokionez, ondorengo hizkeretan ager dakiguke: Imotz eta Basaburuako zenbait herritan, Araitz,

Larraun eta XIX mendearen erdialdeko Garesekoan⁹ ere bai. Ultzamakoan ere entzun daiteke ebakera hau zenbait ingurunetan, hala nola mailegu berrienean. (Ibarra, 1994, 276)

- Aditzaren morfologiaren kasuan, bi baino ez dira gipuzkerara hurbiltzen diren ezaugarriak. Batetik, euskalkien sailkapenak egiterakoan hainbeste garrantzia eman izan zaien *det/dezu* aditz formena, eta soilik Etxarrin gertatzen da (gogoratu oinarri dialektologikoen bukaera aldera dioguna, goierritar etorkinei buruzkoa, 46 orrialdea); eta bestetik, *joan* aditzaren forma sintetikoetan, gipuzkerako *nijoa, dijoa, ...* horien antzekoak, *niyue, diyue, ...* daude Etxarri eta Ergoienan, baina beti ere *nue, due, ...* forma orokorrekin lehian. Ohartu, erabiltzen den kasuetan ere, ez dela kontsonante belarea erabiltzen dena, sabaikoa baizik.

Hauxek dira, orduan, Sakana erdialdeko hizkeran ager daitezkeen gipuzkerarekiko¹⁰ kidesunak. Hauexek bakarrik, bai, ezen izenaren morfologia, sintaxia eta lexikoaren arloan ez baitugu ezaugarri komun aipagarriarik aurkitu. Eta hemen agertutakoa, oso kidesun urria iruditzen zaigu, behinik behin, gipuzkerara atxikitzeko, ez Sakana erdialde osoko hizkera, jakina, ez eta Etxarri edo Ergoienako bertakoak ere, Bonapartek bere garaian egin zuen moduan.

6.2.5. SAKANA ERDIALDEA ETA ATAUNGO EUSKARA: ALDERAKETA.

Gipuzkerarekin aurreko puntuan konparatu badugu ere, oraingoan Sakana erdialdeak iparraldeko muga duen Ataungo hizkerarekin egingo dugu alderaketa, hurbiltasuna eta harreman estuak direla medio nahitaez izan behar dute hizkuntza ezaugarri amankomunak eta. Guk, hala ere, diferentziak bilatzeari ekin diogu, eta asko izan dira atzemandakoak, bi hizkera desberdinen aurrean gaudela esateko adina bai, bederen, jarraian ikus daitekeenez. Dena den, ez dugu ahaztu behar alderatzeko erabili dugun materiala J.M. Azurmendik (1996) aztertutakoa dela, eta bertan J.M. Barandiaranen gaztaroan egiten zen ataunera ageri dela:

- **Bokalismo eta kontsonatismoa:**
 - **bokal luzeak:** bokal luzeena izan daiteke Ataungo hizkeraren ezaugarriarik aipagarriena, bere ugaritasunagatik, ez soilik kantitateari begiratuta, testuinguru desberdinak ere asko baitira. Sakana erdialdean ere badira bokal luzeak, baina hurrengo testuinguruetan soilik: etimologikoki hasperenketaz banaturiko bi bokal berdinen ingurunean

⁹ Horrela jaso zuen Bonaparte printzeak (Opera omnia vasconice (I), 1991, 258 orrialdea)

¹⁰ Ohar ‘gipuzkera’ eta ez ‘erdialdeko euskalkia’ dela hemen aipatzen duguna. Egun ‘erdialdeko euskalkia’ moduan ezagutzen dugun hizkerarekiko alderaketa 6.2.1. puntuan burutu dugu.

sortutakoa (laburtu egiten dena ondoren: *zarra, len, lertu, matsa, ...*), herskari ahostun eta dardarkari xamurraren erorketak bi bokal berdinen inguruan sortutakoa (*baatxui, buu, goor, saar, suur, bierbaa, akaatu, iraaizi, elizaa, ...*), eta bokal desberdinen arteko kontsonanteen erorketak sortutako erabateko asimilazioa eta geminazioa (*illaate, toopillo, lendaazi, noon, amaan, berriina, allaatu, aundiyoo, noo, zoon, zuluuat, etxiaat, ...*). Ataungoan¹¹, aldiz, aipatu hauetaz gain, askoz gehiago dira testuinguru horiek: hitz elkartuak (*baseerri, mugaarri, aldeerdi, ollaarra, ...*), hitz eratorriak (*bazkaari, eraari, ...*), hitz amaierako bokalari mugatzailea eransten zaionean (*umeek, usook, ardiik, sugeeri, etxekooi, otsoon, odei guztiiñ, batzuekiñ, larreen, egiiz, besootan, ...*), -ago morfema konparatzailearekin ere era desberdinean egiten da (*tristeego/tristioo, gutxiigo/gutxiyoo, beanduugo/bianduboo, ...*), ere partikularekin (*iñolaare, zalaare, kateaare, ...*), pluraleko zenbait adizkien kasuan (*ittuun, zittuun, littuuzkeela, ...*), joan aditzaren adizkietan (*juun, dijoo, zijoon, ...*), subjuntibo eta aginterazko aditz formetan (*joo zak, botaa zak, artuu zaun, ...*), erakusleen zenbait formatan (*aak, ook, aatan, oolako, ...*), adizki alokutibo zenbait (*zeukeaat, bazeekiaat, diaat, ...*), /e/ luzea hirugarren pertsonaren ezaugarri moduan agertzen denean (*doeen* ‘duten’, *zoeen* ‘zuten’, *zaitzeet* ‘zaituztet’, ...), aditz-izenekin ere bai zenbaitetan (*artzeen, biltzeen, saltzeen, ...*), eta ‘azalpen iluneko’ (horrela agertzen ditu J.M. AZURMENDIk) beste zenbait adibide (*zeetorren, zeekarren, bigaarrena, laugarrena, irakiñ, egaaka, orraatz, ardooa, ...*).

- **bokal asimilazioa:** asimilazio inguruak antzekoak badira ere, salbuespenez josirik agertzen da Ataungo hizkera: *kanpaia, morroia, oia, legoia, erria, erdia, mendia, barrua, lekua, gaziña, muga, puska, pillaa, makilla, tipula, amairu, zerbait, ...*
- **a + a > -ea** bilakabidea dugu Ataungo hizkeran, eta **a + a > a** Sakana erdialdekoan: *neskea, saldea, gauzea, denborea, sokea, puskea, ...*
- **f > p** txandaketa ia erabatekoa da Ataunen, eta ez Sakana erdialdean: *aparie, alporja, konporme, pesta, pigura, Villapranka, inparnu, panparroia, pago, ...*
- Sudurkari eta albokariaren **bustidura**, hitzaren bukaeran eta guzti, Sakana erdialdean ez bezala: *ariñ, beiñ, eiñ, zeñtzan, baldiñ, diñ, zeekiñ, ill, jentill, motill, ardiikiñ, denakiñ, alderdiñ, ...* Baita superlatiboaren morfemaren kasuan ere: *aundiiña, larriiñak, ...*
- /l,n,r/ kontsonanteen ondorengo txistukariaren **afrikapena** gertatzen da sistematikoki Ataunen, eta frikariak erabiltzen dira, berriz, Sakana erdialdean: *penitentzie, pentsau, ementzan, eintzak, jartzak, altzan, altzea, ...*
- Kontsonante **txandaketak:** d/r txandaketaren hiperzuzenketa (*beidau, adagi, ...*), d/l txandaketa (*illargi, zillar, ...*), l/n (*narru*), k/g (*keiza, kuutze, ...*). Sakanan kontrako burutzapenak ditugu.

¹¹ J.M. AZURMENDI (Ataungo euskara, 1996, 57-65).

- **Izen eta aditzaren morfologia.** Oso bestelakoak ditugu Ataunen izen eta aditzaren morfologiarekiko ezaugarriak, Sakana erdialdekoekin konparatzen baditugu:
 - Ablatibo eta motibatiboan –ti eta –**tio** Ataunen: *emendio, andio, orreatio, zeatio, ...* Sakana erdialdean: *emendi, andi, orrengati, zeengati, ...*
 - Soziatiboan –**kiñ** Ataunen eta –*ki* Sakanan: *mailluukiñ, zorrotzaakiñ, ...*
 - Instrumentalaren morfema –**zaz** da Ataunen: *Patxiizaz, sorgiñezaz, orrezaz, ...* Sakanan, –*s*.
 - Destinatiboko morfemak bi dira Ataunen, –**tzat** eta –**tzako**: *ietzat, beetzat, zuuntzat, neetzako, ...* Sakanan –*tako(-dako)*.
 - Prolatiboarena, –**tzat**: *apaiztzat, anratzat, azkartzat, ...* Sakanan, berriro ere –*tako*.
 - –**di** atzikia erabiltzen da Ataunen: *saasti, ...; -dei (-tei)*, berria Sakanan.
 - Nor erako **aditz laguntzailea**: *naiz, aiz, gea, zea, ...* Sakanan: *neiz, yeiz, gaa, zaa, ...*
 - NN_I erakoa: *zai/zayo, zaitzaion, zitzaien, ...; -ki-* errodun formak Sakanan.
 - NN_K erakoa: *deu, dezui, gendun, dit(t)ut, ...; Sakanan: d(a)u, dezubie/duzub(i)e, giñuben, ttut, ...*
 - NNN erakoa, –I- erroaz: *dik, diok, dizut, dizuet, ...; Etxarri eta Ergoienan, *-erau* erroa.
 - Eduki aditzaren formak: *dauket, daukezu, zeuken, ...; Etxarri, Arbizu, Lizarraga eta Dorraon: dakat, dakazu, zakan, ...*
 - –**atu** > (–**adu**) > –**au** bilakabidea partizipioetan: *abixau, ingurau, aukerau, nekau, zulau, ...; -atu* Sakanan.
- **Sintaxia eta lexikoa:**
 - Galderetan **al** partikula erabiltzen da Ataunen, Sakana erdialdean ez bezala: “*Ea ue gizona altzan galde ementzion*”.
 - Esaldi konpletiboetan, –**ela** eta –(e)**na** Ataunen: “*..., buruun zerbait zeukena igarri eñ ementzion*”; lehen morfema soilik Sakanan.
 - **Ala** juntagailua ere erabiltzen da Ataunen, Sakanan ez: “*Eroiko nok ala ez?*”.
 - Ez da *bait-* partikula erabiltzen **kausazko perpausetan**, *eta/-lako* baizik; Sakanan, ordea, bai.
 - **Lexikoa**: bi hizkeren alderaketa lexikoa egina dugu lexikoaren atalean. Hala ere, gogoratzeko baino ez bada ere, hona hemen desberdintasun aipagarrienak (lehena Ataungoa eta bigarrena Sakana erdialdekoa): *mingañe/miye, ebi/auri, elbi/auli, ese(r)i/jarri, barru/barne, txistu/txube, izara/meinddere, zapatu/launbeta, domeka/iyende, ...*

6.2.6. BURUNDA ETA SAKANA ERDIALDEKO HIZKERAK: ALDERAKETA.

Arrazoiak, edo diferentziak hobeto esanda, beste batzuk izanik, Ataungo hizkerari buruz genioena errepikatuko dugu oraingoan ere, hots, bi hizkera desberdin direla puntu honetan alderatuko ditugunak. Hala ere, Etxarrirekin muga egiten duen Bakaikuko hizkerak, Sakana erdialdekoarekin, gainerako Burundako herrietakoak baino kidetasun gehiago erakusten ditu, eta hauexek alderaketa honen bukaeran azalduko ditugu.

Aurrekoan bezala, desberdintasunak aipatu eta Burundako emaitzak jasoko ditugu hemen, besteak, Sakana erdialdekoak, dagoeneko ezagunak baititugu.

- Bokalismo eta kontsonantismoa:

- Mugatzailearen asimilazioa ($i + a > ii$, $e + a > ii$, $u + a > uu$) gertatzen da Burundan, hitz oina bokalez bukatzen denean: *arrantzii*, *gaixuu*, *ganbelii*, *soruu*, *bakin*, *egunin*, *gaubin*, *itsasun*, *ondun*, ...
- Ez da gertatzen $V_1CV_2 > V_1V_2 > V_1V_1$ bilakabidea Burundan: *emaan*, *esaan*, *t(k)oopillo*, *lendaazi*, ... Sakana erdialdean, baina ez Burundan.
- $a + a (> -ea) > -ia$ disimilazioa: *alábian*, *neskiai*, *mangiekin*, ... eta honen ondorioz gertatzen den $-e > -a$: *anra*, *antxuma*, *basurda*, *bela*, ...
- Zenbatzaile orokorra: *danok*, *danak*, *dana*.
- Ez da beti ematen *i, u* bokal itxiek eragindako asimilazio, ezta pluraleko burutzapenetan ere: *aginak*, *ikezkinak*, *aundi bat*, *katilu bat*, ...
- $ei > ai$ diptongo irekiera askoz ere emankorragoa da Burundan: *araitz*, *bain*, *bairatu*, *maikuba*, ...
- $au > u$ monoptongaketa: *duka* (dauka), *dukau/dukeu*, *dukai/dukei*, ...
- $e > a / _ 'r$ bilakabideak ere maiztasun handiagoa erakusten du Burundan: *aguardi*, *eskarrik asko*, *maiztarra*, *izardi*, *muskar*, *infarnu*, ...
- Ez da Burundan aferesi eta sinkoparik.
- Ez da bustidurarik gertatzen, adierazkorra ez bada: *oilo*, *gaztaina*, ...
- *-nd-* kontsonante taldea usu ageri da: *baindo*, *oindo*, *gindan*, ...
- Kontsonante txandaketa zenbait (parantesi artean Sakana erdialdekoak): *kendu* (*gendu*), *kurutza* (*guutze*), *galte* (*kalte*), *pago* (*fago*), *barre* (*farra*), *kipula* (*tipula*), *galbario* (*kalbayo*), *bultzurrun* (*gu(i)ltzurri(u)n*), *txixa* (*pixa/e*), *iyo* (*it zoo*), *musti* (*busti*), *itein* (*izein*), *ura* (*utsa/e*, *udsa/e*), *txindurri* (*txingurri*), *sagona* (*jabona*), ...
- l/n txandaketa: *narruba*, *naurriya*, *nazka*.

- **Izen eta aditzaren morfologia:**

- Edute genitiboaren pluraleko morfema **-ein**, Unanu eta Dorraokoaren antzera (-ain): *txerriyein, ebein, ganaubein, ...*
- Soziatibo kasuan beti **-kin**.
- Instrumentalaren morfema **-z** da eta ez **-s**, Sakana erdialdean bezala.
- **-di** atzizki eratorlearen erabilera: *araizdiya, pagadiya, sagardi, sasidiya, ...*
- Aditzaren pluraleko 2. eta 3. pertsona, **-ei**: *dei* (dute), *dezei* (duzue), *nindukei* (nindukete), ...
- Eduki aditzaren pluralgilea, **-zki-**: *dukazki, dukazkizu, ...*
- NN_K laguntzailearen pluralgilea **-z-**: *genduzen, zenduzen, ...*
- NNN_K sailean **-tzi-** pluralgilea: *deatzit, ...*
- NN_I saileko erroa ez da **-ki-** Burundan, orokorrean, soilik lehenaldiko zenbait formetan, eta herri batzutan.
- Hitano alokutiboetan **j-**: *jitun, juak, ...*
- **-atu** > **-au** bilakabidea partizipioetan, Altsasun baino ez bada ere: *bueltau, faltau, gustau, arrapau, asarrau, eskau, ...*
- Lehen aldiko aditz formetan **-e-**: *genduben, zenduben, genduzen, ...*
- *niyu, diyu* edo *ziyula* tankerako joan aditzaren formak soilik.
- **-o-** eta **-e-**dun formak NN_K laguntzailean: *dot, dok, dezu, dezubei, ...*

- **Sintaxia eta lexikoa:**

- Kausazko esaldietan ez da bukaera txistukaria, *-lakos*, duen morfemarik erabiltzen, ezta *bait-* partikula ere.
- Lexikoan oso burutzapen desberdinak dira Burunda eta Sakana erdialdearen artean, eta hemen aipagarrienak jasoko ditugu:

BURUNDA	SAKANA ERDIALDEA
<i>orri</i>	<i>osto</i>
<i>barru</i>	<i>barne</i>
<i>domeka</i>	<i>iyende</i>
<i>eroan</i>	<i>eraman</i>
<i>ira</i>	<i>ixtorra</i>
<i>izeko</i>	<i>izeba</i>
<i>izera</i>	<i>menddere</i>
<i>jostaiya</i>	<i>ostotsa</i>
<i>kare</i>	<i>galtziñe</i>
<i>nesaki, mutiki</i>	<i>neskato, mutiko</i>
<i>oea</i>	<i>guatze</i>
<i>pitsa</i>	<i>aparra</i>
<i>uberaxa</i>	<i>zapoziyela, zapittela</i>

SAKANA ERDIALDEKO EUSKARA: ONDORIOAK

<i>gaztaia</i>	<i>gazta</i>
<i>txixa</i>	<i>pixe</i>
<i>iyo</i>	<i>itzo</i>
<i>ura</i>	<i>utse, udse</i>
<i>ondo, obeto</i>	<i>aungi, obeki</i>
<i>guti</i>	<i>gutxi</i>
<i>txipi</i>	<i>txiki</i>
<i>eztai</i>	<i>ezkontza</i>
<i>autsi</i>	<i>auski(n), autsiin (Arr)</i>

Azkenik, komentatu *Continuum Geolektala*-ren teoriari jarraituz, Burundako ekialdeko Iturmendi eta, batez ere, Bakaikuko (Etxarri-Aranatz herriarekin muga egiten du honek) hizkerak direla gehien hurbiltzen direnak Sakana erdialdekora, ondorengo ezaugarrietan ikus daitekeen moduan:

BURUNDA	BAKAIKU	SAKANA ERDIALDEA
<i>kurutza</i>	<i>gurutza</i>	<i>guutze</i>
<i>pago</i>	<i>fago</i>	<i>fago</i>
<i>kipula</i>	<i>tipula</i>	<i>tipula</i>
<i>kendu</i>	<i>gendu</i>	<i>gendu, jendu</i>
<i>narru, nazka, neurri</i>	<i>larru, lazka, laurri</i>	<i>larru, lazka, laurri</i>
<i>bedar</i>	<i>belar</i>	<i>belar</i>
<i>jorratu</i>	<i>forratu</i>	<i>forratu</i>
<i>ardiyekin</i>	<i>ardiyeki</i> ¹²	<i>ardiyeki</i>
<i>gustau (Altsasu)</i>	<i>gustatu</i>	<i>gustetu</i>
<i>genduben, zenduben</i>	<i>ginduben, zinduben</i>	<i>giñuben, ziñuben</i>
<i>deatzit</i>	<i>datzat</i>	<i>dootzat</i>
<i>zizaiten, zitzaizun, zitzaion</i>	<i>zekidan, zekizun, zekion</i>	<i>zakiten, zakizun, zakion</i>

Hala ere, azken kidetasun hauek alde batera utzirik, Bakaikuko hizkera Burundakoaren barruan kokatzen da, gainerako ezaugarriek hala erakusten dute eta. Eta ikusi dugu, bestalde, desberdinak direla aldameneko hizkerak diren Burunda eta Sakana erdialdekoa, eta ondorio hauxe bera atera zuen K. Zuazo-k “Euskalkiak gaur” bere lanaren bukaeran:

“Burundako hizkera hau dela eta, ohar bat egin nahiko nuke. Sakanako gainerakoen aldean oso desberdina da hemengo hizkera eta, Bonapartek gipuzkeraren barruan kokatu zuen arren, bere aldameneko Goierrikoekin alderatuta, oso bestelakoa azaltzen da” (K. Zuazo, 1998, 225)

¹² Iñaki Mundiñano (Bakaikuko euskara, lan argitaragabea).

6.2.7. GURE PROPOSAMENA.

'Bridge dialect' edo **zubi hizkera** dugu Sakana erdialdeko hau, edo hobeto esanda (*nafarrera*-ren barruan kokatzen dela ikusiko dugu geroxeago) zubi lanak egiten ditu, eta zubi lan horiek EH-ko erdialdeko eremuaren eta Nafarreraren artean egiten ditu. Horrela dio K. Zuazo-k ere Hego Euskal Herriko egungo eremu banaketa planteatzerakoan, erdialdeko eremua azaltzerakoan, honen bukaeran: "... *eta Sakanara ere iristen dira erdialdeko ezaugarrietako asko, baina ez, nire ustez, eremu horretan bete-betea sartzeko adina. Erdialdeko hizkeren eta nafarreraren 'tarteko' hizkerak dira, beraz, hauek* (Bortziriak, Malerreka eta Sakanako hizkerez ari zaigu)" (Euskalkiak gaur, 1998, 228).

Guk, bestalde, Nafarreraren kutsu handiagoa hartu diogu EH-ko erdialdeko eremuarena berarena baino, eta ezaugarriak aztertzeari ekin diogunean, gure ustea erabat konfirmatu ahal izan dugu, grafiko baten bidez erakusten dugularik. Grafiko hau burutzerakoan 34 ezaugarri kontuan izan ditugu, guztiak Sakana erdialdeko hizkeran ezagunak direnak, eta EH-ko hizkera eremu desberdinetakoekin alderatu eta elkartu ditugu, zein eremurekin erakusten duen kidetasun handiagorik ikusteko asmoz. Eta emaitzak ondorengoak izan dira: nafarrera eta EH-ko ekialdeko eremura begiratzen duten ezaugarriak, 17 izan dira (% 50); EH-ko erdiguneko eremura, 7 (% 20); bizkaiera eta goi-nafarrerako zenbait hizkeretako ezaugarriak, 4 (% 12); gipuzkerakoak, 3 (% 9); eta iparraldekoak eta goi-nafarrerako zenbait hizkeretakoak, beste 3 (% 9). Beste hainbat ezaugarri, Sakanako hizkeraren deskribapenean jaso ditugu, baina ez ditugu kontuan izan azken alderaketa honetan, ezen eremu oso zabalekoak (mendebala, Gipuzkoa eta NG-ko sartaldea hartzen dute gehienek) suertatzen baitira: 'egin' aditz indargarria, perpaus konpletiboetako *-(e)la* eta *-(e)nik*, denbora eta modu perpausetako *-(e)la*, kausa perpausetako 'aditza + *(e)ta/-la (e)ta*', esaterako. Bestalde, hemen aipatzen den ezaugarriren bat edo beste (aferesiak eta sinkopak, esaterako), aldaera baino ez da, hau da, zenbait kasutan baino ez da ageri, baina, hala ere, garbi erakusten du ez dela burutzapen arrotza aztertu dugun eremuan eta, horrexegatik, izan dugu kontuan.

Eta erabili ditugun 34 ezaugarriak hurrengoak izan dira:



Nafarrera eta ekialdeko eremukoak

- Aferesiak.
- Sinkopak.
- *-(e)s* eta *-lakos* morfemak.

- Prolatiboan *-tako*.
- Destinatiboan *-(r)endako*.
- *y-* aditzetako 2. pertsona singularrean.
- *g-* *-oa-* bokal multzoarekin.
- *-on* bukaeradun maileguak.
- Aditzondoak absolutibo singularrean.
- *-(r)en baitan* bizidunen inesiboan.
- *-en* morfemaren erabilera geroaldian.
- NN_K saileko iraganean *-i-*.
- Aditz sintetikoen iraganean *-a-*.
- NNN sailean *-erau-* erroa (Etxarri eta Ergoienan).
- Eman aditza + adlatiboa.
- Kausazko *bait-* partikula eta *-lako(s)* morfema.
- *-ago* eta *-agoko* konparatzaileak.



EH-ko erdiguneko ezaugarriak

- *-a + a > -a*.
- NNN saila eta sintetikoen alokutiboetan *z-*.
- Hiatoetako epentesiak, [j] eta [b].
- Asimilazio bustidura.
- Partikula hautakari bakarra: (ed)o.
- Ahalerako egitura perifrastikoak partizipio burutugabearekin.
- Partizipio analogikoak.



Bizkaiera eta goi-nafarrerako ezaugarriak

- NN_i sailean –ki- erroa.
- eu > au bilakabidea.
- ei > ai bilakabidea.
- Partizipioetako –i bokalaren sinkopa.



Gipuzkeraren ezaugarriak

- Berezko –a bokalaren galera.
- d/r txandaketa (oso emankorra ez bada ere).
- NN_K erako –e-dun formak laguntzailean (Etxarrin eta Ergoienan).




Iparraldea eta goi-nafarrerako ezaugarriak

- Goranzko diptongoak.
- o > u / __n bilakabidea.
- j/f txandaketa.

I. grafikoa

Sakana erdialdeko hizkera



Nafarrera eta ekialdeko ezaugarriak



EHko erdialdeko ezaugarriak



Bizkaiera eta NGko ezaugarriak




Gipuzkeraren ezaugarriak



Iparraldea eta NGko ezaugarriak

Sakana erdialdeko hizkeraren deskribapen honen arabera, garbi geratzen da, beraz, Nafarreraren barruan kokatzen dela, eta zubi lanak egiten dituela, batez ere, erdialdeko euskalkiarekiko, hurrengo irudian ikus daitekeen moduan:

II. irudia: EUSKAL HERRIKO EUSKALKIAK ETA NAFARROAKO MENDEBALDEKO ZUBI-HIZKERAK



7. TRANSKRIBAKETAK

7.1. Herria: Etxarri-Aranatz.

Transkribaketa: *Anbruxio Erdozia Belza (78 urte)*

Juana Luzia Larraza (81 urte)

Eguna: 98-12-4

Anbruxio: Alako katubanure esanko yau. Katube geiztue emen auben da, demoniuaik e, de dios!, katubure ein bier! Geiztue zala ta zartanien sartu ta suben bueltakan da, gio itzerai, de dios!, ta osabak: “Ara, gu katu beltza rubio!”

(...)

Eta alako ..., maleta exkiñen batien kontra bota ta iye ... Bilbaure o, fan emen ittuben Zandaliona ta, ure ta asko, Kalen Felipe ta, Ziriako ta gu osaboi ta, kriston selle. Faten ttuk eta, sobree, lana akatu ta gio Pankorbua o fan ber ziela. Ori, zeran, Burgosen ziok, ta Bitoire etorri ta lau laun da, sobree, yan ziyen puskan bat eta gu osaborrek baul aundiye uraitzen ziyen, ola, arrijie, arrijie an ibiltzen ziyen, zakana barnen. Zazkan pobrezak, bei e, zazkan pantalon, atorra, korbatik ez beye ...

Juana Luzia: Diru pixkan bat balin bazakan an sartuko zeen, baulartan ...!

Anbruxio: Bei, kaittuko zeen, de dio! Jaxten ttuk eta gaubien, sobree, juerga pixkan bat ein ziyen da, ango serenuek, ure faltatu ta, e, alto bota ta iyese. Ta, mekabuen, baule bizkerrien gu osaborrek, ta bestiaik laixter, da arrek beix alakuatien ola,

extube zioban ta baul aundi kantodune, kanto bizikue, ta ortan baziyuek laixterrien iyesi, ta jotzen dik ipurdiyan exkiñaki exkiñe ta, atzekaldia!, ta buelta arrijie guzie artzia, ta aiba ...!

Baulure bei! Etortzen auben da, gu osabarrek ba zian, dirubek aitzen zazkiyonien iyesi eitten zian, iriyekin da ibiltzen auben da ... Espiatu zia, aitzen baittuben zia espiatuko zeen, lania fateko ta etxien lana ta. Gaubien etorrik guu aitte, guu amiñek: “Jose, fan da Ilario!” Ta: “Ze ein dau, ba?” Ta: “Zia, iriyekin gurdiye sartzan atziaka estarbie, ta jo estarbiko ataye ta bota!” Ta amiñarrek: “Ze einttuzu, Ilario?” Ta amurretuik ure, ta: “Bei, kontuan ibil ber da!” Ola, ta bei, alako mugimentuben fi-fu ein ta iriyek laskatu ta ogin bet artu, ta Gipuzkua! Ta amiñek Josei: “Fan da, ba!” “Ba, feriteko ardiye jatia etorkua, bei!” Feriten etxe guzitan ardiye iltzen auben ba ta. Aldi betien, Anjel ta guu lengusu Jose, Berjeran etxekue, ta irurok, an, monjan ondoko itturriartan, txulue uraitzen zian, ba. Ta eskube jartzen yoon ta, fiii jotzen zian. Ta redios!, guu osabure baul aundiyarrekin, baul aundiyure bizkerrien zeela ta an, arri boobil bet yooten auben. An utzi ta ni an, airi utse botatzen da ola ta, zarta!, artzen ziek bespetati: “Ze ai yeiz, ttikitto! Egariyek noo ta!” Ez zieguban ezautu gui. Artzen ziek bi besapetati: “Ze ai yeiz, ttikitto! Egariyek noo ta!” Jendu, lurrien utzi ta: “Osaba!” guk, eta quartu auben ta: “Ze ai zarie?”, ta: “Jolasien!” Da iruroiri, nai zortzikuat ta airi laukuana, mekabuen kontentu! Jo!

Beste bein, etor auben da, Kalen Felipe ezautzen dek? Ure ‘de rantxero’, ardiye egosi ta tripekiyek ein da Jesukriston rantxadak botatzen giñuzkiyan da. (...) Etor auben, da guatzien, sobree etrokeiren bat einda, ta ni an da: “Anbruxio atoz!” “Ze biezu, osaba?” Ta: “Esan yozu amai, oliyo salda pixkat. Ez noola aungi!” Oliyo salda ...!, dijestiyue eitteko! Ta bueno ...: “Esan doozu?” Ta: “Bei”. “Atoz, atoz!” Ta duruat, duro ziderra!: “Auski, e! Ez galdu! Eman yozu amai!”

Juana Luzia: Duruat aiñe eman zuuzun?

Anbruxio: Baai! Bueno, amandako! Zia ... ude guziko iraziyek, baulien oo uraiko zeen da ...

Ta bueno, artu ta, paatu eskube ta durue, tak! emen da, olakuatien: “Auski e, galdu bee!” Artu durue ta: “Ama, osabak eman duut duruau!” Ta: “Osabak eman duuk? Aungi ziok!” Duruat asko auben orduben!

Gio, zuen aittaki, Inixioki biyek, ibiltzen ittuben auntzei. Bei, ta biyek ibiltzen ittuben da, neguben, estarbiyen biyek zeñek lurria bota. Aik jauzkek Inixioki biyek!

Galdetzailea: Jolasien?

Anbruxio: Baai! Orbelien da, kaman da, elurre zoonien da ...Arrek Inixio aidien artu ta botako zian garayartan, beye alee biyek itsesi lepoti ta ..., ni beire!

(...)

Auntzitekuen, gu presaa garbitzia ta gu osaba, goizeko ordubiyek aldia, labaderua. Uts otza ..., ta firri-furru garbittu ta, ara, gu dutxe ure izeten auben!

Galdetzailea: Ta emakomen bat ekar emen zeen, ez?

Anbruxio: Baai! Aldi betien, kaxkar bat! Etorri ta Estellesan Gipuzku aldeti, ta gu etxia. Ta, ni enengoban, ta sobree Marie ta ama de an ittuben da, etorri ta: “Au da neeki izen ber dana!” Ta amak: “Ago ixilik!” Ta Mariek: “Zer zailtze emen! Aldeinzazu nai emakomioneki emendi!” Ta: “Zeengati, ba?” Ta: “Ori ezta itxurekue!” Maki alako anka makur bet! Ta bueno, yaman da ez auben bueltatu geyo. Beye, ou, zarra geña! Bia beño zarroo!

Galdetzailea: Presentaziyue, ‘au da neeki izen ber dana’, ez?

Juana Luzia: Baai! Ez zoon geizki, e, ametittu baloobie!

(...)

Anbruxio: Ure, zuen aman lengusu propiyue! Arretxepeko Fernando! Gaztena!

Galdetzailea: Nola izeten die lo eitteko ta basuen? (txondarra egiterakoan)

Anbruxio: Kaniyek izeten ttuk, bei, e, konpaaziyo or kani bet, trunku bet, ta emen bestiat. Ta kabañan aldiatia ta bestia, amabi laun da ibiltzen giñuzkiyan. Erdiyen sube, otza zoonien barnen ta uden kanpuen. Ta zerak an, e, jartzen zikiyok zaparrak, nola sardie matxarda deela, fuertie uraitzen ye ta, aik jarri eta an, kaniyain geñen, jarri bestiain (?) ta aik sartu ola geñen, beste aldien ebei, ta gio illerra baldin badoo illerra. Illerra ona dek, beye ezpazoon, ba, arbolan arrama puntak, aungi jarri ta ain geñen eitten giñuban lo. Ta mutiko demoniuok, Albaro dee an auben, Albaro ... zerana, Ziriakona. Ure, a, Pinpilinpaun ebei, Sakristuzarran Inaxioau, Katxo debei, Barbas ebei. Barbas ... astiako aldein ziyen, biorzei. Ta gio Berjeran Anttonio debei, ta Monikan Juan ebei ... Ta mutille demoniuok, kaka eittia faten zanien uzkiye atiatzen zakiyola ta eskube an ibiltzen zeela sartzien! Ta Mauleonek beix: “De dios! Uzkiye eskuten ibilli ta ordeki noi ikutzen doon!”

Galdetzailea: Zer da, ba, uzkiye?

Anbruxio: Uzkiye? Ipurtestie! Bei, bei, nola ori, ipurditti ... Estie, sobree, laso o luzie izen da, indderra eittien, obenien erabat ez da atiako, beye baztarretati, luzie izen da, punte ta ... Oik ala esaten ziyen. Guk ez, beye gaztieki beie ta, mekabuen dio!, ordubien au eztetteke urai rantxero! Bei, ta azkenien, gio, iyesei ein zieguban! (...) Ardue eske bieldu gosaltziako ta, txabolan bazioban beye, gutxi, ta agii ez!, ta agii ez!, ta ... Bateez fan! Etxia etor auben! Ta, de dios, Katxo bieldu giñuban, ez auben agii eta! Gosal garaye pasatuik ta Katxok botie yaman ziyen. Gero, akabo! Orrengati o zer ...!

7.2. Herria: **Etxarri-Aranatz.**

Transkribaketa: *Euxebio eta Inozentzia Markotegi Razkin (71 eta 69 urte)*

Pedro Agirre Ezkutari (79 urte)

Eguna: 98-11-20

Inozentzia: Nai iruitzen dakit erriko izkera ezala jartzen kantetan. Iruitzen dakitela nai, lenuo, bestiatzuk obeki entenditzieti o, eztatkit ze eitten zebien, beye beste izkera klasiat eitten zebien.

Euxebio: Zu, ta etxien eztatkatelako zengati fraile txar batek yaman zuzkiten, beye emengo izkeraki bersu bikeñek, beye kantoi bezelakuek zien, iguel-iguela izkera.

Eske lenuoko kantubek ... asko dazkigu, beye guai eztatkit atiatzen.

Inozentzia: Guu etxien, guu aittune terriblie zan kontubek eta kontatzen. Guu aittunek, guu gaztieki giñela, kontatzen zuuzkigun Juan Soldadoon kontubek. Ni oso ttikiye nitzen, ta nai iruitzen zakiten biak asmatuikoko personajeen bat zala Juan Soldado, ta gio telebisiyuen da asi zienien Fernando Fernan Gomez o ori, ‘Historias de Juan Soldado’ eitten, oiaupenani, guu aittune uste beño lixtuoo auben!. Yozin kontubeki, beye geña noizko kontubek kontatzen zittuben ...!

Euxebio: Kontatzen zuugun Belenak allaatzen zienien, beti kontatzen zuugun. Amerjiñe, San Jose astueki ta aurraki eta Herodesen soldaduek segitzen emen zoobien, ta opopotan emen zailtzen soldaduek, ta ai emen zien, ee ..., fameli bet

gariye ereitten ai emen zien, eta esan emen zoon (San Josek nekazariei): “- Soldaduek atzeti dazkau ta estalzazu gui al dezun bezela, zengati Herodesen soldaduek eldu die nee aurre iltzia, ta mesedes estal zazu”. “- Bei, ta nola? Nik gezurrik ezin det esan, zengati estal duuzubieten galdetzen badubiet ...!” “- Zuk eztezu gezurrik esan ber, zuk esan yozu ‘au ereitten ai giñela pasatu zien’ eta zuk orreki eztakazu ezere!” Estal emen zobien gurdi beten atzekaldien ta soldaduek etor emen zien ta: “- Zu, ikus ttuzubie emen senar-emaztiak aur beteki ta astueki?” Ta “- Bei, o beye au ereitten ai giñela pasatu zien!”, beye gariye aundittuik zoon! Ta Niño Jesusen lenbiziko milagrua esaten zeen gu aittunek eta ola kontatu noon Don Tomasi, eta Don Tomasek: “Mira, es verdad, hay un evangelio apócrifo que cuenta este pasaje” Eta gu aittunek bazakiyen! Eta bestiat. Gu aittunek esaten zeen Pilatosen kriada Estillekue zala, euskaldune! Eta Don Tomasek: “Oye, ¿sabes que no anda descaminau tu abuelo?” Zengati? Ba, eztakik Pilatos Hispanian yondu zala, Valencia aldien o, eta emen zakan kriadat euskaldune, emengue, ‘de la Cantabria’ istoriadoriek esaten zebienes. Eta gu aittunek Estillekue esaten zeen, ba iguel Estillekue zan. Ordek jakittia! Ta olako kontubek kontatzen zuuzkigun. Ta gio, Quo Vadis ikus neenien akordatu nitzen. Prezeptoriatek Kantabriako kriadat zakan, Eunize, eta esan neen, ‘iye Estillekue zan?’ Orrengati, guk uraitzen giñuben deseyuten denborau allaatzeko.

Inozentzia: Gu ama de terriblie zan! “- Neskatuaa, jendu nazan nai koltxonau, ik e ona artu, ta neetako txarra!” “- Ama, beye nik guai aldatuet ta koltxona!” “- Bei, ik eetako ona artu ta nai txarra!” Ta keba, goizeko bostak o seyek o zer zien da: “- Ixoo, lania fan ber gaala!” etxekuek. Ta ama ya asiik zoon ba pixkat falluekin o, ta artu noon, buelta eman noon koltxonai ta klaro, bestiek maldiziyue zayola ta au de, “ixoo!”, ta paatu noon guatzie ta aixetu zan pixkat. Beye bia be marmarraaki. Oi, arrek egunartan ze desespiazizyuek ein zittuben be koltxona ezakala ta!

Galdeinzalie: Ta, nola da istoiyure, txoriyana?

Inozentzia: A bei, ori bei dala politte! Ba egun betien, yaman noon deseyunue (amari). Kafesnie zopak in ta nik betire, lenuo ta guai de dakat kostunbrie kafe utsetse artu ta yasta. Ta klaro, andi eztakit ze izan zan, kasi ezta ordu bet: “- Inozentziaa, ekar nazan zerbeitt, aulduik nion da!” “- Nola yonko zaa ba aulduik, kafesnie zopak artuezu ta! Ni, ara, emen noo kafe utsetse artuet ta emen noo geyoo artu be!” “- Ago ixilik, gari geñeko txoriyan penik ez tin sekule urai bier!” Arren atialdiye! Klaro, nik nee alderdi nakala nei neena esan nei zeen!.

(...)

Euxebio: Bestiatien gu aittune azpiontzak eitten, buelta ematen orbelai ta, or zioban atayortati, or atai zar bat eta bueno ataye de eyen ure, eta amak: “- Otsein yok aittunai bazkaltzia!” Eta nik atayortati asita: “- Aittuna, bazkaltzia!” Eta arrek azpiontzak utzi ta: “- Ortzak prest dazkat!”.

Gio perlesiyek jo zoon ta jar zan buuti bastante naasi. Eta ematen zoon guaixie asi ber zan egoaizie, asi beño len e, beleixeko quartzen giñen, au de akordatukua!: “¡que me maten!, ¡que me maten!” Ta nik gu Migeli: “- Eztik ba geyo esan ber ori! Ordek Nabarron txia, petarduatzuk eske!” Amabi maadi, ‘quinque céntimos’, eman nootzan eta esan noon: “- Ordek eta ekar zak iru petardo!” Laukuat baliyo zen petardo bakuitzek. Nolabeitt guardia zibillaandako sastreiyen giñuzken kapotiek eta konpontzeko, nik ze ein neen? Artu kapotiat, bigotiat pintetu neen, Migeli guatzepia sarrazi noon, eta esan noon: “- Nik ola anka jotzen dubatenien ik eman su iru

petarduei!” Guatze garratonien jartzen nok ola ta: “-Hola, Jose M^a, ¿qué hace Ud.?” “-Aquí, ¿quién eres?” “-Yo, el cabo de la guardia civil, como me han dicho que quiere Ud. morir, pues vengo a matarle”. “-Sí, sí, sí, pero aciértame bien, ¿eh?” Erdias eitten zeen itze buuti zoola, eta geña guardia zibillaaki ... Eta faten neiz, jartzen neiz ola eta: “-Hala, rece Ud. el señor mío Jesucristo que enseguida le van los tiros”, gu aittunai. Eskubau ola zakan ba inutilduik eta erdias: “-Señor mío Jesucristo ...” Ta Migeli jotzen doot ola ta danbaun, danbaun, danbaun ... Ganbarati bia abiyetzen da gu aittune ta eztakizubie ze aurpeye zakan aittunarrek! Faten neiz laixterkan, aittuna!, aittuna! Ta ortan, ola: “¡Ah, ah, por aquí me han pasau, fits, fits, fits, pero no me han dau!” Geyo eziyan esan ‘que me maten’.

(...)

Inozenzia: Beste bein, eman zoon esatieti illik zoola, beye zortzi egun, e. Pasatzen zittuben ordubek beti ortan! Ikatuik zakan kale guzie! Eta esan zoon gu aittek: “-Bei, ba, illik balin bazaude aunbeste egun, jakiñen dezu zeruben o infernuben o purgatoiyuen o nun zaude ba zu?” Eta ola jarri gora beire ta: “-Ezikiyet ba, ordek sakristuban txia, arrek jakinkoik, Luisek jakinkoik!” “-Bei, ba fan ber neiz galdeittia!”, gu aittek alee. Atia emen zan, bueno ein zen atia zan bezela, pixkat tardatu zeen da: “-Aitta!” Ta: “-Zer?” “-Yondu neiz Luiseki!” Ta: “-Ze esan duuk?” Ta: “-Esan duut zeruben zaudela!” “-Banengoban ba ni!” Be buube ezakan txarretako nunbeitt!

(...)

Euxebio: Beste aldi betes, bazittuban salidatzuk eta, illezkillek! “-Zein il da?” “-Pellooneko aurrekaldeko Maties!” Ta: “-Ara, ni beño gaztio yen ba ure!” “-Bei, beye baakizu!” “-Eta ze zakan ba ola iltzeko ain gaztie?” “-Ba, kanzer!” Ta oso kuriosue zan eta: “-Kanzer? Eta ze geitz dek ori?” Nolabeittere esan ber yoon nola zan da esan nioban: “-Amimoruat bezela da ta dazka ankasko, ta anka bakuitzien daka aguat, buubet, ta jan eitten dau, ta ezurretan uzten duuzunien illeitten zaa!” Ta akabo, ixil-ixille zoon, da atia nitzenien andi: “-Ai, Jangoiko aundiya! Zenbat nei niezun! Neyo laukie bei jodiduok nik e Tanjer banaka estemauben!”

(...)

Inozenzia: Beste bein beix, etor zan apeza, Don Jose M^a etor zan da, klaro, ratotxuat yondu zan da: “-Konfesatu ein ber doot!” Gu aittek: “-Beye aungi doo konfesatzeko ori?” Bei, obenien rature oso aungi yonkuauben, beye keba, zoon oso nastuik eta esan zoon: “-Iruitzen dakizu aungi doola?” Ta: “-Bei, aungi doo!” Ta fan zanien komuniyue eske, zengati guai komuniyue ta dena ekartzen debie batien beye orduben fan zan komuniyue eske ta: “-Frantxiko!” Ta: “-Zer?”, gu aittek. Ta: “-Beiyok, akordatzen auben bei Don Jose Marie Konzezion nola ikus giñuben, gurdipien, Nazarenue kakeitten!”

(...) *Euxebio:* Bestiatien, faten gaa, gaztie nitzen ta faten gaa, e, eskien frai Teodoro, zan kaskagorri, bizer gorri bet, frailiat. Irañetakue zan! “- Akordatzen zaa zu frai Teodoro?” “- Bei gizona! Mendiyeen ibiltzen yauben txabola guziek aurria! Deskatuboo!” “- Bazakiyen bei arrek txabolak eta nun zeen!” Aldiyartan ai zan alubiye ta patata artzen. Denborau izaan zan, bei denborau izaan zan! Otza eitten zeen, akordatzen neiz otza eitten zeela! Eta, sartu giñen Emañan etxia eta an zoon Gillerma, Jose ta mutikuoin ama. Eta: “-Sartu! Sartu, frai Teodoro!” Andriure onoo! Ta zakan su bet! Dena kol-kol-kol, aza pertzien ganaduendako eta: “- Jarri, jarri

emen!” Eta sartu ta ni suban onduen, frailioi ta ori, ta Jose de or, ta Gillerma ta aur guziaik, ordubenttikiyek, ta laixterkan aldiatia ta bestia, ta aborrittu zan Gillermak galdemodubek eitten da bestiek gogoik ez muintzeko, frailiorrek, eta dale izketan, dale izketan, atzeniako Jose de aborrittu ta zutittu zan eta estarbie ganadota fan zan, eta andi ordubetia o etor zan da, guk ordubentxe atiatzeko, olexen, oleeixen zoon ataiyen!, eta frailioi eta ni emen, ola, eta atiatzeko espia, eta ortan ola gaudela, Josioi estarbitti: “-Fan da?” Ola beire: “- Fan da, fraile buuaundi, bizergorriyoi, fan da?” Eta bestiek atai atzeti: “Ez, emen gaau!”

(...)

Pedro: Arri polittena ein zioban Urtxeneko Ramonek! Ba, frailioi faten dek eskien da, ze biltzen zeen da, andriure atia geixue!, ume bee, ta ze biltzen zeen da, patata o alubi ta, aittunure quartu zanien estarbitti laixterrien, aitzur bet artu ta: “- To, ordek sorua ta atiaitzek nebek patatak yaman!” Aitzurre aurrekaldien utzi ta, aibadios!, frailie eskapo!

Inozenzia: Majo ein zoon! Pasatzen dana da ordubent ezala atrebitzen iyore olakoik eittie, beye meezi ..., meezi bei, meezi zebien ...! Mixeiye besteik ez jendiek eta ...!

Pedro: Biltzen ziyabien urte guziko laborie!

Inozenzia: Fiyetzen bazaa, saldu debei!

Pedro: Eta beste karadure, ba, esan diauna, mendiyen, txabol guziek aurria, gaztak biltzen! *Inozenzia:* Bei, ta gaztak bakarrik ez! Gu etxien zeen libruu betzuk ... ¡ Bei, airi ‘todo es bueno pal convento’ ori, bei egiye dala! Iguel duekiyobie dana dala, beye ... dena yaman! Noizko libuubek ittuben?

Euxebio: Gerra aurrekuek, oo!”

(...)*Euxebio:* Ez, baakizu ze eitten zeen? Utziyees, ez zan oso garbiye! Pixe ta dena eitten zen da ... Sobree eskubure illik zakan, bustiik zakan da, eskubarri, Bernoneko Anjeliko otseitten zioban! Ola artzen ziyen eskubure ta klaka botatzen ziyen: “- Fuera emendi, lazkarriya!” Ta klaka, patiei jotzen zoon ta beix buelta! Ta ola ibiltzen yen bota ta buelta, bota ta buelta. “- ‘Marrano!, masquemarrano!’ Oriek ori! Porta-porta umiek ein da gero onutza azitzia, negana!”

7.3. Herria: Unanu.

Transkribaketa: *Kristuel Mozo Marin (72 urte), Pedro Mercero Lizarraga (70), Xegundo Mozo Luch (76), Valentin Mozo Lizarraga (69), Andres Mercero Mercero (71)*

Eguna: 99-1-30

Bost informatzaileek hartu zuten parte elkarrizketan. Hala ere, Kristuel Mozo izan zen gehien hitz egin zuena, alde handiz. Pedro Mercero-k ere askotan egin zuen, Xegundo eta Valentin-ek bezala. Andres-ek gutxiago hitz egin bazuen ere, oso baliagarriak izan zitzaizkigun bere zehazpenak zenbait kasutan. Bestalde, ez dut aipatu gabe utzi nahi Felix Igoa Mozo-k eman zidan laguntza, bera Unanuko seme izanik (dagoeneko etxarriarra badugu ere) izugarri erraztu baitzuen giroa eta, honekin batera, komunikazioa. Azkenik, esan oso gutxitan sartu behar izan genuela, bai Felix-ek bai neronek ere, elkarrizketan, eta kasu horiek baino ez direla aipatuko transkribaketan, gainerako guztiak noren hitzak diren zehaztu gabe transkribatuko direlarik.

Gazte denbuan, lokartu eta, jarrita olexe lo, ta oi agi(r)i ez nitzela ta bueltaka etortzen dok ta ni sukuldien lotan. Mooittu, prestatu, biyok faten geittuk eta auetan, Biastaneko txerriyek ataazi zotolako Abetako arpeti eta ayen abriguen biyok jarri eta ordubet o geyao atzia beix lo ein da, gio Minkuluaa arditaa.

- Biyok?

- Ez, zia! Ioitzia! O, etxia andi?

- Ta gio Etxarria festetaa beix!

- Bai, gio Etxarria bazikiet! Beya ez giñuzkien Minkulueño ellaatu!

- Ta gio ze ein giñun, baa?

- Ez tok esan orrek, orrek, orrek? Abetati atzia bueltatu ta etxia etor giñela. Ni Minkuloko errota geiñen nion da, atzia beix andi bueltatu ta etxia etorri ta ...

- Gio sega?

- Etxarria atzia beix!

- A, festetaa!

- Ez, zia! Festa bigerren goize auben da!

- Etxeberrikuaik gittuen parientiek!

- Bazkaiya Etxeberriko etxia, o? Bai, zia! Atsaldien Etxarrira!

- Oiño Tomasaakin asteko (i)onitzen baa?

- Bai, Tomasa! Tomasa ...!

Galdetzailea: Ligetziaa ango plazaa, e?

- Seguramente pasia fatiati ardiyek utzi ta, ou!

(...)

Galdetzailea: Ba, seguro Ttardeen etxien pixeittia sartu ziñela!

- Ez pixik ez nien eitten!

Galdetzailea: Baakizu nun zoon Ttardeen etxie?

- Pixik ez nien eitten!

- Txardeena, zeñena? Ttardeen etxia jakin ez, etxe asko zizkiet Etxarrin beya ...

Galdetzailea: An, kioskuen kara-kara!

- A, kioskuei kara-kara! Ttardeena ...!

Galdetzailea: Bazoon an Maizen kafeteiye ...? Ba, arren aldemena!

- A, ura ta gio bestiek e, ittuen e ..., Alpagattero ta!

Galdetzailea: Ez, ez, aik bestaldien ...

- Zirkulo? Zirkulo goitti diok! Bu, tokiten zio! Garayartan ..., zirkuluen! An bizi giyuen e, yee kintuarren, Joxeen, andria ta, Telesforo de, ez guen bizi an? Telesforo karterua ibil zan ura ta, igual ik ez tok ezautzen kartero emen ibilliik! Joxe ..., Juan Martin da ...

- Ba, Juan Martin bestaldekoa dok!

- Beltza, bai. Aik Jakanekuek, beya onek baukoa laun bet ibil zana kartero, oyena, Galartxanaaki ezkondata, Joxekin! Ganboa, Joxe, bietza moztuta ... Bai Murilloinak! (...) Bestiat an bizi zan, ura Telesforo, Telesforo karterua. Ta Telesforo, ez ziñun ezautu zuk ura?

(...)

- Urbasaa lanteira fan ber, ondo jotzia ta ... San Klemente, biyamuna oo ze izein zan da, Lizerrara fan da, asten geittuk biotzen da, kamionain espia guk, ta kamiona pasatu ta, guk autzi pasatzen.

- Ta Alasuti suminstrueikin fan da oik oindik Lizerraan!

- Azkeneko kamionaike Manuel Arbizukua, il guen ura dee, onek esan zien il zala ta, arrekin mekabuendio ..., juxto juxto Zalbidia ellaatu ta kargatu ein ber arri! Ez zokien kargazaleik ...! Arri kargatu ta andi moitziako, bargura (¿), edios otza ...! Jai nion beya ni ez geyau Lizerrara, esan nien: ni ez geyau!

- Fan eiz ba, makiñaat aldis!

- Bai, Lizerrara fan nok, beya festetan ez! Etxarria askotan, beya ...!

(...)

- Liyueina eitten uen. Bueno, oi zarrau dok ni beño, ta esankoik nik beño obeki. (...)

- Len eitten uen erein, ta gio zeinñetati atia beix eta ontzen zanien, eskus dena, paxoka lotu, olako paxuatzuk, beraikin lotu eta taka-taka, taka-taka autzi eta paxuen idui. Bai, zuti jarri sekatzeko pixkeet, gio urren mazkillek, mazkillek ein ta etxia ekarri, etxien aziya jendu ...

Galdetzailea: Mazkillek, zer zien?

- Mazkillek e, paxuek! Balak bezela, ... ez!

Galdetzailea: Balak bezela?

- Ez, eskutiek! Eskutiek ttuk oyek, beya gio, aik ekartzeko ... Ez, exkutatekin eitten ittuen eskus ataa eta arrapatzekuen olako, olakuek artu eitten ittuen, aik lotzen gittuen ta aik denak zutik lotzen gittuen. Atai biyertio ola! Gio eitten ittuen aik, zortzi o amar paxo o lokesea, len esan daun bezela segatia eta ligertza aikin lotu, lotu eitten ittuen aik. Eta lotu ta ekarri etxia, aziya baakik, bidien galtzen bazan oyu zion. Etxia ekarri, iruzkiten puxkeet idui eta aziyura jendu. Ol baten geiñen, ol bat jarri ola ..., eta emakomiat o gizeki bet atzeko aldien jarri ta plaxta, plaxta, plaxta aziyura dena jendu. Ura jendu ondorien ematen giñuen ..., zuek ibeiye esaten doozie, ubeldiaa. An putzu aundiina billetu, utsien sartu, arris kargatu, bestela jaso eitten zian ba. Uts gutxi (i)oten guen beya alaae jaso eitten gittuen. Arris kargatu ta an amabost ogei egunes gutxiines idui. Andik ataa eta, an larre baztarrien o demonio, sekatzan. Zutik jarri atzia beix ta sekatzan. Eta sekatu ta etxia ekar biyuen. Etxia ekarri eta beta zionien, neguben o negu sarreran oo, ura ... ze izen zakiyon arri? Denak pentsamentuben nizkuen da orei ...! Mellu aundi bet ('gabiya' izena duela esaten didate geroago) alako egurrekua, alturontan, makil bet sartuta ta tablon baten geiñen o olako oitekuaten geiñen, olakuatien lotu ta taka, taka, taka, taka, dena jo, kaskalura jendu. Kaskalura dena jendu eta gio garba esan daun ortan, baa, or pasatu ta arrek jentzen zion kaxkal guzia. Ariya gelditzen

guen an bakarrik, ariya! Esan duet, an diok gu etxien oiño, nei book (i)akusko duet. (I)akusko duet! Olako rolluat einda diok, emaingo duet!

- Bai, eskeintzia ez tok bastante, e!

- Ematia rez!

- Nik ee, don Julio Etxarriko beteinayuarri eman nozkion mulubek.

- Eta andik ariyek eitten ttuk. Amin zarrak denok, amin zarrak eta gazte garayaiten, denak, jarri monton batien arro arro arrua denei, ta ..., katxarruarri ze izen zikiyon? ('Ardatza' dela esaten didate gero) Ura, ura, makil betekin (i)ooten zan ura!

- Lileiya!

- Bai! Eta bestiari? Ixipubein moukua! Apezain ixipubein moukua, eskuben bueltakan ariya eitten ... Guatzieen mendderia eitteko, baakik zenbat ari biguen, e? Ta ura eitten ibiltzen gittuen an, lau o bost andre an, bata jota kantas, bestia negarres ... Ta aik eitten ziyen lana. Gio pasatzen ziyen orraziyen, e? Orrazi olako esan doten artan. An dala usteot guu etxien ura ree oiño! Zorriya pasatu eta ematen giyuen. Zenbat entriatzen giyuen? Ura, auntzalia esaten zikiyuen. Guatziaako mendderiek eitteko autza. Ta andi ekarri eta latz-latza, ipurdiyek ee miñ ematen zien, be(y)a geldi. Baa liyuen lana ola dok! Artu ttik denak?(...) Aunesko mendderiek oik ttuk! Auneskuek, naturalak! Beya aik iyuen uden freskuek eta neguben bero. (...) Liyueinak artu bittuk! (Esaiera) Baai, klaro! Liyua matxaka-matxaka eitten guen da (...) Iru bietz lodi olako tablon bat, e, moztu, tamaño ... zulo erdiyen kiderra sartzeko ein, da arreki iru o lau laun danbata danbata tontuena eitten antxen.

(...)

- Guk e etxia bertan dokiau, e?Atzamarkan berba fain geittuk! Onek, e, zuek eta onek ...! Gue etxien pastardan badaula lekuba esaten ziot inbuluzkekan fan baai!

Galdetzailea: Pastarda? Zer da ganboikue?

- Ganboikua! Pastarda? Makiñaat Etxarriko feriten auen pastardan ..., lo ein da gustorasko ... Orei ezakela pensatu agotza ta belarra ta billetuko ttukela, e?

(...)

- Emen ioten beiz geizkixau o obekixau ...!

- A, bei, emen ioten baneiz, biziik niok!

Galdetzailea: Prisik eztoo, ezta?

- Ez, ez!

Galdetzailea: Osea, garayartan Etxarria faten zieñien meikubaangana!

- E, ez, segun zetaa! Ni ellaatu nitzen , e, don Jose Luisengana ..., Imakuladak e ..., ipurdiya yosi o erre o, neskato txikiya guen e, au Mikelanekue, eta arrekin, eta nerau don Tomasengana, belauna ebai ta, Txagorin, Txagorin belauna ebai, Bekolaa oñes jetxi eta ordubean ezan ibillen ez kamion eta ez ostiya, oñes Etxarria belauna ebaita!

(...)

-A, nik ezikiet noiz jeyo zan ee, zengati ni basuen nion da ... Urbasan ... Auen etxia erre zanien. Auen etxia! Auen etxia ez ..., ez tiet aztuko, zengati ura biyamunien jeyo zan da, etxia erre zanien o bezperan, Freidenekua!

Galdetzailea: Jolaneko etxia erre eta apeki ibildu zian Kastora ta ... zeñ ee, erris erri diruba biltzen!

- Bai, gerra ondorien! Bierko zien zerbeitt ein! Garayaiten bierko ta ...! Ondorien e ibil giyuen da, ibillen ttuk beix ee ...!

-Juaniteiki bi lengusubek! Goñi ta Ollo ta oik denetan bazikiet nola ibildu zian biyek! (...) Urtiartan ezan belarrik etxien!

- Klaro ez zegola! A(g)otza! Gariya bai! I, gariya latzak urtiartan!
- Eztikiet gariya, beya belarrik ezion urtiartan! Akordatzen nok ni, mekabuenla ...! Ni belarra kargatzen larrien da ..., Jolaneko etxia erria ta, mekabuen autzi larriek eta ...
Galdetzailea: Beya ordubun etzion trilladorik eta ezeez!
Nola ez ziola! Garayartako baziyeen ogei urte trilladorak etorriik ta!
Galdetzailea: Jolania erre zaniene?
Bai, bai.
(...)
- Istrasa, entresiya ...!
Galdetzailea: Guk istaasa esaten doogu!
-Zeiñi, auntsikuorri?
Galdetzailea: Bei, auntsikuorri!
- Intresiya!
Galdetzailea: Alako arribetzuki azpiyen?
- A, arriyek! Aik garai betekuek, beya gio zerrak, gio zerrakin! Aik intresiyek! Gio beste ..., aittuek? Beste ... istresaat! Ago ixilik, endio! Beste istresaat ataa guen sorokua, soruako! Soroko kozkorrak austeko! Olako burnisko ortzak, ik ezttuk ikusi? Gue estariyen an diok, or onkook oiño! (...) Idiyekin ibiltzeko soruen, kozkorrak austen! An diok gue etxien, nionek einda lizerraakin, beya goneskio pipiyek janik ionen dok.
Galdetzailea: Beya an izein da, ez?
- An daula! An dau! A, debalde emain diot, museua jarri berbaizie. Beya matielia ezpaukua izurretuik ya! Lizerra zuen, beya lizerra re jan eitten da! Ortzak olako kakuatzuk, ta elegante, e! Ze klasie zian? Yerro kolau! Oori dok, yerro kolau! Ezin akordatu noin yerro kolau! Nionek einda, antxen! Gio tornilletu ta, espezial!
Galdetzailea: Zuek, Kristuel, ibintzetan ibilliik zorie!
- Ibintzetan? Beyek janaazten, bai! (...)
Galdetzailea: Ta ni ibintzetan ibilliik nau, ta nolabeitt oso gaxtia nitzen ba, ni ibiltzen nitzen ba, kasueitten oo nolabeittere, beya zartxauguek ibiltzen zian ba, zaparrien su eman da, janak jan eta, zapar tartien beste gauz betzuk eitten zian, nik ez zengati ni gaxtia nitzen. Beya gaxtia nitzen, beya zuek e ibintzetan ibillitakuek zarie, e!
- Orei esan biuzut nik bestiat zuri. Dorouarrak e, ezkontzen zianien, esaten zien “ibintziek zabaldu ttuk!”
Galdetzailea: Etxien ezoon lekuik, oo?
- Ez sobree! “Ibintziek zabaldu ttuk”, ezkontzen zianien!

7.4. Herria: **Dorrao.**

Transkribaketa: *Pedro Lizarraga Senar (90 urte), Florenzio Marin Galartza (81 urte), Jose Lizarraga Senar (80 urte), Joakin Lizarraga Lizarraga (76 urte), Patxi Lizarraga Senar (63 urte).*

Eguna: 99-9-25

Pedro: Orbeletaa, eta ein zakiyon karrua itzuli, (...) bueno iguel dok, eta esan zoonak: ‘Aitta!’ ‘Zer diok?’ Eta: ‘Karrua itzuli!’ eta ‘Endeitze autsi!’ ta ‘Ezaa azpiyen eroi arrapatu?’ Ta ‘Ez!’ da ‘A, kotxino, ezaa arrapatuko, ez!’.

Galdetzailea: Ta gazte denboran eta, len esan dezu kanpua ta faten ziñela asko, lania o ola? Nun ibildu zarie, ba?

Florenzio-Jose: Emendi tronza, borra, aizkora, mantak, jana inklusio, pikatxonak, barrenuek eta, alogiyek o patatak eta, denak artu ta Aranzaa fan giñen txandaatien. Eta txabola ein bier gaubiako! Eta zenbat lekutaa ola!

Galdetzailea: Beye zetaa faten ziñien, ba?

Florenzio: Basua laniaa! Basuek artu, ta bota, ta txikittu ta, matiele apartatu ta ... zuu aittek bazaizkien bei oik!

Pedro: Oseake, orren aitta, aittaiarreba, ta aittuna faten zian, e, aittuna beyeki, ta semia idiyeki, eta aldapaatien ezin ataa ta geldittu zian, e, aittuna ‘pues como es natural’ atzeti, beyeki, ta ezin ataa ta karrua eta faten dakiyo aitta ta ‘Qué, ¿tienes miedo padre?’, ta, ‘Nooo, ¿y uste hijo?’ Ta bestiaat, atziabeis aittek semiei esan zoon partiziek oyi, ta esan zoon: ‘I, Azio, ator onutza! Mandatube dakiet eta. Fan biok eta atorri lixto!’ eta, a, anka jaso ta iyoi ezta kasoik e, semiek, eta ‘¡Mekabuen tu padre kotxino!’ Aittek semiei ‘mekabuen tu padre kotxino’ ta, bestiek aldemenien zazkan da, farres lertu bierrien! Ta gio, tabernan dee, baakik, e, semieki ta musiako izugarriyek zian eta eateko debei, aungi ta, esaten zun, ‘Dio, Gregorio! Benga, benga, ean ardua geyau!’ ta, ‘Aiba!’ eta, ‘¡No!’ erdias, e, presumittu bier ba, zerbeitt eta esan nuen: ‘¡El embudo tiene buena pasa pero la bota no coge!’.

Galdetzailea: Eta or basuen yooten ziñenien eta rantxuaa otseitteko, ze ... garraxi bet ezebien botatzen?

Florenzio: Baai! Arri otseitteko, rantxeruek to-to otseitten zuen. Ooooooooooup! Kuantu basuen aizala indiyuein bat oo!

Galdetzailea: Denak rantxuaa!

Pedro: Baai! To-to otseitten zuen gareyen, ooooooooooup! Bueno ba, ‘a comer todo el mundo’. Denak autzita!

Galdetzailea: Oseake, azkenien ‘eeeeup!’ eitten zeen?

Florenzio: Bei! Bei!

Galdetzailea: Ori Etxarrin, eup! ‘jaauup... erie!

Florenzio: Bei! Jaaup akaatzen zan, bai, jaaaup! Al zuenak, e! Denak ezuen baliyo ori eitteko dee!

Galdetzailea: Ta, ze jaten ziñubien, ba, basuen?

Florenzio: Buau! Jana, nezesidedeik ez giñuen egoten beya, arraziyo gutxi!
 Jose: Arraziyua bateez iguel! Denboretan!
 Florenzio: Ezeez arraziyoik iguel! Jeiten e, ...!
 Jose: Uda guzien basua fan da ezere probatubee arraziyoik, e! Babak, ogiya ta ardua! Ta ura neiko ematen zuenean, e ...! Ogiya dee, exkax, exkax!
 Florenzio: Zu, Pedro! Nola Brinkolan ibilli ziñenien zuek iketza eitten, au e, ze egurre klase, nundi sortu ziñurien urdei ura?
 Pedro: Oi? Oi? Barzelonati oo, eztakit ze ekar zuen!
 Florenzio: Olako lodiera, e? Urdeya! Ta dena zuri-zuria! Dena zuri-zuria!
 Pedro: Etxarriarra giñun ba, bestia, ze izena zakiyon ...?
 Florenzio: A, Franzisko Mari, beko etxeko, e ...
 Galdetzailea: A, Dorrouko etxekue esaten dooguna guk?
 Pedro: Bei, ta faten giñen ...
 Florenzio: Franzisko Mari? Besteen semia dok, Joxe! (...)
 Pedro: Semiat badiok Joxe! Askok akordatzen neiz mutillura ta ... Untxilla! (Etxarriko etxe baten izena da hauxe, Unzilla abizenetik eratorria) (...)
 Florenzio: Baai, beya aik, e, Ataun aldekuak ittuen! Amiña, amiñein partekuek, Joxepain amain partekuek!
 Pedro: Beko etxeko ... Karmen, nola da? Ta arren ama! (...)
 Florenzio: Bueno ba, urdeyura esaten ye izein zala jamon, e, gastiyoi zer da?
 Galdetzailea: Iberiko! Jabugo!
 Florenzio: Bei, ori! Arrek emen do dena gizona, e, erdiko zinta, dena gizona!
 Galdetzailea: Gizona dexente daka, bei!

7.5. Herria: **Arbizu.**

Transkribaketa: *Diburzia Lakunza Zaldua (75 urte).*

Eguna: 2000ko urtarrilaren 25a.

Galdetzailea: Irune Agirre Mendinueta (Diburziaren iloba).

Diburzia: Esto semia, epiletikua zen ta atakiek eitten zazkiyon ta beti ni porsiakaso, ni bintzet, kargatzen da gauzetan beya, ura gio kazaa ta fateko ta, faten zen kazaa bei, beya bestaldia guu aizpaaki biyok, Juliaaki, geyena, geyena. Ta or, e, oik Juliaaki, ta ezkondata bex geyoo, bat artzei, bestiek, e ..., Legazpin, bestiaat fabriken eta nor ta ni, ta aittuna beix, aittuna, aitta, gauz etzena, aittuna zarra, ze esan bidu geyoo. Geyena ni.

Kontxi fantzen elizaa, launbeta, garbitzia, ni itxien eta pakete prezintatzen, e, Bitoiyen zion Juan Mari ta arrek e, Kondianak o man bizubela ta, gosaya, ez, paketa prestatzen ai zela amiña, pues, gio ze izen da, bat e suba, bestien kiek Tomasen txeti, gu itxiaño allatziako ataa giñuzkiyen guu gauzek bei, ataa giñuzkiyen. Beya nik eztakit nok eman zittuben Kapadorren txiaño ta zu. Atxonia bei, Atxonia eman emen zittubien koltxonak eta gauzek. Ta suertia Kapadorren txia beix ordubien eman emen zittubien sekuleko gauzek, ta labadora beix galdu zakiulakos an azaldu zen, guia. Eta gio ontan, pues e, klaro, etortzen e, Jose Mari, nobiyua, orrena, Milagrosena, eta etortzen da, sekuleko, baakizu, niarrak eta ordubien e, oondu zen egun batzus an, itxien, beya ze ein bizuben, ezion ezere eittek ta, osea, atta bierrak atai zauden, eta orrek e neeki, esto, Etxarriko Kisostomoon e, zer da ure, ze izena du Kisostomoon arrek, izena eztakit beya Etxarriekuek bintzet e, esantziun, e, diruba paatu

biaubenien urtekua, e, itxerriarra, esanziun: ‘Tiburzia! Ez, ez apuretu! Zu, ezayela izen, beya zu erretzen baakizu etxia, zu ataako zaa!’ Ataako zaa ta, ein, gio etorri, ura mutilla, ezta baa, ta nagosie etorri ta ze ein zion, deskuentos, feate, deskuentos eintziyon, eta gio beix, atzia kontuba diruba ematiako, andi re jendu ein ziun, gui ein zittun beya ‘lo que nunca a nadie igual le habrá hecho’, ez, zeengati, nik auskias, arrek erdias eitten zuben, Irurzungo gizona zen an ooten zena, pues, eta nolabeittere, ura de arrittuik, ze bajak ze jentzeko diruba zenbat, e, jarri zittun, ta oso disgustora, oso disgustora, gui ein zigun bintzet ‘la mar’. Diru jentzia, diruba geyoo artu bigiñubena, gu paatuta esan ziun bezela, ez, lasai ooteko, lasai ooteko, ez giñela, ez giñela apuroik iruiko, dirubaaki kobratzen, su dirubaaki, diruba artzen duuna.

Irune: Bee oik, itxek erreta gio?

Diburzia: Itxek erreta! Eta gio ze ein, batek jendu, bestiek jendu! Ta eman nion Uberteko, oi, baakizu, Uberteko ez, Irurzungo gizon bat etortzen zen Arbizuko bankua eta nik esan nion, ola ta ola esan zien, guk anbeste paatzen giñiyen ta guai ikusten dun ze ein diun? Eztion deretxoik! Gui jendu ziuna, osea, jarri berrien e, diruba, e, jendu ein ziun. Eta gu amurraziik, ‘a la madre’! Nik geyoo oneki paatziako diruba, ‘ya se morirá’, illen da, ta ola, ta ola, guk eman diruba, zinzo, etortzen zenien, ta txapela jentzen baazu re, eztezu lotsaik iruiko, Aai, gezurtiya! Esan bei, paperak ein, beya ordubien e, pasatu giñuben ‘la gaita’!

7.6. Herria: **Lakuntza.**

Transkribaketa: *Felix Arregi Razkin (66 urte)*

M^a Jesus Razkin Eraso (63 urte)

Eguna: 1999ko maiatzaren 20an

Galdetzailea: tesigilea (etxarrieran)

Galdetzailea: Or plazan asieran dakazubien pikota o ori, zetako izeten zan?

Felix: Ori, jendiek aorkatzeko! (...) Nik eztut aittu! (...) Ba, bei, jende geixtue o, zea arrapatzen zubiena, or, or aorkatu!

M^a Jesus: Arriyek bota debei, ez? Arriyek bota ta ...

Felix: Bei, bertan, bertan krixtoonak eman da il, bertan il! Ori bei! Ori aittu giñuben, beye bestaldia nik ...

G.: Ta Santa Ageda ta, yoten zan emen ola, oitture, kantatzeko, etxes etxe ta ola? O kintuek, o?

F.: A, kintuek bei, or ibiltzen giñizkieben denok!

G.: Ta nola eitten ziñubien ori?

F.: Ori, pues ibiltzen giñuztien itxes itxe, ibiltzen giñuzkieben da, diru puxkuure biltzen giñuen da, dirube gastatu, ta akordionen bat o balin bagiñekan, aiki kantatzen da, dantzan da ibilli ta itxia! Besteik ezeez, osea, arrontziek bildu, arrontziek e, jan, oin amiñen, e, barrien da fuera!

G.: Ta zenbat egun eitten zien?

F.: Iru! Iru egun!

G.: Ta zenbeitt, e, jantzi, ola, bereziinbet o, eziñukien?

F.: E, zerak, jazten ibiltzen giñuztien, sobrekamak! Guatziei jendu sobrekamak aidien, neskatuei segiken.

- G.: Kintotan?
 F.: Kintotan! Bei, e, Santa Agedai, esan dukena, Santa Agedan!
 G.: Eta kanta o ola, gauzen bat, eziñubien kantatzen?
 F.: Be, batee! Guu garayen eyuben (...)
 G.: Eta gero iyotetan, karnabaletan?
 F.: Ori baa, iyotiek ai niok esaten, iyotiek! Osea, kintuek eta iyotiek, denak bat yuben oik!
 G.: Ta iru egun!
 F.: Iru egun, bei, iru egun! Pasten giñuztien, bai!
 (...)
 G.: Gero, Etxarrin badoo dermiyuen, izen bat, dermiyo izena o, basuen, e, Lakunzarragalduzanzulue! Eztezubie ezee aittu onetas dee?
 F.: Lakuntzarra, e, emen bai, Txepetxa o, Unenukuen bei, or bei, galduuben, Unenuko basuen! Il ein zien, o unenuarrak, o ilzubiela, Txepetxa!
 G.: Txepetxa, izena?
 F.: Bai, beye ortik aurria ...
 G.: Bueno baa, kontatu nei dezuna!
 F.: Bei, ze kontatu bidiet baa ...
 G.: Baa, istoiren bat o, dakizuna o, olako lengo gauzen bat! O nola zan biziye, o nola eitten ziñubien ...
 M.J.: Bueno, biziye asten baa kontatzen, ratuateko baaka!
 F.: Bei, gauz aundiik eztakit ze kontatu biaut nik ...
 M.J.: Ibilli zaana zeran ..., lorrien da, lorrien ibiltzen zen, lorrien iriyeki!
 G.: Iye baa, nola zan baa lana, lorriena, ori?
 F.: Iriyeki ibil giñubien A(r)alarren da, biyer, biyer ta etziko egunek, nee kunpleaños egunien, adarra autsi zien iriyek, adarra autsi zien bei!
 G.: Ze ein zeen?
 F.: Adarra, adarra autsi, bei!
 G.: Adarra autsi, e?
 F.: Bei, adarra autsi! Eskapo ein zien iriyek, ta adarra autsi zien, da etorri nioben itxiaa, ta aittek krixtoonak o, bota ziebien da, beex, beex bei bet lotu, iriyeki, osea bi iriyeki jatxi nioben Guarda Itxeti, ta beex iriye ta beyaaki beex A(r)alarra, lania beex joan nioben, bei!
 G.: Ta an ze eitten ziñubien, baa?
 F.: An, e(g)urra, e(g)urra ataa kamion batendako! Guarda Itxaa!
 G.: Ta nola eitten zan, ze ...?
 F.: Osea, dena aizkoraaki, aizkora ta tronzaaki, ta burniziriyeki, an kargatu ta zeraa, pixtee atiatzen giñuen, bei! Bei ta unenuarrak baittuben beste bi laun o, baittuben bei, nik iriyeki ta aik kargatu, ta nik iriyeki ataa.
 G.: Ta lertu ta ori, e, ...
 F.: Burniziriyeki lertu e(g)urre. Baai, borra ta burniziriyeki, bei!
 G.: Ta gero ze yaamaten zeen, uzterritti zerbeitt arrastakan?
 F.: Ze? Uzterriyeki, pues, arrastakan iriyek e, trunkubek maten giñizkien, osea, karrueki, ta gio arrastakan ebei, e!
 G.: Ta arrastakan ..., ori zan lorrie, ori?
 F.: Lorra, bei, lorra!
 M.J.: Ori lorrie esaten zen, bei!
 G.: Ta ze eitten zan, tieferra o zerbeitt sartu?
 F.: Tiaferra ta zera ..., dio, tiaferrak ta ataa eitten ittuben da ...

G.: Beste izenen bat zakan?

F.: Bei, eitten giñuen biarri, arbolai eitten giñuen zuluat aizkoraaki!

G.: Ta aizkoraaki ta asko ibillitakue zaa?

F.: Aizkoraaki, arreki eitten giñu(b)en zeatu, punte zeatu, ta gio bi aldeti aizkoraaki zulue. Ze izen zuben arrek, laostia! Zuluat eitten giñuen da andi ya segurue yauben! Tiaferrak ataa eitten ittuben. Tiaferrak, aik, e, golpeen bat o eitten bazuben, adios! Ataa ta beti, beti, lorraat atzien uzten zien, iriyek, bei!

(...)

F.: Ixtodie elurretan da, elurretan, beti bertan ibilli giñittuben beño, e! (...)

M.J.: Elurretan joaten ziñen formal zaraaki, exkixipee!

F.: Bei, exkixe, olarretaki! Olarretaki joan da olarretaki etorri, je!

G.: Zer die oik, olarretak?

F.: Olarretak, e, zeraatzuk! Olaaki einde! Lixtonaaki, lixtonak! Lau kantonekuatzuk, ola!

M.J. Zetaan forma kasi!

F.: Ta ure lotu krixto bekela (sic) (emaztea harritu egiten da “bekela” “bezela”-ren ordeaz erabili duelako) ezpartubeki ta, bei eittuben baa sartzen elurrien. Aiki, bei! Olarreta dik izena arrek!

G.: Olarretak?

F.: Bei!

M.J.: Au, e, exkixek pezela, orduben olarretak!

F.: Bei, e, exkixek, exkixeki ibilliik nau ni! Exkixeki ibilliik nau ni, baño, sokaaki lotuta! Ta zatak! (...)

M.J.: Bizkerrien eziñuen baa eman bakarren bat, elurrien? Aldemenau?

F.: Baai! Bizkerrien ekarri nuben nik oi!

G.: Ze gertatu zan, baa?

F.: Ee, ataa giñen biyok txerriyeki, txerritee ta, ba segiduen nee aurreti, aibadio! Ni baa, ze ein bediet nik oneki gaur? Ni joango nauk ni onen atzeti trankilo ta, baa, kilometruat garneko ... zan, jarri zazkizkion zerak, auje jarri emen zion da adios! Ni elurrien egun guzien da, bueltan guañi, ni bueltan utzi nuben, baa. Gio pensatzen nuben, mekabuen, iye gizonau illik dekaten! Alee de bastante bien opatu nuben da, zuti opatu nuben da, bizkerrien ekarri nuben Tejeraiño, bai! Gio artu kotxien da, etxiaa! Baai! Iru egunes ezen ... fabrikea joan ori, e!

7.7. Herria: Arruazu.

Transkribaketa: *Matias Lizarraga (Arruazu)*

Eguna: (Oihana Zubeldia Jaka arbazuarrak emandako grabaketa dugu hauxe. Duela urte batzuk egindakoa, eta dagoeneko, zoritxarrez, joana zaigu Matias Lizarraga. 1989an, 92 urte zituela, hil zen, eta urte batzuk gutxiago zituen Patxi Satrustegi arbazuarrak grabaketa egin zionean).

- Urtien asieratik asteko lendaiziko asi ber dia urte berriyen.
- A, bei, bei, urte berriye, obe!
- Mutillen festak! (...)
- Ta, noiz ospatzen , o noiz zelebratzen zen ori, urte berri egunien?

- Urte berri egunien, egunien, egunien, mutillek asten ittuen urte zar egunien, tripota zopa jaten ziyen ... urte berri egunien mutillek beti ... ayuntamentube ta mutillek, danak!
 - Ta geos juntetzen iyen ayuntamentuba ta mutillek, o bakutza bee alde?
 - Ez, ez, bakutza bee alde, ayuntamentuba bee alde, mutillek ostatuben, ... dena bat, geo sepaatu giñuzkiyen baa, gu mutille sartu giñun urtien sepaatu gittuen. Or izandu ziyen ostatuben, e, dozena erdiin bet o, eztakit zer, eziyen karaik ematen bestiekin ta, gu mutilletan sartu ber, Pedro Martxonekue eyuen ezootu, Zelestino bai, Pedro, Maximo ta Zelestino, iru sartu giñuzkiyen gu, ta musika jartzen zen garayen, esijitzen ziyen e kittar bat o, musika o zerbaittere, kuadrillek esijitzen ziuben gaztiei.
 - Zuek jotzia!
 - Jo ez, erostia!
- (...)
- Ta ze adiñetan sartzen ziñiyen?
 - Amazazpi urte o!
 - Ta ze obligaziyo zien orduben?
 - Ori esaten ziñuben baa, guk sartzia pensatzen giñula, beya ze, iya ze eman be giñon an mutillairi, zarrookuei, kuadrilla aundiyei, kittar bat falta eitten ziola, eziola kittarrik, fundementuskoik, eta kittar bat eros giñon guk ...
 - Eta beti ori izeten zen o bestiatzuten iguel beste gauz betzuk?
 - Ez, ez, bestiatzuten beste gauzeet, klaro! ...
 - Zu ta kuadrilla, launen bat bazion mayordomoik? Mayordomo o beste izen bat!
 - Aldis, bai, esaan diet ori! Festetaako ta, por ejemplo urteberriten botako itten, errege egunien botatzen ziyen botilleruek, bi mutil, ardue partitzen ziyen aik, a eskote izeten yuen arduura ta orrenbeste egunes, por ejemplo ze egunetan asiko yuen eta segittuko ziyen Santa Ageda pastu artio, botillerue, bi botillero ta beste bi danbolin billezaliek izeten ittuen.
 - Danbolin billezaliek? ...
 - Iyebarren biltzen yuen danbolinterue. Eyuen beste musikoik ..., ure ibiltzen yuen erriyoiten denetan, Fermin ziyen izena.
 - Ta ze tresna, ze musika klase, zer zien?
 - Danboliña ta pixtuba! Arrekin eitten ziyen dena, arrek jotzen ziyen zortzikue, arrek ziyen porrusaldak eta dena, dena!
 - Orduben zien bi botillero, ori ta, mayordomoona, ezootzen duzu ori, ezootuuzu, o ze izena zokien o?
 - Aik nonbratzen giñittuen bi, suertia botzen ittuen bi mutillok, zein izen ber zuben, kartekin, ta aik atratzen zien garayen, pues, bazakiyen dena, botilla artzen yuen, San Saastin egunia asten yuen, anixetuba ematen yuen San Saastiña, ematen ziyen aik, botilleet o bi anixetu ... Denak mezati ataa ta ... lerreñik nion beño, an eaten giñuen dena! Ta ... jarri ta itxiaa, ta egunartan, San Saastiñ egunien ardua atsaldien eaten yuen, ‘a eskote’, e? Aiki manejatu ber ziyen, arduura eaten ziyen, partitzen ziyen da, kontuben artu posaderuei, ta geo Santa A(g)edetan kontube sartzen yittuen oik ardua ta einzien gastu, historia guziek. Ta a eskote paatzen giñittuen ...
 - Ta orduben denak orrenbeste paatu ber, ezta? Bakuitzek orrenbeste!
 - Orrenbeste, orrenbeste ... Reparto botatzen ziyen ta, a pagar! Geo Santa Agedetan, pues, bezperan asten yuen, tripota zopa, eta tripota jakiña! Tripota ta geo aragiya debei zerbeitt, ardiyek iltzen ittuen orduben, ardiye uen merke, eyuen txekorrik! Geo, onen ondorien, etortzen yuen San Juana ... Beti barietu izenduik or. Barietu, egunek, egunek

baatik, gaizumek ibiltzen dik eta, baño ordubean de itten giñuen konpromisuak posaderueki ...

- Urte berriean asierati?
- Santa Ageda, urte berriya ya aparte izeten yuen. Arren da kontuba sepaatuba itten yuen. Santa Ageda asten yuen mutillek, eta ayuntamentubek ebei, Santa Agedan izeten yuen ... Bai, espliketzeko bastante zera da baño. Ayuntamentube Santa Ageda mutillei uzten zizkien iru egun pasatzen, Alkatien itxien, jeneralien faten yuen eta eran ta kontuba aik been kontue itten zu(b)en, aik been kontube ziyen. Beño mutillek eitten ziyen iru egunetaako 'a merio duro por dia', auskias entenditukouk ori, e? Auskias duro erdiya egunien! Duro terdiikin iru egun pasatu. Jan ta eran dena, e? An ataatzen ziyen e, tripotak eta aragiyek eta ... eta historia guziek, oin ordubean frutaik eta eyuen, ta postretako atrako yuen, o gaztanbera, o ..., o alako, itxien iñitako gauzek, baatik. Gio oiki akaatzen yuen, aik eta San Pedrotaño.

(...)

- Suertia botatzen zen bei, karteta botatzen zen, bei!
- Eta ezion or adiñen kontuik eta ezee de, bota ta ...
- Ez, ez, ezpateta, mutilta sartu eskios ya denak e, adin beraaki jokatzen giñuen.
- Ta nola ataatzen ziñuen? Nola eitten ziñuen ba, suerteta zera ori?
- Ezpateki! Bai gizona, oso erraz! Kartak artzen ziiyen e, beti izeten duk mayordomo o, beti entendituboo o, geixoo o gutxixoo ta, denak illeran jartzen giñuen or korruen ta, kartoik zenbat mutil giñoon kartak botatzen joan ta ezpata ataatzen zen garayen, fuera mutille ...
- Ta oontxe esan duzuna mayordomua o ibiltzen zela, bestiek beño geyoo zena o ori. Ori nola izeten zen, nola elejitzen ziñuben o?
- Ori, or eleziyua ..., beti izeten duk espabiletuxokoon bat kuadrillen ta, ura jarri, arri boto eman jakiña, ze eiñen due ta, ... ta denak bueno, amen. Or diskusio gutxi izeten yuen.
- Osea ke, ezen alako ritoik o, esateko ...
- Ez, ez, iruitzen zen bezela mutil kuadrillek, e, esaten yuen, ta bueno, ze eiñen duu ba, ta beti entendituxokoon bat o, tontoona eztuk baa jar ber, jarri ber, e, dirijitzeko o, administretzeko ta, ura ba, ta bueno, ein zaun ba oi, ola izeten yuen.
- Ta orrek e, erabai besteik eitten zuen eta administraziyo kontubek eta ola, diruko kontubek, botilleruek?
- A, pues arrek, e, arrek beti, bi, bi izeten ittuen, diru kontubek ta, biltzeko ta paatzeko ta gauzoitako bi laun izeten ittuen ... posaderuek ... jeneralien, gastu denak an eitten giñun mutillok ... normalien e, fonda yuen an, jo, jendiak diruik eyuen ta asko ezin iñ beño, ibiltzen zianak pixkaat an zen, beño ...
- Noiz ekartzen ziñuben danboliñe?
- Ori, Santa Agedetan ta San Pedrotan ...
- Ta, nola? Zerbeittee kobratzen zuben o, janaangatik o, nola izeten zen, nola ...?
- Bai, bai, danbolinderua ostatubean eoten yuen, an, fonda arrena mutillek paatzen zien ta ... jakiña, ala izeten yuen, orrenbeste sueldua ta janaana aparte. Ura esaten diet, Iyebarkua yuen, etortzen yuen ta, derrepente il yuen gizon ura, ta arrek ziiyen, nik uste, guu erriyortati gora, denak e, Lakuntza, Arbizu, Ergon, ta beti danboliña bizkerrien artu ta oñes ibiltzen yuen ba ordubean, ordubean eyittuen kotxeik ta istoirik, ta Lakuntzako mutillek San Saastin bezperan, etorko ittuen, bazakiyen 'poco mas o menos' ze orduten

etorko zen danbolinderuoi ta Arbazueño danbolinderuen billa etortzen ittuen, mutiko larri xamarrak, baño kuadrille aundiye ...

- Ta Santa Ageda iru egunoik, ze izeten zien bezpera, Santa Ageda ta urren eguna?
 - Ez, ez, geizki abil kontatzen. Eguna, ta bigerna, ta irugerna, iru, iru.
- (...)
- Urte berri eguneti asten bagaa, lendaiziko ekartzen ziyen u(d)sa itturritti bi mutillek gazteenak, bai.
 - Ori, zer? Urte berri egunien, o?
 - Urte zar gaubien, bueno, amabiyekin u(d)sa, itturrittik e ostatuua eateko.
 - Ta bi mutil gazteenak?
 - Bi mutil gazteenak!
 - Kuadrillekuek?
 - Kuadrillen sartu zienak, bai, aik ekartzen ziyen u(d)s ura. U(d)s ura ‘Ur goyena’ kantas e, eanas ta denetati. ‘Ur goyena’ kantatzen giñuen baa, ‘*Ur goyena, ur barrena Jangoikuek deizula egun ona*’, ta geo lendaiziko alkatien itxia juaten ittuen, ta alkatiek ...
 - Geos itturrittik lendaiziko lekuaa, ayuntamentuaa!
 - Ayuntamentuaa!
 - Kantatu ta gero, eraten zuben o zerbeittee o?
 - Bai, ure¹ eraten yuen, ura astiako bintzet eraten yuen, geo, klaro.
 - Eta nola eaten zuben ura, pegarran o ola o?
 - Bei, zeatzuk baittuen, e, pitxerak, pitxerak esaten ittuen baa, lurrekuek, lurreko pitxera beño beiñuba zeaana ziyen, berniza, fiñe, gorriye pitxera. Erriyen izeten ttuk pitxeroik, oiñ ezikiet autsi ttuen beño. Nik beti ezootu diet!
 - A bei. Ze, festetan atratzen dien e, arduekin ta ibiltzen dienoik?
 - Oik! Geo andi juaten duk apezaan etxiaa, kantatzia, alkatia ta apezaan etxiaa.
 - Alkatia debei?
 - Ez, ez, alkatia etxien gelditzen duk. Alkatiei ematen ziok, jeitzen duk eta kopaan bat o neibau bokaua artu, batzui, garayaiten ordubeta o amabiten izeten duk baa oi, amabiyek pasa izeniuen, geo andi jotzen duk kantas o, marrakas, apezaan etxiaa ta apeza ... ‘lo mismo’, ‘*Abade jauna berori lizenziarekin nai nuke kantatzen asi lendabiziko berorri*’. Eta geo ... alkatien itxien ee, geo beste ayuntamentuko konzejalen itxen ee, kantatzen duk, kantatzen yuen bamos. Baa, an kantatzen ittuen e ‘*Itxeko andria oso ona, zere doyaren gauz ona, egun auetan jantziko ttuzu, zere soiñean amar gona, txuri ederrak azpiko, gorri ederrak gaiñeko, etxeko andrea zure parerik ezta plaza bat ondratutzeko!*’

7.8. Herria: **Uharte-Arakil**.

Transkribaketa: *Nicanor Beltza Ustarrotz, 72 urte*

Eguna: 1999ko Uztailaren 29a

Galdetzailea: Zu etor ziñenien, iru urteki etor ziñen, onutz Uartia, ez?

Nicanor: Iru urte terdi, bai.

Gal.: Ta nola zan orduben erriye, Uarte?

¹ Kasu honetan eta hurrengoan dardarkaria entzun daiteke garbi.

Ni.: Jo, ordubean, adiñortan ni ze zakiet nola zen , ba! Iru urte, iru urte terdieki olako mutiko koxkor bat, nola?

Gal.: Geroxoo, akordatzen zaana! Ze eitten ziñubien txikiten da, emen, erriyen, jolasak oo ...?

Ni.: Beti bezela jolasien, ta ... eskolaa ez fatiati!

Gal.: Ordubean ezan gustokue eskola! Ta ze eitten ziñubien, ze jolasak?

Ni.: Ba, ie moduko mutikuaki bueltaka ...

Gal.: Buektaka, besteipe?

Ni.: Buektaka oo, batien ‘a escondites’, bestien ‘a hechos’, ta ola, olako gauzek!

Gal.: Ta, Aralarra, eziñien itzootzen gora?

Ni.: Adiñortan nola? Aralarra faten nittuben ni ya amabost urteki, andi gua, biorrak eta beyek uditzen gittuen da. A, esto Sanmiela zenbat aldi fan neiz ni!

Gal.: Oñes emendi asita?

Ni.: Bai gizona, ordubean ezion, karreteratik ta ezioben e, xenda, xendaatzuk!

Gal.: Ta zer ziñukien an, ganadue?

Ni.: Biorrak, eta beyek, ta auntek, ta txerriyek, denetati, pixket beño denetati!

Gal.: Ordubean ze eitten ziñuben olako egun batien, faten ziñenien goizeti autze, Aralarra, iye kontazazu pixkaat!

Ni.: Ze, esto, faten gittuben e iyendetan ta, iyendetan ta aste erdiyen mutxilaat maize artu ta txerriei ematia, jatia ematia, ta aste guzien, ba soruen altxorrien da denetati.

Gal.: Altxorrien, ze zan?

Ni.: Soruen eta altxurrien ba, meizek eta patatak eta altxurrien ...! Ordubean eziola, ordubean ezta, ez trator eta es exkarrillo ta letxes, gio bai, etorri ttuen da ya akabos oi denak!

Gal.: Lan gutxiyoo?

Ni.: Onbre, lan gutxiyoo ez, lan geyoo zen ordubean, terreno geyoo ... Ordubean eztakik belarrak eta denak ebaitzen ziela segas?

Gal.: Ta segalai ona ziñen?

Ni.: Be, montongua!

Gal.: Eta egurre ta?

Ni.: Egurre, karo, karruaki, idiyeki, fan e goizien zortzitan o bedratzitan ta atsaldeko iru o lautan ezin torri, oso urriti, baakik ...

Gal.: Ta nola ekartzen ziñubien egurre, nola botatzen ziñubien arbolak eta?

Ni.: Ba, arbolak, ordubean e, esto, egur asko zioben lurrien e, egur zar asko ta aira fan ta karrua kargatu ta itxia.

Gal.: Ta gurdiyek ze izena zakan, o sea, gurdi espeziala zan egurretakue?

Ni.: Keba, gurdiye yuen e, orri esaten zien, emen e, gurdia an bai Etxarrin, gurdia, emen ‘el carro’ esaten zioben. (...) Lenbiziyeen ibiltzen ittuen zille, baakik zer zille? Erdiko erruedak ibiltzekue. Ejie bai, euskeras zille dik. (...) Ta ordubean yuen denak e, zureskuak, ta gio etor ittuen beste burniskuak.

Gal.: Eta txarrantxak eta ezittuben?

Ni.: Igual, txarrantxak eta gurtolak ebai, esto, o lau o sei txarrantxa karro bakuitzak. Ba, karruatzuk aik ittuen karretuan ibiltzeko, trunkuba jartzeko, egurre ekartzeko etxiako, pues lau txarrantxaki.

Gal.: Ta endeitze?

Ni.: Igual-iguala, endeitze, bai bai ziriye, borra, esto, egurre austekua, ta bai.

Gal.: Ta lorrien, nola zan?

Ni.: Lorra, lorra! Orduben e, karo, paatzen giñuen e, makil luziaat, esto, idiyei ta arreki erantsi, erantsi trunkube ta bajatu bera. Tieferraaki bai, tieferraaki!

Gal.: Sartu ure ta arreki arrastakan?

Ni.: Bai, ataatzan ezen biyertio ... Obenien faten e, boo, idiyen aurrien tortzen zien obenien puxketaat aurreroo, ta atzia beittu ta, dio, trunkube ta idiyek atzeti!

Gal.: A, bei e, atzeti!

Ni.: Jode, karo, trunkuipai errazago!

Gal.: Ta gero, aizien eta ibiltzen ziñen?

Ni.: Ez, ez, ez. Ni bakarrik nioben e, txikitan bakarrik, ta beti bakarrik ta, lana neiko banien, batien biorrak, bestien beyek, bestien e, etxien idiyek e gustetzen zazkioben e, oso onak eta ayek kasueitten, beti kasueitten ayi. Primeran bai, ta gero estreyen o estarbiyen giñokuen e, esto, bonbillaat, bonbillaat or e, sukeldiako ta estrabieko, ola kuadratube!

Gal.: A, ta klaro, zuluatki!

Ni.: Zuluatki bai! Ta gaubero itxia fatiako o, esto, guatzia fatiako, oya fatiako, ne osaba sardieki eta ongariye gentzen ta ni ola belaaki! Ikusteko bai, makiñaat jito kama txarrooki egoon yuen gu etxien idiyek beño, ta beyek, gustuaat bazien, dio! Ta gio nei sartu zian emen ta, yasta!

Gal.: Ta ganbela ta, yoonko zan?

Ni.: Ganbela bai, ganbela ta lurre ya, ni asi nitzen gareyen, ormigona bota in genuen ta ya ... Nik esan nioben osabai, esan nioben ta bueno ni ola aziendaaki lan asko dau te dena ormigona bota biau estrabiye ta, 'ez, ez, ez', egunartan goñada, goñadai esan nioben ta bota giñuen ta gio esaten zien, 'ze gauze ona ein yuen, ola oi botatzie!'

Gal.: Ongariye atiazeko errezoo ta!

Ni.: Karo, errazoo ta kama jentzeko ta ... Karo, baakik, ni orei temoso egon nouk beño lenoo de, zarrek ola oittuik zayen ta baakik!

Gal.: Makiñaat lana eindakue zaa!

Ni.: Bai, bai, bai. Karo, gero bakarrik ni, ne andriek e bastante ein zien. Ni ogeitelau, ogeitebost urte ezkondu nittuben ta etxien banikoben aittuna, osaba ta izeba, iru zar ta, bastante, neiko ein zien etxia fatie. Ta ala ein giñuen ta ala pasatu!

Gal.: Zizek eta onttuek eta?

Ni.: Onttuek ez, beño zizek, beste primaberakuoik asko, zize asko ekartzen nien nik, bai! Bai, karo, basuan asko ibiltzen denak, opatzen dik ta, baakik ze pasatzen den, obenien basuan pixkaat auriye ai den gareyen, obenien e, koño, urritti ez, beño bastante ondua ikusten ittuen zizek, e dio, or e, zize mutxille betetzen yuen te, dio, pixke-pixke afiziua sartzen yuen. Ta ala!

BIBLIOGRAFIA

- Abad, F., 1983, "Variedades dialectales y literarias de la lengua" in *Introducción a la lingüística*, Alhambra, 285-315.
- Alvar, M., 1973, *Estructuralismo, geografía lingüística y dialectología actual*, Gredos, Madrid.
- Arakama, J.M., 1994, "Uharte-Arakilgo dotrina", *ASJU*, 569-613, Donostia.
- _____, *Sakanako euskaraz*, lan argitaragabea.
- Arana Martija, J.A., 1994, "Bruno Etxenike, Bonaparteren itzultzaile eta bidelagun Nafarroan zehar", *Euskera* 39/2, 435-440.
- Arana Martija, J.A. eta Gonzalez Echeagaray, C., 1989, *L.L. Bonaparte. Eskuizkribuak, argitarapenak*, Euskaltzaindia. Bilbo.
- Aranzadi Zientzia Elkarte, 1983, *Euskalerriko Atlas Etnolingüistikoa*, Donostia.
- Arraiza, J., 1988, "Ibero. Viacrucis en vascuence del siglo XIX", *FLV* 51, 143-154.
- Aurrekoetxea, G., 1986, "Euskal Herriko Hizkuntza Atlas: inkesta metodologia eta ezezko datuak", *Euskera* XXXI.
- _____, 1992, "Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa", *Uztaro* 5, 59-109.
- _____, 1995, *Bizkaieraren egituraketa geolingüistikoa*, EHU.
- Aurrekoetxea, G. eta Videgain, X., 1993, "Euskal Herriko Hizkuntza Atlas: galdesorta", *Euskera* XXXVIII.
- Azkarate, M., 1990, *Hitz elkartuak euskaraz*. Mundaiz. Donostia.
- _____, 1999, "Euskaltzaindiaren araugintza (IV)". *Euskera* XLIV. Euskaltzaindia. Bilbo.
- Azkue, R.M., 1923, "Morfología vasca", *Euskera* 4.
- _____, 1931, "Particularidades del dialecto roncalés", *Euskera* XII, 207-406.
- _____, 1969, *Diccionario vasco-español-francés*, La gran enciclopedia vasca, Bilbo.
- Azurmendi, J.M., 1995, *Zegamako euskara*, Gerriko ikerlan sariketa.
- _____, 1996, *Ataungo euskara*, Gerriko ikerlan sariketa.
- Barandiaran, J.M., 1985, *Etnografiatzko galdeketa baterako gidaliburua*, Donostia.
- Belasko, M., 2000, *Diccionario toponímico de los nombres de los montes y ríos de Navarra*, Pamiela, Pamplona.
- Bidador, J.M., 1992, "Noticias y restos del euskera de Val de Olo", *FLV* 60, 277-295.
- Bonaparte, L.L., 1868, *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes, comprenant les règles de la prononciation, de l'accent tonique et du changement des lttres; suivie de la loi de l'affinité ou harmonie des voyelles, et précédée d'une nouvelle clasificación des dialectes, sous-dialectes et variétés de l'esucara. D'après de nombreux renseignements pris sur les lieux en 1856, 1857, 1866 et 1867*.
- _____, 1869, *Le cantique des trois enfants dans la fournaise, dans les trois sous-dialectes du basque haut-navarrais méridional, tel qu'il a été recueilli de la bouche des gens de la campagne*, Londres.
- _____, 1881, "Observaciones sobre el vascuence de algunos pueblos del valle de la Burunda", *Euskara* 2, 145-151.
- _____, 1991, *Opera omnia vasconice*, I,II,III,IV, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak, 1993, *Etxarri-Aranatzeko dotrina*, Gipuzkera, 2957-2993, Euskal Ikaskuntzen Institutua, Eusko Jaurlaritzia.
- _____, 1993, *Uharte-Arakilgo dotrina*, Iparraldeko Goi-nafarrera, 601-633, 1067-1072, Euskal Ikaskuntzen Institutua, Eusko Jaurlaritzia.

- Bynon, Th., 1981, “Los postulados neogramáticos y la Geografía Dialectal”, *Lingüística histórica*, Gredos, Madrid.
- Camino, I., 1987, *Goi nafarrera*, UEU, 313-424, Iruña.
- _____, 1997, *Aezkera: dialektologi azterketa*, Nafarroako Gobernua.
- _____, 1998, *Zer dago dialektologiaren gibelean*, UEU, 111-144.
- _____, 2000, “Goñerriko hizkera I, II”, *ASJU*.
- Campion, A., 1880, *Orreaga. Balada escrita en el dialecto guipuzcoano, acompañada de versiones a los dialectos bizcaino, labortano y suletino y de diez y ocho variedades de la región bascongada de Navarra desde Olazagutia hasta Roncal*, Librería de Joaquín Lorda, Iruña.
- _____, 1977, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*, Tolosa. (1884).
- Carasatorre Vidaurre, R., 1993, *Barranca-Burunda*, Iruña.
- Carasatorre & Erdozia & Ulaiar, 1991, *Etxarri-Aranatzko euskera eta Arañaz Elkarteko hiztegia*, Tafalla.
- Coseriu, E., 1978, *Sincronía, diacronía e historia. El problema del cambio lingüístico*, Gredos, Madrid.
- _____, 1981, *Los conceptos de ‘dialecto’, ‘nivel’ y ‘estilo de lengua’ y el sentido propio de la dialectología*, *Lingüística española actual*.
- Chambers, J.K.- Trudgill, P., 1994, *La dialectología*, Visor, Madrid.
- Diez de Ulzurrun, P., 1960, “El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828”, *Euskera* 5, 377-403.
- Echaide, A.M., 1976, “Distribución de las variantes palatalizadas y no palatalizadas de ‘l’ y de ‘n’ debidas al contexto tónico en los dialectos vascos (...)”, *FLV* 23 (163-169).
- _____, 1984, *Erizkizundi Irukoitza*, Iker 3, Euskaltzaindia, Bilbo.
- _____, 1988, “Límites de variantes léxicas en el área del alto navarro septentrional”, *Euskara Biltzarra*, 353-357.
- _____, 1989, *El euskera en Navarra: encuestas lingüísticas (1965-1967)*, Eusko Ikaskuntza, Donostia.
- Elgoibar, E. et alii, 1987, *Euskararen galera Nafarroan (1587-1984)*, Pamiela.
- Erdozia Mauleon, J.L., 1999, “Bitoriano Huiziren Manual de Gramática Bascongada (1899)”, *FLV* 82, 523-533.
- _____, 2000, “Erizkizundi Irukoitza Sakana erdialdean”, *FLV* 83, 53-72.
- _____, 2000, “Sakana erdialdeko azentuaren deskribapena”, *FLV* 85, 417-439.
- _____, 2001, “Etxarri-Aranatzko dotrina. Sakana ekialdearekiko alderaketa”, *FLV* 86, 87-110.
- Erize Etxegarai, X., 1997, *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa, 1863-1936*, Nafarroako Gobernua.
- Etxebarria, J.M., 1983, *Euskal dialektologiarako testo eta ariketak*, El Carmen, Gasteiz.
- Etxeberria, P., 1991, *Zaldibiko eta beste zenbait hizkuntzatako triangulu akustikoen alderaketa*, in *Memoriae L. Mitxelena II*, 657-675.
- Euskaltzaindia, 1985, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-I*, Iruña.
- _____, 1987a, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-I. Eranskina*, Bilbo.
- _____, 1987b, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-II*, Bilbo.
- _____, 1990, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-III. Lokailuak*, Bilbo.
- _____, 1994, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-IV. Juntagailuak*, Bilbo.
- _____, 1999a, *Euskal gramatika. Lehen urratsak-V*, Bilbo.

- _____, 1999b, *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa. Ohiko euskal mintzamoldeen antologia*, Bilbo.
- Ezkerra Belza, S., “Lan-oporrak Arjentinan”, *Principe de Viana aldizkaria*, 146 alea, 6. orrialdea.
- Fernández Sevilla, J., 1976, *Objetividad y subjetividad. Datos para el nombre de un dialecto*, RDTP.
- Gaminde, I., 1985a, *Aditza Ipar Goi Nafarreraz*, UEU, Iruña.
- _____, 1985b, “Nor-en ahalezko oraina eta joan, ibili eta egon aditzen alokutiboak”, *FLV* 46, 215-263.
- _____, 1990, “Nafarroako barietate batzutako perpaus denborazkoetz”, *FLV* 55, 165-203.
- _____, 1995, “Gipuzkeraren azentuaren azterketa akustikoa”, *FLV* 69, 297-321.
- _____, 1998, *Nafarroako azentu ereduen sailkapena*, UEU, 23-48.
- Gleason, H. A., 1973, *Introducción a la lingüística descriptiva*, Gredos, Madrid (1955).
- Goenaga, P., 1980, *Gramatika bideetan*, Erein, Donostia.
- Hjelmstev, L., 1976, *Sistema lingüístico y cambio lingüístico*, Gredos, Madrid (1972).
- Hualde, J.I., 1987, “Proto-Basque Yod”, *FLV* 49, 29-40.
- _____, 1991a, “Sincronía y diacronía de las vocales geminadas vascas”, *ASJU* 14, 615-624.
- _____, 1991b, *Basque Phonology*, Routledge, London-New York.
- _____, 1996, “Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarritz”, *Uztaro* 18, 49-60.
- Huici, V., 1899, *Manual de Gramática Bascongada*, Iruña.
- Hudson, R. A., 1981, *La sociolingüística*, Anagrama, Barcelona.
- Hyman, L., 1981, *Fonología, teoría y análisis*, Paraninfo, Madrid.
- Ibarra, O., 1995, *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*, Nafarroako Gobernua, Iruña.
- _____, 1996, “Erroibarko lexikoaren gainean”, *Euskera* 41/3, 929-973.
- Idoy, M., 1980, “Estudio etnográfico de Izurdiaga I”, *CEEN* 35-36, 301-379.
- _____, 1981a, “Estudio etnográfico de Izurdiaga II”, *CEEN* 37, 43-82.
- _____, 1981b, “Estudio etnográfico de Izurdiaga III”, *CEEN* 38, 157-208.
- Intza, D., 1921, “Naparroko aditz laguntzailea zuketazko esakeran”, *Euskera* II, 3-35; III, 65-91.
- _____, 1922, “Burunda’ko euskalkia”, *Euskera* 3, 3-42.
- _____, 1957, “Larraun eta bere euskalkia”, *Euskera* 2, 91-105.
- Jordan, I., 1967, *Lingüística románica*, Madrid.
- Iribarren, J.M., 1984, *Vocabulario navarro*, Principe de Viana.
- Izagirre, K., 1967, “Altsasuko euskeraren gai batzuk”, *ASJU* 1, 45-97.
- Knörr, H. & Zuazo, K., 1998, *Arabako Euskararen Lekukoak. Ikerketak eta Testuak*, Gasteiz: Eusko Legebiltzarra.
- Knörr, H., 2000, “Astronomy and basque language”, *OXFORD VI & SEAC 99*, Tenerife.
- Kurath, H., 1972, *The Sociocultural Background of Dialects Areas in American English*, Indiana University Press, 3953.
- Labov, W., 1983, *Modelos sociolingüísticos*. Cátedra.
- Landuchio, N., 1958, “Dictionarium Linguae Cantabricae”, *ASJU* 3.
- Larrea, J.M. eta Diez de Ultzurrun, P., 1987, *Nafarroako euskal idazleak I*, Pamiela.
- Maiz, E. & Mundiñano, I., 1998, *Etxarrietatik sakanerara*, Nafarroako Gobernua, Iruña.
- Martinet, A., 1974, *Economía de los cambios fonéticos*. Gredos. Madrid.

- Martínez Celdrán, E., 1984, *Fonética*, Teide, Barcelona.
- _____, 1991, *Fonética experimental: teoría y práctica*, Síntesis, Madrid.
- Mitxelena, K., 1976, “La fragmentación dialectal: conocimientos y conjeturas”, *RSEL*, 309-326.
- _____, 1977, *Fonética Histórica Vasca*, Donostia.
- _____, 1981, “Encuestas lingüísticas en el País Vasco”, *Euskera* 26, 133-146.
- _____, 1985, *Lengua e historia*, Paraninfo, Madrid.
- _____, 1987, *Acentuación alto-navarra*, Palabras y textos UPV, 145-260.
- _____, 1988, “Sobre historia de la lengua vasca”, *ASJU* 10.
- _____, 1991, “De dialectología vasca”, *FLV* 58, 179-202.
- _____, 1992, “Fenómenos de convergencia en la historia de los dialectos vascos”, *FLV* 59, 355-366.
- _____, *Orotariko Euskal Hiztegia*.
- Moutard, N., 1975, “Étude phonologique sur les Dialectes Basques”, *FLV* 19, 5-42; 20, 141-189.
- Mùgica, M. & Euskalerrria Irratia, 1990, *Nafarroako euskaldunen mintzoak I*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- _____, 1993, *Nafarroako euskaldunen mintzoak II*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Nafarroako Gobernua, 1992, *Nafarroako toponimia eta mapagintza VIII*, Iruñea.
- _____, 1993, *Nafarroako toponimia eta mapagintza XII*, Iruñea.
- _____, 1996, *Estatistika Institutua*, Iruñea.
- Navarro Tomás, T., 1925, *Pronunciación guipuzcoana*, Homenaje a Menéndez Pidal, 593-653.
- Olano, M., 1998, *Areso eta Leitzako hizkerak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.
- Olasagarre, J., *Arbizuko euskara*, lan argitaragabea.
- Ondarra, F., 1965, “Voces vascas de Bacaicoa”, *RSVAP* 21, 386-412.
- _____, F., 1982, “Materiales para un estudio comparativo del vascuence de Elcano, Puente la Reina, Olza y Goñi”, *FLV* 39, 133-228.
- Oñederra, M.L., 1986, “Hizkuntzen fonologia”, *Euskera* XXXI, 327-331.
- _____, 1987, *Euskarazko fonologiaren zenbait bilakabidez*, EHU, Bilbo.
- _____, 1990, *Euskal fonologia. Palatalizazio asimilazioa eta hots sinbolismoa*, EHU, Leioa.
- Pagola, R.M., 1984, *Euskalkiz euskalki*, Euskara zerbitzua, Gasteiz.
- _____, 1991, *Dialektologiaren atarian*, Gero, Bilbo.
- _____, 1992, *Euskal Fonetika Nafarroan I-II*, Nafarroako Gobernua.
- Pagola et alii, 1992, *Euskalki literarioak*, Labayru ikastegia.
- Sakanako Mankomunitatea, lan argitaragabea, *Sakana haranaren Plangintza Orokorrerako Txostena*.
- Salaberri, P., 1992, “Toponimia dialektologiaren ikerbide”, *Iker* 7, 619-645.
- _____, 1998, *Arabako mugako nafar hizkeren inguruan*, UEU, 49-88.
- Salaburu, P., 1984, *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia*, EHU, Bilbo.
- Sánchez Carrión, J.M., 1972, “El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970)”, *FLV* 37.
- Sarasola, I., 1984, *Hauta-lanerako euskal hiztegia*. Kutxa, Donostia.
- Satruestegi, J.M., 1971, “Canto ritual del agua en año nuevo”, *FLV* 9, 35-73.

- _____, 1987a, “Textos dialectales en documentos religiosos vascos. Goldaraz”, *FLV* 50, 317-331.
- _____, 1987b, “Textos dialectales en documentos religiosos vascos. Larrainzar”, *FLV* 52, 267-289.
- _____, 1995, “Ultzamako euskal testu argitaragabeak”, *FLV* 70, 525-540.
- _____, 1999, “Arakil aldeko euskara”, *FLV* 81, 343-360.
- Solis, G., 1993, “Lizarragako euskararen azterketa”, *FLV* 25, 95-123.
- Trudgill, P., 1992, “Dialect typology: phonological aspects”, *Iker* 7, 659-667.
- Txillardeggi, 1980, *Euskal fonologia*, Donostia.
- _____, 1996, *Lingua navarrorum*, Egin biblioteca.
- Txillardeggi et alii, 1983, *Euskal dialektologiaren hastapenak*, Iruñea.
- Ulaiar, E., 1983, “Lakuntzako herriak eta Euskaltzaindiak Blas Alegria, euskal idazleari, egiten dioten mendeurrenako gorazarrea”, *Euskera* 28/2, 315-334.
- _____, 1987, “Juan Miguel Gastesiren bi Mayatzeko illabetia: Mariaren illabetia (Marie Santisimeren Devocia) 1850-1854”, *FLV* 49.
- Urkijo, N., *Euskal aditz laguntzailea: zehaztugabea, alokutiboa*, Cryn creativos, Laudio.
- Urquijo, J., 1908-1910, “Cartas escritas por el príncipe L.L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores”, *RIEV* 2, 215-221; 4, 233-297.
- Urrutia, H et alii, 1991, *Fonética vasca. Las sibilantes en los dialectos orientales*, Univ. de Deusto.
- _____, 1995, *Las vocales en euskara*, Univ. de Deusto.
- Videgain, X., 1991, “Lexiaren inguruan euskal herriko atlas linguistikoaren inkestagintzan”, *ASJU*, 1059-1092.
- Yrizar, P., 1981, *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*, Donostia.
- _____, 1991, *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- _____, 1992a, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- _____, 1992b, *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, Euskaltzaindia, Bilbo.
- Zuazo, K., 1987, “Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrerez”, *ASJU*, 927-970.
- _____, 1989a, “Arabako euskara”, *ASJU*, 3-48.
- _____, 1989b, “Zubereraren sailkapenerako”, *ASJU*, 609-650.
- _____, 1995, “Burundako hizkera”, *ASJU*, 297-364.
- _____, 1998a, “Euskalkiak gaur”, *FLV* 78, 191-233.
- _____, 1998b, *Nafarroako euskal hizkerak*, UEU, 1-21.
- Zubiri, J.J. & Perurena, P., 1998, *Goizueta eta Aranoko hizkerak*, Nafarroako Gobernua, Iruñea.